

TXILLARDEGI

EUSKAL AZENTUAZ



EUSKAL LIBURU ETA KANTUEN ARGITALDARIA, S. A.

TXILLARDEGI

EUSKAL AZENTUZ


© ELKAR, S. A. Esterlines, 10 - DONOSTIA

Depósito Legal: NA. 1.180-1984

ISBN 84-7529-224-4

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L.

Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)



A. S. JIRAJITHANA WENTHAN LTD UNOGLI JAKOZ

Aintzin-solas gisa

«*Sobre el Acento Vasco*» deritzon Doktoretza-Tesia izan da liburu honen oinarria (seigarren kapitulua ezik).

Ikerketa-lan horren Zuzendaritza **Joan Mascaró** irakasleak eraman zuen; eta izkribuaren irakurketa 1983-ko Irailaren 15-an gertatu zen. Eta Tribunalak ahobatez «*excel.lent cum laude*» nota eman zion lanari.

Zer esanik ez: Tesia Barcelonan gaztelaniaz aurkeztu zenez gero, eskuartean duzun liburu hau lan haren euskal itzulpena da. Euskaldun ikasleen zerbitzutan birmoldaturik eta argiturik, dena dela; baita Tribunaleko bost irakasleek egindako oharrak kontutan harturik ere, hona hemen testu hura oraingoan osaturik, borobildurik; eta hobeturik ere bai, nik nahi eta espero.

Gure hizkuntz pizkundean baliagarri izango delakoan.

Egileak

Donostia, 1984-ko Urrian

S. Sarrera

- S.0. Zenbait hitz sarrera gisa**
- S.1. Euskal azentua zertan datzan**
- S.2. Euskalkien sailkapena azentuaren arauera**
- S.3. Zenbait dato akustiko**
- S.4. Bi azterketa luze euskal azentuaz**
- S.5. Azentudun silabaren lerraketa eskuinerantz,
Ekialdeko euskalkietan.**
- S.6. Hasperenketaren posizioa**
- S.7. Azentu-unitatearen mugak**
- S.8. Pluralaren bokale bikoitzen bilakaera**
- S.9. Mendebaldeko euskal azentuaren ezaugarri gailen
batzu**
- S.10. Fonologia Metrikoaren erabilgarritasunaz**

S.0. Zenbait hitz sarrera gisa

Euskal Herrian aspaldidanik gertatu da gure hizkuntza nazionala oso gauza harrigarria eta interesgarria dela askok aitortzea. Baina aitorten hori bera ere erdaraz egitea (Etxabe, Larramendi, etab.); eta, hitz batez, gorai patzen den mementu berean euskara egiazki zokoratzea eta baztertzea ez da gaitz berria.

Era berean, eta Zientziari dagokionez, euskara oso harrigarria eta aztergarria dela esan dugu euskaldunok aspaldidanik; baina gure hizkeraren azterketa akustikoak ia-ia jaiokizun daude.

Eta azentuari dagokionez gauza berbera esan daiteke. Orain dela oso urte gutxi arte (Deustuko Unibertsitatea 1983-an hasi baita ikerketa fonetiko-akustikoak egiten), geure herrialdean Laborategirik izan ez dugulako. Frankismoaren urte luzeak, hain zuzen, ez dira oso egokiak izan euskal hizkuntzalaritza bultzatzeko.

Datu-behar hori antzinatik ezagutarazi zuten gure aurreko euskalariak. Pentsa dezagun, esate baterako, Euskaltzaindiak berak, bere jaiotzaz geroztik, Urkixo-ren bidez egin zuen eskabidea. Urteak aurrera joan ziren, ordea, ezer konpondu gabe.

Hots, tresna-bidezko oinarri akustiko hori gabe, nekez aurrera daiteke euskal azentuaren ezagueran.

Jakina ere: ikerketa akustiko hutsak, besterik gabe, ez digu soluzioa ekarriko. Hizkuntzaren munduan pertzepzioa da nagusi. Azterketa fisikoaren bidez aurkitzen diren ñabardurek, esate baterako, berez oso garbiak izanik ere, kasu honetan edo hartan hiztunengan pertzibitzen ez badira, edo hizkuntzan erabilpen-funtziorik ez badute, balio linguistikorik ere ez datxekie mintzaira horretan.

Datu akustikoez *gain*, beraz, azalpen *linguistikoa* eraiki behar da; *datu* fisiko berberak, oso *funtzio* desberdinak izan baititzake (are funtziorik *bat ere ez*) hizkuntzen erabilpenean.

Hala ere, datu fisikoak behar ditugu.

Katearen bi muturrak behar ditugu. Akustikari dagozkion zifrak, bate-tik; baita hizkuntzalaritzari dagozkion irizketak ere.

Pertzepzioaren gailentasuna aitorturik ere, ikertzailearen barne-«pattern» delakoen garrantzia azpimarratu behar da. Eta honetxek azaltzen du, besteak beste, gaztelaniatik euskarara etorri diren ikertzai-

leengandik, «euskarak ez du azenturik» hori horren maiz entzutea. Holmer-ek, esate baterako, gipuzkera eta nafarrera alderatzean, garbiki aipatu zuen desberdintasun-maila hori, eta erants dakizkiokeen okerreriak.

Hitz batez, eta azkeneko aldiz, «belarriz» oinarritutako oharrak eta azterketak gaindutu beharra dago. Liburu honetan barrena agertuko den bezala, alderdi akustiko hutsen aldetik ere, euskal azentuarena arazo zaila baita.

Aurrera egingo badugu, *euskalki guztien* azentu-azterketa egin behar da azkar (eta beharrezko jotzen baldin bada, orain arte pentsatu eta sinetsi den guztia zalantzan jarriz). *Lan monografiko* horiek ugalduz eta zorroztoz joan behar da, informatzaile edo lekukoak ahalik eta eskualderik txikienetan hautatuz; multzo berekoen hizkerak, horretara, ahalik eta moldebakarrenak izan daitezten.

Ahal den neurrian, gai honi buruz munduan barrena argitara den *zientzi-literatura* guztia ezagutu eta erabili behar da (ingelesez agertu dena, bereziki). Eginkizun honek presa handia du, normalean gaur euskaldunak elebidunak direlako; eta geroz eta gehiagotan, erdaraz hobeiki dakitelako. Dagoen diglosi-maila oso azkarra izanik, alderdi bereira datoz interferentzia guztiak: euskal «gramatikak» (Chomsky-ren arauera darabilkigu orain hitz hori) ez dituen erdal erregelak egiten ditugu geure: bai morfo-sintaxian, bai fonetika-fonologian; euskarari dagokion hizkera gero eta arrotzago ematen delarik. Zer esanik ez, fenomeno bera gertatzen da azentuaren sailean; eta erdal azentua nagusitzen ari dela, ikerketa-lan honetan ageriko den bezala, begi-bistan dagoen gertakaria da.

Orain dela urte batzu, hizkuntzalaritzan eskolatutako euskaldun jendea urria zen txit. Orain, berriz, hamarnaka sortzen dira urtero euskaldun hizkuntzalari gazteak. Beroiei dagokie, beraz, azentuaren arazo zail hau aztertzea eta argitzea. Nire liburu honek ikerketa-mota horretara batzu bultzatuko balitu, neure saria hartua dudala sinetsiko nuke.

S.1. Euskal azentua zertan datzan

Luzaroan pentsatu izan da euskarak «ez duela azenturik». Areago, oraindik ere horixe onartzen da ideia nagusizat zenbait euskalari gizarotan.

Hau esateko, ordea, nahasketa larri eta bikoitz bat egin behar da: bai datuen mailan, eta bai ideien mailan ere.

Datuen edo «fakto»en mailako nahasketa bat egin behar da, lehendabizikorik; euskararen beraren alorrean, *oso azentu-desberdintasun* nabarmenak daudelako; eta, hortaz, baiespen orokor gehiegi egiterik ez dagoelako. Bi euskalki desberdinak darabiltzaten bi hiztun aditzea eta

alderatzea baizik ez da behar. Bata gipuzkoarra, Zegamarra eman dezagun; eta bestea, berriz, xiberutarra; Atharraztarra, adibidez. Hizkuntzalaria izan gabe ere, edonork kontura daiteke bion artean dauden desberdintasunez: bai fonetika hutsaren aldetik, bai entzulearengan uzten duten kutsu desberdinaren aldetik ere. Bi hizkuntza dirudite, eta ez bat eta bera.

Baina *kontzeptuen* mailan ere, beste nahasketa larri bat dago. Ia beti, eta gaurtxe arte, *entonazio*-arazoak eta *azentu*-arazoak, nahasi egin dira behin eta berriz (eta ez herri xeheak bakarrik); eta, era berean, *fonetikari* dagozkion gauzak, eta *fonologiari* dagozkionak, zaku berean sartu izan dira.

Nola esan lezake inork, esate baterako, zubereraz azenturik ez dagoenik? Edonork, Uhatzandi-ko inguruetatik etortzean, gauza bera esango luke: silaba batzu besteak baino askoz nabarmenago esaten eta entzuten direla; gaztelaniaz gertatzen denaren arauera. Ondoko unitate hauek, adibidez:

arrollá, Z (= malkorra)

prefósta, Z (= noski)

dударik gabe ahoskatzen dira, behin eta berriz, oxitono eta paroxitono gisa, hurrenkera honetan biok.

Orain dela urte gutxi arte Erronkarin erabiltzen zen euskara-mota entzunez gero, edonork esan zukeen:

egutxá, E (= erreka, sg.)

égia, E (= [é.gja], bi sil., egia, mugagab. «g frikaria»)

gízona, E (= gizona, sg.)

oso garbiki entzun zitezkeela han oxitono, paraxitono eta proparoxitono gisa, hurrenkera horretan; eta beti ere azentua silaba horietantxe zegoelarik, eta ez besteetan.

Zubereraz eta erronkarieraz ukatu ezina zen azentu horren izatea.

S.1.1. Euskalki horietan bakarrik ez, ordea. Gaur oraindik ere euskaraz bizi den Nafarroako euskal eskualdean (Bortzerrieta, Ultzama, Zaraitzu, Baztan bera); eta, era berean, Nafarro-barruan beti, lehenengo karlistada arte euskara mintzatua izan zen Hegoaldeko eremu zabalean, hizkera hura entzun, eta, azenturik erreparatzen ez zela esatea, zinez, sinetsi ezina zen. Hain zuzen ere, Mitxelena-ren hitzak errepikatuz, doinu hura «romance» iruditzen baitzaio entzuleari edo ikertzaileari.

Beste modu batez esanda: «euskaraz azenturik ez dagoela» dion irizpide klasiko hori, inon egia izatekotan, Euskal Herriko *Mendebaldeari buruz* izan bide zitekeen funtsatua (ik. 2. mapa).

Egia da (eta hau ez da inoiz aski azpimarratuko) Europa-ren giroan eta gaurkotasunean bizi izan zen euskal eskualde bakarra, Hegoalde-

koa dela: Araba batetik; eta Nafarroa ere bai, eta bereziki. Bizkaia, Gipuzkoa, eta Ahuñemendiko Hego eta Iparraldeko mazelek, nekazaritzaren aldetik txiroago izanik, interes txikiago izan dute oraintsu arte Ebro-arroko lautada eta ordeka ugariek baino. Agirian daude horren ondorio linguistikoak: Ebro-ranzko isuraldea erdalduna da, hain zuzen; orain dela bi mende Irunberri, Tafalla, Gares, Lizarra, Kanpezu, Langrariz eta Gaubea eskualdeetan beretan (eta Iparralderago zer esanik ez), euskara erabiltzen bazen ere.

Baina hizkuntz ordezkapena burutu baino lehenagoko urteetan, erdal interferentziak nagusitu dira gero eta nabarmenkiago, hizkuntz alor guztietan; eskualde horietako testuak aztertzean ezin garbikiago agertzen den bezala. Eta, jakina, bilakabide berbera aurkitzen da azentuaren alorrean.

Hau egia izan arren, Ekialdean oraintsu arte mintzatuak izan diren euskalkiak hor daude. Ongi xamar ezagutzen ditugu. Eta azentua hor dute, nabarmen.

- S.1.2. «Ekialde»tik at zer, ordea? Hauetan ere, *ukatu ezinezkoa* dirudi azentudun silaben egonak; nahiz-eta lehenengo kolpean azentu hori fisikoki zertan datzan ezin zehazki erantzun. Eta hau ere Guipuzkoako hizkerari buruz ere esan daiteke (Larramendi lekuko, XVIII. mendean; baita beronen jarraitzaileak ere).

Gipuzkoarrek (gipuzkoar argituek bederen) azentu hori somatu izan dute; eta balio fonologikorik izan ez duela esatea ere, arriskugarri gertatzen da.

- S.1.2.1. Argi dezagun hau guztia adibide batzuren bitartez:

Ekialdeko hizkeretan:

Z. gizunék (erg. pl.)	≠	gizúnek (erg. mugg.)
Z. dákik (hik)	≠	dakík (hark, alok.)
NG. egunés (tr. pl.)	≠	egúnes (tr. mugg.)

Mendebaldeko hizkeretan:

B. órrek (pl.)	≠	orrék (erg. sg.)
G. gízonai (d. pl.)	≠	gizóna(r)i (dat. seg)
G. néreak (nom. pl.)	≠	neréak (erg. sg.)

- S.1.3. Badirudi, lehen esandakoari jarraituz, Mendebaldeko hizkeretan («centro-occidentales», Mitxelena-ren hitzaz) azentu-molderik zaharrenak gorde direla, erdal interferentziarik gabe (edo interferentzi mailarik apalenean bederen): bai ahoskeraren fonetikoaren aldetik (erdaraz baino ahoskera lauagoa, berdinagoa); bai azentuaren *lekuaren* aldetik ere. Baina baiestapen hauek ere kontuz hartu behar dira. Zubereraren eta erronkariaren aurkitzen diren azentu ñabardura batzu, dirudienez, oso

aztarna arkaikoak dira; eta oso argi-iturria argitsua azentuaren diakronia ulertzeko.

Euskarari buruz aipatu ohi den azenturik eza, beraz, balio txikiko baiespena da zientziaren aldetik. Eta ia gauza bera esan daiteke, euskalkirik gehienei buruz bederen, azentuaren funtzionaltasunik ezari buruz.

K. Mitxelena-ren eta N. Holmer-en izariko bi hizkuntzalarik beren iritzia argi eta garbi, eta kontrakarrean, eman arte, ordea, betiko leloei eñtsi zaie euskalaritzan: «euskarak ez du azenturik», «euskal azentuak ez du balio fonologikorik», etab. Honen ondorioz ez da azentu-fenomenuetan arreta jarri, eta hau urte luzetan zehar; orain berriro denbora hori irabazterik ez dagoen honetan.

Euskarak, hitz batez, *azentua badu*; eta lehen ere izan zuela dirudi, eta are gaur baino *azkarragoa* ere izan zuela gainera. Zenbait euskalkitan, bestalde, balio *fonologikoa* ere badu; nahiz, normalean, oposizio fonologiko hori azentuaren mailan bakarrik ez gertatu.

S.1.4. Uriel Weinreich-ek «azpi-desberdinketa» eta «gain-desberdinketa» baitaiatu zituen soraiotasun edo hiper-zorroztasun mota horiek ere hartu behar dira kontutan.

Gaztelaniaz, adibidez, herskari gorren mailan ez dago *gor/hasperendu* korrelazioa; eta are gutxiago funtzio fonologiko batez horniturik.

Ingeleseztan hau idatz daiteke:

p → p^h / \$ – V. Eta, beraz:
«pen» → [p^hen]
«cat» → [k^haet]

Gaztelaniaz ez dago horrelako hasperenketa erregularik.

Ingelesetik, beraz, beren erregela gaztelaniari ezartzen diotenean, honela ahoskatzen dituzte gaztelaniazko hitzak:

«perro» → [p^her̄o] (= zakur) (Oraingoz /rr/ horren moldea alde batera uzten dugularik)

Españatarrek, aldiz, ingelesezko hitzak honela ahoskatzen dituzte:

«pen» → [pen] (= luma)

Konturatu gabe, erregela-trukea gertatzen da bi kasuetan; eta horretxek sortzen du «atzerritar» doinua.

S.1.4.0. Horrelakoxe zerbait gertatu zaie euskal «z,s,x» eta «tz,ts,tx» hirukoteei. Euskaldun-berriek lanak izaten dituzte sei fonema horiek ongi berezteko (bai ulerkuntzan, bai hizketan). Eta erdal transkribaketetan (bai Ipar, bai Hegoaldeko dokumentu zaharretan) ongi frogaturik agertzen da «azpi-berezketa» sistematiko hori: txistukari eta afrikatu

gor bana Hegoaldean; afrikaturik ez, eta frikari pare bat Iparraldean. Nola zehazki harrapatuko eta transkribatuko gure sei fonemok? Aski lan, jakina.

Horrelako zerbait gertatzen zaie erdararen hizkuntza-mundutik euskararenera datozei. Alde batetik, «espero» duten azentu-gailentasunik ez dute entzuten; eta, beraz, «azenturik ez dago», esaten digute. Bestetik, berriz, espero duten silaban ez dute hautematen; baina projektatu egiten dute beren «pattern»-aren arauera. (Ikus, honi buruz, 0.1. kap.)

- S.1.4.1. Kontutan hartzekoa bide da, honi buruz, 1982-ko udan burututako Testa (ik. 0.2. kap.). Euskaldunek geure azentuari buruz eskolaturik ez izanik ere, euskal azentuari buruz sendikortasun handiagoa aurkitu zen euskaldun zaharrengan, euskaldun berriengan baino. (Esan beharrik ez: azkeneko hauengan gaztelania zen ama-hizkuntza).

S.2. Euskalkien sailkapena azentuaren arauera

Euskalkien sailkapen tradizionala (zazpi euskalki nagusitan: Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera, Nafarrera, Baxenabarrera, Zuberera eta Erronkaria) Azkue-rengandik datorkigu; eta gaur arte, gutxi gora-behera bederen, euskalariek ontzat eman dute.

Azkue-k, dena dela, Bonaparte printzearen lanetatik hartua zuen; orain dela mende bat hark emandako sailkapena pitin bat aldatuz: bi baxenabarrerak batuz, bi nafarrera garaiak ere batuz, eta erronkaria zubereratik bereziz. Zazpi euskalki, beraz, Azkue-ren ustez; eta ez printzearen zortziak.

Jakina denez, euskal *aditzaren konjugazioaren* arauera egin zuen Bonapartek bere sailkapena; eta normala da, horixe baitzen garai hartako joera. Gaurko irizpidearen arauera, berriz, fonologi alderdiak gutxietsiak izan zirela iruditzen zaigu. Eta azentuaren gorabeherak, bereziki, euskalki nagusien arteko isoglosak finkatzerakoan ez zirela behar adina kontutan izan.

Bonaparte-ren eta Azkue-ren arauerako dialekto-mapak, beste modu batez esateko, ez du euskal azentuaren arauerako mapa marrazteko balio.

- S.2.1. *Mitxelena-k* proposatu du (Bol. Sem. J. Urquijo, 1972) azentuaren arauerako lehendabiziko euskalki-sailkapena. Eta, gaur mintzatuak diren euskalkien artean, lau multzo berezi ditu: «Tipo I» delakoa, «Tipo II» delakoa, «Tipo III» delakoa, eta «Tipo IV» delakoa, azkenik.

«Tipo I» bataiatutakoa da gaur erabiliena; eta azpi-multzo batzutan zatiturik dago. Bizkaiera, Gipuzkera eta Lapurtera biltzen ditu; baita Mendebaldeko Baxenabarrera, eta Gipuzkoa ondoko Nafarrera garaia

ere. Gaur zabalduena izanik ere, azentu laua da, berdin-airea; eta ulertzen eta azaltzen ere zailena.

«Tipo II» izenekoa, berriz, askoz ere nabarmenagoa da. Zuberera biltzen du (baita Ekialdeko Baxenabarrera ere) Iparraldean; eta gaur mintzatua ez den Erronkaria, mendikatearen Hegoaldean. Funtsean paroxitonoa da II honen azentu-sistema (Erronkarieraz, Zubereraz bezain garbi hori ikusten ez delarik); eta, bokale-laburketaren ondorioz, oxitono askotxo aurkitzen da.

«Tipo III» delakoan (oro har, Hego-Nafarrera motez osatua) azentudun silaba, aisa berez daiteke azentudun silaba, Nafarroa-ko hizkerarik gehienetan bezala (Mendebaldean ez izatekotan). II-an bezalaxe, paroxitonia da azentuketa nagusia.

«Tipo IV» deritzon azentu-moldea, berriz, Nafarroa-ko eskualde txiki batetan baizik ez erabilia (Bortzerrietan, Bidasoa behean), nabarmen xamarra da, azkar xamarra, alegia. Azentudun silaba nagusia (+2) da (alegia, ezkerraldetik bigarrena).

S.2.2. Baldirudi lau azentu-eredu horiek *bitara* bil daitezkeela.

Lehenengoa, hemen «W» bataiatua (Mendebaldekoa), gutxi gora behera Mitxelena-ren I eta IV-ek osatua litzateke. Eta beronen azentu-joera nagusia hau izango litzateke: azentu-unitatearen ezkerraldetik hasi, eta azentua (+2) silaban jartzea. Hizkerarik gehienetan, multzo zabal honi gagozkiolarik, hiru silabatako unitateetan bederen (+1); eta ez-markatua, berriz, (+2) beraz, singularra.

Bigarrena, berriz, hemen «E» bataiatua (Ekialdekoa), II eta III ereduak osatua litzateke. Azentu nagusia, (-2) litzateke multzo honetan; eta unitate markatuak, berriz, (-1) delakoak; oxitonoak, alegia. Plurala, beraz, markatua litzateke berriro; nahiz marka hori beste bide batez egina. Eta singularra, berriz ere, ez-markatua; eta (-2), beraz.


Beraz:

W		
(-M)	(+2)	(sg)
(+M)	(+1)	(pl)

E		
(-M)	(-2)	(sg)
(+M)	(-1)	(pl)

Bi sistemen simetria hau harrigarria da; eta oso kontutan hartzekoa. Nahiz-eta, xehetasunetara pasatzean, taula ximple hori askoz ere korapilotsuago bihurtuko.

S.2.2.1. Hori dela bide, mapa hau lortzen dugu:



S.2.3. Bi azentu-mota desberdin horietan finkatuz, dena dela, ondorio berbera gertatzen da askotan (ez beti) kate mintzatuaren mailan. Adibidez:

«mendia» = [men.di.a] (3 silaba; normalena)

Unitate hori markatu-gabea baldin bada (-M), W sisteman hau dugu:

(+2) **mendia**

eta E sisteman:

(-2) **mendía**

Askotan, edozein sistematan dituzkegu sekuentzia berak:

«iturri»	(W)	(+2)	itúrri
		(E)	(-2)	itúrri
«badakit», baiaspina (-M):					
		(W)	(+2)	badákit
		(E)	(-2)	badákit

S.2.3.1. Lau silabatako unitateetan, noski, etendura agiri da bi sistemen artean:

«iturri» (W) (+2) **itúrrià**

(E) (-2) **iturrià**

«eztakite» (W) (+2) **eztákitè**

(E) (-2) **eztakité**

S.2.3.2. Beste oinarri funtsezko batzu ere, berberak dira euskalki guztietan barrena:

- a) *Klitikoen* zerrenda.
- b) *Unitate markatu*en zerrenda.
- c) Galderazko edo zerrendaketazko entonazioan, *oxitonoak* agertzea.
- d) *Azentu-unitatearen* mugak.
- e) Deklinabidean barreneko *paradigmatasuna*.

Bi euskalki-multzo zabal horiek sortu dituen azentu-etendurak, beraz, ez ditu bi erdiak (alegia, I + IV; eta II + III) erabat bestelakotu edo etsaitu; nahiz lehenengo begi-ukaldian, hori pentsatu ahal izan.

S.3. **Zenbait datu akustiko**

Oraingoz, euskal azentuari dagokionez, dauzkagun datu fonetikoak (eta are gutxiago, datu akustiko hutsei dagokienez), oso urri dira. Hizketa arruntean jasotako unitateetan gero neurtutako datuak, are urriago. Hitz bakanetan bildutako datuak, jakina denez, ez dira beti oso fidagarriak; eta bai artifizialak, eskuarki.

Intentsitateaz eta iraupenaz dauzkagun datuak, azkenekorik, hutsaren hurrena dira.

Gaur-gaurkoz, *tonu-mailari* edo *musika-maiztasunari* dagozkio datu akustiko eta zenbakitu guztiak. Zubererari buruz, J. Larrasketa-ren datuak dauzkagu; Gipuzkerari eta Bizkaierari buruz, T. Navarro Tomás-enak. Osoki zenbakiturik ez dauden datu batzu ere badaukagu, era berean. K. Izagirrek zenbait gipuzkera eta nafarrera motaz bilduak; eta liburu honetan Arratia-ko hizkeraz egileak aztertutako datu akustiko batzu ere argitaratzen dira.

Ondorio seguru bat behintzat atera daiteke horretatik guztitik: euskal azentua, baita euskalkirik markatuenetan ere (Zubereran, eman dezagun), gaztelania baino askoz ere lauago edo berdinago dela.

(Ikus, honi buruz, 1.1. kapitulua)

S.4. **Bi azterketa luze euskal azentuaz**

Nahiz Mitxelena-ren «A propos de l'accent basque» artikulua 1958-koa izan (Bull. de la Soc. Ling. Paris), hauxe da oraindik ere euskal azentuari buruz idatzi den laburtzapenik onena.

Luzeago dira, halere, Altube-ren eta Basterretxea-ren lanak. Eta sarre-ra-aipamen bat bederen merezi dute (zehazkiago hau ezagutu nahi izanez gero, ikus 4.2. eta 4.3. kap.).

- S.4.1. Sebero Altube-ren liburuari «El Acento Vasco» deritzo (Bermeo, 1932). Idazpuruaren aurka, halere, areago aztertu zituen Altube-k *entonazioari* buruzko gorabeherak, azentuzkoak baino.

Berak erabiltzen zuen hizkera-motan dauden azentu-desberdintasun nabarmenei ez-entzuna eginez, *intentsitatearen* aldetik euskal hitzak «isotonoak» direla defenditu zuen (hitza oso desegokia da; «tonu» hitzak maiztasunak gogoratzen baititu, eta ez intentsitateak). *Maiztasunen* aldetik, berriz, normalean bederen, «podatus» delakoaren orokortasuna azpimarratu zuen: edozein unitatetan, maiztasun-*emendio* txiki bat nabaitzen da lehenengo silabatik bigarrenera, Altube-ren ustez.

Gure modura esanda, Altube-ri intentsitatea ez zaio pisudun agertzen. Baina maiztasunen izarian, normalean, azentu hori, musikala alegia, (+2) silabak daramala uste zuen. (Mendebaldeko euskalkietan bederen).

Edozein azentu-unitatetan, beraz, intentsitateen mailan azenturik ez; eta maiztasunenean, azentu-eskema edo hegi *berbera* izango dugu beti euskaraz.

- S.4.2. Intentsitatea eta tonu-goratasuna erabat berezten zituen Altubek. Gaurko ikertzaileek bestela pentsatzen dute: biok batera, eta «en vrac» igo eta jaitsi ohi direla. Eta estatistikoki hitz eginez, hiru izariak (maiztasuna, intentsitatea, iraupena) bateratsu azkartu (edo-ta ahuldu) ohi direla.

- S.4.3. Altube-k, beste alde batetik, ohar ugari eta zehatzak egin zituen euskal *entonazioa* eta euskal *sintaxia* lotzen dituen harremanei buruz. Nahiz, berak, «azentu» hitza aipatu, «entonazio» hitza aipatu beharrean.

Erabili zuen hiztegia (gregoriar kantutik mailegatua) oso zaila da; eta atzeratu egiten du irakurlea. Oro har, dena dela, ohar zehatzak dira Altube-renak; eta liburu osoki probetxugarri gertatzen da.

- S.4.4. Liburu osoa ez bada ere, lan luzea eta zehatza da J. Basterretxea-rena (Fontes L.V., «Estudios sobre las entonación vasca según el habla de Guernica»).

Altube-k baino hiztegi errazagoa erabili du Basterretxeak; eta, beraz, aisago segi dezake irakurleak. Berrito ere, idazpuruak idarokitzen duenaz bestaldera, Basterretxeak *Bizkaieraren* azentua du aztergai nagusizat, eta ez entonazioa. Baina egiten dituen oharra, ongi jasoak dira; eta gozoan hartzekoak.

Altube-ren ondorio nagusiak bere eginez (eta zenbait aldiz beroiek ñabartuz ere bai), Basterretxea-k ere hau uste du: gaurko Bizkaieraz, joera nabarmen dagoela (+2) *silaba* azpimarratzeko. Hots, joera hau, dio,

gaztelanian dagoen joeraren aurkakoa da zehazki: simetrikoa, hain zuzen. (+2) *euskaraz*, (-2) *gaztelaniaz*.

Leku-izenen ahoskuntzan agertzen bide dira garbikienik elkarren kontrako joera horiek (euskarazkoetan, nahiz erdarazkoetan), ondoko bikote hauetan ikus daitekeenez:

eusk. **Bartzélona** / esp. **Barcelóna**
Abádiño / **Abadiáno**

- S.4.5. Lehenago Azkuek eta Mitxelenak bezala, Basterretxeak ere ongi daki unitate batzu *markatuak* direla euskaraz, joera nagusitik atekoak: (+1) azentukoak, berak «protótono» deituak). Beroien zerrenda bat eskainiz.

Bizkaieraren berezgarri jator gisa aurkezten du, era berean, *singular-plural* dikotomia.

singularra: tonua *zuzen*, errara, eskuineranzko erorketarik gabe.

plurala: tonua *behera* eskuin alderantz.

Beste ikertzailek ere ohar bera egina dute Mendebaldeko azentuari buruz (Larramendi barne): *singularra*, normala; *plurala*, *markatua*.

Ohar zuzenak ere Basterretxea-renak *ba* partikulari buruz: *baldintzazkoa denean*, *azentuduna*; *baiespenezkoa denean*, berriz, *proklitikoa*. (Erabat ondoko bi erderen aurka, bidenabar esateko).

Formulazio garbirik ez badakar ere, orokortu egiten du bikoiztasun horretatik soma litekeen oharra; eta galdegaia edo «focus»-en lekunean doan *edozein* silababakarri berdin gertatzen zaiola idarokitzen du. Larramendi-k ere, egia esan, honelakoxe zerbait somatu zuen; bere garai-ko euskalarien aitzinetik, are gerokoen aitzinetik ere.

Basterretxea-k, hitz batez, maiztasunen arauerako *tonu-azentuketa* aurkitu uste du fenomeno nagusitzat; (+2) joeraren garrantzia azpimarratuz. Proklitiko silababakarren ugaritasuna kontutan harturik (baiezatzeko *ba-* eta ukatzeko *ez-* aurrizkien maiztasuna lekuko), Mendebaldeko euskalkietan (+2) silabaren azentutuketaren joera oso azkarra dela pentsa daiteke.

- S.4.6. N. Holmer-en oharren balioa baiesten du Basterretxea-k, beraz. Gaztelaniazko *sí, losé / no, losé* esakuntzen oposiziotan ditugu, hortaz, euskarazko **badákit / eztákit** kideak. Bi hauetan, gaztelaniaz gertatzen denaz bestaldera, **ba-** eta **ez-** proklitiko hutsak izanik, azentu-unitatea *bakarra* da, nahiz erdaraz *bi azentu* (eta *bi azentu unitate*) izan.

Ohar hau, ordea, *edozein* foko monosilabikori ezar dakioko: **hau, hor, han, zer, nor**, etab... Adib.: **zerdáukak?, hordúzu**.

Honek, noski, Mendebaldeko azentukera azaltzerakoan, ikuspundu *fonologiko* batetarantz garamatza; eta, batera, ikuspundu *sintaktikoeta-*

tik urruntzen. Arazoa, dirudienez, *lekune*-kontua da, *posizio*-arazo hutsa: aditz trinkoaren ezkerretan egon daitekeen *edozein silababakarek* dakar ondorio berbera.

Entonaziozko goraberak, alderantziz, *sintaxiari* datxezkio; nahiz, jakina, azken buruan, azentu-ondorioak ekarri ahal izan.

S.5. **Azentudun silabaren lerraketa eskuinerantz Ekialdeko euskalkietan.**

Hizkuntzalaritzaren giro eskolatuetan Fonologia Metrikoak gaur arteko azentu-teoriak argitu dituela, are gaintitu ere, uste dute gehienek. Chomsky-Halle-ren «ziklo»a bereziki.

Hots: teoria berri horretan *oina* da oinarritzko azentu-unitatea. Normalean bi silaba izan ohi ditu «oin» horrek; nahiz-eta, zenbait kasutan, silaba bakarrekoa izan badaiteke ere, edo-ta hirutakoa.

Beste modu batez esanda, oso maiz gertatzen da, munduan barrena, kate mintzatuan silaba azkarren eta ahulen segida bat aurkitzea, txandaketa hertsian: LSLSLS, etab.

S.5.1. Gauza segurua da, bestalde, Holmer-ek aspaldidanik xuxen oharrerazi zuen bezalaxe, *euskal* kate mintzatuan ere badagoela azentu-txandaketa hori. Hain zuzen ere, txandakako silaba azkar horien segidak ekarri ditu *desbideraketa urrunkorrak* Ekialdeko hizkeretan (ikus, bereziki, liburu honetako 5.1. eta 5.4. kapituluak).

Mendebaldeko euskalkiek, jatorritzko joerari eutsi diote: alegia, azentu nagusiaz (+1) eta (+2) silabak besterik ez markatzea; nahiz, oinarritzko silaba azentudun horren eskuin aldean, azentu bigarrenkariak (edo oihartzunezko azentuak) agertu ahal izan:

(+2); eta, beraz, (+4), (+6), etab.

(+1); eta, beraz, (+3), (+5), etab.

Azentu *bigarrenkari*ei dagokienez, dena dela, joera handia dago, Mendebaldeko hizkeretan, (-1) silabak, *azkenekoak* beraz, oihartzunezko azentua hartzeko; eskuin aldeko azken oinak, horretara, bi *edo hiru* silaba dituelarik. Baina ez silaba *bat*, jakina, txandaketa nolabait salbatzeko.

Adibidez (sail *mugagabe*an) (eta ereductako batetan):

étxerik	→	étxerik
étxez		
étxetako	→	étxetakò
étxetara	→	étxetarà

étxe-ri dagokion sailean, (-1) azentu bigarrenkaria nolabait markatzen delarik.

Gauza bertsua gertatzen da *singularrean*:

etxéa

etxéko

etxéra, etab. (bigarrenkaririk gabe, txandaketaren gatik) baina, txandaketa posible denean:

etxérainò

Eta *pluralean*, edo bigarrenkaririk batere gabe; edo-ta:

étxeàk

étxeètakò

étxeetàn

étxeètarainò, etab.

S.5.2. *Ekialdeko euskalkiek*, aldiz, J. Lizarraga-ren Hego-nafarrera motan ezin argiroago aurki daitekeenez (ikus 5.2. kap.), *eskuineranzko lerraketa* hori onartu dute; hastapenean oihartzun gisa jasorik, azken buruan unitateko azentu *nagusia* bihurtu arte.

Ikústeko unitatean, adibidez, urrats hauek ditugu:

ikústeko // ikústekò // ikústekó // ikustekó

Lerraketa honek, beraz, oxitono asko sor dezake. Oxitono horiei ohizko paroxitonoak erasten bazaizkio, bien elkarketak gaztelani-kutsu nabarmeneko itxura ematen dio hizkerari. (Horrelakoxe zerbait gertatu zaio zubererari).

Beste ohar funtsezko bat. Nafarrera-garaiaz (ikus 5.1. eta 5.2. kap.), *mugagabeak* inposatzen du unitatearen azentu-moldea; eta hau eskuin muturreko segmentuaren fonologi-egituaren arauera. Baita unitate hori oso luzea denean ere:

emakúme, (+3) [= (-2)]

aberáts, (+3) [= (-1)]

unibetsitátea, (+5) [= (-2)]

ortotserántsi, (+4) [= (-2)]

Antzeko oharrak egin daitezke zubererari buruz.

S.5.3. Hots, aztarren seguru batzuk idarokitzen dutenez (zubereraren bilakae-ran, batez ere), *eskuineranzko lerraketa* hau: a) gertakari *berria* da; eta, b) *auzo-hizkuntzetatik* kutsatu den interferentzia da, itxuraz.

Hain zuzen ere, *lerraketa* honek, batetik; eta pluralaren deklinabideko *bokale bikoitzen* eboluzio desberdinak, azaltzen dute, hain zuzen,

Mendebaldeko eta Ekialdeko euskalkien artean sortu den azentu-desberdintasuna.

S.6. **Hasperenketaren posizioa**

Gauza ezaguna da: bai euskaraz, bai beste hizkuntzatan ere, lotura bat dago azentuaren eta hasperenketaren artean: bai bera soilik gertatzen denean, bokale aurrean alegia; bai herskari gorrak hasperenduz. Fenomenoak erabat laburbilduz hau esan daiteke; etimologi-arrazoi hutsek idaroki zezaketenaz bestaldera, korrelazio hertsia dagoela.

Goazen atalka.

S.6.1. Hona hemen adibide ezinago garden batzu. Berauetan hasperenketak azentu-unitatean daukan *posizioak* ez bestek azal dezake fenomenoak:

lan + egin ...	Z, lanhég in
on + asun ...	onhasun (G. ontasun(ak))
gai + erdi ...	Z, gaihér di (gauerdi)
sat- + ütsü ...	Z, sathütsü (= sagu itsu)

Agiri denez, eskuin aldeko osagaiek beren jatorriz ez dute hasperenketarik; baina hitz-elkarketa horietan, hasperendurik agertzen dira.

S.6.1.1. Lau bikote horietan, halere, hasperenketa daraman silaba (+2) eta (-2) da batera; eta egoera bi azentu sistemen arauera azal daiteke.

Ezin zalantza bera izan, ordea, ondoko bikote hauetaz:

Z. gaihérdi / **egüér**di
ühárt(e) / **üthürrárt**(e)

Eskuineko unitateen azentu-moldea berria da.

Beste askotan ere, *gaurko* azentuketaren eta hasperenketaren artean ez dago loturarik. Eta, hortaz, bi hipotesi hauen artean hautatu behar da; edo egia da azkeneko mendeetan zubererazko azentua *eskuin* aldera mogitu dela; edo-ta, bestela, hasperenketa eta azentua loturagabeak dira elkarrekiko. Bigarren hipotesi hau behin eta berriz faltsu agertzen denez, lehendabizikoa baizik ez da gelditzen.

Hots, liburu honetan barrena erakusten denez (ikus 2.1 kap.), Intxauspe (XIX) eta Larrasketa (XX)-ren izkribuak alderatzen direnean, analogiaren poderioz, eskuin alderako mogimendu hori gertatzen ari dela garbi dago.

Hori dela-ta, hau esan behar da: *oraingo* zubererazko azentuketa, berri antxa dela; eta (+2) eredia (-2) eredia baino zaharrago dela.

S.6.2. Era berean, hona hemen bi bikote hauek:

géla / gelhári
máñu / mañhátü

Berriro ere, hasperenketa posizioaren ondorio agertzen da, eta ez etimologiarena.

S.6.2.1. Alderantziz orain, beste zenbait erakarketatan gertatzen diren baterako hasperenketek eta deshasperenketek, *posizioan* dute iturburua, eta ez etimologian:

haur + ide **aurhíde**
hun + etsi **unhétsi**

S.6.2.2. Adierazgarria da, era berean, silaba *bakarra* duten hitzak, *bokalez edo herskari gorrez* hasten direnean (alegia, hasperenketa biltzeko gai direnean) hasperenketa dagoen euskalkietan gehienetan, hasperendun gertatzea:

har, hor, hotz, hartz, etab.; phitz, thu, khe, etab.

Honen arauera, silababakar guztiak *markatuak* ote diren soma daiteke; nahi-eta arrazoi sintaktikoengatik, proklitiko gisa gertatzean, bai azentu hori (eta bai datxekion hasperenketa ere) *galdu* ahal izatea.

Gauza bera hitz-elkarketan ezkerreko osagai gertatzean. Gogoan har, honi buruz, lehengo *aurhíde, unhétsi* delakoak. Baina maizago, jakina, bigarren pertsonako aditz laguntzaileari dagozkion adizkiak: *haiz, hau, haut* etab.; klitiko gisa, *aiz, au, aut*, etab. bihurtuak.

Osoki adierazgarria, honi buruz, *ez* ezezpena. Adberbio gisa, hasperengabea da; beroren proklitikotasuna agirian geratzen delarik. *Hez* aditza, aldiz (hezi, nobait, *ez* esatea delarik, ukatzea alegia, etimologiaren arauera) hasperendua da; ez baita horretara klitiko gisa erabiltzen.

Beste modu batez esanda: (+2) posizioan datorren hasperenketa, desagertu egin daiteke beste posiziotan; eta (+1) posizioan oso bereziki. Azentu-posizioaren diakronia argitzerakoan, oso kontutan hartzekoa baita.

S.6.3. Era berean, askotan azpimarratua izan denez, gauza ezinago garbia da hau: (-*au*), (-*oi*) eta -*a* hiru euskal artikulua (hiruotan hirugarrena bakarrik osoki bizirik gaurko hizkuntzan; eta, hori dela bide, parentesi artean jarri ditugu beste biak), *hau, hori, hura* adjektibo erakusleen forma higatuak baizik ez dira. Gogoan har, honi buruz, Ekialdeko zenbait euskalkitan, herskari gisa agertzen dela lehenengo segmentua, gor edo ozen gisa: *kau / gau*, etab.

Artikulu horiek (eta singularrekoak bereziki; pluralaren lotura berria agertzen denez gero) izen-ardatzari erastean, eta beronekin azentu-

unitate bakarra sortzean, posizio hauetan gertatzen dira: (+2), (+3), etab. Alegia, eskuarki (+3), (+4), etab. posiziotan; eta (+2)-tik gorago-koak beti. Hots, Mendebaldeko euskalkiei gagozkielarik, azentuztatu ezinak dira silaba horiek; Ekialdekoetan, aldiz, azentugarri direlarik. Elemendu horien higadura (edo-ta ez-higadura) azentuari bide datzekio. Lizarraga-ren grafia bitxia, beraz, (**echegáu**, adibidez, hitz bakarrean) ez da batere harritzekoa.

Mendebaleko euskalkietan, itzuletara, *h-*, *g-* edo *k-* horien arrastorik aurkitzen ez dugularik, posizio horietan, normalean batez ere, azenturik ezin gotea hartu behar bide da kontutan.

- S.6.3.1. Bide beretik, eta gorago ere azpimarratu dugunez, *hi* bigarren pertsonari datxezkion aditz laguntzaileek, *batzutan* galtzen dute hasperenketari; nahiz *ez beti*. Zergatik? Adibidez:

jin hiz	Z. jíniz
izan hiz	Z. izániz

hasperenketarik gabe. Baina, hizkera berean, hauek ere bai:

ez hiz hi	éhiz hi
maite beiti hai	máite behái (= maite baihau)

- S.6.4. Erabat argigarri gertatzen da, era berean, mailebu zaharretan herskari gorrek jasan duten bilakaera:

eusk. phárte	esp. párte
thórpe	tórpe
thúnba	túmbe
khántu	cánto

baina, alderantziz:

eusk. parropia	esp. parróquia
bórtu	cantón
kantú	puérto

azentua ez daramaten erdal silabetan, euskarazko kideetan hasperenketarik agertu ez delarik.

- S.6.5. Oso antzekoa da euskaldundutako mailebuetan eta urkari ondoren, hasperenketari buruz aurkitzen duguna:

eusk. ũnhú	fr. ognon
sanho	esp. sano
bilho	pelo, vello
zeinhu	signo

/h/-a sistematikoki (+2) silaban agertuz; baita, batzutan, etimologiaz legoliokeen azentu zaharraren kontra ere.

Hitz batez, hau baiets daiteke:

- ez dela hasperenketarik gertatzen, (+1) eta (+2) posizioetan baizik;
- hasperenketaren eta azentuaren artean (zaharra delarik batez ere) korrelazio hertsia dagoela, bai sortzerakoan bai desagertzerakoan.

S.6.6. Hori guztia dela bide, eta berriro ere, baina oraingoan ikusgundu berri honetatik, hau postula bide daiteke: euskarazko *azentu nagusia*, euskalkirik gehienetan, (+1) eta (+2) silabetatik at ez dela gertatzen.

S.6.7. Bizkaiera zaharrean bederen (are oraingoan ere: ikus 4.2)-*tzen* aditz-atzizkiak erakusten duen bitasuna oso adierazgarria da:

biltzéen (ik. **bil**)

artzéen (ik. **ar**)

astéen (ik. **as**)

sartzéen (ik. **sar**)

eta geminazioa (+2) silaban agertzen da, beti ere erro silababakarren ondoren.

Baina, bestetik, sail hau ere badugu:

jáikiten (ik. **jáiki**)

jáixoten (ik. **jáixo**)

esáten (ik. **esán**)

botáten (ik. **bóta**)

eta (+3) silaban geminazioriz ez.

Euskaraz *kantitatea* eta *azentua* modu desberdinetan, baina loturik, agertzen direnez gero (ik. 2.5.), eta ez Ekialdeko euskalkietan soilki, normala da geminazio hori azentuarekin lotzea. Berriro ere *morfologi elemendu berberak* bi forma desberdin aurkezten ditu, posizioaren arauera: bata, (+2) posizioan, azkarra da; bestea, berriz, (+3), (+4), posizioetan, ahula da. Bestela esanda: berriro ere, (+2) posizioa *markatu* gisa azaltzen zaigu.


S.7. Azentu-unitatearen muga

Euskaraz oso arruntak dira sandhi fenomenak; alegia, usu gertatzen dira. Fenomeno honen adibiderik klasikoena, hauxe da: *bi trabakari-
ren elkarketan*, eta ozentasunari dagokionez, *asimilazio aurrerakaria*

dugu: eskuineko ozena, ezkerreko fonema gorraren eraginez, gortu egiten da.

<i>ez + dakit</i>	eztákit
<i>hotz + bera</i>	hozpéra
<i>bat + bere</i>	bápere

Legea, ageri denez, hau da:



Baina sandhi hori benetan obra dadin hauxe da baldintza: azentu-unitate bakar bat izatea, tarteko pausarik gabe (alegia, bi parteen artean (+) muga posible izanik; baina ez (#) delakoa).

Orain dela urte asko erreparatu zuen hau Azkue-k (Fonét. Vasca, I Congr. Est. V., 456 etab.)

- S.7.1. Hots: ezin argigarriago izan daiteke honi buruz, hizkuntza mintzatuan, gertatu dena ikertzea; eta, hitz batez, unitate *bakar* bat, ala *biga*, ote daudenez erabakitzea. Unitate bakar bat baldin badago, bete egiten dira lege fonologikoak, eta (+) mugaren aurrean gaude. Bestela, alderantziz, (#) muga dagoela pentsatzeko arrazoia genuke.

Ikus ditzagun adibide batzu:

- a) *trabakari arteko asimilazioa*

<i>ez + dakit</i>	eztákit
baina: <i>buruz # behera</i>	* buruzpera

- b) *i-ren ondoko bustikuntza* (euskalki batzutan)

<i>etorri + ta</i>	etórritta
baina, <i>bi # lerro</i>	* billérro

- c) *bokale-harmonia* (euskalki batzutan)

<i>gau + a</i>	gáue
baina <i>lau # gazte</i>	* laugézte

- d) *sudurkari ondoko ozenketa* (euskalki askotan)

<i>han + ko</i>	hángo
baina, <i>fin # tasun</i>	* findásun

(gramatiken aurka hau, beraz, *tasun* ez baita atzizki gisa agertzen).

- S.7.2. Elkarketa horien ikerkuntza oso adierazgarria da; ikerbide horrek, denaz gain, euskalki guztietan barrena, *kliitiko zerrenda berbera* erakus-

ten duelako (edo-ta, bestela esanda, azentu-unitate berberera eramaten duelako; ik. 3.1. eta 3.2. kapituluak batez ere).

Ondoko hau ondoriozta daiteke garbiki, adibidez:

1/ **ez**-ezespena, benetako proklitiko delá; eta eskuin aldean biltzen dituen aditzen haserako kontsonantea gortzen duela; **bait**- amore-imatekoak bezalaxe.

Gauza garbia da, eta beste bidetatik ere baietsirik gertatzen da, **ba**-baiespenezko partikula ere, proklitiko delá.

2/ atzizkitzat hartu ohi diren **tásun**, **tár**, **gábe**, **gárren**, **arázi**, **gátik**, etab. ez direla atzizkiak; hitz-elkartetazko bigarren osagaiak baizik (**kálte**, eman dezagun, **etxékaltè** unitaten den bezala). Egia da, halere, gramatikuntza prozesuan abiatuak direla denok. Baina, berez, azentu nagusi autonomoa dagokie. (Eta halakoa dute oraindik, hein batez).

Hau dela-ta, bokale-harmonia duten euskalkietan beretan ere, ondoko forma hauek ditugu: **anditasuna**, **beteluarra**, **dirugabea**, **zortzigarrena**, etab.; nahiz-eta euskalki horietxetan, beharbada, haseran bikuna zen azentu hura, lexikalizazioa dela-ta, urtu eta desagertua izan.

3/ **Azentu-unitatearen beste muturrean, berriz, silabakar enklitiko** agertzen zaigu **bat** delakoa; eta hori dela-ta, bokale-harmonikuntza, gorketa, eta abar, jasaten ditu:

mendi + bat **mendíbet**
hitz + bat **hízpat**

Berezkuntza bat, halere: benetako zenbakari gisa erabiltzen denean, elemendu markatua da; eta azentu-autonomiari eusten dio:

milloi ≠ bat **millói bát**

Ñabardura hau, dena delá, biziki nahasirik aurkitzen dugu euskalkirik gehienetan.

4/ **da** laguntzailea, grafia ofizialaren aurka, enklitiko delá osoki (beste elemendu silababakar batzu bezala, diptongodunak ez badira batez ere); eta, halakotzat, gorraren ondoko gorketa gertatzen zaio, harmonikuntza (hau dagoen hizkeretan), eta abar:

asi + da **áside**
sartu + da **sártude**
ez + da **eztá**

Gauza bertsua gertatzen zaie **-ta** eta **-la** partikulei:

busti + ta **bustítte**
digu + la **digúle**

S.7.3. Egia esan, aurrerago joan daiteke euskal klitizazioaren azalpenean barrera.

Has gaitzen *proklitiko*en azterketatik.

Badirudi *edozein silababakar*, halakoa izateagatik azentuduna (nahiz egiazko M+I markatua ez izan), azentu-unitatean (+1) posizioan gertatuz gero (bai aditz finito baten aurrean joatea gatik, *galdegaia* delako; bai izen-aurreko zehaztaile gisa), *proklitiko* bihurtzen dela.

Funtsean, **ba-** eta **ez-** adberbioei ere ezar dakieke hau, ez baitira inoiz aditz finitoaren ezkerretan azentuztatzen. Baina berez doazenean:

bái, hála da
éz, gezúrra da

azentua badute.

Egia esan, aurrizki klitiko gisa erabiltzen direnean, forma higuak darabiltzagu:

ba > **bái** (*bae)
ez < **éz** (lehengo eze)

Ondoko hiru kasu hauek, beraz, osoki dira berak:

<i>éz</i> # <i>díra</i>	<i>ez</i> + <i>díra</i>	eztíra
<i>bá</i> # <i>dákit</i>	<i>ba</i> + <i>dákit</i>	badákit
<i>bóst</i> # <i>órdu</i>	<i>bost</i> + <i>órdu</i>	bostórdu

Eta, Zwicky/Klavans-en bidetik, eta (#) mugari dagokionez, hau idatz dezakegu:

$$\# \longrightarrow + \int \sigma_1 - \sigma_2$$

Bide beretik, beste hau ere esan dezakegu: gramatika-kategoria honi edo hari atxekirik ere, *edozein silababakarrerak*, garbiki markatua ez den ber, (+1) posizioan gertatzekotan, bere azentua galtzen duela, eta proklitiko bihurtzen.

Oso harrigarria da, dena dela, baldintzazko **bá-** partikula, (+1) posizioan klitiko ez bihurtzea; eta silababiko baten laburdura ez ote den galdetzeko arrazoiak badaude.

Badirudi, beraz, euskaraz ez dagoela proklitiko sakon eta azentuztatu ezinik; baizik-eta *azaleko* eta *posizioaren* arauerako proklitikoak bakarrik.

S.7.4. Enklitikoiei dagokienez, berriz, egoera aldatu egiten da.

Hauek soilik erabil badaitezke ere (proklitikoetz bestaldera, beraz), eta berez azenturik ez izanik, *azentua jasan dezakete*; oihartzun-azentua

delarik, jakina, azentu-unitateen ondoko silaba bikotxietan gertatzen denaren arauera; edo-ta azkeneko silaba izatea gatik.

Bitxikeria baten aurrean gaude, beraz: silababakerrek (+1) posizioan beren berezko azentua galtzen dute; enklitikoek, berriz, azentugabeko partikulak izanik ere, bat bil dezakete. Bi kasuotan, hitz batez, *posizioak* du munta; eta ez beste ezerk.

S.8. Pluraleko bokale bikoitzen bilakaera

Azentu-unitatearen eskuin aldean egondako hiato edo bokale bikoitzen bilakaera, desberdinkorra da hain zuzen; eta «azentu-zisma»ri datzekion giltzarrietako bat. Fenomenoak bi eskualde nagusitan erdi-bitu ditu euskararen erabil-alorra: mendabaltarra bata, hemen «W» bataiatua, 2. puntuaren arauerako mapan ikus daitekeenez; eta ekialdetarra bestea, hemen «E» bataiatua.

Eman dezagun antzinako plural bat:

* **gízonagek**

Bokale arteko /g/ fonema hori, frikaritzaren eta erorketaren ondoren, unitate hura honetara iristen da:

* **gízonaek**

eta *ae* bikoteari (+3, +4) silabak dagozkio. (Bestela esanda, ez (+1) eta ez (+2); eta, hortaz, azenturik ez hor aspaldiko denboretan).

S.8.1. *Ekialdeko euskalkietan*, hau izan bide da eboluzioa:

$ae \rightarrow \acute{e}$;

tarte horretan hemen zehaztuko ez ditugun urrats batzuren bitartez. Aurretixek *ee* urratsa azpimarratuko dugu. Eta, beraz, pluralerako hau dugu:

gizóneek	gizónék	gizonék
gizóneer	gizónér	gizonér
gizóneen	gizónén	gizonén
gizóneeki	gizónéki	gizonéki

Azentua eskuinerantz lerratu delarik; eta oihartzunezko azentu bigarrenkaria, azkenean, jatorrizko eta ezkerreko azentuari gailendu arte.

S.8.2. *Mendebaldeko euskalkietan*, berriz, W. Jacobsen-ek azaldu dituen konpentsazio-arrazoien gatik, edo besteren gatik, hau gertatu bide zen:

$ae \rightarrow ee \rightarrow e$

azenturik gabe; eta, hortaz, ezkerralderanzko lerraketaz:

gizóneek	gízonek
gizóneei	gízonei
gizóneen	gízonen
gizóneekin	gízonekin

Esana denez (eta 5.2. kapituluan zehazkiago ikus daitekeenez), fenomeno honek ez ditu *-eta* duten lekutasunezko kasuak iritsi; eta jatorri desberdinak eskatu behar dira hauentzat eta haientzat.

S.9. Mendebaldeko euskararen azentu-ezaugarri gailen batzu.

Honaino aztertu dugun fenomeno-multzoan ikusi denez; eta, euskal multzo horretan, «Ekialdeko azentu-bidea» orain dela gutxiko berrikuntza errakorra dirudenez, funtsezko puntu batzu honetara bil daitezke.

S.9.1. *Izenezko silababakarrak*

Nominatiboan:

	hár	hárra	hárrak
edo-ta	hár	harrá	hárrak

S.9.2. *Izenezko silababikoak*

Markatu-gabeak:

	gízon	gizóna	gízonak
edo-ta	gizóñ	gizóña	gízonak
	étxe	etxéa	étxeak
edo-ta	etxé	etxéa	étxeak

(bigarren modeloa funtsagarriena, ikusiko denez)

Markatuak (M+1), prototonoak:

áurre	áurrea	áurreak
séme	sémea	sémeak

Alderdi beretik bultzatzen duten arrazoi batzuk, euskal plurala gauza berria dela sinets erazten dute. Eta honetxek ere azaltzen du plurala singularrarekin ez joatea, singularrean jatorrizko geminaziorik ez baitzegoen. Ohar bera egin daiteke mugagabeari buruz: honek ere ez

zuen geminaziorik ezagutu. (Pluraleko nominatiboan ere ez; gero zehazkiago azalduko dugunez).

S.9.3. *Izenezko hirusilabakoak*

Markatu gabeak, (M+2) balira bezala:

itúrri	itúrria	itúrriak
emázte	emáztea	emázteak

(M+1) markatuak, prototonoak:

éuskera	éuskera	éuskerak
bázkari	bázkaria	bázkariak

S.9.4. *Lausilabakoak, etab.*

Markatu-gabeak, (M+2) balira bezalaxe:

emákume	emákumea	emákumeak
aizkólari	aizkólaria	aizkólariak

S.9.5. *Azentuketa paradigmatikoa* da (zutabezkoa) deklinabidean barrena (normala denez: azentu nagusia ezkerretan baitator):

háurra	gizóna	étxeak	itúrri
háuraren	gizónaren	étxeen	itúrriren
háurrari	gizónari	étxeei	itúrriri
háurreakiko	gizónarekiko	étxeekiko	itúrrirekiko

S.9.6. *Singularrean* barrena, azkeneko silaba *ere* markatzeko joera dago, eskema nagusi hau emanez: (+2, -1)

háurrà	gizónà
háurrarèn	gizónarèn
háurrari	gizónari
háurreakikò	gizónarekikò

Oihartzunezko azentu bigarrenkaria nabarmenago egiten da azentudun silaba nagusitikako tartea silaba-kopuru *bikotxia* denean: 2, 4, etab.

Nahiz-eta jatorrizko azentudunetik eskuinerantz silaba bikotxiak markatzeko joera normala izan, edozein unitatetan, pluralak beheranzko aldapa aurkezten du eskuin aldean; eta (-1) silaba, horretara, ez du markatzen.

Mugagabea, alderantziz, singularrarekin doa, nolabait esateko; ez baitu eskuineko beheranzkorik ezagutzen.

emákumè	emákumeà	emákumeak
----------------	-----------------	------------------

S.9.7. Badiduri hitz *markatuak* (M+1, prototonoak), bi arrazoi nagusirengatik direla horrelakoak:

- 1) *Fonologiaz*: aurreneko silabaren koda ez-hutsa izateagatik (diptongoa, laburtutako geminazioa, etab.): **áurre**, **gáuz**, **bázkar** (ik. bazkari), **éuskara**, **káiku**.
- 2) *Etimologiaz*: sistema orokorraren arauera oraindik egokitu ez diren mailebuak: **dénda** (esp. tienda), **múndu** (esp. mundo), **páxa** (esp. faja), **dénpora** (lat. pl. témpora), **líburu** (esp. libro).

S.9.8. *Markatuak* ez diren aditz-izenkiak, hiru, lau, etab. silabatako izenak dira; eta halakotzat azentuztatzen dira; alegia, (M+2) balira bezala:

ikúsi	ikúsia	ikúsiak
ikúste	ikústea	ikústeak

(erroa, kasu honetan, bi silabatakoa delarik: **ikús**)

Bide beretik:

harrápatu	harrápatua	harrápatuak
harrápatze	harrápatzea	harrápatzeak

(eta orain **harrápa** erroa hiru silabatakoa da)

S.9.8.1. *Erro silababakarretatik* heldu direnak, aldiz, prototono eta (M+1) gisa erabiltzen dira:

hártu	hártua	hártuak
hártze	hártzea	hártzeak

(erroa **hár** silababakarra delarik)

S.9.8.2. Deklinabidea *paradigmatikoa* da:

hártu	hártuko	hárturik
ikúsi	ikúsiko	ikúsirik
harrápatu	harrápatuko	harrápaturik

S.9.8.3. Lege berberaren arauera erabiltzen dira **leku** eta **pertsona** izenak:

éibar	éibarko	éibartik
zumárraga	zumárragako	zumárragatik
abáltzizketa	abáltzizketako	abáltzizketatik

Azentu bigarrenkariak azkeneko silaban agertzen dira; baita, badaudelarik, tarteko bikotxietan:

abáltzizketà	abáltzizkètakò	abáltzizkètatik
---------------------	-----------------------	------------------------

azkeneko oina hiru silabatakoa izatea zilegi izanik.

S.9.9. *Aditz laguntzailea*

Azenturik gabeko sekuentzi gisa erasten zaizkio aditz laguntzaileak ezkerretako enberrari, hartu duten posizioari dagokion azentua bilduz:

<i>hartu dut</i>	hártudùt
<i>ikusi dute</i>	ikúsidutè
<i>akabatzen duzue</i>	akábatzènduzue

Oro har, paroxitonia (are bigarrenkaria denean ere) baztertuz.

S.9.9.1. Menpekotze-atzizkiek (*-la*, *-lako*, *-nean*, *-neko*, etab.) adizki finitoei erasten zaizkienean, hartzen duten posizioari dagokion azentu bigarrenkaria biltzen dute:

<i>hartu dudanean</i>	hártudùdaneàn
<i>ikusi dutelako</i>	ikúsidùtelakò
<i>akabatu dutela</i>	akábatùdutelà

S.9.9.2. *Ba-* (baiezkoa) eta *-ez* (ezezkoa) aurrizkiak, beti dira proklitikoak:

<i>ez da</i>	eztá
<i>ez dakit</i>	eztákit
<i>ez dakigu</i>	eztákingu
<i>ez dakitelako</i>	eztákitelako

eta, esandakoaren arauera, honela ere gertatzen: **eztákingù** eta **eztákitè-lakò**.

Bait- kontzesiboa ere, proklitikoa da:

baitákit, baitá, baitákizue

S.9.9.3. Baldintzazko *bá-*, alderantziz, azentuduna da; eta unitate prototonoak ematen ditu:

agértuko bálitz, agértuko bálira, agértuko bázinate

Azkeneko baiespen hauek, liburuan barrena ikus daitekeenez, Ekialdeko euskalkiei buruz ere egin daitezke.

S.9.9.4. Edozein *silababakar*, galdegai gisa doanean, klitiko agertzen da:

<i>hor daukak</i>	hordáukak
<i>han dabilta</i>	handábiltza

Hauxe gertatzen da, era berean, Ekialdeko euskalkietan.

S.9.9.5. *Goranzko entonazioak* (aginduei, galderei eta zerrendaketari datxekiena), *oxitonoak* sortzen ditu:

(hi) **hátor** **atór!**
hábil **abíl!**

eta, horren ondorioz, hasperenketa dagoen euskalkietan, berori ezabatu egiten da.

Hori dela-ta, azentu-posizioaren aldaketa soil batek, baiespenetik galderara igaro garela adieraz dezake:



éuskaraz badákit (= bai)
euskaráz?

S.10. Fonologia Metrikoaren erabilgarritasuna

Euskalki honen edo haren azentu-bidea ongi finkatuz gero, azalpen egokiak eta ekonomikoak eskaintzen ditu Fonologia Metrikoak.




S.10.1. Hauta dezagun, adibidez, *Ekialdeko* euskalki bat. Honetan, markatu *gabeko* unitateetan eta azkeneko silabaren koda hutsa delarik, azentua (-2) izaten da.

Bidea hau izango da, beraz. Hasteko, eta *eskuinetik ezkerrera*, bi silabatako oinak eratu, korapilo-bikoteetan *sw* hitz-zuhaitzean markabidea irauliz:



S.10.2. Hauta dezagun orain *Mendebaldeko* euskalki bat. Honetan, azentudun silaba nagusia (+2) da; lehenengo silabaren koda ez-hutsa ez izatekotan.

Oin silabikoak eratzerakoan, hortaz, *ezkerretik eskuinera* joango gara (azkeneko oina, beharra gertatzekotan, hiru silabatako eginez); eta markabidea hau izango da: *ws*, ezkerraldeko korapiloa adarduna ez den ber. Hitz-zuhaitzean, berriz, irauli egingo dugu markabidea.



0. Azentuaren arazoa zertan den

0.1. Azentuaren arazoa zertan den

0.2. Test bat (euskal azentuari buruzko pertzepzioaz)

0.1. Azentuaren arazoa zertan den

Euskal Herrian, Fonetika-Laborategiaren hutsunea dela-ta batez ere, azkeneko urteotan azentuari buruzko ikerketek ez dute desiragarri litzatekeen habaila lortu; ezin izan baitira finkatu fenomeno akustikoen ezaguera zehatzean *.

Jakina, pertzepzioa nagusi. Hala ere, euskal azentua bezain labaina den alorrean, oinarri fisikoaren ezaguera zehatza baharrezkoa da; zen-batasunezkoa, zifratua, tresna-bidez bildua. Ez dago beste biderik, bestalde, «belarri-bide»zko usteak eta irizpideak gainditzeko; ezta ikertzaileen azentu-molde edo «pattern» delakoen baldintzetatik jalgi ahal izateko. Horiek, maizegi, «logika onean» entzun nahi luketena baizik ez baitute pertzibitzen. Alegia, beren Fonologiarekin egokiro le-torkeena.

0.1.0. Gogoangarria da, honi buruz, Jakobson, Fant eta Halle-k 1952-an egin zuten pertzepzio-inkesta gogoraztea.

Eman dezagun kolpe-sail hau:

LSSLSSLSSLSSLSSLSS...

Kolpe horiek denboran barrena berdinzki tartekaturik jotzen direlarik, honetara:

L - t.seg.- S - t.seg.- S - t.seg. - L - t.seg.- S - t.seg.- //

L : kolpe azkarra delarik; eta S: kolpe ahula;

nahiz tarteok *berdinak* izan luzeran (denak t-segundotakoak), entzuleek modu *desberdinetan* senditzen (= pertzibitzen) dute tak-tak-tak... sail hori.

Txekiarrek, hasteko, pausa bat entzun uste dute L-ren aurretik:

LSS, # LSS, # LSS, etab.

Poloniarrek, berriz, honela pertzibitzen dute saila:

SLS #, SLS #, SLS #, etab.

* Orain, dena dela, Deustuko Fonetika-Laborategia lanean hasi delarik, egoera berri batetan gaudela esan daiteke.

Eta *frantsesek*, azkenik, beste honetara:

SSL #, SSL#, SSL#, etab.

Hots, hizkuntza horien azentuketa nagusiak hauek dira:

Txekieraz:

[+1] (azentu-unitatearen lehenengo silaban, ezkerretatik hasita)

Polonieraz:

[-2] (azentu-unitatearen azken-hurrenengo silaban, edo bigarrena eskuinetatik)

Frantsesez:

[-1] (azentu-unitatearen azkeneko silaban, edo-ta eskuinetatik hasi eta lehenengoa)

Hitz batez, norberak *bere barne-ereduaren arauera antolatzen du* berez berdina den tak-saila.

0.1.0.1. *Mendebaldeko* euskaldun batek ondoko kolpe-sail hau entzunez gero:

SSSLSSSLSSSLSSSLSSSL...

honela pertzibituko luke seguru aski:

SLSS, # SLSS, # SLSS, etab.

Baina *Ekialdeko* batek, aldiz, beste honetara «entzungo» luke sail hori bera:

SSLS #, SSLS#, SSLS#, SSLS#, etab.

Neurketa hau egitea merezi luke; euskalkien azentuketa nagusia salatu bailuke. Egiteko asmoa ere badu Tesi honen egileak.

0.1.0.2. Euskalki desberdin guztien (edo gehienen, zehazkiago mintzatzekotan) *azterketa bizia* (beharrezkoa izanez gero, orain arte gai honi buruz idatzi den guztia zalantzan jarriz); *eskualde-azentuari* buruzko lan monografikoen prestaera, ikergaitzat herri edo haran *bakar* batetako hizkera hautatuz, eta ahalik eta azkarrenik ere buruturik; gai honi buruzko zientzi-literatura guztiaren *ikasketa*, ahalik eta orokorkienik (ingelesezkoa bereziki): horra hor euskal azentuaren azterketan aurrera joateko baldintza minimoak. Hots, gure herrian dagoen diglosi-egoera ezagututa, *presa handia* du ikerlan honek; zeren-eta interferentziak oro sentidu berekoak baitira; eta alor honetan batez ere, euskararen jartortasuna arrisku larritan baitago (are ahozko mintzabide gisa ere bai, jakina).

Egileak pozik ikusiko luke ikasleek edo irakasleek eskuarteko ikerlan hau, sarrera edo hitzaurre soil bihurtzea; eta Akustikaren aldetik oina-

rrri hobez jabeturik, ikerkuntza osoagotan barrena abiatuak direla jakitea. Bejondeiela! Berri hoberik ezin.

0.1.1. Azentuari buruz edozein ikerketa hasterakoan, hauxe da lehenbiziko arazoa: *zein izari akustiko* da nagusi azentuaren pertzepzioari buruz?

Badaude, jakina, hiru izari klasikoak: *iraupena, intentsitatea eta oinarritzko maiztasuna*. Azentuak jasaten duen segmentu fonikoaz ari garelarik. Lan honetan errepikatzen denez, *eskuarki*, silaba berean eta batera gertatu ohi dira hirurok (*eskuarki, berriz; baina ez beti*).

Batetik, berorien artean ez dago inolako proportziotasun edo homoteziarik: *intentsitatea, eman dezagun, % 30tan emendatuz gero, ez datzekio horri maiztasunetan % 30 eta iraupenetan % 30-tako emendio homotetikoak*. Ez bide dago neurri horien artean, era berean, lineala ez litzatekeen beste lotkia matematikorik ere: *kuadratikorik, edo abar*.

Pertzepzioa, bestalde, ez datzekie izari *fisikoei* bakarrik; ezta horien kide diren neurketa *psikologiko* kideei ere. [Hz] eta [dB]-ko kide akustikoen ordeaz, adibidez, [mel] eta [phon] eskalez baliatuz gero: pertzibitzen ditugun izari hauei atxekita ere, *barneraturik eta oharkabe bihurturik* dauzkagun geure «pattern»en arauera ere erkatzen baititugu eragin fisikook, berdintasunak eta desberdintasunak molde izkutu horien arauera bilatuz. Arazoa, hitz batez, *berez* da korapilotsua eta zaila.

0.1.1.1. Egoeraren bilduma, beraz, honela aurkez liteke:

- 1) «On ne saurait donc reconnaître à la différence entre ‘accent de hauteur’ et ‘accent d’intensité’ l’importance primordiale que lui accordaient jadis les néo-grammairiens» (P. Garde, L’Accent, 52)
- 2) «les observations phonétiques précises tendent sans cesse à nuancer les affirmations trop tranchées sur la prédominance de tel ou tel élément dans l’accent de telle langue», 53
- 3) «dans la plupart des langues, les syllabes voisinant immédiatement avec la syllabe accentuée, sont les plus faibles, et l’écho d’accent tombe *deux* syllabes avant ou *deux* syllabes après l’accent lui-même», 53.

0.1.1.1.1. Hiru izari akustiko klasiko horiei, hirurak izari bakarrak, azkeneko urteotan beste *bi* erantsi zaizkie; eta *izari-bikoak* dira biak. Korapilotsuago dira, hortaz, are matematikazko beren formulaketan ere; baina gauzago gerta daitezke azentuaren arazoak argitzeko.

Alde batetik badago Mitxelenak «configuración, más que posición, de la curva del fundamental» azaldu duena; edo-ta, ingelesez, «FØ-contour» bataiatu dutena. Eta, bestetik, badago «energy-integral» delakoa, USA-n gero eta entzute handiagokoa.

FØ-ren molde edo «konfigurazio» horretan, jakina, bi aldagai daude: oinarrizko maiztasuna eta denbora; eta «energy-integral» delakoan, anplitudeak eta denbora. Biotan aipu dira, beraz, abzisetan denbora agertzen duten kurbak; eta ordenatutan, hurrenkera honetan, maiztasunak agiri dira, edo-ta anplitudeak.

Ikerkuntza akustikoak Euskal Herrian orain arte zertan egon diren kontutan hartzen bada, etsigarria da egoera: tresnabidez lortutako *kurba fidagarriak*; eta maldak, kurbaturak, energi-integralak, eta abar, kalkulatzeko modurik izango ez ditugun artean, ezin izango ditugu erabili ez hauek eta ez haiek. Euskalki bakoitzari buruz halako datu-altxor bat izango ez duguno, ezer gutxi egin dezakegu bazterrak harritzeko tamainakorik.

U.C.L.A.-an, California-n, erabiltzen hasia den hirugarren ikerbidea ere ezin guk balia: F.R., «frequency ratio» delakoa; berriz ere oinarrizko maiztasunen kurbari loturik baitago; eta nahiz ikerbide hau behar-bada, Ava Berinstein-en ustez (ik. Stress, L.Hyman, 44) «the best acoustic cue» izan agian.

Oinarrizko maiztasun *soilen* alorrean ere, dena dela, ia umezurtz gaude: ez dugu FØ-kurbarik. Eta ez-aurrera ez-atzera horretan gaude.

- 0.1.2. Lehenego hurbilketa batez hau jakin behar genuke: azentuaren pertzepzioan (gutxienez argitarapen famatuenen arauera), *zein da, gaur, izari nagusia?*

Helburu horri buruz burutu zen 1982-ko testa (ik. honi buruzko kapitulu berezia, 1.2). Euskaraz ere hauxe izan zen hipotesia: segur aski, FØ-ren kurba-molde edo «konfigurazio» hori izan daitekeela garrantzitsuena. Bestela esanda, «belarri-bidezko» hurbilketa bat genuke kurba horien ikerketan. Eskuratu ditugun iker-txostenek eta liburuek, ia bateratsu, horretara bultzatu baikintuzten.

«Etxeko»engandik hasiz gero, gogora dezagun jadanik Mitxelenak idatzi zuena: «las diferencias, si existen, serán ante todo diferencias de tono» (F.H. V., 580); eta «diferencias de configuración, más que de posición» (579) bilatu behar direla. Gauza bertsua proposatu zuen W. Jacobsen irakasleak: «differential pitch rather than stress is the primary manifestation of this accent».

Quilis-en azkeneko liburuak ere (Fonética Acústica de la Lengua Española, 323 etab. bereziki) tarte txikia utzi du zalantzan egoteko: «gero eta asusarkigo lerratzen ari dira ikertzaileak azentuaren kakoa oinarrizko maiztasunetan bilatzera, (baita, bide batez, beroien gorabehera zakarretan).

Bollinger-en ustez, «azentuaren pertzepzioan, tonualdaketa hutsa» da garrantzitsuena (Quilis, 328); eta Contreras-enaz, «el quiebro de la línea tonal» (329). Are gehiago: honen ustez, «el único factor que, en

los casos examinados, puede determinar el acento por sí sólo, es el tono» (329).

Hona hemen giltzari izan daitezkeen beste irizpide batzu:

– «the most important perceptual cue of primary stress is changing pitch» (Bollinger).

– Fry-k, berriz, bere aldetik, hiru faktore klasikoen artean, pertzibituko maiztasuna («pitch» delakoa) iruditzen zaio gailen; eta gero bai, eta hurrenkera honetan, iraupena eta intentsitatea darraizkiolarik («*variations in F \emptyset are better cues to stress than durations and intensities*», Fry 1958).

– Medress-ek, bere aldetik, hau idatzi du: «a rising F \emptyset -contour is *very closely* correlated with stress» (Hyman d. 95).

– Lee-k, berriz, 1973 eta 1974-ko bere ikerlanen ondorioz, hauxe jo zuen kaketat: «a substantial *rise in F \emptyset -contour*». Oinarrizkotzat jo zuen, era berean, silaben denbora-anplitude zabaleraren neurketa.


– Ilse Lehiste estoniar hizkuntzalari famatuak ere, berebat, hau idatzi du «Suprasegmentals» bere liburuan (1970): «in all studies, fundamental frequency provided stronger cues for the presence of stress, than did intensity», 131.

– Malmberg suediarrek ere (1974) hau idatzi zuen bere «Manuel de Phonétique Générale»an: «on est de plus en plus persuadé actuellement que ces accents... se réalisent à un très haut degré à l'aide d'*autres paramètres que l'intensité*» (197); eta ingelesez eta gaztelaniaz gutxienez, F \emptyset -ren gorabeherak zaizkio «*celles décisives pour l'accent dit d'intensité*», 198.

– Larry Hyman oraindik ere aurrerago joan; eta hauxe galdetzen dio bere buruari: ez ote dagoen hizkuntza *guztiei* buruz, halako «hierarkia unibertsal bat»; eta honetan, hain zuzen, F \emptyset hain zuzen faktore nagusia delarik.

Lehenengo hurbilketan, beraz, hau iruditu zaigu: F \emptyset -ren *kurba-molde* edo konfigurazio horren azterketak eskain dezakeela.

- 0.1.3. Gorago ere esan dugunez, UCLA-ko Ava E. Berinstein-ek (1979), «Perception and Production of stress» deritzon bere test-ean, FR parametroa erabili zuen («frequency ratio» delakoa, izarigabea). Kalkulatu ahal izateko, silaba bat hautatu behar da, eta horretan F \emptyset -ren hiru balio bilatu behar dira: silabari datxekion handiena edo gailena («peak F \emptyset »); ezkerretako txikiena («lowest F \emptyset , preceding»); eta eskuinetako txikiena («lowest F \emptyset , following»). Honen arauera:



$F\emptyset$ (max)

$F\emptyset$ (min) balioak neurtzen du silabaren gailentasuna: kurba puntu horretan zorrotzago izan (alegia, maiztasunen kurba-gailurra erpinago izan), eta azentua nabarmenago.

- 0.1.4. Ikerketa matematikoez markestu (markets egin; ez markes egin, jakina!) duten pertsona bati (eta hauxe izan daiteke lerro hauen idazlearen kasua), garbi zaio kurba akustiko horietan duguna: esaldi baten barreneko *malda ertainak*, *entonazioa* neurtzen du; eta $F\emptyset$ -balioen «konfigurazio» hori, kurbaren *kurbatura* baizik ez da. Hitz batez, FR handitzean azentua dugula, edo-ta maldaren «aldaketa zakarrak» daudenean, etab., hau adierazi nahi da: *kurbatura* azkarra dagoen puntuetan daukagula azentua («mendi»-itxurako puntuetan, nolabait esateko).
- 0.1.4.1. Matematikokiago mintzatzekotan, maiztasunen kurba hau baldin bada:

$$f = f(t) \quad f[\text{Hz}]; \quad t[\text{seg}]$$

entonazioa beste hauxe da:

$$f'(t) = \frac{df}{dt}$$

Honen arauera, $F > 0$ izatekotan, *goranzko* entonazioak ditugu (galdeketa, zerrendaketa, etab.); eta $F < 0$ izatekotan, *beheranzko* entonazioak (asertzioak, aginduak, etab.).

Izarien aldetik orain, eta halako batez datuak aldera ahal izateko:

$$f'(t) = [\text{seg}^{-1}] / [\text{seg}] = [\text{seg}^{-2}]$$

Balio absolutuei buruz, berriz, aski da aztamü batzu egitea; eta hau ikus daiteke: $\pm 25, \pm 50, \pm 100$ [Hz / seg²] izan daitekeela balio

hori (alegia, ± 150 -tatik ± 600 -tara [seg⁻²]. Egunen batez, agian, zenbatasunezko taulak izango direla soma (edo desira) daiteke; eta balio ertainak ere lortuko ditugula galdeketaren edo agindu gogorren neurritzat.

Areatza-ko geure informatzailearengandik, adibidez, balio hauek atera ditugu:

$$f' (9. \text{ Es.}) = - 135,8 \text{ [seg}^{-2}\text{]}$$

$$f' (15. \text{ Es.}) = - 448,6 \text{ [seg}^{-2}\text{]}$$

0.1.4.2. Jakina, ikertzapen desberdinetako datuak alderatu ahal izateko, balio izarikideak erabili beharko dira.

Hauta ditzagun eskala hauek:

$$x = a.t \quad (a = [\text{cm. seg}^{-1}\text{]})$$

$$y = b.f \quad (b = [\text{cm. seg}]\text{])}$$

eta, horretara, grafikoaren gainean bertan egingo dugu lan, neurriak [cm] tan hartuz. Bain konparagarri izango diren unitate akustikotara pasatzean, hau izango dugu:

$$f' = \frac{a}{b} \cdot y'$$

Eta izarien arauera:

$$[y'] = [1]$$

$$[a/b] = [\text{seg}^{-2}\text{]}$$

0.1.4.3. Era berean, *kurbatura* (azentua) hau da:

$$C = \frac{y''}{(1 + y'^2)^{3/2}}$$

eta C [cm⁻¹]-tan lortuko dugu; alegia, [rad/cm]-tan. Azentudun silabetan, C-ren balioak *negatibo* gertatzen dira.

Hots, gailurra dagoen puntuetan (azentua), $f' = y' = 0$


Eta, hortaz:

$$C = y''$$

balio horiek *negatibo* gertatuko direlarik.

Zenbat balio dezake y'' horrek (edo f'' bere kide akustikoak) egiazko hizkuntzetan? Horietxek baitira, FR izarigabaren alderaketan bezala, kontutan hartuko diren balioak.

Maiztasunaren kurbaren gainean laneginez gero, hau dugu:



$$y'' = \frac{d^2y}{dx^2} = \frac{d \left[\frac{dy}{dx} \right]}{dx}$$

eta diferentzia finitotara pasaz gero:

$$\begin{aligned} \frac{d^2y}{dx^2} &\sim \frac{\frac{y_{i+1} - y_i}{\Delta x} - \frac{y_i - y_{i-1}}{\Delta x}}{\Delta x} \\ &= \frac{(y_{i+1} + y_{i-1}) - 2y_i}{\Delta x^2} \end{aligned}$$

Azentudun silabetan, balio hori *negatiboa* da.

$\Delta x^2 > 0$ denez gero, kurbaturaren zeinua, numeradorearen balio honen arauerakoa da:


$$(y_{i+1} + y_{i-1}) - 2y_i$$

eta beronen *balio absolutua*:

$$2y_i - (y_{i+1} + y_{i-1})$$

Eta balio *absolutu hau*, *positibo* gertatzen da *azentudun silabetan*; eta FØ-kurbaren ahurtasunaren arauerakoa: *azentua azkarrago*, balio *positibo hori handiago*.

0.1.4.2.1. Maximoetan garbiki agertzen da formula horren adierazpen akustikoa:



$$(y_i - y_{i+1}) + (y_i - y_{i-1})$$

Alegia azentudun silabari dagozkion *bi gailentasun akustikoen batuketa*: ezkerrekoaren arauerakoa, eta eskuinekoaren arauerakoa. *Biena batera*.

Izaribidez hau dugu, esana dagoenez:

$$y'' = [\text{cm}] / [\text{cm}^2] = [\text{cm}^{-1}]$$

Baina izari *akustikotara* igarotzean (hauetxek baitira neurri konparagarriak, hain zuzen, hau dugu:

$$f'' = \frac{a^2}{b} \cdot y''$$

$$\frac{a^2}{b} = \frac{[\text{cm}^2 \cdot \text{seg}^2]}{[\text{cm} \cdot \text{seg}]} = [\text{cm} \cdot \text{seg}^{-3}]$$

$$[f''] = [y''] \cdot \left[\frac{a^2}{b} \right] =$$

$$= [\text{cm}^{-1}] \cdot [\text{cm} \cdot \text{seg}^{-3}] = [\text{seg}^{-3}]$$


eta orain bai: kurbatura *akustikoen* konparaketan barrena prest gaude; edo-ta azentu-gradienteak alderatzeko.

y'' horren balioa handiago izan (alegia, kurbatura handiago izan), eta azkarrago eta sendigarriago azentua ere. Baina, noski, funtsezkoa da Δx tarte (edo-ta Δt , berorren kidea), 2 berreturan datorrenez gero; eta, hori dela-ta, denboren eskalan silabak kokatzea guztiz garrantzizkoa da. (J. Pierrehumbertek entonazioari buruzko bere lanetan ongi azpimarratu duenez).

Berriz ere, kasu honi: ez dela [Hz]-en *maila* munta duena, *kurbatura* baizik. Eta posible litzatekeela, jadanik, zenbatasunezko *taulak* presatzea, $[\text{seg}^{-3}]$ -tan; eta azentu-mailak sailkatzen hastea.

0.1.4.2.2. Eskema-mailakoak dira askotan FØ-ren inguruneak (besteak beste, kontsonante gorren parean FØ-kurba bera, ezinbestean, eten egiten delako). Eta, hitz batez, bai f'', bai y'', gutxi gora-behera baizik ezin kalkulatu daitezke puntu askotan.

Eman dezagun kurba-molde hau:



(japonierazko gramatikan agertu ohi direnen antzekoa).

Bigarren silabari buruz hau dugu:

$$-y''(2) = \frac{2y_2 - (y_1 + y_2)}{\Delta x^2} = \frac{y_2 - y_1}{\Delta x^2} < 0$$

eta hortaz, bigarren silaba horretan:

$$-y'' > 0 \text{ (azentua)}$$

Hauxe proposatzen zuen Azkue-k bere grafian:


èkarri, ikusiko (Del Ac. V., 11)

edo, praktikan, beste bi hauek:

ekárri, ikúsiko.

Bidenabar esateko, «azenturik gabeko hizkuntza» omen den japonieraz, hogei dialekto daude; eta Basterretxea-ren diagramak ikustean, ez da batere bitxia japonierazko azentu-diagramez oroitzea.


Eta kasu honetan ere:



alegia, [+2] azentua. Zeren-eta:

$$-y''(2) = \frac{2y_2 - 2y_1}{\Delta x^2} > 0$$

Beste kasu honetan, berriz:



hauxe dugu (+2) silabari buruz:

$$-y''(2) = \frac{2y_2 - (y_1 + y_2)}{\Delta x^2} = \frac{y_2 - y_1}{\Delta x^2} < 0$$

Ahurtasuna, alegia; eta azenturik ez.

Lehenengo silaban, berriz, bai; $x = x_1$ abzisaren arauera simetria onartuz gero, hau baitugu:

$$-y''(1) = 2 \cdot \frac{y_1 - y_2}{\Delta x^2} > 0$$

eta azentua, horretara: [+1].

Batez ere bera japoniar ikertzaierik handienetakoa izanik, Hiroya Fujisaki-ren esanak (1979) gogorazi beharko orain: «The fundamental FØ-contour can be regarded as *the most consistent correlate* of word accent both in English and in Japanese».

Euskararen eta japonieraren arteko eite harrigarriak ezaguturik, badi-rudi *FØ-denbora* diagramen *kurbaturen azterketak*, ondorio onak emango lituzkeela gure hizkuntzari buruz. Orain, dena dela, FØ-ren kurbak falta...


Hizkuntza: **ingeleza**



a) Bi perpausetako esaldi baten entonazio-kurba.



b) Oinarrizko kurbari osagai-inguraketa erantsi ondoren.



c) Azentudun silabateko azentuak sortutako FØ-emendioak (hemen (b) kurbari erantsiak)



d) Eragin guztiak elkargainduz, FØ gorabehera osatuak, fonetikoak ere barne daudelarik.

Wayne A. Lea.

*«Acoustic correlates of stress and juncture»,
Hyman, 107 (ik. Bibl.)*

Beste xehetasun bitxi bat: lerro hauek izenpetu dituenak uste duen bezala, euskararen *azentu nagusia* (+2) baldin bada, berriz ere oso aparte agertuko gara euskaldunok. L. Hyman-en hizkuntz-lerrokadan 444 hizkuntza daude. Hots, 12-k bakarrik dute (+2) azentu nagusitzat. Horietako bat, Lakota (= Sioux) indioena da; eta beste bat hau dugu: Kaukaso-ko hizkuntzen artean, oso gutxitan aipatzen den «tsaxur» deitizona.

Estatistika horrek hau erakusten du (L. Hyman, 45):

(+1),	114	hizkuntza	
(+2),	12	”	(euskara izan daiteke 13.a)
(-2),	77	”	
(-1),	97	”	

0.1.5. Janet Pierrehumbert-en Tesi berriak, bide berriak urratu ditu azentuaren eta entonazioaren ikerkuntzan. Haren hastapen edo postuladonagusia hau da: pertsona bakoitzak, baiespen normalez mintzo delarik, esaldiaren haseratik bukaerara, *tonu-beherakada aldakaitz eta beti*

bera daukala; eta gailurrak eta azentuak *deklinazio ertainaren lerro zuzen* horren arauera neurtu behar direla. Euskararen deskribapenean horixe balia liteke.

Areatza-ko corpus-ean esaldi «markagabe» gisa (J. Pierrehumbert-en hizkeraz, «unmarked») ondoko esaldi hauek hartuz gero: 9, 11, 13, 14', 15, 18 eta 20, *deklinazio ertaina* hau da: -42,6 [Hz].

Denbora-epea 1,5 [seg] baldin bada, hauxe dugu:

$$f' = -42,6 \cdot 6,28 / 1,5 = 178,35 \text{ [seg}^{-2}\text{]}$$

Abiapuntu ertaina 207,2 [Hz]-tan dago; eta helpuntua, bukaeran, 164,6 [Hz]-tan.

Azentuaren gailur-hegiaren lerroa marraz dezakegu orain horren arauera; eta hau izango dugu:

\hat{p}	P_0	P_1
0,00	207,2	164,6
0,25	259,0	205,2
0,50	310,8	246,3
0,75	362,6	287,3
1,00	414,4	328,4

aipatutako malda-«baseline» horri buruz.


Orain, adibidetzat, Areatza-ko 9.Es. hautatuz, ondoko gailurtasun errelatibo hauek lortzen dira:

arék	$p = 0,36$
gastíak	$p = 0,55$
ében	$p = 0,65$
érderaz	$p = 0,53$

J. Pierrehumbert-en metodoan, azentudun silabari dagokion *puntua* hartzen da kontutan (esaldiaren hastapenaren arauera). *Goratasun bakar batek*, beraz, ([Hz] -tan neurtua, eman dezagun), gailenago agertuko da esaldi-amaieran («baseline» delakoa hara orduko askitxo jaitsia delarik), haseran baino.

Berriro ere, eta euskarari dagokionez, *FØ-denbora* kurbak behar ditugu.

Metodo honen bidez lortutako grafikoetan ere (ikus gure corpus-eko 9. Es. ari dagokiona) nabarmen agertzen da FØ-ren kurba-moldearen garrantzia. Goranzko entonazioa ez duen ber, esaldian barrena gertatzen den *maiztasun-galera* hori da neurkina.



0.1.6. Azentuaren azterketa razionalizatzetokan egin diren saioren multzoan, tresna azkarra da *Fonologia Metrikoa*: bai azentuaren lekugune edo posizioaz, are azentuaren balio errelatiboaz ere, bide egoki bat eskaini du. Eta euskarari buruz erabiltzeko eragozpen berezirik ez dago (ikus hemen Hego-nafarrerari buruzko zuhaitz metriko batzu). Traba bakarra, hauxe: euskalkiaren deskribapen zehatz eta fidagarri bat izan behar.

Teoria horretan, bi puntu nagusi hauek finkatzea aski da:

- «*foot*» (= oin) delakoen antolakera, batetik; eskuinetatik ezkerretara, esate baterako, Hego-nafarreraz gertatzen den bezala;
- «oin (= «*feet*») horien markaketa: *sw*, adibidez (*s* = strong, azkar; *w* = weak, ahul); bai *oinetan* (= feet), bai «hitz-zuhaitzean» (= «word-tree»); eskuin aldean «adarketa»-rik (= «branching») ez dagoen ber.

Eta azentua argitu egiten da.


Arazorik zailena, beraz, hizkeraren azentu-posizioaren *deskribapen irmo eta zehatzean* datza.

Zubererazko azentuaren azalpen metrikoa ematea, gauza erraza da (Hego-nafarrerari dagokionaren antzekoa oso). Eta gauza bera egin daiteke gainerako euskalkiekin. Baldintza bakarra (nahiz ez arazo arina) hauxe da: azentuaren lekuketa ongi zehazturik ezagutzea.


0.1.6.1. Fonologia Metrikoa erabiltzean, espero zitekeenaren arauera, oso nabarmen agertzen da *Ekialde/Mendebaldeko* azentuen arteko erdibiketa nagusia. «Oin»en antolaketa, adibidez, erabat *elkarren aurkako* gertatzen da bi multzootan. Harrigarria da horren kilometro gutxitan barena, horrelako desberdintasun gaitzak egotea. Euskal Herriaren zatiketa sakona da azalpen bakarra, eta euskaldunen arteko batasunik eza.

Hona hemen Ekialdeko adibide batzu:


Unit. = artzai
Tr. fon = a r̄ c a j̄




Unit. = gizon
Tr. fon = g i s o n




Unit. = hirurogei
Tr. fon = h i r u r o g e ī




Unit. = laurogei
Tr. fon = l a u r o g e ī



Unit. = hogei
 Tr. fon = h o g e i




proy. = o ei




az. = hogéi

Unit. = emakume
 Tr. fon = e m a k u m e




proy. = e a u e




az. = èmakúme

Unit. = irakurri
 Tr. fon = i r a k u r̄ i




proy. = i a u r̄ i




az. = irakúrri

Unit. = aberats
 Tr. fon = a b̄ e r a ć




proy. = a e a ć




az. = aberáts


Unit. = liluramendu
 Tr. fon = l i l u r a m e n d u




proy. = i u a e n u




az. = lilùraménu




az. = maiztér




az. = hódei




az. = áita



az. = áma



az. = gáuza



0.1.7. Orain dela 25 urte Mitxelena-k uste zuen bezala (eta irizkide da ikerlan honen egilea) «les dialectes centraux et occidentaux ont l'air plus archaïque que les orientaux» (Acc. B., 232; 1958). «Arkaikoago» bakarrik ez, baizik-eta erdal interferentziak gutxiago aldatua.

Mementua heldu da, beraz, «tipo I» delako azentu-mota sakonki aztertzeke, eta azentuari buruzko Ortoepia bat proposatzeko.

«Koine» batuaren *beharra*, batetik, giroan antzematen da; eta azentukoine hori, gainera, muturretatik urrun eta erdibidean kokatua, *jaiotzen* ere hasi da.

Ez dakit, adibidez, Andoni Sarriegi Murumendi nor ote den. Baina «Euskal azentua non eta nola» deritzon haren artikulua (ik. Z. Argia, 27-7-1980), iritiz bete zen; eta, oro har, Euskal Herrian oso zabaldua dauden azentu-joerak bildu zituen. Isiltasun osoan erori zen, ordea; eta honetxek erakusten du ongienik gai hauei buruz dagoen ezjakintza: zer esan, inork jakin ez, eta denak isilik.

Euskara ofizialaren prestakuntzan (noski: hizkuntza batua eta ofiziala, beharrik, koda daiteke; gainerako hizkeren ezespina inondik ere egiten ez delarik), batasunerako bidean, ortografia eta morfologiaren alorretan jokatu zuen bezala orain jokatuz, azentuaren arazoari Euskaltzaindiak eraso diezaiokeela (eta eraso behar diola) uste dugu.

Gure herriak norabide fonologiko bat behar du gero eta premia larriagoaz; eta erantzuna eman behar zaio.

Test bat

0.2. (euskal azentuari buruzko pertzepzioaz)

1982-ko Uztailean burututako ikasaldian egin zen Test hau (Iruñean, Udako Euskal Unibertsitatean, U.E.U. delakoan). Eta bertan 15 sortzezko euskaldunek hartu zuten parte, gehi beste 15 euskaldunberrik.

Partelianteei *sei* aldiz entzun-erazi zitzaizkien Areatzako zerrenda magnetofonikoak (1-tik 21-rako esaldiak). Somatutako azentuak marka zitzaten eskatu zitzairen. Nork bere orria jaso zuen horretarako, 1-21 esaldiez egindako transkribaketa arautuan. Esaldi bakoitzean nahi adina azentu marka zezaketen, entzun uste zutenaren arauera; eta, hau dela bide, parteliant guztiek ez zuten azentu-kopuru bera eman.

Zenbakuntzarakoan, sortzezko *euskaldun-zaharren* erantzunak alderdi batean (hemen «A-multzoa» bataitu duguna); eta *euskaldun-berrienak* bestean (hemen, «B-multzoa»).

Ikusiko dugunez, zenbait silaba, azentuduntzat hartuak izan ziren ia orokorki; beste zenbait, aldiz, entzuleriari, ia ahobatez, azentugabe iruditu zitzaizkiolarik. Silaba batzuk, horretara, azentu gutxi jaso zuten; eta batek edo bestek, bat ere ez: inork ez zuen azentuduntzat hartu.

Hona hemen Test-ena lortutako emaitzen laburtzapen bat; egin behar zena oker ulertu zutenen erantzunak alde batetara utzi ondoren.

- 0.2.1. Esaldien zenbakiketa, testuarena bera da; eta agertzen diren zutabeak hauek dira, sail bakoitzean, ezkerretatik eskuinetara: *silaba*, *A multzoko*en erantzunak, *B multzoko*enak.

1. Esaldia			2. Esaldia		
sil.	A	B	sil.	A	B
or	3	1	ni	2	3
du	6	4	rea	7	4
an	3	5	mak	8	7
e-e	3	5	e	0	0
er	9	9	se	10	6
de	3	4	ki	0	1
ra	0	0	en	2	7
rik	3	2	er	11	5
e	2	0	de	2	3
se	9	8	ra	0	2
ki	1	1	rik	3	7
an	4	6			

3. Esaldia

sil.	A	B
er	12	6
de	1	4
ri	0	0
a	0	4
e	0	0
tor	7	4
san	3	6
ge	1	1
ro	12	12

4. Esaldia

sil.	A	B
e	0	0
ka	4	2
rri	1	1
e	1	1
ben	4	9
guar	3	3
da	0	0
si	3	1
bi	9	3
llek	3	2
e	0	0
ta	2	2
la	0	6

5. Esaldia

sil.	A	B
kuar	0	1
te	2	2
le	2	1
ro	0	2
bat	3	2
i	0	0
fi	5	3
ñi	1	1
e	1	0
ben	11	10
bai	5	2

6. Esaldia

sil.	A	B
ge	1	1
ro	0	3
mai	10	7
su	0	2
a	0	3
ta	0	1
mais	11	6
tre	0	1
a	1	3
ia	0	0
e	0	1
ka	4	2
rri	1	2
e	1	0
be	1	3
san	8	10

7. Esaldia

sil.	A	B
a	4	3
rek	2	1
pe	6	7
ma	1	0
ke	11	8
to	0	0
ak	2	7

8. Esaldia

sil.	A	B
da	1	5
es	7	3
ko	2	4
lan	1	1
be	6	12
er	8	10
de	1	0
ras	4	5

9. Esaldia

sil.	A	B
da	0	2
a	4	3
rek	2	5
gas	2	2
ti	4	5
ak	1	3
i	0	0
ki	3	5
si	2	1
eu	4	1
dien	1	5
er	11	8
de	1	0
ras	0	7

10. Esaldia

sil.	A	B
da	1	3
gu	1	1
rea	2	5
ma	6	9
ta	2	2
lo	1	2
tu	5	2
si	4	6
ran	7	7
er	9	8
de	1	2
ra	0	1
rik	1	2
ya	2	5
kin	2	6
ba	7	6
rik	4	7

11. Esaldia

sil.	A	B
da	0	1
guk	11	13
i	1	1
ki	7	6
si	1	0
gen	1	0
dun	6	10
er	11	6
de	1	2
ras	0	7

12. Esaldia

sil.	A	B
es	0	0
ko	11	7
le	0	1
a	1	1
gas	3	6
da	1	4

13. Esaldia

sil.	A	B
a	0	0
ta	4	4
rai	1	0
su	1	3
kon	5	2
tu	1	2
sen	6	3
bat	1	1
ur	2	2
te	1	2
dan	6	7

14. Esaldia

sil.	A	B
da	0	3
nik	2	4
e	0	4
ro	3	4
an	1	1
ne	1	2
ban	6	8
pa	2	0
li	6	9
sa	0	0
e	0	0
de	10	8
rra	0	1
ba	1	2
ten	7	10

14. Esaldia

sil	A	B
guar	6	6
da	0	0
si	2	1
bi	6	6
llen	0	3
mu	1	0
til	1	4
ba	0	0
te	6	4
gai	2	3
tik	2	6

15. Esaldia

sil	A	B
le	1	0
po	4	3
an	2	3
e	5	8
pa	7	4
lo	1	0
ak	1	1
mar	7	4
keu	4	2
te	0	4
neu	6	4
ka	3	0
san	1	7

16. Esaldia

sil	A	B
guar	6	7
da	0	0
si	1	1
bi	3	4
llen	1	1
mu	0	0
til	0	3
ba	1	0
tek	3	4
bur	0	0
lai	7	5
tten	0	0
ez	1	4

17. Esaldia

sil.	A	B
ni	2	1
rea	11	9
ma	2	2
ma	2	3
a	2	1
pur	4	1
bat	0	4
sa	7	5
rra	2	4
san	5	8

18. Esaldia

sil.	A	B
da	1	4
ma	0	0
kur	2	8
tu	7	3
te	2	7
a	1	1
pur	1	5
txu	0	1
bet	0	3
ba	3	1
ki	2	3
su	2	3

19. Esaldia

sil.	A	B
ja	2	1
rri	3	3
te	0	1
o	0	1
te	1	0
si	1	0
ran	2	5
sa	6	1
rrak	0	2
a	0	0
pur	0	2
bet	0	2
ma	0	0
kur	5	4
tu	6	4
te	2	5

20. Esaldia

sil.	A	B
dau	2	3
me	1	2
txi	4	4
ki	1	1
bat	0	1
ya	0	0
go	5	4
ten	0	0
i	1	1
bil	3	4
ten	1	4
san	1	4
pla	1	3
san	5	6

21. Esaldia

sil.	A	B
da	1	1
guar	6	6
da	0	1
si	1	0
bi	2	6
llen	3	2
mu	0	0
til	2	6
bat	4	3
a	9	5
tze	1	2
tik	3	8

0.2.1.1. Onargarri ziren erantzunen parteliantak, leku hauetakoak ziren:

A MULTZOAN

Bizkaiera: 6 – Arrasate, Bermeo, Elorrio, Arratia (2) eta Bergara.

Gipuzkera: 7 – Andoain, Zaldibia (2), Baliarrain, Zizurkil, Ataun eta Donostia.

Nafarrera: 1 – Baztan-goia.

B MULTZOAN

14 ziren: zenbait herritako euskaldun-berriak, Bizkaikoak gehienik.

0.2.1.2. Oso ondorio nabarmen bat: jaiotzaz gaztelanidun zirenak, joera azkarrak dute esaldi-*bukaeran* azentu bat somatzeko: (-1) silaba pila bat senditu zuten, jatorrizko euskaldunen iritziaren kontra. Gaztelaniazko erdaldunek *beheraketa bat* espero dute, dudarik gabe, azkeneko silaban; gaztelaniaz gertatzen den bezala. Eta hori ez gertatzean, beherakadarik-ez hori azentutzat hartzen dute (tonua gora joan balitz bezala). Euskaldun-berriek ikasia duten euskararen ere, paroxitonoak ahoskatzeke joerarekin dator hori. Euskaldun berriek (-2) azentutzatzen dute sarri, erdaraz bezala (Iparaldekoek, segurki, (-1) egiten dutelarik).

0.2.2. Presta dezagun orain esaldi-sail horri buruzko beste lerrokada bat, azentuari dagokiona; azentu hori oszilogrametatik atera daitekeen *maiztasunen* kurbetan, kurbaturaren arauera neurtzen badugu.

Kurban segituan aurki daitezkeen f'' -ak alderatu ahal izateko, unitate beraren arauera lortuko ditugu balioak; dauden esaldiko maiztasunik txikienaren arauera emanaz. Alegia:

$$- f'' \cong 2 f_i - (f_{i+1} + f_{i-1})$$

Hauta dezagun esaldi hau:

or	du	an	e	e	
360	405	375	300	300	(Hz)

eta /du/-ri buruz hau dugu:

$$- f''(\text{du}) = 2 \times 405 - (360 + 375) = + 75$$

(ahurtasuna behereko aldera)

eta

$$- f'(\text{du}) = 0$$

(puntu horretan gailurtzaile baita maiztasuna).

Hortaz, /du/ silaba *azentuduna* da.

0.2.2.1. Baina ahurtasun hauek eta haiek alderatu ahal izateko, gertatzen diren

mailaren araurera prestatu ditugu (esaldi batetik bestera aldagarri). (1. Es., FØ emaitzak)

Egokiketa egin ondoren, ordea, esaldi horretako gailurtasun berdinduak hauek dira:

or	du	an	e	e
1,19	1,47	1,25	1,07	1,00

Eta balio *erlatibo* horietaz kalkulatuz, hau dugu:

$$-f''(du) = 2 \times 1,47 - (1,19 + 1,25) = +0,50$$

eta hau bai: hau beste edozein mailatako balioekin aldera daiteke.

Eragiketa hori eginez, gailurtasun erlatibo hauek lortzen ditugu:

1. Es.

or	du	en	e	e	er	de	ra
1,19	1,47	1,25	1,07	1,00	1,56	1,40	1,31

rik	e	se	ki	an	
1,29	1,27	1,58	1,40	1,00	(Hz)

2. Es.

ni	re	a	mak	e	se	ki	an	er	de
1,02	1,29	1,29	1,56	1,50	1,62	1,62	1,56	1,55	1,21

ra	rik
1,08	0,00

3. Es.

er	de	ri	a	e	to	rri	san	ge	ro
1,32	1,24	1,17	1,14	1,07	1,17	1,05	1,00	1,00	1,12

4. Es.

e	karr	i	e	ben	guar	da	si	bi
1,10	1,43	1,60	1,60	1,29	1,40	1,29	1,12	1,33

llek	e	ta	la
1,12	1,00	1,02	1,12

5. Es.

kuar	te	le	ro	bat	i	fi	nie	ben	bai
1,00	1,22	1,42	1,04	1,11	1,02	1,20	1,20	1,28	1,42

6. Es.

ge	ro	mai	su	a	ta	mais	tre	a	ya
1,17	1,33	1,40	1,29	1,26	1,02	1,33	1,12	1,12	1,00

ka	rrie	be	san
1,12	1,27	1,19	1,08

7. Es.	a	rek	pe	ma	ke	to	ak			
	1,00	1,23	1,12	1,09	1,37	1,07	1,09			
8. Es	da	es	ko	lan	be	er	de	ras		
	1,00	1,20	1,36	1,22	1,22	1,36	1,20	1,15		
9. Es.	da	a	rek	gas	ti	ak	i	ki	si	eu
	1,29	1,73	1,82	1,60	2,00	1,81	1,60	1,67	2,00	1,74
	dien	er	de	ras						
	1,82	1,73	1,32	1,00						
10. Es.	da	gu	rea	ma	ta	lo	tu	si	ran	
	1,00	1,06	1,41	1,75	1,47	1,41	1,59	1,75	1,66	
	er	de	ra	rik	ya	kin	ba	rik		
	1,59	1,31	1,31	1,28	1,28	1,31	1,53	1,00		
11. Es.	da	guk	i	ki	si	gen	dun	er	de	ras
	1,29	2,22	1,43	1,90	1,82	1,82	1,90	1,60	1,33	1,00
12. Es.	es	ko	le	a	gas	da				
	1,00	1,48	1,17	1,17	1,02	1,00				
13. Es.	a	ta	rai	su	kon	tu	sen	bat	ur	
	1,31	1,47	1,22	1,47	1,08	1,02	1,08	1,02	1,19	
	te	dan								
	1,08	1,00								
14. Es.	da	nik	e	ro	an	ne	ban	pa	li	
	1,00	1,46	1,39	1,39	1,39	1,61	1,39	1,15	1,61	
	sa	e	de	rra	ba	ten				
	1,39	1,28	1,46	1,15	1,07	1,17				
14'. Es.	guar	da	si	bi	llen	mu	til	ba	te	
	1,35	1,47	1,24	1,18	1,29	1,29	1,29	1,35	1,53	
	gai	tik								
	1,24	1,00								

15. Es.	le	po	an	e	pa	lo	ak	mar	keu
	1,31	1,41	1,31	1,41	1,53	1,31	1,22	1,53	1,37
	te	neu	ka	san					
	1,07	1,25	1,07	1,25					
16. Es.	guar	da	si	bi	llen	mu	til	ba	tek
	1,07	1,25	1,07	1,02	1,02	1,07	1,00	1,07	1,07
	bur	lai	tten	ez					
	1,07	1,25	1,07	1,25					
17. Es.	ni	re	a	ma	ma	a	pur	bet	sa
	1,14	1,33	1,60	1,60	1,00	1,07	1,14	1,33	1,14
	rra	san							
	1,45	1,14							
18. Es.	da	ma	kur	tu	te	a	pur	txu	bet
	1,09	1,17	1,47	1,61	1,26	1,26	1,10	1,00	1,09
	ba	ki	su						
	1,14	1,06	1,00						
19. Es.	ja	rri	teo	te	si	ran	sa	rrak	
	1,12	1,20	1,20	1,20	1,12	1,12	1,20	1,00	
	a	pur	bet	ma	kur	tu	te		
	1,00	1,06	1,13	1,13	1,21	1,31	1,00		
20. Es.	dau	me	txi	ki	bet	ya	go	ten	i
	1,14	1,33	1,60	1,60	1,33	1,22	1,07	1,14	1,14
	bil	ten	san	pla	san				
	1,14	1,07	1,00	1,23	1,33				
21. Es.	da	guar	da	si	bi	len	mu	til	
	1,00	1,50	1,64	1,39	1,39	1,39	1,39	1,39	
	bat	a	tze	tik					
	1,50	1,50	1,35	1,38					

0.2.3. *Gailurtasun berdindu* horietatik abiaturik, orain bai: orain esaldiz esaldi kalkula ditzakegu kurbetako *kurbaturak* segmentu bakoitzean. Test honen *hipotesia* hau denez gero (alegia, *melodi-aldakuntzaren azkarra* eta *azentuaren perzepzioa* loturik daudela), *korrelazio* hau ikertuko dugu: batetik, *kurbatura* hori, f'' -aren arauera neurtua; eta silaben azentuari parteliantek testean *ezarritako* balioa, bestetik.

Hona hemen:

1. esaldian:

<i>sil.</i>	or	du	an	e	er	de	ra	rik
f''	-0,56	+0,50	-0,04	-0,63	+0,72	-0,07	-0,07	0,00
<i>atr. A</i>	3	6	3	3	9	3	0	3
<i>atr. B</i>	1	4	5	5	9	4	0	2

<i>sil</i>	e	se	ki	an
f''	-0,33	+0,49	+0,22	-0,80
<i>atr. A</i>	2	9	1	4
<i>atr. B</i>	0	8	1	6

Ikus daitekeenez, /du/, /er/, /se/, eta /ki/ silabek ez bestek erakusten dute beheranzko ahurtasunik (alegia, f -aren aldakuntza azkartasunaren aldetikakoa azentua).

Korrelazio-koefizientearen kalkulua egiteko, has gaitezen alderatu behar dire aldagaien balio ertainak kalkulatzetik: f'' batetik; eta n_A (edo n_B) bestetik.

f'' -ri buruz hau lortzen dugu:

$$\bar{x} = (-0,57) / 12 = -0,0475$$

eta A multzoko n -ari buruz:

$$\bar{y} = 46 / 12 = 3,833$$

Presta dezagun A multzoaren kalkulu-taula:

	$(x-\bar{x})$	$(x-\bar{x})^2$	$(y-\bar{y})$	$(y-\bar{y})^2$	$(x-\bar{x}) \cdot (y-\bar{y})$
or	-0,465	0,2162	0,833	0,6939	-0,3873
du	0,595	0,3540	2,167	4,6959	+1,2894
an	0,0075	0,0001	0,833	0,6939	+0,0062
e	-0,5825	0,3393	0,833	0,6939	-0,4852
er	0,7675	0,5891	5,167	26,6979	+3,9657
de	-0,0225	0,0005	0,833	0,6939	-0,0187
ra	-0,0225	0,0005	-3,833	14,6919	+0,0862
rik	0,0475	0,0023	0,833	0,6939	+0,0396
e	-0,2825	0,0798	-1,833	3,3599	+0,5178
se	0,5375	0,2889	5,167	8,0259	-0,7578
ki	0,2675	0,0716	-2,833	8,0259	-0,7578
en	-0,7525	0,5663	0,167	0,0028	-0,1257
		2,5086		87,6417	+6,9075

$$\sigma_x = \sqrt{\frac{2,5086}{12}} = 0,457 \quad \sigma_y = \sqrt{\frac{87,6417}{12}} = 2,702$$

$$r = \frac{6,9075}{12 \cdot 0,475 \cdot 2,702} = 0,466$$

Bide beretik, B multzoko n -ei dagokionez:

	$(y-\bar{y})$	$(y-\bar{y})^2$	$(x-\bar{x}) \cdot (y-\bar{y})$
or	-2,75	7,5625	+1,2787
du	0,25	0,0625	+0,1487
an	1,25	1,5625	+0,0094
e	1,25	1,5625	-0,7281
er	5,25	27,5625	+4,0294
de	0,25	0,0625	-0,0056
ra	-3,75	14,0625	+0,0844
rik	-1,75	3,0625	-0,0831
e	-3,75	14,0625	+1,0594
se	4,25	18,0625	+2,2844
ki	-2,75	7,5625	-0,7356
an	2,25	5,0625	-1,6931
		100,2500	+5,6489

$$\sigma_y = \sqrt{\frac{100,25}{12}} = 2,89$$

$$r = \frac{5,6489}{12 \cdot 0,457 \cdot 2,89} = 0,356$$

Eta esaldiz kalkulu bera errepikatuz:

Fr.	A	B
1	0,466	0,356
2	0,692	0,393
3	0,822	0,792
4	0,310	-0,060
5	0,500	0,260
6	0,480	0,350
7	0,630	0,510
8	0,590	0,190
9	0,500	0,230
10	0,510	0,400
11	0,710	0,690
12	0,840	0,720
13	0,027	0,280
14	0,570	0,590
14'	-0,036	-0,410
15	0,850	0,070

korrelazio-koefiziente hauek emanez:

$$r_A = 0,53$$

$$r_B = 0,33$$

0.2.4. *Euskaldunak bertago* daude euskal azentua maiztasunen aldakuntze-kin lotzeko, erdaldunak baino.

Halaz ere apal xamarrek dira koefizienteak; eta hau idarokitzen dute: maiztasunen gorabeherak faktore garrantzitsua badira ere, besterik ere badagoela perzepzioaren arazoan. Beste puntu batetan ere aipatua denez, *luzeago* agertzen dira oszilogrametan amaierako silabak, maiztasunaren arauera legokiekeena baino; eta euskaldunak ez direnen

«hutsegina», melodi-goraketarik ez dagoen puntuetan silaba azentudunak «entzutean», adierazgarria izan daiteke.

0.1. kapituluan ikusten denez, *kurbatura* faktore erabakitzailea den hipotesia, honetara aurkez daiteke: *f*-aren *maximo* guztietan (maiztasun *gailurtzaile* guztietan), *f'* zero da eta *-f''* positiboa da; eta beronen balioak handiagoak dira, *gailurketa* nabarmenago izan ala.

Honen arauera, hortaz, maiztasunak berak eta beronen *maximoek*, markatzen dute azentuaren *lekua* azentu-unitatean. *Pertzepzioaren aldetik*, 1. eta 15. esaldien artean, 56 dira azentua daramaten silabak. Hots, silaba horietantxe ere gertatzen da *d*-aren *maximoa* delako azentu unitateetan: *du, er, se, mak*, etab. Baina sortzeko euskaldunek silaba horiek 328 aldiz asmatu bazituzten ere, erdaldunek 279 aldiz baizik ez zituzten asmatu.

Alderantziz, are 86 aldiz somatu zituzten erdaldunek amaierako silaba azentudun bat (ez zegoen kasoetan); euskaldunek, aldiz, 35 aldiz baizik ez zuten huts egin. Ez dirudi hau guztia zori-kontu hutsa izan daitekeenik.

- 0.2.4.1. *f*-en balioetan beretan *maximorik* ez dagoenean, *kurbaturaren maila*, «grosso-modu» *f''*-arekiko proportzionala, baliagarri izan daiteke bigarren mailako azentuak bilatzeko. Jakina, *-f''* negatiboa denean, azentuaz beste muturrean gaude; eta ahurtasunaren ezinbestezko baldintza *-f''* positiboa izaten da. *f*-ren balio berdintsutan, argigarria izan daiteke *kurbaturaren* alderaketa: */f''/* handiago bati, azentu sekundario sentigarriago bat dagokio.
- 0.2.4.2. Nolanahi ere, badirudi *maiztasun apaleko* hitz edo unitate bukaeretan *f* hutsaren neurketak, *pertzepzioaren* izana bera nahasten duela; eta *beheitikako* emaitzak ematen dituela.
- 0.2.4.3. Garbi bide dago ere, sortzekoen iritziz, nahiz beren hizkeraren azterketan ohituak ez izan, *F0*-aren *maiztasuna* dela faktore nagusia; eta *lehenengo* hurbilketan, unitate-amaierak alde batera utzita bederen, *horretxek* adierazten duela ongienik hitzunek azentua non duten.

1. Alderdi fonetikoak

- 1.0. Zenbait datu fonetikoren azterketa**
- 1.1. Zubererazko azentua**
- 1.2. Bizkaiera (Gernika)**
- 1.3. Gipuzkera (Goierri)**
- 1.4. Ipar goi-nafarrera (Ultzama)**
- 1.5. Hego-bizkaiera (Arratia)**
- 1.6. Areatza-ko corpusa**
- 1.7. Areatza-ko diagrama akustikoak**
- 1.8. Gaztelaniaren akustikaz zer bait**

1.0. Zenbait datu fonetikoren azterketa

Lan honetan euskaraz hautematen den azentuak, batetik, eta sortzen duten fisika-faktoreek, bestetik, elkarrekiko duten lotura aztertu da xehekiago; eta datu horiek eta hizkuntzalaritzari buruzko izkribuek erakusten dituztenak, alderatu dira.

0.2 puntuan, beste alde batetik, 1982.ko Uztailean burutu zen Testaren berri eman da. Iruñean egin zen, UEU-ko ikasleen artean; eta, hauen bitartez, puntu hau neurtu nahi izan genuen: oinarrizko *FØ-maiztasunaren* eta euskal *azentudun silabaren pertzepzioaren* artean dagoen korrelazioa,

Baina ondorioetara baino lehenago, has gaitezen eskuarrean ditugun datu fonetikoak azaltzetik; geroago euskalkien azentuketaren gorabeheren agitzeari ekiteko.

1.1. Zubererazko azentua

Zubererazko azentuari dagokionez, badago deskribapen fonetiko eta akustiko fidagarri bat: Aita Jean Larrasquet-en Tesia («Larrasketa» euskaraz, berak bereziki azaldu zigunez). Lanaren izenburua hau da: «*Action de l'Accent dans l'évolution des consonnes en basque souletin*», Paris 1928.

Fonetikari apartak azpimarratu zuen oinarrizko ondorioa hau da: zubererazko azentuaren izari nagusia *FØ-maiztasuna* dela; nahiz, bigarren mailako ñabardurei dagokienez, eta gutxi gora-behera *FØ* berdina den ber, *intentsitateak* ere eragin determinatzailea izan badezake ere. (N.1.1.)

Oro har, Larrasketa-k laburbildu zuenez, edozein azentudun silabatan, *batera* emendatzen dira silaba beraren gainean bai *oinarrizko maiztasuna*, bai *intentsitatea*, eta bai *kantitatea* (= iraupena); nahiz ez hiru osagai horiekiko emendioa beti ere linealki edo homotezi gisan gertatu.

0.1. kapituluaren irakurketaren ondorioz frogatua izan denez, horixe da, hain zuzen, hizkuntzarik gehienetako azentu-arazoak azaltzera-koan gailen agertzen den irizpidea.

Bestetik, eta beti Larrasketa-ren iritziz, azentu-unitate batetan, eta funtsean, sintaxi-funtzioak ez du eraginik azentuak hartzen duen *lekuaz*; nahiz-eta gero gailentasun hori, delako unitate horrek esaldian bigarren mailako funtzioak hartzen baldin baditu, osoki edo zatiki, gesal edo berdin badaiteke ere.

(*Oharra*: ikus, era berean, zati bakoitzaren ondoren, aztertuak izan diren euskalkietako kurba-sailak; bai fonetikaren, bai melodiaren arauera osatuak. Baita auzo-hizkuntzei buruzkoak ere)

Azkenekorik, nahiz-eta itxuraz, eta zenbatasunean, zubererazko azentuak halako «romance»-kutsua badu ere, silaba azentudun eta azentugabeen artean dagoen *musika-tartea* txikiago da (euskaraz), askoz ere gainera, gaztelaniazkoen artean baino. Beste modu batez esateko: zubererazko azentua, euskalkien artean azkarrenetakoa izanik ere, *lauago eta berdinago* da gaztelaniazkoa baino.

- 1.1.1. Aldera bitez, esate baterako, zubererazko paroxitono batzu (silababikoak), bana-bana ahoskatuak; eta mota bereko beste batzu, gaztelaniazkoak oraingoan. Honetarako datu akustiko hauek erabiliko ditugu: Larrasketa-k berak esan dugun ikerlanean emandakoak, batetik; eta bere «Pronunciación Guipuzcoana» delakoan (Bibl. ikus) eta «Revista de Filología Española» delakoan (XII lib., 4. Ing., 335 orr), T. Navarra Tomás-ek emandakoak, bestetik.

Aurkez ditzagun, aurrenik, *zubererazko* lau adibide (geure kurba-sailean ere izendapen berberaz emanak); eta, ondoren, *gaztelaniazko* beste lau.

Hizk. Hitzza	unit. maizt. (Hz)	notak	tartea	tonuerdi
Z kító	2 138/125	do#(2)/do (2)	1,104	2
Z áita	5 165/135	mi (2)/do#(2)	1,222	3
Z bórtin	8 160/120	mi (2)/si (2)	1,333	5
Z sápa	11 198/158	sol (2)/mi (2)	1,253	4
Gazt. nácar	2 180/ 90	fa#(2)/fa#(1)	2,000	12
Gazt. mésa	6 400/220	sol#(3)/la (2)	1,818	10
Gazt. péso	7 336/175	mi (3)/fa (2)	1,920	11
Gazt. cánto	9 320/205	mi (3)/sol#(2)	1,561	8

Ikus daitekeenaz, *askoz ere azkarrago* da tartea gaztelaniaz, zubereraz baino: Cervantes-en hizkeran 8 tonuerditatik 12-tara doalarik, Etxahun-enean, berriz, 2-tatik 5-etara doa.

Bataren eta bestearen tarte ertainak hauek dira:

Gazt.: i = 1,825. Beher.: ia 11 tonuerdi (ia oktaba bat)

Zub.: i = 1,228. Beher.: ia 4 tonuerdi bakarrik.

- 1.1.2. Aldera ditzagun orain bi hizkuntzotako zenbait *oxitono*. Eta taula hau dugu:

Hizk.	Hitza	unit.	maizt.	notak	tartea (Hz)	tonuerdi
Z	aitá	6	145/160	re (2)/mi (2)	1,103	2
Z	bortín	7	150/170	re#(2)/fa (2)	1,133	2
Z	zapá	12	170/190	fa (2)/sol (2)	1,118	2
Gazt.	señór	1	140/190	do#(2)/sol (2)	1,357	5
Gazt.	tambór	4	280/400	do#(3)/sol#(3)	1,429	6
Gazt.	pesó	8	233/322	la#(2)/mi (3)	1,382	6
Gazt.	cantó	10	220/320	la (2)/mi (3)	1,454	6

Goragoko pasartean gertatzen zena berriz ere gertatzen: gaztelaniaz baino *aisa lauago* dira zubererazko tarreak:

Gazt.: i = 1,405; Goraketa ertaina: ia 6 tonuerdi.

Zub.: i = 1,118; Goraketa ertaina: ia 2 tonuerdi.

Zubereraren mogimenduak, maiztasunaren sailean, *herena* dira orain gaztelaniazkoen arauera.

- 1.1.3. Aldera ditzagun orain bi hizkuntzotako zenbait *oxitono*. Eta taula hau dugu:

Hizk.	Hitza	unit.	maizt. (Hz)	notak	tartea	tonuerdi
Z	xütütü	3	170/198/135	fa (2)/sol /do#(2)	1,165/1,467	+3/- 7
Z	maithátü	9	155/202/155	re#(2)/sol#(2)/re#(2)	1,303/1,303	+5/- 5

Gazt.	campána	5	280/380/230	do#(3)/sol(3)/la#(2)	1,357/1,652	+5/- 9
Gazt.	cantára	12	245/345/163	si#(2)/fa/mi(2)	1,408/2,331	+6/-17

Amaierako beheraketak, bereziki, askoz ere markatuago dira zubereraz baino. Berriz ere, euskal azentua lauago da gaztelaniazkoa baino:

Gazt.: 1,382 eta 1,991; (+)6 eta (-11) tonuerdi.

Zub.: 1,234 eta 1,385; (+)4 eta (-)6 "

- 1.1.4. Orain maiztasunen kurbaren *ahurtasunaren zeinua eta balioa* aztertzen batidugu (kalkuluen teoriari ikus 0.1 kap.) maiztasunen gehien-gorik ez dagoen puntuetan bigarren deribatuaren zeinua azter dezakegu:

$$-\frac{d^2f}{dt^2} \sim 2f_i - (f_{i+1} + f_{i-1})$$

eta erraz ikusiko dugu, normalean, (-2) silaban gertatu ohi dela zubererazko azentua (eskuin aldetik hasi eta bigarrena), eta gutxienez bigarren mailakoa dela: nahiz batzutan, eta maiztasunen aldetik, silaba *gailurtzailea* ez izan.

Esate baterako:

Z. **sohuéta(r)at** (13 unit.; Urdáts)

$$-f''(\text{ta}) = 2 \times 170 - (200 + 115) = + 25. \text{ Ahurtasuna.}$$

Beraz: **sohuétáat**

Z. **dütükeziénian** (16 unit.; Urdáts)

$$-f''(\text{ni}) = 2 \times 180 - (205 + 140) = + 15. \text{ id.}$$

Beraz: **dütükeziénian**

Z. **gáiaeki** (19 unit.; Muskildi)

$$-f''(\text{e}) = 2 \times 165 - (175 + 115) = + 40. \text{ id.}$$

Beraz: **gáia(r)èki**

Hots, *kalkuluen* arauera aurkitzen den azentu *bigarrenkari* hau (oraindik ez nagusi, alegia), batera dator Larrasketa-ren beraren lanetan erabilitako grafiarekin; eta beronen Gramatikarekin bereziki. Azpimarragarria da joan den mendean, Gèze-ren eta Intxauspe-ren obretan, ez dela azentu nagusia baizik agertzen. Berriro ere, (-2) azentu hori berri xamarra dela penstsatzeko arrazoiak daude; eta, beti ere, nagusia ez dela (edo-ta ez dela izan). Basabürü-ko jendearekin hitzegiterakoan kutsu bera uzten du hango hizkerak: alegia, (-2) joera ez dela uste izaten den bezain nagusia.

- 1.1.5. Euskaldunen artean oso zabaltuta dagoen ustekeriaren aurka (baita hizkuntzalarien artean ere), zubereraz ez dago, ikusia dugunez, eta maiztasunari gagozkiolarik, jauzi nabarmenik. Begira beza irakurleak, otoi, 25. unitateari dagokion diagrama. Ongi ageri denez, *isotonikoa* da kurba hori ia osoki: deklinaketa berdina da ia-ia haserako /ze/-tik ($f = 180$ Hz), /tin/-eraino ($f = 140$ Hz). Eta hori *zortzi* silabatan barrena (beheraketa ertaina: 5 Hz/sil.; alegia, silabako tonuerdi bat baino gutxixeago... Isotonia, hitz batez).

Nire eskuetan dauden, eta Zuberoko eskualde desberdinetan grabatu diren zintetan ere, joera bera nabarmentzen da: zenbait aldiz erabat «mendebaltar»tzat jo litezkeen esaldiak aurkitzen dira, ia-ia erlieberik gabeak; eta hauetan oso nekez jakin daiteke azentudun silabak zein ote diren.

Geronen transkribaketa batetan ere (ikus «Fontes», Bibl.), Sohútan grabatua, esaldi hau aurki daiteke:

éne aítá ée dantzá(r)i famátia zén

Uhart-Hoki-ko Año Hegiaphal-ek elkarrizketan ziplo ahoskatua; eta honek ere, FØ-kurbetan, azentudun silabetan ez du ia-ia irregulartasunik erakusten. (Kontutan har, bidenebar, **famátia** hori).

Zubererari buruz egin ohi diren baiespenak *apaltzeko* beharra ageri da, beraz: Uhatzándi inguruetakoa «üská(r)a» delakoa, beste euskalkiak baino nabarmenago eta markatuago agerturik ere, gainerako euskal hizkera-moten itxura normala du funtsean.

Oharrak

- N.1.1. «L'accent est essentiellement musical; mais l'élément d'acuité n'est pas indépendant de celui de l'intensité» (*Action de l'accent*).

ZUBERERA (Larrasketa)	kitätü/kíto/xütíttü
------------------------------	----------------------------

1.

σ	ki	(ta)	tü								
f	130	148									

ki tá tü

2.

σ	(ki)	to									
f	138	125									

kí to

3.

σ	xü	(tí)	tü								
f	170	198	135								

xü tí tü

ZUBERERA (Larrasketa)	xütitüik / áita / aítá
------------------------------	-------------------------------

4.

σ	xü	ti	(tü)	ik						
f	188	185	199	145						

xü ti tū ik

5.

σ	(ái)	ta								
f	165	135								

ái ta

6.

σ	ai	(ta)								
f	145	160 ----- 120								


ai tá

ZUBERERA (Larrasketa)

bortín / börtin / maithátü

7.

σ	bor	(tin)									
f	150	70									




8.

σ	(bor)	tin									
f	160	120									



9.


σ	mai	(thá)	tü								
f	155	202	$\frac{155}{100}$								



ZUBERERA (Larrasketa)	maithatüik / sápa / sapá
-----------------------	--------------------------

10.

σ	mai	tha	(tü)	ik						
f	137	150	198	$\frac{180}{110}$						



11.

σ	(sa)	pa								
f	198	158								



12.


σ	sa	(pa)								
f	170	$\frac{190}{125}$								



ZUBERERA (Larrasketa)	sohueta(r)at
-----------------------	--------------


13. Urdáts

σ	so	hu	é	ta	at						
f	190	170	200	170	115						




14. Muskíldi

σ	so	hu	e	ta	at						
f	186	230	200	165	130						




15. Barkóxe

σ	so	hu	ta	at							
f	140	160	130	110							




16. Urdáts

σ	dü	tü	ke	(zie)	ni	an					
f	180	200	200	205	180	140					



17. Muskildi

σ	dü	tü	ke	(zie)	nin					
f	180	200	200	210	150					



ZUBERERA (Larrasketa)	izátiaentàko / gáiaèki
-----------------------	------------------------

18. Urdáts

σ	i	(za)	tia	en	(ta)	ko						
f	140	190	190	190	170	120						

i zá tia en tá ko

19.

σ	(gai)	a	(e)	ki								
f	195	175	165	115								

gái a é ki

20.

σ	(gai)	a	(e)	ki								
f	170	170	160	115								

gái a é ki

ZUBERERA (Larrasketa)	núrtaki
-----------------------	---------

21.

σ	nur	ta	ki								
f	140	98									


núr ta ki

A musical staff with a bass clef. A line with two dots starts on the second line and descends to the first line.

ZUBERERA (Larrasketa)

22. Muskildi

σ	ha	(ti)	a	ha	(tü)	ki	(ta)	tü	(düt)	a	
f	170	250	200	231	240	220	250	200	180	210	



23. Barkóxe


σ	ha	(ti)	a	(há)	tü	ki	(ta)	tü	(düt)	a	
f	140	180	150	160	140	150	200	180	180	140	



ZUBERERA (Larrasketa)


24. Urdáts

σ	ze	den	bo	a	i	do	rrak	ein	ti	an	
f	190	170	190	180	170	180	170	160	180	120	



25. Barkóxe

σ	ze	den	bo	a	i	do	rrak	in	tin		
f	180	160	160	160	160	160	150	140	140		



1.2. Bizkaiera (Gernika)

(«El vascuence de Guernika» deritzon laneko datuen arauera. Ikus T. Navarro Tomás, Bibliogr.)

1922-an Navarro Tomás-ek transkribatutako hitz bakanez, ikuspegi orokor hau idaroki zioten:

«La vocal final, en todos los casos citados, aparte de **ser la más larga**, resultó también **la más alta** o aguda. La impresión del oído, y lo que podía deducirse de los trazos del aparato registrador, permitían atribuir asimismo a dicha vocal un acento *de intensidad relativamente mayor* que el de las vocales anteriores. *La intensidad, la cantidad y el tono coincidieron*, pues, en dichos ejemplos, sobre la vocal final. Lo mismo ocurre en español en palabras agudas, como **pasó, jamás, comprador**, etc.. La pronunciación de las formas *atzo, otza*, etc. dentro de frase, modificaría seguramente los resultados». (III Congr. Est. Vascos, 56).

Azpimarratua dugunez, *silaba berean* azkartzen dira, eta *batera* azkartzen, azentuaren sortzaileak oro. Bizkaieraz ere gauza bera gertatzen da, beraz, gainerako euskalkietan bezala.

Beste gauza bat ere ikus daiteke (eta honi buruz N. Holmer-egandik urrundu beharrean gaude), bizkaiera mota honetan, eta ez honetan barrik, berezko azentu-posizioa ez dela (-2) «zeltikoa», (+2) *baizik*. Alegia, *ezker* aldetik hasi, eta bigarren silaban; **atzó, otzá, aítá, ejó**. Joera hau, bidenabar esateko, oso «larramendi»tarra delarik: ikus 4.8 kapitulua. Are «oñatiarra» ere, Gipuzkoako bizkaieraz: 4.4 kapituluan ikus daitekeenez.

1.2.1. Orain **apatxá** (5.unit.) hitzean, (+2) silaba aztertzen badugu, hau dugu:

a	pa	txá
286	372	400 (Hz)

eta maiztasun gailurtzailea /txá/ silaban dago, dudarik gabe.

Hala ere, /pa/ silaban bigarren mailako azenturik ote dagoen ikusteko:

$$-f'' (pa) = 2 \times 372 - (286 + 372) = + 58.$$

Eta maiztasun kurbak puntu horretan erakusten duen ahurtasuna ere azentuketa egokiaz idarokitzeko: **apàtxá** (+2) silaba horretan azentu sekundario edo bigarrenkaria dagoelarik.

1.2.2. Azter ditzagun orain goranzko tartea:

Hizk.	Hitza	unit.	maizt.	tartea	tonuerdi
B	atzó	1	266/332	1,248	+ 5
B	otzá	2	280/340	1,214	+ 5
B	attá	3	260/400	1,538	+ 7
B	ejó	4	320/360	1,437	+ 6

Beste daturen arauera, geroago ikusiko dugunez, maiztasun-tarte handi xamarrak dira horiek, eta baliteke hiztunaren doinu hanpurusaren ondorio izatea; bana-bana hitzak ahoskatzera behartua izan zelako, agian.

Nolanahi ere, bai Navarro Tomas-en datuen urritasunaren gatik, bai lortzeko erabili zen moduaren gatik ere, Gernika-ko azentuaz ezer gutxi ondoriozta daiteke beroietatik.

1. atzó

σ	a	tzo										
f	266	332										
t	65	410										
t_0	130	280										

a tzó

2. otzá

σ	o	tza										
f	280	340										
t	50	365										
t_0	100	270										

o tzá


3. aítá

σ	a	tta										
f	260	400										
t	55	370										
t_0	110	300										

a ttá


4. ežó

σ	e	žó										
f	320	460										
t	60	355										
t_0	120	290										



5. apatxá

σ	a	pa	txa									
f	285	372	400									
t	45	215	510									
t_0	90	90	280									



Hitzak bakanka ahoskatu ziren

t_0 [mseg]

t [mseg]

f [Hz]

1.3. Gipuzkera (Goierrri)

(Tomás Navarro Tomás-en «Pronunciación Guipuzkoana» lanaren arauera. Lekukoa Aita P.R. Lizarralde izan zen: zaldibitarra (Goierrri); nahiz Alkiza-n bizi (Beterrri). Bi gipuzkera mota horien arteko interferentziak badituela pentsa daiteke).

- 1.3.1. Has gaitzen *silababikoen* azterketatik. Hauetan, eta hitzak banaka ahoskatzen direnean (eta hauxe gertatu zen N.Tomás-en «I» multzoa biltzerakoan), *isotonia guztizkoa* da ia-ia (edo-ta *osoa*: 1,2 eta 3 unitateetan):

G. bété ;	150/150 Hz
G. bésté ;	150/150 Hz
G. bákán ;	145/145 Hz

eta, behar bezala ahoskatu nahi izatekotan, Sebero Altube-ren erdal kide hauek hartu beharko lirateke eredetzat: *yá sé, yó sé*; etab.. Teorian bederen silababakarrak isotoniko dira hor.

Beste zenbait bisilabikotan, berriz, lehenengo silabatik bigarreneara pasatzean, oinarrizko FØ-ren maiztasunean *goraketa txiki* bat gertatzen da:

G. borrá	4.unit.	150/155	1,033	<	1 tonuerdi
G. gordé	5.unit.	145/150	1,034	<	1 tonuerdi

Berriz ere, isotonia erabatekoa da ia-ia; nahiz halako indarketa nabaritu (+2) silaban.

- 1.3.2. Azter ditzagun orain *hiru* silabatako hitz batzu:

Hizk.	Hitza	unit.	maizt.	tarteak	tonuerdi
G	áñoá	6	140/140/140	1,000/1,000	+0 / -0
G	gogorrá	7	155/155/160	1,000/1,035	+0 / +0,5
G	erbiyá	8	140/140/150	1,000/1,071	+0 / +1
G	árgalá	12	150/145/155	1.034/1,069	-0,5/ +1,0

Itxura antzekoa dute unitate horiek guztiek; eta lehendabiziko hurbi-laldian *isotonia* aipa daiteke (Altube-k proposatzen zuen bezala). Baita unitatearen *eskuineko* silaba nolabait azpimarratzen dela ahantzi gabe. Azentu mota hori, (-1) markakoa, Gipuzkoa-ko Iparraldean gaur ere errepara daitekeenarekin bat dator, baita Nafarroa-ko gipuzkerarekin ere. Ohar bera egin daiteke Ipar goi-nafarrerarekin. Eta batera dator, era berean, orain dela bi mende Aita Larramendik bere ama-hizkeraz egin zituen oharrekin (Beterrriko gipuzkoarra zela badakigu). Somatu

egiten da, bestalde, ezkerretara bi silabatara joz gero (-3, alegia), horretan ere bigarren mailako azentu bat aurki daitekeela (gipuzkoarrek, enfasi gisan, askotan markatzen dute (+1) silaba *hiru* silabatako unitateetan).

- 1.3.3. *Lau silabatako* batzu orain aztertzen baditugu, isotoniari buruzko irizpide berak atxiki daitezke:

Hizk.	Hitza	unit.	maitz.	tarteak
G	ezàgutú	16	140/145/140/150	1,036/1,036/1,071
G	baliyoá	17	150/155/150/160	1,033/1,033/1,067

Ia balio berberekin ditugu beste hauek ere:

adàbatú (18 unit.) ; **egàrriyá** (19 unit.)

Azentu nagusia (-1) silaban dago; eta bigarrenkaria (+2) silaban, eskuintetik hasi eta bigarrenera. Bi azentuok *oso ahulak* dira erdararen arauera.

Tamalgarria izanik ere, Navarro Tomás-en II eta III zatietako esaldiak ez zaizkigu baliagarri iruditzen (ilaran, hauei baitagozkie: «Aita gurea» otoitzari; eta bertsolari baten esanei). Eta, ezinbestean, bai entonazioz eta bai azentuketaz, oso artifizialak direlako.

Interesgarriago da «Diálogo IV» deritzon parte (651 Orr.); beronen lautasan harrigarria nabarmen agertzen baita ondoko grafikoetan.

- 1.3.3.1. Aipamen berezia du, dena dela, oso puntu eztabaidatua izan delako, *badakizu* (2. Es.) unitatearen azentuketak.

Azentua (+2) da; eta melodi-goraketa garbia gertatzen da /ba/ eta /da/ silaben artean:

ba	dá	ki	zu
190	240	220	200 (Hz)

eta tarteak kalkulatu:

$$i = 240 / 190 = 1,263 (= +4 \text{ tonuerdi})$$

Honek /dá/ ematen du garbiro (besteak beste, Basterretxea eta Holmer-ekin batera). Eta berriz ere **yá-losábes** -arekiko aurkaritzan. Interferentziak euskal eskema ezabatzeraz bultzatuko duela soma liteke, besterik gabe. ***Bádakízu** eskema, hitz batez, erdal kide hutsa da.

- 1.3.3.2. Navarro Tomás-en corpus-eko 5.Es., nabarmen agertzen da euskal *da* adizkiaren klitikotasuna:

ó	bra	da
195	170	160 (Hz)

baiespen moduan (**óbrada**). Idazle zahar askoren grafiak, beraz, euskal azentuan funtsatzen zen.

1.3.4. Azter ditzagun orain corpus-eko unitate batzu:

1.3.4.1. *Silababakarrak*

Dirudinez, beren silaba bakar horretan atxikitzen dute azentua markatua denean; bestela ez.

G. **léngo**, 220/215 Hz. (ik. **lehen**; eta **lén**, M+1)

G. **gorrá**, 180/185 Hz. (mugb. **gor**, (-M))

1.3.4.1.1. **Ez**- ukazioa *proklitiko* agertzen da; eta gauza bera **ba**- baiespena (corpus-ean gertaldi gutxi, dena dela).

1.3.4.1.2. **Zer** galdetzaila, silababakarra, sintaxiaz galdegai delarik, *proklitiko* agertzen da, gainerako euskalkietan bezala:

zer dén.

150 180 (Hz). Goraketa: 3 tonuerdi.

Guipuzkeraren tankerako euskalki lau batetan, zalantza guztiak ezabatzen ditu interbalo horrek.

1.3.4.1.3. **-bat** *enklitiko*a da (mugagabe gisa doanean, eta ez zenbakari gisa); eta berezko azenturik ez du erakusten. Ikus 5. Es:

<u>in</u>	<u>gú</u>	<u>ma</u>	<u>ba</u>	<u>ten</u>	
190	200	200	180	170	Hz

alegia, (+2); eta «baten» erantsita.

1.3.4.2. *Silababikoak*

Markatuak ez diren hitzetan, Mendebaldeko bizkaieraren azentu-eredua onar bide delarik:

G. **egúnèko**; 190 / 220 / 215 / 180 Hz

-f'' (né) = 2 x 215 - (220+180) = + 30.

G. **béarrik** (4. Es); 170 / 160 / 150 Hz.

Honek Ekialdeko Bizkaiera idarokitzen du: *béar/beárra/béarrak*.

1.3.4.2.1. Zenbait erdal hitz, integratu gabe, eta (M+1) markatu gisa agertzen da:

G. **séda**: 200 / 190 Hz (2.Es.)

200 / 180 Hz (4.Es.)

175 / 150 Hz (5.Es.)

balio ertainak hauek izanik: 192 / 173 Hz (beherak: ia 2 ton.)

Erdal kutsua ere nabarmen hauetan:

G. **óbra**: 195 / 170 (5. Es.)

G. **jolásak**: 185 / 200 / 180 Hz.

(plural normala: ***jólasak** litzateke; baina gazt. **soláz** gogoan hartzea aski da **soláz** (M+2) azaltzeko).

1.3.4.2.2. **Zuré** edutezkoa (-1) agertzen da; eta proklitiko gisa erantsia:

zu	rè	jo	lá	sak	
200	200	185	200	180	[Hz]

Kalkula dezagun /ré/:

- f'' (ré) = 2 x 200 - (200 + 185) = +15. Ahurtasun ahula.

1.3.4.2.3. *joan* partizipioa azentudun agertzen da: **jóan**:

jóan: 170 / 160 (Hz).

Honek, beste euskalkitan bezala, ***ióan** (+2) postularazten du; alegia, /i/ silabikoa; gramatika-bidetik ere soma litekeen bide berberetik.

1.3.4.3. *Hirusilabakoak*

Aldez aurretik, eta belarri bidez, soma zitekeenez, azentuketa normala dute: (+2).

G. **ingúma** (5. Es.); 200/220/200, etab.

Goraketak: (+2) eta (-2) tonuerdi.

G., **jostátu** (1.Es.); 180/240/240 Hz.

Goraketak: (+5) eta (+0) ton.

izate izenkiak, **izáte** postularazten du (beste euskalkietan bezala, bide-nabar esateko). Hemen, ordea, bitxi dator:

ì	za	té	ko
150	140	140	90 Hz

- f''(te) = 2 x 140 - (140 + 90) = + 50. Ahurtasun garbia.

1.3.4.3.1. Larramendi-k aipatu bezala, **nínduen** morfemak (+1) azentua bide darama:

nín	du	en
255	160	140 (Hz)

/nin/ eta /du/-ren artean beheraketa azkarra dagoelarik: 8 tonuerdi.

Zenbatasunaren aldetik, ezin daiteke askoz ere aurrerago joan Navarro Tomás-ek emandako datu akustiko urrien bidez.

1.3.5. Altsasu-ko azentuari buruzko ohar batzu.

Nafarroa-ko gipuzkerari dagokio Altsasu-ko euskara. Aita K. Izagirrek 1967-ko lanean egindako ohar orokor batzu azpirramatzea, interesgarri izan daiteke.

1.3.5.1. Adibidez, hark transkribatutako zenbait lautasun harrigarri.

Ikus 18. unit., esate baterako; eta dagokion diagrama:

gartzelaa sartu ber gerubela

Harrigarri da silaba isotonikoen ilara; eta *-la* silaban azentu zakar eta nabarmena dago, zerrendaketa-entonazioaren aurrean dagokionez.

Azpipimarratzekoa da, era berean, esaldi horretako **sartu** isotonikoa (19. unit.-ko **sartú** oxitonono garbiaren aurka). Berrero ere zerrendaketa-entonazioan gaudela esan behar da.

1.3.5.2. **ezfiyetu** (16. unit.) horretako **ez-** proklitiko azpipimarratu behar da (+2 azentua), bestetan ere esan dugunaren arauera. Gipuzkoa-ko Beterri-n ere berdin entzuten da gaur: **ezítea** (= ez egitea), berrero ere **ez-** proklitiko gertatzen.

Ondoko oxitonoak ere, gipuzkera-kutsukoak dira: **ogiyá** (12), **pizkorrá** (13), **alabii** (9); are **zala** ere (10).

1.3.5.3. Gogoan hartzeko modukoa da, era berean, K. Izagirrek berak seinatzen duena: *normalean*, azentudun silabetan, *batera* gertatzen dela maiztasunen goraketa («bi, iru, etc. donu gorago»); nahiz *zenbait al-diz*, gutxitan estatistikoki, bateratasun hori gertatzen ez dela bereziki badio ere.

GIPUZKERA (N. Tomás)	bete / beste / bakan
-----------------------------	-----------------------------

1.

σ	be	te										
f	150	150										
t	210	610										
t_0	200	220										

be te

2.

σ	bes	te										
f	150	150										
t	150	625										
t_0	160	250										

bes te

3.

σ	ba	kan										
f	145	145										
t	x	x										
t_0	160	250										

ba kan


4.

σ	bo	(rra)								
f	150	155								
t	240	620								
t_0	200	220								




5.

σ	gor	(de)								
f	145	150								
t	215	705								
t_0	210	290								




6.

σ	a	ño	a							
f	140	140	140							
t	x	x	x							
t_0	x	x	x							




7.

σ	go	go	(rra)							
f	155	155	160							
t	270	560	1020							
t_0	180	180	240							




8.

σ	er	bi	(ya)							
f	140	140	150							
t	95	530	840							
t_0	190	200	260							




9.

σ	go	ra	(tú)							
f	150	150	160							
t	245	475	160							
t_0	230	170	250							



10.

σ	ar	di	(ya)							
f	160	160	170							
t	x	x	x							
t_0	x	x	x							




11.

σ	(gí)	zo	(ná)							
f	140	130	145							
t	225	575	905							
t_0	170	170	210							



12.

σ	(ar)	ga	(la)							
f	150	145	155							
t	x	x	x							
t_0	x	x	x							




GIPUZKERA (N. Tomás)

éuskerá / árkitu / ezágutú


13.

σ	eus	ke	ra							
f	145	140	150							
t	115	570	790							
t_0	230	160	220							




14.

σ	ar	ki	tu							
f	140	135	140							
t	70	440	640							
t_0	140	740	200							



16.

σ	e	za	gu	tu						
f	140	145	140	150						
t	80	415	660	935						
t_0	160	150	140	170						




GIPUZKERA (N. Tomás)

balíyoá / adábatú / egárriyá


17.

σ	ba	(li)	yo	(a)									
f	150	155	150	160									
t	x	x	x	x									
t_0	x	x	x	x									




18.

σ	a	(da)	ba	(tu)									
f	150	155	150	165									
t	x	x	x	x									
t_0	x	x	x	x									



19.

σ	e	(ga)	rri	(ya)									
f	155	160	155	160									
t	x	x	x	x									
t_0	x	x	x	x									




GIPUZKERA (N. Tomás)

erabillí / begitartea / méndiak berá


20.

σ	e	ra	bi	llí						
f	140	140	140	150						
t	80	280	560	850						
t_0	160	180	160	220						




21.

σ	be	gi	tar	te	a					
f	180	180	180	180	190					



22.

σ	men	di	ak	be	ra					
f	200	190	180	170	200					




GIPUZKERA (N. Tomás)

atoz berá


23.

σ	a	toz	be	ra						
f	180	180	180	200						




1. Es. Lengo eguneko zure jolasak arras jostatu ninduen

σ	len	go	e	gu	ne	ko	zu	re	jo	la	sak
f	220	215	190	220	215	180	200	200	185	200	180




1. Es. (segida)

σ	a	rras	jos	ta	tu	nín	du	en			
f	200	200	180	240	240	255	160	140			




2. Es. Badakizu seda zer den

σ	ba	da	ki	zu	se	da	zer	den			
f	190	240	220	200	200	190	150	180			




3. Es. Ustez bai

σ	us	tez	(bai)							
f	160	160	120 200							




4. Es. Ezta Indietara joan bearrik seda izateko

σ	ez	ta	In	(dí)	e	ta	ra	(jo)	an	(be)	a
f	185	185	200	220	200	185	170	170	160	170	160




4. Es.

σ	rrik	(se)	da	i	za	te	ko			
f	150	200	180	150	140	140	90			



5. Es. Inguma baten obra da seda

σ	in	(gu)	ma	ba	ten	(o)	bra	(se)	da		
f	190	200	200	180	170	195	170	160	175	150	




GIPUZKERA (Altsasua)

al dóten guziya / parrokoak sg. erg. /
bai, nunbait


1. al doten guziya

σ	al	(do)	ten	gu	zi	ya				
f										




2. parrokok

σ	pa	rro	(kuk)							
f										



3. (enfasizko bai)

σ	(ba)	a	a	ai	(nun)	ba	(ait)			
f										




4. (beste) kasu út: beste kasu bat

σ	ka	su	ut							
f										




5. naurií

σ	nau	ri	i							
f										



6. sobrá reé

σ	so	bra	re	e						
f										



7.

σ	gaz	(te)								
<i>f</i>										

gaz té

8.

σ	(pa)	tzen	bo	on	(a)	buz	tu	(ban)		
<i>f</i>										

pá tzen bo on á buz tu bán

9.

σ	a	(la)	bi	(i)						
<i>f</i>										

a lá bi í

10. zalá

σ	za	(la)								
<i>f</i>										

za lá

11.

σ	(kon)	tu	ba							
<i>f</i>										

kón tu ba

12.

σ	o	gi	(ya)							
<i>f</i>										

o gi yá


GIPUZKERA (Altsasua)

pizkorrá / gindén / eta trenean gan be(a)r

13.


σ	piz	ko	rra								
<i>f</i>											

piz ko rra

**14. gindén: ginen**

σ	gin	den									
<i>f</i>											

gin dén

**15. eta tré nian fán ber**


σ	e	ta	tre	nian	fán	ber					
<i>f</i>											

e ta tré nian fán ber




16. ez fíyetu

σ	ez	(fí)	ye	tu						
f										



17. Beste (b)at esan be(a)r dinat

σ	(bes)	teat	e	(san)	ber	di	nat			
f										



18. garzelara sartu ber gerubela


σ	(gar)	ze	la	a	sar	tu	ber	ge	ru	be	(la)
f											



lá

19. sartú (zerrendaketan)

σ	sar	tu									
<i>f</i>											



20. bidean (zerrendaketan)

σ	bi	dién									
<i>f</i>											



1.4. Ipar goi-nafarrera (Ultzama)

(A.K.Izagirre-ren deskribapenaren arauera, 1966)

Deskribapen hau ez da tresnazkoa, ezta zenbakizkoa ere, zoritxarrez; baina zaindua eta fidagarria bai, segurki.

- 1.4.1. 1/57 unitateei dagozkien diagramei begiraldi azkar bat besterik ez da eman behar (esaldi horietako zenbait solas betean harturik) berriz ere ondoko honetaz jabetzeko: Ultzama-ko Ipar goi-nafarreraz (edo Ipar nafarrera garaiaz) azentua funtsean *laua* da, berdintsua, eta gutxi markatua. Nahiz, hau bai, aurkeztua dugun gipuzkera baino azkarrago izan. Bai honek, jakina; baita beste zenbait alderdik ere, Ultzamera «Ekialde»ko euskalkien artean jartzera bultzatzen dute.

Hala ere, eta ikusiko dugunez, «Mendebalde»ko kutsu nabarmena du zenbait aldetatik.

- 1.4.2. Unitate *silababikoetan* agertzen diren maiztasun-tarteak azter ditzagun hasteko; banaka ahoskaturik, eta K. Izagirre-ren ustez (baita A. Iturria-renez, eta besterenez, musika-laguntzarekin) emanak izan zitzaizkigun bezala.

Hona laukote hau:

Hitza	unit.	tartea	silaba kopurua
áite	34	-6 (ton.)	2
ónyua	50	-6	2 (= wa)
yéndia	52	-6	2 (= ja)
érua	40	-6	2 (= wa)

Beheranzko tarte hori (6 tonuerdi) askoz ere apalago da gaztelaniazko 11 tonuerdiak baino; ultzamera gipuzkera baino aisa markatuago izan arren.

- 1.4.2.1. Azter ditzagun orain silababiko oxitono batzu:

Hitza	unit.	tartea	sil. kop.
aité	35	+2	2
amár	2, 6, 8, 9 13, 23, 25	+2	2

Gaztelaniazko kideetan baino aisa lauago: ia 6 tonuerdi; eta zuberezko tarteen mailakoak.

1.4.3. Orain *hirusilabako* izen batzu ikertzen baditugu:

Hitza	unit.	tartea	sil. kop.
axkídia	38	+2 / -5	3 (= ja)
karríke	4	+2 / -5	3
zapéta	53	+2 / -6	3

eta beste *silababiko* hauek, *-a* artikuluz:

Hitza	unit.	tartea	sil. kop.
andáitze	36	+2 / -	3
arótza	37	+2 / -4	3
dirúe	39	+2 / -5	3
zurgíñe	56	+2 / -5	3

eta melodia ertaina, beraz, hau da:

Utz. (+2) ton.e. / (-5,43) ton.e.

Eta hau ez da *gaztelaniazko kidea bezain markatua*:

Gazt. (+6) t.e. / (-11) t.e.

baina bai zubereraren mailakoa:

Zub. (+4) t.e. / (-6) t.e.

1.4.4. Zenbakari batek zehazturik izatean, aipagarria da izen silababiko askok hartzen duen azentuketa isotonikoa, funtsean bederen (1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, etab.). *Zenbakari* hori azentu-unitate elkartuaren elementu *gailurtzaile* bihurtzen baita:

GN. **amárraizpe** (2. unit.); *aizpe* isotonikoa

eta ez ***amár** # **áizpe**

GN. **bórtzandregai** (5. unit.); *andregai* isotonikoa.

eta ez ***bórtz** # **andregái**.

GN. **amárrarotz** (6. unit.); *arotz* isotonikoa.

eta ez ***amár** # **arótz**.

Zenbakarietako unitatea, *bakarra* da; eta azentu nagusia ezkerrean agertzen zaigu.

Hots, Izagirre-ren iritziz, horixe zen berezko azentubidea: «Azentuak beren etorriaren arauera ematen zituztenean, ontara ematen zituzten itz bikote auek; edo, obeto esateko, *azenturik gabe* ematen zituzten *izenak*, aldameneko itzaren azentuakin bakarrik», (466). (Azpimarriketa gurea da).

1.4.4.1. Oso kontutan hartzekoa da **bat**-ekin gertatzen den fenomeno.

Bat numeralala edo zenbakaria denean, arestian emandako erregelaren arauera azentuztatzen da: **bát**-ek darama azentua, gainerako zenbakariek bezalaxe; eta izena isotono agertzen:

GN. **alababát** (**alaba** # **bát**, 405)

GN. **illobabát**, 405; etab.

Alderantziz, *artikulu mugagabe* gisa erabilia denean, klitiko gisa agertzen da, eta harmonizazioa jasaten: **arrausíbet**, 425; **béíbet**, 421; **biarríbet**, 421; **kopetábat**, 437; etab.

Hots, honelako zerbait somatzen da Elkano-ko Lizarraga-rengan, guztiz garbi agertu ez arren (ik. 5.2 kap.).

Azentu-unitatea ez bide da desberdina Egues-en eta Ultzama-n.

Bat-en azentuketari buruz bizkaieraz erreparatzen diren zalantza batzuk (dirudinez: **bát**, zenbakaria, batetik; eta **-bat**, mugagabe, eta klitikoa), hipotesi berberera bultzatzen dute. Nahiz, fonologikoki, bi *bat* horiek fonema-ilara berberak osatuak izan.

Baina gaur egungo interferentzi mailak, beti ere gaztelaniaren iduriketan, puntu hau ermoki garbitzeko oinarririk ez du ematen. (Ikus Larramendi ere bai, 4.8 kap.; eta *bat*-i buruz dakartzen bi deklinabideak; biak azentu desberdinez).

- 1.4.4.2. Fenomeno antzeko bat gertatzen da ondoko mugabeekin: **gútti**, **áundítz**, **anbértze**, **gúzie** (2 sil.), etab.. Horiek guztiok izenari datxezkio, honekin batera azentu-unitate bakarra osatuz. Hots, honetan, *izena isotoniko* agertzen da berriz ere:

GN. **denboragútti** (7. unit.); ez ***denbóra** # **gútti**

GN. **áundizlaño** (16. unit.); ez ***áunditz** # **láño**.

(ohar beza irakurleak xehetasun gogoangarri hau: *tz* afrikatu, *z* frikari gisa datorrela)

GN. **kollegúzie** (43. unit.); ez ***kólle** # **gúzie**.

Unitatearen eskuin aldeko azentuketa hau (+4, +3), **bát** zenbakariarekin ere aurkitua, harrigarri gertatzen da Mendebaldeko euskalkiei buruz (ik. 3.2 kap.).

- 1.4.4.3. Antzera ere, *edutezko* adjektiboek, baina *alderantziz* azentuketari dagokionez, Ultzama zati *isotoniko berak* dira:

GN. **neremáztia** (49. unit.) (= ia)

- 1.4.5. 53, 54 eta 55 unitate jatorrikideetan azaltzen da nabarmenkienik azentu-unitatearen *eskuin*-aldekin daukan lehentasuna:

GN. **zapéta**; **zapetazóla**; **zapetazolábat**.

(azkeneko horretan, klitikoa da *bat*)

Aldakuntza hau da:

zapéta # **zóla** → **zapétazóla** → **zapetazóla**

beti ere, Mendebaldeko joeraren kontra, hemen eskuinekoa nagusitzen delarik.

Shilhari buruz Applegate-k (1958) idatzia irakurtzea oso interesgarri gerta daiteke: «It should be noted that the stress patterns referred to here apply only to utterances consisting of a single word. If the utterance contains more than a word, the stress is reduced slightly on all vowels except those in the final word. It can said, therefore, that primary stress occurs only at the end of the utterance». (L. Hyman, *Studies about accent*, 44). Ultzamaz ari dela dirudi.

Euskalki honetan, kasu horietan, isotonikoa da unitatearen ezkeraldea; bere berezko azentu-melodia zein-nahi den ere. Honek ongi azaltzen ere, arduratu direnean, askotan gertatu eztabaida garratzak, eta kontra-esan usuak. Baita azentu-entonazioaren arteko elkarloturen garrantzia, beste maila batetan. Azentuaren lekua *aldakorra* da hitz berberean; eta, gainera, oso *laua* da auzo erderen arauera.

Hau guztia dela bide, gaztelaniaz baino aisago gertatzen da euskaraz, azentua zeraman silaba azentugabe bihurtzea:

zapéta: (0); (+2); (-4) (tonuerdi)

zapetazóla: (0); (0); (0); (+2); (-4)

zapetazolábat: (0); (0); (0); (0); (+2); (-4).

Euskalki honetan, esan dugunez, *eskuin* aldeko azentua nagusitzen da unitate berrian; eta azentua *eskuin aldera* lerratzen dela dirudi. Mendebaldekoetan alderantziz gertatzen da; eta azentua, unitatea luzatu ala, *ezker* aldera doala dirudi.

1.4.5.1. Aldera ditzagun orain 50 eta 51 unitateak:

GN. **ónyua** (50. unit.) (0); (-6) t.e. Bi silaba.

GN. **onyóbéltzak** (51. unit.) (0); (0); (-2); (-7) t.e.

Ahurtasunak kalkulatz gero:

$$-f'' \text{ (yo)} = 2 \times 0 - (0 - 2) = +2$$

$$-f'' \text{ (bel)} = 2 \times (-2) - (0 - 7) = +3$$

Badirudi, beraz, **onyóbéltzak** idatzi behar dela; eta azentua, unitate berria, lekuz aldatu da *onyo*-ren barruan.

1.4.6. 44-45 bikoetan aurkitzen den bimorfismoa azpimarratu behar da:

GN. **makomebát** eta **makomébat**.

Lehenengoan zenbakaria genuke, eta bigarreanean mugagabea. Baina K. Izagirre-k ez du hori zehazten.

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

láu aizkora / amár aizpe / bí amutxi

1.

σ	lau	aiz	ko	ra									
<i>f</i>													

láu aiz ko ra

A musical staff with a bass clef and a colon. The notes are: a quarter note on the second line (G), a quarter note on the first space (F), a quarter note on the first line (E), and a quarter note on the first space (F). A slur covers the first two notes.

2.

σ	a	mar	aiz	pe									
<i>f</i>													

a már aiz pe

A musical staff with a bass clef and a colon. The notes are: a quarter note on the first space (F), a quarter note on the second line (G), a quarter note on the first space (F), and a quarter note on the first line (E). A slur covers the first two notes.

3.

σ	bi	a	mu	txi									
<i>f</i>													

bí a mu txi

A musical staff with a bass clef and a colon. The notes are: a quarter note on the second line (G), a quarter note on the first space (F), a quarter note on the first line (E), and a quarter note on the first space (F). A slur covers the first two notes.

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

íru andaitz / börtz andregai / amár arotz

4.

σ	i	ruan	daitz											
f														

í ruan daitz

5.

σ	börtz	an	dre	gai										
f														

börtz an dre gai

6.

σ	a	mar	a	rotz										
f														

a már a rotz

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

denbora gútti / amár erlè-saski / amár erlè-togi

7.

σ	den	bo	ra	gu	t	t				
<i>f</i>										


den bo ra gú tti



8.

σ	a	mar	er	le	sas	ki				
<i>f</i>										


a már er lè sas ki



9.

σ	a	mar	er	le	to	gi				
<i>f</i>										

a már er lè to gi




IPAR-NAFARRERA (Izag.)

esnegain gúzie
anbértze etsai / anbértze euskaldun


10.

σ	es	ne	gain	gu	zie						
<i>f</i>											




11.

σ	an	ber	tze	tsai						
<i>f</i>										



12.

σ	an	ber	tzeus	kal	dun					
<i>f</i>										



IPAR-NAFARRERA (Izag.)

amár itxe / irú kisuskil / laño áunditz

13.

σ	a	mar	i	txe								
<i>f</i>												

a m á r i t x e

14.

σ	i	ru	ki	sus	kil							
<i>f</i>												

í r u k i s u s k i l

15.

σ	la	ño	aun	ditz								
<i>f</i>												

la ñ o á u n d i t z

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

aundíz laño / irú manázale / irú mùtiko

16.

σ	aun	diz	la	ño						
f										

áun diz la ño

17.

σ	i	ru	ma	na	za	le				
f										

í ru ma nà za le

18.

σ	i	ru	mu	ti	ko					
f										


í ru mù ti ko

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

egún mutil / zortzi sagar / amèkà senargai


19.

σ	e	gun	mu	till								
<i>f</i>												




20.

σ	zor	tzi	sa	gar								
<i>f</i>												



21.

σ	a	me	ka	se	nar	gai						
<i>f</i>												



IPAR-NAFARRERA (Izag.)

irú zurgiñ / amár afári / anbértze argizéri

22.

σ	i	ru	zur	giñ										
<i>f</i>														

i ru zur giñ

23.

σ	a	mar	a	fa	ri									
<i>f</i>														

a már a fá ri

24.

σ	an	ber	tze	ar	gi	ze	ri							
<i>f</i>														

an bér tze ar gi zé ri

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

amár axkíde / anbértze egárrí / bórtz eríko

25.

σ	a	mar	ax	ki	de						
<i>f</i>											

a már ax kí de

26.

σ	an	ber	tze	e	ga	rri					
<i>f</i>											

an bér tze e gá rri

27.

σ	bortz	e	ri	ko							
<i>f</i>											

bórtz e rí kó

IPAR-NAFARRERA (Izag.)	láu lárru / anbértze yénde / anbértze asnái
-------------------------------	---

28.

σ	lau	la	rru										
<i>f</i>													

láu lá rru

29.

σ	an	ber	tze	yen	de								
<i>f</i>													

an ber tze yén de

30.

σ	an	ber	tze	as	nai								
<i>f</i>													

an bér tze as náí

IPAR-NAFARRERA (Izag.)	egún mutil / zortzi sagár / améka senargái
-------------------------------	--

31.

σ	e	(gun)	mu	(til)					
f									

e gún mu tíl

32.

σ	(zor)	tzi	sa	(gar)					
f									

zór tzi sa gár


33.

σ	a	(me)	ka	se	nar	(gai)			
f									

a mé ka se nar gái

34. áite

σ	ái	te									
<i>f</i>											



35. aité (deikari) torrí laguntzéra

σ	ai	te	to	rri	la	gun	tze	ra			
<i>f</i>											




IPAR-NAFARRERA (Izag.)

andáitze / arótza / axkídia

36.

σ	an	dái	tze							
<i>f</i>										




37.

σ	a	ro	tza							
<i>f</i>										



38.

σ	ax	ki	dia							
<i>f</i>										




IPAR-NAFARRERA (Izag.)

dirúe / érua / karríke


39.

σ	di	(ru)	e								
<i>f</i>											




40.

σ	(e)	rua									
<i>f</i>											



41.

σ	ka	(rri)	ke								
<i>f</i>											




IPAR-NAFARRERA (Izag.)

kisuskille / autsi de kolle gúzie


42.

σ	ki	sus	ki	lle						
<i>f</i>										



43.

σ	au	tsi	de	ko	lle	gu	zie			
<i>f</i>										



44. [makomebát]

σ	ma	ko	me	(bát)						
<i>f</i>										

ma ko me bát

45. [makomébat]

σ	ma	ko	(mé)	bat						
<i>f</i>										

ma ko mé bat

IPAR-NAFARRERA (Izag.)

manazália / mendilépua / nekazaríe

46.

σ	ma	na	(za)	lia						
<i>f</i>										

ma na zá lia

47.

σ	men	di	(le)	pua						
<i>f</i>										

men di lé pua

48.

σ	ne	ka	za	(ri)	e					
<i>f</i>										

ne ka za rí e

IPAR-NAFARRERA (Izag.)	nere máztia / ónyua
------------------------	---------------------

49.

σ	ne	re	maz	tia						
<i>f</i>										

ne re máz tia


50.

σ	on	yua								
<i>f</i>										

ón yua


51.

σ	on	yo	bel	txak									
f													



52.

σ	yen	dia											
f													




IPAR-NAFARRERA (Izag.)

zapéta / zapeta zóla / zapeta zolá bat


53.

σ	za	pe	ta										
<i>f</i>													




54.

σ	za	pe	ta	zo	la								
<i>f</i>													



55. [zapetazolábat]

σ	za	pe	ta	zo	la	bat							
<i>f</i>													




IPAR-NAFARRERA (Izag.)

zurgíñe / yabía re atra(r)ik zia(g)un


56.

<i>σ</i>	zur	(gi)	ñe							
<i>f</i>										



57.

<i>σ</i>	ya	(bi)	a	re	a	tra	ik	zia	(un)		
<i>f</i>											



1.5. Hego-bizkaiera (Arratia)

(ikus kapitulu honen oinarria diren oszilogramak eta diagramak)

- 1.5.0. Orain arte argitara eman ez ziren datu fonetiko hauek hemen aurkeztean, xehetasun hauek: berri-emaile edo lekukoa *Areatza*-ko biztanle bat izan dela (gazt. «Villaro»); eta darabilen euskalkia Hego-bizkaiera dela (Bonaparte-ren «Mendebalde»koa). Zerrenda magnetofonikoak, berezko elkarrizketan bilduak izan ziren; eta 1980-1981 ikasturtean emanak.

Lekukoa *Manuel Sopelana* izan zen, orduan 94 urte; eta zerrenda magnetofonikoa bi euskal hizkuntzalarik errejistratu zuten: *Alberto Ugarte* eta *Begoña Albizu*-k; orduan Deustu-ko Unibertsitatean nire ikasle. Berriro ere: mila esker.

- 1.5.0.1. 1981-1982 ikasturtean U.C.L.A.-ko Unibertsitatean egin nuen egonaldian (Los Angeles, California), eta oszilograma batzu lortzekotan, Ipar-Ameriketara eramanez nituen neurekin zerrenda magnetofoniko batzu; eta beroien artean, *Areatza*-ko hori. FØ oinarrizkoaren aldakuntzak aztertu nahi nituen; eta, hitz batez, Arratia-ko ibarrean mintzatua den bizkaiera motaren azentua ikertu.

Teorian beti «irakur» daiteke oszilograma zehatz batetan bokalelementuen kantitatea eta intentsitatea (oinarrizkoaren maiztasunaz gain); baina, praktikan, ezinago korapilotsu eta hala-nolakoa izaten da, are ezinezkoa ere, aztertu behar den bokalearen aurretik (edo ondotik) [+ voice] segmentuak datozenean; edo, oraindik okerrago, [+ sonorant] diren segmentuak.

Akustika intentsitatea, bestalde, faktore askoren arauera aldatzen da: mintzatzailearengandik mikrofonoraino dagoen tartea, espektro-mota (trinkoa izan, ala laxoa, R. Jakobson-en hiztegia baliatzekotan), etab... Jakina da, bestalde, eta aisa frogatu daiteke akustika teorian, ezen, gainerako faktoreak berdin egonik, espektro trinkoa duten bokaleek energia handiago dutela besteek baino; tresna-bidezko neurrietan ere honek bere eragina duena.

0.2. kap.an ikusi eta nabartu dugun bezala, euskal azentuaren pertzepzioan ere FØ da izaririk pisuena (eta hauxe da, 0.1. kap.an ikusi den bezala, trebatutako ikertzaileen artean beste hizkuntza askori buruz gailen dagoen irizpidea. Hori dela-eta, *lehendabiziko hurbilaldian*, U.C.L.A.-n lortu genituen bost bobinetako FØ-aren gorabeherak aztertu ditugu soilki.

Zenbait kasutan, azentu-unitateen amaian batez ere, eta areago esaldi bukaeran, intentsitatea eta maiztasuna ez dira linealki-edo proportzionalak; eta are gutxiago iraupena. Beste batera esateko: FØ bakarrik aztertuz gero, *amaierako* posiziotan azentua *txiki-etsita* izaten dela dirudi.

Garbi dago, dena dela, euskarari buruz ere, H. Contreras irakaslearen irizpide orokorra betetzen dela: «El tono es un poderoso indicio del acento, que actúa *reforzado o en conflicto* (guk azpimarratua) con la duración y la intensidad» (Quilis-ek aipatua ik. «Fonética acústica de la lengua española», 329).

Azterbidea ekonomiaren aurkakoa da, eta guztiz lantsua. Baina euskal berriemaileak U.C.L.A.ko Laborategietara ezin eramatean, (haraz gero glotaren parean borna bat jarri, eta hitz eragiteko) ez dugu beste erre-mediorik izan; eta zerrenda magnetofonikoetatik ateratako oszilogrametan, zenbait hektometro irakurri izan behar dugu kontu handiz.

Honek, dena dela, abantaila nabarmen bat izan du: Sopelana jaunaren hizkera, askoz ere jatorragoa izan dela, jakina, gure arratiar agurea Fonetikoa-Laborategira eraman eta han, soin osoan barrena elektrodoz eta kablez inguraturik, hitz egin behar izan balu baino. Beste alde batetik, erabili ditugun datuak ez dira ahoskatutako hitz bakarretan eta inguramendurik gabe. lortu; baizik-eta berezko entonazioan sartutako sintagma eta hitzetan. Eta hau oso garrantzitsu iruditzen zaigu prosodi-fenomenoen ikerkuntza batetan.

1.5.2.1. -tzen-*ezko inesiboak*

Hitza	unit.	maiztasunak
burláitten	16	210 / 250 / 220 [Hz]
burláitten	22	200 / 290 / 160
burláitten	25	225 / 290 / 225
esáten	42	260 / 260 / 230
emóten	67	220 / 245 / 235
ifínten	22	225 / 260 / 180
ikústen	23	175 / 260 / 250
ikísten	47	200 / 260 / 240

eta taula melodi-hegi ertain hau dagokio:

$$217 / 264 / 218 \text{ (Hz)}$$

alegia: la (2) / do (3) / la (2).

Goranzko eta beheranzko tarteak berdin-berdinak dira funtsean; eta i = 1,214... 3,35 tonuerdi

Azentu nagusiaren ondoren, beraz, ez dago «zelai»rik; baizik-eta zubererazko hirusilabikoetatik oso hurbil dagoen zerbait (ik. 1.1):

Goraketa: +3,633 t.e. / Beheraketa: -5,632 t.e. Zubereraz dagoen amaiera-beheraketa, hitz batez, azkarragoa da bizkaieraz baino. Hase-rako goraketa (Altube-ren «podatus» delakoa), oso antzekoa bietan.

1.5.2.1.1. Erregelatik at dagoen unitate bat badago, dena dela:

ibiltzen (20. unit.) 220 / 205 / 190 [Hz.]

600 mm./segundoko ziztuan marraztu ziren aszilogramok. Ziztu horretan, adibide bat ematekotan, 150 [Hz]etako FØ bati, tarte hau dago-kio lehen mailako bi gailurren artean:

$$d = 600 \text{ [mm/seg]} / 150 \text{ [z/seg]} = 4 \text{ [mm/ziklo]}.$$

Hortaz, erosotasun bila, oszilograman 5 ziklo osotako multzoak aztertzen baditugu, gure kasoan 20 mm. dagozkio horri. Tonua jaso ala, 5 gailur horiek 16 mm. tan ikusiko ditugu, 14 mm. tan, etab.

Oszilogrametan bildutako emaitzak grafiko-sail batetan aurkeztu ditugu (1 / 67 unitateetan; zenbait aldiz, tartean pausa bat dagoenean, grafikoa bi zatitan agertuz); eta aski bedi hau gogoraztea; hizketa-minutu bat ikertzeko, $60 \times 600 = 36.000 \text{ mm} = 36 \text{ metro}$ bobina aztertu behar izan direla.

$f \times t$ kurbetan maldareh garrantziaz jabeturik, ilarako silaben lekuketa ertaina markatu dugu abszisetan. Honen bitartez, bai puntu-mailan, bai orokorki, *maiztasunen deklinazioa* kalkula daiteke: esaldiaren *entonazioari* atxikia, eta beronen balio semantikoari, beraz. Maiztasunen kurbaren gailurren eta ahurtasunen neurketak ere, lotura zuzena du azentuarekin

1.5.1. Diagramei begiralditxo bat ematea asko da (bai maiztasunenei, bai musika-pentagramazkoei) berriz ere hau frogatzeko: Hego-bizkaieraz ere, euskal azentukerari dagokion *lautasuna* eta *gutxi markatua izatea* betetzen direla.

6 , 8, 14', 19, 40, 49, 58, esaldietan, oso azentu-erliebe *apala* agertzen da; gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez, alemanez, eta abar, ohizkoa izaten dena baino aisa txikiagoa. Askiz izan daiteke honi buruz aspaldian D. Jones-ek ezagutarazi zituen lanei begirada bat ematea.

1.5.2. Zenbait unitate-motak azentubide aldakaitza erakusten du. Ondoko hauetatik has gaitezen.

1.5.2.1.2. Ondoko kasuok, berriz, segurki merezi dute berezketa:

Hitza	unit.	maiztasunak
yágoten	20	240 / 210 / 210 [Hz]
yóaten	64	250 / 250 / 240

soma baitaiteke, berriz ere, /a/ eta /o/ bokale horiek (+2) posizioa izan dutela aspaldiko denboretan.

1.5.2.2.1. *Partizipioak*

Presta ditzagun multzoak.

Hitza	unit.	maiztasunak
etór (san)	3	310 / 335 Hz
etór	33	165 / 255
etórri	49	210 / 260 / 200

haserako goraketarentzat balio ertain hau emanez:

$$228 / 283 \text{ Hz}; i = 1,241; ia\text{-}ia \text{ 4 t.e.}$$

Aditz-izenetan arestian (1.5.2.1.) aurkitutakoaren antzekoa.

1.5.2.2.2. /n/-z amaitzen diren partizipioek oxitono dirudite: **burléin** (3, 29); **emón** (15', 26)

Hauekin bide dator diptongozko **kontáu** (34).

Baina akustika-emaiztarik ez dugu aurkeztuko, ondotik zenbait aldiz laguntzaile klitiko silababakar bat datorrelako.

1.5.2.2.3. *-ta* daramaten partizipioak paroxitono dira, edo-*ta*, bestela esanda, berriro ere *-ta* hori *klitikoa* da.

Hitza	unit.	maiztasunak
jarrítte	19	196 / 215 / 200 [Hz]
ibillítte	58	205 / 195 / 205 / 200
makurtúte	18	215 / 260 / 300 / 230
makurtúte	19	195 / 210 / 225 / 175

amaieran beheraketa ertain hau dugularik:

$$i = 236 / 201 = 1,174 \text{ (ia. 3 t.e.)}$$

Hemen, Ekialdeko euskalkietan bezala (+3) posizioan joan daiteke azentua. Harmonizazioek eta bustikuntzek ongi erakusten dute, bestalde, *-ta* horren klitikotasuna.

Márkeute partizipioak (15. unit.), **márkeu** eskatzen bide du, eskuineko diptongoaren kontra. Agian gazt. *márca* da kakoa.

1.5.2.2.4. # **bárik** nagusitu egiten da multzoan (10. unit.). Bokale-harmonizaziorik gabe; eta, hitz batez, beste euskalkietan bezala, idazkera normalaren huts fonologikoa salatzen du.

1.5.2.3. *Edutezko adjektiboak*

Esquin aldean doazen izenekin baturik agertzen dira unitate berean, proklitikoak balira bezala; eta azentua (+1) dute. Gaurko gipuzkerare-

kin gertatzen denarekin batera; baita Larramendik aspaldiko gipuzke-
rari buruz idatzi zuenarekin ados:

Hitza	unit.	maiztasunak
guré (ama-ta)	10	170 / 240 [Hz]
guré (amak)	50	225 / 260
guré (neskatoak)	59	190 / 205
guré (amak)	61	230 / 250
Ertaina: 211 / 239 [Hz]		

1.5.2.3.1. niré

Hitza	unit.	maiztasunak
niré (amák)	2	250 / 300 [Hz]
niré (amáma)	17	210 / 235
Ertaina: 230 / 267 [Hz]		

1.5.3. *ba-* (baiespena); *ez-* (ezespena)

Biak maiztasun apaleko proklitiko gisa agertzen dira.

1.5.3.1. *Ez-*

Es.	unit.	maiztasunak
esékian	1	265 / 340 / 320 / 190 [Hz]
esékian	2	340 / 360 / 340 / 280
esékian	50	290 / 325 / 310 / 240
esékian	63	210 / 220 / 190 / 140

Eta melodi-hegi ertain hau:

$$276 / 311 / 290 / 212 \text{ [Hz]}$$

Maiztasun gailurtzailea /sé/ silaban gertatzen da; nahiz /ki/ silaban ere bigarren mailako ahurtasun bat agertu:

$$- f'' \text{ (ki)} = 2 \times 90 - (311 + 212) = + 57$$

Berriro ere, eta gauza bera euskalki guztietan, zalantza guztietatik at agertzen da *ez-* horrek, *erdararen kontra*, azenturik ez daramala (vid. *nó sabía*). Interferentzi bidez, dena dela, horren kide hutsa azkartzen ari da elebidunen artean: **ésékian*. Holmer-ek aspaldi danik zuzenki oharrerazi zuen bezalaxe, eta euskal senaren aurka (N.1.5.3.2.).

1.5.3.2. *Baiespenezko ba- aurrizkia.*

Unitate bakar dat dugu corpus-ean; baina honek espero zitekeen alde-
ra bultzatzen du:

ba	é	ki	an	(= bazekien)
205	250	195	205	

(eta ez * **báekían**).

1.5.3.3. *Galdekari silababakarrak.*

Oso adierazgarria da 43. Es. ageri den adibidea:

ser	dáu	kek
220	360	300 [Hz]

/dáu/ silaban azentu azkarra dagoelarik.

Eta ez (erdararen kontra, berriz): * **zér daukák?**

Zer galdekaria esaldiaren galdegaia da, eta silabakarra da; eta tonu apaleko *proklitiko* gisa agertzen da (beste euskalkitan ere gertatzen den bezala). Eta, azentuari dagokionez, bere *morfologi* oinarritik erabat *at, ba-* eta *ez-* en kide.

Larramendi-ren intuizioa baiesten du honek, beraz: alegia, sintaxizkoa baino, euskal azentua *fonologikoa* dela adieraziz: *edozein silababakar, ezkerretan* datorrenean («galdegai»-posizioan, orain arte esan izan denaren arauera mintzatzekotan) *proklitiko bihurtzen da*. (Ik. 4.8 kap.). Elkano-ko Lizarraga-ren grafiak ere gauza berbera idarokitzen du (ik.5.2.).

Gauza bera gertatzen da erantzunetan: **ahí loténgo** horren aurkaritzan, euskaraz, *gaurtxe ere, hordáukat* esaten da; eta interferentziaz bakarrik ***hór daukát**. *Hor* esaldi horretan silabakarra eta galdegaia izanik (*ezkerretan* joanik, hobe), *proklitiko bihurtzen da* euskaraz.

Bide beretik, euskal **ze(r)órdu dá** jatorrari (**zér** *proklitiko*), erdaratikako ***zer órdu dá** nagusitzen ari zaio (ik.gazt. **qué hora és**), kalko hutsean (N.5.3.3.).

1.5.3.3.1. Esaten ari garen honen frogagarri bat dugu, saihetsetik, corpus-eko 46. esaldian:

bal	báltz	dáu	kek	
310	350	390	310	[Hz]

edutezko **niré, guré**, eta abarren antzera.

1.5.4. Zenbait partikula, nahiz gaztelaniaz azentudun izan, erabat *enklitiko* agertzen dira bizkaieraz (baita legokiekeen (+2) azentuari nagusituz).

1.5.4.1. **-be** (gaztelaniaz azentuduna; Quilis, 315).

Osoki nabarmena izaten da melodi-beheraketa, frantsesezko **pas** edo **point** antzera agian:

Sint.	unit.	maiztasunak
bápe	62	310 / 240 [Hz]
bápes	50	220 / 180
nípe	29	270 / 250 [Hz]
arépe	7	260 / 250
oríbe	35	240 / 240
eskólambe	8	250 / 250 (N.1.5.41.)

Ezezko funtziorik ez duenean, ia-ia gesaldu egiten da beheraketa hori:

nípe	29	270 / 250 [Hz]
arépe	7	260 / 250
oríbe	35	240 / 240
eskólambe	8	250 / 250 (N.1.5.41.)

Azkeneko hauetan **be** horri lotura-funtzioa dagokio.

1.5.4.2. Partizipioetako **-ta**.

Lotura hutsa denean, ia beheraketarik gabe:

eskóleagaz-da (12. unit.) 190/180 [Hz]

1.5.4.3. Silaba *bakarreko* laguntzaileak, *enklitiko* agertzen dira; eta maiztasunen urriketa erakusten:

sarrásan (17), **etórsan** (3; 33), **emóntzat** (26) (= deusatz), **ibiltzensan** (20), **ibilliteda** (58), **kontáutzan** (34) (= eutsan), **úrtedan** (13).

1.5.4.4. Bizkaieraz (eta ez bizkaieraz bakarrik, bidenabar esateko) *lotura hutsezko* partikula denean, kondaketan barrena adibidez, esaldi askotan *ségida-ikur gisa doinu apaletan* ahoskatua, oso maiztasun apaletan joaten da:

200 Hz (8); 160 Hz (10); 190 Hz (11); 185 Hz (14); 195 Hz (18); 163 Hz (21); etab.

Ahotsaren tonua, ikus daitekeenez, osoki *apala* da gure lekukoaren ahotan; eta gertakariak kondatzeko era hori (/da/ hori maiztasun apaletan, etengabeko errepikan), euskaraz oso jatorritzat har daiteke.

1.5.4.4.1. Zerrendaketan agertu ohi den bukaerazko **ta**-rekin aurkaritzan; beste hau maiztasun *handitan* joaten delako: **ikasi behar zuela-tá**, **ez zekiela-tá**; etab. Nolzapatit ingelesezko *isn't it?* delakoaren antzekoa.

1.5.4.5. Oso jatorra da euskaraz, era berean, kondairan **bái?** partikula *goiko* to-

nuan, eta *goranzko* entonazioan errepikatzea. Geure corpus-ean bi kasu ditugu:

bái?	(5. Es.)	335-tatik gora.
bái?	(40. Es.)	300-tatik gora.

1.5.4.6. Hirugarren fenomeno hau, aurreko beste biok bezala, entonazioari datzekio: zerrendaketan FØ-ren goraketa errepikakorra. Ongi ikusten da hau 64. eta 65. unit.: berezko ez diren oxitonoak agertzen direlarik, *zerrendaketari* dagokion *goranzko entonazioaren* eraginez: **andrea** (64), vs. *andrea*; **beitxoá** (67), vs. *béitxoá*; **gizoná** (64), vs. *gizona*; **no-bioák** (65), vs. *nóbioak*.

1.5.4.7. Ondoko hauek ere, galdekari berezirik gabeko *galdera* entonazioari loturik daude:

indáu? (35) ; 240 / 330 Hz (+5,5 t.e.)

entzun duenaren ondorioz, ama guztiz harrিতa agertzen baita.

bakík? (41. Es.); 280 / 290 Hz.

Goraketa txikia, benetako galderarik ez baitago.

eeé? (34. Es.); 240 / 360 Hz.

Harridura eta haserre handian, goraketa handia: ia 7 t.e.

1.5.5. -to adberbio-atzizkia, Azkue iritzi ezagunaren arauera, tonu altutan agertzen da bizkaieraz:

edertó (52. unit.) ; 180 / 220 Hz

txartó (52.unit.) ; 205 / 240

eta goraketa azkar xamarrak dira: 3,5 eta 3,0 t.e.

1.5.6. *Izen-unitateetan* hona hemen puntu nagusi batzu.

1.5.6.1. *Silababakarretatik* hasiz gero, corpus-aren bidez ezin daiteke ondoko eskema zuzenets (ez gaitzets ere, egia esan); alegia: **sár** / **sarrá** / **sárrak**.

Bikote hau dugu bakarrik:

Sg. **sarrásan** (17) / Pl. **sárrak** (19).

1.5.6.1.1. Baina **san** (= zen) klitiko gerta daitekeenez, ezin daiteke ezer erabaki.

Beste alde batetik, Arratia-ko beste zerrenda magnetofonikotan, Dime-rako desberdin gertatzen da eskema: **míntze**, **úne**, **míñe**; alegia, (+1). Denak markatuak ote? Baliteke: ik. **muin**, **mihí**.

1.5.6.1.2. **Ber** adjektiboak hau erakusten du corpus-ean: (31) **bérák**, erg. sg.; 250 / 250 (**berák** espero zitekeen) (29) **berári**, dat.sg.; 250 / 300 / 230. «Normala», nolabait.

1.5.6.1.3. **bat**. Behin bakarrik corpus-ean agertzen: **batén** (14.unit.), ines.mugb., normala: 195 / 215 Hz. (Oso erabilia izanik, azpimarragarria da azen-tuketa ezagun hau).

1.5.6.2. Orain **silababikoetara** aldatuz, eskema normala hau izaten da bizkaie-razko ikertzapenen arauera:

Sg. **etxéa** / Pl. **étxeak**

gizóna/ gízonak, etab.

1.5.3.3.

Zalantza bakarra, zalantzarik baldin badago, mugagabearekin izaten da. Hots, teorian bederen, ez dago arrazoirik mugagabea pluralarekin joateko. Numero markatua, bai Ekialdean bai Mendebaldean (nahiz marka desberdina izan), *plurala* da. Mugagabea, hitz batez, (+2) espe-ro daiteke (Mendebaldeko bizkaieraz gaur den bezala). Eta, beraz: **gi-zón**, **etxé**, etab.

Hona hemen corpus-eko batzu:

Sg. amári	(34)	170 / 270 / 220 Hz
amágana	(33)	195 / 265 / 230
edérra	(14)	235 / 270 / 210
edérra	(14')	165 / 190 / 145
egúnean	(40)	280 / 300 / 280 / 280
lepóan	(15)	215 / 230 / 215
lepóan	(39)	250 / 300 / 290
lepóan	(46)	220 / 240 / 220
		(nahiz, 43., lépoan)
lagúne	(54)	200 / 250 / 150
ordúan	(1)	360 / 405 / 375
ordúan	(49)	190 / 210 / 190
ugérrian	(40)	280 / 300 / 285

Azentu-eredua, hitz batez, (+2) da; eta eskuin aldean ez da ordekarik agertzen (gehienetan bederen).

plasán (20); 225 / 240 Hz, eredu berean sartzen da. Baina **plazáan** ere har daiteke kontutan.

1.5.6.2.1. *Pluralean* unitate gutxi dago:

ándrak (32)

páloak (15, 45); nahiz **pálo** (M+1) ere posible izan.

Ikus **páluas**, sg., markatua; eta gazt. **pálo**.

1.5.6.2.2. *Mugagabe*an ez dago ia ezer corpus-ean:

urté (24) / vs. **úrte** (13).

1.5.6.2.3. Badaude *markatuak* dauden elementu irregularrak.

Singularrean nabarmentzen dira garbiki:

máisua	(6)	300 / 270 / 265 Hz
máisua	(49)	230 / 220 / 200
máistrea	(6)	280 / 240 / 235
páluas	(15')	240 / 165 / 100
átzetik	(21)	250 / 230 / 230

(**átze** markatua da euskalki askotan, ikusi dugunez)

Horiek guztiok (M+1) dira.

1.5.6.2.4. Azentua bigarrenen (+2) dakarte nominatibotan datozen *adberbio* batzuk (nolabait esateko, mugagabe):

atzó	(45)	285 / 305 Hz (ik.Nav.Tomás ere, 1.2)
geró	(3)	280 / 320
geró	(6)	245 / 260
geró	(51)	205 / 310 (hemen oso enfátikoa da; alegia, «gero bai, gero aldatuko ziren gauzak»)

1.5.6.3. Unitate *hirusilabakoetan*, azentua, berriz ere, markatuak ez diren hitzetan, (+2):

neskáto / neskátoà / neskátoak

Corpus-ean:

1	arrébeagas	(24)	200 / 220 / 210 / 150 Hz
2	amábi	(24)	195 / 260 / 175
3	mutíkoa	(23)	185 / 360 / 275 / 175
4	neskátxiak	(55)	190 / 275 / 250 / 220
5	neskátxien	(54)	210 / 275 / 230 / 225
6	neskátoak	(59)	210 / 270 / 230 / 240
7	palísa	(13)	210 / 295 / 255
8	urréngo	(40)	280 / 330 / 280
9	usábenak	(57)	180 / 200 / 190 / 170
10	makétoak	(7)	230 / 300 / 220 / 240
11	erráiek	(46)	280 / 300 / 250

Normalean ez dago ordekarik eskuin aldean, ezta singularrean ere (be-rezkuntza bat: 6.); baina, espero zen eskemaren aurka, plural batetan, azentu bigarrenkari bat agertzen da azkeneko silaban: 10.

Gogora ditzagun numeroak:

Sg.: 1, 3, 4, 5, 6.

Pl.: 9, 10, 11.

Mugg.: 2, 7, 8.

Haserako «podatus» (Altube) delakoa nabarmen dago beti: $i = 1, 302$; $+4,5$ t.e.– Ondoko beheraketa ere garbi dago ($i = 1,207$; $-3,3$ t.e.).

1.5.6.3.1. Badaude, berriz ere, (M+1) markatuak. Hona hemen **éndera** hitzaren agerraldiak:

(1)	énderarik	350 / 300 / 280 / 270 [Hz]
(2)	énderarik	325 / 255 / 225 / 210
(3)	énderea	360 / 345 / 340 / 335
(8)	énderas	270 / 250 / 225
(9)	énderas	270 / 200 / 150
(10)	énderarik	265 / 240 / 210 / 205
(11)	énderas	240 / 195 / 150
(47)	énderas	290 / 260 / 230
(50)	énderarik	210 / 175 / 155 / 140
(59)	énderas	275 / 225 / 190
(60)	énderas	300 / 300 / 280
(62)	énderas	270 / 240 / 205

eta melodia ertaintzat hau dugu:

ér	de	ra	
283	246	218	[Hz]

eta tartek hauek dira:

1,150 (= -2,7 t.e.); 1,128 (= -2,1 t.e.)

1.5.6.4. Azter ditzagun **bat**-en agerraldiak.

1.5.6.4.1. Batzutan **bát** agertzen da, azentuz:

apurbét	(17)	200 / 210 / 260 [Hz]
apurbét	(19)	175 / 185 / 195
burdibét	(67)	185 / 200 / 220
		(zerrendaketaz, eta gutxi beraz)
mutilbát	(21)	200 / 220 / 245

Balio zenbakaria, halere, hirugarrenean ez bestectan ageri da.

1.5.6.4.2. Zenbait aldiz, berriz, *klitiko* agertzen da:

arrébábat	(53)	175 / 225 / 230 / 230 [Hz]
- f'' (é) = 2 × 225 - (175 + 230) = + 45.		
- f'' (bá) = 2 × 230 - (270 + 260) = + 5.		
apúrtxubet	(18)	185 / 190 / 185 / 185 [Hz]
		(isotono)
umétxùbet	(20)	190 / 270 / 300 / 260
- f'' (me) = 2 × 270 - (190 + 300) = + 50.		
- f'' (txu) = 2 × 300 - (270 + 260) = + 70.		
		(beraz: umètxùbet hobeki idatzia)
sapládakobat	(26)	200 / 255 / 250 / 240

Balio ez-zenbakaria ez da, itzuletara, beti ageri.

Halere, lehendabiziko multzoan **bát** dugu; eta bigarrenean, **-bat**. Nahasketa bide dago euskalki honetan.

1.5.6.4.3. Zenbait aldiz deklinatutako **bat** dugu korpusean:

mutilbaték	(16)	(210 / 210) / 215 / 230 [Hz]
mutilbatégaitik	(14)	(220 / 220) / 230 / 250 / 210 / 190

Biotan **mutil** isotonikoa da (Ultzaman gertatzen den bezalaxe, ik. 1.4); eta badirudi hau dugula: **baték**, **batégaitik**, eta (+2) azentua. Eta, hitz batW **bat** (-M). Eta, alde honetatik, **-at** bagenu bezala.

1.5.7. Harridurazko *bi interjekzio* daude corpusean, txandaka lekukoak ahoskatuak (bera Bilbon egon zen urte luzetan barrena). Bata euskalduna da: **éne** !; bestea gaztelaniazkoa, **kóño**! Aldera ditzagun fonetikaren ikuspuntutik:

éne	(42)	410 / 310 [Hz] ; i = 1,32 ; ia (-5) t.e. (ik. N.1.5.7.)
kóño	(23)	240 / 190 [Hz] ; i = 1,60; (-8,1) t.e.

Beheraketa nabarmenak biak; baina gaztelaniazkoa handiago agertzen zaigu halere.

1.5.8. Gaztelaniazko hitzetan, Arratia-ko sistemari oraindik egokitu gabeetan, fenomeno interesgarriak gertatzen dira.

1.5.8.1. Unitateok azentua markatuegi dute:

palísa	(14)	210 / 295 / 255 [Hz].
notáριο	(65)	170 / 235 / 215
áiba djós	(39)	240 / 150 / 210

Tonu-jauzi horiek ez dira euskaldunak.

Beste zenbait unitatetan, leunago dirudi jauziak:

Báñustako	(56)	230 / 215 / 200 / 200 [Hz]
Júli	(53)	250 / 210
Lúkas	(54,55)	275 / 260 /; eta 240 / 230

1.5.8.1.1. «Guardia Civil» erdal hitzak gertatzen diren bokale-tinbre eta azentuarekiko zalantzak oso adierazgarriak dira: **guardósibill** (16); **guárda sibíll** (15); **guardá sobíll** (21); **guárdo sobíll** (32). Beti /wa/ diptongoa onartuz; eta agian orokortzat **guárdasobill** (+2) har daitekeelarik. (Gaztelaniazko jatorrian, jakina, +1) dugu ezkerretako osagaian.

1.5.8.1.2. Are euskal izenak ere (are lekukoarena bera) espainiar modura ahoskatzen direnean, beren jatorrizko plegua galtzen dute:

arkótxa	(41)	280 / 370 / 240 (markatuegi)
sopelána	(28)	(+4) / (+3); (-9) t.e., erabat erdaldunak; baita (+3) azentu hori ere. (Herria Sopéla da euskaraz) (ik. 4.4)

Beste bi erdal hitz hauek ere, ez dute euskal kutsu handirik:

palukásu	(38, 46)	(+3)
txapurriáu	(62)	(+3); triptongoa barne...

1.5.9. «Declaración» erdal mailebuaren azentuketa bitxiak, aipamen berezia du:

de	kla	ra	si	ño	a	
200	200	200	200	255	195	[Hz]
sol# 2	sol# 2	sol# 2	sol# 2	do3	sol2	

Ezkerretan, Ultzaman bezalaxe, isotonia osoa dugu: eta gero, eskuin muturrean, Mendebaldean bagina bezalaxe, + 5 t.e./-5 t.e. Posizioa (+5) da (= (-2)).

Arrazoi guztiak ditugu hitz horren melodi-eskema molde *berria* dela pentsatzeko. *Deklarasinoa*, bestalde, ez da euskal altxor zaharrekoa...

Alfontso Irigoien adiskide eta irakaskideak, halere, hauxe segurtatu zidan berriki: arratiarren ahotan (eta bera hangoa da jatorriz), gazt.

«universidad» hitzak, aurreko horren kide bihurtzen dela: **unibersidadéa**; azentua (+6) delarik, lerro isotono baten eskuinean. Badirudi «analizarémos» edo «recomendarémos» entzuten ari garela.

- 1.5.9.1. Arratia-ko beste banda batek (Dime-n hartua) ez du hori guztia ukatzen: **arnaséa** (+3); **ixerdíe** (+3); **azkuréa** (+3); **sorbaldábat** (+3); **kuntzurúnbi** (+3); edo sintagma hauek: **gisonandíe** (+4), **a(g)lotxikíe** (+4).

Oso fenomeno antzekoak gertatzen dira Bergara eta Eibar-en inguruetan. Eta beraz badirudi Anboto inguruan, nolabait esateko (nahiz ez Oñati-n, esate baterako), *eskuin* aldeko azentu mota hori gerta daitekeela; Ekialdeko euskalkien arauera.

Azentu-mota honek harritu egiten ditu ingurukoak ere, eta berritzat jo daiteke. Bergara-koei, esate baterako, txantxetan esan ohi zaie: «bai, bai, zu **Berga(ra)kúa** zara»; azentua hor ere (+4) posizioan doalarik. (ik. 4.4. kap.)

- 1.5.9.2. Gauza bat, dena dela: esan dugunez, Oñati-ko bizkaieraz ez dago horrelakorik, eta Ipar bizkaieraz ere ez.

Meata-ko seme den Aita Gandiaga-ri galderak eginda, hango bizkaieraz (+2) silaban gertatzen da azentua: **ikúsgarrijè**, **lotzágarrijè**, **irúgarren**, **amárgarren**, **eléixan**, **itxósuen**, **ikúsitte**, **itxútasunè**, **edértasunè**, **burúagàs**, **lengúsuagàs**...(harmonizazioaren «bitxikeria» horiek, dena dela, azterketa berezi eta emankor bat mereziko lukete). Meata-n, eta itxura denez, azentuduna da **bát**: **mendibét**, **abádebát**, **amesbát**... Aita Gandiaga, dena dela, Arantzazun bizi da aspaldidanik. Eta, nolana ere, **Bittúriano** izenpetu ohi du; ez * **Bittoriáno**, eman dezagun.

Oharrak

- N.1.5.2.1. Azkue-k **-ten** «atonoaz» eta apalaz aurkeztu zuen eskemaren zehaztasuna frogatzen da berriro Totorika-ren lerrokadan: **éitteko**, 45; **ibílteko**, 47; **egótea**, 45 (Ik. Euskera 1958, 45.orr., «Palabras recogidas en el valle de Arratia»).
- N.1.5.2.3. Egokia izan bide daiteke, honi buruz, Amado Alonso hizkuntzalariak (bera ere nafartarra) Erribera-ko pertson-izenordeei buruz egin zuen oharra: **nosótro** **dós** normala, esate baterako, **nosotro** **dós** ahoskatzen da Lerin-en (Rev. Fil. Esp., 1925; 358).
- N.1.5.3.2. Ikerketa-lan honetan ere (Euskera 1958) ez-en proklitikotasuna baietsirik gelditzen da berriro: **ezéidazu konkerik ipini**, 48; **estéko susterrik**, 49.
- N.1.5.3.3. Aspaldiko grafien balio fonologikoa ez da sekula seguru izaten. Baina A. Irigoien-ek transkribatutako gabon-kantuetan (Eusk. 1977, 417) agertzen diren **zer** eta **nor** galdekarien azentu gabetasun grafikoa na-

barmen erazi behar da: **nor dá**, 417; **cer gurá**, haniz **gura** bizkaieraz markatua izan (M+1): **gúra/gúria** (ik. gzt. **gúla**). Ikus ere Oñati-ko bizkaiera, 4.4. kap..

- N.1.5.4.1. Mitxelena-k idatzi duenez, «**bere** es y era enclítico» (Fontes L. V., 32, 222); eta **-ok bere** «nadie duda de que *se realiza*, y *se realizaba* entonces, **-opere**, con una labial oclusiva por sorda» (222). Azpimarraketa gurea da.
- N.1.5.7. Egia esan, batera gertatu ohi dira bi entonazioak. Corpus-ean **éne** agertu da; baina ez bakanago, eta harridura kutsu berberarekin, goranzko **ené** ere entutzen da. Bizkaieraren eremuan batez ere.

1.6. Areatza-ko corpora

1. **ordúanee érderarik esékian**
B. orduan be erderarik ez ekian
2. **nireamák esékian érderarik**
B. nire amak ez ekian erderarik.
3. **érderea etórsan geró**
B. erderea etorri zan gero
4. **ekarriében guárda sibíllek etá**
B. ekarri eben guarda zibillak eta
5. **kuarteléro bát ifiñiében, báí?**
B. kuartel-edo bat ifini eben, bai?
6. **geró máisuata máistrea ia-ekarriébesan**
B. gero maisua eta maistrea ia ekarri ebezan
7. **arék-pe makétoak**
B. arek be maketoak
8. **da-eskólanbe érderas**
B. da, eskolan be erderaz
9. **da, arék gastíak ikisiéudien érderas, és?**
B. da, arek gazteak ikisi eben erderaz, ez?
10. **da, gureamáta lotusíran érderarik yakinbárik**
B. da, gure ama-ta lotu ziran erderarik jakin barik
11. **da, gúk ikisi gendún érderas**
B. da, guk ikisi genduan erderaz
12. **eskóleagas - da**
B. eskoleagaz da
13. **atára-isú kóntu sénbat úrtedan**
B. atara egizu kontu zenbat urte dan
14. **da-ník eróaneban palísa edérra batén**
B. da, nik eroan neban paliza ederra baten
- 14'. **guardá sibíll mutil batégaitik... edérra!**
B. guarda-zibil mutil bategaitik, ederra!

15. **lepóan-ee, páloak márkeuta néukasan**
B. lepoan be paloak markaduta neukazan
- 15'. **amák emónða, pálugas**
B. amak emonda, paloagaz
16. **guardásobill mutilbaték burláitten, éz?**
B. Guarda zibil mutil batek burla egiten, ez?
17. **nirè amá apurbét sarrásan**
B. nire amama apur bat zarra zan
18. **da, makurtúte apùrtxúbet, bákisu**
B. da, makurtuta apurtu bat, badakizu
19. **jarríte òtesian sárrak apurbét makurtúte**
B. jarrita egoten ziran apur bat makurtuta
20. **daumetxúbet yágoten íbiltensan plasán**
B. da, umetxu bat jagoten ibilten zan plazan
21. **da, guardó sobill mutilbát átzetik**
B. da, guarda zibil mutil bat atzetik
22. **álan, papéla ifínten da-árta burláitten**
B. alan papela ifinten, eta artara burla egiten
23. **kóño, ikústeot ník mutíkóa bá**
B. koño, ikusten dot nik mutikoa, bada
24. **amábi urté edólan**
B. amabi urte edo olan
25. **kóño, burléitten amamári**
B. koño, burla egiten amamari
- 26-27. **yóanda emóntzat sapládakobat**
B. joan-da emon deustat zapladako bat
- 28'. **béteakomer sópas, arék mutillák**
B. «véte a comer sopas», arek mutillak
29. **da-nípe burléingura berári**
B. da nik be, burla egin gura berari
30. **esá éustan**
B. esan eustan

31. **nik burléin da-béрак sopéro**
B. nik burla egin, eta berak «sopero»
32. **da-guárda sóbillen ándrak entzún-eineudien**
B. eta guarda zibillen andrak entzun egin eben
33. **da, etórsan amágana**
B. da, etorri zan amagana
34. **d'amári kontáutzan istóya orí**
B. da, amari kontau eutsan istoria ori
- 35-36. **eé? óribe indáu?**
B. e? ori be egin dau?
37. **aséyo paluá**
B. axe jo paloa!
38. **emóistesas palukásu bátzuk**
B. emon eustazan palukazu batzuk
39. **lepóan... áiba djós!**
B. lepoan, «ahi va Dios»
40. **urréngo egúnean ugérrian, báí?**
B. urrengo egunean ugerrean, bai?
41. **alasalbadoréra bakík?, salbadór arkótxan**
B. «a la Salvador-era», badakik?, Salbador Arkotxan
42. **da-mutíllek esáte ustién, éne**
B. da, mutillak esaten eustien: «ene!»
43. **emén lépoan serdáukek?**
B. emen lepoan zer daukak?
44. **beitú-ik, beitú-ik**
B. begiratu egik, begiratu egik!
45. **atzóko páluak yáusak-or**
B. atzoko paloak jagozak or
46. **bal-báltz dáukek olán erráiek lepóan palukásuakas**
B. baltz-baltz daukak olan erraiak lepoan palukazuakaz
47. **da-ordúntxe érderas ikísten**
B. eta orduantxe erderaz ikisten



48. **da-ordúntxe génbisenba gú gásteak giñanák**
 B. da orduantxe genbilzan bada gu gazte ginena
49. **ordúan etórri sirán máisuek éta**
 B. orduan etorri ziran maisuak eta
50. **da-órtan gureamák esékian érderarik, bápes**
 B. eta orretan gure amak ez ekian erderarik, bat be ez
51. **geró-bai illórduko**
 B. gero bai, il orduko
52. **séuser ikisíeban txartó eo-edertó**
 B. zer edo zer ikisi eban, txarto edo ederto
53. **arrébeagas, arrébabat ée, será, júli**
 B. arrebeagaz, arreba bat ere, zera, Juli
54. **lúkasen neskátxien lagúne**
 B. Lukas-en neskatearen laguna
55. **da-lukasen neskátxiak érderas baékian**
 B. eta Lukas-en neskateak erderaz baekian
56. **se-bañústako otélekoak siránales**
 B. ze, Baños-tako hotelekoak ziranak legez
57. **a-otelérako usábenak**
 B. a hotelerako ugazabarenak
58. **bañústakoakás ibillítta**
 B. Baños-takoakas ibilita da
59. **guré neskátóak érderas arégas ikísi**
 B. gure neskatoak erderaz aregaz ikisi
60. **da érderas eittéban betí**
 B. eta erderaz egiten eban beti
61. **da-guré ámak-ee arégas ikisíeban**
 B. da gure amak ere aregaz ikisi eban
62. **érderas txapurriáú axégas**
 B. erderaz, «chapurriáú», axegaz.
63. **ortán bápee esékian**
 B. ortan bat be ez ekian

64. **da-yóaten sireán andrea ta-gisoná**
B. eta joaten zirean andrea eta gizona
65. **da-nóbjoak notáριοa ganá**
B. eta nobioak notarioagana
66. **da-anéitte eudién deklarasiñoa**
B. eta an egiten eben deklarazinoa
67. **nik-emóte eutzét beitzoá da-burdibét**
B. nik emoten deutset beitzoa eta burdi bat.

Oharra: Azentu horiek maiztasun-kurbaren arauera markatu dira, ia beti pertzepzioarekin batera erortzen.

1.7. Areatza-ko diagrama akustikoak



1



[O] Ø	or (du) an e e (er) de ra rik e (se) ki en
[Hz]f	360 405 375 300 300 350 300 280 270 265 340 320 190
[mseg]t	0 140 240 360 470 920 1090 1170 1260 1380 1500 1640 1740

Ø = silaba f = maiztasuna t = denbora



2



[O] Ø	ni re a (mak) e (se) ki an (er) de ra rik
[Hz]f	250 300 325 360 340 360 340 280 325 255 225 210
[mseg]t	0 118 167 292 426 526 660 700 818 994 1110 1244

Ø = silaba f = maiztasuna t = denbora


3



[O] O	(er)	de	ri	a	e	(tor)	san	ge	(ro)
[Hz]f	360	345	340	335	310	335	295	280	320
[mseg]t	0	120	210	343	377	527	686	803	953

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



4



[O] O	e	ka	(rrie)	ben	(guar)	da	si	(bi)	llek	(e)	ta
[Hz]f	240	300	340	275	300	280	240	275	230	240	220
[mseg]t	0	160	243	367	534	676	802	902	1035	1161	1261

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


5



[σ] σ	kuar	te	(le)	ro	(bat)	i	fi	ñi	(e)	ben	(bai)
[Hz] f	230	280	325	240	255	235	275	290	295	270	335
[mseg] t	0	167	284	384	518	701	802	902	1035	1194	



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

6




[σ] σ	ge	(ro)	(mai)	su	a	ta	(mais)	tre	a	iae	ka	(rrie)	be	san
[Hz] f	245	260	300	270	265	220	280	240	235	210	235	280	250	226
[mseg] t	0	50	217	367	417	568	701	902	994	1361	1545	1662	1737	1912

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	a	(rek)	pe	ma	(ke)	to	ak
[Hz]/f	215	260	250	230	300	220	240
[mseg]/t	0	83	259	376	518	657	718

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	da	es	(ko)	lan	be	(er)	de	ras
[Hz]/f	200	235	275	250	250	280	250	225
[mseg]/t	0	100	267	359	493	726	885	1027

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	da	a	(rek)	gas	(ti)	ak	#	i	ki	(sieu)	dien	(er)	de	ras
[Hz]/f	0	250	300	235	295	265		235	245	300	260	270	200	150
[mseg]/t	0	217	351	573	749	807		952	1086	1215	1432	1644	1796	1913



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	da	gu	rea	(ma)	ta	lo	tu	(si)	ran	(er)	de	ra	rik	ya	kin	(ba)	rik
[Hz]/f	160	170	240	280	235	230	260	280	240	265	240	210	205	215	225	250	160
[mseg]/t	0	334	467	609	768	851	1010	1122	1237	1531	1664	1748	1857	1990	2124	2266	2403

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



11



[σ] σ	da	gu	uk	#i	ki	si	gen	dun	er	de	ras
[Hz] f	190	340	295	210	280	265	265	280	240	195	150
[mseg] t	0	141	222	1332	1459	1559	1659	1768	1922	2059	2174

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


12



[σ] σ	es	ko	lea	gas	da
[Hz] f	180	270	210	190	180
[mseg] t	0	150	297	419	603

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


13



[σ] σ	a	(ta)	rai	(su)	(kon)	tu	(sen)	bat	#ur	te	dan
[Hz] f	210	235	200	230	180	165	180	160	210	180	160
[mseg] t	0	183	330	497	681	798	948	1065	1349	1582	1694

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



14



[σ] σ	da	(nik)	e	(roan)	ne	ban	pa	(lí)	sa	e	(de)	rra	ba	(ten)
[Hz] f	185	270	260	260	240	240	210	295	255	235	270	210	195	215
[mseg] t	0	108	238	339	472	556	735	845	992	1058	1149	1324	1483	1675

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



14'



[O] O	guar	(da)	si	(bill)	mu	til	ba	(te)	gai	tik	#	e	(de)	rra
[Hz] f	220	250	210	220	220	220	230	250	210	190		165	190	145
[mseg] t	0	125	292	400	539	678	812	945	1042	1242		0	108	292

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



15



[O] O	le	(po)	an	e	e	#	(pa)	lo	ak	(mar)	keu	ta	(neu)	ka	san
[Hz] f	215	230	215	230	230		250	200	195	245	220	175	200	190	165
[mseg] t	0	167	225	392	522		0	150	208	450	642	801	926	1060	1174

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



15'



[σ] σ	a	(mak)	e	(mòn)	da	#	(pa)	lu	(g)as
[Hz] f	215	230	240	250	145		240	165	150
[mseg] t	0	113	226	330	485		0	200	292



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

16





[σ] σ	guar	(do)	so	bill	mu	til	ba	(tek)	bur	(lai)	tten
[Hz] f	210	245	210	200	210	210	215	230	210	250	220
[mseg] t	0	117	208	300	493	668	779	893	1060	1210	1461

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[O] O	ni	re	a	ma	ma	a	pur	bet	sa	rra	san
[Hz]f	210	235	290	280	190	200	210	260	220	270	205
[mseg]t	0	93	151	280	464	0	146	244	460	627	812



O = silaba f = maiztasuna t = denbora



[O] O	da	#	ma	kur	tu	tea	pur	txu	bet	ba	ki	su
[Hz]f	195		215	260	300	230	190	185	185	205	195	185
[mseg]t			0	196	336	499	639	776	841	950	1109	1250

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



19



[σ] σ	ja	rrí	te(o)	te	si	an	sa	rrak	a	pur	bet	ma	kur	tu	te
[Hz] f	196	215	200	200	190	190	195	175	175	185	195	195	210	225	175
[mseg] t	0	105	272	422	548	597	773	932	0	126	230	364	494	641	783



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

20




[]	dau	me	txu	bet	ya	go	ten	i	bil	ten	san	#	pla	san
[Hz] f	190	270	300	260	240	210	210	220	205	190	180		225	240
[mseg] t	0	133	259	417	622	739	887	978	1070	1187	1337		0	150

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	da	guar	(do)	so	(bill)	mu	til	(bat)	(a)	tze	tik
[Hz] f	163	250	295	225	230	220	220	245	250	230	230
[msec] t	0	100	180	306	397	556	715	865	1023	1157	1333

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	(a)	lan	e	pa	(pe)	lai	(fin)	ten	da	(ar)	ta	bur	(lai)	tten	
[Hz] f	225	170	150	#	195	240	225	260	180	150	225	190	200	290	160
[msec] t	0	108	303		0	159	255	377	553	703	878	1062	1379	1513	1705

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ]	ko	ño	i	kus	te	(d)ot	nik	#	mu	ti	ko	a	ba
[Hz]f	240	190	175	260	250	200	230		185	360	275	175	200
[msec]t	0	125	192	309	484	584	751		1152	1289	1481	1479	1605

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora




[σ]	a	ma	biur	te	e	do	lan
[Hz]f	195	260	175	190	150	205	160
[msec]t	0	183	317	551	634	759	860

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	(ko)	ño	bur	(lei)	tten	a	ma	(ma)	ri
[Hz]f	280	175	225	290	225	225	250	275	200
[mseg]t	0	134	501	631	815	923	1057	1224	1399



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	(yo)	an	da	#	e	(mon)	tzat	sa	(pla)	da	ko	bat
[Hz]f	300	290	210		210	280	245	200	255	250	240	225
[mseg]t	0	50	292		0	150	293	439	573	657	800	892

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



28



[O] O	so (pe) so (pe) ro so pe (ro) so pe (la) na
[Hz] f	300 330 300 320 310 250 300 340 200 250 300 180
[mseg] t	0 267 567 835 1085 1403 1703 1904 2221 2396 2505 2672



O = silaba f = maiztasuna t = denbora

28'





[O] O	be tea ko mer (so) pas # a (rek) mu ti (llak)
[Hz] f	270 280 290 300 335 290 200 215 200 215 250
[mseg] t	0 158 308 442 643 893 1200 1333 1492 1634 1743

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	da	(ni)	pe	bur	(lein)	gu	ra	be	(ra)	ri
[Hz] f	180	270	250	260	300	300	240	250	300	230
[mseg] t	0	117	258	342	492	684	885	1018	1135	1277



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	e	(sa)	(eus)	tan
[Hz] f	215	260	300	220
[mseg] t	0	125	225	442

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


31



[σ] σ	nik	bur	(lein)	da	(be)	rak	so	(pe)	ro
[Hz] f	230	260	300	205	250	250	250	335	210
[mseg] t	0	117	258	526	642	718	860	1052	1144



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

32





[σ] σ	da	(guar)	da	(so)	bi	llen	(an)	drak	en	(tzun)	ein	eu	dien
[Hz] f	200	275	260	270	260	245	295	260	245	300	260	250	205
[mseg] t	0	100	184	300	400	492	584	701	852	1052	1169	1336	1578

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	da	e	(tor)	san	a	(ma)	ga	na
[Hz]f	160	165	255	205	195	265	230	225
[mseg]t	0	67	217	375	501	617	718	885



σ = silaba f = maistasuna t = denbora



[σ] σ	d'a	(ma)	ri	kon	(tau)	tzan	is	(to)	ya	o	ri
[Hz]f	170	270	220	220	235	200	190	230	210	205	205
[mseg]t	0	142	258	375	518	735	936	1110	1244	1303	1386

σ = silaba f = maistasuna t = denbora



35-36



[σ] σ	e	e?	#	o	ri	be'in	dau?
[Hz] f	240	360		230	240	240	330
[mseg] t	0	170		0	125	292	534



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

37





[σ] σ	a	(se)	yo	pa	lu	(a)
[Hz] f	160	300	260	310	350	390
[mseg] t	0	159	242	376	526	576

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	e	(mois)	te	san	pa	lu	(ka)	su	(ba)	tzuk
[Hz] f	300	380	310	210	240	230	310	300	300	270
[msec] t	0	150	284	392	484	568	642	759	860	943



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[σ] σ	le	(po)	an	(ai)	ba	(dios)
[Hz] f	250	300	290	240	150	210
[msec] t	0	200	317	0	200	417

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



40



[O] σ	u	(rren)	go	e	(gu)	ne	an	u	ge	rrian	(bai)
[Hz]f	280	330	280	280	300	280	280	280	300	285	300
[mseg]t	0	192	309	402	569	678	728	803	878	962	1079



σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

41





[O] σ	a	la	sal	ba	do	(re)	ra	ba	(kik)	sal	ba	(dor)	ar	(ko)	txan
[Hz]f	250	240	240	290	300	340	280	280	290	290	300	310	280	370	240
[mseg]t	0	108	233	376	501	617	718	835	952	1068	1185	1319	1461	1636	1787

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	da	mu	(ti)	llek	e	(sa)	teus	(tien)	e	ne
[Hz]f	200	260	380	330	260	260	230	290	410	310
[mseg]t	0	100	200	317	467	626	751	943	1060	1277

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora






[σ] σ	e	(men)	(le)	po	an	ser	(dau)	kek
[Hz]f	225	230	250	195	205	220	360	300
[mseg]t	0	117	300	451	543	810	1077	1244

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	bei (tu) ik	bei (tu) ik
[Hz]f	280 320 300	310 400 350
[mseg]t	0 151 233	512 618 693

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	a (tzo) ko (pa) lo ak (yau) sak or
[Hz]f	225 305 330 340 330 290 290 280 220
[mseg]t	0 150 250 392 501 592 751 865 1035

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora




[σ] σ	bal	(baltz)	(dau)	kek	o	(lan)	e	(rrai)	ek	e	(rrai)	ek	le	(po)	an
[Hz]f	310	350	390	310	280	300	280	300	250	290	300	230	220	240	220
[mseg]t	0	192	351	518	851	960	1177	1311	1436	1603	1770	1845	2045	2196	2246

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora





[σ] σ	pa	lu	(ka)	su	a	kas
[Hz]f	220	240	290	220	220	210
[mseg]t	2429	2530	2647	2755	2805	2948

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[O] O	da	or	(dun)	txe	(er)	de	ras	i	(kis)	ten
[Hz]f	250	280	360	260	290	260	230	220	260	240
[mseg]t	0	75	209	401	710	876	1010	1169	1286	1453



O = silaba f = maiztasuna t = denbora



[O] O	da	or	(dun)	txe	(gen)	bi	sen	ba	(gu)	(gas)	te	ak	gi	ña	(nak)
[Hz]f	210	210	270	190	190	160	170	200	220	270	200	190	180	180	200
[mseg]t	0	75	142	309	426	518	618	759	902	1035	1194	1311	1419	1528	1687

O = silaba f = maiztasuna t = denbora


49



[O] O	or	du	an	e	to	rri	si	ran	mai	su	ek	e	ta
[Hz] f	190	210	210	210	260	200	170	200	230	220	200	220	210
[mseg] t	0	117	250	425	609	827	977	1127	1311	1478	1628	1795	1962

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



50



[O] O	da	or	tan	gu	rea	mak	e	se	ki	an	er	de	ra	rik	ba	pes
[Hz] f	170	205	195	255	260	280	290	325	310	240	210	175	155	140	220	180
[mseg] t	0	117	275	400	534	635	759	885	985	1119	1252	1394	1511	1611	1829	1962

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



51



[O] O	ge	ro	bai	ill	or	du	ko
[Hz] f	205	310	195 #	205	305	275	250
[mseg] t	0	142	295	568	718	860	1052

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



52



[O] O	(se)	u	ser	i	ki	(si)	e	ban	txar	(to)	e(o)	e	der	(to)
[Hz] f	260	225	170	160	180	220	190	175	205	240	190	190	180	220
[mseg] t	0	58	225	392	526	643	710	810	1019	1177	1278	1336	1427	1603

O = silaba f = maiztasuna t = denbora



53



[σ] σ	a	(rre)	be	a	gas	a	(rre)	ba	bat	(e)	e	se	(ra)	(ju)	li
[Hz] f	200	220	210	200	150	175	225	230	230	250	240	180	240	250	210
[mseg] t	0	117	200	284	417	0	117	250	367	543	693	0	150	351	501

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


54



[σ] σ	(lu)	ka	sen	(e)	nes	(ka)	txi	en	la	(gu)	ne
[Hz] f	275	260	225	200	210	275	230	225	200	250	150
[mseg] t	0	159	292	584	877	1044	1186	1227	1361	1469	1612

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



55



[σ] σ	da	lu	ka	sen	nes	ka	txi	ak	er	de	ras	ba	e	ki	an
[Hz] f	170	240	230	230	190	275	250	220	250	210	195	205	250	195	205
[mseg] t	0	100	234	334	468	584	718	777	877	969	1127	1311	1378	1528	1637

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



56



[σ] σ	se	ba	ñus	ta	ko	o	te	le	ko	ak	si	ra	na	les
[Hz] f	160	230	215	200	200	200	290	275	230	200	210	230	175	155
[mseg] t	0	109	267	417	584	759	910	993	1110	1143	1243	1327	1469	1586

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



57



[σ] σ	a	o	te	le	ra	ko	u	sa	be	nak
[Hz] f	160	175	210	230	180	170	180	200	190	170
[mseg] t	0	100	276	409	626	802	918	1052	1161	1294

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



58



[σ] σ	ba	ñus	ta	ko	a	kas	i	bi	lli	te	da
[Hz] f	190	195	195	205	180	220	205	195	205	200	200
[mseg] t	0	125	259	400	443	576	676	793	893	1027	1194

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



59



[σ] σ	gu	(re)	nes	(ka)	to	ak	#	(er)	de	ras	a	(re)	gas	i	(ki)	si
[Hz]f	190	205	210	270	230	240		275	225	190	230	250	190	180	175	150
[msec]t	0	117	400	534	676	743		1211	1386	1461	1578	1678	1787	1920	2054	2179

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


60



[σ] σ	de	(er)	de	ras	ei	(tte)	ban	be	(ti)
[Hz]f	170	300	300	280	250	270	230	225	250
[msec]t	0	300	384	448	548	698	832	1057	1232

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


61



[σ] σ	da	gu	re	a	mak	e	a	re	gas	i	ki	si	e	ban
[Hz] f	175	230	250	290	270	260	250	340	330	235	300	340	310	350
[mseg] t	0	334	417	467	576	751	0	125	292	659	764	873	940	1016

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



62



[σ] σ	er	de	ras	txa	pu	rriau	a	xe	gas
[Hz] f	270	240	205	205	220	245	200	265	160
[mseg] t	0	158	250	584	735	868	0	134	242

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



63



[σ] σ	or	(tan)	(ba)	pe(e)	(se)	ki	an
[Hz] f	200	265	310	240	220	190	140
[mseg] t	0	184	351	517	635	751	827

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



64



[σ] σ	da	(yoa)	ten	si	re	an	(an)	dre	(a)	ta	gi	so	(na)	
[Hz] f	175	250	240	240	250	275	170	225	250	220	205	225	215	250
[mseg] t	0	125	284	493	610	676	0	117	167	292	376	501	676	

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



65



[σ] σ	da	(no)	bi	o	ak	no	(ta)	ri	oa	ren	ga	(na)
[Hz]f	160	220	195	205	220	170	235	215	210	205	210	240
[mseg]t	0	150	300	367	468	0	167	279	371	488	605	713


σ = silaba f = maiztasuna t = denbora

66



[σ] σ	da	an	(ei)	tte	eu	(dien)	de	kla	ra	si	(ño)	a
[Hz]f	190	215	245	220	195	215	200	200	200	200	255	195
[mseg]t	0	58	167	326	426	543	693	827	935	1069	1186	1286

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora



[O] σ	nik	e	mo	te	eu	tzeet	bei	txo	a	bur	di	bet
[Hz] f	220	220	245	235	220	240	175	210	250	185	200	220
[mseg] t	0	142	259	384	493	743	0	217	384	0	158	326

σ = silaba f = maiztasuna t = denbora


1.8. Gaztelaniaren akustikaz zer bait

GAZTELANIA (N. Tomás)

señor / nácar / luchadóres


1.

σ	se	ñor							
f	140	190							




2.

σ	na	car							
f	180	90							



3.

σ	lu	cha	do	res					
f	145	150	190	90					



GAZTELANIA (N. Tomás)	tambór / campána / mésa
-----------------------	-------------------------

4.

σ	tam	(bor)								
f	280	400								

tam bór

5.

σ	cam	(pa)	na							
f	280	380	230							

cam pá na

6.

σ	(me)	sa								
f	400	220								

mé sa

7.

	(pe)	so									
<i>f</i>	336	175									

pé
so


8.

	pe	(so)									
<i>f</i>	233	322									

pe
só


9.

σ	can	to												
f	320	205												



10.

σ	can	to												
f														



GAZTELANIA (N. Tomás)	cántara / cantára / cantará
-----------------------	-----------------------------

11.

σ	(can)	ta	ra							
f	333	222	154							

cán ta ra

12.

σ	can	(ta)	ra							
f	245	345	163							

can tá ra

13.

σ	can	ta	(ra)							
f	222	233	340							


can ta rá

GAZTELANIA (N. Tomás)

se lo llevó
hasta que se fué / dí lo que pretendes


14.

σ	se	lo	lle	(vo)						
f	315	300	320	400						




15.

σ	Has	ta	que	se	(fue)					
f	280	260	260	280	380					




16.

σ	(dí)	lo	que	pre	ten	des				
f	376	356	360	300	218	171				



17.

σ	en	tre	las	(flo)	res						
f	246	260	277	347	163						



1. à l'opéra

σ												
f												

à l'o pé ra

2. Qu'est-ce que c'est que ces gens là qui viennent nous proposer des billets sur la voie publique?

σ												
f												


qu'est-ce c'est ces là viennent pro ser
que que gens qui nous po des

bi llets sur la voie pu blique?

FRANTSESA (D. Jones)

3. Des camelots quelconques désireux de vendre des billets d'auteur ou de faveur

<i>σ</i>											
<i>f</i>											



2. Euskal azentu-unitatea

2.1. Bokale-harmonia eta euskal azentu-unitatea

2.2. Beste zenbait fenomeno eta azentu-unitatea

2.1. Bokale-harmonia eta euskal azentu-unitatea.

2.1.0. Ez dute euskalki guztiek ezagutzen, egokiro, edo ez horren egokiro agian, «bokale harmonia» deitu izan den fonologi fenomeno. Eta berorren geografi hedakuntza ikusiz, edo-ta eskualdeen arauerako indarrari begiratu, ezin baiets daiteke segurki aski berrikuntza berri xamarrara, ala gainbehera doan joera zahar bat ote denez. Zenbait arrazoirengatik, bigarrena pentsatzeko oinarri gotorxeagorik dagoen arren.

Ondoko hizkuntzetan ez dagoen fenomeno denez gero, interferentzi bidez kutsatu zaigun joera dela pentsatzerik ez dago; eta, hortaz, guregurea den fenomeno dela somatzea ez da burugabekeria. Hain zuzen ere, auzo-hizkuntzetan aurkitzen dugun egoera horretxek azal dezake, hain zuzen, gehigarriko eragile gisa, berorren atzerakada. Zeren ama-hizkuntzat bokale-harmonia egunero erabiltzen zuten euskal idazleek, esate baterako, ia-ia salbuespenik gabe ez baitute gauza «serio»tzat hartu fonologi aldakuntza horiek beren izkribuetara igarotzea. Eta honek horrelako beste joera bat gogorazten digu: Larramendi apartaren luman, adibidez, herskari ozenen gorketa klasikoari buruz mintzo zelarrik, /z/ fonemaren «ondorio kaltegarriak» aipatzen zituan (berak, erdaraz, «los efectos malignantes»). Azkue-k ere, bere aldetik, kontrako aurriritzi berberak erakutsi zituen, euskalki honetan edo hartan topatzen zituen «fonetismos nefastos» delakoak kondentatzerakoan. Era berean, gauza ezaguna da bai hasperenketak, bai hitanozko aditz-jokoak, jasan duten diglosi-gaitza: «pello»en hizkeratzat hartuak izan dira horiek; edo-ta «casero» hizkera, «aldeano», «populacherismo», eta abar. Baita gaur bertan ere, eta geugandik oso bertan dauden euskaltzale batzuren ustez, euskal fonetika besterik ez dena, kaikukeria baizik ez zaie...

2.1.0.1. Badira, bestalde, bokale-harmonia izenez ezagutzen diren *bi* fenomeno desberdin.

Bata *asimilazio aurrerakaria* da (eta euskaraz normalena, beraz). Adibidez, *mendia* → [mendie]; *burua* → [burue]:

a → e / { i
j
u
w } —

edo-ta, zehazkiago:

$$(A) \left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ + \text{low} \\ - \text{back} \end{array} \right] \longrightarrow [- \text{low}] \quad / \quad \left[\begin{array}{l} \alpha \text{ syll} \\ + \text{hi} \\ (- \text{low}) \end{array} \right] \text{ —}$$

Alegia, irekidurari buruz, asimilazio partziala dugu hor. Eta horixe da, hain zuzen, euskal «bokale-harmonia»-ren eredua bera, eta zabalduenik agertzen dena. (N.2.1.0.1)

Bigarrena, berriz, *asimilazio atzerakaria* da; eta, hortaz, anormala euskaraz. Edo, gutxienez, eta hedaduraren aldetik, aurreko moldekoa baino aisa medarragoa eta indar txikiagokoa.

Adibidez:

$$a \rightarrow e \quad / \quad \text{—} \quad \left\{ \begin{array}{l} j \\ w \end{array} \right\}$$

edo-ta, zehazkiago:

$$(B) \left[\begin{array}{l} + \text{syll} \\ + \text{low} \\ - \text{back} \end{array} \right] \rightarrow [- \text{low}] \quad / \quad \text{—} \quad \left[\begin{array}{l} - \text{syll} \\ - \text{cons} \\ + \text{hi} \end{array} \right]$$

Zenbait hizkeratan, nafarreran eta bizkaiera bakan batzutan, batera gertatzen dira A eta B fenomenoak. *Usuenik*, ordea, *bakarrik* gertatu ohi da *A fenomenoa*.

Bi joerak batera gertatzean, hortaz, bokale-harmonia bikoitz horrek halako gailurra-edo lortzen du *Hego-nafarrera garaian*; batez ere A. Ondarrak prestatu dituen esku-izkribuetako hizkeran, Goñi-koa itxuraz; eta gaur gaurkoz argitaratu gabeak. Hauetan, ikus daitekeenez, are Mz. Morentin bien sermoietan ere baino indar handiagoz gertatzen da fenomenoa. Eta bokale-harmonia horren indarra behera doalarik, *Ipar nafarrera garaira* heltzen gara (Ultzama-ra, bereziki). Goierri-ko *gipuzkeraz* eta *Ipar-bizkaieraz* ahulago agertzen da fenomenoa; eta gainerako euskal hizkeretan, pratikan desagertu egiten dela esan genezake.

Esan dezagun, beraz, gauzak gehiegi desitxuratu gabe, bizkaiera mintzatua den eskualdearen Hegoaldean (Gipuzkoa-ko Hego-Mendebaldea barne), gipuzkeraren Iparraldean, eta Ahuñemendiko bereko hizkerarik gehienetan (L, NB, Z, E), bokale-harmonia hau ezezaguna dela. Era berean, idatzia izan den euskal literaturarik gehienean, bokale-harmoniaren arrastorik ez da agiri.

2.1.1. Hego-nafarrera garaia

(ik. Mz. Morentin, Fontes LV 15, 1973)

2.1.1.0. Izena, edo izen-aire bat, ardaztat duten unitateetan aurkitzen da bokale-harmonia hau, aurrenik; baita euskal «deklinabide» delakoan barrerako singularrean ere; ondoko adibide hauetan ongi ikus daitekeenez: **ure**, 372; **ayte**, 382; **escue**, 372; **yguzquie**, 374; **madariquetuec**, pl., 375; **veguiretu**, 372; **veinzet**, 379; **gauceric**, 374; **vecatariec**, pl., 372; **sandurequi**, 372; **corpuzec**, pl., 373; **aingueruec**, erg. sg., 374; **mundueri**, 374, mgg.; **infernure**, 375; **egendaturiquecoa**, 373 (gogoan har/n/-ren erorketa).

2.1.1.1. Honetaraz ero, ohar hau egin behar da: *-an* (inesiboa eta *-ra* norakoa) atzizkiek, harmonizazioaren kontrako joera erakusten dutela askotan: **cerura**, 373; **lecura**, 374; **orduan**, 374.

Kapitulu honetan barrera ikusiz joango garenez, fenomeno honek (baita norabide berean bultzatzen duten beste batzuk) **án* eta **rá* markatuak postulatzera eramaten gaituzte; bigarrena, jakina denez, gaur ere Ekialdeko euskalki batzutan **-lát** edo **-rát** aurkitzen dugularik.

2.1.1.2. Bokale-harmonia honek are mailebu berriantxak ere aldarazten ditu, nahiz jatorrizko hitzaren bokalismoa hor egon, aldamenean; ondoko adibide hauetan ikus daitekeenez: *noticie*, 371; *ermosure*, 374; *Providencie*, 373. Zerrenda honetan, bidenabar, A asimilazio *aurrerakariak* izan ditzake ondorio horiek; eta azenturik ez daramaten /a/ horiek hetsi ditu.

2.1.1.2.1. Badirudi, alderantziz, *A harmonia soilak* (batera B moldekoak eragiten ez duelarik) ezin alda dezakeela jatorrizko /a/ hori, beronek azentua daramanean: **dificultadebat**, 372; **particular**, 372; **severidade**, 372; **animale**, 373; **infamea**, 373; **abominablea**, 373; **fiscale**, 374; **justificaceco**, 373; **procuracene**, 374.

2.1.1.2.2. Bi harmonia moten ondorio bateratuak berak ere, ez bide du beti jatorrizko gazt. *á*-ren aldakuntza sortzen: **examiñatu**, 372 (bakanka, **examiñetu**); **mudatu**, 372; **determinatu**, 372; **despreciaturic**, 372; **burlatuco**, 372; **juntatu**, 374. Zenbait kasu bakanetan hala gertatzen bada ere, ikusiko dugunez, Goñi-ko joerez bestaldera: **asustetu**, 371; **sentencietu**, 372; **desgracietue**, 372.

2.1.1.2.2.1. Hots, **carrigan**, 379, kasuan, badirudi *a* luze edo azentuduna eskatua beharra dagoela.

Itxura denez, hortaz, asimilazio aurrerakariaren bokale-harmoniaren legea, honetara idatz liteke:

$$(A) \begin{bmatrix} + \text{syll} \\ + \text{low} \\ - \text{back} \end{bmatrix} \rightarrow [- \text{low}] / \begin{bmatrix} \alpha \text{syll} \\ + \text{hi} \\ (- \text{low}) \end{bmatrix} C_0 (+) \text{ —}$$

Era honetara, (#) muga azkarraren *gainetikako* harmonizazioa *galeraziko* genuke (ez, ordea, (+) morfema-muga ahulaz gainetitako harmonizazioa). Maiz, bestalde, eskuin aldean (M+1) azentu-unitateekiko auzotasunean gertatzen da. Adibidez: **eguin bague**, hor bi hitzetan idatzia; eta, hortaz, hau postulatu behar bide da:

[egín] # [báge]

(Beste askotan, dena dela, idazketa etenik ez dugu aurkitzen)

- 2.1.1.3. **bat** daramaten unitateetan, ez beti grafia etenduan (Lizarraga-ren testuetan gertatzen denaren aurka, Hego N.G.), kasu *gutxitan* gertatzen da harmonia. Eta, berriz ere, Hego nafarreraz, **bát** elemendu autonomoa dela dirudi; edo-ta, segurkiago eta zehazkiago, bere koda ez-hutsarengatik, eta azentua hizkera hauetan eskuinerantz joan dela-ta, garbiki **-bát** azentuduna. Eta harmoniak, beraz, ez duela iristen.

Are nominatiboan ere hau dugu, beraz: **vecataribat**, 376; **guchibat**, 377; **erchibat**, 372; **lecubat**, 376; **vietatic vatec**, 376. Joera hau, urrundik gainera, nagusizat har daiteke.

Zenbait aldiz, dena dela, /b/-ren erorketarekin batera (eta erorketa hori oso adierazgarria da), hortxe agertu ohi da harmonizazioa: **aingueruet**, 377; **maisuet**, 378; **desastratuet**, 381.

Hots, bi fenomeno horiek **-bat** klitiko baten alde mintzo dira (eta mugabea, beraz). Baina corpusaren izariak ez du baiespen hori aski oinarritzen.

- 2.1.1.3.1. Zer esanik ez, **bat**-ekin atzizkiak ere doazenean, fonologi pisua handiago du; eta harmonizaziorik ez dago: **andibatequi**, 372, 373; **egunbaterañõ**, 379, 382; zenbait aldiz grafia etenak ere idarokitzen duen bezala: **tempestade batec**, 372; **iz bates**, 378 (= hitz batez).

- 2.1.1.4. Goñi-ko hizkeran, bide beretik, gonbaraziozko **-ago** morfema ez da harmonizatzen; eta badirudi, beraz, uste nagusiaren aurka, ez dela atzizki bat; edo-ta # **ágo** dugula: **arguiago**, 374, adibidez. Agian, gaztelaniaz bezala, etenunez idatzita hobeki legoke: **argi ago** (= más claro).

Bide beretik, hona hemen beste hauek: **isusiago**, 374; **gaizt(o)ago**, 375; **gaizquiago**, 373; **gueiago**, 371. Kasu batean edo bestean harmonizazioa mamitu bada ere: **ovequiago**, 382.

Gogoan hartzekoa da, honi buruz, bizkaiera zaharrean aurki daitekeen grafia geminatua: **-aago** (ik. 3.2.kap.); edo Azkuek **-ágo**-ren atoniaz idatzi zuena («-àgo» grafia Azkue-rena izaki; eta, beraz, /a/ hori tonu apalean).

- 2.1.1.4.1. Zenbait aldiz nafarrera garaiak aurkitu ohi den grafiaz erakusleetan ez dugu harmoniarik aurkitzen: **egun artan**, 372; **liburu aietan**, 374; **vici modu au**, 377; **desdichatu aiegui**, 374.

Itxura denez, erakusleak (M+1) markatuak dira euskalki batzutan (ikus

k-, *g-*, *h-*), agian 'glottal stop' zahar baten aztarna. Eta, nolana ere, unitate autonomoak direla esan daiteke.

- 2.1.1.5. Bide beretik, eta ohizko idazkeraz bestalde (bai Goñi-ko eskuizkribuetan, bai gaurko Euskara Batuan), **garren** unitateak ez du harmoniarik jasaten: # **garren** balitz bezalaxe: **bigarren**, 372; **irugarren**, 373; **vigarren**, 373. Badirudi, bestalde, # **gárren** postula daitekeela, ezkerretako koda ez-hutsari dagokionez.

Era berean, ondoko morfema hauek, batzutan gramatikaldurik, eta grafian autonomo xamar agertzen direlarik ere (ez beti), ez dute harmonizaziorik jasaten; eta lexema mailako muga jarri behar zaie ezkerretan:

tasun (Mendiburu-ren luman oraindik XVIII. mendean lexema gisa erabilia): **beldurtasun**, 372; **isutasune**, 379.

bage (= bage)

sentencietubague, 372; **veldurric gabe**, 376; **erremedioric bague**, 377; **leitu bague**, 381.

bada

noyz bada?, 378 (gorketarik gabe, gainera)

danik

oraidanic, 376.

ka

Marrusca, 374; **zaticaturik**, 373.

gan, # **gana**, etab. beti berex idatzita.

- 2.1.1.6.1. Ohargarria da, bereziki, baldintzazko **ba-** aurrizkiak ez duela inoiz bokale-harmoniarik jasaten; # **bá** balitz bezalaxe: **balibace**, 371; **ezpalinbada**, 372; **sartu baledi**, 378; **balindu**, 378.

Behin bakarrik aurkitu dugu hau: **pensatu bezenezate**, 372; agian irakurketa erratu baten ondorioz.

- 2.1.1.6.2. Harmonizatu gabe aurki ditzakegun beste termino batzu, berriz, beren azentuaren ondorioz ager bide daitezke beren horretan: **icara**, 374 (v. ikára); **indarr**, 374 (v. indár); **ucatu**, 377 (v. ukátu); **minzatu**, 379 (v. mintzátu). Eta batzu salbuespen dirudite: **milla**, 372; **guisa**, 373 (nahiz ez Goñin).

- 2.1.1.7. Aditza ardaztat duten unitateei gagozkielarik, berriz, harmonizazioa jasaten duen atzizki bakarra, **da** silababakarra da. Normalean «de» idatzita, klitiko gisa; eta bere koda hutsari dagokion azentuketa bilduz (-2): **izainde**, 376; **eldude**, 381.

Naiz adizkiak, berriz, ez du aldakuntzarik jasaten: **eldu naiz**, 381. Grafia etenak eta kodaren egiturak # **naíz** onartzera bultzatzen dute.

2.1.1.7.1. Adizki *polisilabikoek* ez dute harmonizaziorik jasaten; eta honek orain dela bi mendeko Larramendi-ren irizpidera garamatza, andoaindarrak (M+I) proposatzen baitzuen adizki horientzat. Esate baterako: **vici gaden**, 377 (v. gáda, gara); **vicitu gaicen**, 372 (v. dáit(e)zen); **guerdatu daiquela**, 380, (= dáit(e)kela); **faltatu daquizun**, 380; **desengañatuzait**, 378, (= záit(e)); **daitu zaituztet**, 372; **ofenditu zaituen**, 377.

Eta gauza bera, jakina, aditz trinkoak: **urbil dagola**, 372.

Seinalagarriak dira, era berean, harmoniarik gabeko laguntzaile hauek: **lizaque**, 378; **ciñaque**, 378. Badirudi, hitz batec, **-zá-** dugula. Hots, horixe dugu zubereraz (ik. 5.4. kap.); eta, bide beretik, bizkaiera zaharrean **-zaa-** geminatua aurkitzen dugu (ik. 3.2. kap.).

2.1.1.8. **-la** konjuntzioa klitiko nabarmena da; baina ez du harmonizazioa batera erregulariki jasaten: **dule**, 377; **vici vearduzule**, 380; baina baita: **dugula**, 372, 373; **duzula**, 377; **eztizula**, 377.

2.1.1.8.1. Are gutxiago **-larik** atzikia (nafarrera garaiaz, **-láik** askotan): **dugularic**, 376; **diogularic**, 376; **dezaezularic**, 378.

2.1.1.9. Jakina, autonomo diren lexemek (normalean pausa baten eskuinean idatziak), ez dute inoiz bokale-harmoniarik jasaten: **ain andie**, 374; **ill artean**, 376; **us andie**, 378; **cergatic artuzuen**, 377; **dauquezun hacienda**, 379.

2.1.2. Goñi-ko Hego-nafarrera garaia (ik. Echeverz - Ondarra)

Hego nafarrera garaia mota honetan, bokale-harmonia *batera da aurrerakaria eta atzerakaria*. Eta parada hau baliatuz, neure esker ona erakutsi nahi diot A. Ondarrari (Bakaikoa-ko nafartar euskalari argitua); iker-lan honen egile honi, oraindik ere argitara gabe dauzkan sermoiak helerazteagatik.

Seguru xamartzat jo bide daiteke hizkera horren eskualdea (Olo-Goñi inguruak); bai fonologiaren aldetik, bai morfologiarenetik: Etxarri-Aranatz eta Allotz-ko nafarrera garaien erditsukoa.

2.1.2.1. *A* asimilazio *aurrerakariak*, zerrenda honetan erakusten diren aldakuntzak, eta antzekoak, sortzen ditu: **iquen** (= izan; beste euskalkitako *ukan/ükhen*-en kidea); baita **iquenen**, **iquein** (V. izain), **iquetea**. Eta ondoko hauek ere: **humille**, **gauce**, **egune**, **miñe**, **itzeltzen**, **seculle**, **seculleko**, **duzune**, **jaune**, **aurpeguie**, **iguen** (= igan, igo(n)), **eritasune**, **culpe**, **mille**.

2.1.2.1.1. *B* asimilazio *atzerakaria* ahulago agertzen da; eta lexema mailako (#) mugaren gainetik ez du ondoriorik izaten: **neiz**, **ote neiz**, **iquenen neiz**, **ceigu**, **gueisto**, **nei**, **beit**, **beño** (= baino), **Eingueruec**, **ein**, **meiz**, **neiz** (= nahiz). (Irakurleak badakike Etxarri-Aranatz-en bei entzuten dela gaur baiezkoa entzuterakoan).

- 2.1.2.1.2. Gaztelaniatikako mailebuetan, jatorrizko hizkuntza horretan á azentu-dunik ez dagoen kasuetan, asimilazio aurrerakariaren ondorioz, e dugu: **diche, prise(ric), misericordies, inbidiez, codicie, guise, glorien, pinture (bat), ires eta errabies** beteric.
- 2.1.2.1.3. Jatorrizko gaztelaniaz á baldin bada, bokale-harmonizazioa ez da maitzen: **particularretan, ociosidade, tribunale, fatuidade, castidade**; nahiz harmoniazko unitate bakan batzu aurkitzea posible izan: **celestie, istente, fisquelac**.
- 2.1.2.1.4. Bi asimilazioak batera elkartzen direnean, are gaztelaniazko á ere harmonizaturik agertzen da: **crucifiquetu, prediquetu, obliguecio, juzguetu, castiguetu, pintetu, desdichetu, ocupetu, aseguretu, turbetu**; baita euskal jatorrizko paroxitono seguru hauek ere: **urquetu, billetu**.
- 2.1.2.1.4.1. Beste zenbait kasu bitxi (alegia, *A* soilaren bidez azaldu beharrekoak), partizipioan jasotako harmoniaren bidez azal daitezke: **acusetzera, truetzeco, castiguetzera, expliquetzeco**.
- 2.1.2.2. Nafarrera mota honetan, alde askotatik *mendebaltar* kutsukoa (hau errazkiago ulertzeko aski da Altsasuan gertatzen dena lekuko hartzea), klitiko gisa agertzen da **bat** eskuarki. Badirudi, beraz, hemen **-bat** mugagabea nagusitu dela; eta ez **bát** zenbakaria. Adibidez: **andibet, illumbet** (ohar /m/ grafiko hori), **itsusibet, gentilbet, odeibet, sandu et** (ohar, era berean, /b/ horren ezabaketa); eta oso antzekoak diren beste hauek ere: **desiertoatera, bocadoat, fieroat, becelacoat**.
- 2.1.2.2.1. *Deklinabidean* barreneko atzizkiekin ere gertatzen da harmonizazioa: **lecuetean, gauetes, chiquibetean, andibetean, andibetetic, andibetequi, chacurbetegui** (= txakur bati), **gorpuz ill betegui, gutibena-gutibena** (= -bana); **egun betean edo bercean**.
- 2.1.2.3. Hona hemen *deklinazio-kasu* hauek iritsi dituen harmonizazioa: **Evangelistec** (ergsg.), **sanduec** (erg.sg.); **maistruec** (erg.sg.); **guciec** (pas.pl.), **becatuen** (= bekatuan), **escuen** (= eskuan), **bere bicien, gracien, gorriec** (pas.pl.), **galgarriec** (pas.pl.), **obien** (= hobian), **nites, gutes, conture, memoriera, sure, lurreri eta Cerueri** (sg.), **mundueri, arimeri, santissimeri, andierequi, Cerureñeco, cerureco bidea, anditeco**.
- 2.1.2.4. Oraino harrigarriago: euskalki honetan, besteetatik bereziz, **-ago** gonbarakariak bokale-harmonia erakusten digu: **garbiegoa, escojituegoa, andiego, arguiego, gutiego, itsusiego eta beltzago**.
- 2.1.2.5. Goñi-ko hizkeran, baldintzazko *ba-* ere aldatzen du bokale-harmoniak; eta gutxienez **barime** konjuntzio lexiko-aire-an: **ezparimetugu, barimedago, barimeceitezque** ere.
- 2.1.2.5.1. **arazi** faktitiboak, aldiz, askotan batuta idatzirik agertu arren (are Baturan ere, zenbait aldiz, jakina denez), ez du bokale-harmoniarik eza-

gutzen: **ireguiarastea**, **eroriarasteagatic**, **itzuliarasteagatic**; are grafia etenetan ere: **ssaquin aracitzendicet** (= dizuet).

2.1.2.6. Beste euskalkitan bezala, lotuta idatzi ohi diren unitate batzuk, ez dute bokale-harmoniarik jasaten, eta autonomoak dira; eta (M+1) ere bai, batzutan:

2.1.2.6.1. # **bage** (báge, agian): **deitubague**, **sentipague**, **barcatubague**, **confesatubague**, **beldurbaguea**, **entzunbagueac**; eta zenbait aldiz etenduraz, fonologikoki zuzenkiago: **icusi bague**, **iñ bague** (/ñ/ sabaikari horrek ongi erakusten du pausa dagoena). Partitiboekin idazkera etena dago: **duderic bague**, **provehuric bague**.

2.1.2.6.2. # **tasun** (dirudienez, **tásun**, eskuineko kodaren aurka). Adib.: **damutasun**, **eritasune**, **mintasun** (ohar /t/ hori), **itsusitasune**, **beldurtasun**, **arguitasune**, **churitasun**.

On izan daiteke ausaz **tasun** «atzizki» horrek ez duela asimilazio atzerakaririk jasan jakitea; bestela, *tesun* genuke; kakoa azentua ote den soma daiteke. Gauza berbera esan daiteke *gatic*-ez (Berriro ere **gátik** bailitzan; -**gá**- hori, beste euskalki batzutan bezala, azentudun agertuz: inesiboaren bokale-harmoniarik eza, esana dugunez, honekin lotuta litzateke). Oso antzera agertzen zaigu **garri** unitatea ere (**arrigarri**, Goñi), harmoniarik gabe, **ssaquin** bezala, edo-ta **gauce** (eta ez * *ssequin* eta * *gueuce*). Hitz batez, asimilazio atzerakariak ahulago dirudi.

2.1.2.7. Singularrezko artikuluak bokale-harmonia jasaten badu ere, erakusleek ez; eta honek, gorago esan dugunez, bere lotkia bide du Elkano-ko Lizarraga-ren /g/-zko grafiekin: **egun andiau**, **egun arrigarriau**, **viciau**, **becatuau**, **laburrau**, **andiarren**, **andiarrec**, **lecuartan** (-gartan, Liz.), **becatuarrequi**, **arrigarriartaco**, **ederrartan**, **churiarrequi**; edo-ta **desdichetu arren daco**, **egun artan**, **egun artaco**.

2.1.2.8. Aditz laguntzaileei gagozkielarik, **da** silababakarra ageri da klitiko garbi gisa, eta eskuarki: **asqui de**, **iceinde**, **iqueinde**, **egoñ de**, **beite** (= baita). Koda hutsari euskalki hauetan dagokionez, paroxitonia postula daitekeela dirudi: **béite**, **egóinde**, etab.

2.1.2.8.1. Silababakarrak ez diren adizki laguntzaileek, aldiz, ez dute harmoniarik erakusten: **bicigaren artio**, **turbetu naute**, **vicizara**, **vicizarena**, **escapatu daquizquiola**, **escapatu daquion**, **idugui nazazun**, **indaquizquion**, **egotzi dadien**.

2.1.2.8.2. Aditz trinkoek ere ez: **zu zaudela**, **beti dago**, **beitauquete**.

2.1.2.9. -**la** atzizkia enklitikoa da garbiki, eta harmonizazioa erakusten du: **estuzule**, **estitugule**, **erratendugule**, **duzule**, **digule bere gracie**, **dabilzule**, **vici beardugule**.

2.1.2.9.1. Harmoniarik gabe agertzen diren batzu, normalak dira funtsean: **neidula** (ik. duela), **beardula** (ik. duela).

2.1.2.9.2. **-larik** ere harmonizaturik agertzen da hizkera honetan: **-tuguleric, paratzen duzuleric, icusten tuzuleric**.

2.1.2.9.3. Bi lexema desberdinen artean, eta (#) *mugaren gainetik*, harmonizaziorik ez dago: **bi gauce, sandu andiarrec, berequi batean, bi aldís, anitz aldís, eiñ arrituric, becatoreric andiena**.

2.1.3. Ultzama-ko Ipar nafarrera-garaia

Ipar nafarrera mota honetan, bokale-harmonia dago; baina *aurrerakaria* bakarrik. Eta honen indarra, ikusiko dugunez, Goñi-ko hizkeran baino txikiago da.

2.1.3.1. *Nominatibo soilean*, harmonizazioa mamitzen da. Bai /a/ azentugabeetan: **gáuze, báite, áizpe, béire** (= begira), **finke, karríke, zúñe, sékule, áite**; baita /á/ dutenetan ere: **zillér, itsésua, sukélde, izéten diré, indérra, bizkér, billétzera, arriskétzen**.

2.1.3.1.1. /i/ eta /u/ *bigarrenkarién* eskuinetan, harmonizaziorik ez: **árdua, ártua, ária, ástuat, átia, értziak** (= esteak). Baina berezkoak direnean, bai: **afarie, alubie, ostegúne, alargúne, alkíe**; baita **áutse, agosabáye, amorráye, áuntze** (alegia, [-syll]-ren ondoren).

2.1.3.2. **bat**-etiko mugagabeek, bokale-harmonizazioa jasaten dute, eta **-bat** klitiko delá erakusten: **multzúbet, agínbet, afaríbet, alkíbet, eztúlbet, amorráíbet, arráíbet**. Klitikotasun hori, dena delá, harrigarria da. Euskalki honen arauerako erregelak betetzekotan, **-bat**-en koda ez-hutsak oxitonia beharko luke eman. Berriro ere mendebaltar kutsua duten joeren aurrean gaude.

2.1.3.2.1. **Batzuk** pluralak ere, harmonia erakusten du: **ezkur bétzuk, perrexilbétzuk** (batean loturik, bestean berex).

2.1.3.2.2. Deklinabidean barrena ere, harmonizazioa dago: **aldibétez**, 411.

2.1.3.2.3. Eta artikuluekin edo mugagabeekin, harmonizazio bera: **andíek, agíñek, txítek, gúziek** (eta **gúzi** (M+1) markatutzat hartu behar), **goittíre, eizíre, lekúre, orduréko, soñúen, tokíen, ordúen Donostíen, erdítzeko egúnten dagó, iduzkítten, beittiréño**. (Azentuaz beraz, ik. 5.1.kap.)

2.1.3.3. Hitz-elkarketetan, eta bigarren osagaia /a/-z hasten denean, Azkue-k ere idatzi zuenez, bokale-harmoniarik ez dago; eta badirudi tartean # muga dagoela: **illunabárrian, egurráundi, guttiási, iduzkiázia, zakurráunkek, eguritánta, luryáuzi, soingáñe**.

2.1.3.3.1. Bi lexema garbiren artean, eta # mugaren gainetik, harmoniarik ez dago: **íru ailtzur, láu aizkora, íru alki, zázpi asto, agitz agúdo, arrúnt zakárre, kantari txarra**.

2.1.3.3.2. Ondoko anormal hauek azaltzeko: **oyánian**, 460; eta **oiálak**, 418; badi-rudi hauxe delá postulatu beharra: /h/-ren galera aspaldikoa delá; eta,

geroztik, silabaketa aldatu egin dela: **o.yán, o.yál** (euskal joera zahararren aurka: *oi.(h)an, oi.(h)al*); bokalerdiaren ordeztu, frikari ozena sortu delarik. (ik. 3.1 eta 5.4 honi buruz).

- 2.1.3.3.3. Azentu zaharraz gain, ez bide dago arrazoi nabarmenik bi kasu hauek azaltzeko: **Ultzama** (lehen «Uxama»), eta **gurátsuak**, 431 (v. burha-soak).
- 2.1.3.4. Azter ditzagun orain normalean atzizkitzat hartu ohi diren partikula batzu. Euskalki honetan harmonizaturik agertzen ez direnez gero, bai azentua, eta bai autonomia bera batez ere, postulatu behar bide liratske:
- 2.1.3.4.1. # **ágo** // **geiágo, illunágo, trankillágo, naiágo, aiságo, guttiágo, gorriágo**.
- 2.1.3.4.2. # **tár** // **goiztár, baserritár**.
- 2.1.3.4.3. # **gábe** // Sistemakiro berezitako lexema gisa idatzia: **il gábe, in gábe, kusi gábe**.
- 2.1.3.4.4. # **dámu** // **etxidámu**.
- 2.1.3.4.5. Erakusleak (Izagirrek berez idatzita) ez dute harmonizaziorik erakusten: *paratu ttú árrek*, 410.
- 2.1.3.5. **da** atzizki silababakarra, klitiko agertzen da; eta euskalkiaren arauera-ko paroxitonari dagokionez, harmonizaturik: **aski de**, 460; **oride**, 466; **gaurde**, 430; eta gauza bera *bait*-en ondoren: **báite**, 462; **ezpáite**, 460.
- 2.1.3.5.1. Harmonizazio bera **-tu**-zko partizipioen eskuinean: **pastu de**, 410; **torri de**, 411; **ambíldude**, 412; **altxatu dé**, 430; zenbait aldiz, oihartzunezko azentuaren arauera, txandakako silabak markatuz: **lorétu dé**, 435; **antzútu dé**, 413; **barátu dé**, 419; **erótu dé**, 426; eta, geroaldian: **iyein de**, 434 (=igoko da).
- Aitzitik **zan** silababakarrak (zubereraz ere gertatzen den bezala), markatua dirudi: **intzán**, 460 (= egin zen). Gauza bera geratzen zaio agintekeraakoari: **eix zán**, 427 (= hets), **kus zan**, 433 (= ikus); baina hemen antzinako /e/ ez da ahanzi behar: *ezak/ezan*, Euskara Batuan.
- 2.1.3.5.2. Harmonizaziorik ez polisilabikoetan: ez laguntzaileetan, ez besteetan: *segizazu*, 450; **gaztetu intzara**, 435; **maingu dago**, 440; **lotsátuik zauté**, 435; **ongi dagola**, 462; **ernári dagó**, «está en celo». Baina beste hau ere bai: **baitágo**, 464. (Ongi ageri denez, eta gero ikusiko denez, mendebal-tar kutsua du ultzamerak alderdi batzutatik. Ik. 5.1. kap.)
- 2.1.3.5.3. **zuk dakizu** sekuentzian, dena dela, # muga baldin badago, hau espero liteke: **zuk dakizu**, gorketarik gabe. Hots, hauek aurkitzen ditugu: **zuta-kizu**, 440 eta **zutekizu**, 420; bigarrenean sandhiaz eta harmonizazioaz.
- 2.1.3.6. A.Izagirre-ren corpusaren bidez frogatzea zaila den arren, euskalki ho-

netan ere baldintzazko **ba** azentuduna dela idarokitzen dute zenbait aztarnak; eta B.H.rik ez du jasaten: **asi bagíñe**, 426.

- 2.1.3.6.1. **Bada** konjuntzioak ere (**ba** zenbait aldiz), autonomo dirudi, eta B.H.rik ez du jasaten: **ezín ba**, **nik indúpa**, 432 (gorketaz, dena dela); eta bere azentuketa bikoitzaren gatik azpimarragarri: **orgátipá**, 446.
- 2.1.3.7. **-la** atzizkia, klitiko agertzen da; eta euskalkiaren arauerako azentuketaren bidetik, paroxitonian: **eztigule**, 457; **diogúle**, 457; **Jangoikuak dizule egunon**, 434; **zaigule**, 465; **duazíle**, 414; **zigulé**, 457 (entonazioaren eraginez ote?).
- 2.1.3.8. Gauza bera dugu partizipioaren ondoko **-ta-z**: **así te**, 412; **útzí te**, 423; **óztu te**, 431; **gau te egún**, 430.

2.1.4. Markina-ko ekialdetar bizkaiera

J.J. Arrizabalaga-ren *«Markiña zarra, kontu kontari»* liburua hartu dugu informazio-iturritzat (Ermuko Onandia argit., 1978). Eskualdeko hizkeraren transkribaketa hori zientifikoa ez izanik ere, «errakuntza» eta «heterodoxia» mordo bat dakar bere grafian. Hots, huts horietxek dira baliorik handienekoak. L. Baraiazarrak 1980-an erregistratutako banda bat ere erabili dugu, baita hark egindako transkribapena ere. Aipatzerakoan, eta hurrenkera horretan, A eta B letrez aipatuko ditugu biok (lehenengoari dagokionez, orrialdea ere erantsiz).

- 2.1.4.1. Are mailebu berrietan ere, nabarmen agertzen da asimilazio *aurrera-kariaren* eragina: **zierro**, A 45 (gazt. cigarro). Baita, kasu batzutan, bakanka, asimilazio atzerakariari dagokion adibide batzu (bizkaierazko eskualdeetan oso zabaldurik): **geur**, **eurton** (= aurten). Hots, hau ere badugu, Nafarroan bezalatsu, J.J. Arrizabalaga-ren hizkeran: **neiku**, A 55.
- 2.1.4.1.1. Honã hemen adibide batzu: **izen**, **iseten**, A 55; **beintzet**, A 55; **illebete**, A 82; **ikeragarrixen**, A 95; **markiñen** B. (Azkeneko honen bidez, eta Azkuek esan zituenak kontutan harturik, fonologi aldakuntza sakonak gertatu bide dira Markinan azkeneko 60 bat urteotan. Ikus 3.2. kap.)
Batzutan, eratorritako forma bigarrenkarian ere gertatua da harmonizazioa: **bierra**, B (= be(h)arra).
- 2.1.4.1.2. Bokale-laburketa *batzutan* (ez guztietan), eta luzeraren edo azentuaren gatik nonbait, B.H.rik ez dago: **Markiñen**, vs. **Markiñá**, A 117. Horra hor: **Baríñako**, **Aretxiñá** (= Barinaga-ko, Aretxinaga-ra). Nahiz batzutan, are gaztelaniatikako **á** azentuduna aldaturik agertzen bada ere: **kristelak**, A 45; **krixeda**, B. Baina euskal hitz zaharretan ez bide da gauza bera gertatu: **uxatu**, A 97; **bularren**.
- 2.1.4.1.3. Singularrezko nominatiboan, artikulua harmonizaturik agertzen da: **lorriñe**, A 37; **egune**, A 45; **aitxek**, A 65 (= aitak). Eta bide beretik deklin-

naketan barrena: **jokuen**, A 45; **gustien**, A 45; **lekuen**, A 55; **orduen**, A 55; **aundire**, A 45; **itxurrire**, B; **Etxebarrire**, B; **sagastire**, B; **mendire**, B; **beixek**, B; **asurrek**, B; **eskuek**, B; **ipurdixez**, B (instrumental hone-tan ez beti).

Kostaldean, Holmer-ek seinalatzen duenez, ez da berdin gertatzen: **malluas**, **lemigas** (bigarren hau ez da jatorrizkoa).

- 2.1.4.2. Markinan ez dago harmonizaziorik **bat**-ekiko nominatiboan (Kostal-dean ,berriz, bai, Holmer-en datuen arauera): **lagúmbat**, B; **apurbat**, B; **polibat**, B; **famaubat**, B; **txiki-txiki bat**, B.

Arrizabalagak grafia etenaz adierazirik (erdararen eraginez bakarrik?) hauek ditugu: **txarri bat**, 65; **begi baten**, A 95; eta bide beretik Baraia-zarrak: **sepillu batas**, B; **gau batembe**, B. Sistematikoko atzizkiekin: **erri batekuek**, A 107. Edo-ta Barandiaran-ek Kortezubi-ko hizkeraz emandako transkribapenean: **lapikotxu baten**, Auñ. 99. Holmer-ekiko oposizioan: **argítxubet**, H 103; **lagúmbet**, 181.

Joera horiek ez dira bizkaieraz bakarrik gertatzen, eta **bat**-en autonomiaren alde mintzo bide dira (batez ere zenbakaria ≠ **bát** bailitzan). Baina, eskualdeen arauera, mugagabea eta zenbakaria liferenteki bilakatu dira; eta gaur, oro har, jatorrizko desberdintasuna ezabatu edo desitxuratu egin da maiz.

Larramendi-ren esakunaz ez du zalantza handirik uzten: «*bat*, uno, contando».

1596-ko errefracuek ere bide beretik bultzatzen gaituzte: *Bildur bat da auereetan, ta asco guizonetan*, 391. «Bat» en balio zenbatzailea garbi dago hor (= beldur bakar bat); hots, grafia etena dugu. Gauza bera, esate baterako, 34. errefracuan: *zaran bat daguiñac, bi day*. 233. errefracuan, aldiz, mugagabe baten aurrean gaudela dirudi: *Ardibat doean lecuti oro* (= edozein ardi). Eta klitikotasuna grafia etengabean nabarmentzen da.

- 2.1.4.3. Ikus dezagun orain zenbait ikertzailek atzizkitzat hartutako elementuei gertatu zaiena.

- 2.1.4.3.1. # **barik** // Ez da inoiz harmonizaturik agertzen: **izera azpi barik**, A 93; **argi barik**, A 115 (Holmer-ek ere, kostaldean, **jakín barík** dakar).

Antzekoa den **bako**-k ere B.H.rik ez dakar: **buru bako**, A 45 (etenduraz idatzia, gainera).

- 2.1.4.3.2. # **garri** // B.H.rik ez: **míngarri**, A 19 (pausarik gabe, bere horretan ezin ahoskatua); **ikusgarrixok**, A 125; **ikusgarrixe**, A 93 (gorketarik gabe).

- 2.1.4.3.3. # **tasun** // Gauza bera: **nasaitasune**, B; **burutasune**, A 75.

- 2.1.4.3.4. # **garren** // Berdin: **irugarren**, B; **bigarrena**, A 5; **laugarren**, Kortez.. Kostaldean Holmer-ek azentu bikoitzez emanak: **bígárrena**.

- 2.1.4.3.5. # **tar-** Berdin: **basarritzar**, B (baita normalagotzat jo behar den **basarritar** ere); **lekeitzar**, A 117; **markiñar**. (Holmer-ek azentudun atzizkitzat dauka; eta orrialde hauetan ikusiko denez, ez da bakarra).
- 2.1.4.3.6. # **gaitik** // Nahiz askotan lotuta agertu: **origaitik**. A 19.
- 2.1.4.3.7. # **ago** (Markinan gaur á maiz bihurtua): **argixa**, A 79 (= argiago), *gerua eta arrua* A 97; **lená**, B; **gexá**, B.
- 2.1.4.4. Alderantziz, **-dako** atzizkiak (jatorriz *-ta-ri* lotuta), harmonizaturik agertzen da, salbuespenak falta ez badira ere: **egindeko**, A 17; **entzundeko**, A 17.
- 2.1.4.5. **da** silababakarra, klitiko agertzen da, eta harmonizaturik: **sartude**, A 57; **aside**, B; **astotu de**, A 59; **jaiki de**, A 37, 45, 67 (etenduraz); **eldu de**, A 106, **oridé**, B; **saniau de**, A 71; **esnatu de**, A 45. (Ik. N.2.1.4.5.).
- 2.1.4.5.1. Gauza bera **-la** silababakarra: klitiko agertzen eta harmonizaturik: **ez dogule eukiko**, 125; **izen daille**, A 55.
- 2.1.4.5.2. Partzipio-sortzaile den **ta** loturazkoa ere, bide beretik: **asitxe daz**, A 28; **txixe eiñde**, A 58; **sartute**, A 37; **beroute**, A 37; **bustitxe**, A 37; **jausitxe**, A 45; **jarritxe**, A 81; **sarratúte**, B; **ezkundute gero**, A 107; **jantzitxe**, B; **gestaute**, B; **bustitxe**, B.
- 2.1.4.5.3. Polisilabiko diren atzizkiek, aldiz, ez dute B.H.rik jasaten (eta **san-ek** ere ez): **il sala**, B (afrikaziorik gabe); **entereu sanien**, B; **eldu gara**, A 78; **artu dabe**, A 65; **agertu jako**, A 55; **etorri sanien**, A 65; **konpondusarie**, B; **nundik dabill**, A 55.
- 2.1.4.5.4. Esan dugunez, **san** ez da harmonizaturik agertzen; eta afrikaturik ere ez, Alfonso Irigoienek aspaldian esan zidan bezala: **il zan**, A 55; **il san**, B; **bizi zan**, B. A 90; **etorri san**, B; **asísan**, B; **etorri ei san**, B. Badirudi, hitz batez, **bizkaieraz ere zán** (M+1) markatua dugula.
- 2.1.4.5.5. Joera bera aurkitzen dugu diptongatueta: **kendu dau**, A 57 (nahiz asimilazio atzerakariak besterik eskatu).
- 2.1.4.5.6. # **ka** adberbio-atzikiak. **Arin-aringa**, B; ozendua gatik ere.
- 2.1.4.5.6.1. **ba** konjuntzioak, normalean pausaldi baten ondoren ahoskatua, B.H.rik gabe dator: **nun dabill ba**, A 55; **esat'otzut ba**, A 55; **eztakigu ba**, A 65,82 (tarteka komaz berezita), **ekarrisuba**, B; **situmba**, B.
- 2.1.4.5.6.2. Bide beretik baldintzazko **ba-**: **bizi ba'litza**, A 55. Eta badirudi, beraz, Holmer-ek pentsatu bezala, eta P.Zamarripa-k bere gramatikan dion bezala, # **bá** dugula, (M+1).
- 2.1.4.5.7. Hitz elkarketan, ondoriozko terminoa zinez lexikalizaturik ez badago, eta unitate bakuntzat senditzen ez bada, B.H.rik ez da gertatzen: **pamili aldra**, A 65; **il kanpai**, A 19; baita hitza oso bakuntzat eman daitekeen kasuetan ere: **zoritzarrez**, A 26; **txakurrándi**, B; **ardilánia**, B; **mu-**

tilzarron sokie, A 107 afrikaziorik gabe, # **muga dagoela indartuz; buruz gaiñ**, A 28; **zapatu gaba**, A 45 (= gau).

2.1.4.6. Beste euskara motatan bezala, bi lexeman arteko muga # **garbiki de-nean, B.H.rik ez dago: orain arte**, A 55; **arrijasotzen**, A 26; **kalerik kale**, Kortez., **buru austie**, B.

2.1.4.9. *Arratzu-ko bizkaiera-motari buruzko ohar labor batzu* (B. Gernika).
Hizkera honen dokumentuak entzun ondoren, Holmer-ek deskribatutako euskara motatik hurbil xamar dagoela pentsa daiteke.

2.1.4.9.1. Nominatiboan B.H. bai: **aistie** (bigarrenkaria), **aitte, jaune, etzie** (big.), **baskariže, aspiže**.

2.1.4.9.2. **bat**-ekiko nominatiboetan ere gauza bera: **apurbet, apurtxubet**.

2.1.4.9.3. Eta gauza bera deklinabidean barrena: **ganaduek, eberdižen, garižepe, maižen** (= mahaian), **amabižek**; baina **eleixan** (= eleixa+an), eta **eguski-žas** (= eguzkiagaz).

2.1.4.9.4. Hitz-enborrharen barruan ere, B.H. gertatu egiten da: **bedeinketu, ixeten** (= izaten), **inderrian ibilli**; nahiz ez beti oso erregulartasun handian.

2.1.4.9.5. **da** silababakarrak klitiko dirudi: **paseu de**; nahiz kontrako adibideak ere badauden: **erreseu da, ebagi da**.

zan-ekin, aldiz, eskuarki ez dago B.H.rik: **asi san**.

2.1.4.9.6. Harmonizaziorik gabe:

bada, ba // beti ba, esango deutzupa, estakipa.

tar // baserritar (bakanka: **baserrittar**)

garri // azpigarriže

garren // amairugarrenik

ago // ariñago, geižau

ba // bedarrik baeukien

barik // ibili barik.

2.1.4.9.6.1. Loturazko **ta** klitiko gisa dator: bokale-harmoniaz eta bustikuntzaz: **erreseutegero, berotute, onetzite, jarritte, ebagitte gero**; nahiz: **apaldu ta gero**.

2.1.4.9.6.2. Jakina, eta bestetan bezala, lexemen arteko muga garbi dagoenez, B.H.rik ez: **piñu sartzen, piñu landarak, etorri arte, ori lanori, sabaldu arren, agindu arte**.

2.1.5. *Ohar labor batzu Goierriko gipuzkerari buruz.*

Goierriko gipuzkeraz ere, B.H. badago baina erregulartasun txikiaz; eta honegatik Azkoiti-ko corpus batean aurkitu ditugun xehetasun batzu baizik ez dugu aipatuko.

- 2.1.5.1. **Ure, atte, politte**; are /u/ hori bigarrenkaria denean: **ardue, goue** (= go-go), **egue, earraue** (= ederragoa); eta gauza bera /i/-ri buruz: **jútie, semie**.
- 2.1.5.2. Beste zenbait aldiz ere ematen da; eta salbuespenak azentuari bide datzekio: **alabíek, semíek, eskúen, mendíre, ondúen**; baina **bitartien** (ez bitertian).
- 2.1.5.3. Aditz polisilabikoetan B.H.rik ez: **biurtu zako, iritsi danien, sartu zako**.
- 2.1.5.4. Laburketazko a bakarrek ere ez dute B.H.rik jasaten: **piskat** (ik. piska bat).
- 2.1.5.5. **-ta** klitikoak, aldiz, bai: **artute, ezinde, utzite, einde**.

Oharrak

- N.2.1.0. «La regla vale también para casos de dos palabras que forman unidad fonética», Holmer, Urq. 1968, 101.
- N.2.1.1.2.2. «Phonological rules tend to apply within words, not across words; the word is the most common domain for phonological rules. Vowel harmony, for instance, is usually a word-level phenomenon». Kenstowicz/Kisseberth; *Generative Phonology*, 407.
- N.2.1.1.6. Bizkaieraz entzun daitezkeen hitanozko adizkiak, B.H.rik gabeak izaten dira: **etxakixat**, eman dezagun; eta hipotesi berberaren alde mintzo dira (ik. *ez diakiát*). Hots, zubererak eta bizkaierak joera nabarmena dute 2. pert. sg. horietan **-á / -ná** azentuztatzeko. Ikus, adibidez, zubereraz gain, Araba-ko bazkaieraz P. Pujana-k argitara duen ikerlana; Dip. de Alava, 1977.
- N.2.1.4.5. Testu zaharretan, eta 1596-ko Errefrauetan bereziki, oso garbi agertzen da silababakarren klitikotasun hori: *obeda*, 29, 320, 322; *celangoada*, 35; *hurda*, 250 (= hurbil da); *adicaçenda*, 357; *luceda*, 268; *ascoda*, 292; *bearcodoc*, 124; *andidanarren*, 27.
Baina silababikoetan ere, esandakoa zehazteko, azentu-autonomiarik ez berbera baiesten bide da: *ebiltendira*, 78; *anztudoa*, 156; *eldudoa*, 166; *jobegui*, 72; *jandogu*, 329; *jaguiayte*, 394.

2.2. Beste zenbait fenomeno eta azentu unitatea

2.2.0. Euskarazko erregelak fonologikoen artean, hauxe izan daitezke ezagunetako bat:

$$\begin{bmatrix} - \text{son} \\ + \text{voice} \end{bmatrix} \rightarrow [- \text{voice}] \quad / \quad \begin{bmatrix} - \text{son} \\ - \text{voice} \end{bmatrix} (+) \text{ —}$$

Hamaika aldiz erabiltzen da eguneroko hizketan, eta leku-izenetan ere sistemakiro aplikatzen da:

«ez da etorri» = [es + da # etoři] → [esta etoři]

«atz gura» = [ac # gura] → [askura]

«onak dira» = [onak dira] → [onatira].

(azkeneko hau, hizkera azkarrean bakarrik).

Alegia, bi osagaien artean pausarik ez dagoenean, edo lexikalizazioa aurreratua denean, obratu egiten da sandhia; eta gorketa burutzen.

2.2.0.1. Hots. gorketa hori gertatzen ez den hamaika adibide dago; eta, zailtzarik gabe, pausaren ondorioz gertatzen da hori (pausa gaur bertan ere egon badagoelako; edo-ta orain dela gutxi arte egon delako). Adibidez:

batez beste // inoiz ez *batezpeste

gáñez-gáñ, NG Ultzama, Izag. 429 (adierazgarriro, zubittoz eta azentu bikoitzez transkribatua).

lur samúrre, Ultz. Izag. 440; afrikaziorik gabe.

hankaz gora; inoiz ez *hankaz kora.

ez bata, ez bestea; inoiz ez /p/-z ahoskatua.

buruz behera; beti ozenez ahoskatua.

urez bete, diruz bete, etab.; inoiz ez *pete.

goiz gorri, arrats euri; *goizkorri; nahiz, hiztegian, **oskorri** posible izan.

erric bere legue, errefrau zaharra; ez *pere. Nahiz bizkaieraz normala izan beste hau: **iñúspe** (ik. inoiz be(re)).

Hitz-elkarketan gertatzen dena, ezinago adierazgarria da. **Ikuskarria** entzutea posible da, egia esan; baina maizago entzuten da **ikusgarria** forma. Alegia: **ikus** # **garri** dugula dirudi; B.H.ik eza azaltzerakoan, postulatu genuen bezala.

Gauza bera dugu **pozgarri** forman; usuago entzuna **pozkarri** baino, # muga hor egon balitz bezala.

Euskaltzaindia horretaz jabetua da; Euskara Batuari buruzko bere Txosten famatuan, eta Mitxelena-ren lumaz, hau idatzi zuenez: «Ez dago hemen, ene ustez, lege gogorrik ezartzerik, *bereizgarri*, *ikusgarri*, eta antzekoak, arras hedatuak bait daude» (Euskera, 1968, 206). (Ik. N.2.2.0.1.).

Adierazgarri da ere, honi buruz, ondoko bikote hau. Alde batetik adberbio gisako sintagma dugu: **goitik behera**, gorketarik gabe. Baina haur denboran ikusi ohi genuen patintxo hark **guitipéra** zuen izena, gorketaz.

2.2.1. Garbi ikus daiteke, beraz, # lexema mugaren gaintetik, gorketarik ez dela gertatzen; bigarren partea osoki eta garbiki lexema autonomia den kasuetan froga daitekeenez: **aurren sopa**, NG, afrikaziorik gabe; Holmer 111, IVH; **eisijan sabillela**, NG, Holmer 111; **etzekin serr egin**, NG, Holmer 111; **ótabos gixón**, Ap. V. Holmer, 179; **bátek bés-tiari**, B. Holmer, 115 (bi azentuz); **orrétan segón**, NG, Holmer 111.

2.2.2. Zenbait bizkaiera motatan, ezaguna denez, **ez-** ukazioaren ondoko adizkian ez da gorketarik gertatzen; nahiz **ez-** gaur normalean klitiko gisa agertu. Ikus dezagun Prai Bartolome adibidez: **ezdau**, IV; **ezdaquit**, VI; **ezbadaucz bere**, VII; **ezbalira**, IX; **írago ez beeban**, 228; **ez badau**, 131; **ezdedin**, 1.

Bidezko dirudi, horiei buruz, txistukari gorraren eta herskari ozenaren artean, X segmentu ozen bat postulatzeara:

ezdau → *ezXdau*

bokale bat, eman dezagun.

Hots, aspaldiko bizkaierarentzat, inguramenduen arauera, *ez* edo *ze* emango lukeen **eze* postulatzeara ez da batere hipotesi harrigarria. Pentsa dezagun *ere* adberbioan, inguramenduaren arauera *e* edo *re* ahoskatu. Ezeztapen funtzio horretan **ze-** agertzen baita bizkaiera zaharrean:

ereyn ceguiç (= «no siembres»). Mitx. TAV 175, R.S. 1956.

ezteutsut esan ze deguidazula ekarri; Mikoleta, fol. 12.

Horrelako pilo bat aurki daiteke, bidenebar esateko, 1596-ko erre-frauetan: **galdu çe eguiç**, 336; **otu ceguioc**, 218; **çeeuiç**, 162; **çe eguioc**, 152; **çeguiç**, 366; **çeeyuec**, 36; etab.

Beste modu batez esanda, mugaren arauerako liferentzia dugu hor. El-karketa osoa denean, gorketa dugu; baina bestela ez.

2.2.2.1. Iraganari buruz, lehenago ere azaldu dugunez, badirudi laburtua dela **zan** forma, eta # **zán**, beraz. Eta honetxek azaltzen duela /l/ eta /n/ ren ondoko txistukarietan afrikazioa ez gertatzea: **eguinzan**, P. Bart., 6; **izanzan**, P. Bart, 6; **eguintzen**, 11 (**zan** < **zaen*).

Behin, dena dela, **iltzan** irakur daiteke; baina, beharbada, **illzan**-en irakurketa erratuaren aurrean gaude.

2.2.2.1.1. Bizkaieraz, era berean, **zan**-en ezezkoa ez da ***etzan**, **ezan** baizik. Eta *ez+zan* postulaturaz gero, afrikaziorik eza ulertu ezina da.

Hots, **egunsenti** ikusita (P. Bart., 54), kakoa muga izan daitekeela dirudi. Ohizko **herensuge** bezala; eta ez ***herentsuge**. (Zubereraz, hain zuzen, **hé(r)en sügía** entzun daiteke, azentu bikoitzez.

Badirudi, hitz batez, aspaldian *ez(e)+zán* postulatu behar dela.

2.2.3. Gorago aipatutako «atzizki» horiei buruz, era berean, # muga postulatu behar da behin eta berriz.

Azkuek besterik pentsatu arren (ik. Morfología V., 48), **tar** eta **tasun** elementuak, atzikiak *ez* direla pentsatzeko arrazoinak ditugu (gaurko hizkeran ere, osoki gramatikalak ez direla esan behar da); eta # **tár** eta # **tásun** lexemak direla dirudi.

/i/-ren ondoko bustikuntza izan daiteke beste irizpide bat (/i/ hori silabikoa zein ez-silabikoa delarik).

Hain zuzen ere, are barne-sandhiari buruz, hau betetzen dan euskalki batzutan:

$$t \rightarrow \underset{\cdot}{t} / \left[\begin{array}{l} (+ \text{son}) \\ - \text{cons} \\ + \text{hi} \end{array} \right] (+) \quad \text{---} \quad V$$

Adibidez: **itturri**, **aitte**, **zurittu**. Eta, halaz ere, **tar** eta **tasun**-en bustikuntza ez da gertatzen (nahiz-eta gaur, analogiaz, **baserritarra**, eta abar, entzun badaitezke ere).

-**ta** klitikoak, aldiz, bai B.H., bai bustikuntza erakartzen ditu euskalki horietan: **ikusitte**.

2.2.3.1. Ez ditzagun ahantz, bidenebar, geminaziozko grafiak: **arabaar**, eman dezagun; edo aspaldiko **-thar** akitanoa; itxura denea azentu-arazo bati lotuak. (N.2.3.1.).

2.2.4. Bere «Morfología Vasca» idatzi zuenean, fenomeno hauetaz osoki jabetua zen Azkue; eta kontsonante-elkarketan bi erregela-multzo dau dela azpimarratu zuen; batetik, Deklinazioari dagokionak; eta bestetik, Hitz-elkarketari buruzkoak. Jakina: + eta # mugei burua ari zen Azkue; presesi 1918-ko Eusko Ikaskuntzaren Biltzarre Nagusikoan «vocabulary» eta «perifrástico» bataiatuak (ikus «Fonética Vasca», Congr. E.V. 1918, 468). Berak «vocabulary» deitu zituen aldaketak, hitzaren barrukotzat har daitezke; edo-ta barne-sandhien plegukoak. «Perifrástico» delakoak, aldiz, «sintaktiko» edo «hitzen arteko»tzat har daitezkeelarik.

Barne-sandhi gisa adibide hauek dakartza Azkuek: **mâsti**, 469 (= ma-hats + di); eta **eztakit**, 469. Horietan, ikus daitekeenez, **-di** atzizkia enklitikoa da; eta **ez-** partikula, proklitikoa da.

Eta kanpo-sandhi gisa, alderantziz, hitz-elkarketa hauek: **arain-tato** eta **ozpin-tanto**, bi partetan zubitox idatzita. Ikus daitekeenez, deklinabidean normala den ozenketa (**Beasain-dik**, **Larraun-dik**), beste bi horietan ez da gertatzen. «Andoni»ri buruzko ikamika (zergatik ez 'Antoni', Azkue-ren ustez), gauza garbia da # *tato* eta # *tanto* ditugula, gaurko modura esateko; eta honetxek azaltzen duela ozenkuntzarik eza. Bide beretik beste hauek: **arfainki**, 473; **seinko**, 473, «muñeco»; eta **zezenko**, 473. Alegia: # **ko** eta # **ki**, azentudunak agian.

2.2.4.1. **tasun** elementuari gagozkiolarik, beraz (gure ustez # **tásun**, (M+1) hobe, elkarketako bigarren osagia denean), gauza bat soma daiteke aisa: horregatixek gertatzen dela sonante ozenen ondoko gorren alda-kaiztasun hori. Kontutan har eusk.-**mendu** vs. gazt. **-miento**. Adibidez: **mintasun**, **ontasun** (≠ ondasun), **fintasun**, **isiltasun**, **urruntasun**, etab.; denak ozenketarik gabeak.

2.2.4.1.1. Ez da harritzekoa, beraz, zenbait aldiz **tasun** hori lexema autonomo agertzea euskal literaturan barrena (Gandiaga izan daiteke azken erabiltzaileetako bat); Azkue-k gogorazi zigunez: **bi tasuen oriek**, Morf. V. 17. Ez, nahi-ta-ez, oihartzuar famatuaren «curioso capricho» gisa (Mendiburu-z ari zen hor).

Mendiburuk berak, hain zuzen, **keri** simetrikoa ere, /a/ gabe, lexema gisa erabili zuen, bestearekiko aurkaritzan (ik. «Otoitz Gaiak», III, 391).

2.2.4.1.2. **tar** delakoak (**ar** oso maiz), eta arrazoi askorengatik batera, # (**t**)**ár** autonomia postularazten du. Euskal bokale-geminazioari buruzko atalean ikusiko da arrazoi garbi horietako bat (ik. 3.2. kap.): bizkaierazko **-ak** plurala bezala (berandu arte autonomo izana), edo-ta # **ago** alde-raztailea bezala, ezkerraldeko *a*-ren disimilazioa sortu gabe agertzen zaigu: **arabaar**, eman dezagun; eta ez *arabear. Nahiz *alabea* hizkera horretantxe erabilia izan. Eta, beraz:

<i>alabea</i>	<	alaba + a
<i>alabaak</i>	<	alaba#ak (pl.)
<i>arabaar</i>	<	Araba#ar

Bokale-harmoniaren «bitxikeria» horiek oso adierazgarriak dira.

Azkuek, bere «Morf. V.»an (48 etab.) sistematikoki aztertu zituen fonologi fenomeno horiek; esta beste «atzizki» batzu iker erazten zituen: osagaiak balira bezalaxe (*alde*, *lari*, etab.) gramatikuntza berri baten aurrean gaudela dirudi.

2.2.4.1.3. Oso gauza antzekoak esan daitezke hemen **-dun** atzizkiari buruz (Holmer-ek ere, eman dezagun, lexema autonomotzat hartua). # **dún** ez

izatekotan, oso fenomeno bitxiak azaldu behar genituzke. Hauek, eman dezagun: **bisdun**, Morf. 154; **zizdun**, 154; **zorrozdun**, 154, gorke-tarik eza dela-ta, Azkuek berak anormaltzat aurkeztuak. Hots, Azkuek berak ere azaldua du Erronkari-ko hizkeran, beti arkaikoantxa, **dun** elemendu hori «como sustantivo» eman ziola Uztarrozeko bere infor-matzaileak (Morf. 16).

Itxurazko bitxikeria horien lerrokada, ordea, ez da horretan amaitzen: **asdun**, **berakazdun**, **lebazdun**, **gazdun**, **sasdun**, etab., lekeitiar euskala-riak emandako azalpena (152) gure ustez guztiz aproposa ez bada ere.

- 2.2.4.1.4. Bokale harmonia aztertzerakoan, garbi ikusi dugu **garren** delakoa funtsean # **gárren**, M+1, dela; eta ez dagoela hein apalean baizik gra-matikaldurik.

Bosgarren unitateak (gorketarik gabe) alderdi beretik bultzatzen gaitu: *bos(t)* # *garren*, sandhirik gabe.

Honi buruz, oso adierazgarria da Bertrand de Etxaus-ek bere eskutitz famatuan erabili zuen grafi mamitsua: **hirur garrena**, etenduraz (ik. Mitxelena, TAV, 155).

Gaurko bizkaieraz lexiko-unitate gisa erabiltzen da **garren** hori: **arik denpora garrenien** (J.M.B.)

Hots, plegu honetako formek ere zalantza-bide urri uzten digute azen-tuaren indarrak eta lekuguneaz: **iruarna**. Eta Ataun-go hizkerari dago-kionez, adierazgarriak dira J.M. Barandiaranen idazkerak: **anaie bigâ-rrena**, 83; **irugârrena**, 86; etab. (Geminazio-azentu bikoteari buruz, Holmer-ek hau idatzi du: «es probable que el circunflejo, o bien la geminación, se haya empleado para marcar una vocal acentuada más bien que larga» (B.J.Urq. 1968, 91). Baina iritzi hori zehaztu beharra dago: ik. 3.2. kap. Eta nolana ere, Ataungo transkribaketetan boka-leem luzera adierazten du.

- 2.2.4.1.5. Euskal gramatikeako «atzizki»en multzoan etorri ohi den **garri** dela-koak, era berean, oraintsu arte unitate autonomoa izan dela soma dai-teke; nahiz ohizko idazkerak erdarazko *-ble*-ren kidetzat jo.

Holmer-ek garbiki eman du puntu honi buruzko bere iritzia: «(*garri y tar*) son dos palabras desde el punto de vista del acento» (IVH, 41, 1964). Bokale harmoniaren arauerako azterketak erakutsi digunaren il-dotik.

Ikaragarria-k, eman dezagun, bi azentu unitate ditu Holmer-en iritziz (Hondarribia, IVH, 41); eta gauza bera entzun uste du honetan ere: **itúndárbat** (= Ituren-dar bat), Bortzerrietako nafarreraz.

Gutxiagotan aipatu izan bide da, ordea, nahiz arront adierazgarri izan, L.Géze-ren irizpidea (Intxauspe kalonjearen irizpidea, beraz, jakina denez): «Le mot 'garri', joint á un autre mot...» (Gramm.B., 255; azpi-marraketa gurea izanik). Eta, zubittoa eta guzti, hiru adibide hauek

eman zituen: *eder-garri*, *laido-garri*, *loxa-garri* (= lotsagarri). Hitz-elkarketaz ari da hor Géze, argi eta garbi.

Baina zalantzak oro eraztekotan, antza, honela ekiten: «le *suffixe* 'cor'...»; baita adibide batzu ere, zubittorik gabe oraingoan: *hauxcor*, *erorcor* (Gramm. B., 255). Orain dela mende bat, hortaz, «garri» delakoa «hitz» (= mot) zitzaion zuberotar gramatikariari; eta «kor», berriz, «atzizki» (= *suffixe*).

Gorago eman ditugun formek, beraz, gorketarik gabe, status fonologikoa salatzen dute zeharbidez. «Garri» eta «kor» sail desberdinetako elementuak dira.

- 2.2.4.1.5.1. Prai Bartolome-ren idazkera, bide beretik, ezinago argitsu eta interesgarria da: **ezagun garriztat**, VII; **negar garrijac**, 196; **vitziz garrija**, 199; **bildur garrijac**, 204; **argui garrija**, 273. Bere zalantzak bazituen Prai Bartolomek, dena dela, hitz elkartuen lexikalizazioaren arauera. Liburua hasi eta berehala (5.orr.) batera datoz bai **pozzgarri** eta **pozz garri** etendua. Eta beste askotan etenduarik gabeko grafiak ditugu: **desondragarrijac**, 196; **lotsagarritara**, 275; **penagarritzat**, 14; **negargarri**, 29 (bestetan, ez beti lotua).

Jadanik aipatua denez, bizkaitar honen luman **ez-** en ondoren ez dago gorketarik. Hots, gogoan hartzekoa da Azkue-ren iritzia: «son fenómenos fonéticos oídos en todos los dialectos... Produce alteración al chocar con los explosivos de 'bodega', convirtiéndolos en los sordos de 'petaca'... Este fenómeno... despreciado por muchos (en algún tiempo por mí mismo) como un desmán del vulgo, es verdaderamente notable y hermoso» (Morf. 254).

Ez dakigu, ordea, bide beretik joanda, berandutxo izan bazen ere, bokale harmoniari buruz eman zuen iritzi beltza («degeneración» zitzaion...) adaltzeko paradarik izan ote zuen.

Beste bokale-sandhi batzutan ere, «morfinomanía» aipatu zuen (Fonét. V., 476). Eta zenbait idazlek beren ama-hizkuntzarekiko erakutsi duten gortasuna, gutxiespen-tema alde horretatik azal daiteke agian; ezinezkoa baita fenomenoa ezagutu ez zutela pentsatzea. Beste nonbait ere gogorazi dugun bezala, Markina-ko semeak **markiñaarrak** izan dira beren hizkeran, genimazioz; nahiz-eta beren izkribuen bidez luzaketa horren berririk beti izango ez badugu ere...

- 2.2.5. Jakina, idazkera batek, batez ere arau-emaile izan nahi duenean, gaizki ispila ditzake zehazki herri hizkeraren ñabardurak. Beren idazkera «zaindu» duten idazleak, horregatik, ia-ia interesgabeak dira fonologi arazo hauei buruz: azentu-unitatearen gorabeherak aztertzeo, adibidez. Alderantziz, Prai Bartolome, M. Morentin biak, Goñi-ko sermoiak, etab., oso garrantzitsuak dira. Beroein «hutseginak», hain zuzen, argi-iturri gaitza direlako.

- 2.2.5.1. Azter dezagun, beraz, P. Bartolomeren idazkera.

2.2.5.1.1. Benetako proklitiko silababakarren zerrenda (bai jatorrizkoena, bai monoptongaketazkoena) ez da luzea: **ba-** (baldintzazkoa eta baiespe-
nezkoa), **ez-**, **al-** (= ahal), **nai-** (= nahi), **oi-** (= ohi). Ik. N.2.2.5.1.1.

2.2.5.1.1.1. Era berean, eta ezkerraldetik *loturik*, ondoko hauek agertzen dira:
biar- (= behar, askotan **bi-**, **yun binas**, gaurko bizkaieraz); **ezin-**, **ete-**,
ezba- **ezete-**.

2.2.5.1.2. *Enklitiko* silababakarren zerrenda, era berean, ez da luzea: laguntzai-
leak: **-da**, **-dot**, **-dau**, **-nas**, etab.; **-bat**, artik. mugagab.; **-la**, *kontuntzioa*;
eta -ta partizipoa. Gehienok, ikusi denez, B.H.ren eragina jasateko
modukoak.

2.2.5.1.2.1. Etendurarik gabe idatzirik datoz, era berean, azentu unitate bereko
atala balira bezala, laguntzaile polisilabikoak: **-dira**, **-ditut**, **-deutsee**,
-zanian, **-deutseezu**, etab. (Hauek, normalean, finito ez den ezkerretako
elemendu azkarraren ondorioz jaso ohi dute azentua).

2.2.5.1.3. Itxuraz, eta idazkerazko etenduraren aldetik, ondoko hauek dirudite
autonomo:

gintza: **legue guintzan**, III; **guerra-guintzaan**, III; **sermoe guinari**, 26
(antzekoa).

bagako: **bardin bagaco**, V; **neurri bagaco**, V; **amai bagacua**, 36; bai-
ta antzeko hauek ere: **gogo bagaric**, VIII; **errazoe bagaric**,
194; **edan bagaric**, 272.

gaiti : **dicha ona gaiti**, III; **nor gaiti**, 3; **geu gaiti**, 4. 10; **onac gaiti**,
35; **asco gaiti**, 182. (**cegaiti** ere, 270, badago; baina hau oso
adierazgarria da. Ik. 2.2.513.).

era: **atzi era ona**, 2; **esan eraan**, VII; **presta eria**, 8.

gan: **bata ganic**, 8; **bestea ganic**, 8; **Jaungoicua ganaco**, 130.

ero: **egun ero**, 8 (gogoan har Iparraldeko hizkeren egoera: *oro* berez
joan ohi da).

Era berean, **ezta baidaac** (16) grafiak, etenduraz, zubererazko kide bi-
kuna gogorazten: **éztá-báda**.

2.2.5.1.3.1. Seinalagarria da ere **bait**-ek erakusten bide zuen azentu-autonomia: **cer**
bait, 25; **cer baiteraco**, 179; **nos bait**, 4 (berriro ere, gorketarik gabe).
Unitate ahoskabeak ere badaude euskalkietan barrena: **noizpait**, ez beti
hedatuenak. Egoerak, beraz, hau idarokitzen du: **nóiz** # **báit**; eta san-
dhia ez obratu izana azalduko litzateke.

2.2.5.1.3.2. **-la**, **-nean**, etab. beti aditzari *loturik* aurkitzen ditugu autore honengan.

2.2.5.2. Morentin-engan (Hego nafarrera), ia-ia berbera da egoera. Proklitiko
agertzen dira maiz bai **beit-** (= bait), bai **nei-** (= nahi). Baita **ezparime-**
baldintzaria ere.

Fonologiaren kontra, dena dela, loturik doaz beste hauek: **-ago**, **-tasun**, **-arazi**, etab..

- 2.2.5.3. Goñi-ko izkribuetan, **-bat** agiri da klitiko gisa; baita interesgarria den **-at** forma higatuan ere.
- 2.2.5.4. Bizkaierari buruz, Holmer-ek egindako ikerlanean ikus daitekeenez, honek eta Nafarroako autore zaharrek oso desberdintasun xumeak dituzte beren idazkietan; nahiz eta gero, antzekoa den azentu unitate horrek, euskalki honen edo haren arauera, lege desberdinen arauerako aldakuntzak jaso.

Oharrak

- N.2.2.0.1. Atzera jotzen badugu, eta 1596-ko erretrauetan begiratzen, liferentzia franko ageri da: **galçaygarria**, 280; eta **mingarri**, 392; baina **aueras garri**, 11. Bide beretik: **icascurago**, 22, sandhiz. Baina **losauagueac**, 66, loturik; eta **ogui vaga**, 247; **su baco esea**, 237; **gorputz odol baguea**, 237; **nay baco**, 282.
- N.2.3.1. Mitxelenak, akitanierari buruzko bere ikerlan ezagunean («Pirineos», 33-34, 1954; 416-417) bi grafia adierazgarri berezten ditu: **Baisothar**, 46 eta **Hontharris**, 306.
- N.2.5.1.1. 1596-ko erretrauetan ere, lerrokada bera molda bide daiteke. **Ba-** eta **ez-**, noski; baina baita hauek ere, besteak beste: **jobegui**, 72; **aldaygunleguez**, 127; **naydegunleguez**, 127; **oygara**, 248; **ylaye**, **ildaye**, 227; **eu-gayti**, 58. Hitz batez: **silababakarrak** dira denak; eta hiru silaba nagusitako unitateen ezkerreko silaba gisa joaki. Hitz batez, (+2) azentu-eskema orokorrean sartzeko modukoak dira, itxura denez: *jobégi, il-dáie, oigára, etab..
- N.2.2.5.1.3. Kontutan hartzekoa da 1609-ko idazkera (ikus Mitxelena, Fontes 23, 161): **gabe** eta **gatic** berex idatzirik doaz, eta azentuaz: **gábe** eta **gátic**. Zaraitzu-ko A. Samper-en Salmoan ere, **gána** azentuz eta berex agertzen da.

3. Azentuarekin lotura duten fenomeno batzu

- 3.1. Euskal silabaren egitura
- 3.2. Bokale-geminazioa eta azentua
- 3.3. Hasperenketa eta azentua
- 3.4. Sinkopa euskal toponimoetan

3.1. Euskal silabaren egitura

Ondoko lerroetan ikusiko dugunez, eta euskal azentudun silabaren posizioa aztertuko den kapituluetan barrena garbiki agertuko denez, eta Ekialdeko euskalkiei buruzkoetan agian bereziki, euskaraz ere, beste hizkuntza askotan bezala, silaba-egiturak garrantzi handia duela agiri da. Edo-ta, are zehazkiago mintzatuz, azentuaren lekuguneari dagokionez, **silaba-kodaren** egitura da giltzarria.


Ikertzapen hau egiterakoan, euskal datu fonologikoez gain, M.Halle eta J.Vergnaud (1978) silabaren teoria metrikoa hartuko dugu gidari.

- 3.1.1. Has aitzin, bi osagai nagusi bereziko ditugu silabaren barrian: [+syll] segmentuaren ezkerreko parte, batetik, «onset» deitua (edo-ta, laburduraz, «O»); eta silaba osatzen duten beste segmentu guztiak bestetik, «errima» ere deitua (laburduraz «R», ingl. «rime»).

Hots, errima honen barruan ere, bi osagai bereziko ditugu: [+syll] den segmentua, ingelesez «peak» edo «proper rime» bataiatua (eta euskaraz hemen «G», gailurra); eta [+syll] gailura horretatik eskuinaldeko beste segmentu guztiak, edo «koda» (ingelesez «code»; eta hemen. laburduraz, ρ «ro» idatzia).


Silaba mugari buruz \$ ikurra erabiliko dugu, edo-ta beronen kidea den puntua, (.): $o \$ so = o.so$.

Silabaren eskema metrikoa, horretara, hau da:






asimetriko xamarra bere horretan; silabaren egitura ere asimetrikoa izaten baita maiz hizkuntza askotan (eta euskaraz ere bai).

- 3.1.1.1. Onset-a kendu, eta gelditzen den segmentu ilarari, silabaren «projekzio» deritzogu:




Hots, estatistikoki bederen, azentudun silabaren finkapenean, **silabaren proiektzio** horrek du munta; eta ez onsetari dagozkion segmentuak.

3.1.1.2. Hona hemen adibide batzu:



senhar



Koda hutsa izan daiteke (segmenturik gabea); edo-ta 1,2 edo 3 segmentu izan (euskarari dagokionex hau).

Goazen orain atalka.

3.1.2. Onset

Euskaraz ez dago /r/ edo /rr/-z (alegia, [r]/[r̄]) hasten den **hitzik**; bazter-hizkeretan, sisteman integratu gabeko hitz etorri berrietan ez izakotan. Salbuespen bakan batzu kenduz gero, era berean, ez dago /tz/ edo /ts/ afrikatuez hasten den **hitzik** (= [c] [ć]); baina, gaur bederen, /tx/ afrikatua (= [ç]) euskalkirik gehienek onartzen dute.

Baina **silaba**-haserari dagokionez, bidezkoak al dira ondoko silabaketa hauek? Adibidez:

ba.re ; ba.r̄e ; a.co ; o.ćo ; u.me.č

Hitz-haseran fonema horiek gerta ezin daitezkeenez gero, zalantzan jar daitezke silabaketa horiek (ezkerretako laurak batez ere); eta beste hauek postulatu:

ba.r̄.e ; ac.o ; oć.o ; u.meč. o.

Azentuari buruz, ondorio garrantzitsuak izan ditzake. (Ik. s.7).

Eta gauza bera bokale-hirukoteen sailkapena:

se. la.̣.a # se. la. ja

ga.̣.a # ga. wa

ezkerretako silabaketeran **koda ez-hutsak** gertatzen baitira; baina ez eskuinekoetan. Eta honek ondorio nabarmenak ditu euskal azentuan; segmentu hontsonantikoaren sailkapenak ([r̄] ezik hein batez) horren handiak ez baditu ere.

Geroago ere (3.7) honetara itzuiko gara.


3.1.2.1. \$C (onsetik txikiena)

Euskal corpus luze bat aztertzen badugu, berehala aurkituko dugu \$CV& silabak, euskalki guztietan, [+ cons] den edozein segmentu onar dezakeela; baina horietako zenbaitetan, aldiz, ñabarduratan sartu gabe, [-syll] ezaugarria ezin daitekeela besterik gabe onar. Adibidez: **zeten, neska, marru, lera, behi, arto, on, aulki**. Onseta **hutsa** izan daiteke: **arto, on, aulki**. Baina /h/ ere izan daiteke: «glide» bat Chomsky-Halle-ren SPE-ren arauera (1968). Beraz:

$$[h] = \begin{bmatrix} +son \\ -syll \\ -cons \end{bmatrix}$$

bokalerdiekin batera doalarik; frikaketa ez baita ahogunearen barruan mamitzen.

Bestela hauxe genuke zuhaitz metrikoa:



eta, horretara, [-syll] ezaugarria erredundantziatzkoa litzateke; euskaraz hau idatz baitaiteke:

[+ cons] → [- syll]

Alderantzizkoa, jakina, ez da zuzena.

/h/-ren sarrerak, beraz, posible diren bi soluziotara eramango gaitu. Ekonomiaren aurkakoa bata; /h/ hori bide horretatik erantsi beharrak, bestelako zuhaitz metrikoa eskatzen baitu. Kontuz jokatu beharko dugu, ordea, goiko glideak ere (j,w) batera sar ez daitezten.

Bigarren aukera, berriz, beste hau da: SPE-aren onarpenetik **atekoa**. Alegia, euskaraz /h/ kontsonanterdi eta bokalerdiekin ez doala erabakitzea; baizik-eta hobe dugula /h/-rentzat hau idatzea: [h] = [+ cons]. Berrikuspen hau, dena dela, edo berregokitzapen hau nahiago baldin bada, beste hizkuntzatan ere eskatua izan da.

Egilearen «Euskal Fonologia»n oharrerazi zenez, bestalde, ez da batere gauza segurua euskaraz [- obst], [+ son] izatea; fenomeno askotan, [- son] baitirudi. Lapurterak, bestalde, **hV** sekuentzia onartzen du; baina **jV** eta **wV** sekuentziak ez.


3.1.2.2. §CC

Kasu honetan, oso zahar ez diruditen unitate batzu baizik ez da aurkitzen ahal; eta beroiek ere, anaptixiz agertzen diren kideekin batera: **kristau = giristino; prediku = phe(r)edikü; probatu = phorogatu**.


Gehien-gehienetan, ikus daitekeenez, lexema horietan herskari gorra agertzen da ezkerretan, eta /r̄/ ondoren: **praka, apropos, inprimatu, trabena, trego-harri, istripu, deskrazia, krabelin, krakada**; edo-ta herskari ozen bat: **lanbro, libratu. andre, baldres, grazia, sangrikol**.

3.1.2.2.1. Horren ugari ez izanik ere, eta batzutan anaptixia edo erorketa ere gertatzen direlarik, badaude /l/ daramaten plegu bereko silabak: **plaza, plegu, klase, blai, glaramentian**, nahiz joera zaharraren arauera herskari hori ezabatu: **loria, laket, laru** (vid. claro), **loka, langa** (vid. plancha).

3.1.2.2.2. Euskaraz ez dago /mn/, /tn/, eta antzerako bikoterik; eta hau proposa liteke, beraz:



edo ximplekiago agian:



Beraz, garbi agertzen denez, onset gisa CC izanez gero, [- son] da ezkerrekoa, eta [+ son] eskuinekoa.


Ekonomi arrazoiengatik, beraz, **ll**, **rr**, **tz**, **ts**, **tx** grafiek, fonologi egia-
ren **fonema-bakartasuna** izkutatzen dutela pentsatu beharko dugu.
Multzorik horiek fonema-bikoak balira, zuhaitz bereziak behar lituzkete.
Ik. N.3.2.22.

ll eta **rr** bikoteei buruz, adibidez, hau genuke: [+son] [-son]; eta hau
suposatuz gero, **nr**, **nl**, **mr**, etab. baztertu beharko genituzke; beste ho-
rrenbeste erregela berezi postulatu.

Era berean, afrikatuak fonemabakarrak balira, hau genuke: [-son]
[-son]. Baina hau onartuz gero, erregela bitxiak erantsi beharko geni-
tuzke **tp**, **pt**, **st**, etab. baztertzeko.

Soluzio horiek bitxi eta anti-ekonomiko izanik, goian marratutako zu-
haitza onartzea da bidezkoena.

3.1.2.2.3. Onset gisa, dena dela, **fr** eta **fl** bikoteak **gaur** badaudela aitortu behar
da; nahiz mailebu berri eta urritan baizik ez agertu. Hori ere sartu
nahi izanez gero, hau genuke:




[-cor] ezaugarriak, /z,s,x/ txistukariak baztertuko lituzke. Baita /h/ ere.

3.1.2.2.4. Era berean, garbi dago «ph, th, kh» grafiek ere, erratzera bultzatzen
dutela; ez baitago horietan bi fonemarik: [-son] [-son]; euskarazko
/h/-ari buruz, gorago esan dugunez, trabakarien kidetasuna hartu be-
har bada kontutan: [h] = [-son] (SPE-ren aurka, berriz esateko).

Bestetik ere, phV → *Vhp, etab., postulatzera eramango gintuzke;
eta, hitz batez, *grafia horien atzean dagoen fonema-bakartasuna garbi
dago.*

3.1.2.3. § CCW.

Euskaraz goranzko diptongoak onartuz gero (eta hau kasu hauetan da bidezko: a/ Ekialdeko euskalkietan; b/ /wi/ goranzko diptongoari dagokionez: Huizi [wíci] edo Ayastui [ajaštwi]), kasu horretan honela osatu behar genuke zuhaitza:



Adibidez: fruitu = [fr̄wítu]




Gauza nabarmena da, bestalde, euskaraz **dl**, **tl**, etab. ez direla euskarazko onset gisa mamitzen; eta hizkera herrikoiak baztertu egiten dituela: Athletic → [alétik].

3.1.3. Errima.


3.1.3.1. Gailura (alegia, [+syll] den segmentua), **bokalea** baizik ezin daiteke euskaraz izan.

3.1.3.2. Gailurraren ondoko **kodari buruz**, berriz, batzutan **hutsa** izan daitekeela garbi dago: **su**, **ke**, **lera**, **ama**, etab. Baina 1, 2 eta 3 segmentu ere izan ditzake.

3.1.3.2.1. Euskara mota guztietan dauden beheranzko bost diptongoetan (**ai**, **ei**, **oi**, **au** eta **eu**), eskuineko bokalardi hori [-syll] izaten da; diptongo ez den kasuetan, edozein kontsonante izan daitekeelako: **gau** = [gáɰ]; **gar** = [gár]; **gatz** = [gác] eta, hortaz:



Eta [+ cons] elementua bokalerdiaren eskuinean joan daitekeenez: **gaur** = [gáuɾ̃]; **jaun** = [yáun]; **haitz** = [(h)ájc] eta hau izango dugu:




eta zuhaitz horretan $C_1 \neq /h/$.

3.1.3.2.2. **Bi kontsonante** izanez gero, hiru elkarketa mota gerta daitezke:

- 1) **janzki, ehorzketa**, etab.; [+ son] [- son] silaba-mugan.
- 2) **pertz, geurtz, bartz, hartz, arraultz** (batuaz **arraultza**) b
raz, [+ son] [- son]; baina jarraikorra izan beh
rrean, afrikatu bat orain.
- 3) **deust, prest, zausk, derizk**, etab.

Beraz: [- son] [-son], ezkerrekoa jarraikorra delarik.

Errimarentzat, horretara, zuhaitz hau proposa daiteke:



baina **gehienez bi** kontsonante elkartzen direlarik:

$$C_1C_2 ; C_1C_3 ; C_2C_3.$$

segun-eta silaba diptongozkoa izan ala ez izan, W bokalerdia badugularik (zein ez dugularik).

Euskaraz, bestalde:

$$[- \text{son}] \rightarrow [- \text{voice}] / \text{---} \#$$

3.1.4. Lehenago ere esan dugunez, **ui** goranzko diptongoa, [wi] ahoskatua, euskalki guztietan aurki daiteke.

Honen simetrikoa, berriz, **iu**, [ju] ahoskatua (ingelesez edo gaztelaniaz bezala) ez da euskaraz aurkitzen.

Bestela esanda, **kontsonantikoago** da euskaraz /w/, /j/ baino; morfologian ere gertatzen denaren arauera: **gau** / **gauean**, **gauik** (zubereraz, **gai** / **gaian**, **gai(r)ik**); **hotz** / **hotzean**, **hotzik** bezalaxe. Baina **kai** / **kaian**, **kairik**; **mendi** / **mendian**, **mendirik** bezala.

Ozentasunaren hurrenkeran, hortaz, garbi agertzen zaigu /j,w/ elementuen lekugunea.

3.1.4.1. «Ozentasunaren katea» deritzon horretan, beraz, hauxe dukegu euskaraz:

herskariak < afrikatuak < frikariak <
 < sudurkariak < albokoak < dardarkaria <
 < W < J < bokaleak

eta bikote hauek agertzen dira:

[+ syll] [- syll]
[- cons] [+ cons]
[+ son] [- son]
[+ cont] [- cont]

zuhaitzean ere normalean era berean (nahiz itzuletara onsetean eta koda-
dan) errespetatua.

3.1.5. Sekuentziarik gehienetan, silabaketak ez du zalantzarik uzten:

[+ son] \$ [+ son]

Adibidez:

[**ar**.mi.**ar**.**ma**]

[- son]\$[- son]

deust, **B**.

[+ son]\$[- son]

harpe: [har.pe].

[- son]\$[+ son]

plaza: [pla.sa]

3.1.5.1. Zalantzazko kasu gisa, hau dugu: [+ cons] segmentu bat, bi [- cons]-ren artean gertatzea: eskuin aldeko parteari buruz, diptongo goranzkorik baldin bada. **Gaua**, eman dezagun: **gau.a** edo **ga.wa**.

Silabaren **kodari** buruz, garrantzia du honek, jadanik azpimarratu dugunez; azentudun silaba zein den, koda horretan arauera erabakiko delako. Koda hutsa bada, silaba ahula da; hutsa ez bada, berriz, astuna. Ezkerretako kontsonantezko segmentua ezkerretako silabaren parte izan, ala ez izan, kodaren arauera izango da azkarra, edo-ta ahula. Kalkoa, hitz batez, *bokalerdiak edo kontsonanterdiak* non diren erabakitzean datza.

Eta /r̄/ segmentuetan ere, garrantzitsu dirudi puntu honek (ikus sinkopen arazoa, adibidez, askotan /r̄/-ri nabarmen loturik). (ik. 3.4. kap.).

Honetxek azalduko luke agian /j,w,l,n/ segmentuen ondoren, hasperenketa agertzea (agertu ahal izatea, hobe); baita inplosiozko eta explosiozko /l/ eta /n/-ren artean dagoen liferentzia, etab..

3.1.6. Azter dezagun, hasteko, /j,w/ segmentuen arazoa; zubererazko kapitulu- luan (5.4. kap.) ikertua izan den bidetik.

Garbikiago esanda: VWV sekuentzian zein da silabaketa egokia? **V.WV** (kontsonanterdiaz), ala **VW.V** (bokalerdiaz)? Lehenengo kasuan, goranzko diptongoei halako bedeinkazioa emango genieke; baina bigarrean halako ezespena.

Oraintxe ikusiko dugunez, gaztelaniaz gertatzen denaz bestaldera, **silabaketa egoki bakarra, beheranzko diptongoa onartzen** duena da. Goranzko diptongoa aintzakotzat hartu behar lukeen silabaketak, berriz, Azkueri arrazoia berriro emanez, ez luke azentua argituko; eta, hortaz, silabaketa arrotz eta funsgabe agertzen zaigu.

3.1.6.1. Hauta dezagun lan-sekuentzia bat: **kaia**, esate baterako (gaur [ká.ja] ahoskatu, frikari ozenez). Zuzena ote da **ka.ja** silabaketa hori? Erantzuna hau da: **ez**.

Bizkaierazko ahoskeretatik ere gauza bera soma zitekeen: [ká.j̥a] edo [ká.j̥e]; [se.laj̥.ʒa] edo [se.laj̥.ʒe]; edo-ta [se.laj̥.ʃa]; etab.. (N.3.6.1.).

Zubererazko adizkien azentuketak (nahiz han goranzko diptongoak gaur onarturik egon...), silabaketa honetara behartzen gaitu: [ká.j̥.a] edo [ká.j̥.ja].

Ikus ditzagun adibide batzu, batera Intxauspe eta Larrasketa-ren azentuketak erkatuz.

3.1.6.1.1. **deiozū.**

Saia dezagun silabaketa hau: **de.yo.zū**.

Han azaltzen denez, /ó/ 3.perts. atzizkia (M-1) markatua da; eta, horrez gain, /ó/ silaba hori, adibide honetan, (-2) da. Hortaz, azentuketa hau genuke: *deyó.zū. Hots, zubereraz **ez dago** forma hori.

Eman dezagun orain beste hau: dei.o.zū.

/o/ hori markatua da, bai; baina diptongoa gailendu egiten zaio zubereraz (ikus 5.4. kap.). Beraz: **déi.o.zū** genuke; edo-ta **déi.ò.zū** bederen. Hots, horietxek dira, hurrenkera horretan, Intxauspek eta Larrasketak ematen dituzten formak.

3.1.6.1.2. **hitzaiela.**

Saia dezagun hau: **hi.tza.ye.la**. Honen arauera, /é/ eta (-2) erregelek, batera, *hitzaiéla emango lukete; eta goranzko diptongoa nolazpait zilegizaturik gertatuko litzateke. Hots, azentu-molde hori ez za agertzen.

Saia dezagun orain, beraz, beste hau: **hi.tzai.e.la**./tzai/ silaba astuna izanik; eta diptongoa /é/ eta (-2) erregelek sortutako azentuak baino azkarrago izanik, hau izango dugu: **hitzáiela**; edo-ta **hitzáièla**. Hots, berriz ere, horra hor, hurrenkeran, Intxauspek eta Larrasketak dakartzan formak.

3.1.6.1.3. [-syll] diren bokaleen silabaketari buruz, hortaz, hau idatz daiteke: **VWV** → **VW.V**; eta hau baita Ekialdeko euskalkietan ere. Hortaz, *nafarreraz edo zubereraz gaur aurkitzen diren diptongo goranzkoak, berriak dira euskaraz.*

3.1.6.1.3.1. Azter ditzagun beste batzu, ariketa gisa:

deiola

- a) de.yo-la*deyóla emango luke; baina ez dago.
- b) deĵ.o.la**déiòla**; eta hauxe aurkitzen da.

3.1.6.1.3.2. deiodalarik.

- a) de.yo.da.la.rik ... *deyódalàrik. Ez dago.
- b) deĵ.o.da.la.rik ... **déiòdalàrik**: Intx. déiòdalarik
Larr. déiòdalàrik.

3.1.6.1.3.3. naianez.

- a) na.ya.nez *nayáneez.
- b) nai.a.nez **náiànez**: Intx. náianez.
Larr. náìànez.

3.1.6.1.3.4. hintzait

Honek, jakina, **hintzáit** ematen du (*híntzait).

- 3.1.6.1.4. [- cons]
[- syll] segmentuak, beraz, **ezkerretako bokalearekin** doaz silaba egite-
raoan; **beheranzko** diptongoaren arauera.

3.1.6.1.4.1. Besterik idatz al daiteke? Alegia, orokortu behar al dugu lege hori, ezaugarriren bat kenduz? Ba al dago ezkerretako bokaleari erantsi behar zaion segmenturik? Alegia, VCV multzoetan, non dago silabamuga? Beti gauza bera? Honen erantzunak ondorio garrantzizkoak ditu azentuari buruz. Eta hauxe da ondoko lerroetan argitzen saiatuko garen arazoa.

- 3.1.7. [- syll] ez diren gainerako segmentuei buruz, gauza bertsua idatz ote daiteke? Alegia: VCV → VC.V. Honela balitz, munduan zehar nagusi den joeraren kontra paratuko litzateke euskara. Joera nagusia hauxe baita: VCV → V.CV. «Ceteris paribus, a consonant is more likely to go with a vocalism to its right, than one to its left» (Donegan/Stemp, 1978).

Gauza bera dio Sommerstein-ek: «V.CV is much more common than VC.V» (Gen.Phon., 202). Eta gauza berbera ere, lehenagotik (1968), Kurylowicz-ek: «A prevocalic consonant, whether simple or part of a sequence of consonants, belongs to the following syllable» (Gen.Phon., 201 etab).

- 3.1.7.1. Euskaraz ere, hau dugu normalean: VXV → V.CV. Hizkuntzetan estatistikori agertzen den joera nagusiaren bidetik.
Hots, jakina denez, Iparraldeko euskalkietan gaur (eta Hegoaldekoetan

ere gauza bera aspaldiko denboretan; ik. Mitxelena, FHV eta TAV) plegu honetako silabaketak ezagutu ditu euskarak (eta ezagutzen ditu gaur ere, Iparraldean): **al.ha.ba, sen.har, er.hi**.

Badirudi, hitz batez, kontsonante **sonanteei** gagozkielarik, hau ere idatz zitekeela: **VCV → VC.V**.

Arazo honek azterketa sakonago bat merezi baldin badu ere, badirudi, bai Meyer-Lübkek, bai Mitxelenak idaroki duten bidetik abiatuz gero (alegia, bokale arterako, kontsonante sail bakunak eta sail geminatuak berezi behar direla) gaurko formak azal daitezkeela.

3.1.7.1.1. /r/-rekin honelako zerbait gertatzen dela pentsa badaiteke ere, has gaitzen l/*ll eta n/*nn bikoteen eboluzioa aztertzen.

Eman ditzagun erregela hauek:

1) **silabaketa**

$$1.1. \quad V \begin{bmatrix} C \\ + \text{son} \end{bmatrix} V \rightarrow V \begin{bmatrix} C \\ + \text{son} \end{bmatrix} . V$$

$$1.2. \quad VCCV \rightarrow VC.CV$$

2) **azentuketa**

(+2), eskuarki bederen.

3) **hasperenketa**

(silaba egituraren arauera, (+2) posible denean).

4) **ezabaketa**

$$\begin{bmatrix} C \\ + \text{son} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset \quad / \quad \begin{bmatrix} V \\ + \text{str} \end{bmatrix} \quad - \quad (CV)V$$

hurrenkera diakroniko horretan. Hain zuzen ere, kontsonante sudurkarien erorketa, ongi dakigunez, gertakari berri xamarra da. Ik. Mitxelena, FHV, 545.

Eta bilakaera hau litzateke:

	(1)	(2)	(3)	(4)
enne	en.ne	en.né	en.né	e.né
annaia	an.nai.a	an.nái.a	an.nái.a	a.nái.a
senar	sen.ar	sen.ár	sen.hár	sen.hár
muno	mun.o	mun.ó	mun.hó	mun.hó
lano	lan.o	lan.ó	lan.hó	lan.hó
ainara	ain.a.ra	ain.á.ra	ain.há.ra	ain.há.ra

(gogoan har dezagun Elkano-ko Lizarraga-ren hizkeran, **lañú** hitza, M-1, markatua dela).

Era berean:

gella	gel.la	gél.la	gél.la	géla
allai	al.lai	al.lái	al.lái	a.lái
alaba	al.a.ba	al.á.ba	al.há.ba	al.há.ba
ola	ol.a	ol.á	ol.há	ol.há
elorri	el.orr.i	el.órr.i	el.hórr.i	el.hórr.i

Eta gauza bera Toponimian:

Lazkano	Laz.kan.o	Laz.kán.o	Laz.kán.o	Laz.ká.o
Zestona	Zes.ton.a	Zes.tón.a	Zes.tón.a	Zes.tó.a
Loinaz	Lo.(h)in.az	Lo.(h)ín.az	Lo.(h)í.az	Loiaz

Geminatu horiek beren horretan agertzen dira antzinako dokumentuetan, bakunak berriz beste grafia batez agertzen direlarik.

- 3.1.8. Nolanahi ere, eta euskal azentuari dagokionez, badirudi, unitate markatuak azaltzerakoan, W elementuek (diptongo beheranzkoek, bestela esateko) garrantzi handiagoa izan dutela, kontsonante sonante horiek baino.

\bar{r} / segmentua izan bide daiteke salbuespena, azentuaren aldetik /j,w, \bar{r} / segmentuak bateratsu baileude. Baina gaur gaurkoz ezin dezakegu hori segurta. Azentua (+2) izan ohi da eskuarki; ezkerretako silaba (alegia, (+1) silaba) horren koda $\varnothing = [\bar{r}]$ baldin bada ere. Arantzatu-ko hizkeran, esate baterako, K.Izagirrek zehazki aztertua (ik. 4.4.), salbuespen asko dago: **barríxa**, **barrúa**, **arría**, **arrótza**, **erríxa**, **gerríxa**, **narrúa**, etab. Hego nafarreraz ez bide da hori segurua (ik. 5.1. eta 5.2.)

- 3.1.8.1. (M+1) markatutako hitz-zerrenda aztertzen bada, korrelazio **handiagoa** dago azentuaren eta bokalerdiaren artean: **áide**, **áizpe**, **áurre** (hor biak ari), **éuski**, **gáuza**, **káiku**... Baina salbuespenak ez dira urri, Izagirre-ren arauera: **aisía**, **aixéna**, **aundíxa**, **ausíxa**, **auspúa**, **eulíxa**, **euríxa**, **lausúa**, etab. Are **neurríxa** ere!

Zenbait bitasunek ere, dene dela, analogiaren nagusitzaren berriantxa salatzen dute: **éuskíxa** = **euskíxa**. (+2) erregela ximplea, arrazoi fonologikoen aldetik nagusitzen ari bide da azkeneko urteetan; erabat Zuberan aurkitu dugunaren antzera.

- 3.1.9. Beste arrazoi bat ere badago $[\bar{r}]$ segmentua bederen (afrikatuen kasuan ez da honen garbiki ikusten) **Cr.C** silabaketa, **C.rC** silabaketa baino

hobesteko. *Sommerstein*-en hitzez esateko; «word boundaries tend also to be syllable boundaries», *Gen.Ph.*, 202. # CV eta \$CV kondizioak, eta antzekoak, **desberdin** izan ahal daitezke: gazt. **trans.cri.bir** badago, nahiz **ans**# hitz-bukaera ez egon.

Euskaraz # \bar{r} hasera ezina denez gero, ezkerretako silabaketak hobegarriak direla pentsa liteke: **her.i** hobe, **he.ri** baino (hitz-elkarketaren fonetika legeak ez dira honen kontra mintzo: Errondo, Elbarren, etab.). **Ber-i** hobe, **be-ri** baino; eta, bide beretik, **har-i**, **gor-i**, etab.. Nahiz gaur, dirudienez, estatistikoki bederen, (M+1) garbiki ez agertu.

Ukipen-egoeran (eta ukipen diglosikoan) euskara erdaren ondoan egon arren, eta hori aspaldi danik, puntu honetan ere funtsean batera joatea ez litzateke guztiz harrigarria: «different languages can show different principles of syllabification» (Anderson, *Organiz. of Phonol.*, 254) «The same segmental elements may be syllabified differently in different languages». Aski du irakurleak, honi buruz, ingelesaren silabaketa harrigarria (harrigarria guretzat, noski) gogoraztea.

Honek ortografiaren aldakuntza batzutura eramango gintuzke. Eta beharbada ez da honelakorik proposatzeko unerik egokiena.

Oharrak

N.3.1.2.2.2. Beste bide bat ere badago. /tz,ts,tx/ horiek fonemabikoak baldin badira, **pz,ps**, eta **px** bikoterik ez agertzeko arrazoirik ez dago; eta, gauza bera, **kz, ks**, eta **kx** ez aurkitzeko.

Hots, dakigunez, horietan **afrikazioa** sortzen da, ezabaketa batekin batera: fr. **exemple**, eusk. **etsenplu**; fr. **absolument**, eusk. **atsolutuki**.

N.3.1.6.1. Arantzatzuko Hiztegian (K. Izagirre) horrelako hamaika dago, beti posizio berean: **aixéna**, **káixola**, **seláixa**, **oréixa**, **leixála**, **ibáixa**, **sisgéixa**, etab. Gauza bertsua Bergaran; eta berdin beste bizkaiera motatan.

3.2. **Bokale-geminazioa eta azentua**

3.2.0. «Ekialde»ko euskalkietan (nolabait, eta lehenengo hurbilketat, Hego nafarrera-garaia, zuberera, eta erronkaria), bi bokalez osatutako edozein bikoteren monoptongaketak, azentu-unitateko *eskuin aldean* gertatzen den ber, azentudun silaba bat sortzen du. Zubereraren deskribapena egitean esandakoa ez dugu hemen errepikatuko (ik. 5.4. kap.). Hori dela bide, esate baterako, izen-enbor bat /a/z amaitzen denean, oxitono bat sortzen da nominatibo singularrean.

Hau horrela denez gero, galdera hau egin daiteke: ia Mendebaldeko bizkaiera mota batzutan (Gipuzkoakoa eta Goierriko gipuzkera, are Sakanako gipuzkera ere) ezagutzen dugun *bokale-geminazioa* ez ote dagoen, honela edo hala, azentuarekin lotuta. Bortzerrietako Iparnafarrera aurkeztean, eman dezagun (ik. 4.9. kap.), azentu-unitateen *ezkerretan* zeuden bokale geminatuek (M+1) markatutako hitzak sortzen dituztela azaltzen da: *ahate*-tik, gonbarazio batez, *áte* (M+1) sortu da.

Ikerlan honi erasotzeko, deskribapen bikain bat dugu: Arantzazu-Oñati-ko hizkerari buruz A.K. Izagirrek burutu zuena (An. J. Urq., 1970). Lan horixe izango dugu oinarri nagusitzat fenomeno horiek aztertzerakoan.

Datu horiez gain, bestalde, J.M. Barandiaranek Ataungo bere ama hizkeraz emandako transkribapen erdi-fonetikoak baliatuko ditugu (Colección Auñamendi delako sortan, 12, 27, 28 eta 49 aleak bereziki). Eta, era berean, XIX. mende haserako bi bizkaitar lekukoren izkribuak arakatuko ditugu: Markina-ko Prai Bartolome («Icasiquizunac», 1816); eta Eibar-Durango-ko J.A. Mogel («Peru Abarca, 1881; Anjel Zelaietak eskainitako zerrendaketaren bitartez; ik. An. J. Urq., 1978-1979, 87-199).

Iturri horiek ez dira sinkronikoak, ikus daitekeenez; baina fenomenoaren gorabeherak segitzeko hastapen bat eskaintzen digute. Desberdintasunak ez dira funtsezkoak; baina, argi eta garbi aitortu behar da, Mogel dela laurotan geminazio-fenomenorik ahulena erakusten duena. Izagirreren lana da, bestetik, laurotan sistematikoena eta zehatzena.

Bere hutsuneak eta zalantzak aitortuz, honela mintzatu zitzaigun Prai Bartolome Santa Teresa bera: «Iracurlaac icusico davee Icasquizun oneetan, verba batzuc dagozala bitutaco letriagaz: *aa, ee, ii*, arimaan, deutseen, jadiichi... Beste batzubetan verbac eurac, ta euretaricuac, letra bacarragaz: *poltsan, dave, eguija*... Euscal erri guztietaraco zetara oba dan jaquin ezac, bijetara imini eraguin ditu. Esan legui: verbiaren luce laburra, ascotasuna ta jagocan aitutia eracusteco, obeto daguala letra bitubagaz. menturaz azcoc erichico deutsa astun. Baina verbeeta guztien gacha da au. Urrenguan entzungo da jaquitunen erichija» (Icasq., 278)

Prai Bartolome-ren idazkeraz, beraz, halako «minimo» bat-edo eskaintzen digu; ama-hizkeratik, dena dela, ez oso urruti; berak honi buruz hau erantsi baitzuen: «(verbeetia) imini dot neure erricoa, daquidana», VIII. Joan den mendean Markinan erabiltzen zen geminazioaren erakuskari bat dugu, beraz, orrialde horietan.

Beste leku batetan ere esan dugunez, izkutatuta izan da berezitasun hau izkribuen mailan. Hona hemen Azkueren lekukotasun mamitsua: «Markinan bertan bi *a* entzuten ditugu: *prakaak* eta *prakaan*. Berdin egin oi dute beste onelako itzetan ere. Markinako semeak gureztat **Markinafak** dira: berentzat ez; **Markiñaafak**». (Euskera 1930, 417).

Bokale-geminazioa, beraz, oso gaizki dokumentaturik agertzen zaigu; nahiz-eta zenbait ikuspuntutatik, interesgarri izan.

3.2.1. Bokale-geminazioa (+1) silaban

Kontsonanteak kontutan orain hartzen ez baditugu, hauek dira ohizko grafiak: # \hat{V} edo-ta # VV. Adibidez: **zârra = zaarra**.

Hemen arakutzen ditugun autoreen artean, J.M. Barandiaranek erabili du maizenik azentu zirkunflexu hori (nahiz ez beti); beste batzuk, berriaz, bokale bikoiztuzko grafia nahiago izan dutelarik.

Mogel-en idazkerari buruz Holmer-ek egindako oharra: «Es probable que el circunflejo, o bien la geminación, se haya empleado para marcar una vocal acentuada más bien que una larga» (An. J. Urq., 1968, 91), eztabaidagarria da: alegia, *segun-eta zein lekugunetako geminatuetz mintzo den*.

Kapitulu honen irakurrerak, hain zuzen, beste hau erakutsiko bide dio irakurleari: geminazioa eta azentua batera etor daitezkeela agian, hori ez da zuzena.

- 3.2.1.1. Has gaitezen Izagirrereren zerrenda bat ematetik: **aástu**, **aásketan**, 40; **beéria**, 75; **txaárra**, 227; **leénengua**, 162; **miíña**, 176; **naárra**, 183; **naástu**, 183; **oóstu**, 191; **zaárra**, 244.
- 3.2.1.2. Ataungo gipuzkeraz, ia-ia berehalatik, unitate bertsuak aurki daitezke: **béra**, **lén**, **óstu**, **zâr**, **xâr**, etab.
- 3.2.1.3. Zerrenda bertsua Prai Bartolomeren bizkaieraz: **aaztuten**, 3, 50; **beera-tuten**, 47; **chaarra**, 1; **chaarrago**, 4, 275; **chaarguina**, 275; **leen**, 13; **leengo**, 4; **leenago**, IX, 26; **leengoco**, IV; **miína**, 63, 115; **miinagaz**, 273; **naarrac**, 264; **naastau**, IX, 26; **naastauta**, 3; **oostuco**, 23; **oostuten**, 15; **zaarrai**, VIII; **zaartzaco**, 1; **zaartzaan**, 5, 29.
- 3.2.1.4. Eta ia guztiz gauza bera Mogel-engan: **aaztu**, 91; **beeratu**, 108; **chaar**, 122; **leenago**, 160; **miíña**, 165; **laar**, 158; **zaar**, 194.
- 3.2.1.5. Unitate horiek guztiok *hasperenketa* dute (+2) silaban Iparraldeko euskalkietan: **ahaztu**, **behere**, **lehen**, **mihi**, **lahar**, **nahasi**, **ohoin**, **zahar**.

VhV sekuentzia eta hasperenkata ezagutzen dituzten euskalkietan, bide beretik, geminazioa agertzen da haseran esku artean ditugun hizkeretan:

ahardi	//	aardi,	Mog. 91; aárdi, Izag. 40.
ahari	//	aari,	Mog. 91; aári, Izag. 40.
txahal	//	chaal,	Mog. 122; txaála, Izag. 227.
mahats	//	maats,	Mog. 162; maátza, Izag. 170
zuhur	//	zuur,	Mog. 198.
mehe	//	meétu,	Izag. 175.
sahats	//	saátsa,	Izag. 203.

Soma daitekeenez, *azentua eta hasperenkata* silaba berean etortzen dira eskuarki.

3.2.1.6. Beste zenbait aldiz (gutxitan, dirudienez) haseran /h/ agertzen den unitateetan gertatzen da:

hur	//	uur,	Mog. 190.
habia	//	aábixa,	Izag. 39.
har	//	aárra,	Izag. 40.
khe	//	keétu,	Izag. 148; keétu, 179.

3.2.1.7. Era berean, eta harrigarriro, *silababakar asko* agertzen da (proportzioaz) geminatu gisa: **luur**, PB 82; **gaar**, Mog. 140 (ik. **khar**; baina **gárra**, Izag.); **baart**, Mog. 109; **zoor**, Mog. 197; **zaan**, Mog. 194. Normala da silababakarren geminazio-joera hau eta beroien hasperenkata-joera berriz lotzea; termino hauek, askotan, proklitiko ez direnean, (M+1) balira bezalaxe agertzen baitzaizkigu.

3.2.1.8. Adibide gutxi hemen aurkeztu ahal izan arren, adierazgarria bide da jatorrizko hizkuntzetan (+1) azentua zeukaten mailebu batzuk, haserako geminazioz etortzea: **aábixo**, Izag. 39 (ik. gazt. apio); **priisa**, **priisaca**, PB 264 (ik. gazt. prisa); **beerna**, Mog. 108 (ik, gazt. pierna); **maáku-lu**, Izag. 169 (gazt. báculo).

3.2.1.9. Beste geminazio batzu, dena dela (JM Barandiaranen grafietan batez ere), erabat jatorri desberdindekoak dira: kontsonante-erorketaz sortu dira, gerozko laburketa edo monoptongaketaren ondorioz: **zaata**, PB 3; **saáta**, Izag. 203 (ik. **zarata**); **aántza**, Izag. 40 (ik. **arantza**); **daátulo**, Izag. 88 (ik. **daratulu**); **saárra**, **sárrak**, JM Bar. (ik. **sagarrak**); **Múmen-di**, JM Bar. (ik. **Murumendi**); **né**, JM Bar. (ik. **nere**).

Honelakoak, egia esan, eta hizketa baldarrean, euskalki guztietan gertatzen dira egunero; eta izan-ez dira, benetako bokale-geminazioak.

3.2.2. (+2) silabaren bokale-geminazioa

3.2.2.1. Has gaitezen unitate-zerrenda bat ematetik, *atzizkiaren erasketatik* at sortutako geminazio kasuetatik.

Hona hemen K. Izagirreraren adibide batzu: **agáatu**, 42 (ik. haga); **aizáatu**, 46; **albáadarrak**, 47; **artá-arrixa**, 60; **auspáatu**, 69; **berdáatu**, 78; **boldáatu**, 85; **eráari**, 96, etab. Hauek guztiok, eta beste horrelako ha- maika ere bai, elkarketaz edo eratorretatik sortutako lexemak dira: **(h)aga**, **(h)aize**, **albo**, **arto**, **asto**, **(h)auspo**, **berde**, **golde**, **edan**, etab.

Denotan, bokale geminatuaren *ezkerreko* partean doa orain azentua (aurreko pasarteko adibideetan gertatzen zenaz bestaldera); baina, bai hautetan bai haietan, geminatuaren segmentua aldatuz, *azentua beti (+2) silabak* jasotzen du.

Beste autoreengandik ere, antzeko lerroakada prest daitezke. JM Bar.: **pillátu**, **basérri**, **gosári**, **galdéra**, **banátu**, **ollár**, **mugárrri**. Mog.: **verbeeta**, 193; **gosaari**, 145; **escaari**, 135; **zoraasun**, 197; **edaari**, 127; **lotsaari**, 162; **artaadi**, 99; **ollaar**, 170; **agaari**, 92; **usaatu**, 192. P. Bart.: **baseerri**, IX; **eusqueera**; **guraari**, 105; **miraari**, 13; **verbeeta**, 105; **vitaarteco**, 36. **Apítilla** terminoa (Izag. 54) adierazgarria izan daiteke agian alderdi horretatik.

Denak adierazten bide du, beraz, hitz elkartuetan bokale-elkarketa gertatzen denean, are horrelakorik ez dagoen batzutan ere (gogoan har, adibidez, **artáadi** eta **pilláatu**, *-di* eta *-tu* atzizkiez osatuak), (+2) silabak daramala azentua; eta geminazioa ere eraman dezakeela.

Hots, eskuineranzko silabetan (+3, +4, etab.) ez da horrelakorik gertatzen; eta geminaziorik baldin badago, atzizkiari datzekio geminazioa. Gogoan har dezagun **-pee**, esate baterako (**behere**-ri lotua), edo **-tzaar** (**ik. zahar**).

Badirudi, beraz, (+2) lekugunean aurkitu dugun geminaziosail oso batek, silabaren *posizioarengatik* hartu duela geminazioa. Oso maiz gertatzen da hau hitz elkartuetan eta eratorrietan; hori gerta dadin ezkerreko atala edo osagaia silababakarra izatea aski baita.

3.2.3. -tzen aditz izenaren atzizkiaren geminazioa

(+2) baino eskuin alderago dauden silabetako geminazioak aztertzen hasi baino lehenago, ikus dezagun **-tzen** atzizkiak gertatzen dena (funtsean, **-tze** aditz-izenaren inesiboa); baita horretatik heldu direnez ere: **-tzea**, **-tzeko**, etab.

3.2.3.1. *Atzizki hori (+2) lekugunean* gertatzen denean, *oso maiz* gertatzen da geminaturik.

3.2.3.1.1. Prai Bartolome: **isteen dozu**, 135; **isteen daveen**, 147; **isteen bajaco**, 190. Nolanahi ere aditz bakarra autore honen luman.

3.2.3.1.2. JM Barandiaran: **artzên do suta gar**, 12 (26); **sartzên utzi**, 49 (49);

kentzêko, 49 (50); **lora biltzên**, 49 (50); **mañu'at artzêko** 49 (95); **jartzên do**, 49 (95); **maien jartzêko**, 49 (46); **apusto eittêndo**, 12 (66); **kuntu artzên**, 12 (83) **jauztêko pronto**, 27 (23); **jartzên ai ementzan**, 27 (27); **saltzêko**, 27 (26); **ixtêko**, 27 (15).

3.2.3.1.3. Mogel: inoiz ez.

3.2.3.1.4. K. Izagirre: **biltzêen**, 82; **artzêen**, 83; **eltzêia**, **eltzêeko**, 94; **zertzêen**, 245; **austzêen**, 69; **astêen**, 62; **sortzêen**, 217; **neurtzêen**, 185; **galtzêen**, 115; **batzêen**, 61; **pustzêeko**, 202; **soiltzêia**, 215; **sistzêen**, 215.

3.2.3.2. *Atiziki hori (+3) silaban* gertatzen denean, edo-ta eskuin alderago, *ez da inoiz* geminaziorik gertatzen.

3.2.3.2.1. Prai Bart.: inoiz ez.

3.2.3.2.2. JM. Barandiaran: *bat ere ez* geminaturik. Baina **ematen**, 27 (18); **mol-dâtzen**, 49 (96), **irazten**, 27 (15), **orrazten**, 12 (85), **ekiten**, 12 (85); **atâtzen**, 12 (30); **irteten**, 12 (86); **ezautzen**, 12 (87); **gosetzen**, 12 (30); **bialtzen**, 12 (30); **aldeatzen**, 12 (31); etab..

Harrigarriak dira hauek: **jotzen do**, 12 (83), **jotzen**, 27 (25); **iltzeko**, 27 (22); **eitten**, 12 (66).

Mogel: inoiz ez.

3.2.3.2.4. K. Izagirre: **jaâten**, **jaâteko**; **jaïkitten**; **jaïxoten**; **jaïlgitten**; **esâteko**; **éukitteko**, (M+1); **errétia**, **botâten**; **erâaten**; **erântzuten**; **etzâatera**; etab.

Salbuespenak hauek dira: **jâsteko**, **jârteko**, **jósteko**, **jôteko**; denak /j/-z hasiak (Barandiaranengan ere **jotzen** aurkitu dugu, eta ez *jotzeen). Badirudi *ekharrri / jakin* bikotea kontutan hartzeko unea dela. Alegia: zergatik ez *jakhin? Badirudi /j/ hori [+ syll] izan dela berandu arte; eta /i/, beraz (frikaketa eta goranzko diptongoa, berriz ere, berriantxa agertzen zaizkigu). Hortaz, **iôteko**, **iâzteko**, **iârteko**, etab. postulatzea aski da, geminaziorik eza bide normaletik azaldu ahal izateko.

Honen plegukoa da, bidenabar esateko, **janhari/edari** bikotea (ik. **janhâri**, (+2); **edâari**, (+2) (**erâari**, Oñ., 3.2.21)

3.2.3.2.5. Agian Mogel-en **danzudana**, 67 / **eztaanzu**, 58 bikote bitxia bide bere-tik argi daiteke. Geminatua, (+2) posiziokoa, Praiskaren ahotan jarri zuen Mogelek; alegia, hizkera herrikoïaren lekukoa. Maisu Juan kale-tartuak, aldiz, dotoreago nahiz, geminaziorik gabe biok, eta sandhiari dagokion gorketarik gabe); **eztaanzu**-rekiko aurkaritzan. Beharbada Mogelen fonologi-zorroztasuna urrunegi eramatea da hau; baina ai-patzea bederen interesgarri izan dakiguke. Geminaziozko formak he-rrikoitzat bide zeuzkan Mogelek (Prai Bartolome-k ere irizpide bera ote zuen galde daiteke, ikusi dugunez); eta geminaziorik gabea, berriz, berrikuntza modernotzat. (Gaur bezalaxe, bestalde; gorketarik gabeko formak: *ez dakit*, *ez da*, etab. kaletar elebidunen artean entzuten dire-larik).

3.2.3.3. Hitz batez, eta berriro ere, badirudi geminazioa (+2) silaban gertatzen dela, azentuari loturik: **sortzéen / eráaten; artzéen / erántzuten** (K. Izag.)

Beste zenbait aldiz atzizkiari datzekio geminazioa, eta azentuaren posizioak ez du eraginik: **supéeko / burupéeko; auspéeko / altzárpee** (K. Izag.)

Bide beretik: **artzáarra / arrítzaarra**, K. Izag..

-laari atzizkia ere geminaturik agertzen da (**-lári** JM Barandiaranen transkribaketetan), posizioa zein nahi izanik ere: **atxúrlaarixa**, 66; **aiskólaarixa**, 44; etab..

Ikus daitekeenez, eta estatistikoki bederen, azentuaren *eskuinean* ohi datoz geminatu desberdin hauek (pluraleko geminazio zaharra bezalaxe). Eta honek ondorio honetara eramaten gaitu: Azkue-ren hitzez esateko, atzizki «atono»ak dira horiek bizkaieraz.

Ohar bera egin daiteke **-garren-i** buruz: **gárren** J.M. Barandiaranen luman, eta gehienetan postonikoa: **irúgárren, bóskárren**, etab..

Ez dago kontraesanik Ekialdera pasatzean: eskualde honetan antzinako geminatuak, monoptongaketaz, *azentu* sortu baitute. Ekialdeko azentudunak, «atono» (Azkue) bihurtu dira Mendebaldean; antzinako aintzin-oinarria berbera izanik ere.

3.2.3.4. *Pluralaren geminazioa bizkaieraz*

Dagoeneko ikusi datekeenez, pluralaren azentubideen artean, gainditu ezinezko desberdintasuna dago, itxuraz, Mendebalde eta Ekialdeko euskalkien artean: oxitonia Ekialdean (ergatiboan, eman dezagun); paroxitonia Mendebaldean (kasu berean, eta unitate bisilabikoetan, eman dezagun: **gizunék / gizónak**).

Denak bultzatzen gaurko azentu-bestetasun sakona. Atzizkiok, eta datzekien pluraleko geminazioak, azentudun silabaren (+1 edo +2) *eskuinean* egotean, bizkaieraz, birkonpentsaketaz «caer en la atonía» (Azkue) delakoa gertatu da.

Lekeitiar apezak zorrozki somatu zuenez, nafarrera garaiaz eta zubereaz, beste aldera joaki, azentua eskuin aldera lerratzeko joerarengatik, *oxitonia* gertatu da.

3.2.3.4.1. Prai Bartolome-ren eskutik ulertzen bide da hau garbikienik: **semelabaac**, 2; **platicaac**, VII; **vicitzaac**, 5; **guizoneen**, 26; **nescachaaquin**, 22; **andijeetan**, 52; **gauceetan**, 58; **arrijeen**, 123; **sacramentubeen**, 140, 142; **reliquijeen**, 141; **zatiyeen**, 141; **santubeetan**, 141; **ezaineen**, 142; **bosteen errazoia**, 46; **inchusijeen**, 142; **barijacubeetan**, 143; **jaquineen contra**, 143; **cristinaubeentzat**, 155; **errijeetan**, 275; **zaarreentzat**, 12; **alaveentzat**, 12; **veguijeequin**, 164 (geroxeago, dena dela, **veguijaquin** idatzia).

Plural osoa geminatzeke joera horrek (baina erregulartasun *txikiagoz*

lekutasunezko kasuetan; eta zubererazko fenomenoak kontutan hartuz, hau oso adierazgarria izan daiteke; ik. 5.4 kap.) betiko hipotesi ezagunera eramaten gaitu: *agek, *agen, etab.; batetik atonoen sortzailerle: '-ak, '-en, etab.; eta bestetik sail azentudunaren sorburuan: -ék, -én, etab...

Markinako bizkaierazko formak, beraz Prai Bartolome lekuko, plural zaharraren ahoskera arkaikoaren frogakari agertzen zaizkugu. **Alaveentzat** hautatuz gero, adibidez, eta jatorrizko formaren bila abiatuz gero, **alábagentzat* postula bide daiteke ekonomikoki; eta horretatik biak datozke:

alábagentzat* → **alábeentzat (bizk., Pr. Bart.)

alábagentzat* → **alábaentzat → **alábéntzat** → **alabéntzat**
(ekialdetarretan)

Bietan arkaikoena bizkaiera agertzen da, beraz; eta honek, hortaz, Azkue eta Altube-ren irizpidearen zuzena baiesten du berriro beste alde batetik: alegia, Ekialdeko euskal azentua «romanzado» dela; edo-ta «innovador», nahiago bada. Eskuineranzko lerraketa hori, *berrikuntza* bat dela esan daiteke (lotuta, bidenabar esateko, diptongo goranzkoak onartzeko joera «berriarekin»; hauetan ere, funtsean, segmentu bikoitzaren barruan ere eskuineranzko joera berbera somatzen delarik).

Elebitasunaren hedakuntzak azal dezake hau, jakina; Ekialdeko eskualdeak izan baitira, oso luzaz, Euskal Herriko guztien artean «europatarrenak», eta ekonomiaren aldetik ere (Nafarroan gairikoko etxe ederrak lekuko) interesgarrienak. (ik. N. 3.2.3.4.1.)

- 3.2.3.4.2. Pluraleko 2. eta 3. pertsonen edutezko adjektiboen geminazioa, adierazgarri agertzen da: **ceubeen cereguin altubac**, III; **ceubeen Evangelio-co**, III; **ceubeen gogoco**, VII; **eureen paltai**, V; **eureen burubac**, 77. Gogoan har, gipuzkerari dagokionez, **zuré / zúen**; eta **harén / há(i)en** bikoteak.

Bizkaiera zaharrez, biketa bera dugu erakusleetan: **aren** (sg.) / **areen** (pl.); alegia, eta gaur, **arén / áre(e)n**. Berriro ere Ekialdeko euskalkieki-ko aurkaritzan).

- 3.2.3.4.3. Beste puntu bat ere aipatu beharra dago bizkaiera mota horretan: alde-raketazko atzizkia **-aago** eta gainketazkoa **-een** geminaturik agertzen zaizkugu berriro: **urraaguari**, 145; **minaagoric**, 7 // **chicarreenac**, III; **andijeena**, 5; **gueijeena**, 9; **nausijeena**, 30; **biguneena**, 70; **erruquiorreena**, 70; **oneena**, 268; **sarrijeen**, 50. Fenomeno berberak azaltzen ditu batera Mendebaldeko **-ago** eta **-en** «atonoak» (bokale harmoniarik eza ere, lehenengoari dagokionez, bokale-bikoiztasun horretan funtsa daiteka-gian); eta Ekialdeko **-ágo** eta **-én** azentudunak.
- 3.2.3.4.4. Mendebaldeko euskalkietan, berriro ere, azentu-unitatearen *eskuinean* geminatu zahar bat egoteak, ez du azentua mogitu: **lapúrrén**, JM Bar.

12 (84) (= *lapúrra (r)en* kasu horretan) eta gauza bera beste anitz kasutan, bokafe bikoitz bakarraren ondorioz mamitzean: **bittártên** 18 (43), **alábâri**, 27 (19), **alábâkiñ**, 27 (29), **eiztárik**, 27 (29), **deábrúk**, 27 (29), **búrûri**, 27 (30), **errégên**, 27 (30).

Beste adibide askotan ere, eskuin aldeko bokale luzeak ez du azenturik sortu. Are gehiago, *ezkerretako azentudun* silaba eta *eskuineko geminatua* batera gerta daitezke unitate berean. Eta azentu mogimendurik ez dago. Edo, nahiago bada, *ezkerraldekoa* da nagusi; eta eskuine-ranzko lerraketarik ez dago.

Ekialdeko euskalkietan ez da hori gertatzen: geminazioak azentu bat sortzean, *eskuinekoa nagusitzen zaio* ezkerrekoari; eta, pratikan, azentua *eskuinerantz* lerratzen da.

3.2.3.4.5. Azkeneko ohar bat: Ataungo gipuzkeraz, ia-ia berezi ezinak dira **-ak** pluraleko artikulua, eta **#ak** 3. pertsonako erakuslea. Honek berriro ere pluraleko artikuluaeren autonomiaren egia baiesten du; edo plural batuaren berritasuna: **motiko âk ogie janez**, 27 (100); **anai âtako'at**, 27 (94).

Ohar hauxe egin liteke beste euskalki batzuri buruz: badirudi Hego-nafarreraren *g-/Ø-* bitasunak uste genuen baino aztarna gehiago daukala han-hemenka.

Oharrak

N.3.2.3.4.1. Gorago ere azpimarratu denez, harrigarria da bokale-harmonia eza gutzen duten euskalki askotan, B.H. hori *singularrean* gertatzea; baina *pluralean ez*. Hitz batez, pluralean azentu-unitateak atzizkia iritsi ez duela dirudi.

Orain dela urte asko oharrerazi zuen hori Mitxelenak: «la soudure des thèmes nominaux avec l'article et les suffixes de déclinaison *au pluriel* (azpimarraketa gurea) doit être en tout cas quelque chose *d'assez moderne*» (L'Accent basque, B.S.L., 1958; 222).

Eta Ubillos-en grafia bitxiak (orain dela bi mendetako gipuzkera mota) nekez har daitezke ustekabe hutsaren ondorioz: **iru gazte**, 51; **ber-ai**, 55; **Jainco-etara**, 55; **gaiztoen-etatic bat**, 57; **gorputz-etatic**, 82; **gaizto-en zorrac**, 87; **eche-etan**, 27; **arrizco ol-etan**, 27; **Apaiz-en eracoac**, 30; **bazter-etan**, 31.

N.3.2.3.4.1.1. Honi buruz, irakurrera zehatza merezi dute Karmele Rotaetxe eta William Jacobsen-en artikulak.

3.3. Hasperenketa eta azentua

Gauza ezaguna da, eta zenbait ikertzailek, eta Mitxelenak bereziki, aitapatua izan da, aspaldiko euskeran gutxienez *azentudun* silabaren eta *hasperendutakoaren* arteko lotkia.

Euskal azentuaren *egoera*, hortaz, baita beraren bilakaera *diakronikoa* ere, aztertzerakoan, oso adierazgarria izan daiteke hasperenketaren ikerkuntza; zeren-eta denak ematen baitu aditzera, itxuraz, /h/ eta herskari hasperenduen lekugunea, antzinako euskal azentukerari datxekiola; are gaurkoari ere beste askotan.

- 3.3.0. Ez gara hemen xehetasun ezagunetan geldituko (deskribapen zehatz bat nahi izatekotan, ik. Mitxelena-ren FHV). Hasperenketa hori ondo kasuetan ager daiteke:

<i>hitz-haseran:</i>	haitz, hauskor, hartu, hori;
<i>bokale ondoren:</i>	mehe, zahar, uharte, ihes;
<i>bokalerdi ondoren:</i>	aiher, oihan, auher, eihar;
<i>sonante ondoren:</i>	alhor, senhar, erhi;

eta bide beretik herskari hasperenduak: **pherediku, thu, khar; ephe, othe, bekhatu; aiphatu, aithor, ; urthe, artho**, etab.

Kontutan hartu behar da ohar hau: txistukari eta afrikatu ondoren, ez dela gertatzen. Bestela esanda: **sh, *tzh, *xh*, etab. etimologi bidez batzutan grafia horiek erabili badira ere: **basherri, *hitzhegi*, etab.

- 3.3.1. Dударik gabe, *sortu* egin da hasperenketa azentudun silabetan, are hizkuntza mailan «moderno» tzat jo daitezkeen kasu batzutan ere; eta etimologi arrazoi xinpletzaileek ere agertzerik azaltzen ez duten unitateetan. (N.3.3.1). Hona hemen adibide mamitsu batzu:

- **lanhegin**, Z (Intxauspe, Euskera 1957, 172). Beste euskalkietan **lan egin** dago. ***hegin** ez da ezagutzen, eta gaurko zubereraz ere ez. Nahiz gaurko ahoskeraz **égin** izan.
- **onhasun** (Sylvain Pouvreau); **onharzun** (Oihenarte). ***hasun** ez da ezagutzen; **-asun** bai (osasun), edo-ta **-tasun/tasun (nagitasun)**.
- **onhetsi**, Lhande 811. Normalen **onetsi**. (***hetsi**).
- **gaiherdi**, Z, Larrasketa, Dic. 112.
- **gaihaldi**, Z, Larr. Dict. 112 (baina **egüerdi**, Larr. 95; eta **eguraldi**, Lhande, Dict., 225, «temps bon ou mauvais», /h/rik gabe, (+3) posizioan)
- **sinhetsi**, Larr. Dict. 203. Oihenarte /z/z idatzia.
- **lohesna**, Z, Lhande 683. C. **lo + esna**. ***hesna**.
- **süphazter**, Z, Lh. 942. Ik. **bazter**.
- **bephürü**, Z, Lh. 140 (**begi + buru**)

- **erthütsü**, Z, Larr. Action 121, «à moitié aveugle»; **erdi+ütsü**.
- **erthohañ**, Z, Larr. Action 121, «mi-gratuitement», **erdi + dohain**. (**dohañ** gaurko Z).

Lehenengo osagaia silababakarra da beti (bai jatorriz, bai elkarketara-koan); eta azentua (+2) da beti, zubereraren paroxitonia ere betetzen delarik: **lanhégin**, **onhárzün**, **onhétsi**, **gaihérdi**, **gaiháldi**, (vs. **egüérdi**, **eguráldi**), **sinhétsi**, **lohésna**, **süpházter**, **bephürü**, **erthütsü**, **sathütsü**. Azkena izan daiteke salbuespen bakarra, bukaerako diptongoa dela-ta.

- 3.3.1.1. Sistemari egokitzerakoan, oso hasperenketa adierazgarria hartu dute mailebuek; eta euskal /h/ non agertzen den garbi erakusten: **uñhü**, Z, Larr. D. 211; **sanho**, Lh. 910; **bilho**, Lh. 172; **lehü**, **lehoin**, Larr. 172, etab (gazt. león); **geñhátü**, Z, Larr. D. 115, «économiser», fr. **gagner**; **zeinhu**, Lh. 1079 (ik. signo, signe); **marhüka**, Z, Lh. 714 (lat. verrucam); **txertho**, Lh. 986 (lat. sertum); **lanthü**, Z, Lh. 651 (fr. plainte); **txerkhagü**, Z. Ziberuko Gühüna (= aurkibidea, fr. chercher). Hasperenketa ez da etimologikoa, eta (+2) silaban agertzen da.
- 3.3.1.2. Etimologiaren bidez jatorkide dauzkagun hitzek, posizioaren arauera daramate aspirazioa (ala ez):

gela, Lh. 349 (lat. cella) / **gelhári**, Z, Lh. 350

jökü, Z, Larr. Dict. 152 / **jokhátu**, Z.

mañü, Z, Larr. D. 177 / **mañhátü**, Z, Larr. D. 177

Badirudi zinez azentuak sortu duela hasperenketa; eta eskuarki (+2) silaban mamitzen dela.

- 3.3.1.3. Hitz-elkarketan, aldaraketak gerta dakizkioke hasperenketari; eta hau baita osagaien jatorrizko egitura fonologikoaren kontra ere:

aurhíde, Z, Larr. D. 211 (ik. **haur + ide**)

unhétsi, Z, Larr. D. 211 (ik. **hun + etsi**)

Zenbait aldiz osagaien arteko batek ere hasperenketarik ez aurkezturik, elkarketa-bidezko hitzak bai:

bürhézür, Z, Larr. 85 (ik. Z. **burü + ezür**). C. **hezur**.

Gauza bera ohar daiteke ondoko hauetan: **anhartino**, **anhartean** (Larr. Dict. 61); nahiz **han + arte** izan oinarrian. (N.3.3.1.3.)

- 3.3.1.4. Garbiki agertzen da fenomeno hau erdaretatikako mailebuen egokieran: jatorrizko azentuketak baldintzen baitu, mailebu berrietan, hasperenketaren lekua.

Lehenago **uñhü** aipatu. Hona hemen beste hauek: **enphárü**, Z, Lh. 243 (esp. «amparo»; **zaphóre**, **zapore**. Herskarien hasperenketa hori, jakina, ez da haseran beti mamitu; ozenketa gertatu izan delako: **gela**, eman dezagun.

Adibidez: **phunta, phutzu, phino, phala, pharka(tu), pharte, phasta, phena** // baina **pegar, pelegri, persil, paket, paper, parropia**. (Erdal ki-deak aipatu beharrik ez dago, gure ustez). Kontrako adibide batzu badaude: **pare, perla**; baina **phentsatü, phozü** (fr. poison). Mailebuen adina aztertu behar litzateke bitasuna konprenitzeko.

- 3.3.1.4.1. Antzeko zerbait gertatzen zaie horzkariei: **guthizia, gathibu, gathina** (= katea), **gathilu, gathibu, guthun, athun, althare, berthute** // baina **bertu, bereter** (ik. prêtre), **daratulu, elgata** (ik. elevata).

Agian ondoko bikote hau da adierazgarriena:

kantü, Z, Larr. D. 154 (ik. gazt. cantón); baina

khántü, Z, Lh. 595 (ik. gazt. canto)

Lehenago ere esan dugunez, mailebua aspaldian etorria denean, jatorrizko azentu zaharraren kontra ere, euskal hasperenketa-legea nagusi dakiok: **lekhü** (lat. locum).

- 3.3.2. Alderantzizko fenomeno ere gertatu izan da, nahiz ez aurrekoa bezain azkarki: jatorriz hasperendua zen silaba batek, **azentua** galtzean, hasperenketa ere bai:

arbel (ik. **harr(i) + bel(tz)**)

arbizi (ik. **harr(i) + bizi**) (N.3.3.2.)

- 3.3.2.1. Joera horren zantzuak bizirik daude gaurko zubereraz. **Hor** entzuten da, adibidez; baina **arraor** (berriz ere hor, alegia, aditz gisa). Eta fenomeno bera aipatu du Lafon-ek **hiz** laguntzaileari buruz (= haiz). Larrañeko hizkerari buruzko bere ikerlanean (ik. «Contribution», 89) hau da dio: «Lorsqu'il est étroitement attaché dans la prononciation à un mot qui le précède, le i devient second élément de diphtongue:

eroriko hiz , «prononcé **eoýkóýz**»

dantzatü hiz , «prononcé **dantzatüíz**»

Enklitikoa erastean, azentua eskuinera joan da; eta azentua lekuz aldatu, /h/ren ezabaketa erakarrit: **dantzátü / dantzatü-**; eta **e(r)óiko / e(r)oikó-**. Soma daitekeenez, hortaz, azentua hitz batetan non den gal-detzeak, ez du askotan sentidu handirik euskaraz; honelako mogimenduak maiz gertatzen baitira euskalki guztietan. Azentu-unitatearen mugak dira kaxoa; eta ez osagaien berezko azentua. Laguntzaile enklitikoan berri ematean (ik. 5.4. kap.) kasu hau eta antzekoak aztertuko ditugu.

Larrasketak ere plegu bereko adibideak dakartza:

hóriza? (= hor hiza?)

izániz (= izan hiz)

- 3.3.2.2. Zubereran gertatzen den fenomenoa ezaguna da, bestalde: 2. pertsonaren /h/ (laguntzaile silababakarra, **hiz**, enklitiko gisa doanean sekula ez hasperendurik), agertu egiten da, ordea, morfemaren ezkerretan proklitiko silababakar bat doanean; horren ondorioz **hiz** hori (+2) silaban baitator: **ehiz** (= ez+hiz); **bahiz** (= ba+hiz); **behiz** (= bei(t)+hiz). Nahiz gaur (baina ez oso aspaldidanik, dirudienez) forma horiek ere paroxitono gisa azentuztatu.

Indikatibo trinkoetan ere gauza bera: **ezago** (txistukariarengatik), baina **baihago**.

Ondoko taula hau postulatzea, beraz, bidezkoa izan daiteke; gaurko zubereraz azentua eskuin aldera lerratu bada ere:

<i>Indik.</i>	<i>Agintek.</i>
hágo	agó
hóa	ohá
hábil	abíl
hátor	athór

- 3.3.2.3. Behin eta berriz aipatu da, era berean, Leizarraga-rengan aurkitzen den grafia desberdintasuna: erroa (eta partizipioa) hasperendurik; aditz joko trinkoak, aldiz, hasperenketarik gabe: **ekharri** / **dakarke**, etab. Desberdintasun horretan, azentu liferentzia bat somatu zuen Schuchardt-ek (ik. Lafon, Syst., 514). Itxúrraz, (+2) silabak zuen jasotzen zuen azentua infinitiboan eta partizipioan, eta hasperendurik gertatzen; baina konjugazioan barrena, Larramendi-ri arrazoi emanez, (+1) da azentudun silaba, eta hasperenketa desagertzen. Leizarraga-ren grafian, beraz, hau dugu: **ekarri** / **dacarque**; *kh/k* alegia; oinarrian **ekhárri** / **dákarke** bagenitu bezala.

Fenomeno hau oso ezaguna da beste hizkuntzatan ere: «Plosives are more likely to be aspirated when they precede stressed vowels» (Lehiste, Suprasegmentals, 1970). Eta gauza bertsua gertatzen zaio «glottal-stop» delakoari: «glottal-stops are twelve times more likely to occur before stressed word-initial vowel, than unstressed ones».

- 3.3.2.3.1. Bidenabar esateko, eta aitzina baino lehen, teoriazko *habil-hoa* bikotea, agintekeran, zubereraz hasperenketarik gabe ahoskatzen da: **abi-lúa**, «depuis un siècle au moins», Larrasketa, Dict. 211.

Azterketa aurrera eraman ahal izateko, eta orain arte aurkeztutako morfemak edo aditzak ahaztu gabe, presta ditzagun zerrendak, eta iker dezagun hasperenketaren lekugunea.

- 3.3.3.1. *Silababakarrak*

Hasperenketarik gabeko silababakarrak aurki ezin daitekeen bezalaxe, luzea da hasperendunen lerrokada: **hi**, **han**, **har**, **has**, **hil**, **hitz**, **haz**, **hel**,

hez, hor, hots, hun, hün Z, hur, huts, hartz, hain, haitz, haur, hauts, etab..

Badirudi silababakar horiek, berenez, azentudunak izan direla; gorago esan dugun neurrian.

3.3.3.1.1. Bakar bat aurkez bide daiteke: **ar**; eskuarki, ordea, atzizki gisa erabilia: **astar, katar**, etab..

Beste ezagun bat badago, jakina: **ez** adberbioa; baina honetaz aurrerago mintzatuko gara.

3.3.3.1.2. Herskarien sailean, baina ez horren argiro, fenomeno bera errepikatzen da.

3.3.3.1.2.1. **phitz, phutz** (ik. piztu, puztu)

pe unitatea (edo **pee** hobe) atzizkia da normalean (zubereraz **phéa**, dena dela; erronkarierazko **pea**-ren antzera); baita hitz-elkarketan ere. Eta unitate autonomo gisa ez da erabiltzen.

Ondoko bi hauek: **pot** (= musu) eta **pür** (= huts) mailebu berri xamarak dirudite (barn. pot, ezpain).

3.3.3.1.2.2. **thai, thu, tho!**

-tar bera ere, esan dugunez, **thar** ere idatzia izan da.

3.3.3.1.2.3. **khe, khar, khen, khur, khei** (lexema gisa zubereraz orain arte erabilia). Baina **kai** (fr. quai), **klar**.

3.3.3.1.3. Badirudi, beraz, eskuarki hasperenduak direla silababakarrak (izan daitezkeenean, noski), eta euskara zaharrean azentudunak izan direla. Eta ulergarri gertatzen da, bide beretik, oraindik ere askotan azentudun agertzea. Zubereraren azterketan, dena dela (5.4.) xehekiago azalduko da hau; eta beharrezko ñabardura batzu erantsiko.

3.3.3.2. *Silababikoak.*

Estatistikoki, eta oso nabarmenki, segidan ikusiko denez, *bigarren silaban* ezkerretatik (+2) agertu ohi da hasperenketa; eta hau (gogoan har 3.1 kap.) bai bokale ondoan, bai bokalerdi eta kontsonante ondoan.

3.3.3.2.1. *Bokale* ondoan: **behar, bihar, lohi, aho, ahuntz, ahur, behi, bihotz, ehortz, ehun, lahar, mehe, zahar**. Beraz, ezkerretako (+1) silaba arina delarik (*koda hutsa*).

3.3.3.2.2. *Diptongo* ondoan: **goihen, aiher, oihal, auher, aihal(tü)**, etab.. Hau oso azpimarragarria da; eta *koda ez-hutsekoa*. Diptongoaren pisua, hitz batez, (+2) erregela zaharra baino txikiago izan dela dirudi.

3.3.3.2.3. *Sonante* ondoan: **alhor, belhar, belhaun, bulhar, elhe, elhur, alha // éñhe Z, lanhu, senhar, inhar // erhi, erho, orhe, erhauts**. Hemen ere koda ez-hutsa dagokio ezkerretako silabari, baina kontsonantikoa.

3.3.3.2.4. Bide beretik **herskari hasperenduak**: **lepho, laphar, ophil, aphez, aphur, ephel // bethi, lothu, ethen, athe, dithi, ethor // akher, okher, ekhi, ekhar, ukho**. Are (+1) silaba astuna denean ere: **artho, bortha, aurthen, maitha**.

Badirudi, beraz, antzinako denboretan bederen, (+2) erregela zela /h/-ren kakoa. Gogoan hartzekoa da, honi buruz, bai zubereraz, bai antzinako lapurteraz, falta diren /h/-ak, (+1) silabakoak direla: **aran, aragi. ezür, abil**, etab.. Eta, beraz, gaurko (-2) jenerala, berritatzat jo behar da (zubererari buruz, beti). Ikus 5.4 kapitulua.

3.3.3.3. *Trisilabikoak*

Hiru silabatako unitateetan ere, *bakanka* baizik ez da gertatzen (+3) silabako hasperenketa; eta beti hitz-elkarketa garbitan. Urrundik, berriz ere, (+2) silabako hasperenketa da nagusi: **beharri, bihamen, gehien, lehia, ahalke, ahardi, ahari, ahate, ahizpa, eiherra, deihadar** (azkeneko bi hauetan, koda ez-hutsa dagokio (+1) silabari).

Joera bera *sonante* ondoren: **alhaba, alhargun, belhaika Z, elhorri, bilhaka, elhesta, anhua, añhara, leñhürü, marhanta, erhaile, erhaztun**.

Gauza bera *herskari hasperenduetan*: **bephuru, guphida, arthalde, atheri, athorra, bilkhura, makhila**; baita diptongo ondoren ere, funtsean silababikoak dena dela: **aipha(tu), maitha(tu), aithor(tu)**.

3.3.3.3.1. Hona hemen salbuespen batzu:

egarháu (= egarr(i) + ha(r)o, Lhande, «température altéran-te»)

ardukhói (= ardu + khói, ardozale)

berréhun (= berr + ehun)

bürdünhür (= бүрдүн + hur, Z, «eau ferrugineuse»)

(bigarren osagai silababakarra denean, oxitonoak ditugu)

3.3.3.3.1.1. Azpimarragarria da (+1) silabaren diptongatuak: **heuskara, heuragi**, (= **anitz**), **hausnar(tu), haiduru, haizkora, heiagora** (Z, Lhande, 428, «terrasse»); edo-ta **khalamu** eta **thenpora** (ik. cáñamo, témpora).

3.3.3.4. *Tetrasilabikoak*, etab..

Eskuarki, (+2) silaban etortzen da hasperenketa: **bilhagarro**, Lh, «grive des vignes»; **aharrausi**, Lh., «baillement»; **batheiarri**, Lh.; **bethagarri**, Larrask., «qui rassassie vite»; **enthelegátü** (= ulertu). Normalean hitz-elkartuak ditugu.

Hitz-elkartu horietan, bigarren osagaiak halako autonomia kondarra atxik dezake bolada batez; eta hasperenketa, horretara, haseran bederen, ohi baino eskuin alderago ager daiteke: **bizpahíru, edenéhi, besobülhür** (Larr. 79), etab..

3.3.3.5. Honekin guztiarekin batera, eta hasperenketa oraindik erabiltzen den eskualdeetan, *leku* eta *pertsona* izenetan ere gertatzen da. Adibidez: **Ahetze, Ahazparne, Ahatsa, Lehontza, Behauze // Ilharre, Anhauze, Arhantsusi, Zünharreta**. Eta gauza bera herskari hasperenduei buruz: **Epherre, Atharratze, Mithikile, Getharia, Lekhorne, Bithiriñe, Ithorrotze, Atherei, Akhamarre, Lakharra, Lakharri, Lekhunberri, Lekhuine // eta Urkhurai, Ar(k)hangoitze**. Salbuespenak gutxi dira: **Barkoxe** (*Ibarkoxe?), **Lukuze** (fr. Luxe), **Donapaleu** (= dona + Palaio) (Palaio hori, jakina, Pelaio da, eta ez «palais»...)

Berriro ere, hortaz (+2) silaba da hasperenketarena; nahiz batzutan (+1) izan ahal izan; eta zenbait hitz-elkartutan are (+3) ere.

3.3.5.1. *Hasperenketa/azentuketa* horrelazioa tinko agertzen den heinean, gaurko zubereraren azentu-moldea (**álhor, ékhi, ábil, ézur**, etab.) orain dela gutxiko *berrikuntza* dela pentsatu behar da. Eta ez ezkerretako silabaren egiturak, ez eskuin aldekoak (hau Ekialdeko euskalkien kontra), garrantzi handirik izan *dutenik* hasperenketa (eta azentua ere bai, segurki) non den erabitzeko: **alhaba / alhargun; bihi / bihotz**; etab..

Beste bidetatik ere, ondorio bera ateratzen dugu.

3.3.6. Honetaraz gero, hipotesi bat saiatzeko momentua heldu dela deritzogu: ia euskara, antzinako mendeetan bederen, (+?) *azentu aldakaitzeko* hizkuntza ez ote den izan.

Hipotesi honetan: a) *fonologi*-arrazoiengatik agertuak lirateke (*M+1*) *prototonoak* (eta, funtsean, beraz, lehenengo silabaren koda ez-hutsa gertatzeagatik: diptongo beheranzkoa edo bokale-laburketaz usuenik). Silababakarrak, beraz, diptongatuak bereziki, (*M+1*) markatuak lirateke. b) *mailebu* berriak direlako, eta sistema orokorrean hortaz oraindik integratu gabeak.

Hipotesi honen arauera, /h/z edo herskari hasperenduz hasitako unitateak oro, (*M+1*) lirateke azentuaren aldetik.

3.3.6.1. Lehendabiziko hurbilketa batez, hipotesiak ez dirudi zorakeria hutsa. Gaur diptongoz hasten diren hitz hasperenduak ez dira urri: **haiduru, haizu** (= zilegi), **heuskara, haboro** (ik, hau + oro), **handi** (ik. aundi), **há-nitx, Z** (ik. Ultzama-ko **áunditz**, markatua, eta irregularra nafarrera mota horretan).

3.3.6.1.1. Kodatzat lehenengo silaban /r/ duten hitzak ere, ugariak dira: **harri, herri, harbi, harramazka, herbi, herbal, herdi** (Oih.), **herdoil, harro**; are erdaratikako hitzak /h/rik ez zuenean ere: **harrapatu, harma, hargamasa, harraspa, harroka, herresaka**, etab..

Silabaren egituraren pisuaz edo astuntasunaz, beraz, /r/ eta /j,w/ bokalerdiek, maila bertsuko dirudite; gainerako kontsonanteak edo segmentuak askoz ere apalago agertzen zaizkigularik.

3.3.6.1.2. Silababiko partizipioetan, erroaren silababakartasunean bilatu behar

da kakoa; erabat, gaurko zubererari dagokionez, azentuaz gertatu den bezala: **hasi, hezi, hartü, heltü, phiztü** (ik. has, hez, har, etab.). Gauza bera lehenengo osagaia silababakarra den hitz-elkartuetan: **hanbat, hainbeste, harpe, hartzulo, hatsarre, hatsarte, hutsune**, etab..

- 3.3.6.1.3. Erakusleen hasperenketa (*hau(r), hori, hura, hemen, hor, han*) antzinako «glottal stop» baten aztarna izan daiteke, orain dela urte batzu le-
rro honen egileak proposatu zuenez. Ekialdeko nafarreraz aurkitzen ditugun herskarizko aldagaiak ulertuko lirateke; baita dagozkien sandhi bitxi batzu ere.
- 3.3.6.1.4. Badaude ere, jatorri desberdinetatik datozen /h/ak ere: **f-, k-**, etab.: **habia** (lat. caueam); **halda** (ik. falda); **halama** (ik. flamma); **hastio** (Lhande «dégoût»); **heida, heia** (ik. feria). Eta hauek ez dira molde berekoak azentuari buruz.
- 3.3.6.1.5. Dena azaldu ote da hasperenketa bitxiei buruz? Ez dirudi.

Batetik, lehenengo **silabiko** ez den koda ez-hutsen kasua dago: **arrotz, arrosa, arreba, erro, erre, erraz, errege, irri, irrintzi, orroa // arhe, orhe, erhi, arhin**, eta abar. Eta bestetik bokalerdia daramatenak: **aiher, aihen, eihar**, etab..

Bestetik, lehenengo silaban koda *hutsa* duten hitz hasperenduak dau-
de: **habe, haga, hagin, hegi, hiru(r), hari**, etab..

Badirudi, hitz batez, haserako (+1) *hasperenketa*, ez datxekiola, de-
rrior, (*M+1*) *azentuketa*.

Bigarren silabari buruz, aldiz, (+2) alegia, baietz dirudi: *hasperenketa*
azentua datxekiola dirudi (edo-ta atxeki zitzaioa bederen).

Azentuak beti sortzen bide du hasperenketa (+2) posizioan: baina ez
alderantziz. Hitz batez, unitatearen (+2) *posizioa* da kakoa hasperenke-
tari buruz; eta azentuari buruz ere bai, bestela ere ikusiko dugunez.

Oharrak

- N.3.3.1. Mitxelena, egokiro, etimologiatik at hasperenketa horren *agertzea* az-
pimarratu du, kakoa *posizioa* balitz bezalaxe: «naissance de l'aspira-
tion, très souvent» (BSL, 224; 1958-ko artikuluan).
- N.3.3.2. Gogoan har bitez lehenago ere aipatu dugun bikotea: **arbel, arbizi**.
- N.3.3.1.3. Antzinako euskaraz azentua non gertatzen ote zen eztabaida hartan,
Martinet-en kontra agertu zen Mitxelena (ik. FHV); honek (+2) azen-
tuketa halako batez sistematikoa izan zela postulatu: «à une certaine
époque (l'accent) tombait régulièrement sur la seconde syllabe du
mot» (Acc. Bsq., BSL, 1958; 231).

3.4. Sinkopa euskal toponimoetan

Euskal leku-izenen ahoskeran aurki ditzakegun aldakuntzak, informazio iturri izan dakizkiguke azentuari buruz; eta sinkopak, bereziki, ahoskera zaharraren aldakuntzen lekuko gerta.

«Txillardegi» neronen gaitzizenean ikus daitekeen bezala, gaur paroxitono gaztelaniaren arauera esana («Chillardégui»), euskaraz mintzatzean «Txillárdegí» ahoskatu ohi da, erreparatu ere gabe. Hots, Donostiako artxiboetan egizta daitekeenez, «Chillárdegui» grafiaz irakurtzen da Antiguko toponimoa XIX. mendearen erditsuan.

Eta hori joera nagusien eredia, hain zuzen: erromanizatutako moldean (-2) azentuketa aurkitu ohi da; euskal moldean, aldiz, (+2) azentuaz. (Bi azentukerek, hortaz, eskema bera ematen dute hiru silabatako izenetan; baina ez luzeagoetan).

Hots, eta ikusiko dugunez, sinkopa dela bide, (+3) silaba erori da oso maiz, eta Euskal Herri osoan barrena.

- 3.4.1. Fenomeno horrek ezin gintzake *Bortzerrietako* hizkeran harri, esate baterako (Lesáka, Beráa, Igántzi, etab.). Euskara mota horretan, ikusiko dugunez (ik. 4.9. kap.), izenaren hiru numeroetan, aldakaizkiro, (+2) baita azentua (azentu azkarra, gainera) hartzen duena. Eta hau askotan baita jatorrizko azentua gaindituz. Adibidez: **améri^kano**, **musí^ka**, **abí^stu**, (ik. abísatu), **txokó^ltia** (ik. txokólate), **garíz^ma** (ik, garízuma), **larúⁿta** (ik. larúnbata), **kastí^tu** (ik. kastigatu), **allé^tu** (ik, allégatu), etab..
- 3.4.2. Beste euskalkietan ere fenomeno bera aurkitzen da, intentsitate gutxiagoz bada ere. *Gernikako bizkaieraz*, adibidez, (ik. Fontes 18, Basterretxea), esaten ari garen joera honi buruzko argibide batzu idoro daitezke, antzeko beste hamaikaren artean hautaturik: **Ará^mai^xo** (gazt. Armayóna); **Abá^diño** (gazt. Abadiáno); **Eláⁿtxobe** (gazt. Elanchóve); **Gordé^xola** (gazt. Gordejuéla); **Ibá^rruri** (gazt. Ibarrúri); **Olá^eta** (gazt. Olaéta). Eta bikote bitxi hau ere aipa daiteke: **Salá^manka** / **Salamán^{ca}**. Trukea hau da, beraz: *gazt.* (-2) / *eusk*(+2) batzutan, azentua oso azkarra duten euskalkietan, sinkopa ere gertatzen delarik.
- 3.4.3. Euskara mintzatua den beste eskualdetan ere, bide beretik gertatu dira aldakuntzak. *Eibar*-ko toponimiaren bilakaera diakronikoa, esate baterako, eta berriz ere bizkaiera oinarri. Juan San Martinen ikerlan baten bidez jarrai dezakegu (ik. Cuad. de Etnogr., 25, 1977); bikote hauek aurkituz: *Akarte^gieta*, zaharra; **Akarte^gitxa**, modernoa / **Amuate^gi**, z., **Amutei**, m. / **Gorostⁱeta**, z., **Gorosta**, m. / **Sumendi^aga**, z., **Sumendⁱxa**, m. / **Ubidi^ata**, z., **Ubít^xa**, m., Laburketa eta sinkopa horiek ulertzeko, (+2) azentua postulatu behar da: **Akár^{te}gieta**, **Amú^{ate}gi**, **Goró^stiet^a**, **Suméⁿdiaga**, **Ubí^dieta**, etab..

3.4.3.1. *Mungia*-ko bizkaierazko leku-izenen bilakaera aztertzean, ondorio bera jalgitzen da (ik. Andoni Kaiero, Euskera 1958): **Soloarrieta**, **Soloarttá**, m. / **Atxutegi**, z., **Atxúti**, m., etab. (Beraz: **Solóarrietá**, **Atxútegi**, etab.).

3.4.3.2. *Leitze* inguruan ere, Ipar nafarreraz oraingoan, joera bera (ik. V. Hermandorena, Cuad. Etn. N., 28): **Zabaletaenea**, z., **Zabaltenea**, m. / **Lubienea**, z., **Lubinea**, m. / **Pasqual-Luceaenea**, z., **Paskualzenea**, m. / Eta, beraz: **Zabáletaena**, **Lubienea**.

3.4.4. Antzinako toponimo eta antroponimoetan, aldakaitz agertzen zaigu joera hori: **Aizarna** eta **Sagarna**, adibidez, sinkopa iruditzen zaizkio Mitxelenari (Apell. V., 132).

Era berean beste askotan: **Azkárraga** edo **Ezkárraga** zaharrak, **Azkárga** eta **Ezkárga** eman dute sinkopaz; eta hor dago Anzuola-ko «Puerto de la Descarga» eroa. (Sara ondoko **Larhun** toponimoa, «La Rhûne», are «Rhûne» soila ere, bihurtu den bezala). Araba-ko Urkabustaitz-en ere, beste «Escarga» bat badugu; Leire ondoan «Escalar» dugun bezala, euskaraz **Ezkalarre**.... Eta abar, eta abar; noski. Baina bihur gaitezen geure harira.

3.4.4.1. Hona hemen, bai Bonaparteren bidez, bai geroko ikertzaileen bidez ere, *Nafarroan* bildutako bi izen: gazt. **Ibilciéta**, eusk. **Ibízta**; gazt. **Orbaicéta**, eusk. **Orbáizta**, are **Orbáxta** ere. Ez dago dudarik **Ibiltz(i)eta** eta **Orbáizeta** suposatu behar direla; gaurko euskara biziaren azentuketaren kontra. Eta, hortaz, Ekialdean azentua orain dela gutxi *eskuin aldera* lerratu dela somatzeko arrosoiak daude.

3.4.4.2. Hots, guztiz unitate antzekoak bildu ditu *Arantzatzu*-ko bizkaieraz: **Elórla**, 95; eta **Pastórla**, 198. Oinarrian hauek ditugularik: **Elórrola**, **Pastórrola**.

Eta ia hitz berberaz dugu sinkopa mota bera *baxenabarreraz*, Michel «Garicoits» santuaren sorlekua *Ibarrolle* da frantsesez, eta **Ibárla** euskaraz. Eta, beraz, **Ibárrola** somatzen da.

Aranatze-ren ondoan ere (Bortzerrietako Ipar nafarreraz) beste **Ibárla** bat ezagutzen dugu Holmer-en bidez (ik. An. J. Urq., 1964, 214). **Aránatz** bera ere, **Arántza(a)** entzuten da maiz, sinkopaz.

Antzerako kasuen multzoa oso ugaria da.

3.4.5. *Hauta ditzagun beste batzu.*

Badirudi Nafarroako «Arga» ibaia, **Lahárraga** dela euskaraz; eta sinkopaz **Lahárga**, eta *Arga* azkenean. Iparraldean *Laharrague* izena badago. Eta *Larraga* herria (gast. **Larrága**) ibai-ertzean dago oraindik ere (antzinako **Tárraga** ongi transkribatua ote den zalantzan jarri behar).

Nafarroako «Bardena» ere, apokopez **Abárdena** izan daiteke (-dena bukaerazko izen anitz dago Nafarroan, dakigunez). Baina hemen arti-

kulua kendu beharrean (hor daude Orrio, Rhune, Arga, etab.), erantsi egin da: **La Bardéna**. Beste batzutan bezala **Puente-la-Reina (Iarraina)**, **Las Barrietan (Olabarrieta)**, etab..

Jaurriéta, gazt., euskaraz **Eáurta** da. Hots, *Egaurrieta* dator 1072-an; eta **Egáurr(i)eta** postulatu behar da.

Olázi, euskeraz; **Olazagutía**, gaztelaniaz. Ez da zaila **Olázagutía** somatzea.

Zuberoako *Oyhercq*, **Oihéregi** postulatu behar da.

Bide beretik, Zaraitzu-ko **Orónz**, gazt., eta Baztan-go **Oronóz** kidea, **Orónotz** zahar baten alde mintzo dira.

Zuberoako mugan fr.*Gamarthe* dugu, hasperenketa horren funtsa ulertzen ez delarik (baina Lapurdin, Bidarte ondoan, «Agoretta» erabaki du frantses administrazioak, **Agórreta**-ren transkribapena); eta badirudi **Gamárreta** bilatu behar dela; bizk. **Gallárta**-ren atzean, **Gallárreta** dagoen bezala (Ernani ondoan **Galárreta**), fr. *Galharret*.

Multzo berean jarri behar litzateke Nafarroako **Legárda** ere; **Legárreta** gogorazten baitu, erdal ozenketaz (*Artieda*-ren atzean **Artéta** dagoen bezala).

Sakana-ko erd. **Irañéta**, bestalde, **Irinta** ahoskatzen da; eta, beraz, eta berriro ere, **Irañéta** dugu oinarrian, (+2) azentuaz.

- 3.4.6. Errioxa-ko euskal izen zahar batzuk, gauza berdera idarokitzen digute sinkopaz bestaldera:

Sagásta, Kameros-ko Torrecillan jaiotako politikari famatua, **Sagáseta** izan liteke, ik. **Sahátseta** (*Sagaseta* dugu Nafarroan); eta ez, nahi-ta-ez bederen, *Sagariza*. Egues-en bertan **Sagaseta** dugu.

San Asensio-ko **Arizta**-ko Ama Birjinak, **Harítzeta**-ra garamatza; batez ere «Virgen del Robledo» ere deitzen dutela jakinda.

Urdánta-k («que era *Urdaneta* antes». Euskera 1958, Arregi, 99) eskuz garamtza **Urdáneta**-ra; eta honelaxe esaten diote zarauztarrek Erniorako bidean dagoen auzoari.

- 3.4.7. Joera bera dugu beste *bizkaiera* mota batzutan ere. Gazt. **Arechavaléta**, eusk. **Atxábalta**; gazt. **Albóniga**, eusk. **Almínke**; gazt. **Cenarrúza**, eusk. **Ziórtza** (ik. **Zeáurtza**).

Eta *Bidasoa* behean, gazt. **Fuenterrabía**, eusk. **Hondárbia**. Hain zuzen ere, **Hondárribia** / **Hondárrabia** bikoteari buruz izan diren ezta-baidek, azentuan dute kakoa: **Hondárribia**, sinkoparen ondorioz, **Hondárbi(a)** bihurtzen baita; erori den bokaela zein den ahantz erazi arte.

- 3.4.8. Badirudi, hitz batez, toponimo zaharren azentuketa nagusia (+2) *izan dela* eskualde guztietan.

Oharrak

N.3.4.1. Fenomeno honen lekuko agertzen zaizkigu bertako bertsolariak: **espos-tu**, 25; **asertzen**, 27; **abetsa**, 27; **erosko**, 51; **etorko**, 51; **goizko**, 71; azentu ondoko bokalea sistemakiro eroriz. Azentudun silaba (+2) da eskuarki; nahiz salbuespen hau aurkitu: **góizko** (= góizeko). Hots, honen **góiz** markatua eskatzen du; eta diptongozko silababakar diptongatuak (M+1) markatuak dira.

Ultzama-ko neutralizazio bitxiek ere (**gertatiko** = **gertatuko**; etab.) joera bera erakusten dute: **gertátuko**.

N.3.4.3. Markina-ko lagun baten bidez jakin dudanez, *Ibazeta* leku-izena, gaur **Ibésta** ahoskatzen da (eta, beraz, **Ibázeta**).

N.3.4.6. Ahoz «Virgen del Robledo» aipatzen bide da; baina A.Irigarai-k, bere «Una geografía diacrónica...» delakoan, 114, errioxatar A.Anguiano historilaria aipatuz, «Virgen de la Encina» dio, edo «**Arizta o Arizeta**», Briones-tik lekua erdi batetara.

4. Mendebaldeko azentu-saila

- 4.1. Hegoaldeko bizkaiera (Arratia)**
- 4.2. Mendebaldeko azentua**
(S. Altube; J. Basterretxea) (I)
- 4.3. Mendebaldeko azentua (II)**
- 4.4. Gipuzkoa-ko bizkaiera (Oñati eta Antzuola)**
- 4.5. Itsasertzeko bizkaiera (Mendebaldea)**
- 4.6. Itsasertzeko bizkaiera (Ekialdea)**
- 4.7. Gaurko gipuzkera (ideia batzu)**
- 4.8. XVIII. mendeko gipuzkeraren azentua**
(Larramendi-ren arauera)
- 4.9. Bortzerrieta-ko nafarrera garaia**

4.1. Hegoaldeko bizkaiera (Arratia)

1.3.5.kapituluan datu fonetikoak aurkezterakoan esandakoa ez dugu hemen errepikatuko. Orduan alde batera utzi genituen puntu batzu bakarrik ikutuko ditugu; edo, arrazoi desberdinengatik, arreta berezia merezi duten beste batzu.

4.1.1. Oharrerazia izan denez, edutezko **niré** eta **guré** izenordeek, (+2) azentua dute. Hots, pluraleko **zúen** eta **éuren** izenordeek (+1) marka darabate; nahiz corpus-ean hau frogatzeko adina unitaterik ez izan.

4.1.2. Behin eta berriz esan behar da, Arratia-ko euskararen ez direla bakanka baizik gertatzen (+3) moldeko azentuketak, are eskuin alderagokoak ere. Gogoan har dezagun, adibidez, **deklarasiñoa** unitatea, isotono praktikan /ó/raino, eta (+5) azentukoa; baita partizipio paroxitonoak ere: **ibillíte** eta **makurtúte**, biok (+3) (ik. 18, 19, 58 es.).

4.1.3. Bizkaieraz, eta normalean, azentukeraz berezi ohi dira erakusleak: **arék** (- M), eta (+ 2), ergatibo singularra / **árek** (+ M) (+ 1), plurala. Hots, Areatza-ko informatzaileak ez du beti eskema hori errespetatzen.

Alde batetik, **arék mutillák** dio (28'), erg. sg.; baina segidan **arékpe** (7), pluralez. *Be*-ren erasketaz azal daiteke hori agian, *be* klitikoa delako. Baina aurrerago ere **arék** (*gástiak*) dio (9), pluralez berriro.

Eta hori guztia, eskuarki aintzakotzat hartu ohi den irizpidearen kontra mintzo da.

4.1.3.1. Izenak ere, bizkaieraz, azentuaren arauera berezi ohi dira numeroaren aldetik: **gísónak** (erg. sg.) / **gísonak** (pl.).

Areatza-ko lekukoak ez bide du hori ere errespetatzen, (**arék**) **gástiak** (9), plurala, dionean, guk **árek gástiak** espero genuen. Behin ahoskatze du horretara, dena dela: **gástiak**, pl., (48 es.).

Mutil-i buruz, era berean, guk hau espero genezake: **mutillak** (erg. sg.) / **mútilak** (pl.). Hots, gure bandan, **arék mutillák** entzuten da; galdegai aurreko atalari dagokion goranzko entonazioa dela bide, ulertu ezina. Eta aipatu beharra dago.

Baliteke puntu horietan silabaren iraupena edo intentsitatea, maiztasunarekin aurkatasunean egotea; eta, hori dela-ta, maiztasun hutsezko

datuak (gure oszilogramakoak) eta pertzepziozkoak, ez batera gertatzea. Belarri bidez, dena dela, arrazoi ematen diogu oszilogramari; eta, hitz batez, maiztasunezko irizpideari.

4.1.4. Arratian *enklitiko* agertzen dira adizki laguntzaile silababakarrak: **etórsan** (3), **etórsan** (33), (senbat) **úrtedan** (14), **fbiltensan** (20). Dagoeneko **sarrásan** (17) bitxia aipatua izan da. Baina Mendebaldeko **sár/sarrá/sárrak** eskemaren alde mintzo da; eta **sár** (-M) gisa aurkezten. Enklitiko dira, era berean, beste hauek: *-dot* (23); *-tzat* (26) (= deutsal); *-tzon* (34) (= eutson). (Ik N. 4.14)

4.1.4.1. Itxura denez, zenbait laguntzaile *polisilabikok* berezko azentua du: **gendún** (11), (-1) orokorraren zantzua hor somatzen ez badugu bederen. Baina gehienak balantzaka agertzen dira, inguramenduaren arauera azentuztatuko balira bezala: *-eben*, *-eban*, *-ebesan*. *-eudien*, *-siran*, *-eustasan*, *-eustan*, *-euset*; eta, nolana ere, ezkerraldean dituzten aditz-izenak baino *tonu apalagotan* ahoskatzen dira.

Ohar bat egin behar da honaz gero, eta Arratiako oszilogramei buruz: partizipioen amaierazko /i/, eta laguntzaileen haserako /e/ren artean, nahasketa eta zalantza badagoela; eta honek azentuaren posizioa non den erabakitzekeo trabak jartzen dituela.

4.1.5. Aditz trinkoetan, (+1) azentubideak dirudi gailen: **néukasan** (15), **dáudek** (46), **yáusak** (45); baina ezkerretako silaba hori diptongatua izanik, kakoa horretxan eragina ote den galdetu behar da.

4.1.6. Ondoko unitate honen azentuketara jatorra azpimarratu dugu: **serdáukek** (43) (eta ez interferentziazko * *zér daukák*). Bizkaieraz azentu unitate *bakar* bat dago hor; eta azentua, ohi bezala, (+2) da. Beraz, *zer* galdekaria, behin eta berriro esan dugunez, eta interferentziazko «logika»z soma zitekeenaren aurka, proklitiko dago hor (nafarreraz ere gauza bera aurkituko dugu ondoko orrialdeetan).

4.1.7. Ondoko bi adberbioak: **geró** (3,6), **betí** (60) oxitonoak dira; eta (+2), beraz, Mendebaldeko moldeaz, (**Geró**, egia esan, **geróago** osoagoaren laburketaz agian, askotan agertzen da oxitonoen artean).

4.1.8. Ondorio sendoak atera ahal izateko, urriegia da gure corpusa. Bestetik, geure oszilograma horietan, FØ oinarrizko maiztasuna azter dezakegu soilik. Zer gertatzen da, ordea, pluralen *beherakada* famatuari buruz. Singularrean, aurkaritzaz, halako *zelaia edo ordeka* aipatu ohi baita.

Hiru iheki ditugu:

arék (sg., 28') — 200/215 (Hz).

Puntu horretan zerrendaketa errepikakorrean gaude; anti-

kadentzi giroan, beraz. Eta maiztasunen gorakada hori txiekia iruditzen zaigu.

arék pe (pl., 7) — 215/260 (Hz).

Gorakada azkarra da; batez ere, entonazio-inguramendua neutro xamarra delako. Hots, beherakada espero genuen.

arék (pl., 9) — 250/300 (Hz).

Gorakada, bai; baina entonazio inguramendua, zerrendaketa errepikakorrean, goranzkoa da. Besterik espero zitekeen, dena dela.

- 4.1.8.1. Kontraesan berbera gertatzen da bitan, corpusean topatzen ditugun bi *gastiak*-etan. *Beherakada* espero genuen guk: **gástiak** (9) — 235/295/265 (Hz); **gástiak** (48) — 270/200/190 (Hz). Biotan apala da /ak/; baina /ti/ ez. Gernikako hizkerari buruz Basterretxeak azaldu duen aldaketa froga dezake honek: (9) pleguko plurala gazteek omen darabilte; (48) plegukoa, berriz, jende helduek. (Bizkaieraren irakasle eta gramatikari zaharrek azaldu duten bidetik).
- 4.1.8.2. Singularrari omen datzekion *zelai edo ordeka* horren azterketak ere, ez du gauza handirik argitzen. Lehenengo hurbilketaren mailan, nolazpait delako zelai hori ondoko unitateotan onar liteke: **egúnean** (40), **lepóan** (15, 39, 46), **ordúan** (1, 49) eta **ugérrian** (40). Denok (+2), ageri denez.
- 4.8.3. Beste singular batzuk, berriz, pluralari bakarrik omen datzekion beherakada bera erakusten dute: **amári** (34), **amágana** (33), **edérra** (14') eta **lagúne** (54). Berriro ere: denok (+2). *Hirusilabakoetan*, berriz, ez da desberdintasunik nabaritzen singularraren eta pluralaren artean.

Oharrak

- N.4.1.2. *Totorikak*, *Arratiako bizkaierari* buruzko bere ikerlanean, gauza bera baietsi du: **biripóa**, 46 (= papada); **dandabéla**, 46 (= testículo); **matrakóso**, 48 (= pendenciero). Denak, hortaz, (+3) azentuz; eta paroxitono ere bai.
- N.4.1.4. Lan honetan ikus daitekeenez, «behinola enklitikoa» izan omen zen euskal aditz laguntzaileen klitikotasuna, batez ere silababakarretan, garbi dago gaur ere hizkera batzutan. (Ikus Mitxelena, *Fontes* 32, 234-235).

4.2. **Mendebaldeko azentua** (S. Altube; J. Basterretxea) (I)

4.2.0. Lan honetan barrena ikus daitekeenez, ikertzaile batzuk beren iritzia emana dute euskal azentuaz. Gehienetan deskribapenaren mailan gelditu izan dira, irizkerak edo interpretazioak oro alde batera hertsiki utziz. Horrelaxe jokatu du, esate baterako, A. Jose Migel Barandiaran etnologilari iaioak (hizkuntzalaria ez baita). Aita Kandido Izagirre-ren kasua ere, oro har, sail berean jar daiteke: herabetasunean izan ezik, sekula ez du A. Izagirrek hipotesirik idaroki; eta, gehienez, teori-ohar apalak, edo sintesi-saio laburrak, bakanka baizik ez ditu egin. Batzutan, erronkaria eta bizkaiera alderatzerakoan, adibidez, aurkitu uste dituen azentu-unitateen arteko desberdintasunak aipatzen dizkigu bizpahiru lerrotan. Tamalgarria, eta birritan tamalgarri; zeren-eta eskualde guztietako euskaldunekin luzaz harremanak izan ondoren, eta bera lekuko fina izanik, gauza egoki asko esan baitzezakeen.

Horrela jakin dugu, esate baterako, dialektologi-inkesta haietan lankide izan zuen A. Alustizak guri Arantzatzun kondaturik, erronkariarrak beren hizkeraren azentu-mailaz ongi jabeturik zeudela; Zaraitzuko euskaldunei buruz (lehen auzoak haientzat, eta azentu azkarrekoak halere), zaraitziarren hizkera nolazpait definitu nahiz, «mazten uskara» zela esaten baitzioten. Alegia, berena baino leunago zitzaien.

Holmer-en kasua desberdina da: sueziar hizkuntzariak ere deskribatu egin zuen entzuten zuena, eta transkribatu; baina euskalkiak alderatu egiten zituen, eta azalpen-teoriak bota ere bai; baita atzerriko mintzaireren gorabeherak gogoraziz. Holmerek berak, halere, eta zoritxarrez, ez du euskal azentuari buruzko lan monografiko eta orokorrik eskaini; batzutan honetatik urrun ibilli ez bada ere.

Azkuek berak ere ez zuen horrelakorik burutu; nahiz ohar garrantzitsu asko utzi (ik. «Del acento tónico vasco en alguno de sus dialectos», Euskera 1930).

Mitxelenak ere ez du egin; nahiz-eta frantsesezko bere artikulu ezaguna («De l'accent basque») funtsezko egon beti; eta *Fontes*-etan barrena azentuari buruzko puntuak askotan ikuturik (soilki ez, ordea). Ikusi beharra da, halere, oso bereziki, azentuaren aldetik ingelesez argitara zuen euskalkien sailkapena (An. J. Urq., 1972); baita nafarrerari buruz (Fontes, 1976) idatzi zuen artikulua.

4.2.1. Gaur arte euskal azentuari buruz argitara diren bi izkriburik garrantzitsuenak hauek dira:

Severo Altube

– *El Acento Vasco* - 1932, Bermeo.

– *Observaciones* (a la «Morfología V.», de Azkue). Azentuaz: 186/213 orr.

José Basterrechea

– *Estudios sobre la entonación vasca...* Fontes 18 eta 21 - 1974/1975.

Izenpuruaren arauera, ordea, amerikatarrek «misleading» esan ohi dutena izan daitezke biok: *Altube*, batetik, azentuaz baino gehiago arduratu baitzen *entonazioaz*; eta, alderantziz, *Basterretxea*, bestetik, *azentuaz* gehiago arduratu baitzen entonazioz baino.

Bi kasuotan, hitz batez, etadura sistematikorik gabe, nahas-mahas agertzen dira bi fenomenoak; eta erratzera eramán dezakete. Lan horiek, horregatik, ohar zorrotzez beterik egon arren, urte askotan barrena etsi arazi egin izan dute irakurlea; eta beste zenbait aldiz, eta euskalari batzurengandik, kritika gogorregiak eta ezkorregiak jasan.

Harrigarria da, halere, azken urte hauetan Basterretxeak jarraitzailerik batere ez izatea; onartzeko agian, edo-ta osatzeko; edo, azkenik, 1974-an Mendebaldeko azentu motari buruzko deskribapen xeheari erasotzeko. Itxuren azpian, horretara, Euskal Linguistikaren ahulezia sakonaren seinale har daiteke isiltasun iraunkor hori; handiena prosodiaren edo supra-segmentalen sailean.

Mitxelenak «tipo I» bataiatutako azentu-mota hori (edo-ta mendebal-tarra), ondoko euskalkien multzoa da: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta Mendebaldeko baxenabarrera; baita gaur mintzatua den nafarreraren parte handi bat (ik. 4.2.1.). Bestela esateko: gaurko euskaldunik *gehienen* azentu-mota.

Ñabarduren gainetik eta hizkeren arteko desberdintasunen gainetik, *gaurko* euskararen azentukera nagusia dugu hori; batez ere Hego-nafarrera garaiazen suntsitzearen ondorioz. (Gaur, hitz batez, Nafarroaren erdalduntze zabalaren ondorioz, zuberera eta nafarrera garaiak dituen adarrak ekialdetarrenak besterik ez du biltzen).

Hemen laburbilduko ditugun bi ikerlanok («laburbildu», diogu; xeheki hemen dena errepikatzeak hobaririk ez lukeelako) batera datoz zenbait puntu giltzarritan. Eta hauetatik hasiko gara. Irakurleari, dena dela, hau proposatuz: jatorrizko testuetara jo, eta ñabardurak bertan bilatze-ko.

Bateratasunetik hasiko gara.

- 4.2.1.1. Muzinik gabe onartuko luke *Altubek*, gure ustez, *Basterretxearen* esaldi hau: «la entonación vasca constituye un sistema dominado por el concepto del elemento inquirido» (Fontes 18, 360). Itzuletara, Basterretxeak ere bere egingo luke arrasatearraren ideia hau: **biyar árte** ahoskera, paroxitonian eta /r/ dardarkaria gabe, [biyarárte] alegia, «pronunciación a la castellana» dela (ik. «Acento Vasco», 46).

Bi ikerlan horiek, halere, irizpide desberdinak ematen dituzte zenbait punturi buruz. Jakinaren gainean aipatzen dira liferentzia horiek: «discrepo en este punto y en otros de mi admirado y llorado maestro» (*Basterretxea*, Fontes 18, 361).

4.2.1.2. *Altube*-ri gagozkiolarik, beraz, hau iruditzen zaigu: Arrasateko euskaltzale ospatsuak erabili zuen hizkera esoteriko xamarrek, bat baino gehiago atzeratu duela. Alde batetik, gregoriar kantuaeren mintzaira erabili zuen (podatus, porrectus, clivis liquescens, etab). Hots, hiztegi horren egokitasunaz (zein desegokitasunaz) berak ere bere zalantzak bazituen: «hay alguna incongruencia en la aplicación de los nombres de los 'neumas' de la música gregoriana». (Ac. V., 79, 1).

Bestetik ere, halako hizkuntza hanpurusa erabili zuen: «elemento post-inquirido uni-vocabular, miembro pluri-vocabular extenso, tonema declinado e indeclinado», etab.. Ideien ulerkuntza zailtzen dute hitz horiek. Eta gaur bertan ere, hitz-multzo gorapilotsu eta arrotz horren aurrean, halako nagikeria-edo sortzen ez ote den zalantzan gaude. (Beste maila batetan, L. Hjemslev-en obraren aurrean gertatu den bertsua).

Bere ideien laburtzapen bikain bat egin zuen Altubek berak handik urte gutxitara, berriki Azkue-ren «Morfología»-ren hirugarren alean erabilitako hitzik bitxienak alde batera utzi zituen. Irakur errazagoa da, beraz, gerozko bilduma labor hori, hastapenetako liburu mardula baino.

4.2.1.3. Basterretxea-ren lanean askoz txikiagoa da maila horretako zailtasuna. Adibide bakar bat aipatzekotan, eman dezagun «histeresi» hitza. Hitz honek, eman dezagun, ez ditu injinadorea eta fisikaria harrituko. Areago: magnetismoari datxezkion fenomenoak idarokitzen (noizpait ikasiak, nahiz gero ahantziak), hitz hori, eta kasu horretan noski, argitzaile gerta daiteke. Hiztegi teknikoan nekez hauta liteke hitz egokia-gorik (Fontes 21, 337). (Gauza bera gertatzen zen agian orain dela urte batzuek gregorianoari buruz; baina gaur ez).

Eman dezagun **tálde** hitza, (M+1) markatua; eta **táldea**, beraz, singularrean. /de/ hori tonu apalean datorrenez gero, -a ere tonu apalean joango da. Eman dezagun orain, itzuleta, *txoko* hitza, (-M), ez-markatua. Singularrean, hortaz, /ko/ silaba tonu altuan joango denez, -á ere tonu goran ahoskatuko da. -a horren tonu-maila, ikus daitekeen bezala, *izen-enborraren azkeneko silabari* datzekio. Halako histeresi-ondorioa bide du bere tonua (bere maiztasuna). Gauza oso garbi gelditzen da; baina teknikari ez direnak, beharbada hitz horretzek hoztu ko ditu.

4.2.2. Hastekotan, beraz, bi ikertzaileengan halako eralgiketa egiten badugu; eta, dotorea ez izanik ere, parterik ahulenak kritikatzetik hasten bagara; hauxe izan bide daiteke biderik praktikoena eta errazena.

Hasteko, beraz, *azentu-entonazio* bikotea berezkiago eta zehazkiago ez erabiltzea kritikatu behar da. Argi xamar dago, bestalde, Basterretxeak «azentu» hitzaren atzean, *maiztasunezko* azentua duela gogoan; alegia, melodi-hegia (idazpuruan «entonación» deitua). Gaurko hiz-

kuntzalaritza literaturan *azentu* hitzari, *azentu-unitatea* dagokio; izen edo aditezko *enborra*, beraz (gazt. «tema»), baina beronen *klitikoez* batua. *Entonazioak*, berriz, *esaldi osoaren melodi-hegia* du ikeroinarriztat. Esaldi horrek, hori bai, 19 silaba izan ditzake; edo-ta 12, 5, 3, 2, are bakar bat ere.

- 4.2.2.1. Berrero ere orain *Altube*-ri gagozkolarik, zalantzako puntu batzu daude. Gauza garbia da, adibidez, bizkaitar batek *órrek?* galdera-entonazio goranzkoan ahoska dezakeela; nahiz-eta /rrek/ silabaren gaineko tonu-oxitonia horri derrigor pertzepzio-mailan azenturik ez erastea. Intentsitatea eta maiztasuna (edo-ta pertzepziozko beren bi ki-deak, «loudness» eta «pitch») *ez doaz beti* batera eta silaba berberaren gainean. Ikerlan honen prestakuntzan erabili diren oszilogrametan ikus daitekeenez, *ez doaz batera beti*; baina bai *eskuarki*. (eta, dirudie-nez, oraino ere areago euskaraz, gaztelaniaz baino). Peter Ladefogeden hitzez arazo hau aurkeztekotan: «the tonic accent *often* occurs on the last stressed syllable in a tone group. But it may occur *earlier...* a stresses syllable is *often, but not always*, louder than an unstressed syllable... It is *usually, but not always*, on higher pitch». (A course in Phonetics, 93, 97).

Bestela esanda: *estatistikoki* egia da unitate berberaren barruan *silaba bera* dela *gorena eta azkarrena*. Eta hau areago hizkuntza batzutan bestetan baino.

Altubek egindako ahalegina, beraz, bi azentu-mota horiek («impulsivo» delakoa eta «melódico» delakoa) berezteko, eta ia sistemakiro *silaba desberdinetan* aurkitzeko, erratzera eraman dezake gehienetan; eta nolana ere pertzepzioa zailtzera. Hiztunaren alderditik juzkatua, *indar* handiago somatu uste du honek azentuan («the speaker expends *more muscular energy*», Ladef. 223); eta indarraldi horrek, azentudun silaban laxatua, batera eta nahasian («en vrac» dio Garde-k) dakartzat bai intentsitate akustikoa, bai maiztasuna eta iraupenaren emendioa.

Ladefogedek proposatutako frogateka (223) aisa egin daiteke: pareta baten kontra zutik jarri, eta tonu aldakaitz berean bokale bat ematen hasi, segundu batez, bigaz, hirurez... Lagun batek, horretan gaudenean, sabela bapatean zapal beza. Ondorio fonetikoa garbi agertuko da: ahotsa azkarrago bihurtuko da, eta nota zorrotzago. Hitz batez, bokale hura batera gertatuko da azkarrago eta zorrotzago.

- 4.2.2.1.1. Beste *berezko* faktore batzu badaude, gainera, intentsitatea azentuaren kakoa izan ez dadin.

Batzu *akustikari* datxezkie. *Espektroaren mota* da horietako bat: maiztasunak abzisetan, intentsitateak ordinatutan. Espektror «trinkoa» duten bokaleek (orain R. Jakobson-en balioaz darabilgu «compact» hitza), espektror «laxo» edo zabaldua duten bokaleek baino *energia akustiko* handiago dute. Fisikari datzekio hau, eta gaingitu ezinezko faktore bihurtzen. Alderdi honetatik, beraz, galtzaile gertatzen dira

ezinbestean muin silabikotzat /i/ edo /e/ duten azentudun silabak. Espektroen energia akustikoak [w/cm²]-tan batu daitezke espektro zerrindatan barrena; baina dagozkien intentsitateak ezin daitezke batu. Ez dago, bestela esanda, fisika-linealtasunik [w/cm²] eskalan baizik.

Eta, besterik, balio *fisikoak batetik, eta dagozkien pertzepziozkoak bestetik*, ez daude linealki lotuta. Distortsioak daude beti, eta egongo. (Ikus, adibidez, W. Seto-ren «Acoustics» liburuan, 6.kap., 139; edo Akustikari buruzko beste edozein eskuliburu).

Beste faktore garrantzitsu bat oraino: bokale zabal batek, /a/-k eman dezagun, birika-aire isurketa handiago du, /i/ itxiak baino. Bestela esanda, energia handiagoa ere bai. Eta horrek *anplitude* handiago dakar (eta oszilografoaren lumaren mogimenduetan agertzen da). Hots, intentsitatea [w/cm²]-tan neurtua, airearen oszilazio fisikoen anplitudeen maiztasunen karratuekin doa. Intentsitatearen pertzepzioan, horretara, zuzendu ezinezko distortsioak gertatzen dira; eta beraren jabe-kuntza fisikoan ere bai.

Hori guztia dela bide, gero eta maizago funtsatzen da azentuaren pertzepzioa, lehenengo hurbilketan behintzat, *maiztasunaren gorabeheretan* (ik. O. kap., Sarrera).

Euskararen kasuan, osoki egindako frogaketa falta bazaigu ere (agian aurki, Deustuko Laborategia dela bide), kasu bertsua dela pentsa daiteke: «En nuestro caso, por lo tanto –dio Mitxelenak– las diferencias, si existen, serán *ante todo diferencias de tono*» (Fon. Hist. V., 580).

Eta honi buruz ezin interesgarriago da Pello Salaburuk, Boston-go M.I.T.-an Morris Halle-ren laguntzarekin, prestatu duen Tesian kondatu duena. Hallek, euskal banda magnetofonikoa aditzean, *maiztasunaren* aldetik goikoak ziren silabetan entzun uste zuen azentua. Automatismo hau, gaurko fonologiaririk handienetako batengandik etorri-rik, ezinago garrantzitsu iruditzen zaigu. Ik. N.4.2.2.1.1.

Basterretxeak, oharkabez edo oharrez, Altubek baino garrantzi txikiagoa eman die azentu-motei. Eta hau, nolabait esateko, «modernoago» gertatzen da antzinako hirutasun teoriko haiek baino.

- 4.2.2.2. Basterretxearen bi baiespen faltsuei dagokienez, berriz: alegia, a) Errenderian singularra eta plurala azentuaren bidez berezterik ez dagoela; b) «euskal» eta «europar» entonazioen artean desberdintasuna badagoela; Mitxelenak azaldutakoari ezer erantsi beharrik ez dago. Mitxelenak du egia.

Baliteke bi hutsegin horien iturburuan Altube bera egotea. Sinetsita zegoen arrasatearra ideia honetan: *fonema-sekuentzia bati*, beti ere euskaraz azentu eskema *bat eta bakarra* datxe kiola. Hau dela bide, ez bide zuen oso sinesten bukaera *zuzena* (sg.) / bukaera *beharazkoa* (pl.) euskaraz *oso zaharra* izan zitekeenik. (Eta hau, egia esan, eta ikusiko dugunez, egia da funtsean; baina bestelako arrazoiengatik, eta

«zaharra» zer den zehazki esan gabe). Altuberren iritzia nolabait azaltzeko, honelako zerbait esango genuke: ez zitzaiola liferentzia serio iruditzen; eta ez bide zuen sinesten «zenbait bizkaiera motatatik at» oso zabaldua izan zitekeenik (86).

Basterretxeak ez du arazoa horren zabalera medarrean ikusten; eta Gipuzkoan ere gauza bertsua gertatzen dela uste du. Baina haren irakasleari (Altuberi, beraz) «berri xamarra» zitzaion bilakaera hark, Basterretxeari ere, bide beretik, Erreteriaraino ere iritsi zenik ez zuen uste. Nahiz-eta Holmer-ek zenbait urtez lehenagotik besterik erakutsi: **gizónai eldúzion**, sg./ **gizonai eldúzioten**, pl., adibidez (El Idioma vasco hablado, Erreteriko Aurelia Jáuregi informatzaile, 1964; 38). Azentu desberdinketa horren egiazkoa gogorki baietsi zuen Mitxelenak, sortzez eta bizilekuz erreteriarra.

- 4.2.2.2.1. Gaur, ordea, pluralaren bokale geminatu zaharren *bi eboluzio besteratzailleek* azaltzen dute, hain zuzen, euskal azentu moten arteko erdibiketa nagusia; eta «atzokoak» ez direla pentsa daiteke, nahiz eta agian oso antzinakoak ez izan.

Beste nonbait ere erakutsi dugunez, Ekialdean, azentua sortu du bokale-laburketak unitatearen eskuin aldean: **gizonék**; baina Mendebaldean, luzeraren galeraren konpentsazioz, eta beste zenbait hizkuntzatan bezala, *ezker* aldera lerratu da azentua, besterik gabe: **gizonak**, erg. pl. Euskal azentuaren zisma hori ez da puntu horretan bakarrik gertatu: gogoan har dezagun, adibidez, diptongo goranzkoen izatea, Ekialdean; vs. ez-izatea, Mendebaldean. Mendebaldeko euskalkietan, nolabait esateko, badirudi *edozein* fonema-sailetan, azentua ezkerretan doala; Ekialdekoetan, berriz, orain dela «gutxiz geroztik», eskuinetan doalarik (Baztanera eta ultzamera, alderdi honetatik, nahiz Printzearen iritziz Ipar-nafarreraren atal izan, ekialdetar euskalkiak dira).

- 4.2.3. Basterretxeak proposatutako *lau* tonu-maila horiei dagokienez, berriz, ez da gauza ageria lau direnik, hain zuzen; eta ez hiru, edo bost.

- 4.2.3.1. Halaz ete guztiz ere, gaurko euskararen prosodia zertan datzan ulertzekotan egin diren saioen artean, leku aparta dagokio Altuberi. Zehazki bildutako datu fonetiko pilo bat dago bi ikerlan horietan (gauza bera esango dugu Basterretxeaz); eta, nahiz hipotesi desberdinak baliatzeko bada ere, erabilgarriak dira oso.

Oharrak

- N.4.2.1. Oroitaraz dezagun lapurtera eta baxenabarrerari buruz, Gavel-ek idatzi zuena: «ils n'ont pas d'accent bien déterminé».

- N.4.2.2.1.1. Horri buruz hau idatzi du P. Ladefogedek: «a much more important indication of stress is the rise in pitch» (A Course in Phonetics, 223).

4.3. Mendebaldeko azentua: II

Gorago esan denez, Altuberen «Acento Vasco» lanaren balio nagusia hau da: euskal *entonazioa* datxezkion fenomenoetan *sintaxiak* duen oinarria; eta bidenebar baizik ez dela azentuaz arduratu.

Hots, Altubek, funtsean, hiru *entonazio-mota* berezten zituen: a) *baiespenari* dagokion *entonazio laua edo ordeka*: sintaxiaren ikuspuntutik, «galdegai», «foco» edo «elemento inquirido» delakoari datxekiona; eta sintagma honek lau silabatatik gora duenean, nabarmen eman ohi dena; b) *goranzko* entonazioa, eta berezikiago, *goranzko amaikoa*. Altubek, honentzat, eta ortografiaren mailan, *apostrofo gora* eskatzen zuen. Apostrofo horrek ahotsaren melodia jaso behar dela adieraziko lioke irakurleari. Sintaxiaren aldetik, *galdegaiaren aurreko* elemendua litzateke hau: erdaraz, «elemento ante-inquirido». Eta c) *beheranzko entonazio-mota, hirugarrenik, sintaxiaren aldetik, galdegaiaren ondoko* elemenduari dagokio (ed. «elemento post-inquirido»), horrelakorik dagoen esaldietan, jakina. Tonu *apalekoa* da, *azentu-erliebe leunekoa*, eta melodi beherakada batez amaitu ohi dena, gutxienez *tonu apaleko bi silaba* sortuz (horretarako silabarik aski dagoenean). Hauxe da *kadentzia*.

Horra hor Altuberen uzta nagusia.

4.3.2. Izenda ditzagun orain honela sintaxi-atalak:

F: fokoa, edo galdegaia, «elemento inquirido».

P: galdegai-aurreko elemendua, «ante-inquirido».

E: galdegai-ondoko elemendua: «post-inquirido».

Eskuarki, entonazio-bidezko azentudun silaba hauek izango ditugu:

F (+2, -1), aurkako arrazoirik ez dagoen ber. (+2) hori azentuketa normalea da lehenengo azentu-unitatean. Lehenengo hitza (M+1) markatua baldin bada (*tálde, séme, máisu*, etab.), eskema hau izango da; (+1, -1). Baina eskuin aldean plural bat baldin badugu, (-3) izango dugu eskuin aldean. Gerta daiteke, era berean, F horretan silabarik aski ez egotea; eta, beraz, eskema desitxuraturik gertatzea.

P (-1): anti-kadentzia. Bukaera goian, are oxitonian ere (zerrendaketa, eman dezagun). Azentuaren aldetik kontrako arrazoirik ez den ber (plural bat, eman dezagun), (-1), azentua eskuin aldean (eta apostrofo Altuberen grafian).

E (-3): posible delarik, bukaera behean. Beti ere (-2) edo (-1) azentua beste arrazoi batzuk bultzatzen ez duten ber. Kadentzia, beraz. E honetan azentuaren indarra edo gailentasuna apaldua bada ere, azentudun silaba, F-an bezalatsu, (+2) izateko joera dago.

4.3.3. Ahosketa isolatuan, eta baiespen hutsean, Altubek beti silaben *isotonari* eusten badio ere; eta euskal azentua *morfologiatik at* dagoela uste badu ere (hein batez egia), «podatus» delakoaren orokortasuna hartzen du oinarriztat azkenean (bestela esateko, azentu-unitatean, (+2) azentuketaren nagusigoa). Bide beretik, eta trisilaboetan, «porrectus» delakoaren orokortasuna ere proposatzen du; gipuzkeraren ahoskera jatorra azalduz: **mámiyá, éderrá, txóruá, zérriyá, méndiyá**, etab. Eta, azkenekoz, bere ama-hizkeran bertan nonbait, *bi balio semantiko* azentuzta daitezkeela aitortzen du: **órrek/orrék; áren/arén**; etab.

Hori dela-ta, eta benetako azentuari buruz oraingoan, oinarrizko eskema hau onartzen du; podatus-a azkarrago zein ahulago izan daitekeelarik, haren ustez:

\$	bái
\$\$	gosé
\$\$\$	jábetú (gazt. «ya ves tú»)
\$\$\$\$	datózelá
\$\$\$\$\$	Zumárragará
\$\$\$\$\$\$	zazpietarakó

Alegia: (+2, -1) *eskemaren arauera* (hiru silabatakoak salbu).

F atalean, galdegaian alegia, bete-betean mamituko da eskema hori; baita, leunkiago bada ere, E atalean ere, anti-kadentzian alegia, oxitonoak sortuz.

4.3.3.1. Silaben pisuak azentuari buruz daukan garrantziaz Altubek berak eman zituen ideia batzu (berak «consistente» eta «inconsistente» deituak). Nahiz xehetasunetan «consistencia» hori zuzena ez izan, erabat dator funtsean gaurko Fonologia Metrikoaren ildotik: «adartzen» diren silabak («branching»), koda hutsa eta koda ez-hutsa, etab.. Eman dezagun hitz ilara hau: *jabe, jarduna, jaurti*. Ezkerretako «consistencia», handituz doa sail horretan; eta Altubek egia zuen. Gauza bera hau esaten zuenean: **amár** eta **atór** hitzetako podatusa, **zazpi** eta **zortzi** hitzetakoa baino azkarragoa dela. Eta hori guztia, Altuberen ustez, haserako (ezkerretako) lehenengo silabaren fonologi-egituraren arauera.

4.3.3.2. Altube ez zen fidatzen, bestalde, (+3), (+4), eta abar, azentuketa paroxitonoez; eta honetan batera dator Basterretxea ere (eta egian daude, gure ustez). Ahoskera horietan, orain dela gutxiko interferentzia eta erdal eragina somatu uste du (191); eta paroxitonia horiek, beraz, erabat onartu ezinezko zaizkio.

4.3.4. Aditzari buruz, berriz, eta erruz laburtuz, eta Basterretxeagana pasa aitzin, aditz trinkoek (+1) azentua hartzeko joera dutela uste zuen; honetan Larramendi-rekin bat datorrelarik. F-ren ardatza aditz horietako

bat denean, itxura bereziak eman diezazkioke horrek. Agintekera, be-
rriz, oxitonoa da: **betór, datorrelá, atóz, guazén** (observ., 210).

- 4.3.4.1. **ez-, ba-** eta **bá-** aurritzkiei buruz, ohar zuzenak egin zituen (parte batez bederen); nahiz hirugarrenari dagokionez, eta P galdegaiaren aurreko atalean joan ohi denez, ondorio eztabaidagarritara iritsi bazen ere. (Puntu honi buruz, askoz ere zehatzago agertzen zaigu Basterretxea).
- 4.3.5. Altuberan ohar fonetiko hutsak, zuzenak izaten dira askotan. esate batarako, *sartu*-ri buruz ondoko proportzio hau proposatzean:

sártu (a la españ.)	=	alto
sartu (a la vasca)		sal tú

(Ac. V., 49)

F + E, FE-ren *tonu-gesaltzearen* ideia («fusión tonal», erdaraz), oso ideia emankorra; eta orain arte esan guguna frogatzeko, aski da «Observaciones» -ean datozen adibide guztien azentuketa asmatzen saiatzea.

- 4.3.6. *Basterretxea*-ren lanak, zuzendu eta osatu egiten du Altube-rena. Askoz ere irakurr-errazago zaió irakurleari. Gorago ere aipatuak ditugun puntu eztabaidagarriak alde batera utzita, orain arte *mendebaltar azentuaz* gaur dagoen *deskribaketarik hoberena* da.
- 4.3.6.1. Lehendabiziko puntua: azentuari buruz dagoen dikotomia. Alde batetik, *singularra / mugagabea / toponimoak*; geure hizkeraz esateko, elemendu *markatu-gabeak*. Bestetik, berriz, *pluralak*, eta *markatuak* beraz. Benetan *markaduna*, hitz batez (eta bestetarik ere uler daitekeen), *plurala* da; eta beronen *beheraketa*. Bitxi gertatzen da leku-izenak erregularrak izatea, Basterretxearen ustez; eta pertsona-izenak ez. Azalpen bakarra berehala dator gogora: leku-izenak geuk jarri ditugu; famili izenak, berriz, Udaletxeetako sekretarioek eta gainerako instituzio arrotzek «irakatsi» dizkigute...
- 4.3.6.1.1. Pluralari dagokion beheraketak *bi silaba apal* behar ditu, Basterretxearen ustez; eta, beraz, *hiru* silaba (edo-ta gutxiago) dituzten unitateen plurala, ezinbestean, irregularra da. Honegatik, eta analogiaz ere, antzinako **gizonak** erregularrari, podatus egiteko joerak [(+2) markatze-koa, bestela esanda] belaur berrian **gizónak** bide Erdiko plurala ekarri berri du; eta sing. erg. **gizónak**-ekin nahasteko arriskua dago.
- Beste alde batetik, eta singularrari dagokionez, **Errigoiti** azentukera normalarekin, bukaera zuzenean (+2, -1), **errigoiti** proparoxitonoa ere aurki daiteke. Hau dela-ta, *singularrean* eta kideetan, *hautazko* (= «opcional») iruditzen zaió Basterretxeari beheraketa.

(+2) azentukera hori, jadanik esan dugunez, erdaratikako izenetan ere nagusitzen da: **Bartzelonà, Zarágozà**, etab..

- 4.3.6.2. Basterretxea, beraz, (M+1) *makatutako* terminoen izateaz jabetu da osotara, halakoak «protótono» bataiatuz; eta horrez gain, beroien zerrenda bat eman digu: **áztea, áurrea, égia, éraa, gánea, kántua, kínua, kóntua, lékua, mállua, píllua, táldea, táloa, txánoa, txístua**.

Ikus daitekeenez, lerrokada horretan aurkitzen diren bisilabiko asko, beste kapitulutan emango ditugun lerrokadetan ere aurki daitezke. zerrenda bakarra da funtsean euskalkietan barrena.

Horrez gain, **déia** silababakarra dator (ik Fontes 19, 385-387), dipton-gatua; baita mailebu berri mordo bat: **bánkua, bárkua, béntaa, bótoa, éjea, fórraa, jéfea, klásea, létraa, mítina, sústoa**, etab.. Adjektibo markatuak ere, plegu berekoak dira: **bástua, lélua, lélena, lóitia**. Ia-ia denak, nabarmen denez, mailebu berriak dira, integratu gabeak.

- 4.3.6.3. & 48-an Basterretxeak *-tu* eta *-tze* aditz-atzizkiak beheranzkoak direla ohar-eraztean, zuzen mintzo da. Erro silababakarretatik datozen adizkiak oro, (M+1) zaizkio: **hártzea, háustea, háztea, ástea, béítzea** (=begiratzea), **déítzea, míntzea**, etab.. (291. orr.).

Gainerakoetan (+2) da azentua.

- 4.3.6.4. Aurritzien tonu-azterketa guztiz interesgarria da, baina hemen xeheki hura bere errepikatzeak ez luke sentidurik. *-txu* atzizkia aipatzean tonu apalekoa dela azpimarratuko dugu bakarrik.

Beste ikertzaileekin batera, edutezko adjektiboaren **-ré** silaba azentuduna dela uste du (+2, beraz); baina pluraletan, aldiz, *-en* hori atono edo tonu apalekoa dela: **zúen, áreen**, 297.

Zorrotza da, era berean, **neréak** (erg.sg.) vs. **néreak** (pl.) formen artean aurkitzen duen desberdintasuna; lehenago ere (ik. 4.8 kap.) Larramendik seinalatua. Maizago aipatua, eta zuzena ere bai, erakusleen artean gogoratzen duen liferentzia.

- 4.3.6.5. Bigarren partean (310 etab.) sintaxiari buruz Altubek zituen ideiak biltzen ditu; eta dagozkien entonazioak modu errazago batez adierazten. (310-311 orrialdeetako adibideak ezinago argitsuak dira).

Era berean, zehatzak eta zuzenak (317 etab.) aditz trinkoari buruz egiten dituen oharrak.

- 4.3.7. Basterretxeak egindako ohar bat pisugabe bide zaio ikertzaileari; baina guztiz garrantzizkoa da gure ustez. Berak emandako adibide bat azaldu nahiz (**han dátór**), hau dio (321): «Todas las flexiones (= sintéticas) que estamos estudiando, excepto las de imperativo –que con las del supositivo del condicional, son las únicas que pueden dar principio a la frase– cuando van precedidas de un monosílabo (azpimarraketa gurea da)

pueden entonarse de modo que *el conjunto monosilabo-flexión siga el tonema regular de singular*» (321).

Gure ustez, erabat kausitu du egia Basterretxeak lerro argitsu horietan, garbikiegi monosilabo horien klitikotasun *fonologikoa* azpimarratu ez badu ere. Zeren-eta silababakar hori *fokoa* ere bada, eta *tonu apalekoa* halere (ondoko erdaretatik beste muturrean). Larramendik ere xuxen ikusi zuen hau, orain dela bi mende oso; gero ahantzi badugu ere: *ez-*, *ba-*, *al-* eta abar, proklitikotzat zeuzkan hark ere. Ondoriozko unitateak (+2, -1) azentuketa *normala* jasotzen du; monosilaboak berea galtzen duelarik. (Eskuin aldeko atal horrek, (-2) edo (-3) azentua behar ez nadu).

Hots, gaurko gipuzkeraz ere, normala da ondoko hau entzutea: **ordáukak orí** (= hor daukak hori). *Or* hitza proklitiko bihurtu da hor; *ez-* eta *ba-* bezalaxe. Hauxe da gaur sinetsi nahi ez duguna (erdal interferentziek jopu bihurtu gaituzte-ta). Basterretxeak arrazoi du (& 154); Holmer-ek ere, bide beretik, arrazoi zuen bezala.

- 4.3.7.1. Baldintzazko **bá**-markatuari, *alderantziz*, ez zaio gauza bera gertatzen; eta klitiko-kuntzarik ez dago. **Bá**- hori markatua da, (M+1), Holmer-ek (eta beste aldetik Zamarripak ere bai) argiro ikusi zuenez. Honetan ere Basterretxeak argiroago ikusi du arrazoa bere maisuak baino.

Basterretxearen lana, beraz, gure ustez, zuzena eta zehatza da alderdi askotatik; eta gaur arte esan izan diren aurriritzi askoren kontra mintzatu da. Haren lana, beraz, behar diren zuzenketak erantsiz, hori bai, «tipo I» deritzon azentu-moldea aztertze-kotan eta zedarritze-kotan, edozein aurrerapen-erako *abiapuntu* hartu behar genuke.

- 4.3.8. Basterretxearen ikerlanak gaur arte jasan duen isilaldiak, gaitzeko zuzengabekeria izan dela iruditzen zaigu; eta Fontes-en argitaratutako kritika, puntu batzutan zuzena izanik ere, erabat gehiegizkoa, gure ustez.

4.4. **Gipuzkoa-ko bizkaiera** (Oñati eta Antzuola)

«Julio de Urquijo» Euskal Filologi Mintegiak bere *Urtekaria* eskaini zuen 1970 urtean (IV. lib.) «*Vocabulario vasco de Oñate-Aránzazu*» delakoa argitaratzeko: 209 orrialde, sarrera eta hastapen-oharrak kenduz gero. Lan horretan, hanartean ohizkoa ez zen zehaztasunez, bi izen-unitateren azentua markatu zuen (mugagabeen eta singularrean), are plurala ere askotan.

Bi urte lehenago, eta Urq. Urtekari berean, Gipuzkoako bizkaierari buruz argitara zuen egile berberak beste iker-lan bat, ordukoan *Antzuola*-ko hizkera gaitzat hautatuz (Bergara ondoan); eta hizkera hori eta egilearen ama-hizkera (*Urretxu*-n jaioa bera, gipuzkeraren eremuan) hemendik eta handik alderatuz. Lan honetan ere azentua markatu zuen *K. Izagirrek* (An. Sem. J. Urq. 1968; 49-71); eta hauxe da Gipuzkoa-ko bizkaierari buruzko lan hau egiteko hautatu dugun materiale fidagarri eta garrantzitsua.

Lan horietan dauden hutsuneak kontutan hartuz ere (deklinagarri ez diren lexemez, eta aditzaz, ia ezer ez dago), hizkera hauetara hurbildu nahi izanez gero, Izagirrearen ikerlanettaik hasi behar dela iruditzen zaigu.

- 4.4.1. Gaztelaniaren azentua azkarra da; batez ere euskararenarekin alderatzen bada. Normala da, beraz, gaztelaniazko mailebuetan, baita antzinako batzutan ere, jatorrizko azentu-moldeari eustea; eta, hitz batez, unitate bitxi eta markatutzat mailebu berri horietxek azaltzea. Estatistikoki bederen hori egia da. (N.4.4.1.).

Azentu-integraketa, nolana ere, azentu-posizioaren aldaketaz, bertako toponimoen ahosketan nabaritzen da; eta horietan ez-eziz izen arrontetan ere ageri da. Hona hemen Oñatiko adibide batzu: **errónbilleta**, 103 (= ramilléte); **idúlentzi**, 218 (= indulgencia); **filígero**, 112 (= jilguéro); **irrínkue**, 135 (= rincón); **errézero**, 102 (= raséro); **errémentari**, 102 (v. herramiénta). Horietan ikus daitekeenaz, hiru silabatako unitateetan (edo gehiagotakoetan) nagusi den (+2) azentua nagusitu da; are jatorrizko erdal moldeari gailenduz.

- 4.4.2. Aditz-izenari buruz, hobe du irakurleak 3.2 kapitulua irakurri. Han dago funtsezkoena; eta, beraz, ez dugu hemen errepikatuko.

- 4.4.2.1. *Oñatiko* hizkerak (gaurko mendebaltar ahoskera ertainaren plegukoa, azentuaren aldetik), eta *Bergarakoak* (Arratiako hizkeratik hurbil alderdi honetatik) elkarrekiko dituzten desberdintasun nabarmenak, tartean kilometro gutxi egon arren, ez ditugu hemen aipatuko. Azentuaren alderditik, egia esan, desberdintsunei buruzko oharrak egin daitezke ia-ia edozein hizkera-bikoteri buruz: Azpeitia eta Azkoitiaren artean, eman dezagun; edo Mutriku-Ondarroa, etab.. Baina baita euskal-

ki eta azpi-euskalki beraren barruan ere. Eta hortaz, edozein ohar orokorrekin (eta honekin ere bai) gehiegizko zabalkuntzatan, eta zehaztasun puntualekiko hutsetan, erortzeko arriskutan gertatzen da. Funtsean, eta azentuaren ikuspuntutik areago, ez «Gipuzkoako bizkaierarik» dago osotasun trinkoan, ez besterik ere. Euskararen geografian barrena *konstantea* dira, hain zuzen, leku batetik besterako desberdintasun eta bukaerarik gabeko ñabardura-sail horiek.

Segidan emango ditugun bi zerrendatxo hauek, urri izanik ere, adierazi nahi dugun horren argigarri gerta daitezke. Ezkerretan *Arantzazuko* forma dator; eskuinetan, *Antzuola*-koa. **aískória, áiskoria / áizpia, aistía / lekúa, lékuba / intxáurra, íntxaurra / puxíka, púxika**; baita beste anitz ere, elkarrekiko azentu aurkaritzan.

- 4.4.2.1.1. Egia esan, are handiagoak ere badira *Antzuola*-tik (B) *Urretxu*-ra (G) dauden azentu liferentziak: **amorráíña, amórraia / arakáiztu, arákaiztu**, etab. Baina hemen euskalki mugaz bi alderdietan gaudela bagenekien. Antzuolan, ikus daitekeenez, (+3) azentua ageri da (Eibar edo Bergaran bezalatsu).

Hots, azentu-mota hori «onartu-ezina» zitzaien Altuberi; nahiz hau, Arrasaten sortua, handik hamar bat kilometrotakoa izan... Inguru hartan, ordea, azentukera horrek (+3, +4, esan dezagun), ez du inor harritzen; eta Eibar-Bergara eskualdeari buruz egiten dugun ohar hau, arratiari buruz ere egin liteke.

Hona hemen, adibidez, Antzuolan jasotako unitate hau, erabat «arrotz», edo «ekialdetarra» bederen, azentuaren aldetik: **korospe-rretxikúa**, 61 (= ziza bat). Paroxitono hori, (+7) da!

- 4.4.2.1.2. *Urretxu*-ri buruz, eta hau seinalagarria da, (+1, -1) azentu-eskema aurkitzen da, gipuzkerazko porrectus-aren arauera; *Antzuola*-tik urrunduz batzutan: **jórraía**, Urr.; **jórraixa**, Antz. / **áapiyá**, Urr. (= habia); **ápixia**, Antz.. Batzutan, bimorfismoa dago Antzuolan bertan, bertako hizkera Ezkarraga-ko mendatean gertatzen baita mugakide: bai **néurrixá**, bai **néurrixa**.

- 4.4.2.1.3. Beste puntu bat azpimarratu behar da (batez ere Hego nafarreraz gertatzen denaz oroitzuz, 5.2. kap.): guztiz maiz gertatzen direla, kilometro gutxitan (are leku berean ere, *neurri* horretan erakutsi dugunez), silaba markatu desberdinen arteko tartea *hain zuzen ere 2 izatea*: **érrekía**, Urr.; **errekía**, Antz. Bigarrenak «ekialdetar» kutsua du. Hots, Eibar-ko jendearekin hitzegitean, askotan dirudi **érrekía** entzuten dela; bi silabatako tartea hor dagoelarik. Aski da eskuinaldekoa nagusitzea, «ekialdetar» kutsua gerta dadin; eta, alderantziz, (+1) silaba azkartxoago sendituz gero, «mendebaltarra» dugu. Hots, *bi* silabatako tarte hori, lan honetan behin eta berriz agertzen denez (eta Fonologia Metrikoaren *oin bisilabikoa* lekuko), oso maiz gertatzen da euskaraz.

Hots, eta hau azpimarragarria da, Oñatiko Hiztegiaren 200 orrialde-

tan barrena, *behin ere* ez da (+3) edo (+4) azenturik gertatzen. Mendebaldean gaude erabat.

Salbuespen bat badago, egia aitortzekotan: 47. orrialdean, *Bergara*-ko informatzaile batengandik, Aita Izagirrek sintagma hau transkribatu du: **Bergaráko lagunartían**, (+3) eta (+4) posizioetan: Eta hor Bergaran gaude, ez Oñatin.

4.4.3. Gorago aipatua da, oso maiz gertatu ohi den mailebu berrien integrazioerik eza.

Hots. Oñatiko euskaran badaude benetan harrigarri diren azentu-bikoteak:

sóro / **sórua**, 217 (= zoru) // **sóro** / **sorúa** (= zoro)

Integratutako hitzetan, euskal altxor zaharrekoetan, singularrera pasatzean aldatu egiten da azentuaren posizioa; mailebuetan, berriz, azentua ez da lekuz aldatzen. Ezkerretako terminoa *markatua* da (M+1); eskuineko *markagabea* (-M).

Hona hemen horrelako bikote batzu:

báso , básua , 74 (= edateko)	/	báso , basúa , 74 (= oihana)
ásta , ástia , 64 (= kirten)	/	áste , astía (= aste)
úso , úsua , 242 (= ohitura)	/	úso , usúa (= txoria)
txístu , txístua , 69 (Antz.)	/	txístu , txistúa (= tu)
óta , ótia , 195 (= oilat.)	/	óta , otía (= landarea)

Ohar bat egin behar da mugagabeari buruz: euskaraz oso gutxitan erabiltzen dela bakarrik; eta, hori dela bide, singularraz eta pluralaz bizkaieraz (eta gainerakoez) finkoki mintza badaiteke ere, mugagabeen zalantzak eta liferentziak gertatzen direla bizkaieraren beraren barruan. Geroago ikusiko hau.

Izagirreraren zerrenda horietan ez badator ere, hona hemen bikote hau, bizkaieraz ongi ezaguna:

mándo, **mándua** (= aginte) / **mándo**, **mandúa** (= abere)

Ironiaz esan ohi denez, **mándo**a adjektiboa onar badaiteke ere, iraintzat hartu behar da **mandúa** entzutea...

Zalantzazko bikote horiek guztiok, *silababikoak* dira. Eta hau oso adierazgarria da; bi azentukera gertatzen den sail bakarra horixe delako. (N.4.4.3.).

4.4.4. Beste puntu eztabaidagarri bat: *bat* unitatea. Bizkaiera mota honetan, eta eskuarki, zenbakaritzat hartzen bide da **bát**; eta ez klitikotzat: **-bat** ez dagoela dirudi. Hau dela-ta, **bát**-ekiko unitateak, edo sintagman hobeki esan, *pluralarekin* eta gainerako *mugagabeekin* batera doaz, azentuaren aldetik. Hau da, posizio-aldaketarik gabe. Beste modu ba-

tera esateko: *gizon bat*, hizkera honetan, *gizon# bat* balitz bezala senditzen da, eta *gizon bát*, beraz. *Gízon# bát* ez doa, beraz, *gizón+a*-rekin; *gizonak* pluralarekin baizik (*gizon+ak* ala *gizon#ak* arazoa alde batera utziko dugu oraingoz).

Euskalki honetan *gizóna* singularra berez doa; eta *gízon* mugagabea, *gízon bát* zenbak. eta *gízonak* plurala elkarrekin. Beste bizkaiera motatan, ikusiko dugunez, ez da hori gertatzen; eta *gizóna gizónbat*-ekin joan ohi da (are *gizón* mugagabearekin ere); eta plurala da markatu bakarra, (+1): *gízonak*.

Hona hemen, hau argitzekotan, *Oñati*-ko hizkerari dagokion zerrenda hau (Izagirre): *bíllós bat*, *billótza*, 82; *gálan bat*, *galánta*, 115; *gára bat*, *garía*, 116; *gízen bat*, *gizéna*, 122; *káren bat*, *karéna*, 147 («las secundarias»); *lértxun bat*, *lertxúna*, 163 («álamo»); *málix bat*, *malátxa*, 171 («batidora»); *nárda bat*, *nardía*, 184 («cuesta mala»); *óntzi bat*, *ontzíxa*, 190; *últze bat*, *ultzía*, 237; *úndxo bat*, *undxúa*, 238 («hongo»); *úsó bat*, *usúa*, 242.

Baina (*M+1*) *markatuak* diren «prototonoetan», azentu-higikuntzarik ez dago: *bérba bat*, *bérbia*, 78; *géla bat*, *gélia*, 120 («celda»); *léka bat*, *lékia*, 163.

Hitz batez: hitz *markatuak* eta *markagabeak* modu *desberdinetan* erabiltzen dira azentuaren aldetik.

Hitz batzu, bestalde, (*M+2*) *markatuak* dira: *kristáu bat*, *kristáua*, 154.

Hiru silabatako hitzetan, *lau* silabatakoetan, etab., azentua ez da moitzen: *beti* (+2). *Antxúma*, *ardángela*, etab.

4.4.5. Goazen orain atalka.

4.4.5.1. Silababakarrak

Oñatiko hizkeran (*M+1*) balira bezala erabiltzen dira silababakar *guztiak*, sílaba bakar horren fonologi-egiturak munta ez duelarik. Adibidez: *sú*, *súa*, 218; *txú*, *txúa*, 234 (= txistu); *átz*, *átza*, 66; *lúr*, *lúrra*, 169; *mótz*, *mótza*, 181; *sátz*, *sátza*, 211; *txúr*, *txúrra*, 234; *jái*, *jáixa*, 140; *góis*, *góisa*, 123; *áutz*, *áutza*, 70; *ántz*, *ántza*, 53; *bártz*, *bártza*, 74; *értz*, *értza*, 104. Koda nolana hikoia izanik ere, (*M+1*) *markatua* balitz bezala, azentua aldakaitz.

Beste euskalkitan, ikusiko dugunez, ez da hau gertatzen. Eta orokorkuntza horretan aldaketa berri xamar bat soma daiteke.

4.4.5.2. Silababikoak

Markatuak ez diren hitzei buruz (*-M*), eskema normala hau da, jadanik esan dugunez: *ádar*, *adár*, *ádarrak*, 41.

Markatuak direnak, berriz, aldakaitzak, (*M+1*) izan daitezke (Basteurretxearen «prototonoak»), edo-ta (*M+2*).

Goazen atalka.

4.4.5.2.1. (M+1) silababikoak

Hona hemen zerrenda bat: **áide**, **áidia**, 43 (ahaide); **ái** [á.i] **áixa** **á.i.ša**, 43 (= ahi, «papilla»); **áizpa**, **áizpia**, 46; **áje**, **ájia**, 46; **ánka**, **ánkia**, 52; **ántzar**, **ántzarra**, 53; **ásmo**, **ásmua**, 63; **átze**, **átzia**, 67; **áurre**, **áurria**, 67; **báke**, **bákia**, 71; **bírki**, **bírkixa**, 83; **búlda**, **búldia**, 85; **dénda**, **déndia**, 89; **díru**, **dírúa**, 89; **dóngá**, **dóngia**, 90; **éuski**, **éuskixa**, 110 (= eguzki); **éusla**, **éuslia**, 110; **fraíde**, **fraídía**, 112; **fúltzo**, **fúltzua**, 113 («pulso»); **gáusa**, **gáusia**, 119; **géla**, **gélia**, 120; **giro**, **girua**, 121; **góna**, **gónia**, 123; **górputz**, **górputza**, 124; **gúra**, **gúria**, 125; **jábe**, **jábia**, 140; **jénte**, **jéntia**, 142; **jóku**, **jókua**, 143; **káiku**, **káikua**, 144; **kále**, **kália**, 145; **kánpo**, **kánpuá**, 146; **káre**, **kária**, 146; **kíltza**, **kíltzia**, 149; **késka**, **késka**, 149; **kímu**, **kímua**, 149; **kíñu**, **kíñua**, 149; **kírru**, **kírrua**, 150 («lino»); **kóbru**, **kóbrua**, 151 («cumplimiento»); **kóntu**, **kóntua**, 152; **kórde**, **kórdia**, 154; **kúku**, **kúkua**, 154; **kúma**, **kúmia**, 155 (= seaska); **kúrtze**, **kúrtzia**, 155; **láixa**, **láixia**, 158; **lákre**, **lákria**, 158 («costra de los recipientes»); **lánga**, **lángia**, 159; **léka**, **lékia**, 163; **lége**, **légia**, 162; **léra**, **léria**, 163; **lóka**, **lókia**, 166; **lóra**, **lória**, 167; **lótza**, **lótzia**, 167; **máilla**, **máillia**, 170; **máillu**, **máillua**, 170; **máixu**, **máixua**, 170; **méntu**, **méntua**, 176; **mérke**, **mérkia**, 176; **mésa**, **mésia**, 176; **méta**, **métia**, 176; **míka**, **míkia**, 177 (= pika); **míxto**, **míxtua**, 178 (= mihizto); **módu**, **módua**, 178; **mósu**, **mósua**, 180 (= aurpegia); **múndu**, **múndua**, 181; **mútu**, **mútua**, 182; **néke**, **nékia**, 185; **néska**, **néskia**, 185; **órtu**, **órtua**, 193; **págo**, **págua**, 197; **páre**, **pária**, 197; **páxa**, **páxia**, 198 («faja»); **pérra**, **pérria**, 197; **páre**, **pária**, 197; **páxa**, **páxia**, 198 («faja»); **pérra**, **pérria**, 198; **píka**, **píkia**, 199; **píxu**, **píxua**, 200; **pléma**, **plémia**, 200; **prása**, **prásia**, 201; **préstu**, **préstua**, 202; **púska**, **púskia**, 202; **sála**, **sália**, 205 («dormitorio»); **sále**, **sália**, 206 (= zale); **sámar**, **sámarra**, 206 («mota del ojo»); **sánga**, **sángia**, 207 (gazt. «zanja»; baina Gipuzkoa osoan, Oñatin bezala, *zanga*); **sánko**, **sánkua**, 207; **sántu**, **sántua**, 207; **sápi**, **sápixa**, 208; **sáto**, **sátua**, 211 (= xahako); **séme**, **sémia**, 211; **séru**, **sérúa**, 212; **síku**, **síkua**, 213; **sísko**, **sískua**, 214; **sóka**, **sókia**, 215; **tálo**, **tálua**, 233; **tálde**, **táldia**, 233; **téki**, **tékia**, 224 («apartado de ganado»; Araban ere «el tegui», gaztelaniaz); **títi**, **títia**, 224; **tóki**, **tókia**, 224; **trúka**, **trúkia**, 226; **txépetx**, **txépetxa**, 229; **txíngar**, **txíngarra**, 230; **txístu**, **txístua**, 231; **úme**, **úmia**, 237 («niño»); **úne**, **únia**, 237 («punto del espacio»); **zói** [só.i], **zóixa** [só.i.ša], 246 (= zohi).

4.4.5.2.1.1. Zerrenda horri begiralditxo bat ematea aski da, zenbait gauzaz berehala jabetzeko:

a) alde batetik, *bokalez* amaitutako hitz pilo bat dago (eskuineko silabak, koda hutsa, bestela esateko); eta Ekialdeko euskalkietan gertatzen den arauera, beraz.

b) mailebuen kopuruaren handia (askotan berriantxak).

Kakoa, beraz, bi alderdi horietatik bilatu beharko da: *fonologiaren* aldetik, eta *etimologiaren* aldetik.

4.4.5.2.1.1.1. Jadanik esana denez, ezkerretako bokale bikote zahar baten laburketak azal ditzake batzu: **míxto, sáto, sísko**.

4.4.5.2.1.2. Bestetan diptongo bat dugu ezkerretan (jatorrizkoa edo ondoriozkoa): **ái, áide, áizpa, zói, áurre, éuski, éusla, fráide, gáusa, jábe** (ik. B. jau-ba), **káiku, láixa, máilla, máillu, máixu**.

4.4.5.2.1.3. Mailebutasunak ere markatu pila bat azal dezake: **ánka, ántzar, báke, búlda, dénda, lége, géla, górputz, gúra, lánga, sánga**, etab..

4.4.5.2.1.4. Antzinako koda ez-hutsak, aintzin-sudurkaritan, beste batzu azal ditzake: **séme** (akit, sembe); **úme** (akit. ombe); eta oraingo koda ez-hutsak ere, agian, beste batzu: **átze** (átz.e), **bírki, dóngá, kórde, lótsa** (lóts.a horretara), **néska, púska, txíngar**, etab..

Horretara markatu asko (gehienak, agian) azal daitezke.

4.4.5.2.1.5. Hala ere, puntu ilun bat seinalatu behar da: Bergaran bertan ez direla horiek guztiak (M+1) agertzen: **áista, aistía**, 50; **jábe, jabía**, 60; **léka, lekía**, 62; **mérke, merkía**, 6; **méta, metía**, 63; **óta, otía**, 66; **sámar, samárra**, 67; **txépetx, txepétxa**, 68. Hemen (-M) dira horiek.

Alderantziz, Antzuolan: **léku, lékuba**, (M+1), beste euskalkitan bezala; eta **néurri, néurrixa**, hau ere, espero zitekeenaren arauera.

4.4.5.2.1.6. Hitz markatuen zerrenda, hitz batez, findu eta zehaztu egin behar da. Aita Alustizak berak esanda dakigu batzutan K. Izagirrek zalantza gorriak zituela, eta behin eta berriz errepikarazten ziola informatzaileari hitz bera. Emandako zerrenda hori, hitz batez, zehaztu egin behar da; eta ahalik eta azkarrenik. Analogiaren indarraz, joera handia baitago markatuak eskema orokorraren arauera egokitzeko.

Hala ere, gehienetan zerrenda oso antzekoak topatzen dira euskalki guztietan.

4.4.5.2.2. *(M+2) silababikoak*

Aurrekoak baino aisa *urriago eta seguruago* dira: **ardáu, ardáua**, 55; **nasái, nasáixa**, 184; **urdái, urdáixa**, 239; **etzái, etzáixa**, 109; **kristáu, kristáua**, 154; **sapái, sapáixa**, 208; **unáiñ, unáiña**, 238 (artzai, Oih.-Z.unhai); **siráun, siráuna**, 214 («culebra ciega»); **tantái, tantáixa**, 223 («rama grande»); **uztéi, uztéixa**, 243.

Denek, ageri denez, diptongo beheranzkoa dute eskuineko (+2) silaban, kontsonante batekin zein gabe.

Ez dago dudarik, beraz, bigarren silabaren koda ez-hutsa, *bokalerdia* zehazkiago, dela oxitono horien kakoa.

Berriro, beraz, (beste euskalki guztietan bezala), diptongo beheranzkoek (eta bokale bikoitzek) erakarri egiten dute azentua.

4.4.5.3. *Trisilaboak*

Oñatiko bizkaieraz *ez dago inoiz* (+3) azentuketarik; ezta (+4), (+5), eta

abar ere. Lege hau orokortzat har daiteke, bestalde, Mendebaldeko euskalkiei buruz; Bergara-Arratia inguruetako salbuespena eginez. Azken silabako marka ere orokorra da.

Gipuzkoako bizkaieraz, hortaz, eskema nagusi hau dugu: **arráno, arránua, arránuak**, 58; **aári, aárix, aárixak**, 40; etab.. Mugagabetik singularrera aldaketarik ez: **bekárre, bekárria**, 76 («legaña»).

Azter ditzagun *markatuak*.

4.4.5.3.1. (M+1) markatutako trisilabikoak.

Hona zerrenda bat: **árreta, árretia**, 59; **áingeru, áingerua**, 43; **ángixo, ángixua**, 52; **ánima, ánimia**, 52; **árbola, árbolia**, 55; **báskari, báskarixa**, 74 (hau oso jenerala da); **dénpora, dénporia**, 89; **ésesko, éseskua**, 104; **éuskera, éuskeria**, 110 (hau ere, gaztelaniaren bidez, eta beste arrazoi-rengatik ere, *hedatutako euskéra-ren kontra*); **férix, férixia**, 112; **gánora, gánoria**, 116; **gásura, gásuria**, 119; **kálamo, kálamua**, 144; **líburu, líburua**, 164; **médiku, médikua**, 175; **mártisen, mártisena**, 174; **ódixa, ódixia**, 186; **ólixo, ólixua**, 189; **pósporo, pósporu**, 201; **prémiña, prémiñia**, 201; **txímiño, txímiñua**, 229; **zápatu, zápatua**, 244.

4.4.5.3.1.1. Kako *fonologikoa* nabarmen dago askotan: **báskari** (ik. barazkari), **áingeru, éuskera**; baita agian ere **árreta, ángixo, mártisen**.

Beste askotan mailebuaren jatorri-azentua dugu argibide: **kálamo, zápatu, ólixo, dénpora, líburu, médiku, férix, ánima, sékula**, etab.

Gehien-gehienetan, azalpide erraza dute hitz horiek irizpide nagusien bitartez.

4.4.5.4. Tetrasilabikoak

Normalean, (+2) azentuketa: **aábixa, aábixia**, 39; **afáloste, afálostia**, 42 («fogata de S. Juan»); **aldágarri, aldágarrixa**, 48; **errúkarri, errúkarrixa**, 103.

4.4.5.5. Silaba gehiagotakoak

Normalean, (+2) azentuketa; **agíntaari, agíntaarixa**, 42; **albáitaari, albáitaarixa**, 48; **errémentaari, errémentaarixa**, 102.

4.4.5.5.1. Bukatu aitzin, hortaz, ohar hau.

Azentu aldakorra *bi* silabatako lexema *batzuk* bakarrik ezagutzen dutela. Gainerakoek *azentu aldakaitza* dakarte: (+2). Aspaldiko denboretan (+2) azentu hori *erabat orokorra* izan ez ote den galdetzeko esku-bidea dago; eta hitz markatuak (mailebuak at utzita) ez ote diren, besterik gabe, *diptongoz edo bokale bikoitzen* laburketaz markaturik agertzen.

Hots, ikusiko dugunez, beste euskalkien azterketak ondorio honetaraxe garamatza.

4.4.6. Elkarketazko terminoen azentuketa

Hiru, lau, bost, eta silaba gehiagotako unitateek, sistemakiro (+2) *silaba* hartzen dute azentua: **losórro**, 167; **aitzárri**, 45; **jaizúbi**, 45 («puente», oso herrikoia Oñatin); **bidéarro**, 81 («surco del camino»); **artóbero**, 61; **astósale**, 65 («que conduce asnos»); **dotóregarri**, 90 («adorno»); **gixátxarkerixa**, 121; **odóljarixo**, 186. Agiri denez, (+2) beti, elkargaien silaba-kopurua zein-nahi den ere.

Salbuespenak bakandurik agertzen dira corpusean: **bígarren**, 81; **máipuru**, 170. Bi horietan, dena dela, arrazoi fonologiko bat dagoela pentsa daiteke; *biga*, *mahai*.

4.4.7. Aditzari lotutako arazoak

Corpus-ak du oinarririk aski puntu honetaz ezer erabakitzeko.

Laguntzaileak, eskuarki, ezelako azentu grafikorik gabe idatzirik daude. **Bustí da** kasuan, eman dezagun, /da/-ren klitikotasuna soma daiteke; **ezta bústi** kidearen ondoan agertzen denez gero. (Oso gogoan hartzekoa de **bustí** / **bústi** bikote hori; horretxek, berriro ere, gauza bera erakusten baitu: markatuak ez diren unitateetan, azentua mogitu egin daitekeela; eta unitate hori, *klitikoak eta guzti*, dela kakoa. Euskaraz *enklitiko asko eta proklitiko gutxi* egonik, normalean azentua aldakaitz agertzeko joera uler daiteke, baita, Basterretxxak ongi dion bezala, ezkerretatik kondatu eta finkatu beharra. Silabakarren klitikokuntza, dena dela, ahanzi gabe. Berriro itzuliko gara honetara).

4.4.7.1. *ba-* eta *ez-* aurrizkiak, gainerako euskalki guztietan bezala, *benetako proklitikoak dira*. Oñatiko euskaraz ere bai: **baátor**, 77 (= bai, bada-tor).

4.4.7.2. Garbi dago, era berean, eta orain enklitikoak ditugu aurrean, *da* laguntzailea, unitatearen eskuinean doanean, (-1) azentu bigarrenkaria baizik ez dela: **lotzátu dá**, 167(hau da: [locátudá], (+2, -1). Eta honek 5.2 kapituluan azaltzen dena gogorazten du.

4.4.8. Entonazioak azentuaren lekugunean daukan eragiñaz.

Deikariak, euskararen joera nagusiaren arauera, Oñatiko euskaraz ere oxitono agertu ohi dira: **neská!**, 85 (vs. **néska**, markatua gainera); **amá!**, 50 (vs. **áma**). Izagirrek, dena dela, **áma!** ere badakar. **umé!**, 237 (vs. **úme**, markatua hemen); **neskatillía**, 185 (vs. **neskátilla**); **mutill!**, 181 (vs. **mútil**).

gorago ere esan denez, goranzko entonazioak oxitono eta azentudun pertzibi arazteko gaitasun horrek, euskal azentuaren funtsa *melodiazkoa eta maiztasunezkoa* dela idarokitzen du: silaba *gora* bat entzuten dugunean, silaba *azentudun* bat entzun uste dugu. Izagirrerengan (eta ez Izagirrerengan bakarrik) ekuazio hori garbi dago; eta kontutan hartu behar da.

Oharrak

N.4.4.0. Frantziskotar dialektologilariari buruz Mitxelenak daukan uste ona, ezin daiteke aldekoago izan: «el observador más minucioso quizá que haya tenido nuestra lengua». (Fontes 33, 1979, 366).

N.4.4.1. Gogora dezagun, adibidez, **báculo** hitzari datxekion euskal **maákulua**.

N.4.4.3. Egia esan, Azkuek berak aurkeztu zuen (1931) lehendabiziko bikotezerrenda ikusgarria (ik. urte horretako 'Euskera'). Ondotik beste batzu jarraitu zaizkio, beti ere partez bederen berdin-berdinak. Agian Laspiur-ena izan daiteke luzeenetako bat (ik. 'Euskera' 1979, I. 175 et.); eta berezi xamarra ere bai zenbait puntutan: **ártia** (= gazt.arte), **artía** (= artea); **ástia** (= hastea), **astía** (= astea); **áutua** (= berebila), **autúa** (= albis-tea); **bárria** (= barra), **barria** (= farre, (-M) Eibarren); **égixa** (= egia), **egi-xa** (= hegia); **kátia** («suspensio»), **katía** (= katea); **métia** (= helmuga), **me-tía** (= pila); **úlia** («hule»), **ulía** (= ilea); **zérúa** (= zeroa), **zerúa** (= zerua), (-M).

Ohar daitekeenez, ezkerretako zerrenda (alegia, azentua aldakaitz atxekitzen duten unitateena) mailebu berriz osatua da ia osoki; eta, hori dela bide, elementu markatuena ezaugarri nagusitzat, bi hauek proposatu izan dira: a) elemenduon «maiztasun urriagoa»; b) «el indigensimo más dudoso de muchos de sus componentes, ya que no de todos» (Mitxelena, Fontes 23, 1976, 149).

Aurrerago ere itzuliko gara elementu markatuetera.

N.4.4.5.3.1. Berriz ere berresango dugu Bergaran ez dela berdin gertatzen; eta (+3), (+4), eta abar, paroxitono gainera, posible direla hango hizkeran:

Amériketátik etórri dan amerikanúa, Laspiur 177.

Ormáxabalenekúa Barzelonára, Laspiur 177.

Azentu-kutsu bera uzten dute eibartarrek; baina batzutan aipatu dugun Laspiur-en iker-lan horretan azaltzen denez (Euskera 1979, I), nabarmenago da fenomenoak Bergaran, Eibarren baino.

Iskilugintzaren hirian, dena dela, (+3) unitateak ez dira eskas: **adárretan**, pl., **adarrétan**, mugagb.; **bedárretam**, pl., **bedarrétan**, mggb.; pluraletan (+2) eta mugagabeetan (+3) agertzen direlarik. Teorian, dena dela, lekutasunezko kasu horietan ez da inoiz bokale geminaturik egon (ik. honi buruz zubereraz gertatzen dena, 5.4. kap.); eta analogiaz ez bada, ez da hori ongi ulertzen. Baina Prai Bartolomek ere zalantzan uzten gaitu, espero genukeenaren kontra (ik. 3.2. kap.). **ádar** (mggb.) / **adár** (pl.) postulatzea ere, bitxiegia da.

Trisilaboetan ere, berrito ere ulertzen ez badugu ere, azentu-lerraketa aipatzen du Laspiur-ek: **bakétsuak**, pl., **baketsúak**, sg.; **dantzáríxak**, pl., **dantzaríxak**, sg.; **abádiak**, pl., **abadíak**, sg.; **afáríxak**, pl., **afaríxak**, sg. Gauza bat konpreni bide daiteke hor: pluraletan, Basterretxeak es-

katu bezala, *bi* silaba behar direla tonu apalean; eta, beraz, (-3) behar dela: **bakétsuak, dantzárixak, abádiak, afárixak**. Baina singularrean, normalean, **bakétsuák, dantzárixak, abádiák, eta afárixák** espero genituen; eta ez ditugu aurkitzen.

Silababikoetan, bestalde, pluralari dagokionez, silaba *bakar bat* baizik ez digu Laspiur-ek eskaintzen, bizkaierak klasikoaren aurka. Laspiur-ek bi «salbuespen» hauek dakartza: **gízonak, mútillak**; maiztasun handikoak; eta beharbada horretxegatik analogia berrizaletik salbatuak.

4.5. **Itsasertzeko bizkaiera** (Mendebalde)

4.5.0. Eskualde honetako azentua azaltzeko (Bonaparte-ren arauera, Mendebaldeko bizkaieraren parte), N.Holmer-en deskribapen bikaina erabiliko dugu (Sem. F. J. Urq., 1968, 1969 eta 1977). Eta honi lotuko gatzaizkio normalean datuetan beretan, ongi jasota daudelakoan; dagozkien azalpenetan beti bide bera hartuko ez badugu ere.

Bermeo-ko hizkera hartu dugu, beraz, lerro hauen oinarritzat; Holmer-en informatzaile batzu Getxo, Mundaka eta Larrauri-koak badira ere. Berariaz, dena dela, alde batera utzi ditugu Dima-ko (Arratia) informatzaile baten datuak, Hegoaldeko hizkera direnez (ik. 1.35 eta 4.1. kap.). Baina Gaminde-k Butroeko euskarari buruz argitara duen lana aipatuko dugu, saiheska bederen.

4.5.0.1. Jakina, prosodi-arazoak orain gainditu ezinezko traben gaintetik, trenabidez ikertzea posible izango denez gero, ondoko asteotan eta hila-beteotan egingo diren ikerlan monografikoek aurki gaindituko dute kapitulu hau (eta ez hau bakarrik, uste dugu).

Artean, ordea, lehenengo eta oinarritzko urratsa da Euskal Dialektologiaren ikertzaile «klasiko»en lanak ongi uxtiatzea: Izagirre, Larrasketa, etab.; baita Holmer ere.

Kontraesan batzu aurkitzen dira lan horretan, baita *azentua*ren mailako fenomenoaren deskribapenean ere. Adibidez: **ostatúa** (III, 190) / **ostátua** (III, 181); **konséju** (181) / **konsejú** (190); eta bien arteko hautaketa ez da erraza. Lanaren egileak, itxura denez, **konséju** eta **ostátua** normalizat hartzera bultzatzen gaitu; zeren-eta (+3) azentua dakarten unitateak (**itxosúe** eta **erruedíe**, eman dezagun), «excepcional» baitzaizkio Holmer-i (112).

Egia esan, ez dago horrenbestera inokorik. Fruja-ko informatzailearen ahotik honoko hauek ere jaso baititu: **irebásten**, **ikerátu**, **kontzejúas**, **bidién**, etab. (181); eta entonazioaren eraginak ezin dezake dena azal. Badirudi, hitz batez, lekuko hori Bergaran edo Diman bizi izana dela... Nolanahi ere, (+3), edo eskuin alderagoko, azentu hori, anormalizat edo berrizat bederen har daiteke: bai euskalki horretan, bai mendebaldeko gainerakoetan ere, behin eta berriz agertuko denez. (Ik.N.4.5.0).

4.5.1. Prosodi-fenomenoen sailkapen ezinago interesgarri bat eskaini digu Holmer-ek (II, 1968; 107); beroiek *hiru* multzotan banatuz.

Holmer-en ústez, hiru «azentu»-mota daude:

- 1) «hitzen oinarritzko azentua» dago, batetik (euskarara itzuliz); alegia, «unitate fonetikoaren» berezko azentuteka, aurrerago berak zehaztua;
- 2) «enfasi-azentua» dago, bigarrenik; Holmer-ek berak azaldu duenez

aurkaritza nagusi honetara biltzeko modukoa: «indikatio»zko esaldia, batetik; «galdera»zko edo «mirespen»ezko esaldia, bestetik;

3) eta «erritmozko azentua» dago, hirugarrenik (edo-ta, inguramenduzko azentua).

Ez da batere zaila ulertzen, hortaz, gaur «*azentu*» hitzaz soilki eta bereziki deitu ohi dena, Holmer-en «oinarrizko azentua» delako horretan ikusi beharra dagoela (eta lan horretan, «1. puntuan» zedarrituta-koan). Eta, horrekin batera, «3. puntukoa», «oihartunezko azentua» dugula.

Holmer-en «enfasi azentua» («2. puntukoa») gaur egungo «*entonazioa*» baizik ez da. Berriz ere -eta ohar bera egin dugu Basterretxearen hiztegiari buruz- gaurko Fonologian erabiltzen den hiztegia eta Holmer-ena desberdinak dira; eta kontuz ibili behar da, berez zuzenak eta zehatzak diren oharrak ez okerbidez hartzeko.

Berez ditzagun guk, *azentu*-arazoak, batetik (Holmer-en «1» eta «3»); eta *entonazio*-arazoak, bestetik (Holmer-en «2»). Mitxelenak eta K. Rotaetxek ere euskal prosodiaren arazoen deskribapenean behin eta berriz egon ohi zehaztasunik eza salatu dute. Eta egia dute.

4.5.1.1. Bizkaieraren azentua zertan datzan azaltzerakoan, funtsezko ezaugarri hauek hartzen ditu Holmer-ek aintzakotzat, eta bidez gure ustez:

– azentu hori «*provisto de un considerable momento de inflexión melódica de la voz*» iruditzen zaio (guk azpimarratua); eta, hortaz, «*azento musical*» aipatzen du, 107.

– azentudun silabak, beraz, azentugabeak baino *gorago* ahoskatzen dira maiztasunaren aldetik («*se pronuncian sobre un tono más elevado... que las inacentuadas, que van en tono más bajo*»). *Eun ón* sintagman, esate baterako baterako, *eun* (=ehun) hitza tonu apalean doa, eta *ón* tonu goran.

4.5.1.2. Azentugarri den unitateari buruz, berriz, zehazki ematen du Holmer-ek bere iritzia: «palabra o complejo fonético» hori honela zedarritzen da: «un grupo mínimo pronunciado normalmente con una entidad», 108; eta adibideak ere ematen ditu: *gizona* (= gizon+a), edo-ta *eztator* (= ez+dator). Bi hauek osagaizko unitate bikunak dira, eta gaztelaniaz bi partetan idazten dira. Hots, biok, eta bigarrenak oso bereziki, Holmer-ek argiro azpimarratzen duenez, *azentu bakar bat* daukate euskaraz; gaztelaniaz biga badaude ere. Ohar hau zuzena da; oraindik euskarara ikertu duten gehienek, interferentzi giro honetan murgildurik, aditu eta aintzakotzat hartu nahi ez badute ere.

Goazen atalka, dena dela, eta azter ditzagun aurrenik *izena* ardaztat duten unitateak.

4.5.2. Izena eta honi datxezkionak.

4.5.2.1. *Silababakarrak.*

Holmer-en iritzia hauxe da: «al añadirse el artículo /a/, el acento cae en éste, y la forma se hace aguda», 112. Hau, egon ere, beste bizkaiera motatan gertatzen denaren aurkaritzan dago. (Aski du irakurleak Oñati-ko euskarari buruz ikusi ditugunak gogoraztea). Badirudi, beste modu batez esanda, Oñatin silababakar *guztiak* direla (M+1) *markatuak*; eta Bermeon *bat ere ez*.

Zuzena al da, beraz, Bermeo-ko eta inguruetako bizkaierari buruz Holmer-ek egindako baiesten hori? Jakina, hala gertatzen den adibide sail bat eskainidu egileak, **oñé/óñek** bikotearen bidetik (112, oin) (kontutan har, dena dela, hauxe izan zitekeela (M+1) markatu bat, ezkerretako diptongoa dela bide).

Joera jenerala dela esan daiteke (-M)-etan: **gatzá** (= gatz), adibidez (Gipuzkoako bizkaieraren kontra, beraz). Baina baita (M+1) markatu izan zitezkeenetan ere bai, askotan bederen: **oñé**, jadanik aipatua; **atxá** (= haitza); **aurré** (= haurra); **beijé** (= behia); **auntzék** (erg. sg. ahuntzak).

Salbuespenak aztertzen direnean, halere, hauek aurkitzen dira Holmer-enean: **máie**, 173, eta **máien**, 173, ines. (= mahaia, mahaian); **gánien**, 173 (= gainean); **óian**, 175 (= ohean); **góixeko**, 99 (= goizeko); **óittik**, 99 (= ohetik). Bizkaieraz ezkerretako silaban diptongoa dagoenez, arrazoi fonologikoengatik izan litezke horiek (M+1) markatuak; baina orduan *áurre, *óñe, *béije, *áuntze espero litezke.

Alderantziz, **úre** (= ura), 175; **txárria**, 177; **báltza**, 111; **bérak**, 183 (erg. sg.) ikusita, **gatzá** eta **atxá** ez dira konprenitzen. Edo-ta hauek, ezkerretako koda hutsa dela-ta, normalak baldin badira, **gatzá** ez da ulertzen.

Hipotesia, dena dela, hau izan daiteke: *markatuak ez diren* monosilabotan, azentua (+2) silabara *mogitzen* dela singularrean, pluralean berri ezkerretara itzultzeko; eta markatuetan, alderantziz, (M+1) *diren*etan, azentua ez dela *mogitzen*.

Badirudi, hitz batez, *analogiaz*, (+2) joera orokorra hedatzen ari dela; batzutan *markatuetan* ere bai. Eta hastapenetako arrazoi fonologikoa (alegia, diptongo beheranzkoa izan ala ez izan ezkerretako silaban, edo-ta silaba bakarrean mugagabea) ezabatzen ari dela. Ikus N.4.5.21.

4.5.2.2. *Silababikoak.*

Silababikoei buruzko iritzia, ezin garbiago agertzen da Holmer-engan: «En vizcaino es *casi regla sin excepción* (azpimarraketa gurea da) que disílabos guardan el acento básico (en la penúltima) cuando se usan en sentido plural; mientras son sujetos a la acentuación analógica (en la última) cuando se usan en sentido singular» (110). hau da: **etzéa** (*etzía* ahoskatua, askotan)/**étzeak**, sg./pl. bikotean. Ikus N.4.5.2.2.

Geure modura esateko: (+2) singularrean, (+1) pluralean; honetara pasatzen, azentua *ezkerretara* lerratzen delarik.

- 4.5.2.2.1. Silababiko (*M+1*) *markatuak* badaude, dena dela: «muchos sustantivos no hacen esta diferencia de acentuación», 111.

Holmer-en corpusaren bidez zerrenda osorik eraikitzerik ez dago: ez markatutako hitzez, ez markagabez.

Eman dezagun, nolana ere, markatu batzu: **bóto**, 177; **órdu** (**órdura**, 177; **órduen**, 177; nahiz **ordúen**, behin, 183.; **mállu**, **málluas**, 173,173; **ámue**, 173; **kámpuen**, 177, **kámpotik**, 181; **bóteas**, 175; **máistria**, 177; **móllera**, 175 (= mólle); **bélia**, 111 (= béla); **pálu**, 111 (Ik. 1.35 kap.); **básue**, 111 (beste hizkera askotan bezala).

Arrazoi fonologikoak nabarmen daude askotan (máilu, máistra, etab.), eta etimologikoak ere bai (béla, bóte, etab.). Bisilabiko markatuen zerrenda behin eta berriz errepikatzen da puntu askotan.

- 4.5.2.2.2. Halaz ere, markagabetzat hartuko genituzkeen batzuk, arauetik kanpoko plurala erakusten dute: **mosúek**, 181; **dirúek**, 181 (vs. normaltzat joko genituzkeen **mósuek** eta **díruek**, (+1) azentuaz.

Beste batzu, berriz, (+3) azentuz transkribatuak, *enfasi*-entonazioaren bidez azal daitezke beharbada (galdeketa, zerrendaketa, etab.). Singularrean tonu goraz gertatzen den zelaia, are (+2)-tik eskuin alderago ere senditzen dela dirudi; are jatorrizkoari nagusituz ere, Hego-nafarreraz edo Larramendi-ren gipuzkeraz gertatzen den bezala. Eta hauek topatzen ditugu: **atié**, 183; **andrié**, 183; alboan **átzerá**, 183, eta **átetík**, 177, azentuketa bikoitzez, eta azentudun silaben artean *bi* silaba dau delarik.

Beste zenbait aldiz, segurutzat jo daiteke zerrendaketa-entonazio goranzkoaren eragina: **palié**, 173; **osué**, 173, agian; **lastué**, 173; **atiá**, 175 (Altuberen hitzez esateko, «ante-inquirido» delakoaren lekugunean).

- 4.5.2.3. *Trisilabikoak*.

Holmer-en beraren hitzez esateko, «los sustantivos cuya forma indeterminada no sea disilábica... no suelen cambiar el acento en la declinación con el artículo», 112. Eta puntu honetan batera datoz Oñati eta Bermeo. Trisilabikoak, behin eta berriz ikusiko dugunez, (*M+2*) *balira bezala* azentuztatzen dira; prototonoak, (*M+1*) ez diren ber.

Bizkaitar azentuketa Holmer-ek «zeltikoa» dela sinetsirik, atzekaldetikako erregela desegoki hau eskaintzen digu: alegia, azentua «en la penúltima del tema» delakoan doala, 112. Hots, «penúltima del tema» hori, (+2) besterik ez da. Eta tetrasilabikoen (+2) joera azaltzeko, bera funtsean, nekez eman dezakegu eskuin aldeko mugaren aldetik. Are silababakarrak ere, egia esan, (+2) da erregela, eta kitto. Bizkaieraz hitz batez, arrazoi teorikoengatik eta ekonomikoengatik batera, *ezkerreta-*

tik kondatu behar dira silabak; ezkerretan , hori bai, proklitikoak erantsi ondoren.

Adibidez: **emástie**, 112; **umétxue**, 112; **kopétea**, 112; **burrúntzide**, 112; **ustárrije**, 112; **errékie**, 112; **edárrije**, 112; **gauérdije**, 177; **ostátua**, 181; **alámbríe**, 173; **trañérué**, 173; eta oinarri-azentu hori ez da deklinabidean barrena aldatzen: **bentánetatik**, 177; **txulúpiéri**, 173; **jungúrien**, 173.

Azentuketa horren paradigmaticotasuna (alegia, deklinabide-atzizkien klitikotasuna) garbiki agertzen da, beste euskalkietan bezala, **Sollúbe** leku-izenean: **Sollúben**, 183; **Sollúbeko**, 189; **Sollúbetik**, 183; **Sollúbera**, 183, 191.

4.5.2.3.1. Trisilabo batzu, berriz ere, (*M+1*) *markatuak* dira: **lénengo**, 173 (= **lélenngo**, 181); **férije**, 177; **éuskera**, 177; **dénpora**, 177; **béspera**, 177; baita monoptongaketa baten ondorioz, silababiko bihurtu diren beste batzu ere: **gítxiau**, 173; **gójau**, 173 (= gehiago, gutxiago).

4.5.2.4. *Tetrasilabikoak*, etab.

Adibide bitxi bakan batzu badaude: *i(ge)tárgije*, 112 (**itárgije** pratikan, +2); **udebárrije**, 112 (+3); **udegóijena**, 112 (= udazkena). Hirukote horretan azentua bi aldiz da bitxi: (+3) delako, batetik, eta (-3) delako, bestetik.

Erregela nagusia, ordea, Mendebaldeko gainerako euskalkietan bezala, (+2) da: **dosénakuek**, 174; **bisímodú(ari)**, 181; **irúgarren**, 181; **mutílagun**, 183; **andíjaue**, 183; **neskátillek**, 183; **urrúfiná**, 177; **ogétabost**, 177.

4.5.3. *Aditzaren elementu izen-aireak.*

Demagun **ikúsi/ikúste**, eta antzekoak.

4.5.3.1. *Ikusi* moldekoetan:

a) **ástu**, 109; **érdu** (= **etorri**), 109; **sártun**, 109. Erroa silababakarra da (**ás**, **ér**, **sár**); eta bere azentua silaba horretantxe gelditzen da.

b) diptongoz amaitzen direnak, berriz, monoptongatu direnean ere, (+2) azentua daramate: **kantzéu**, 181; **topá**, 183 (v. **topáu**, **topádu**); eta gauza bera /n/-ez amaitzen diren silababikoak ere: **emón**, 181; **urtén**, 183 (= **irten**)

c) trisilabikoetan, (+2) da azentu nagusia: **igiri**, 109; **segídu**, 183; **esétu**, 183 (= **ezagutu**); **sorróstu**, 173; **atára**, 173; **okértu**, 173; **etórri**, 175; **ekárri**, 177; **jesárri**, 183; **imíni**, 177; **erántzun**, 181; **ikúsi**, **ekúsi**, 181; are diptongoz edo monoptongoz bukatutako formetan: **alléga**, 183 (= **allégau**); **pregúnteu**, 181.

d) eta tetrasilabikoetan, (+2) ere bai: **ikerátu**, 183, 183 (nahiz **ikerátu**, 181); **begíratu**, 181; **begítu**, 183; **despéditu**, 181.

Badirudi bukaerazko diptongaketek oxitonoak sor ditzakeela: **prepra-
ráu**, 175, **amarráta**, 177 (= amarrá (d)u).

4.5.3.2. **Ikúste** moldekoak (aditz-izenak)

a) **íltteko**, 104 (ik. **íl**); **jásteko(ak)**, 114 (ik. **jás**, c. jantz); **júteko**, 187, **júten**, 173 (ik. **jún**, joan); **éttén**, 173 (ik. **éin**, egin).

Harrigarria **artzien**, 173, unitatea; erabat Prai Bartolome-ren eta Oñatiko forma geminatuen antzekoa (ik. 3.2. kap); jatorrian *artzeen* egon balitz bezala. Kapitulu hartan egin dugun eztabaida errepikatu gabe ere, adierazgarria da haserako /j/-ren maiztasuna (esan dugunez, lehen silabikoa izana), **éttén** forma, bestalde, *egiten* formaren laburketa da.

b) **atáten**, 173; **imí(ñ)tten**, 173; **ekárten**, 175; **emóten**, 177; **erósten**, 177; **largáteko**, 173, 175; **ixéteko**, 179; **eukíteko**, 175. Erroa silababikoa, eta azentua (+2).

c) **atrápaten**, 173; **abísaten**, 175; **pregúntaten**, 177; **deskuídaten**, 177; **eskátuten**, 181; **depósitxátzeko**, 177. Argi dago, berriz ere, (+2) *silaba* markatzeko joera; are *depósitxatzeko* horretan ere, oihartzunezko azentu bigarrenkaria /txá/ silaban agertu delarik ere, (+2) eskuinerantz.

(+3) azentuaz agertzen diren adibide bakanak: **irebásten**, **erakústeko**, **ornidúteko**, ez dute eskema nagusia aldatzen; eta, gutxi gora behera bederen, informatzaille bakar baten idiolektoan dauden formak dirudite. Bermeoko hizkeran topatzen ditugun Arrati-kutsuko interferentziek nabarmen aski erakusten dute beren jatorria: horietako bi, «Osubena» etxeokoa izanik, Dima-koak direlako ain zuzen, Arratian (II, 89).

4.5.4. *Alderaketa* eta *gailenketazko* atzizkiek ez dute (+2) azentu-bide nagusi hori aldatzen: **andíjau**, 123; **txikíjau**, 123; **txikérrau**, 123; **andíjena**, 123, **lodíena**, 123; **txikérrena**, 123; **txikína**, 123; **labúrreje**, 123; **txikíjeje**, 123; **lusíeje**, 123.

Salbuespena oinarrizko silababakarrak izanik: **géjau**, 123; **ótzen(a)**, 123; **ónen(a)**, 123. (Ik. **gé(h)i**, **(h)ótz**, **ón**).

4.5.4.1. Itsasertzeko bizkaiera mota honi buruz, Holmer-ek ohar hau egin du: «algunas formas morfológicas en vasco se suelen escribir como una sola palabra... cuando en realidad hay dos», 118. Hiru atzizki hauek ditu Holmer-ek gogoan: *-dun*, *-tar*, eta *-garren* delakoak; hauetan hau gertatzen baita maiz: «conservan su acento tónico». (Ikusia dugunez, 2.1 kapitulua batez ere, ondorio berera irits daiteke beste alde batzutatik).

Gárrren lexema bat da, eta haintzat dagokion azentu-plegua atxiki du bizkaierazko esaldi batzutan; **tár**, Holmer-en transkribaketetan ere, berez idatzirik agertzen da batzutan; eta **dún**, jakina, *duen* errelatibotik dator, eta gramatikaltzean bere pisu fonetikoa arindu du (gauza bera *-kor* atzizkia, esan dugunez, vid. *gogor*). (Ik. N. 4.5.4.1.).

- 4.5.4.2. Jadanik esan denez, *izen+bat* sintagma guttiz aldakorra da bizkaieraz; **bát** zenbakaria eta **-bat** mugagabea nahasketa hazkorrean ditugularik. Holmer-en corpusak ez gaitu zalantzetatik urrundu; nahiz-eta, dirudie-nez, eta oro har, *-bat* klitikoa nagusi agertu lan honetan; eta, hortaz, azentu erritmikoa baizik ez hartu.
- Has gaitzen *zenbakari* gisa agertzen bide den adibide urrietatik: **aldiá-no bát**, 175; **síntxa bateáz**, 177; **lagún bét**, 181. Bokale harmonia hau, dena dela, azentu-autonomiaren aurka mintzo da.
- Normalean *enklitiko huts* dator: **bérbabat** (Holmer-ek, dena dela, **bér-ba bat**, etenduraz, idatzia); **ándrabat**, 181; **béibet**, 183; **ízlebat**, 99; **fíruet**, 101. Ohar bitez B. H. horiek; silababakarrei dagokien (+2) azentua; baita silababiko (M+1) markatuei dagokie (+1) azentua ere; **bérba**, **fíru**, **ándra**.
- Baina (-M) terminoetan, azentua (+2) da: **argáibat**, 181; **edérbat**, 183; **lagúmbet**, 101; **ordúet**, 101 (*órduet espero zitekeen); **anillobat**, 177; **ittúrribáten**, 183; **argítxubet**, 183; **balkóibatèra**, 181 (**balkói**, M+2); **etzébatèra**, 181.
- 4.5.4.3. Monoportongaketei buruz Holmer-ek eman duen azalpena hau da; «en caso de contracción de dos vocales (monoportongación), el acento tónico recae *siempre* sobre la vocal contraída», 109. Hots, azalpen horrek, bere horretan, beste zehazpiderik gabe, huts larritara eraman dezake.
- Holmer-ek diona, (+1) *eta* (+2) *silabei buruz* da egia: **óndiño**, 109 (ik. oráindino); **berán**, 109 (ik. beráren); **eskátza**, 109 (ik. eskaratza).
- Baina inesiboan eta pluraleko nominatiboan bizkaieraz oso maiz gertatu ohi diren /aa/ geminazioek, oso eskuinean agertzen direnez, laburketaz ere *ez dute* azenturik sortzen: **tabérnan**, 183 (= tabernaan); **górtan**, 185 (= gortaan); **gónak**, 187 (= gonaak); **bérbak**, 189 (berbaak). (Ik. 3.2. kap).
- 4.5.5. Goazen orain *adizki finitoetara*.
- 4.5.5.1. Laguntzailea klitiko izaten da maiz, Holmer-ek berak dionez (30. oharra, II, 115); silababakarra denean, edo aferesiaren ondorioz halakotzat hartua denean: **karúda**, 177; **bísire**, 101 (= bizi da); **emóteuskun**, 177 (= ematen zigun); **ondóda**, 115; **akórdasan**, 191; **parésan**, 181; **emóntzo**, 181, (= emon deutso, eman dio); **sasóíada**, 177; **asísan**, 183; **emóntzon**, 181 (= eman zion); **erántzuntzon**, 181; **atátenda**, 173; **atrápátenda**, 173; **imíttenda**, 173.
- Ikus daitekeenez, (+2) da azentu nagusia; ezkerretako elemendua markatua ez den ber: **bóta**, adibidez.
- 4.5.5.1.1. Laguntzaile polisilabikoak, Holmer-en ustez, azentugabeak dira, edota erritmozko azentuketa hartzen dute: **kendújatzon**, 183 (= zitzaion); **ekártendaue**, 175; **segíduintzon**, 181; **pregúnteueintzon**, 181; **ekúsisaue-lako**, 185; **ekársauen**, 177; **ekárridotás**, 177; **jesárrieintzen**, 183; **alléga-**

sanien, 183. Beti ere: (+2) azentua nagusi. Baina aditza silababakarra denean, (+1) gerta daiteke: **jódotzun**, 177. (Ik. N.4.5.5.1.).

Zenbait aldiz erritmozko azentu hori nabarmen erazi du Holmer-ek bere transkribapenetan: **kantzéueintzèn**, 183; **emóntzosàn**, 181 (eman zizkion).

4.5.5.2. *Aditz trinkoak* ere, sujetuak ezarritako erritmo-azentuari egokitzen zaizkio aisa: **orrék takò**, 99; **ník dekòt**, 99; eta ezin esan bide daiteke (Larramendi-ren kontra, honetan) (M+1) markatuak direnik.

4.5.6. *Baiezko eta ezezko* esaldietan, *ba-* eta *ez-* aurrizkiak *proklitikoak dira*; eta, beraz, aditz-unitate berriari (+2) azentua erasten zaio:

ba-) **balítteke**, 104; **badákot**, 102 (= bai, badaukat); **badáko**, 102; **badákas**, 137; **banátor**, 137; **badákisú**, 138.

ez-) **estákítx**, 104; **estáu**, 104; **etxáku**, 132; **etxátzu**, 132; **enái etórriko**, 134; **enósu ikústén**, 135; **eséuen (gure)**, 183; **esán jueten**, 185; **esnás**, 99; **esénkijen**, 183.

Batean eta bestean: (+2), baina proklitiko agertzen.

4.5.6.1. Alderantziz: baldintzazko **bá-**, markatua da; eta beronen unitateak (+1) azentuztatzen dira: **emóten bódotzue**, 177; **botako hádaué**, 177; **deskuí-daten bágirien**, 177; **ambádau ikústén**, 185 (=ikusten (ote) duen han); **bágues**, 138 (= baldin bagoaz). Ik. N.4.5.6.1.

4.5.6.2. Bizkaiera honetan, berez edo soilki doazen *bai* eta *ez* adberbioak, azentudun agertzen dira: **éz sartziéko**, 181; (*sártzeeko espero zitekeen, vid. **sár**); **és joáteko**, 181; **és berotúteko**, 181.

Hau gauza bitxia izanik, eta hiru adibideok Fruja-ko informatzaile berberarengandik hartuak direnez gero, azentuketa hori segurutzat ematerik ez dagoela iruditzen zaigu. Are gutxiago informatzaile horren esaldietan nabarmentzen diren bitxikeriak kontutan hartuz gero.

4.5.7. Jadanik, 2 silabatako tartean agertutako erritmo-azentua erakusten duten unitate batzu aurkeztu dira. Hona hemen beste bakar batzu: **òr-duèn**, 181; **erròmerítxik**, 181; **barre ándijèk**, 183; **dábiltzés**, 185; **seué-lakò**, 181. Beheranzko pluraletan nolana ere, tonu-beherakada famatuaren kontra mintzo da azentuketa hau (ikus Gaminde ere, besteak beste).

4.5.8. Arauen kontrako oxitonoen sorreran, aipamen berezia merezi du *goranzko entonazioak* duen eragina. **Nún dago(s) onék?** anormalaren gakoia (plurala **ónék** delako, edo-ta **óneek**), beste azalpiderik ez dago. **Nón** azentudun hori, dena dela, ez da oso euskalduna.

Ohar berezi batez azaldu du Holmer-ek fenomeno: «Parece que la acentuación de la última sílaba de palabras polisílabas, funciona en general como medio de expresión **enfático-interrogativa**», 113, nota 27. Eta ondoko bikote hau ematen: **éuskeras**, normala; **éuskerás**, gal-

deretan. Era berean: **éuskeras badàkisù**, baiespenean, «sabes el vasco»; vs. **bàdakisu èuskerás?**, 113.

Ikus ditzagun beste adibide batzu: **sártun dá?**, 177; vs. **sártunda. deko-sù**, 175, goranzko entonazioan, galdegaiaren aurrean; **aitá!** eta **amá!** deikari gisa; **atiá!**, 117 (bestela, **atía**); **Urrúfiná!**, 117.

Gertakari hori garbi dago galderetan: «Parece que la *entonación* de las oraciones *interrogativas...* se convierte en *acento tónico* (en la última) en vizcaino, la cual también se pronuncia en un tono más elevado», 116.

- 4.5.8.1. Zerrendaketa errepikakorretan ere, ez da hori ilunago agertzen, zerrendaren atal bakoitza oxitono agertzen baita: **demporalíé**, **aisié eta itxo-sué gogór**, 179.

Edo-ta, kondairan maiz gertatu ohi denez, esaldi bat zintzilik-edo gelditzen denean: **atáten da gallié**, 173; **pasako geusié**, 183 (kondatzen hasi aitzin); **igetargijé**, 187 (pausa aurrean); **erruedié**, 175 (galdegai aurrean, galdegaia **beren gáuse gustíkas** delarik); **atiá ikusi banien itxitá**, 175 (kondaira aurrera doa segidan).

Oharrak

- N.4.5.2.1. *Bermeo*-ko euskarari buruz Erkoreka-k argitara duen ikerlanean (Fontes 31), bizkaiera mota honek gainerakoei buruz dituen azentu desberdintasunak oinarri bide ditu berriz.

Silababakarretan ageri da hau garbikienik. Hona hemen **singular** batzu, Erkoreka-ren corpusaren arauera: **arrá**, **bitxé** («la leche»), **putxé** («la pus»), **mintxé** («la mucosa»; **uné** (= muina); **sillé** («el ombrigo», sic), denok (-M); baina baita (M+1) markatutzat jo zitezkeen beste batzu: **surré** (ik. sudurra); **aué** (ik. ahoa); **miñé** (ik. mihia).

Alegia, (+2) **beti**; unitatea + artikulua delakoan.

- N.4.5.2.1.1. *Getxo*-ko gure corpusean ere joera bera somatzen da: **uré**, **asé** (= aza), **satsá**; pluralarekiko aurkaritzan: **txárrak**, **ásak**.

Butroe-n Gamindek **mayán** eman du (= mahaian, eta markatua errazki); baina **giltzé**. Baita **beyé/béyek**, sg./pl. (behi), espero zitezkeenaren aurka. **Uré** behin eta berriz agertzen da (441, 438).

- N.4.5.2.1.2. Silababikoetan (+2) joera da nagusi (pluraletik at, noski); baina eskui-neko silabaren kodak bere eragina duela dirudi: **amár** / **zórtzi**; **gogór** / **órtu**; **berrói**; **apúr**; are **betí** ere (ik. **bethi**). Joera, hitz batez, (+2) da; ezkerretako silabaren koda astuna ez bada bederen. (*Bermeo*)

Ohar antzekoak Gaminde-ren lanean (*Butroe*): **atzó**, **belú** (= berandu), **emén**, **aittäk**, **surí**, **nirí**, **gués** (= gugaz), **guré** (= gura, nahi), **orí**, **yakín**,

lagún, ondó, gurí, askó, lagún, egón, emón, así, etzén (etxen). Hemen zenbakari guztietan dago (+2) azentuketa: **saspí, zortzí, amár**. Seinalagarria da **gáldu/galdú** bitasuna (erroa: **gál**, silababakarra); baita **gálduko** forma, berriro ere **gál** markatuaren alde mintzo. Baina hor daude **así** eta **lotú** (***ási** eta ***lotu** espero).

Hiru silabatako unitateetan (hutsik ala atzizkiz berdin baita, plurala ez den ber) joera (+2) da: **lagúnbet, etzébat**; baina (M+1) markatuak hor ageri dira: **gálduko, yábongo, tópako, ókiko** (ik. eukiko), **yáteko, égi(a)** (beste euskalkitan ere **égia**, M+1), **yárriko**. (Gaminde).

Pluraletan azentua ezkerretara joaten da: **etzén, éztetan; etzétik, éztetik; etzéko, éztetako**; etab. (Gaminde). Kontutan hartzekoa da, agian, **etzerá** salbuespena; beste euskalkitan ere **-rá** atzizkia markaturik agertzen denez gero.

- N.4.5.2.2. Bermeo-ko hizkeran, Erkoreka-ren arauera, azentua (+2) silaban igotzen da, tonuan alegia; eta hortxe egoten da bukaeraraino (pitin bat Larramendi-ren grafia errepikatuz): **samié, paparrá, bularrá, albué, garrijé, lepué, kolkué**. Pluraletan, berriz, jaitsera dago: **bulárrak** (vs. **bularrá**); baina ez dator Zamarripak, eman dezagun, entzungo lukeen puntuan: **bulárrak**, bi silaba apal. Aldera ditzagun:

<i>Erkoreka</i>	<i>Zamarripa</i> (Gram. V., 1950)
espának	óstatuak , 8 (are -4)
mustúrrek	gízonak , 29 (-3)
titíjiek	ságarrak , 29 (-3)
garáunek	záldiak , 43 (-3)
agíñek	mútillak , 43 (-3)
begíjiek	ótseiñak , 43 (-3)

Eskualde desberdinetako adibideak dira, segurik; baina, bestek ere uste duen bezala, gaurko bizkaieraz **silaba bakar baten** plural mota hori nagusituz doala dirudi. (-2, eta ez -3, alegia).

Jaitsera bera galtzen ez ote den ari pentsa daiteke: **éztetakó, éztetarakó**, Gaminde, 411.

- N.4.5.2.2.1. Gipuzkeraren oihartzuna somatzen bide da multzo horretan; eta bakarra ez da. **Getxo**-ko geure corpusean hauek aurki daitezke: **bédarrá, lándaré, ébagí, íllebí, íminí**; are **átzeratú** ere.
- N.4.5.2.2.2. Erkoreka-ren zerrendan badaude (M+1) batzu: **ókotxa, áspijje, úskijje** (lehenengoa harrigarri). Ik. 4.4.
- N.4.5.2.3. Erkoreka-ren lanean aurkitzen diren (+4) azentuketek, Larramendi-ren grafian bezalaxe agian, **goiko tonua** ez dela jaisten adierazten bide dute (ik. 4.6): **iserdijjé, osasuné, arnasié, arimíé, grokadié** («el eructo»); bai-

na batera **jjaijjótzie** dator. Egiazko azentua (+2, -1) dela idarokiz: **isér-dijjè, osásunè**, etab..

Bide beretik bultzazen gaituzte ondoko lerrokadek ere: **bekókijje, belá-riijeko, arkópie, txitxárrue, pusíkíe** («la vejiga»), **ukúndue**; baita plural hauek ere: **saiéskijjek, belárrijjek, biríkijeeek, arágijjek, guntxúrru-nek**. (+2) azentua nagusi dugu hor ere.

N.4.5.4.1. Honetaraz gero, Azkue bizkaitarraren iritzia gogorazi behar dugu: **-ar** eta **-dun** atzizkiak azentugabeak dira, haren ustez («átonos»); eta, gero Mitxelenak ere erabiliko zuen grafía berebean, **-ár** eta **-dùn** idazten (ik. Del Acento Vasco, 1931, 9). Ekialdean azentudunak dira atzizki horiek, dakigunez (normalean eskuinean doaz); eta pluralaren fenomeno berbera dugu, hitz batez: Ekialdean eta Mendebaldean bi moduren arauerako bilakabidearen bi muturretan. Bidenabar esateko: Azkueren **garèn** eta **urèn** grafiek (6), **gárren** eta **úrren** adierazten dute.

N.4.5.5.1.1. Gauza bera **Getxo**-ko corpusean: **egósità, isátendà**; baina **yáiotendà, yátekò**.

N.4.5.6.1. Baldintzazko **bá-** markatzeko joera, uste izaten den baino zabalduago da. Hona hemen Zamarripa lekuko:

or **bánago**, emen ez **nagó**, 18.

Baita hauek ere: **etxean bádago**, 8; **eldu bánaite**, 79; **elduko bánintz**, 81; **artu bánengi**, 92; **elduko bánintxatzu**, 127; **ori bázenki**, 68; **zéureak bádíra**, 208.

Gauza bera **Arratian** ere: **endemas dirue bádakar**, 46; **komunidu báyatzu**, 47 (Totorika, Euskera 1958). Eta **Getxon**: **ezpádeukó, bádago** (= baldin badago).

Ohar berberak Gaminde-renetik: **bisiko bánintz**, 439; **au bálitz**, 438; **yárriten bánas**, 438; **yóngo bálittikes**, 438; **dirú bágeunké**, 442; **posík bánengó**, 442; **aittä bádator**, 437.

Hau, berriro ere, baiezko eta ezezko **ba-** eta **ez-** en aurkaritzan dator: **ník íen usénak bayákies** (Gaminde, 446); **estót péntzaten**, 435; **esán etorrí**, 437 (=ez jateagaitik).

Gaminderen transkribapenetan, laguntzailea zubittok lotuta dator, eta (-1) azentu bigarrenkariatz: **etór-diré**, 437; **ekárri-dotzú**, 438; **emón-dostezú**, 438; **esétuten-gosús**, 441; etab...Beste autoreoren arauera espero zitekeen jaitsera (pluraletan, alegia) ez da agertzen.

4.6. Itsasertzeko bizkaiera (Ekialdea)

Besteak beste, itsasertzeko bizkaiera-mota honen deskribapen zehatz bat dugu (Bonaparte-ren sailkapenean «Markina»ko mota deitua; baita «oriental» ere, barru aldeko hizkerekin batera): Karmele Rotaetxe-ren «Estudio estructural del euskera de Ondarroa», 1978. Aurrean izan dugu, era berean, beronen artikulua bat: «L'Accent Basque», *La Linguistique*, 14-2, 55/77. (Egia esan, Tesiaren laburtzapena).

Geure eskuetan ditugu banda batzu ere (Izpaster, Berriatua, etab.); noiztenka hemen baliatuak.

K. Rotaetxe-ren lanak abantaila hau du: **corpusa azentu diakritikoz** aurkeztua izan dela (oro har, bederen); baita **entónazio-eskema** sail batez ere.

Ikerlana, nolnahi ere, **izena** ardatz duten unitateen inguruan egina da. Guri dagokigunez, beraz, askoz zehazkiago eta osotorago egin daiteke azterketa.

Tresnabidezko ikerlanak gaur arte egitekotan izen diren trabak salatzen ditu euskal hizkuntzalariak: «(es) deplorable que, en todo el país vasco, no dispongamos de un centro convenientemente equipado en el que este tipo de datos puedan ser analizados instrumentalmente», 179. Hau dela bide, Oviedo-ko Unibertsitatara eta Alarcos Llorach-engana jo behar izan zuen, laguntza bila. Euskal Azentuaren arazoa oso zaila izanik, ia-ia gaingitu ezinezko trabak ezarri izan dizkigu egoera horrek.

- 4.6.1. K. Rotaetxe-ren ustez, Ondarroako bizkaieraz «el acento se basa en la intensidad y en la altura», 151. Areago, eta W. Jacobsen aipatuz (euskal azentuaren oinarria «pitch» delakoa, melodiaren maiztasunaren prezeptziozko kidea, denez gero alegia, eta haren hitzez, «la manifestación primaria»), beste hau erantsi du: «si la altura es parámetro importante, la intensidad lo es en menor grado», 152.

Dena dela, lan honetan Ondarroako azentuaren **lekugunea** (posizioa) da gure kezka nagusia; eta ez zertaz sendi arazia den argitzea. Ez dugu, hortaz, horri buruz besterik esango. (Ikus Rotaetxe, 147 etab.)

- 4.6.2. K. Rotaetxek azpimarratzen duenez, Ondarroako azentua entzungarri izateaz gain («se deja sentir», 143), hiztegiaren mailan ere, azentu hutsaren bidez desberdintzen diran bikote batzu aipatzen ditu:

astú (= astoa)	≠	ástu (= ahantzi, ahaztu)
góra (= nora)	≠	gorá! (= biba!)
zártu, sártu (= zahartu)	≠	sartú (= sartu)
astéko (= asteko)	≠	ásteko (= hasteko)

Bikote hauetako hiru (1, 2, 4) orokor xamarrak dira euskalkietan barrera; **sartú** hori horren normala ez bada ere (**sár** errotik eratorria, **sár-tu** espero liteke, eta **sártuko**: ondoko **ásteko** horren antzera).

4.6.3. Azter ditzagun **izen-ardatzeko** unitateak, beti ere Rotaetxeri jarraituz:

4.6.3.1. *Silababakarrak*

Bai hitz soilak, mugagabeak; bai pluraleko unitateak, (+1) azentua daramate. Normala denez. Singularrean, berriz, kontraesanetan dauden adibideak dakartza K. Rotaetxek.

Alde batetik, arazoa aurkezterakoan (150), hau idatzi du: «Parecen conservar la sílaba acentuada de la base, ofreciendo un acento algo menos intenso que la siguiente. Eta bi adibide eman, azentu lodiaz bigarren mailako azentu bigarrenkaria adieraziz: **ár** / **árrà** (= har); **lúr** / **lúrrè**.

Honek eskema honetara eramango gintuzke:

lúr / **lúrrè** / **lúrrak**

Azpimarratu beharra dago pluralean bokale harmoniarik ez dagoela; **-ak**-en aurreko muga, ≠ balitz bezala. Ez baitzaigu lehenengo aldiz gertatzen. (Ik. ere 2.1. kap.).

Eskema, beraz, beste euskalki batzutan bezala (gogoan har Oñatiko hizkera, esate baterako), hau litzateke: (+1, +1, +1). **Pluraletan** sendigarria litzateke beherakada; baina **singularretan**, berriz (**mugagabeak** ere bezala), halako zelaia, ordeka edo **mahaia** gertatuko litzateke (beherakadarik gabe; edo beherakada xumeaz).

K. Rotaetxek egin dituen ohar zorrotzek (26) axaleko irregulartasun batzu azal ditzake.

Alde batetik, are (+2) gisa agertzen dira hitz (-M) batzu, Mendebaldean bezala: **oyé** (=ohea), **aué** (=ahoa); baina hiru silabatakoak dira funtsean.

Diptongatuetan, (+1) espero liteke; baina ordekek leundurik agertzen: **áitz** / **átxè** (= haitz); **óin** / **óñè**; **mái** / **máixè** (mahai); **déi** / **déixè** (256). Eta **ur**-ek ere, azentuketa bera dauka: **úr** / **úrè**.

Salbuespen gisa agertzen da **su**: **sú** / **sué**, Mendebaldeko hizkeren kutsuaz.

Badirudi, beraz, (+1, +2, +1) eskema ere proposa daitekeela, beste euskalkitan bezala. Ik. 4. 5 eta 4. 6.3.1.

Txar-ek ere (186, 194) **txárrà** idarokitzen du (N.4.6.3.1.).

4.6.3.2. *Silababikoak*

Estatistikoki, hauxe da eskema nagusia:

lagún / **lagúnè** / **lagúnak**

Hona hemen azpimarragarriena:

- (+2) azentudunaren eskuinean zelai edo ordeka bat dago **singularean**, gehienez beherakada xumez; bokale harmoniaz hornitua.

pluralean, berriz, eta (+2) silabaren ondoren, beherakada garbia. Gaurko bizkaieraren ezaugarria da hau; lehenago bi silabatan mamitzen baitzen beherakada hori, dikotomia famatuaren arauera: **lagún**, sg. **lágun**, pl. (Alegia: **lagúne** / **lágunak**). Pluralak ez du B.H.-rik aurkezten. (ik. 2.1. kap)

(-M) terminoetan, beraz, hau genuke: +2 (eskuinean, beraz); +2 (eta ordeka hortik eskuinerantz); +2 (eta behera).

Taula orokorrak ez du hipotesi hori ukatzen (240/241): **gixón** / **gixóná** / **gíxonak**; **txakúr** / **txakúrré** / **txákurrak**; **leátz** / **leátzá** / **léatzak**; **etxé** / **etxí** / **étxik**; **bidé** / **bidí** / **bídik**; **mendí** / **mendíxe** / **méndixak**; **olló** / **ollú** / **ólluk**; **eskú** / **eskú** / **éskuk**.

Ondarrutarren monoptongaketez ez dute azentu-mogimendurik sortzen, eta nabarmen agertzen dira hor:

ollú (= oiloa) / **ólluk** (= pl. oiloak)

(Ik. 4.5., Holmer-enak osatuz; eta 4.6.32).

4.6.3.2.1. (M+1) markatutako silababikoen izatea aipatzen du K. Rotaetxek, estatistikobi gutxiengoa direla erantsiz; eta bi adibide hauek emanez: **báso** (edatekoa), **txístu** (jotzekoa).

240-241-ko zerrendan, horietako lehenengoa dator bakarrik: **báso** / **básu** / **básuk**. Azentua ez da mogitzen. Alderantziz, oihanaren antzekoa den baso (-M) hitzean hau dugu: **basó** / **basú** / **básuk**. Plurala berbera da bi kasutan.

4.6.3.2.1.1. *seme* hitzari buruz K. Rotaetxek egin duen oharra zuzena da seguru aski (228); denak idarokitzen du, eta ez hizkera honetan bakarrik, **séme** (M+1) zaharrari, **semé** analogikoa nagusitzen ari zaiola. Oñatin ere **séme**, **sémia** dugu. Agian akitanierazko *sembe* zaharraren koda ez-hutsean bilatu behar da kakoa (inplosiozko sudurkari guztietan gauza ez den gertatzen aztertu behar litzateke. Ikus **hémen** (= heben) eta **úme**, besteak beste.

4.6.3.2.2. Bukaera diptongatua duten terminoak, berez (M+2) markatuak, beste euskalkitan bezala, Ondarroako hizkeran integraturik agertzen dira; eta, hortaz, *pluralean*, silaba batez ezkerretaranzko mogimenduan (honetan beste euskalkiekiko aurkaritzan). Ondarroan, hitz batez, morfologi azentua besteari nagusitzen zaio: **patrói** / **patrói** / **pátroik**; **gaztái** / **gaztái** / **gáztaik**; **ardáu** / **ardáu** / **árdauk**; **zamáu** / **zamáu** / **zámauk**.

4.6.3.3.2.3. Senitarteko izenek, egileak berak azpimarratu izan duenez, ez dute beti artikulua erasten. Bikote hauek datoz gogora: *etxe* (norberarena, *Etxe* bailitzan) / *etxea*; *errege* (norberarena, *Errege* hobe) / *erregea*. Etab.. Bizkaieraz (ik. P. Bartolome, adibidez) *aitiaren* (besterena) eta *aitaren* (norberarena) ez dira gauza bera.

4.6.3.3. *Trisilabikoak*

Goazen zerrenda orokorrera (240 / 241): **orkátíl / ortátíllé / orkátíllak; barbárin / barbáriñé / barbáriñak; anáxá / anáxí / anáxak; abáre / abárí / abárik** (= apaiz); **armáxó / armáxú / armáxuk**. Alegia, (+2, +2, +2); *pluralean* beherakada darraikiolarik.

Hemen, pluralean, tonu apalezko *bi silaba* ahoskatzen direla esan behar da; unitate silababikoetan ere orain dela gutxi arte gertatzen zen bezala. Nahiz-eta K. Rotaetxek «azken-aurreko silabaren azentuaren statusa» irmoki erabakitzerakoan, zaila izaten dela aitortu.

- 4.6.4. Behin eta berriz adibide askotan erreparatu denez, eskuineko /a/ geminatuak ez du azenturik sortzen (Ekialdeko euskalkiez bestaldera, beraz, erabat); eta ohar bera egin daiteke /e/ bikoitzari buruz. Alderantziz gertatzen da (ik. W. Jacobsen; K. Rot. 3. erregela, 244).

Horiek horrela, hau dugu:

oneek (= hauek), **óne(i)k, óne(e)k, ónek**
anaxaak (= anaiak), **anáxaak; anáxak**.

- 4.6.5. Azentua zutabezko edo *paradigmatikoa* da: «los morfemas son enclíticos, y por consiguiente no acentógenos, con la excepción de **-gáitik**», 554. Hots, hau, eta bestetatik ere ondoriozta daitekeena (ik. 2. kap.), gauza bera da.

-(r)ik partitiboak, berriz, ez du inoiz azentua biltzen; eta, alde honetatik, pluraleko nominatiboarekin doa, beti tonu apalean.

Hitz-enborrharen eskuin aldeko silaba batzuk, oihartzuna dela-ta, azentua bil dezakete (bigarrenkaria).

- 4.6.5.1. *Edutezko* adjektiboetan dagoen azentu-bitasunaz ematen den eskema zorrotza iruditu zaigu: **níré / níre**, etab.. Beste euskalkietan bezalatsu (ik. Larramendi) azkeneko biak salbu direla.

Badirudi, beraz, **ní, hí, gú, zú** silababakarrak, (M+1) markatuak direla; eta, beraz, **gúre, híre**, etab. sortzen direla; baina, oro har, (+2) erregela dela-ta, oxitono bihurtzen direla dirudi.

Halere, bai Larramendiren hizkeran, bai Lizarragarenean, **-rén** atzizkia azentudun agertzen da maiz.

- 4.6.6. Aditz adjektibo edo partizipioa (**ikúsi**, eman dezagun), (+2) molde orokorrari datzekio: **ikúsi, erósi**, 184; **urtén**, 182; **erántzun**, 186.

Geroaldira pasatzean, azentua ez da higitzen: **erósiko**, 193; **etórriko**, 193; eta (M+1) markatuetan ere ez: **déituko**, 182 (Ik. N. 4.6.6.1.).

- 4.6.6.2. Gauza bera esan daiteke aditz-izenaz: **ikúste**, eman dezagun:

(-M): **etórti**, 188.

(M+1): **ártzeko**, 184; **ásteko**, 162; **ártzen**, 189. (hauek hirurok silababakarrak dira beren sustraian).

Hori dela-ta, oso bitxi gertatzen da ondoko sail hau: **jutéik, ikustéik, sinistutéik, konpontzéik** (216). Arrotz, gure ustez, Ondarroako hizkeran (N.4.6.6.2.).

- 4.6.6.3. K. Rotaetxek argitaratutako datuetan, galderazko silababakarren statua ez da garbi agiri (alegia, galdegaiena): «forma grupo entonativo con el nombre que le sigue». Ohar hau zuzena iruditzen zaigu, liburu honetan barrena behin eta berriz azaldu den bezala. *Ze* galdekaria klitiko azentugabe gisa dator ikerlan horretan.

Beste alde batetik, dena dela, atzera egiten bide du K. Rotaetxek: «como en otras lenguas, son estos signos... los que se sitúan en el nivel más alto... el resto del enunciado va bajando a partir de ahí», 190.

Gure ustez, dena dela, corpuseko b.2.1. eta b.2.4. izendapenaz erakusten dituen esaldiak, gaztelaniazko interferentzia erakusten dute; eta ez euskal doinua. Galderazko entonazioan eta galdegai-lekugunean, askoz jatorragotzat dauzkagu 227-228-ko melodi-hegiak.

- 4.6.6.4. Horrelako zerbait ere esan daiteke *ez* partikulaz. Eskuarki proklitiko eta azentugabe izanik, nahiz **éztan erántzun** hori (186) topatu, ikertzaila bera harritu da («debido quizá a cierto énfasis sobre la negación»).

Eztaitt formak, 294, berriz (= ez dakit), ozenketaren ondoren /g/-ren ezabaketaz sortua, ozenketa hori mami dadin /tá/ eskatu behar da; eta *ez*-en proklitikotasuna. Larrasketak gauza bera azaldu zuen zubererari buruz aspaldiko urteetan. Hitz batez, **eztá(g)it** forma dago sakonean; beste euskalkitan bezala. (Ik. N.4.6.6.4.).

- 4.6.7. *Laguntzaileak*, klitiko agertzen dira; silababakarrak batez ere. Elkar-keta-bidezko unitateak (+2) azentua hartzen du; ezkerretako elementua (M+1) ez den ber: **ixánzan**, 193; **etórrikozaz**, 193; **eróskozuz**, 193; **onáda**, 363; **karúre**, 369; **gatxéra**, 369 (= gaitza da); **gosínaz**, 384 (**gosé-nas** espero liteke); **berónaz**, 384; **ardáude**, 285; **rarúde**, 294; **pobréei re**, 294 (= pobreegi da); **txárrada**, 184 (bestetan bezala, markatuaren zantzua da hau, *txa(h)arra* segurki); **zíneadu**, 182 (esp. cíne).

- 4.6.8. Aipatu beharra da orain *azentuz eta entonazioaz* Tesian argitara den kapitulu mamitsua; kurbak, iruzkinak, eta guzti. Aipatu behar, era berean, ongi arrazoibidetua den salaketa; alegia, azentuari eta entonazioari datzekien datuak askotan nahasi egiten direla.

Bereziki aipatzen ez bada ere, S. Altube-ren ondorio bertsuetara iritsi bide da K. Rotaetxe; eta bigarren honen «anticadencia» eta «cadencia» delakoak, Altube-ren «ante-inquirido» eta «inquirido»-en kide hertsia dira.

Hau dela-ta, K. Rotaetxek hau idatzi duenean: «el elemento inquirido se integra prosódicamente en el sintagma verbal», 196, Altube bera irakurtzen ari bide gara, eskuineko atalak elkartu eta urtu («fusión») egiten direla hark idatzi zuenean (ik.4.2).

K. Rotaetxek, halere, hobeki berezten ditu entonazioari eta sintaxiari dagokiona, batetik, eta azentuari dagokiona, bestetik. Baina aspaldian honi buruz arrasatearrak eman zituen ideiak «ongi funtsatuak» direla erasten.

4.6.8.1. K. Rotaetxe-ren ikerlanean emandako datuak berak hemen xeheki berzaldatzeak sentidurik ez lukeela-ta, goazen puntu nagusi batzu gogozterara:

a) Argitara diren melodi kurba etenkorrek ez dute ukatzen *maiztasun hutsen* azterketaren bidez soma litekeen azentu-lekua. Euskal azentuaren pertzepzioan horrek hau azpimarratzen du berriro: «pitch» delakoaren garrantzia. Adibidez: **Ondárrun**, 181; **Juanétxebárriá**, 181; **etxétik urtén bañolén**, 183; **arrátsaldetan**, 183; **biárria**, 183; **oríxú**, 184; **txárrada**, 184; **déndan**, 184 (eta **dénda**, M+1, beraz); **diárrak**, 185; **séirak árte**, 183; **ártzeko**, 184; **kátute txakúrré**, 185 (**katú** espero zitekeen).

b) *goranzko* entonazioa zerrendatzaileak, arauetatik ateko termino sasi-oxitonoen sortzaile, ongi argitzen da a.13-an, 186: **arrantzalí** (antikad.); **andíxák**, **indártsúk**, **nerbíósuk** (zerrendaketaren azkena, eta normala).

Antikadentziazko beste kasu batzuk ere, S. Altubek azaldutako goranzko entonazioa erakusten dute.

Amoroto-n, adibidez, bikote hau agertu da gure corpusean: **nebíe**, nom-norm.; **nébié**, zerrendaketan.

c) galdeketari dagokion *goranzko* melodi hegiak ere, oxitonoak sortzen ditu: **kalindá?**, 188 (= kalem da?); **úmik**, **kalindáz?**, 188; **néu-(g)az etórti naizú?**, 188; **ártzendabe autóbusá?**, 189.

d) *galdekarizko* esaldiak ere ez dira falta, eta beretan beheranzkoa da entonazio-bukaera (azkeneko silabaren inflexioa salbu). Interferentziarik ez dagoenean, (+2) silaban hasten da beherakada, baina partikula galdetzailea bera barne delarik. Beraz: **zeindá Jon?**, **nondík dator?** **zeáitik?** **norá jun da?...**

Interferentzi maila azkarra da gaur hizkera guztietan. Baina oraindik ere garbiki xamar soma daitekeena (aski du irakurleak *wh*-ezko galdera-mota kontutan hartzea), foko-partikulazko galdera horien entonazioak *aurkakoak* dira, edo guztiz desberdinak bederen, euskaraz eta gaztelaniaz. (Ik. 4.1. kap.).

Oharrak

N.4.6.3.1. Neure corpusen arauera, *Markina*-ko euskaraz azentua ez da singularrean mogitzen: **úre**, **dána**, **báltza** (bigarrenak, dena dela, ezer gutxi erakusten badu ere). *Arratia*-ko hizkeran ere, **báltza** aurkitzen dut. *Bu-*

troe-n, berriz, baita (M+1)-tzat har zitekeen *txar*-ean ere, **txarrá** dakar. *Meata*-n (erd. Mendata), Arratzu eta Gernika-tik hurbil, normalean, B. Gandiaga-ren lekukotasunaz, azentua ez da mogitzen: **értza**, **értzak**; **bártza**, **bártzak**; **mótza**, **mótzak**; **súa**, **súak** (súe espero zitekeen); **lurra**, **lúrrak** (lúrre soma). *Izpaster*-ko bandetan, berriz, **txárra** entzuten da; *Amoroto*-koetan **sárra** eta **úre**; eta *Berriatua*-koetan **sárrak**, **jáízetan** (plural normalak); baina espero zitekeen kontrako **daná**. **Géizenbàt** eta **ónenak** unitateek, (M+1)-ren alde mintzo dira. Baina **-batén** inesiboa, bizkaiera mota guztietan normala, silababakarretako mogimenduaren alde mintzo da.

N.4.6.3.2. *Meata*-n pare hauek ditugu: **gáste** / **gastíe**; **bérba** / **berbíe** (markagabea han?); **séme** / **semíe** (ohar bera); **lóra** / **loría**; **ándra** / **andríe**. Badirudi analogia denak berdintzen ari dela. *Izpaster*-en hauek ditugu: **eméndik** (+2, beraz); baina **žausi**, **pákie**, **máixuè**, **gítxi**. Ondoko hauek (M+1)-tzat har badaitezke ere, zerrendaketa-entonazioak nahasi egin du egoera: **méndížé**, **árrijé**, **lékué**. Eta **lágunekin** eta **bátzuk** normaltzat har daiitezke.

Amoroto-n markatu garbi batzu topatzen ditugu: **béstia**, **bérton**, **gézo**, **sémia**, **úmià**, **áistiè**, **néskia**; baina **askó** eta erdaratikako (M+2) hau: **te-llár** (erd. taller).

Berriatua-n, era berean, **bátzar** (oso zabaldua bestetan ere), **gítxi**, **úme**, **máixuè**, **kánpora**; baina **askó**, **gizón**, **naikó**, **geró**, **errijen** (= herrian), **iés** (= jaz), **gastía**, **egún**.

N.4.6.3.3. *Meata*-n (+2) da nagusi; baina tonu-desberdintasunak guztiz ahulak eta erreparagaitzak direlarik: **emákumie**, **emáztie**, **abádie**, **goróstije**, **lotzágarrije**, **negágarrije**; azkeneko silaban halako markatxo bat soma dai-tekeelarik.

Gauza bertsua *Izpaster*-en: **gultzúrrunak**, **errékaduè**, **mandátuè**; baina **dénpora**. Eta *Amoroto*-n: **Berrítu**, **Amórotorà**, **mutíko**, **eméntxe**, **ostéantzin**, **tabérnia**, **arrébiè**, **alkátièk**, **eléantià**, **basérrijè** (báserrijè espe-ro genuen), **igéltzerò**, **alábià**, **ixékuè**; baina **éuskeráz**. Eta *Berriatua*-n: **aurténgoa**, **amálau**, **Ondárrukò**, **bestéla**, **arpégijè**, **lengúsiniè**.

N.4.6.6.1. Hona hemen beste batzu:

Amoroto: **bísidè**, **pástendà**; baina **pasáu**, **erósidù**, **eskóndusèn**. *Berriatua*: **ásinauèn**, **ártu**; baina **etórrrikodis**, **urténgodauéla**, **amáittu**, **ikúsikogù**, **emón-ében**, **egóngiñán**.

N.4.6.6.2. Hona hemen beste batzu: **igóten-dà**, **lagúntzen-dù**, **emóten-dábelakò**, **isáte-bàn**; baina **ílteko** (*Berriatua*).

N.4.6.6.4. *Meata*-n ere berdin: **badákit**, **badákisù**; **estákit**, **estákisù**. *Berriatuan* hauek ditugu: **esdákit**, **badáos**, **badákisù**, **baukégu**, **estót**; are **esbákarrik** ere.

4.7. Gaurko gipuzkera (ideia batzu)

Euskalkien multzo osoan, seguru aski gipuzkera da denetan lauena azentuaren aldetik; eta, hortaz, aditzen zailena ere bai. Halaz ere, edo horregatixek nahiago bada, gipuzkera da gutxien aztertu direnetakoa.

Beronen deskribaketan urrats garrantzitsurik eta segururik egin nahi izanez gero, hau beharko litzateke (hau behar da, hobe esateko): alde z aurretik, Beterrri-koa, Goierri-koa eta Nafarroa-koa, Bonaparteren eskutik, gipuzkeraren hiru hizkera nagusiok lan monografikotan azaldu; eta lan hau burutzerakoan, jakina, tresnabidezko datu seguruak biltzen direlarik.

Oraingoz ez dira baldintza horiek mamitu; eta, ezinbestean beraz, hemen dugun kapitulu hau, nahi ta nahi-ez izango da ahula eta oraingozkoa bakarrik. Gaur egun ahozko mintzaira gisa gehienik erabiltzen den euskalkia hau dela kontutan hartuz, are ahulágo gertatuko irakurleari. Ondoko urteotan deskribaketa fintzeko eta zehazteko aukera ez da urri izango.

Horra hor gomita, beraz; Bilbo-ko Deustuan estrainatu berria den Laborategia baliatuz, trikatu gabe gipuzkeraren azterketa horretan barrena ikertzaileak abia daitezen.

- 4.7.1. Ohar bat aurrenik, ahobatez seinalatua: gipuzkeraren azentu-mota *guztiz laua* da (areago bizkaiera baino). Baiespen honek badu oinarri akustiko minimo bat bederen: Navarro Tomás-en ikerlanena (ik. 1.3.3. kap.).

Bide beretik dator Nils Holmer-en aitorra: sueziar hizkuntzalari saiatuak, hastapenean nafarrera garaiarekin ohituta (nahiz hau, 1.3. kapituluak erakutsi denez, gaztelaniazko azentua baino berdina izan), gipuzkeraren ikerlanari ekitean, aztoraturik bezala ibili zela aitortu du: «En los especímenes de Oyarzun el acento no va marcado si no tiene marcada fuerza. Los naturales de estos puntos hablan con una *entonación muy llana*; por lo que el acento tónico de dichos dialectos parece poco definido». (El Idioma vasco hablado, 147). *Gaztelu*-ko azentua ere (gipuzkera), Nafarroan baino lauago iruditzen zaio (161), baita orduartean «ohituta zegoena» baino berdina goa.

Jatorrizko azentuak eta oihartzunezkoak (beti ere bi silabatako tarte nagusian agertzen), edonor galtzeko moduan jarraitzen zaizkio elkarri; eta, hori dela-ta, «*muy a menudo* resulta *imposible* distinguir los acentos secundarios (o rítmicos) de los propios» (Holmer, d.40). Gipuzkerazko transkribaketak egiten saiatu diren guztiek dakite ongi hori egia dena; eta lapurteraz eta baxenabarreraz ere antzeko zerbait gertatzen dela.

Ulergarria da, beraz, entonazioari datxekion melodi-aldaketek egoera are zailago egitea: edozein zerrendaketatan edo agindutan, edo-ta galdekari berezirik gabeko galderatan, itxurazko oxitoniak azaltzen dira.

Hitz batez, eta azken buruan, inork ez daki azentua non dagoen, aldakaitza denez, deklinabidean barrena paradigmatikoa denez; eta, azken funtsean, egon dagoenik ere ez. Gipuzkerari dagokionez, «ez-izate» horren inpresioa azkarrago bihurtzen da. Eta Mitxelenak berak galdera berberak egin ditu «Fonética H. V.»ren azkeneko argitaraketan (20. kap., 576).

- 4.7.1.1. Halako oinarritzko akordioa eraiki bide daiteke zenbait punturen gainean; kontrako argudiorik aurkeztu ez den bitartean bederen (batera akustikaren eta pertzepzioaren mailakoak, noski).

Puntu horiek gipuzkera ikertu duten guztiek aipatu dituzte alde edo moldez. Larramendik aurrenik; baina baita N. Tomás-ek ere orain dela mende erditsu bat; baita geroago Mitxelenak, Nils Holmer-ek, J. M. Barandiaran-ek (Ataungo bere ama-hizkeraz eman dituen transkribaketetan bederen), Kandido Izagirre-k (Altsasu-ko hizkerari buruzko bere lanean), eta abar. Eskualde horietako jendeekin maiz hitz egiten duen nornahik azpimarra ditzake ezaugarri horiek (eta kasu horretantxe dago lerro hauen prestatzailea).

- 4.7.2. Hona hemen lehendabiziko datu fonetiko nabarmen hau: inguramentutik at izenak eta adjektiboak singularrean ahoskatzen direnean, ia-ia guztizko *isotonian* ahoskatu ohi dira; kolpeka bezala, beti ere silaba guztietan tonu-maiztasun berbera iristen delarik. Aski da *ederra* hitza, soilik, gipuzkoar batek ahoskatzea (ardo on baten «gradua» txalotzekotan, eman dezagun), segituan melodi-hegi berdina entzuteko: **éderrá**, isotonia osoan. Nahiz, agian, azkeneko silabari dagokionez, intentsitatez, baina ez bestetan, halako azpimarraketa segaila gertatzea.

Sistematikoki gertatzen da gauza bera hitz soiletan: **árruá**, **zérriá**, **álpérrá**, etab. (**ál-pé-rrá**, balitz bezala). Edo-ta, zernahigatik pertsonaiaren bat mesprextatu edo gorrotatuz gero, orain dela oso gutxi arte erabat debekatua zen hitz tabua erabiliz gero (barka adineko euskaldunek): **á-lú-bá**, emakumearen 'pudenda' delakoa; eta /b/ hori Beterrin bakarrik entzun daitekeelarik (ez horretan bakarrik; baina ez gara horretaz hemen ari). Isotono hori bidenabar esateko, izugarri zabarra, eta halako errealditan ez izatekotan ez entzuna, Iparraldean **alúia** ezaguna, (+2) azentuz entzuten da han.

Isotono osoak ahoskatzen zail da; eta areago entonazio azkarraren inguramenduan. Nahiz objektiboki isotonia hori akustikoki lortua izan (ik. N.4.7.2.).

Hori dela-ta, grafia anizkunak aurkituko ditugula soma dezakegu jadanik; eta, jakina, denok oinarri fonetiko berberaren deskribapen gisa. Lehengo **éderrá** isotonikoa, **ederrá** ere transkribatuko da; baita **ederrá** eta **éderrá** ere aldika; edo-ta, haserako podatus-aren eraginez, **ederra**; honetan guztian grafiaren aldakortasuna adierazgarria delarik.

Hona hemen fenomeno horren argibide batzu, Kandido Izagirre-netik

hartuak: **bér déi árduá**, Alts., 51; eta, segituan, **ata zazubéi, ardúa**, Alts. 51 (biok informatzaile berberaren ahotik jasoak). Era berean bikote bitxi hauek eskaintzen dizkigu: **oilárra / oóilarrá**, 59; **ízotza / izótza**, 69; **gúrdiyá / gurdíya**, 66. Edo bikote harrigarri honetan: **apaiz askó ta jende ásko**, 68 (hemen izen-unitatean sortutako oihartzunezko azentuak nagusi arazi bide du bere eragina silaba desberdinotan: **apáiz-askó** eta **jénde-ásko**).

Beste kasu askotan, berriz, hizketaren beraren bitasun baten aurrean gaudela dirudi; eta bi moldeek balio bera dutela deskribapen gisa. Funtsean, beraz, sustraiko isotonian bilatu behar da kakoa.

Larramendik (ik. ondoko kapitulua) datu fonetiko hori transkribatzeko, unitatearen *azkeneko* bokalean jarri ohi zuen azentu diakritikoa. Azkuek, berriz, baita Mitxelenak ere, nolabait esateko «ekonomia diakritikoa» rengatik, nahiago dute *forma zuzenetan* azentu diakritikorik batere ez jartzea; baina unitateen bukaeran, eskuin aldean, beharrezko jaitsera dagoenetan, azentu «lodi» bat jartzea: *gizonak* (= **gízónák**, erg. sg.) / **gizonàk** (= **gízonak** edo **gizónak**, pl.).

Kandido Izagirrek, bere aldetik, batera pertzepzioari jarraitzeko eta bere irakaskizuna ulerterrazago gertatzeko, honetara markatu ohi ditu gipuzkerazko unitate zuzenak: **gízoná, emákumé**. Eman ditzagun adibide batzu (Altsasu-ko hizkerari buruz): **bútanó**, 49; **ákerrá**, 49; **békainá**, 55; **úrriyá**, 58; **ézkerrá**, 62; **trístiá**, 72; **gírtená**, 65; **ódaiyá**, 77 ('la tormenta'); eta paradigmaticotasunak, beste euskalkietan bezala, ez du zalantza handirik uzten: **gúrdiyán**, 54; **négarréz**, 60; nahiz batzutatako azentuketak ulertu ezinak izan, edo ia-ia, analogiak eta entonazioak batera eragindako aldakuntzengatik.

Lau silabatako unitateetan, dena dela, azentuketa nagusia (+2, -1) da: **ondárríán, sekátzerá, etórrjarté**.

4.7.2.1. Harrigarria da, halere, singularrari datxekion eskema ordeka horretxek, pluralera gaur iristea: **ézpainák**, 62; **étsaiéi**, Holm. 49; eta gauza bera eguneroko hizkeran: **álabák, kóntuák, étxiák**, etab.; nahiz zenbait aldiz entonazio-arrazoiak bilatu ahal izan.

4.7.2.2. Halaz ere, nola edo hala bederen argi xamar agertzen dira puntu batzu: Mitxelena irakasleak, Nafarroa aldetik gipuzkererazko azentumotaren mugaren bila abiaturik, zehazki non dagoen esan baitezake. Oihartzun, adibidez, «Acento IV»-koa dela baietsi du (Bortzerrietako azentuaren moldekua, hitz batez; ikus 4.9. kap.); Errenteri-koaz, berriz, «acento I» dela diolarik («Mendebaltarra», beraz; eta gipuzkeraren plegukoa).

Goazen atalka.

4.7.3. Silababakarrak (eta izen-aireak)

Sistema nagusia hau bide da: **úr / úrá / úrak**.

Lehenengoa gutxitan erabiltzen da. Zalantzak sor ditzakeen bakarra bigarrena da: **úra** izan baitaiteke, beste euskalki batzutan bezala; edota, haserako podatusaren eraginez, **urá**.

Joera nagusia (Gipuzkoako bizkaieraz bezala, ez baita txiripa segurki), azentua hitzaren *silaba bakarrean gelditzea* dela dirudi: **súbaren** (Holm. 63); batez ere, eta soma zezakeenaren arauera, diptongatuetan eta beste (M+1) markatuetan: **jáiye**, Izag. 72; **áuntze**, Hol. 49; **txárra-(da)**, Hol. 49; **gáñetik**, Hol. 161, **góiseko**. Harrigarriago da *su* horren kasua, beste euskalkitan ikusi dugunaren aurka: **súrteko**, Holmer.

- 4.7.3.1. Neure corpusetan ere joera bera. Diptongatuetan, laburdurakoetan, etab., azentua (+1); baina beste askotan ere bai, egia esan:

Donostia: **sárra**, **sárrakiñ**; **góiseko**, **bósik**; **dánai**, **dánetatik**; **léno** (= lehenago), **géio** (= gehiago), **gora**. Baina **laná**, (-M) den honetan.

Azkoitia: **máijen**, **góro** (= gorago); baina baita **úra** (nahiz **urík**); **béltza**, **ónena**.

Zumarraga: denak (M+1), **dána**, **trénian**, **gáuen**, **géien**.

Deba: Hemen denak, itxuraz: bai **dána**, **gáitza**, **txárra**, **áitzak**; bai **béltza**, **báltza**, **óna**, **lánian**.

4.7.4. Silababikoak

Markatuak ez diren unitateetan, legea hau bide da: **gízon** (artifiziala) / **gízóná** / **gízónak**. Plurala beheranzkoa bide da; eta singularra (eta mugabea, teorian), zuzena.

Guipuzkeraz (+2) silaba markatzeko joera dago, hizketarakoan: **Kaláor-rati**, Izag. 48 (vs. Calahorra); **Berástei**, Holm. 41; **mutúrko**, Izag. 50 (= muturreko); **Berdíltza**, Beizama-n (ik. 3.4). Eta grafía nagusitzat hau proposa daiteke: **gízóna** / **gízónak**. Bestelako biak ere badaude, dena dela: **gízóná**, batetik; eta «larramendi» tarrago den **gízóná** bestetik.

Holmer-en ustez, hauxe da gipuzkeraren azentu-oinarria: **gízon**, sg./**gízón**, pl.; eta, hortaz, **gízónak**, erg. sg., 37/**gízónak**, pl., 38. Deklinabidean barrena, zutabetasunari (paradigmatikotasunari) eusten zaiolarik.

sg. gízónari ,	dat.vs. pl. gízónai , 36, 38.
mutíllakin	mútíllakin
alkíri	álkiei , 53
neskákín	néskakin , 54

Ataun-go hizkeran gauza bera gertatzen da (Barandiaran); adibidez, **zákurrez**, sg. 27,31 / **zákurrek**, pl., 27,30; **lapúrren**, 12, 84 / **mórroiak**, 49,50 (eskuineko kodaren gainetik); **burúan**, Hol./**búruk**, Bar. 27, 30; **sudúrre**, Holm. 49 / **sórgiñek**, Holm. 63; **zuéitze**, Holm. 49 / **gózuak**, Holm. 151. Alatiβοetan aisa entzun daitezke hauek: **etxé(r)a**, **txokó-**

(r)a, semiek (= semeak), **andriek** (agian espero genuenaren aurka). Are: **iketzá, gariyá**; funtsean, berriro ere, **í-ké-tzá** eta **gá-rí-yá**.

Azkoitiko bikote hauek ere oso adierazgarriak dira: sg. **umiek, ardúa, ardíjek**; baina pl. **úmiak, árdo, árdíjek**.

- 4.7.4.1. Geure corpusetan joera antzekoak aurkitu uste ditugu, baina xehetasun batzu erantsiz. *Mugagabea*n, adibidez, Ekialdeko sisteman gipuzkera hedatzen ari bide da: koda hutsa, paroxitonia; koda ez-husta, oxitonia (Larramendi-z geroztik, beraz, gipuzkeraren «erdalkuntza» gertatu balitz bezalaxe; ik. 4.8. kap.). Adibidez:

Donostia: **áma** (**ámak, áma(r)i, ámakiñ**); **zórtzi, mérke; jénde, máistra, kánta, néska, díru, jókuán, sémiakiñ, ázpira** (Askok, dena dela, (M+1) beren egoera normaletik jaso dute azen-tuketa hori beharbada; eta hau ez da ahantzi behar).

Bestetik, berriz: **emén, egúnaz, ezáuna, motórrean, ondárrian** (bostak, kasu, koda ez hutsekoak).

Berezkuntzak normalak dira batzutan, baina ez beti: **geró** (ik. geroago), **mollán** (ik. mollaan), **osó, ondó**.

Pluraletan (+1) nagusi, baita (M+1) batzutan ere: **árraiak** (eta ez **arráiak**)

Azkoitia: **ardó** (oná), **ardó** (beltza), **paré, asmóz, bizí, andírik** // **etxerá, etxían, bidían, semíak, eskúan, gauzía, bustíe, ogíje, mozkórra, ezkérreko, polítte, gizónek** erg. sg., **makála**; baina **béste** (euskalkirik gehienetan bezala (M+1)); **gústora, prísa, gógoa**.

Zumarraga: **arrái, alpérra, emén, bakárra, bakóitzari**; baina **béste, púntu, kótxez, zénbat, álkar, ámar, gáuzea, méndiz, bégiz, éskuz, árriz, ásko, bátzuk, gáizki**.

Deba: **emén, bakárrik, txakúrrak, políttean, bakían** (sic), **udán, neskía, katúak, garbíxa, ogíxa, ardúa, askótan, anáixa**; baina **bérriz, béstia, léku, díru, kálera, gútxi**.

Datu hauek guztiak berrikusi egin behar dira, noski; ez baitira denak interferentziarikgabeak, edo-ta gaizki hartuak.

4.7.5. Hiru silabatakoak.

Navarro Tomás-ek adierazi zuenez, hauxe da eskema nagusia: **itúrri** (+2) / **itúrriyá** (+2, -1) / **itúrriyak** (+2).

Eskema hau, ikusiko dugunez, aldakaitza da 3 silaba, 4, 5, eta abarretatik, gora. Bigarren silaba dago markaturik; eta oposizioa dago singularren eta pluralen artean: zelaia edo ordeka, vs. beherakada. Adibidez: **abéndubá, arrázoíá, itturriyá, gaitzérubá**, Izag. 59. Zerrendaketan,

berriz, hauek ditugu: **astelená, osteguná**, Holm. 52; baina pluraletan, bukaeraren atoniaz: **eiztáriak, emáziak**.

Gipuzkeraz ere, noski, badaude (M+1) markatuak diren trisilaboak. Seguruenetako bat hau da: **bázkari** (alegia, **bázkaria**; baita **bázkaldu** ere bai); jatorrizko **ba(r)azkari** delakoa kontutan hartuz gero, ulertzen erraza. Multzo horri dagozkio, era berean, ondoko hauek: **átsalde** (ik. *a(r)atsalde*); **úrrungo, dénborá, óllasko, bézpera**, etab.; zerrenda osorik oraingoz aurkezteko erarik ez badugu ere (N.4.7.5.).

4.7.5.1. Hona hemen geure corpusetan aurkitu ditugun beste batzu:

Donostia: **áustiña, párranda, átzaldetan; báñeró, ámunák, áitonák, bátelák, árdorán, údarán, Mádrídá // ollágorrá, eztárririk, gatzéluán.**

Azkoitia: **ainbéste, ollásko** (sic), **errézo, arkúme, sukálde; zarágiá, itúrrié**. Baina: **azokára**, Bergaran edo Eibarren bezala. Interesgarria ere: **biliburú, bi** delakoa proklitiko bihurtua.

Zumarraga: **eskolán, amábi, Ordízin, Añórgan**, baina **bástanté // itsá-sorá, nortásuná, egóskorrá**. Baita (M+1) batzu ere: **médi-kuarenganá, érderaz, éuskeraz**.

Deba: **eléizan, anáixa, gosáldu // gosárixá, arágixá, arráutzia, makíllia, guntzúrrunák.**

4.7.6. *Beste polisilabiko batzu.*

Adibidez: **emákumé / emákumeá / emákumeak**.

Hona batzu: **besótakú**, Izag. 49; **iférnukú**, Izag. 65; **alábií**, Izag. 74; **landárbasó**, 149; **gizásemé**, 151; **astólarrú**, 151; eta askotan (+2) bakarrik dator: **bedératzi**, 56; **emákume**, 69. Luzeagoetan, berriz (+2, -1): **pelé-grinaziýún**, Izag. 68; **iñúlabarrián**, Izag.

4.7.6.1. Eta bide beretik gure corpusetan: **moxkórkerian, emákumièk** (Azk.); **legázpikoak, amázazpi, elórrixoko, ikástolará, kaféteri, aurréneko** (Zumar.); **emákumià** (Deb.).

4.7.6.2. *Aditz-izenek eta partizipioek* (aditzaren elementu infinitoek, beraz), gainerako euskalkietan bezalatsu.

4.7.6.2.1. *Erro silababakarra.*

(M+1) markatuak balira bezala: **ártu, ártuko; járri, járriko; útzi, útzi-ko, útziá; jártzeko, júteko, júten, jútie, jósten, játeko, jótzeko, ártzeko**.

Joera bera gure corpusetan: **júngo-gerá**, Zum.; **jósteko, jártzeko**, Deb.

4.7.6.2.2. *Erro silababikoa.*

Azentua (+2), markatua ez den ber: **esán, esángo; egón, egóngo; azáldu; ikúsi, ikúsiko; etórrri, etórrriko; egín, egíngo; geátu; iréitzekó**, Alts.

Izag. 66; **egíteko**, 41, 147; **ikústera**, **esáteko**, **arrítzekua**, **ordáintzen**, **eáteko**, **eáteke** (Azk., edan gabe), **eóteko**. Baina: **bóta**, **bótatzen**.

4.7.2.2.1. Joera bera gure korpusetan: **etórtzen**, **emáten**, **sekátzerá** (Don.); **esángo**, **esáne**, **edáteké**, **edátekó**, **izáten**, **egíteko**, **egóteá**, **egótekó**, **pasátzen**, **irítxi** (Azk.); **etórrri**, **ekárri**, **irítxikó**, **ikúsi**, **esáten**, **emán**, **ulértzen**, (Zumar.); **esán**, **gosáldu** (Deb.).

4.7.6.2.3. *Erro polisilabikoa.*

Azentua (+2), normalean: **aprótxatzekó**, **atéra**, **atératzeko**. Baina: **bázkaldu**, **bázkaltzeko**; **béittu** (= begiratu) (Zumar.). **Ibillitzia**, Don.; **erámango**, **itzéitteá**, **akórdatzen**, **akórdatzekó** (Zumar.); **preparatú** (Deb.)

4.7.7. *Aditza.*

4.7.7.1. Adizki trinkoak, Larramendik orain dela bi mende esan zuenez, (M+1) markaturik agertzen bide dira: **dátor**, Holm.; **dágo**, **dábil**; baita **dáijola** ere (= dariola).

Laguntzailleak, silababakarrak direnean (-*da*, -*zan*, -*dan*) *atono eta enklitiko* agertzen dira; nahiz aski pisu fonetiko dutenean, (M+1) izan badaiteke ere: **nítzake**, **gíñeke**, **zíneteke**, **dézute**, **lézake**, **núke**, etab, (Holm., 80)

Barandiaranen grafiek ere bide beretik bultzatzen dute.

4.7.7.2.1. Gure korpusetan, laguntzaileak berezko azenturik gabe agertzen dira; edo-ta (-1) azentuaz hornituak: **etórtze-zirán**, Don.; **emáte-zigún**, Don.; **ási-diré**, Azk.; **egíten-zakó**, Azk.; **irítxi-danián**, Azk.; **pentsáu-du**, Azk.; **sártu-dá**, Azk.; **batú-ditú**, Azk.; **ulértzen-degú**, Zumar.; **emán-dizuté**, Zum.; **esáten-dué**, Zum.; **ikúsi-zattút**, Zum.; **jungó-gerá**, Zum.; **esán-zidán**, Deba.

4.7.8. *Proklitikoak aditzean eta bestetan.*

Baiezko *ba*-eta ezezko *ez-proklitikoak* dira, eta ez dute azenturik inoiz hartzen. Adizkiarekin eratzen duten unitatean, azentua bigarren silaban doa: **bigarren udi badón**, Izag. 65 ('ya es el segundo verano'); **bajá-kik éskuez**, Izag. 55 ('sabe vasco', hika); **beste bat bazán**; **badáki**; **badá-kigu**.

Hona hemen Holmer-en beraren ohar hau: «(la acentuación en formas con *ba*-) no parece estar en ninguna relación con la función sintáctica», 99. Ohar hau ezkorregi iruditzen zaigu. Beste euskalkietan ageri den sintaxi-berezitasuna gipuzkeraz ere topa baitaiteke; nahiz, azentua ahulago izanik, kontraesan gehiagorekin.

Adibidez: **etzákit**, Izag. 76; **nik enákin**, Izag. 76; **etzún zúloik**, Holm. 48; **etzétorren**, 92; **ezán** (afrikaziorik gabe, ez zen).

Azentuari buruz, batera datoz Holmer eta Larramendi puntu honetan: *ba*- eta *ez*- bezalaxe erabiltzen da *al*- (Holmer, 101).

Partikula hori bakarrik ez, jakina; liburu honetan behin eta berriz frogatzen denez.

Gipuzkerazko geure corpusetan, beste adibide batzu aurkitu ditugu: **zer-kólorétakó**, Azk.; **bi-líburu**, Azk.; **gar-zórtzi**, Tolosa (= gaur zortzi). Berez klitiko ez diren silababakarrok, klitiko bihurtu dira posizio horretan.

Zer esanik ez, adibide pila bil daiteke berehala *ba-* eta *ez-* ekin: **eztáo**, **eztú**, **eztáki**, **eztákizú**, Azk.; **eztáuke**, **badákit**, Zum.; **eztío** (ulertzen), Zumar.

Alderantziz, baldintzazko *bá-* markatua da, *gutxienez* Gipuzkoako kostaldean. Holmer: **báztatóz**, 92; **jute ezpáiñan**. Eta Azkoitian: (**agértzen**) **bádit**.

4.7.8.2. Beste klitiko seguru batzu ere badaude.

Alde batetik, eta Holmer-ekin esateko: «las conjunciones subordinantes son todas enclíticas», Holm. 104. Eta horien artean: *-(e)la* eta *-(e)nean*. (41).

Bat enklitiko izaten da; batez ere artikulua mugagabearen funtzioz betetzen duenean. Holmer-ek besterik uste du, dena dela, «*bat* puede tener acento propio aun con funciones de artículo indeterminado. Cuando va sin afixos es normalmente clítico e inancetuado; como se ve en la facilidad con que se convierte en -at». Ohar bat egin behar hemen: gipuzkerak, azkeneko silaban *oso maiz* azentu bigarrenkaria agertzen denez, klitiko horiek oihartzuna dela-ta, azentudun gertzaten dira: **-dualá**, **-diralá**, **-delá**, etab.

Alderantziz, eta Holmer en ustez (eta gurez ere bai) bai **gárrri** bai **tár** unitate berezi eta (M+1) markatuak dira gipuzkeraz.

4.7.9. *Entonazioak* ondorio garbiak ditu gipuzkeraz, beste euskalkietan bezala.

Pátxi pertsona-izena, adibidez, oxitono bihurtzen da deikarian, **Patxí!** (Izag. 48).

Gauza bera **éne** edutezkoa: **ené!**

ágo indikatiboa ere, **agó** bihurtzen da agintekeran, Izag. 48.

Era berean, ohizko **úra**, énfasis **uddá**: bihurtzen da Bidanian eta Beizaman gure corpusetan.

Aldakuntza bera gertatzen zaie **étteko**, **játeko** eta **edáteko** normalei: zerrendaketan, oxitono agertzen zaizkigu: **ez eittekó**, **ez jatekó** eta **ez eatekó** (ohar bekie azenturik gabeko hiru «ez» horiei»).

Azaltzen ari garen honen argigarririk ederrena aurki daiteke K. Izagirre-ren corpus-ean (Altsasua): **éskuez** (= euskaraz) normalarekiko aurkaritzan, **eskuéz** galderazkoa dator:

aizpa biyok bagendekien éskuez, 51; baina:

bakizu eskuéz?, 51

Gauza bera zerrendaketa hauetan:

aritzá, eta paguá, eta erreká; edo-ta:

lakaiá, gaitzérubá eta áneá.

Oharrak

N.4.7.2. 1976-an Ilse Lehiste-k argitaratu zuen artikulua («Isochrony reconsidered», Journ. of Phon.) mota horretako fenomenoen bilduma ona da; eta beste kapitulu batetan eskaini diogu iruzkin bat. Aldizkari berean (1979, «The perception of stress by Italian speakers») test baten berri eman zuen P.M. Bertinetto-k. Bai bi ikerlan horietan, bai antzeko askotan ere, gauza bera frogatu da pertzepzioari buruz, beti subjektiboa izaten dela; eta, oinarrian, norberaren hizkuntzak inposatu duen pattern izkutuaren arauera moldatzen dela. Isotonia, beraz, eta azentua, silaba bikotxietan nabaritu uste izatea, gauza bertsua da; eta erabat normala. Baita isotonia fisikoan ere.

Nahi baino lehenago egin ditzagun ohar batzu izkribu horietaz; ondoko lerroetan ere oinarritzat hartuko baititugu.

N.4.7.5. Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzerakoan (ikus «Euskara», 1958), (M+1) markatutako hitzen lehendabiziko zerrenda bat eman zuen *Mitxelenak* (Azkue-ren ondoren, egia esan). Horietako batzu gehienak, behin eta berriz errepikatzen dira euskalkietan barrena; beste batzu, berriz, euskalkien arauera molde desberdina badute ere.

Interesgarri izan daiteke berori hemen gogoraztea; eta dagozkien iruzkinak egitea: **árrantza** (ik. arrain, Azkuek ere bai); **básua** (= erd. vaso, oso normala); **iltzia** (= hiltzea; **hil** silababakarra; Azkuek ere emana); **éltzia** (= heltzea, ik. **hél**, silababakarra); **mákina** (erd. máquina); **káiola**; **béstia** (hizkera askotan, **béste** markatua); **átzia** (agian **áurre**-ren eraginez); **lótiya** (ik. **ló**); **tártia** (orokorra); **tókiya** (oso hedatua); **kábiya** (Azkue-k ere bai); **périya** (erd. féria); **prémiya** (orokorrean, prototonoa); **múkiya**; **léyua** (ik. leihoa, diptongatua); **mókua**; **málkua** (oso zabala); **ttánttua**; **xátua** (ik. zahagia); **lékua** (zalantzak daude: Bergaran markatua da, baiña Oñatin ez, Izagirreraren beraren arauera biak); **ámua** (oso zabaldua); **káikua** (ik. diptongoa); **mállua** (oso zabaldua, eta diptongatua: *mailu*); **txístua** (M+1), markatua (vs. *txistúa*, -M, *tu-a*),

(M+1) markatua den hitzaren azentukera zer den, ongi azaldu zuen Azkuek berak: «gain-beera dijoaz leen silabatik aurrera», *Mitxelena*-ren hitzez («Euskera» 1958, n.3, 41).

Hots: melodi-beheraketa horixe da, hain zuzen, Mendebadeko euskalkietan pluralaren ezaugarria (gipuzkera barne). Hori dela bide, *Mitxelena*-k [- plural] ezaugarria proposatu du (- M) elemenduen formulatzen.

N.4.7.5.1. Dena dela (eta kapituluan azaltzen dena kontutan hartuz), berehala eman daiteke lehen irizpide bat *Mitxelena*-ren zerrenda horretaz.

Mailebuak daude, batetik; ezkerreko silabaren koda astuna, bestetik.

Baina 6. kapituluan itzuliko gara gai honetara.

4.8. XVIII. mendeko gipuzkeraren azentua (Larramendi-ren arauera)

Aita Larramendi-ren obraren bitartez egin daitekeen gipuzkera zahararen deskribaketa, ezinbestean ahula eta zalantzez betea bada ere (besteak beste, orduan ere, gaur bezala, gipuzkerak azpi-euskalki desberdinak zituelako), euskalari ospatsuaren lana aztertzea bidezko iruditzen zaigu; batez ere, aldez edo moldez, bere jaiotza-hizkeraren azentu-ikerketak sistematikoa egiten lehendabiziko euskal hizkuntzalaria izan delako.

Alde batetik, bere «El imposible vencido» famatuan, erregela-multzo sail luze bat eman zigun azentuketa horretaz. Hots, hori guztia «haren irudimen berotik jalgia dela» pentsatzea, zorakeria litzateke. Hain zuzen ere: denak adierazten du, baita azentuari buruzko haren datuek ere, A. Larramendik euskara *oso sakonki* ezagutzen zuela.

Beste alde batetik, azentuketa grafikoa erabili zuen bere euskal izkribuetan: «Diccionario Trilingüe»ko esaldi luzeetan eta hiztegi pasarteeetan ez-ezik, «Euscaldunai osasuna» deritzon testuan ere (CXCII eta hurr.), Mayans-en aurkako Agiri sutsuan, azentu grafikoa erabili zuen. Ordenakide eta adiskide zeukan Aita S. Mendiburu-rentzat prestatu zuen hitzaurrean ere («Jesusen bihotzaren devocioa» izeneko libururakin batera argitaratua) azentua markaturik dator.

- 4.8.1. Nahi baino lehenago egin ditzagun ohar batzu izkribu horietaz; ondoko lerroetan ere oinarritzat hartuko baititugu.
- 4.8.1.1. *D.T.*ko azentu grafiko hori (guk zehazki ikertzeko aukera izan dugun bakarra: Pío de Zuazua-rena, 1853-koa), izugarri aldakorra da; eta nekez balia daiteke orain dela bi mendeko gipuzkeraren azentua zehazki eta osoki aztertzeko. Zenbait orrialdetan maiztasun handitan dator delako azentu grafiko hori. Egia da. Baina segituan, ondoko kapituluetan, azentu horren aztarnarik ez dago. Seguru aski, lanaren argitaraketa bere gain hartu zuen inprimategiaren lepora bota daitezke irregularitasun horiek; huts tekniko gisa, alegia. Baliteke DT lehendabiziko argitaraketan huts gutxiago egotea; 1729 an egin zenak esperantza bide zabalik utzi ez arren («El imposible vencido»z ari gara orain).
- 4.8.1.2. «El imposible vencido»an datozen argibideek, eta are gehiago paradigmeak, akats nabarmen bat daukate; egilearen teoriaren adibide hertsia diren aldetik, artifizialak izan daitezke agian; eta, horrez gain, hamai-ka azentu irregularitasun eta hutsune erantsi behar da. Hautematen diren huts horietako batzu, hain zuzen, guztiz adierazgarriak dira, ikusiko dugunez; eta Josu-lagun jakintsuaren ideiak mugatzeko balio dezakete.
- 4.8.2. Gainerako euskalkien deskribapenean eraman dugun azalbide berbera segitzen badugu, has gaitezen *izena* ardaztat duten unitateen azentua argitzetik.

4.8.2.1. Azter dezagun aurrenik numero guztietako nominatiboa.

Mugagabe soilaren ikerketa ezin daiteke zeharka baizik egin; zeren-eta Larramendi-ren tema hau baitzen : nola edo hala euskal fenomenoen kakoa latinaren kidetza osoan aurkitzea. Hori dela-ta, nekez aurti daiteke «Imposible Vencido» an mugagabeari buruzkorik ezer gotorrik.

Hala ere, eta nolazpait behintzat, mugagabe soilaren izateaz jabetu zen Larramendi; hau idatzi baitzuen: «... el artículo... parece tan del nombre que suena como si fuera parte del» (IV., 351). Eta horrek, bidenabar, *izen soila ere* badagoela adierazten du. Eta, bide beretik, hau dio: «por eso passa el acento del nombre al artículo en singular» (I.V., 351). (Bidenabar esateko , ohar hauek, beren xehetasun guztietan, arront zehatzak eta argitsuak dira).

Hona hemen D.T.-an diona: « la a final es el artículo, sin el cual no se pronuncian en vascuence los nombres fuera de composición» (DT, I, 16). Oso «mendebaltarra» da irizpide hau, noski... Badirudi, bestalde, Larramendi halere ez zela guztiz mugagabearen gaintasuaz jabetu; numero berezi gisa, singularraren eta pluralaren aurrez aurre datxekion sustraiaz. Larramendiren jarrera hori, arestian esan dugunez, oso «gipuzkoia» da: Ekialdeko euskalkietan bizi berezkoa du mugagabeak.

4.8.2.1.1. Are gutxiago jabetu zen, jakina, bere hizkeran bertan, euskalkiaren azentu-legeei ez datzekien elementu markatuez; eta, aurkaritaz, lege horien arauera azentuztatzen diren (-M) elementu markagabeez.

4.8.2.2. *Nominatiboari* dagokionez, dena dela, oinarrizko azentukera hau aurkitu uste zuen:

Mugagabeen: hitzaren azkenekoan. $\begin{matrix} \boxed{H} \\ \boxed{-I} \end{matrix}$

Singularrean: artikularekiko unitatean azkenekoan. $\begin{matrix} \boxed{Ha} \\ \boxed{-I} \end{matrix}$

Pluralean: hitzaren azkenekoan. $\begin{matrix} \boxed{H} \\ \boxed{-I} \end{matrix}$

Larramendiren ustez, beraz. *mugagabea eta plurala* elkarrekin doaz azentuaren aldetik; eta *singularra* berezten da beste bietatik. (Ohar hau behin eta berriz kontrolatu dugu lan honetan; horren egia ez dela aurkituz. Gaurko datuen arauera, noski).

Gaurko geure grafiaz, be \sim z, hau genuke silababiko hauetan: **etxé, etxeá, etxéak; alpér, alperrá, alpérrak.**

Larramendik, beraz, ez die inolako muga fonologikorik jartzen azkeneko silabei; eta honek nafarreratik urruntzen gaitu, eta Mendebaldera hurbiltzen. (Gorago ere esan dugunez, «nafartatu» egin bide da gipuzkera azkeneko urteotan, nolabait esateko. Ik. 4.7 kapitulua).

Erregela hori, Larramendiren ustez, nolanahiko elementu *deklinagarri guztiei* ezar dakieke; baita adberbioei eta mota berekoei ere: **hirú, zaz-pí, amár, amaicá, millá, iñór, ecér, atzó, gueró.** Kontutan har *hamaika*

hori, trisilabikoa, itxuraz (+3) silaban markatua. Grafiaren funtsera eramaten gaituena.

Lege hori, dena dela, haren izkribuak berak aztertuz, ñabartu egin behar dela ageri da.

4.8.2.2.1. *Silababakarrak*

Hitzak markagabeak izatekotan, hau genuke: **úts, utsá, útsak; bér, berá, bérak**. Etab. Alegia: (-1) hitzari buruz; (-1) hitza+a unitateari buruz; eta (-1) hitzari buruz (-ak artikulua kontutan hartzen ez delarik. Kontutan har hau).

Silaba horiek (M+1) markatuak direnean, ordea, bai fonologi arrazoiengatik (diptongatutako silaba ezkerretan, edo-ta laburtua), edo oraingoz ezagutzen ez ditugun arrazoiengatik, azentua ez da mogituko: **mái, máia, máiak; gái, gáia, gáiak; dán, dána, dának** (Baina, kasu: **ján, janá, jának**; (-M) bati dagokionez).

Larramendiren hizkeran, beraz, bi modutara erabiltzen dira silababakarrak: *markatuetan* azentua ez da silabaz aldatzen; *markagabeetan*, aldiz, *aldatu* egiten da lekuz.

Dán eta **jan**, beraz, jatorri desberdinetakoak dira (eta zubereraz, bereziki, hau oso garbi aurkituko dugu, ik. 5.4).

4.8.2.2.2. *Silababikoak*

Markagabeetan (-M) azentua *mogitu* egiten da; *markatuetan*, berriz, ez. Silaba batek, bestela esanda, *indar berezia* jasoz gero (diptongo, laburketa, erdal doinua), ez du bere azentu hori inoiz galduko. Adibidez:

(-M)

otsó, otsoá, otsóak; edér, ederrá, edérrak. Lehenengo bietan tonuari eutsi egiten zaiola dirudi; baina pluralean ez.

(+M) (prototono markatuak, alegia)

áurtxo, áurtxoa, áurtxoak; sáio, sáioa, sáioak.

4.8.2.2.2.1. Honen ondorio logiko gisa (I.V., 353), *edutezko* adjektiboak, izenaren aurrean izan ohi duten molde soil edo mugagabeen, oxitonoak dira Larramendiren ustez: **neré, hiré, guré, zuré**; eta, izenorde gisa deklinatzen direlarik, eskema orokorraren bidetik doaz: **neré, nereá, neréak; hiré, hireá, hiréak**.

Hauen aurka dator, ordea, **zúen** plurala. (M+1) markatua izanik, honela erabiltzen da: **zúen, zúena, zúenak**.

Beraz, hona hemen adibide bat: **neré etxeá**. Baina: **norená da horí? Nereá**.

4.8.2.2.3. *Trisilaboak*

Trisilaboen azentukera, Larramendiren esanetara, hau litzateke: ***gura-**

só, ***gurasoá**, ***gurasóak**; alegia, hitzaren azkena, hitza gehi artikulua-
ren azkena, eta hitzaren azkena, hurrenkeran.

Hots, egilearen iritzien aurka, beste hiru hauek aurkitzen dira Larramendiren izkribuetan: **guráso**, **gurásoa**, **gurásoak**. Alegia, (+2,+2,+2);
beste euskalkietan bezala.

Hona hemen beste batzu: **amáquia**, **egúzquia**, **hizcúntza**, **antústea**, **bar-
rúmbea**; eta ez ***amaquiá**, etab. Teoriaren arauera espero zitekeen
oxitonotik, azentua bi silabatan *ezkerretara* aldaratu balitz bezala:
***eguzquiá** → **egúzquia**.

Hots, pluralean ere (+2) dugu, esan dugunez: **egúzquiac**, **gurásoac**, **eus-
cáldunac**, **egóquiac**, **aitzáquiac**, **guerócoac**, **hitzóntziac**; lexema horiek
guztiak (+2) markatuak balira bezalaxe. Eta, lan honetan barrena ikus
daitekeenez, erabat euskalki askoren bidetik; alegia, Mendebaldeko
euskalkien bidetik, zehazkiago.

4.8.2.2.3.1. Hau baiesten bide da, beraz: aspaldiko gipuzkeraz ere, Larramendiren
azentu-lege abstraktuen aurka, joera bera zegoela gidari. Alegia: azen-
tu-unitatearen *ezkerretatik* hasi, eta lehenengo bizpahiru lekuetatik
harat ezin joatea. Andoaindarraren grafietan (+3) bide da muga, nor-
malean; hortik aurrera berriro ere (+2) agertzen delarik.

4.8.2.2.3.2. Alderantziz, badaude (M+1) markaturik agertzen diren beste trisilabo
batzu: **lénengo**, **náspilla**, **púlpito**, **gámbara** (ikus *lehenengo*, *nahaspila*,
batetik; eta erd. **púlpito**, **cámara**, bestetik).

Gipuzkera mota zahar honetan ere, beraz, bi iturburu nabarmentzen
dira hitz markatuen jatorrian: a) fonologikoak (bokale bikoitz baten la-
burketa); b) mailebuen moldea.

4.8.2.2.4. Arrazoi berberengatik, 4 *silabatako* terminoak (edo-ta gehiagotakoak),
(M+2) balira bezala agertzen zaizkigu Larramendiren obran. **Basérrita-
rra** topatzen dugu, esate baterako; eta ez teoriaren arauerako ***baserrita-
rrá**; edo-ta ***baserritár**, *-tár* atzizkia, egilearen beraren iritziz, marka-
tua denez.

Bide beretik: **guizátasuna** topatzen dugu Larramendiren luman, eta ez
***guizatasúna** (*-tasún* markatua omen denez).

Era berean, eta beti ere (+2) azentuaz, hauek ditugu: **jendárteco**, **itsás-
corrago**, **béstelaco** (hau interesgarria da; Larramendiren hizkeran ere
béste prototono markatua erakusten duelako); **ustéqueta**, **erbésteco**.

4.8.2.2.4.1. Azterketa zehazki eginez gero, dena dela, Larramendiren izkribuetan
are (+4) azentua aurki daitekeela esan behar da: **lilluraménduac** (+4),
itsumendéa (+4), **devocióaren** (+4), **salvacióari** (+4); baita **-rén** genitibo-
atzizkiaz osatuak diren askotan ere (berau Larramendiren luman mar-
katua denez).

4.8.2.2.4.2. Hona hemen orain adizki infinito batzuren zerrenda hau (I.V., 356).

Batetik (+3) pilo bat: **edangó, egongó, emangó, eguingó**; baita **utzicó, urtucó, ostucó, acicó, ernecó**. Baina, alderantziz: **bótaco**, hau (M+1) balitz bezala; eta **erámango**, (+2), eta ez *eramangó.

4.8.3. *Deklinabidean barrena*, hona hemen paradigmaticotasun adibide garbi pare bat; biak I.V.ko 352. orrialdean hartuak: **Pédro, Pédroren, Pédro-ri, Pédrorentzat**; eta **Martín, Martínen, Martíni, Martínentzat. Pédro** (M+1) eta **Martín** (M+2) balira bezala.

4.8.3.1. *Partizipioetan* ere, erroa silababakarra denean gutxienez, paradigmaticotasun berbera ageri da: **játe, játea, játeco, játera, játeagatic** (I.V.356); **játe** (M+1) bagenu bezalaxe.

4.8.3.2. *Plurala* ere paradigmatico agertzen da Larramendirengan:

(-M) gizón	(-M) guráso	(+M) náspill(a)	
gizónac	gurásoac	náspillac	(nom.)
gizónac	gurásoac	náspillac	(erg.)
gizónai	gurásoai	nápillai	
gizónez	gurásoez	nápillaz	
gizónen	gurásoen	nápillen	

4.8.3.3. Unitate markatuetan, hortaz, azentua ez da mogitzen: **gái, gáik, gáiri, gáiren; gáia, gáiak, gáiarí, gáiairen; gáiak, gáiak, gáiai, gáien**, etab.. Trisilabikoetan (**egúzqui**, eman dezagun), azentua ez da mogitzen.

4.8.3.4. *Singularrean eta mugagabeen*, berriz, eta hitza (-M) ez-markatua denean, Larramendiren luman *eskuineko azken silaban* agertzen da azentu diakritikoa; tonua goian gelditzen zela adierazteko bezala (ik. I.V. 35 batez ere). Eta hau dukegu:

Mugagabeen: **gizón, gizonék, gizoní, gizonéz, gizonén**, etab.

Singularrean: **gizoná, gizonák, gizonarí, gizonáz, gizonarén**,...

Joera bera *lekutasunezko kasuetan*:

Mugagabeen: **etxetán, etxetakó, etxetará, etxetatík**...

Singularrean: **etxeán, etxekó, etxerá, etxetik**...

4.8.3.5. *Genitibotikako* kasuetan, eta Larramendiren arauera, bi azentu-soluzio omen daude; euskalkiari datxekion azentuketa *oxitonoa* gailen daiteke; edo-ta **-rén** markatuari datxekiona. Adibidez: **gizonarekín**, edo **gizonarékin**; **gizonarentzát**, edo **gizonaréntzat**. Lehenengo sailean, (-1) dugu; alegia, unitatea goiko tonuan bukatzen da. Bigarren sailean, aldiz, **gizonarén** hori markatua balitz bezala erabiltzen da; halako batez, aldakuntza hau gertatu balitz bezala: **gizónaren** → **gizónarén** → **gizonarén**. Hots, eskuin alderako lerraketa hauxe aurkituko dugu nafarrean, eta oso nabarmen. Bi azentukeraren arteko dialektika hori Gipuzkoan ere bazela agertzen zaigularik.

Ohar berbera egin daiteke **gán**-dikako sailari. Larramendiren esanetara bi modutara zitekeen azentua: **zugándik**, goiko tonuari eutsiz; edo-ta **zugándik**. Edo: **aitagándik**, eta **aitagándik**. Bigarren hori; alegia, **aitagán** edo **zugán** markatuen gainean eraikitakoa, «se da con más frecuencia» (I.V., 368).

4.8.4. Saia gaitzen orain, ahalik eta zehazkienik, Larramendiren *testuetan* (eta ez beraren teorietan bakarrik) lexema markatu horiek zein diren jakiten.

4.8.4.1. Badaude *atzizki markatuak*.

4.8.4.1.1. **-tár**. Nahiz **basérritarra** adibidea kontra agertu, hitzez hitz dio Larramendik **-tár** hori azentuduna dela beti: **erritár**, **Andoaindár**, **Donostiár** (I.V., 369). Eta «el acento se conserva en la misma sílaba, aunque se aumente el incremento»: **erritárrari**, **erritárrarequin** (369).

4.8.4.1.2. **-gárren** atzizki ordinalak ere, *markatua* zaio: **bigárren**, **hirugárren**, **laugárren** (I.V., 42).

4.8.4.1.3. Ondoko atzizki hauek, aldiz, (M-2) unitateak sortzen dituzte:

-ti (350): **goséti**, **veldúr**ti, **másti** (hemen desberdina).

-en (272): **edérren**, **labúrren**, **ónen**, **andíen**, etab.

-gille (351): **guílle**, Larramendiren grafian.

-le (350): **ecárle**, **esánle**, **enzúnle**; **iracásle**, **iracúrle**, **edále** (267).

-tzálle (266): **iracurtzálle**, **aditzálle**.

Baina hauetan ere, oxitonia orokorra nagusi dakioket molde horri. (Hitz batez, (+2) hitz luzeetan, (+1) silababakarretan; eta, beti ere, (-1) azal daitekeelarik. Hitz batez, gaurko egoera, gutxi gora-behera). (Ik. I.V., 351).

4.8.5. Ikus dezagun orain Larramendiren azentuketa *morfema* batzuren deklinabidean barrena.

4.8.5.1. Larramendiren ohar berezi bat honi buruz: *artikulu* mugatua, izenari atxikia, *markatua* da; *izenorde* soila, aldiz, *markatu gabea*. Adibidez:

Artikulua: **gizonaréna**, **gizonaréntzat**, **gizonarékin**, **gizonaré**kiko. Alegia: **gizónarén** → **gizonarén** bailegoan, nafarreraz aurkituko dugunaren bidetik.

Izenordea: **arená** (= harena), **arentzát**, **arekín**, **arekikó**. Hau da: (-1). Hau bailegoan: **árená** → **arená**; eskuineranzko mogimendu hau «ekialdetarra» delarik.

Edutezko izenordea, beraz, (-M) zaio Larramendiri; eta *artikulua* (+M). Hots, lehenengoaren ezkerretan, (#) muga dugu; eta bigarrenarenean, aldiz, (+) bakarrik. Hau oso adierazgarria da.

Bestela esateko, artikuluan unitatearen *izenak* markatzen bide du azentua, eta oihartzun bidez inposatzen: **gizónarén**; baina izenordean ez bide zen horrelakorik gertatzen.

Hots (ikus 5.2. kapitulua) J. Lizarraga-ren nafarrera-motan ere, batera datoz *artikuluak eta adjektibo erakusleak* (biak, besteak beste, loturik idatziak); eta, bestela, *izenordeak*. Lehenengoak dira paradigmaticoak; ez bigarrenak (genitibotik aurrera batez ere). Hots, /k/ segmentua ere lehenengoetan agertzen da, eta ez bigarrenetan.

4.8.5.1.1. Ikus ditzagun orain adjektibo *erakusleak*.

Singularrean, (-1) da azentu-legea:

au : **onéc, oní, onequín, onentzát...**

orí : **orréc, orrí, orrequín, orrentzát...**

Pluralak, berriz, *markatuak* dira:

óiec (= hauek) : **óiec, óiei, óiequin, óientzat...**

oríec : **oríec, oríei, oríecquin, oríentzat...**

Berriro ere: pluralen ezkerretan, (#) muga dagoela dirudi: singularrean, aldiz, (+) muga dagoelarik. Larramendiren hizkeran beraz, **+au**, **+orí** idatz bide zitekeen, baina # **óiec**, # **oríec**. Azkeneko hauen berrietasuna nabarmen delarik.

4.8.5.2. Bide beretik, oso zorrotza da Larramendik **bat** mugagabea (ez-markatua) eta **báta** mugatua (markatua) elemenduen artean aurkitu uste duen azentu-desberdintasuna (ikus I.V., 37). Lehenengoa ez da paradigmaticoa, baina bigarrena bai. Erabat dator ohar hau lehen *adjektibo/izenorde* bitasunarekin batera.

bat (mugagabe): **baték, batén, batí, batentzát, batekín...**

báta (mugatua): **bátak, bátaren, bátari, bátarentzat, bátarekin...**

bat mugagabearen ezkerretan, (+) dago, eta azentu-autonomiarik ez du. *-bat* idaztea hobe, eta *atzizkitzat* hartzea.

báta, berriz, izenorden antzekoa da; *autonomoa* da azentuaren aldetik; eta, hitz batez, (#) muga idarokitzen du ezkerretan.

Larramendik, dena dela, ez du bere azentu-lege hori beti errespetatzen. Batean honela idazten du: **edo báta esán bear dec, edo béstea**, DT,I,CXCII; baita: **bátetic béstera**, DT,146 (espero genukeenaren arauera: bai **bát** bai **béste** markaturik); baina hau ere bai: **batá edo bes-teá**, I.V., 335.

Badirudi, hitz batez (ik. 6. kap.), **-baték, -batén, -batí**, eta abarretan,

(-1) azentu bigarrenkaria agertzen dela; alegia, unitate *osoari* dagokionez: (+2, -1); eta **-bat** hori, *+bat* morfema dela, autonomiarik gabea.

- 4.8.5.2.1. Corpusak ez du agian aski oinarririk ematen puntua garbitzeko. Baina **béste** eta **béstea** horrelako zerbait somatzen da: mugagabea *beste* da, (-M); eta hortaz **besté** agertzen. Mugatua, berriz, (M+1) markatua da. (Ik. I.V., 38).

Honelako eskema bat somatzen da:

Mugagabea: **besté, besték, besterí...** (-1), beraz.

Singularra: **bésteá, bésteák, béstearí...** (+1,-1)

Plurala: **bésteak, bésteak, bésteai...** (+1, beherantz)

- 4.8.5.3. Bestetik ere, hona hemen bi bikote hauek:

Sing. erg.: **jaunák, gizonák** (-1).

Plurala: **jáunak, gizónak** (beherakadaz) (ik. I.V., 3, 4, 6, 7, eta 8.)

Azentu desberdintasun berbera dago beste bikote honetan: **berák** (saldu du) / **béрак** (etorri ziran).

Bide beretik, beste hau azpimarratu zuen Larraamendik ere, **norenák** (egin du hori?) / **norénak** (dira horiek?). (I.V. 33-34).

Beherakada horretaz markatua *plurala* da; singularra eta mugagabea beherakadarik gabe agertzen direlarik. (Ikus berriro 3.2. kapitulua; baita 5.4. kapitulua ere).

- 4.8.5.4. Sailka ditzagun orain Larramendiren izkribuetan (+M) *markatu* gisa agertzen diren hitzak.

- 4.8.5.4.1. *Silababakarrak.*

gái (Meniburu-ri); **mái** (D.T.); **dán** (D.T.).

Lehenengoa diptongoa da: **mái**, berriz, diptongo agertzen, baina laburketa ere bai (= mahai); eta **dán**, frogatua denez, laburketa bat (= *da+en*; ikus ere 5.4. kap.). Arrazoi fonologikoa nagusi..

- 4.8.5.4.2. *Silababikoak.*

a) ezkerretan diptongoz, **áurre** (IV 30); **áurcho** (Mend.); **sáyo** (Mend.; ikus *sái.o*) **guéyen** (Mend.; ik. bai **gái.en**, bai **gehien**).

b) bokale laburketaz: **lénen** (DT; ik. lehenen).

c) mailebu berri: **díru**, IV 360 (nahiz batzutan **dirú** ere agertu); **cóntu** (DT); **múrru** (97); **órma** (97); **párte** (DT 235); **sántu**, IV 353.

d) morfema batzu: **-gábe**, markatua itxuraz; **-gátik**, ohar bera; **-bátzu**, (+plural) semantikoki.

Harrigarri zaizkigu D.T.-ko batzu: **cíntzo**, **zábu**.

4.8.5.4.3. *Trisilabikoak.*

Larramendiren izkribuetan (M+2) balira bezala azentuztatzen dira, prototonoak ez diren ber: **hitzóntzi**, DT; **egúzqui**, DT; **echápe**, DT; **atá-ri**, DT; **burníllar**, 10; **escúpe**, 15; **abére**, DT; **illárgui**, 72; **naicúnde**, 89; **erdáldun**, DT; **euscáldun**, DT; **guráso**, I.V. eta Mend; **gendálla**, Mend.; **lubéra**, Mend.

Zerrenda horretan, dena dela, espero zitekeenaren aurka, **euscára** (edo **eusquéra**), eta **erdéra** jarri behar dira. Eta honek Ekialdeko **uskára**-ra ermaten gaitu, batetik; eta bizkaiera zaharrezko **eusqueera**-ra; berriro ere Larramendiren hizkeran Ekialdeko joera nabarmentzen delarik.

Prototono markatu batzu badaude Larramendiren luman: **náspilla**, DT; **gámbara**, DT 184; **púlpito**, Mend.; **árima**, Mend.; **sárrera**, DT, etab. Denak esandako azalpideez argigarri.

4.8.5.4.4. *Tetrasilabikoak.*

Eskuarki, (M+2) balira bezala erabiltzen: **bozcáριο**, 61; **hizjáριο**, DT; **ustéketa**, Mend.; **basérritar**, Mend.; **erbésteco**, I.V.; **etórrera**, DT 111; nahiz bestelakoak ere badauden; **lilluraméndu**, Mend.; **erribéra**, Mend.; are (M+1)-ren bat ere: **bénetaco**. Besterik ezin esan, gure ustez.

4.8.6. Igaro gaitezen orain aditz-ardatzeko unitateetara.

Baina has gaitezen ia izenkitzat hartu ohi diren elementu infinitoetatik, corpusean atera daitezkeen zerrendak eskainiz.

4.8.6.1. *Aditz-izena.*

– **sártzea**, **láutzen**, **játera**, **ártzeco**; alegia, erroa, silababakarra denean, (M+1) gisa.

– **ecártea**, **emátea**, **adítzen**, **izútzen**, **edértzen**, **edátera**, **gaztétzera**, **bazcátzera**, **aguértzeco**, **gordétzeco**, **edáteco**, **etórtzeco**, **amátzeco**; beraz, erroa silababikoa denean, (+2).

– **ayenátzen**, **guezurtátzen**, **eracústén**, **menderátzen**, **azpirátzeta**, **lurre-rátzeta**; erro trisilabikoetan, (+3), izen luzeetan ikusi dugun bide bere-tik. Baita **arguitarátzeco** ere (+4).

4.8.6.1.1. Gaurko gipuzkeraz antzera markatuko genituzke lehenengo bi multzoak; baina ondokoetan (+2,-1) egingo bide genituzke: **aiénatzèn**, **gezúrtatzèn**, **erákustèn**, etab.

4.8.6.2. *Partizipioa.*

Bi silabatakoetan, zalantzarik ez: **esán**, **emán**, **edán**; eta (+2), beraz.

Partizipioa *trisilabikoa* denean, (-1) beti, orain arte bezalaxe: **salatú**, **atsotú**, **ozpindú**, **billatú**. Oxitono horiek, ikus daiteneenez, (+3) dira; eta hau zilegi zen Larramendirentzat.

Hortik gora, ordea, azentua ezkerretara itzultzen da: **irábiatu**, **iñárrusi**, **ichúzquitu**; alegia, (+2). Nahiz **sinistérazo** elkarketazkoa hor egon.

Erroa *silababakarretan*, Larramendik (+2) markatzen ditu; edo-ta, hobeiki esateko, *oxitono* (-1): **beztú, zartú**.

Gaurko gipuzkerazko: **esán, emán; sálatú, átsotú; irábiatú, iñarrosí**; etab. gogoan hartuz, Larramendi ez zaigu oso arrotz gertatzen.

4.8.6.2.1. **-áz** atzizkiaz (-1, egia esan, plurala ez denez), oxitonoak ditugu Larramendirengan: **eguiñáz, landuáz, oituáz**; eta **icusiáz, aldituáz, usatuáz**.

4.8.6.2.2. *Geroaldiko genitiboetan*.

Oxitonoak agertzen dira normalean: **edangó, esangó, eguingó, artucó**; baina azentua ez da eskuin alderago pasatzen; **astindúco, idoróco, beerratúco, choratúco, amildúco, ateráco, aguertúco, aurquitúco, zoritúco, ecarríco** (nahiz **lájatuco** eta **ernéco** ere agertu). Hauek bai: arrotz zaizkigu.

4.8.6.3. Egiatzko aditz *unitate finitoetara* orain iritsiz gero, hona hemen Larramendiren iritzi nagusia: bai adizki trinkoetan, bai laguntzaileetan, azentua (+1) dela: «acento en la primera sílaba» (I.V., 357). **Dézaquet**, 212; **nézaque**, 212; **náiteque**, 227; **názu**, DT May., **dítut**, 357; **dézu**, 357; **dáramatzizute**, 349. Are zehazkiago: «el acento está en el dá, y lo que sigue se pronuncia encadenadito y como precipitadamente» (I.V., 349).

4.8.6.4. Hala ere, eskuin aldera aldara daiteke azentua; Larramendik emandako azalpena guztiz zehatza ez bada ere: «quando en ambos pretéritos el modo de infinitivo de que se componen no passa de dos syllabas, passa el acento de la primera a la segunda» (I.V., 359).

Kakoa, gure ustez, beste hau da: azentu-unitatearen barruan, azentua daramaten silaben arteko *tartea 2 izatea*. Azentu nagusitik abiaturik, horrela, oihartzunezko azentua sortzen da eskuin aldean. Larramendik berak (eta hau adierazgarria da) zubittito batez lotzen ditu bi parteok: **jan-degú**, I.V., 358. **-degu** klitikoa jizanik, ezkerretatik datorkion oihartzunaren arauera hartzen du bere azentu bigarrenkaria; baina, nafarreraz bezala, eskuin aldekoa agertzen da gailen. Alegia: **ján+degù** → **jan-degú**.

4.8.6.4.1. Seinalagarria da, bide beretik beti, *aurrera* hitzean Larramendik bitasuna agertzea. Berez, eta jadanik esana dugunez, **áurrera** espero daiteke. Baina, alde batetik gipuzkeraren joera hazkorra, (-1); eta bestetik garrasi horri dagokion agintekera-entonazio goranzkoa, **aurrerá** ere badator.

4.8.6.4.2. *Bi silabatako* zalantza-tarte hori (*oin* bat, jakina), Larramendiren izkribuetan agertzen da. Hau, eman dezagun, Larramendiren beraren azalpenen kontrakoa: **beguiratú zaitú**, DT I,77 (pentsa dezaguna: **begiratu+zaitù**, oihartzunez). Hona hemen beste bi hauek: **eguín-dítut**, 358; **emán-didác**, 358; *tartea 2 delarik*.

Baina, arrazoi berberarengatik, beste hauek dakartza: **ecárten-dítut**,

359; **icústen-dézu**, 275; gaurko (-l) sistematiko hori, berri xamarra dela idarokiz.

Ezin argitsuago da bikote hau: **játen-dézu** / **ján-dezú** (ikas I.V., 66 eta 67). Tarteá beti 2 *da*. Eta joera berbera paradigma osotan barrena: **játen-dézu**, **játen-dézue**, **játen-dézute**; baina **ján-dezú**, **ján-dezúe**, **ján-dezúte** (I.V. 66, 67).

- 4.8.6.5. Aditz laguntzailearen enklitikotasuna, horretara, baietsirik gertatzen da: ezkerretako elemendu nagusiak dakarren azentuaren arauera egokitzen da, oihartun gisa, laguntzailearen azentuketa.

Nahiz soilki joatean **guñán** eta **círan** agertu, baturik ez da gauza bera: **eldú-guñán**, I.V. 361; **jarrí-círan**, 361.

Fenomeno bera beste kasutan ere: **berorí datór**, 32; nahiz soilki **dátor** izan, Larramendiren hitzez.

- 4.8.6.6. Bereziki aipatu zuen Larramendik *errelatiboak* azentuak *eskuin* aldera erakartzeko joera: **dárabilt**, baina **darabildán**, DT, I, 82; **jan-dét**, baina **jan-dedán-oguiá**, IV 360; **ecarri-dítut** / **ecarri-ditudán-berríac**, IV 360 (seguru aski: **ecárri**, beraz; nahiz paroxitonian, gatzelaniaz bezala, Larramendiren lanetan azentu diakritikoa ez beti etorri). Horra hor ere beste bikote adierazgarri hauek: **emán-dítú** / **emán-dítuén díruac**, IV 360; **icústen-núen** / **icústen-nuén guizoná**, IV 276; **ecarri-cénduen** / **ecarri-cenduén oyalá**, IV 276; **céra** / **cerán orí**, IV 362; **naiz** / **naizán au**, IV 362 (kontutan har, bereziki, denborazko inesiboa: **naizánean**; eta ikus 5.4. kapitulua honi buruz).

Zerrenda horretako bi adibidetan ikus daitekeenez (**icústen-núen**, **ecarri-cénduen**), iraganari dagokion /n/ hor egonik ere, *errelatiboak* erasten dion *bigarren* /n/ -ak, azentua aldarazten du. Eta honek Axular-en grafian (**zen** vs. **zèn**, etab.) arazo fonologiko bat, azentuari zegokiona agian, ikustera bultzatzen gaitu.

Larramendik berak azaldu digu aldakuntza zertan datzan: «ay un distintivo clarissimo, y consiste en el acento. Quando vienen sin relativo, el acento de la terminación está donde le toca, que es en la primera syllaba, **ecarri-cénduen oyalá**; pero quando ay relativo, passa el acento á la ultima, que es su lugar propio, **ecarri-cenduén oialá**», I.V. 276.

Eta horretara hau irakur dezakegu Hiztegian: **círan**, vs. **aguertu cirán áyec**, DT, I, 101.

- 4.8.6.6.1. Azpimarragarria da, honi buruz, zeharbidezko galderetan ere -n erasteán, eskuineranzko aldaraketa bera gertatzen dela: **jaquin nai-deu ez icusi cenduén**, I.V., 309.

- 4.8.6.6.2. H. Lafon-ek berak, aspaldi danik, gaurko subjuntiboa (-*tzat* gabekoa, alegia) **edin* eta **ezan* saileko adizki *errelatibotzat* hartzea proposatu zuen.

Larramendi-ren obran barrena, idarokitzapen horren funtsa baiesten

da; subjuntiboak, Larramendiren ustez, azkeneko silaban baitarama azentua, bai laguntzaileetan bai trinkoetan: **jan-nezán, jan-diozadán, izán-nadín**, etab..

4.8.6.7. *ba-* eta *ez-* aurrizkiek eskuinerantz aldaratzen dute azentua; baldintzazkoa eta baiespenezkoa, honetan, desberdintasun handirik gabe: **ecárten-dítut / ecárten-badítut**, IV 359.

4.8.6.7.1. Hots, eta hemen dugu Larramendik egin dituen ohar argitsuetan argitsuenetako bat, *aurrizki silababakar guztiek* sortzen dute aldaraketa berbera («producen o pueden producir» dio berak, I.V., 364). Eta *ba-* eta *ez-* horiekin batera (baldintzazkoa barne, harrigarri bazaigu ere), beste hauek jartzen ditu, guipuzkeraz silababakarrak: *oi* (ohi) eta *al* (ahal). Adibidez: **etórten oi-ninzán**, IV 198; **jaten oi-dítut**, IV 199; **céra**, baina **al-cerá**, IV 207; **díra**, baina **al-diré**, IV 207.

Joera bera aurkitu uste du *nai-*rekin (nahi): **nai-degú**, IV 209; **nai-dezú**, IV 209; **nai-dítut**, IV 209; **nai-dítuc**, IV 209. Eta fenomenoa orokorra da: **jan-degú**, IV 67. Grafia hau oso adierazgarria da; eta Larramendiren hizkeran unitate fonetiko *bakar* bat dagoela pentsa daiteke.

Baina Larramendi aurrerago doa bere oharretan: «si vienen precedidos de monosylabos, el acento es de la segunda syllaba», IV 366 (azpimaraketa hau gurea delarik). Eta, besteak beste, ezkerretan pertsonaizenordea dakarten bi adibide ematen: **hic didác, zuc dezú**, 366.

Gaur arte, gure ustez, agerrerazi ez den ohar argitsu horrek ongi bideratu zuen euskal azentuaren oinarria *fonologiaren alorrean*; zoritxarrez ahantzi bazen ere. Larramendik garbiki diosku: «*cualquier monosyllabo*». Berdin da, hortaz, silababakar hori adberbio izan, zein izenorde edo izen. Hots, bai nafarreraren ikefketak, bai beste euskalkien ikerketak ere, ondorio horretaraxe eraman gaituzte. Euskal azentuaren kakoa *fonologikoa* da.

Geroago mamituko zen eztabaidari buruz, eta bi mende lehenago, Larramendik ikusi zuen zuzen kakoa. *Sintaxiak*, aldiz, *entonazioan* izango du bere eragina; ez *azentuan*. Entonazio goranzkoaren sasi-oxitonoetan ez izatekotan.

4.8.6.8. **-lá** eta **-lakó** atzizki enklitikoak, eskuarki (nahiz ez beti) oxitono agertzen dira Larramendiren obran: **dácarzu / dacarzulá**, IV 306; **dáduca / daducalá**, 306; **nábil / nabillelá**, **cerá / ceralacó**, 313; **zátoz / zatozelá**, 307; **záute / zautelacó**, 313.

4.8.6.8.1. Itzuletara orain, *-(e)nean* atzizkia (errelatiboaren inesiboa, zinez) ez da oxitonoa. Bokalez amaitzen diren laguntzaileetan eta trinkoetan, eta bokale laburketaz, hain zuzen, errelatibo soilarekin zegoen silaban gelditzen da azentua; zubereraz ere soma daitekeen bidetik, /n/ -a daraman silaba markatua balitz bezalaxe: **dábil / dabillén, dabillénean; dítugu / ditugún, ditugúnean; dá / dán, dánean** (N.4.8.7).

- 4.8.7. *ez-* ezezko aurrizkiak ez du sekula azentua jasotzen; zenbait berez-kuntza eman badaiteke ere: **oróitzen eztá nizas**, IV 284; **está iñór**, 312; **idoró eztét**, 312; **eztá ansi**, «no importa», DT I 87; **eztéc atseguin**, «no es cosa de gusto», DT; **eztiót utzicó edáten**, IV 297; **eztagó**, DT 254; **eztá ecer**, DT 192; **eztezáala béráz úste**, DT May., **etzaitú izúzten**, DT May..Hauen kontrako **éztala** eta **éztiegu** bakanak ez dira «ansi», hain zuzen.
- 4.8.7.1. Oro har, baldintzazko *ba-* ez da Larramendirengan azentuztaturik agertzen: **itsúca badá ere**, 393.
Behin, halere, azentudun agertzen da: **etorri báaquit**, DT 172, 'si me vinieres'.
- 4.8.7.2. Baiezko *ba-* delakoak Larramendiren obran ez darama azenturik: **badáte**, 'possible es', I.V., 249; **badáteque**.
- 4.8.8. Agintekerari dagokion goranzko entonazioak, eskuin aldera eramaten du azentua. Gipuzkera zaharreak ere, hortaz, garrantzi handia zuen *maiztasunak* euskal hiztunaren pretzepzioan. Adibidez (IV 244-245): **átor / atór** ('vén'); **ágo / agó**, 'estáte'; **ábil** 'andas' / **abíl**, 'anda'; **záude**, 'estás' / **zaudé** 'estáte'; eta, beraz, (+1) indikatiboan, (-1) agintekeran. Bide beretik: **zábiltza / zabilzá**; **átorquit**, 'tú me vienes' / **atórquit**, 'vénme tú'; **zóaz**, ind./ **zoáz**, agint.; **átza**, 'estás acostado' / **atzá**, 'acués-tate', DT; **ábilquio**, ind./ **abílquio**, DT 80, agint..
- 4.8.8.1. *Galderetako* goranzko entonazioak ere, eskuin alderako mogimendu berbera dakar: **céra / non cerá?**, 324; **nongoa zaré?**, 327; **non dagó?**, 324. Gauza bera baldinbazkoak: **ez alzaitú antústec amildúco!**, Mendib. Ikus oharra. Galdekariek, ikus daitekeenez, ez daramate azentu diakritikorik.

Oharrak

- N.4.8.7. Azentuketa oxitono orokorra, dena dela, zilegi da: **etorri zaneán**, DT 118; nahiz «gutxiagotan» gertatu. Tarteá, dena dela, 2 silabatkoa da; eta gipuzkeraz oso joera azkarra dago (-1) markatzeko.
- N.4.8.8. Lapurteraz, eta XVI. mendean batez ere, fenomeno bera ageri da garai hartako euskal idazleen grafietan: **semé**, **semeá**, **magistruá** (deikariak, Leizarraga); are hasperenketa aldaraziz ere: **ohá!**. Oxitono mota honek pluralak ere iristen ditu: **Iuduác** (deik.).
- N.4.8.8.1. Ubillos-en azentuketa grafikoa adierazgarria noraino den ez dakigu (ikus «Christau dotriña», 1785). Fetxak kontutan hartuz gero, eta bes-terik ere, Larramendi-ren eragina dela pentsa daiteke.

Hona hemen lehenengo iritzi batzu:

A// – **játera**, 111; **úzteco**, 197; **ártzera**, 116. (+1), beraz, erro silababakarretan.

– **escátzen**, 162; **eguíteco**, 4; **icástera**, 197; **icásteco**, 197; beraz, (+2) erroa silababikoetan.

– **eracústeco**, 108; **eracústearen**, 108; **cerurátzeco**, 119, 130; **aterátzeco**, 119; **adirátzeco**, 4; **aterátzeagatic**, 130. Eta, beraz, (+3) erroa trisilabikoa denean.

B// Numeroak azentuaren bidez berez daitezke; eta ez **onéc/ónec**, eta abarretan bakarrik; izenetan ere baizik: **hitzác**, erg. sg., 3 / **hitzac**, pl., 3; **aurrá**, nom. sg., 194 / **áurrai**, pl., 198 (**aur** hori, diptongoa dela-ta, **áur** (M+1) izan bazitekeen ere); **lánac**, pl., 194 / **ónetatic**, pl. 148, 150.

Suezcoac, 97, bitxiak, hitz honen bitxikerietara eramaten gaitu (ikus K. Rotaetxe-ren eztabaida, bere Tesian); edo-ta herrikoia den **surtan** inesiboa.

Ubillos-engan, beste euskalkitan bezala, (M+1) markaturik agertzen zaigu **béste** hitza; baita **tóqui** eta **ménde** ere.

Pluralak, harrigarriro eta oso maiz, edo berex idatzirik agertzen dira atzizkiak; edo-ta zubitto baten eskuinetan.

Singularreko -rén genitiboa, oxitono dator.

Trisilabikoek bigarrenean daramate azentua: **gurásoac**, 196; **batzárreari**, 113; **aráguiac**, 117. Baina batzu (beste euskalkitan bezala) (M+1) markaturik agertzen dira: **lénengo**, 120; **démbora**, 113.

Cer galdekariak ez du askotan azenturik eramaten: **certacó** (nahiz **cértaco** ere bai); **certán**; baina **cérgatic**. (Muga arazoak aztertu behar lirarteke; baina Ubillos-en liburuan grafia ez da oso aldakaitza.)

C// Gramatikaldu ez diren morfemek, beren autonomia *grafikoa* ere daukate Ubillos-engan: **fededun**, 105; **usai-gozodun**, 93; **catibutásunetic**, 130; **amar-garren egunean**, 28; **adiraz-garria**, 30.

-quiró eta **-tó** atzizkiez eratutako adberbioak, (M+1) agertzen dira.

ba- eta **ez-** adberbioak ere, proklitiko: **baquíen**, 68; **ez dá**, 147, 151.

Baina baldintzazkoa, azentudun: **gaizqui bici báguera**, 139.

Harridurek eta galderek, goranzko entonazioa dela-ta, oxitonoak sortzen dituzte: **orrá!**, 217. Eta oinarrizko azentuketa aldatzen: **cítuan**, ind. 48 / **cituán?**, galderan, 96.

4.9. Bortzerrieta-ko nafarrera garaia

Nafarroako Ipar-Mendebaldeko eskualdean mintzatua den euskarak (**Berá, Igántzi, Arántza, Lesáka** eta **Etxalár**), jakina denez, oso azentu berezia du inguruko en ustez. Eta, hori dela bide, lèku eta izendapen berezia («tipo IV») eman dizkio Mitxelenak bere sailkapenean, gorago ere esana izan denez.

Irún eta **Hondárribi** herrietan, antzeko euskara mota erabiltzen da: Bortzerrietakoa bera ez izanik ere, multzo berean sar daitezke denok, Bonapartek egin zuen bezala (N.4.9.0).

Badaukagu azpi-euskalki honi buruz deskribapen fidagarri bat: Donostia-ko «Julio de Urquijo» Mintegiak 1964-an argitara zuen ikerlana, «El idioma vasco hablado», *Nils Holmer*-ena. Geure izkribu honetan, lan hori hartu dugu gidari nagusi; inoiz lanen bat erantsi nahi bagenuke ere.

Kontutan hartu ditugu, era berean, Hondarribian eta Irunen, hurrenkera horretan, Maite Rada-k eta Arantza Moñus-ek bildutako zerrenda magnetofonikoak (Holmer-en baiestaile, oro har).

Orain dela gutxi hildako Fernando Artola «Bordari»ren hitzaldi bat ere erabili dugu (bera sortzez hondarribitarra; eta hitzaldi hori azentu diakritikoz datorrelarik). Euskaltzaindiak argitara zuen behinola (Euskera, 1981, I, 294-303).

Ohar bat egin behar zaio irakurleari: bai Hondarribian, bai areago Orereta-Errenderian, oso nabarmen agertzen direla gipuzkeraren azentu-interferentziak; Holmer-en beraren corpus-eko bikote hauetan ikus daitekeenez: **óbe**, Hond. / **obé**, Aran.; **jénde**, Hond./ **yendé**, Aran.; **íru**, Hond./**irú**, Aran.. (Jakina: **íru** eta **óbe** horiek nafarrera behereak ere izan litezke; eta **jénde** markatua izaten da).

Zalantzazko kasuetan, horretara, **Arántza**-ko testuak edo transkribapenak jarraituko ditugu; nahiz, zoritxarrez, urriak izan. Beroiek baitira euskara-mota honen adigarririk hoberenak. **Hondárribiko** hizkera, geografi arrazoiengatik, gipuzkeraren eta Bortzerrietakoaren artekoa da batzutan.

- 4.9.1. Izen eta aditezko unitateen deskribapenean barrena abiatu baino lehenago, aipa dezagun hau oso bereziki (beste euskalkitan bezala): Bortzerrietako hizkeran ere badagoela «oihartzunezko azentu» delako hori; eta *txandakako silabatan*, horretara, azentu bigarrenkaria ager daitekeela, eta agertu ere egiten dela.

Holmer-ek berak egin zuen ohar hori: «dentro de una palabra o contexto dado, y partiendo de una sílaba dada –que señalaremos como ‘clave’ de la acentuación– todas las sílabas impares (primeras, terceras, quintas, etc., continuando hacia adelante o hacia atrás), llevan, o pueden llevar, el acento tónico; sin que se pueda decir que ninguna de es-

tas sílabas, ni siquiera la sílaba ‘clave’, sea la sílaba acentuada» (Holmer, I.V.H., 21) (Ik. 4.91).

4.9.2. Holmer-ek berak ere, transkribaketa erdi-fonetikoetan argitaratu zuten corpusean, fenomeno hori argintzen duten adibideak eskaini zizkigun: **sárrerán**, 115 (azentuen artean, *bi* sílaba, (+1, -1); **azkánarrúa**, 135 (tarteak, *bi* sílaba; nahiz paroxitono bat eman, eta Larramendigandik hurbilagoz gairela, eta gaurko hizkeratik urruntzen); **azkénekó**, 135; **txístukiñ**, 51 (eta **txístuakiñ**, aurreraxeago); **irákittén**, 139; **emákumeák**, 137; **arrátsaldéko**, 102; **larrítasúnian**, 113; **lénbizíko**, 62; **áyekín**, 115; **játekó**, 74, 117; **ein áltzenúke**, 88; **baldin báttuzté**, 88; **lánerá**, 117; **gizónari**, 53; **lúkartúta**, 139; **góizaldéra**, 137. Silababakarretan (+1), eta (+2) besteetan; oihartzunezko azentua eskuin aldeko (+2) silaban gertatzen delarik. **Txistu**, berriro ere, musika tresna denez, *markatua* da.

4.9.2.1. Aurkitzen diren zalantzak eta bitasunak, oso adierazgarriak dira hain zuzen: **semieri**, 109 / **semíeri**, 109; **esántziyon**, 115 / **esantziyón**, 115; **bátera**, 113 / **báterá**, 115; **bátetik**, 46; **batetik**, 113. Denotan nabarmentzen da *bi* silabatako oinaren garrantzia: biotan agertuz, Holmeren iritziaren arauera; edo-ta batetan bakarrik: ezkerretakoan, edo eskuinetakoan.

4.9.2.1.1. Prototono markatuak, betiko plegukoak dira: **órma**, 48; **démbo**, 48 (= *dénbora*); **nóbiyo**, 113; **pútz**, Bor. 296; **párroko**, 137; **yénde**, 139. Mailebu zaharretan, elkarren ondoan daude *bi* azentuketak: zaharra, **kábia**, 135; eta modernoa, analogi bidezkoa, **kabían**, 135.

Mailebuak integratzerakoan, (+2) joeraren arauera sartzen dira euskal hiztegiak: **amérikano**, 139; **musíka**, 139. N.4.9.211.

4.9.2.2. Gaur euskalki honetan silababakarrak diren hitzak, (+1) markatu gisa agertzen dira, diptongoari dagokionez; baita antzinako denboretan zegoen /h/ -ak halako batez silababiko egiten bazituen ere: **óyen**, 115 (= *ohean*; gaur, AN-bortz. **ói**)

4.9.2.3. Elkarketazko hitzek ere, eskema irregularra erakusten dute, halere: (+3)/ **izugárriya**, 296; **izugárrizko**, 297; **aipagárrí**, 297 // **axkolári**, 297; **agintári**, 296 // **zegamár**, 297; (+4)/ **baserrítár**, 297; **irabaztún**, 297.

Hots, beste euskalkietan ere ikusi dugunez, horietxek dira azentuari buruz *autonomo* agertzen diren «morfemak»: # **gárrí**, # **ári**, # **(t)ár**; eta kakoa unitatean bitasunean datza.

Gauza bera gertatzen zaigu # **zále** eta # **záin**-ekin; grafiak idarokitzen duenaren kontra: **euskaltzáiñ**, 295 // **arrantzále**, 297; **erderazále**, 296.

Termino horiek guztiak (+3, +4) *anormalak* dira inguru horretan (ez *Hondarribian*, berriro ere nafartarrago agertzen, Bortzerrieta baino).

Baina badirudi grafiak gezurtaritzen gaituela, eta horietan *bi* unitate bilatu behar direla (Holmer-ek berak bizkaierari buruz proposatu zuen bezalaxe).

4.9.2.4. Ikus ditzagun (M+1) markatuak:

1 // **géiegi**, 104; **géiago**, 57; **léio**, 47; **náusi**, 135; **áurre**. Lehenengo silabaren koda ez da hutsa: diptongoak ditugu.

2 // **málda**, 137; **átze** (**áurre**-rekiko analogiaz?), **kánpo**, **tríku**, **lámiya**, **liburu**. Arrazoi berberengatik, ohi bezala.

Alde batetik beheranzko diptongoa: **náusi**, **áurre**, **géiago**...

Beste batzu, mailebuak dira: **tríku**, **lámiya**, **liburu**.

4.9.2.5. Beste euskalkietan bezala, ezkerretako silaban gertatutako *laburketak* azaltzen ditu kasu batzu: **áte**, markatua (= ahate) / **ate** (normalean, beraz, **até** euskalki honetan, markatua ez delako hain zuzen); **ári** (M+1) (= ahari) / **arí** (hari). Gauza bat da, hortaz, Bortzerrietan, **átea** saldu, eta beste bat **atéa** saldu.

4.9.2.6. Eskuin aldean doazen *-ko* eta *-zko* atzizkiek, ez dute eratorritako terminoen azentua aldatzen: **náiko**, 23; **zúrezko**, 39; **sóñeko**, 39. (= soineko).

4.9.3. Azentua *paradigmatikoa* da deklinabidean barrena, Holmer-en ustez; deklinabide-atzizkiak klitiko direlarik.

Silababakarrak markatuak dira beti euskalki honetan: (+1). **finak**, 113; **úrik**, 48; **lótan**, 46; **béientzat**, 103; **súrik**, 100; **lánetik**, 47; **lánera**, 115; **lánin** (= lanean), 50; **óyen**, 115; **gábien**, 113 (= gauetan); **gáintik**, 113 (= gaintetik); **yáunari**, 135; **gábaz**, 141; **ónerako**, Bord. 297; (ardó) **béltza**, 174. (Honetan, bestalde, (#) muga dagoelako, ez da ***beltzá** azentuztatu, posible zitekeenaren aurka).

Silababikoetan, markatuak ez diren ber, (+2): **semíeri**, 109 (harritzen gaitu honek, dena dela); **elkáraki**, 109; **mendíra**, 109; **birían**, 115 (= bidean); **neskári**, 113; **etxéra**, 113; **errítik**, 137; **zubíyan**, 137; **atían**, 137 (= atearen); baina markatuetan, (+1): **bárkuko**, 139; **bárkuan**, 139; **plázara**, 137; **déndakuak**, 113; **lámiyari**, 50.

Trisilabikoetan, (+2) eskuarki: **itsásuko**, 58.

4.9.3.1. *Leku-izenetan eta pertsona-izenetan* (eta hau ez da txiripa hutsa, behin eta berriz esan dugunez) *are garbikiago* ere ageri da azentuaren paradigmantikotasuna: **Aránatz**, 135; **Arán(a)tza**, 46; **Arán(a)tzen**, 46; **Aránazko**, 137 – **Gaizkíbel**, **Gaizkíbelko** – **Igántzi**, **Igántziko**, 58 – **Erréne**, 45, **Errének**, 45, **Erréneri**, 46 – **Áie**, **Áieko**, 58 – **Sumbílle**, **Sumbíllen**, **Sumbíllera**, 46 – **Lézo**, **Lézoko**, Bord. 298 – **Bidáni**, **Bidániko**, Bord. 302; **Bidásua**, **Bidásuara**, 95, etab.

4.9.3.1.1. **bértan** ere prototono markatua da: **bértan**, **bértara**, **bértako**, **bértatik**.

4.9.3.2. Aditz-izena eta partizipioa (**ikúste** / **ikúsi**, eman dezagun), izenaireak dira; eta (+2) lege horren arauera hartzen dute azentua kasuetan barrena: **egín**, **egínen**, **egíngo**, 41; **etórri**, **etórriko**, 41 (**etórko**, 92, sinkopaz); **así**, **asítzera**, 109; **bazkáltzen**, 109; **bazkáltzera**, 109; eta, bide beretik: **etórtzeko**, 92, 117; **irákitten**, 139; **ikústera**, Bor. 301; **esáten**, 139; **agértzen**, **eóteko**, 91; **galdéztzeko**, 111; **ezkóntzeko**, 133; **billátzera**, 133; **ikásteko**, Bord. 302; **bueltátzeko**, Bord. 295. Baina (+1) erroa silababakarra denean: **játeko**, 117; **hiltzeko**, Bord. 299. (**atzéra**, halere, bi aldiz).

Erroa ere (+2): **etórnittake**, 82.

4.9.4. Deikarrietan eta agintetan gertatu ohi den goranzko entonazioak, oxitonia ematen du hemen ere: **aitá!**, 168, 'llamando'; **amá!**, 170; **agó!**, 92; **begó!**, Bord. 296; **ixillik agó!**, Bord. 302.

Seinalagarria da semantika-bitasun hau: **ára**, 'allá, direccional' / **ará!**, 'mira!', 178.

4.9.5. Benetako aditz-unaitateetara orain igaroz gero, hau esan behar da: adizki infinito *oxitonoei* erasten zaizkien laguntzaileek, beren azentua galtzen dutela: **fántzen**, 25, 109 (= joan zen); **ártzak**, 89; **éintzen** (= egin zen), 111. Berriro ere markaturik agertzen dira silababakarrak oro euskalki honetan (ikus ere, honi buruz, 3.3. kapitulua).

4.9.5.1. Gauza bera gertatzen zaie silababakarrak ez diren oxitonoei ere: **izántzan**, 81; **eldúnaiz**, 82; **eránttu**, 88 (edan ditu); **egíndu**, 86; **bizízen**, 111; **arída**, 90; **arídu**, 90; **etórnaiz**, 92 (= etorri naiz); **esántzun**, 96. Azentua, hitz batez, (+2) da; eta laguntzailea klitiko doa. Ikus honi buruz zubereraz gertatzen dena: 5.4 kapitulua. Eta gogoan har, era berean, nafarrera zaharrean aurkituko ditugun fenomenoak, errotik antzekoak (ikus 5.2. kap.).

4.9.5.2. Ezkerretako adizkia, berriz, *paroxitono* denean, laguntzaile silababakarrak oihartzunezko azentua biltzen du: **egónen dá**, 75 (hobeki: egónen-dà); **pasátzen dá?**, 117; **izándu náz**, 82; **etórri dá**, 92. Tarteá, beraz, *bi* silaba.

Baina Holmer-en transkribaketetan bigarren oihartzun-azentu hori ez dator beti garbiki markaturik: **geldíttuzen**, 139; **gertátuzen**, 111; **esáten dut**, 96; **idúki dut**, 96; **etórri zan**, 109; **gertátu zen**, 109; **etórtzentzen**, 111; **sártu zan**, 115; **egóndu naiz**, 91; **egónen da**, 91; **pagátuttu**, 137; **mozkórtzentzen**, 104; **déitusuen**, Hond. 109; **ucícen cuén**, Hond. 109 (= utzítzentzuén).

Beste euskalkitan bezalaxe, oihartzunezko azentuak erabakitzen du laguntzailearen azentu-plegua; hau benetako enklitikoá balitz bezala, eta grafiak, okerbidez, sinetsarazten digunaz bestaldera. (Ohar hau, jakina, euskalki guztiez egin daiteke).

4.9.5.2.1. **Omén** partikulak, euskalki honetan oxitonoa, bere ondora biltzen ditu enklitiko silababakarrak; eta, oihartzunezko txandakako joerari jarraituz, azenturik gabe uzten: **oménda**, Bord. 298; **oméntzan**, 141, 159; **oménda**, 141. Erabat, hitz batez, **esándu** edo **emándit** bezala.

4.9.5.2.2 Laguntzaile *polisilabikoek*, ezkerretan (#) muga baleramate bezala, (+2) azentua hartzen dute maiz: **gerá**, **zerá**, **dirá**, 79; **nitzán**, **giñén**, **ziñén**, **zirán**, 80; **nítzake**, **lítzake**, **gíñeke**, **zíñeke**, 81 (markatuak hauek). Baina: **sartú zaitéz**, 81; **kolétu zirén**, 69; **etórko diré**, 69; **íl tzirán**, 82; **arí zirén**, 90; **etórri zirán**, 92; baita honetara ere: **fántziren**, 115; **eldúziren**, 82; **arigiñen**, 81; **fántziñen**, 81; **ustéduzu**, 87; **bazkálduzuten**, 88; **oméntziran** 90; **esántzioten**, 96; **egíntzuten**, 137.

Ikus daitekeenez, ezkerretako elementu infinitoak, oihartzunez, bere azentua inposatzen du eskuin aldean.

Zenbait aldiz, Holmer-en grafian, tarte grafikoa dago; zenbait aldiz ez. Hots, horixe bera aurkitzen da Elkanoko Lizarraga-ren izkribuetan, Mz. Morentin bietan, baita Nafarroako beste izkribu zaharretan ere. Laguntzaileen klitikotasunetik at, ez dago, hortaz, aditz-unitateen azentua azaltzerik.

4.9.6. Euskalki honetan ere, *proklitiko atono gisa* azaltzen dira bai baiezko *ba-* aurrizkia, bai ezezko *ez-* delakoa; aditzarekin azentu-unitate *ba-* *kar bat* osatzen dutelarik.

Holmer-en corpusean hamaika adibide dago:

ba- // **badákit**, 33, 97; **badákik**, 97; **badákizu**, 97; **bazían** (**bi laún**), 115 (= baziran), *bi* hori, berriro ere azenturik gabe datorrelarik); **bazáuzkan**, 97, 117; **balítteke**, 82; **badúzi**, 95 (= badoazi); **banúye**, 95 (= banoa); **badúye**, 95; **bazíyuan**, 95. Beti, beraz, (+2).

ez- // **etzákiyen**, 71 (= ez zekien); **etzákit**, 33, 81; **etzákizu**, 27; **etzúk**, 82; **etzágo ezér**, 117; **etzáu ezérre**, 72, 117 (= ez dago ezer ere); **etzén muitzen**, 135; **etzán agértu**, 139; (**iñór**) **etzá**, 72; **etzítuzte**, 83; **eznúen**, 84; **etzáuka**, 97; **etzáukala tokírikan**, 97. Denak: (+2).

4.9.6.1. Joera berbera Bordari-ren hizkeran:

ba- // **badúzu**, 295; **badíre**, 295; **balúke**, 296; **bazén**, 297; **badúzute**, 299; **badá**, 299; **badákizute**, 302; **battúzu**, 301. Beti: (+2).

ez- // **etzákit**, 296; **etzén ageftzen**, 296; **etzén**, 297, 299; **etzíyoten**, 298; **etzékiten**, 297; **ez dá euskára galdúko**, 303 (**galduko** espero genuelarik).

4.9.6.2. Hori dela-ta, **ezál-** ezezko galdekaria gertatzen da: **ezáldago prés?**, 101. Baita oihartzunezko beste hau ere: **ezaldezú zerbait jatekó?**, 101; entonazioak oxitono-pare bihurtua.

4.9.7. Aldiz, eta beste euskalkitan bezala, *baldintzazko bá-* aurrizkia, *markatua* da. Bai neronen zerrenda magnetofonikoetan, bai Holmer-en eta Bordari-ren transkribaketetan, azentua dator behin eta berriz:

Holm.// **baldĩn bádire**, 81, 100 (hor ez dago oihartzunik); **jakingo bálu**, 97; **baldin báttuzté**, 88; **báleki**, 100 'si supiera'; **ezpáda**, 48, 'si no es'.

Bord.// **esáten báute**, 295 (= badaute); **bátek báleki**, 296; **baldin bádago ere**, 297; **agertu araziko bálu**, 298; **nabáduk**, 300 (= nahi baduk); **józtzen baldin báduk**, 303; **baldin báda**, 300; **egingo bálute**. 301.

Holmer-en ustez, dena dela, bi *bá-* horien arteko desberdintasun semantikoa eta azentukoa batera, ez dira beti garbi agertzen gaurko hizkeran: **ikústén bagáittu**: 1/ 'ya nos ve'; 2/ 'si nos ve', 88. Eta beste kontra-adibide batzu bila daitezke: **eráten badú**, 104 (baldintzazkoa; eta **bádu** espero zitekeenaren aurkakoa).

Oro har, dena dela, beste euskalkietan dagoen desberdintasun berbera dagoela esan daiteke (ikus 97 orr. bereziki): **báneki**, **báleki**, 97; baita mamitsu gertatzen diren hauek ere, oihartzunezn aldaratuak: **bazenéki-zu**, **bazenékizuté**, 97 (*bázenékizu*-ren bitartez sortua). Honek ere: **jakingo bazenuké**, 99; **bázenuke** eskatzen du, aldaraketa baino lehenan-gorako.

4.9.7.1. *Bait-* kontsekuziozkoa azentudun gertatzen bide da hemen: **báita**, Bord. 295.

4.9.8. *-nean*, *-la*, *-larik*, etab. enklitikoak dira, Holmer-ek berak garbiki esaten duenez, 104: **gaxtía dénien**, 81, **dén** hori markatua balitz bezala, berriro ere; **allétu zienian**, 81; **izán zála**, 82 (oihartzunaren kontra; eta, beraz, beste euskalkitzan bezala, **zán** markatuan sinesteko modukoa; ikus zuberera ere, honi buruz, 5.4 kap.); **bílluko núela**, 88; **ikúsi zuté-nian**, 113; **mozkórtzen tzenián**, 135; **difánian**, Bord. 296 (ohar aldakuntza fonetikoa: **dijoánian**); **zánez**, Bord. 298. Ez da ahantzi behar euskalki honetan (+2) dela joera nagusia.

4.9.9. Azkenik, eta beste euskalkitan bezala, *galdekari silababakarrak*, galdegai eta focus izaganatik ere, *proklitiko* bihurtzen dira: **zegínduk?**, 71 (= zer egin duk); **zernáiduzu?**, 71; **zeberri?**, 71, 91; **zer módu?**, 71; **ze árizan?**, 71; **zeñ errítakua?**, 58; **zerresáten dezu?**, 64.

4.9.9.1. Are *baiespenezko* esalditan ere, elementu silababakarrak, fokalak izanirik ere, atono bihurtzen dira: **au etórda**, 92; **au etórkoda**, 92; **ez eldúki**, 141.

Oharrak

N.4.9.0. Lapurterazko azentuaren deskribapen zehatzik ezin sartu izan dugu lan honetan. Bai Holmer aurrenik, bai Mitxelena ondoren, batera datoz honi buruz: *Pierre d'Urt*-en azentu grafikoa bitartez soma daitekeenez (ikus Fon. H.V., 572). Lapurdiko eta Bortzerrietako euskalkiak

elkargandik hurbil daude («hizkera bera» direla uste dute lesakarrek, esate baterako); geografiako arrazoiengatik ere soma zitekeen bezala.

Eta Lapurdin, hortaz, soma daitekeenez, Bortzerrietan bezala, (+2) da azentu-lege nagusia.

Lezo-ko euskaltzale eta adiskide dugun Patri Urkizu-ren bidez, Urt-en hiztegiari begiralditxo bat emateko aukera izan dut (orain argitaraketa kritiko bat prestatzen ari). Ezinezkoa izan zait, ordea, batera Gramatika, Hiztegia eta «Etorquia» kontutan hartuz, puntu hau argitzen zer-bait eskaintzea (agian halako batez!); aspaldiko lapurteraren arazoa, gaurkoarekin batera, argituz.

N.4.9.1. Honi buruz erabateko irizpiderik sekula eman ez badu ere («if it has at any time been general or not is for obvious reasons unknown», Holmer, *Fontes* 4, 1970, 9); sueziaz hizkuntzalari apartak, batera honi buruz Mitxelenarekin, azentu hori ia-ia aldakaizkiro (+2) silaban agertzen dela uste du. Ikerlan honen egileak ere, uste berbera du; alde askotatikako arrazoi baterakorrek horretara bultzaturik.

Hau dela bide, aurrizki silababakarrak bilatu behar bide genituzke euskara zaharrean: izenen *i-* ren plegukoak; edo-ta aditzen *na-*, *ha-*, *da-*, etab. renak. Diotenez, eragin zeltikoa izan daiteke Ekialdean (-2) azentukera nagusi-erazi duena; eta berri xamarra. Ondoko kapituluetan azaltzen denez.

N.4.9.2.2. Zeharka bada ere, G. Lertxundi-ren artikulu berriak (ikus *Iker* 2, 1983; 347) lapurterari buruz dagoen uste hori ispiatzen du.

Alde batetik, hizkeraren lautasun isotonikoa azpimarratzen du: «il n'existe plus (d'accent) dans le Labourd et la Basse-Navarre; et les syllabes donnent l'impression d'être pratiquement isotones», 347.

Hots, beste aldetik hau aitortzen du: «seules certaines syllabes sont aptes à être appliquées à un appui musical», 347.

Lanaren korapilotsua handia izan arren, estatistikoki bederen badirudi hauek direla musika-markarekin batera nolabait egoki daitezkeenak:

a) hitz-*bukaera* (edo, hobeki, azentu-unitatearen (-1) silaba);

b) *silababakarren* silaba horixe;

c) hiru baino gehiago duten unitate askotan, *bigarren* silaba: **egúnetan**, **gezúrria**, **lagúntzarik**, **itzálpelan**, **itótzera**, 353.

Hots, honek ere, bestelako ikerbideetatik lortutako ondorio berberetara eramaten gaitu; eta lapurtera nafarrera mota honetatik hurbil da-goela esan daitekeela dirudi.

N.4.9.4.4. *Hondarribiko* hizkeran, eta geronen corpusen arauera hauek ditugu:

- **txarrák** (nahiz **txárrak** ere), **dának**, **bátekin**, **ángo**, baino **urá**.
- **gáiski**, **géiago**.
- **kálian**, **gútxi**, **mérke**, **jéndia**, **kánpuan**, **árgia** (M+1);

- eta, markatugabeak: **garbíya, antxótan, eré, kalté, ordúak, arriya, ondarra, millói, ardóik, errítik, askárro** (= azkarrago), **nafárrak, jolásin, jolásak.**
- eta trisilaboetan: **kadíra, euskéra, amábi, ainbéste, erdárakzo, imájiñak, elízara, oitúrau** (sic), **berríro, illábete bát, Ondárribiko.**

Baina eskuin alderago ere gertatzen dira azentuak: **kastellánoz, irundárra, adelántuak, aparátua, amístáde, borondátez;** denok (+3) eta (-2) batera, oso **ondárbitárra**, baina bitxi ere bai besteontzat. Baita hauek ere: **baserritárra, elizkizúna, kasualidáde, konzentrazíoa, lendabizíko,** (+4) eta (-2), oso arrotz, nahiz oso hondarribitar.

Adizkietan hauek ditugu, besteak beste:

- **sártu-zirén, jártzen-duté;**
- **erósi, erósten, erósteko; bajátzen; bukátu; kantátzen; lagúntze-arrén; konprénitzen.**
- **egíngo-duté; egóngo-dirá, abésten-dú, izángo-litzaké.** Baina: **renobá-tu, lokalizátzen, sobrekargátzeko.** *Erdal hitzek* dute azentu bitxi hori; Areatza-ko lekukoaren kasuan bezalaxe (ikus 1.3.5. kap); eta honek, berriz ere, azentu mota horren arrotzasunaren alde, eta berritasunaren alde ere bultzatzen du.

N.4.9.4.1. *Eratsun*-en (Bortzerrietatik at, beraz; nahiz nafarrera garaiaz mintzo) gipuzkerazko kutsua dute formek: **láundutá, séguró, ólaxé, lánera, góiztarrá.** Nahiz **mutilzarrá** entzun, # **zár** en alde mintzatuz.

Hona hemen, sailka, adibide batzu:

- **zárrena** (are **zárna** ere); **lánera, lánen, góizko, pózik, góien, dénak, gáben** (nom. **gába, gáua**), **lénago, fránko, ára.**
- **gaztétan, geró, urté, zazpíre, amárrak arté, egún, etxén, aizpá, antxé, zubíya, eméngo.** (+2), beraz.

Baina (M+1) badira, beste euskalkietan diren hitz bertsuak: **Léitzera, séme, áste, néretzat, gútxi, dántzan, pázkotan, sóñu** (ik. soinu), **léitu, tálo, kásorik.**

- Hitz luzeetan, (+2) eskuarki: **alábekin, ostégun, gurútzeta, kafésne, karríken. karríketan, jostáketan.**

Joera berak aditz-unitateetan:

- **yótzen, léitzen, sáltzera;**
- **egítendót, atéra, biáldu, kantátu, asfisiatú.**

Aditz-laguntzaileetan, (-1) dela-ta, azentudun agertzen: **-dót, -zén, -giñén, -giñún.**

Ezkerretako silababakarrak, proklitiko bihurtzen: **deuséz, lauáizpe, bostórdu, lauséme.**

Eta honek bete-betean murgiltzen gaitu Nafarroako joeretan, eta Ultzamakoetan oso bereziki (ikus 5.1. kapitulua).

5. Ekialdeko azentu-saila

- 5.1. Ultzama-ko nafarrera garaia
- 5.2. Hego-nafarrera garaia (XIX. mendea)
- 5.3. Erronkaiera
- 5.4. Zuberera

5.1. Ultzama-ko nafarrera garaia

Berehala ikusiko dugunez, Ultzama-ko azpi-euskalkiaren interesa, bere geografi-kokatzearen aldetik datorkio bereziki. Zenbait aldetatik, Lizarraga-ren bidez ongi ezagutzen dugun Hego-nafarrera garaitik hurbil dago (ikus ere ondoko kapitulua, 5.2.); baina beste zenbaitetatik, gipuzkeraren eta bizkaieraren azentu-pleguaren eragina erakusten du. Ez da ahanzi behar, hain zuzen, gipuzkeraren moldeko hizkerak Nafarroa-ko Mendebaldean ere badutela sarrera-eskualde bat (Barranka, Ergoiena).

Ultzamako azpi-euskalki hau Iruñe-tik Iparraldean dagoen haranean hitz egiten dute oraindik bertako pertsona helduek eta zaharrek, *Auze-n* eta *Elzaburu-n* bereziki. Ultzama-ko 14 herrisen jendaketak, dena dela, ez ditu 2.000 lagunetara iristen. Demografiaren aldetik, beraz, txikia da Nafarroa Garaiko hizkera honen garrantzia.

Bigarren arrazoi bat badago euskara-mota hau deskribatzeko. Ondoko urteotarako etorkizun beltzaz gain (Auze-tik at ez baita gaur Ultzaman euskara entzuten), lan bikain bat utzi zigun A. Kandido Izagirrek (berri ere berak, bai: «Ultzamako euskararen gai batzuk», BSVAP 1966, 403 - 467), *Alkotz*-en bildatuko materialeen arauera.

Horrez gain geure eskuetan daukagun banda baliatuko dugu: *Lantz*-en bildu zuten (1981) Marivi Isastik eta Aintzane Ibarzabalek. Informatzailea Antonio Ariztegi izan zen, elebiduna bera; eta gogoan hartu beharra dago orain dela urte batzuz geroztik gaztelania dela Lanzko hizkuntza nagusia (Irigarai, Sánchez Carrión). Beronengan, hortaz, maiz xamar somatzen dira azentu-interferentziak (baita gainerako mailakoak ere, jakina). Eta, denaz gain, Lantz ez da hartu ohi Ultzamako herrizat, geografikoki. Baina eskualdeko hizkuntza-dokumentuen urritasuna dela-ta, banda horren edukia ere ematea erabaki dugu, transkribaketa erdi-fonetikoan.

- 5.1.1. Haseran esan dugunez, Ultzamako euskararen, benetako nafarrera garaia-aren azentu-moldeak eta «mendebaltar» azentu-moldeak topo egiten dute. Askotan, horretara, bi azentuketak gertatzen dira elkarren ondoan. Adibidez: **gibelá** = **gibéla**, 429. Lehenengoan gipuzkeraren zantzua dugu, bigarrenean, aldiz, nafarrerazkoa dugularik. Nafarreraz (ikus 5.2) eskuineko silabaren kodaren arauera erabakitzen baita azentua: **gibel**, koda ez-hutsa, eta **gibél**, beraz, hiru numeroetarako: **gibél**, **gibéla**, **gibélak**. Mendebaldean ere bai: (+2), eta hortaz **gibél/gibéla** (baina **gibelak**).

Ere berean, hona hemen beste bikote hau: **ágosabayé = agosabáye**, 410; (**sabai**, diptongatua denez, **sabáie** baita)

Beste batzutan, nominatiboetan gertatzen da bitasun hori: **mákomebát = makomébat**, 441. Lehenengo unitateak Lizarraga-ren nafarrera gogorazten du, nahiz hertsiki gauza bera ez izan.

Gauza bera beste kasutan ere: **gáldetu = galdétu**, 429; **éskatu = eskátu**, 427; **báitere = baitére**, 418.

Tarteko molde batzu, ikus dezakegunez, Ultzama-tik at ez dauden forma bitxiak dira.

5.1.2. Beste euskalkietan eraman dugun aurkezpede bera eramanez, has gaitezen *izenezko* unitateen deskribaketatik; eta, lehen-lehenik, nominatibotik.

5.1.2.1. Bai K. Izagirrek (405, 406, 407 orr.) eskainitako zerrendek, bai Ultzama-ko azentu-unitateari buruz egindako ohar garrantzitsuek, ez dute zalantza izpirik uzten: mugagabe *soilean*, Elkanoko nafarreran (XIX. mendekoan) aurkitzen dugun azentu mota *berbera* aurkitzen dugu. Beraz, azken silabaren *koda hutsa* baldin bada unitatea *paraxitonoa* da; koda hori, berriz, *ez-hutsa* baldin bada, unitatea *oxitonoa* da. Adibidez: **afari**, koda hutsa, **afári**; **akullo**, koda hutsa, **akúllo**; **abrats**, koda ez-hutsa, **abráts**; eta abar: **elúr**, **bégi**, **amorrái**, **esnegáin** (N.5.1.2.1.). Nahiz, ezkerretako haseraren arauera, (+3), (+4), edo abar izan.

5.1.2.1.0. Ohar bera egin daiteke Lantz-ko hizkeraz:

– **Otaño**, **Zugésti**, **Urulár** (bertako toponimoak);

– **áise**, **zázpi**, **euskéra**; baina **emén**, **arrúnt**, **euskeldún**. **Gupúzkoa** ere paroxitonoa da, Ultzaman /wa/ diptongo goranzkoa normala denez.

5.1.2.2. *Mugatueta* pasatzean (bai singularra bai plurala), azentua *silaba berean* egoten da higikaitz, Hego-nafarreran bezala: **akúllo / akúllua / akúlluak** (3 silaba); **abráts / abrátsta, abráttsak**; **elúr / elúrre, elúrrek**; **amorrái / amorráie, amorráiek**.

Ultzamako nafarreraz, beraz, hau dugu:

$$\left[\begin{array}{c} \text{V} \\ \text{-hi} \end{array} \right] \mid \rightarrow \text{[-syll]} \ /- \text{a(k)}$$

eta unitatearen eskuinean goranzko diptongoak gertatzen dira maiz.

5.1.2.3. Goiko bokalez amaitutako enborretan, berriz, /i/ edo /u/, aurreko inguramendu-baldintza ez da betetzen; eta bokaleak ez du bere silabatasuna galtzen. Eta, hori dela bide, azentua mogitu egiten da eskuin aldera. Aldibidez: **afári / afaríe, afaríek**; **bégi / begíe, begíek**; **lístu** ('saliva') / **listúe, listúek**; **lárru / larrúe, larrúek**. Nolabait esateko, paradigmatikotasuna baino azkarrago da Ultzaman azentu-unitatearen indarra; eta eskuin aldetik neurtua. Hau, noski, berria da.

Hitz *markatuetan*, azentua ez da halere mogitzen: **gúzi** / **gúzie**, **gúziek** (2 silabatan). (Bidenabar esateko, Elkano-ko hizkeran ere, **gúzi** markatua da. Ikus 5.2. kap.).

- 5.1.2.4. Joera fonologiko hori baita mailebu berrietan ere gertatzen da: esp. **alúbja** = Ultz. **alubíe**, 418.

Hots, honetaraz gero, Mendebaldeko euskararen joera sendo bat gogorazi behar da: diptongo *goranzkoen kontrakoa*. Hain zuzen ere, Mendebaldekoie buruz ari garelarik, hiatua segurtatzekotan, hau gertatzen baita:

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} X \\ \text{frik.} \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} V \\ +\text{hi} \end{array} \right] - a$$

Adibidez: **mendia... mendíze**, **mendíya**; **burua... burúbe**, **burúba**.

Azpimarragarria hau da, dena dela: fenomeno horiek ez dituztela ukitzen *-ea* eta *-oa* multzoak; nahiz, zeharbidez, beroietan ere /i/ eta /u/ agertu.

Puntu honetan, beraz, nafarrera-motarik gehienak (Ipar nafarrera batzu barne) Mendebaldeko euskararen multzotik at agertzen dira.

- 5.1.2.5. Badirudi, lehendabiziko hurbilketa batez, hau idatz litekeela:

$$(*) \quad \left[\begin{array}{c} V \\ +\text{hi} \end{array} \right] \rightarrow [+str] / - a$$

eta **alubíe** azalduko litzateke.

Baina silabatasunari eustekak dirudi garrantzitsuago. Zergatik hau?: **górrri** / **gorriágo**, 430 (*lau* silabatan). Kasu honetan ez dago diptongo goranzkorik gertatu; eta harmoniarik ere ez. (Ikus 2.1 kapitulua). **Gorrie**, baino **gorriágo**.

- 5.1.2.6. *-bat* daraman mugagabea Lizarragaren moldetik urruntzen da; eta bizkaieratik (eta zubereratik ere) hurbiltzen: **sagúbet**, 449 (eta **sagúe**); **errañúbet**, 426 (eta **errañúe**); **bekatúbet**, **bekatúe**, 420; **arrausíbet**, **arrausíe**, 415; **arráibet**, **arráie**, 415; **eztúbet**, **eztúe**, 428.

Azentu-unitatea garbi agertzen da bietan (ikus harmonia); eta, halere, **bát** espero bazitekeen ere (koda ez-hutsa), azenturik gabeko **bat** dugu behin eta berriz.

Azentu-molde honek, beraz, emaitza bertsua ematen du singularrean eta *bat*-ekiko mugagabeen (Mendebaldean bezala, *bat* hori zenbakaria ez den ber); baina lexema hauetan *bakarrik*: kontsonantez bukatzen direnetan, bokalerdizkoetan, eta goiko bokalezkoetan. [- hi] bokale batez amaitzen direnek, ez dute joera bera erakusten.

5.1.2.5.1. Honi buruz K. Izaguirre-ren 3.oharra (443 orr. oinean), guztiz mami-sua da: «F. Baldak bakarrik ematen die itzai azentu au: **neskatuát, illeba bát, alaba bát**, eta abar, *bat* itza sartzen danean. Besteak, ordea, **neskátuat** esaten dute». Biotan lehenengoa, berehala ulertzen denez, nafartarragoa da (edo Ekialdetarragoa), bigarrena baino; koda ez-hutsaren arauera jartzen baita azentua.

Lantz-ko corpusen ere hau aurkitzen dugu behin: **arréba bát**, 5; Hego-nafarreraren arauera. Hots, Izagirreraren esanetara, molde hau *gutxiengoa* da Ultzaman.

bat mugagabearekiko unitatea, singularrarekin doa; eta bokale-harmoniaz: **arráibet, arráie**; baina **bát** zenbakariarekin harmoniarik ez eta azentu bikoitza (Ekialdeko joera nagusiaren arauera, eskuin aldekoa gailendu arte): **arrái bát** → **arraibát**.

5.1.2.7. Zer gertatzen da /e/ edo /o/ bokaleez amaitzen diren lexemetan? Egoera ez da *bakuna*; anizkuna, eta kontraesan ez betea baizik.

5.1.2.7.1. /e/ bokaleez amaitzen diren izenetan, Mendebaldeko joera da nagusi: **barébat, bária** (2 silaba), 419; **arroltzébat, arróltzia** (3 silaba), 415; **basurdébat, basúrdia**, 419; **erlébat, érlia**, 425; **labébat, lábía**, 437. Behin, dena dela, salbuespena dugu: **orraxébat, orráxea** (4 sil.), 447.

Egoera hau, beraz, *bat*-ekiko mugagabeari dagokionez, egoera antzua da: ez mendebaltarra, ez ekialdetarra; bien erdibidekoa baizik.

5.1.2.7.2. /o/ bokaleez amaitzen diren izenetan, berriz, /b/-ren erorketaren ondorioz, /wa/ diptongo goranzkoa agertu, eta egoera hau dugu: **neskátuat** (3 sil.), **neskátua** (3 sil.), 443. Izagirreraren lanean ez dago **-óbat** daraman kasurik bat ere; eta *Lantz*-ko nire corpusen ere ez. /wat/ hori dela-ta, ordea, paroxitono pila bat aurki daiteke: **láukuat**, 'una perra chica', **láukua**, 434; **úduat, údua**, 'fuina', 453; **jítuak, jítua**, 'gitano', 435; **mánduat, mándua**, 'machorttuat, áurttua', 415; **ástuat, ástua**, 416. Denok *silababikoak* direlarik; eta azentua mugagabe soilean zeraman lekuan daramatelarik: **láuko, údo, ásto**.

Hau ez da Elkanoko hizkeran aurkitzen duguna: hartan **-át** dugu, normalean, eskuineko kodaren arauera; eta bizkaiera mota askotan **-óbat**.

Harrigarria da, bestalde, $\left[\begin{smallmatrix} \text{V} \\ \text{-hi} \end{smallmatrix} \right]$ matrizearen arauera defini daitezkeen bi bokaleak (/e/ eta /o/) horren bide desberdinetatik abiatzea; gainerako euskalkietan ez baita horrelakorik gertatzen.

Badirudí Ultzaman Mendebaldeko moldea singularraren parte batean; eta bi parte horiek berak ez direla.

5.1.2.8. /e/ eta /i/ bokaleak bide desberdinak hartzeak, bestalde ondorio azpimarragarriak ditu:

áre (= harea), **ária, áriak** (2 sil.)

ári (= ahari), **aríe, aríek** (hemen markatu-gabea)

atári; ataríe, ataríek. Baina /r/ eroriz gero:
atái; atáie, atáiek.

/ea/ bikoteak /ja/ goranzkoa ematen duenez gero: **ítxe** (=etxe)-ren inesiboa, bitxia da: **ítxan** (= ítxjan).

- 5.1.2.8.1. Hauxe da, hain zuzen, **Irúñea** hiriburuari buruz dagoen izendapenaren zalantzen iturburua; [+ hi] diren segmentu guztien eskuinean sor baitaiteke kezka bera: **ítxan**, ala **ítxjan**?

Irúñea sekuentzia, *hiru* silabatan ahoskatzen da Ekialdean, /ja/ diptongoa posible denez (baina *lau* silabatan Mendebaldean, noski). Eta **i.rú.ñja** ala **i.rú.ña** ote dugun egon daiteke zalantzan (**ítxan** / **ítxjan** bikotearen aurrean bezala). Hor bi bokale ez baleude, bokale-harmonia genuke: **Irúñe, Irúñen**. Hots, **ítxan** dugun bezala (eta ez **ítxen**), **Irúñan** dugu; eta, honen atzean, **ítxean** dagoen bezala, **Irúñean** dago (behin eta berriz dokumentatzen den bezala, bestalde). Mitxelenak du egia, hitz batez; eta ez Iraizozek.

- 5.1.2.8.2. Era berean, /o/ eta /u/ bokaleek tratamendu desberdinak izatean, ondorioak nabarmen daude: **azáro, azárúa**, 432, (/w/, eta hiru silaba); **mártxo, mártxua**, 432; baina, **abéndu, abendúe**, 432; **agóstu, agostúe**, 432.

Singularrak, beraz, amaierako /o/ eta /u/-ren arteko arazo zaila, hizkera askotako neutralizazioa dela bide, argibidea eman dezake euskalki honek; gero ere besterekin erkatzekoa, noski.

Batzutan, halere, Ultzaman bertan ere badaude zalantزابideak: **korróto, korrótua**, 437, 3 sil.; baina **korrotúe**, 437, unitateak, **korrótu** postulatzen du.

Era berean, Ultzaman **láño, láñua** dugu (baina Elkano-ko Lizarragak **láñu** dakar; eta honek ***lañue** emango luke).

Ultz. **lengúsua**, beraz, ***lengúso** genuke (normalean, dakigunez, **lehengusu**, edo **kusu**).

- 5.1.2.9. *Elkarketazko* izenetan, *eskuin*-aldeko elementuak biltzen du azentua (Mendebaldeko ez bestaldera): **luryáuzi**, 440; **mendilépo**, 442; **neskazár**, 442; **azósto**, 447; **ortotseráuntsi**, 447, (+4); **kisu-árri**, 436; **egoláño**, 437; **langarláño**, 438. Sistemakiro gertatzen da hau: *eskuineko* elementuak atxikitzen du bere azentua, eta ezkerrekoak galtzen. Erabat Mendebaldeko joeren kontra.

- 5.1.2.9.1. *Goranzko* enfasi-entonazioak (deikarrietan, esate baterako), *oxitonoak* sortzen ditu; bidenabar, azentua nafarreran ere, maiztasunezkoa dela idarokiz: **áite**, nomin.; baina, **aité!**, 410; **áma**, baina **amá!**. Orain arte ikusi dugun joeraren arauera.

Horrelaxe azal daiteke bikote hau: **neskákua**, nom.; baina **neskakuá**, 411, deikari gisa.

Era berean, **beldúrre**, nom.; baina **beldurré?**, 467.

Aditzezko unitateei buruz ere, plegu bereko oharrak egin daitezke.

- 5.1.3. Azter dezagun orain *izenezko* unitateen deklinabidea («izena» esatean, izenaireak ere gogoan ditugu).

Mugatu singularrean nabarmen agertzen da azentuaren *paradigmatikotasuna* (maiztasunak direla-ta, hornituena corpusean); **tokíe**, **tokíek**, **tokíeri**, **tokíeren**, **tokíereki**, (**tokieréki**, maizago, dena dela); **tokíez**, **tokíen**, **tokíra** (baita **tokirá** ere), **tokítik**, **tokíko**. Aldaraketa gertatzen den hiru kasuetan: **tokierí**, **tokierén**, **tokieréki**, mogimendua *bi silabatakoa* izan da: (+2), eskuinerantz. **Tokirá**, kasuan, **-rá** markatua dagoe-la pentsatzeko arrazoiak daude (ikus ondoko kapituluak).

Eman dezagun orain koda ez-hutsa duen hitz bat: **bizkér**. Inesiboraino paradigmatikoa da, erabat (edo ta + 2 mogimenduz): **bizkérra**, **bizkérrak**, **bizkérrari** (edo **bizkerrarí**), **bizkérraren** (edo **bizkerrarén**), **bizkérrareki** (edo **bizkerraréki**), **bizkérraz**, **bizkérrian** (3 sil.). Baina, hortik aurrera, zutabea saihestu egiten da: **bizkerréra**, **bizkerrétik**, **bizkerréko** (baita **bizkerrérá** ere).

Lekutasunezko kasuetan «zerbait» gertatu dela soma daiteke. (Eta ez euskalki honetan bakarrik, gramatikariek ongi dakitenez).

- 5.1.3.1. Goikoak ez diren bokalezko lexemetan, aldiz; eta diptongo goranzkoak zilegi direnez gero, egoera hau da: **ítxe**, **ítxia** (pratikan **ítxa** entzuna), **ítxiak** (pr. **ítxak**), **ítxiari** (pr. **ítxari** edo **ítxarí**), **ítx(i)aren** (ik. **ítxarén**), **ítxi(i)areki** (edo **ítxi(i)aréki**), **ítx(i)az**, **ítx(i)an**; baina **itxéra**, **itxétik**, **itxéko**. (pentsa dezagun, beraz, hauek ere entzungo direla: **Iruñéra**, **Iruñétik**, **Iruñéko**).

Paradigmatikotasuna, berriz ere, inesiboraino doa. Eta hortik aurrera, +1 mogimendua.

Berriro ere esateko, Ultzaman hau dugu:

$$/j/ \rightarrow \emptyset / \left[\begin{array}{c} C \\ +hj \end{array} \right] - a$$

Eta, hortaz, **txe#**, **lle#**, **ñe#** bukaerak dituzten hitzek erakusten dute fenomeno hori.

Bestetik, Ekialdeko gainerako euskalkietan bezala, eta *euskaraz oin bisilabikoaren* garrantzia azpimarratzen delarik, aldaraketa hau dugu:

$$\acute{o} \acute{o} \acute{o} \rightarrow \acute{o} \acute{o} \acute{o}' \rightarrow \acute{o} \acute{o} \acute{o}$$

eta oihartzunezko azentua, azken buruan, ezkerraldeko zaharrari nagusitzen zaio: doinuari halako kutsu «romance» hori emanaz.

- 5.1.4. *Pluralari* buruz, orain, arrisku handirik gabe, deklinabide hau proposa daiteke; paradigmaticotasuna hautsia bezala agertzen delarik (nomina-

tiboa eta lekutasunezko kasuak batetik, gainerako kasuak bestetik). Adibidez:

tokiek	ítx (i) ak
tokiék (3 sil.)	itxék
tokiéi (3)	itxéi
tokién	itxén
tokiéki	itxéki
tokiéz	itxéz

Baina hortik aurrera:

tokietán	itxétan
tokietára	itxétara (edo-ta, -rá)
tokietáik	itxétaik
tokietáko	itxétako

ítxe-ren paradigmaticotasuna orokorra da; baina kakoa bistan da: *ee* elkarketaren laburketa, **itxeetan**, **itxen**, etab.

Tóki hitzean, berriz, tartea 2 da.

Ikus, honi buruz, 5.2 eta 5.4 kapituluak.

5.1.4.1. *Mugagabe*an ere, deklinabidearen paradigmaticotasuna somatzen da; baina corpusaren urriaz, ezin segurta daiteke. Eskuin alderako mogimendua dela-ta, hau espero daiteke: **tóki**, **tokirén**, **tokiréki**, **tokitén**, etab.

5.1.4.1.1. *Partitibo*an, dena dela, bitxikeria bat gertatzen da: singular mugatua-
ren arauera osatzen dela. Alegia: **bákeik**, **bákia**, 428; **láñoik**, **láñua**,
438; **kásoik**, **kásua**, 465; **béteik**, **bétia**, 449; **aziéndik** Lantz 3, **aziénda**.
Baina, beste eskema baten arauera goiko bokalez amaituetan: **tokíik**,
tokíe, 417; **astíik**, **astíe**, 428.

5.1.4.2. Leku-izenetan ere, eta corpusak ematen dituen datu apurren arauera,
paradigmaticotasuna dagoela pentsa daiteke: **Donostíe**, **Donostíen**,
463, 466. Baina, esana dugunez, alatiboan: **Iruñ(e)a**, **Iruñéra**, 447,
462. Lanzko informatzaileak, nolana ere, **Iruñeko** zion, «mendebal-
tarkiago».

5.1.5. *Aditz-izena*, nominatiboan paroxitono, normalki deklinatzen da: **ázte**
(= hazte, haz); **áztia** (2 sil.), **áztiak**, **áztiari...áztian**; baina **aztétik**, **azté-
ra**, **aztéko**. Goranzko entonazioan, eta subjuntiboaren erabiltzen den
-tzen forman, paroxitonoa da: **ázten**.

Hona hemen adibide batzu: **parátzen**, **kasorátzen**, **eskribítzen**, **erráten**,
emáten...

Azentu-bitasuna oso nabarmen agertzen da Lanzko bandan: **ikéstekó**, 6; **erakústekó**, 6; eta, fase horretan, bi azentuok, jatorrizkoa eta oihartzunezkoa, elkarren ondoan entzun daitezke.

5.1.5.1. *-tu* eta *-i* -tan amaitzen diren partizipioak, koda hutsari dagokionez, paroxitono agertzen dira: **geldíttu**, **antzútu**, **argíttu**, **lekútu**, **áutsi**.

Koda ez-hutsezko partizipioak, oxitonoak dira: **errán**, **emán** (are **mán** ere, 438; aferesiz).

5.1.5.2. *-ko* daramaten geroaldizkoek, atzizki hau gabeko partizipioak zerman silaba berean jasotzen dute azentua, antzinako paradigmaticotasunari eutsiz: **geldíttuko**, **antzúttuko**, **argíttuko**.

Zeharbidezko frogabidea ematen dute, hain zuzen, (-2) silaban gertatzen den forma-zalantza: **merkátiko**, 446 (ik. merkátuko); **suertátiko**, 442; **sáldiko**, 451 (= sálduko); **tórko**, 420, 432 (= etórriko); **artikóñ**, 462 (= hártuko din); **pastikoñé**, 462 (= pás(a)tuko diñé); **kúsko**, 426; **ibílko**, 464.

Atal honetan, Mendebaltar agertzen da ultzamera; azentuaren *posizioari* dagokionez, noski (aferesiak ez dira horrelakoak).

5.1.5.2.1. Bide beretik: partizipioari erasten zaion *-(r)ik* atzizkiak, ez du jatorrizko azentu-moldea aldatzen: **akíttuik**, 411; **atsandíttuik**, 416; **kolokátuik**, 435; **lotsátuik**, 439; **lumétuik**, 440; **ezkónduik**, Lantz 4. (Ik. 5.1.5.2.)

5.1.6. *Laguntzaile silababakarrak* azentudun agertzen dira (Elkano-ko euskalkian bezala); baina *baldintza* hau bide da: ezkerretako elementu infinitoa (-2): **iduridú**, 431 (alegia: **idúri+du** → **idúridú** → **iduridú**; eskuineranzko lerraketa dela-ta); **altxatudé**, 431 (bokale-harmonia hori oso adieraz-garria da); **asikonáun**, 432; **yayozén**, 455; **iltzartudú**, 432; **geldittudé**, 432; **iltzentú**, 432; **opatudút**, 445; **ibilkottún**, 464; **ustenuén**, 442 (/nwén/, jakina). Zalantza bakar bat zerrenda honetan: **ási-ko+náun**, tartea hiru silabatakoa delarik.

5.1.6.1. Aurreko silaba azentuduna denean (edo, bestela esanda, ezkerretako elementua oxitono denean), Lizarragaren grafian bezala (eta ikus ere, bide berberetik, zubereraren kasua, 5.4 kapitulua), laguntzaile hori azentugabe agertuko da: **itteméndu**, 464 (*emén*, oxitonoa).

5.1.6.2. *Silababakarrak ez diren* laguntzaileetan, azentua kodaren arauerako lekuan doa: **díre**, **díren** (nahiz **zará** eta **zára** aurkitu ahal izan).

5.1.6.2.1. Ohar bera egin daiteke aditz *trinkoez*: **dáki**; eta, beraz, halako paradigmaticotasun bitxi baten arauera: **dákit**, **dákik**.

5.1.6.3. Baldintzazko *ba-* aurrizkia, Ekialdeko euskalkirik gehienetan bezala (kontutan har unitatearen ezkerretan doala, eta euskalki hauetan azentua eskuinetara lerratua dela), ez da markatua.

Hala ere, oinarrian bederen, (+1) azentua postulatu beharra dagoela dirudi:

deseyua bagiñúke, dese yua bagiñuké, 424.

Lehenengoa baldintza da, bigarrena ondorioa. Hots, bi silabakato leraketa kontutan hartuz gero, hau postula daiteke:

*** dese yua bagiñúke, dese yua bagiñuké**

Eta, horren arauera, euskalki honetan ere, besteetan dagoen eskema dugu: **bagiñuke** (baldintza), **bagiñuke** (baiespena).

- 5.1.6.4. *bait-* eta *ezpait-* proklitiko izanik, azentu-unitatean tokatu zaien leku-gunearen arauera hartzen dute beren azentua: **ezpáite**, 460; **baíttun**, 454; **ezpáizen**, 461; **baíte**, 462, 466; **baítu**, 462; **béite**, 457.

Euskalki onetan, beraz, nahiz eskuin aldeko kodak nagusi izan, behin eta berriz agertzen da kontsonanteek pisu txikiagoa dutela (edo-ta bature ez dutela: **dáki**, **dákit**, **dákik**), bokalerdiek baino. Kodaren garrantzia, hitz batez, segmentu *bokalikoetan* datza. (Beste euskalkietan bezala).

- 5.1.7. Normalean, eta Elkano-ko nafarrera-motan bezain sistematikoa ez izanik ere, **ba-** eta **ez-** aurrizkiez ez dute azentua hartzen; ezta eskuineko kodaren arauera hartu behar dutenean ere. Berriro ere, beraz, eskuine-ranzko lerrakera gauza *berria* dela agertzen da.

Adibidez: **eztáki**, Lantz 6; **eztákite**, L.5, **badáki**, **badíre**, **bagiñen**, **eztígun**, **enítzen**, **baáki**, **bazákien**; are hauek ere: **eztá**, **eztú**. Zenbait aldiz, dena dela, **éztá**, **éztakít**, eta antzekoak entzun daitezke Lanzko bandan.

- 5.1.7.1. Izagirre-ren corpusean joera bera ageri da: **ezgáizke yuan**, 430; **badakízu**, 466; baita: **etxún ibilko**, 469; **etzén**, 460; **enáiz** (kasorátzen), 425; **eztá**, 416, 438; **eztú balío átiak**, 418; **eztiré**, 448; **badún**, 461; **battún**, 461, **eztún parátzen**, 464. Bakanka badaude bestelakoak ere: **éztakit**, 457; **bádakizu**, 466.

- 5.1.8. Gainerako unitateek lege berak segitzen dituzte: koda hutsa, paraxitonia; koda ez-hutsa, oxitonia. Adibidez: **emén**, **gábe**, **arrúnt**, **gútti**, **orái**, **agúdo**, **étzi**, **baiétz**, **ezétz**, **zenbáit**.

Áunditz adberbioak (= anitz, asko) aipamen berezia du. **áundi**-tik nabarmenki eratorria, paradigmaz **áunditz** dagokio; **bérri**-ri, **bérri(t)z** dagokion bezala. Hau kontutan hartzen ez bada, ***aunditz** espero genuke, kodaren arauera; eta horixe entzuten da Lantzen. (Ikus *anhitz* ere, **anhítz** seguraz). Baina Zuberoan **hánitx** dugu.

áurrian formak, 412, **áurre** eskatzen du (normala).

Zenbait morfema eta lexema bitxi agertzen dira, markatuak bailirean: **zénbat**, **-gátik**, **sékule**.

- 5.1.9. Beste euskalkietan bezala, elemendu silababakarrak, fokalak direnean, azentugabe gertatzen dira: **zertzuén**, 417; **zerérran**, 418; **zeréldu**, 419; **nork errantzíren**, 428; **gaurdé**, 430; **antzáuden**, 413.

Gauza bera aurkitzen da Lizarraga-ren nafarreran (ik. 5.2. kap.); eta ez da grafia kontua.

- 5.1.9.1. *Galdera-entonazioak*, oxitonoak sor ditzake: **bizkortzauδέ?**, 465 (normalean, **záude**); **beldurré?**, 467; **zará?**, 454; **gaztiák?**, Lantz; **berziái?**, L; **emér kustén?**, L.; **gérra denborán?**, Lantz (normal **dénbora**; are **denbóra** ere, Ekialdean).

Ultzaman ere silabaren maiztasunak eragin handia du entzulearen azentu-pertzepzioan.

Lantz-ko corpora

(*Informatzailea: Pedro Ariztegi*)

1// nereizéna nóla dán? † Antónjo; apellídwá, aríztegi. Emén yayó nitzén, báí, taemén bizíttu náiz, bétí. Íll eré emén illen náiz, segurú.

2// lánjan? † aziéndakin árat etaonát, béiek déitsi goizétan tarratsétan, tasoróra e(r)mán takárrí, egúrre létu, te...

3// zémbat azjendá? † Azjéndik eztúgu béie pertzéik. Zórtzi. Bwéno, zerriék erebái. Béiek, emezórtzibei, eztúgu bértze azjéndik.

4// ní? † zémbat úrte ezkóndu ní(n)tzéla? † pwes éz takít. Ogéi taméiru úrte ola izáin ttú ní ezkónduik, báí.

5// eméngwa? † andrjá? † eztá eméngwa, éz, uskéra eztáki... nóla erákutsi éz? ník éztakít. Emén nére gurésuwak, áitte tamá bétí... euskeldúnek zjén, aiék bétí uskéraz áitzen tzín; anáieke baittút ník, baút emén anáie gatzéna, orrék eztáki, enténdittu báí, beñoesztáki mintzétzen. Arrébare baút, néri segízen diren bat, arréba bát emén: orrék, orí defénditzen dá, orrék badáki mintzétzen eré. Beñobértzja? irúñan, aréke eztakí bátre. Emen ezpaitzén géro. Emén eskólan, ta apézak; eta dénak. Apéza neredembóran euskeldúne zén, Lekumbérríkwa zén, eméngo apéza; beño sékule etzigún uskéraz mintzétzen, béñere, bátre, bétí erdára; eta maistrúek eré dénak erdára, ta, nól(a) ikési bjar ginwén? Ordún báí, gu beño zarragókwak gubéño. Emen da bát, erríen den zarréna, eméngo náusíé, etxóntako náusie. Oiek bétí uskéraz áitzen zjén, eta óieke bátto, beño oietíre gu beño fránko... ya nítai péeti gútti. Nereadíñekwak ere badíre zembáiteta, eztákite. Oiéek eré bátre. Enténdittu igwal báí, beñomintzétu éz. Ta gatzják? † Gáztjak eztabátre, bátere, eztakíte. Oai aimbérez(e) empéñu eskóla eo uskéra ikéstéko, eztuzjé (e)rakutsikó. Óla eztá ikésten uskéra. Uskéraz ikésten dá erríen edo étxan; beño emén...

6// eméngwak? † éz, eztá... eméngwuak eztuté ikesikó, orái ogeitamár urtetán, ta eskóla, edo eskolára uskéra ikestéra. Nóla náuzu? Ez twé ikésikó, éz. Gañerá erakústen diotenák eré, profesórak béraek elkárrékín erdáraz mintzétzen díre. Ola, nóla ikési bjauté? Gañerá uskéra erakústekó eo ikéstekó bjardú ttíki-ttíkítáik así.

7// karnabálak? etzinéten egón emén kustén? † ní? † nórk errán dizú? nó n ikúsi? taorái bádakízu ni nitzéla?

8// Báí, berdíña tíra. Pwes ambjéntja igwáltsu ambjéntja. Orái kási géioo lénago beño izíten dá iyóteitan. Lénago, ambjéntja óna ordún, beño orái biltzendá žénde géiago, lenágo etzén yéndeik tórtzen onará, etzén erríkwua pérzeik. Beño (o)rái, gipúzkwá gúzja tabizkái gúzja tórtzen dá onará. An Tolósan ta, aláko karnabálak ítten diréna, famoswuak. Tándik onára tórtzen diré méngwa kusterá, gu eméndik ará yuan bjaugú kustéra.

9// Báí, etxóntan, Sinbórnía. Eztakít ze errán naidwén. Eméngo étxjak déna ala díre, déna, «kon 'á'», damborjénja, perrónja, petrjénja, déna; déna uskéra, izéna uskeldúna uté.

10// eméngo mendíek báita ré uskéraz. Zer? Izénak? eméngo mendíen izénak? Oráko bizkér orréi, Urkíxu erráten záo. Párjan, ór, Otáño, t'Orolár, ta Sugésti.

11// ásko dakitéla uskéraz? Beño gipuzkwánweki ez náiz enténditzen báte. Gipuzkwárrak zaté, áleré, zwek eméngwa áisago enténditzen duzjé guk ángwa beño. Aise alaré. Zwék eméngwa báí, beño guk ánwga ez. órre pái, loéntxo órrek, órrek ángwa t(a)eméngwa enténditzen baáki órrek. Emén gureáite euskeldúne zén arrónt, uskéra, erdáraz eré bazákjen, beño uskéraz bétí, uskéraz aitzentzén. Amáre báí.

12// izéna? nórena? Amána? Fermína, Estéban. Gu bagíñen zázpi, bórtz óngi gára, bíre íllek, bíre gérran íllek, án, Gipúzwan iltzittúten, edo Bizkáian, zwen tjérra (a)rtán.

13// Ni gérran? Ez, enítzen yuan gérrará ni. Anáia pái. Ez, bíre, ez, íru ontzirén. Gérran gáski pagátu genún guk, bai. Zwék etzínuten záutuko gérrikán. Zwék gérra nóla záutu bjár. Badítu órrek... «en el 36»... Gérra zwék emátauzjé, zwék orái. Zwék «dela éta» izéin zaté, ez?... Metralléta, éz? óri dá aisáski. Gérra demborán? † Nola bízi? † pwesorái bezála. Ordúnere lánen, gérra, emén etzén pástu gérrik. Emén guk gérra ezgenún kúsi, gérrik ezgenún záutu emén, erríen ingúru ontán etzeón gérrik izén, etzeón emén gérra ezgíñwén izén; emén ikúsi éz. Iruñenta, emén étzen gérrik izéndu, órtik, Oiártzun eo órtik, órti góiti, así zén.

14// Zér órdutan goízjan yeikítzen garén? pwes séi terdietán, do olá, béiek deizterá. Góize dá, e? Gábjan, pwesorái según, zenbáit áldiz,

según telebisjónjata nóla dagón; árrei béire pásten baitugú dembóra, bailarina oiek-eta ásten, atrátzen dirén egúnjan beñipín, kláro.

15// illóbik? illóbak zér? Emén errién? † Báltut illóbak, bat, bíre, eztákit zémba tíren. Ásko éz, bí, eoíru, emén errién. Orái kánpwan ba-díres géio.

16// tanóndik tórri zaté zwék onára? Eztákit... eztákit... Tolósan egón náiz, beño... Tolosátik tórri zaté? Iyótetán, karnabáletán egón zén emén, ba, illóbabat, gúrja, Tolósakwa; bwéno, Tolósan dagoná. Tolósan dagó neskí, máestra, Tolósan, ustét Tolósan da(g)ón. Bíre (e)gón tzíren, bérzja, lagúne, úre Irúnen, «en un Instituto» zaudéla. Eztákit ze-errán tzutén. Biek zirén emén, beño biek, bát Irúnen, ta bértzja Tolósan, neskí, taonára tórri zirén iyóteitan, tabát gureillóba dá, Tolósan errán tzwén néski. Txerriek etaxekorrá rebái. Zémbat xérri? Améka txerrikúme ór. Sáldu, báí. Naibaitúzje (e)rósi? Báí, emén eztá án, Tolósanta bezála, emén fabríketára, taán... Yénde alférra, báí, án, aundítz edán. Emén xerriéki(4) tabeiéki, taála bízi bjárda, gañérakwan lánin «de cojón».. án eztuzjé dáus ítten, án yénde alférra báí, án. Eskopéta (a)rtúte, eskópeta tatxakúrre artúte, tía, napár ertará, napa-rraát, ásko méndietará, báí, gipuzkwánwák? † Etórtzen díra unát arrántzara, óbja déla... tazakurrékin, bekádetára, tabasúrdetára ré.

17// txerrié noizíll? jóño, según, noizíll, ézta fijo, orí, según, urte-bérri (i)ngúru órtano íltzen diré. Etxéko, etxéko, báí; ta xixtórrak, ta-bértzja púskek gwardátu.

18// irúrogeitan ogéi tabí. Bat, bí, íru, láu, bórtz, séi, zázpi, zórtzi, bedrátzi, ta amár.

19//beño ítxa, automóbilletik átrata segidu yuan tzaté ará, eztizi itxín, tanórk erakútsi (i)zjé étxa, loréntxon étxá? Beño ortzén zwéki.

20// gizóna lánjan, ta andréa pásjatzén. óla májo bizitzen dá, senárran bizkér, edogizónan bizkér. Ándrja bízi, ba igwáltsu, berdín.

21// Txárra daó? Beño án eztú emén bezála ótzik eiñén. Gaur yuán bjauzjé Tolosára?

22// nik eztút dáus náí.

Oharrak

N.5.1.2.1. Lan honetan ez da Baztan-go azentua aztertuko. Bonaparteren ustez, Ipar nafarrera da (zenbait sailkapenetan behintzat).

Pello Salabururekin izandako solasaldien ondoren, eta oraindik ere (1983) argitara gabe daukan bere jaiotzazko haraneko euskarari buruzko Tesia irakurrita, hau esaten ausartuko nintzateke: baztanera eta ultzamera bateratsu doazela; eta, hortaz, hura ere Ekialdeko euskaratzat har daitekeela.

Hona hemen, adibidez, Salaburuk eskainitako leku-izenen lerrokada hau: **Gorraméñdi, Iperbúru, Batzabaléa, Gantsarginéa, Elorribeltzéta**. Denak dira paroxitonoak, *eskuin* aldeko azken silabaren kodaren arauera; eta (+3), (+4), are (+5) posiziotan.

Goranzko diptongoak (/ja/, /wa/) ez dira falta: **Arakangolépua, Arizmurritzéa, Bikóndua** (baita **Bikondóa** ere).

Baina oxitono hauek ere, nafartarrak dira: **Amaiúr, Aníz, Mallántz, Aixtéi, Ixterbéi, Saskáitz, Karriketxár**. Denotan, eskuineko koda, ez-hutsa.

Ahoskera herrikoiak, ofizialak baino laburrago, joera bera erakusten du: **Xamár, Indárt, Iriért, Larrálde, Etxeníke, Bérro, Martinténia, Etxebéria, Ormártia**.

Salaburuk azaltzen duenez, badago baztaneran beste ezaugarri ekialde-tar bat: txandakatutako azentudun silabetan, azkarrena *eskuinerantz* joan ohi da: **átebeltza**, eta **atebélta** geroanean; **emezórtzigarréna**, eta **emezortzigarréna** azkenean.

Bitasun horiek, eta lerraketa hori, ez litzaizkieke arrotz Lizarraga-ri, ez ultzamarrei ere.

Baztan-en ere, Salabururen arauera, eragin nabarmena du entonazioak: **dúzu**, baiespena, vs. **duzú**, galdera.

Salaburu-ren Tesian, hiru informatzailereren transkribaketa zehatzak datoz: *Arizkun*-go birena (ikertzailearen sorlekua), eta *Amair*-ko beste batena. Tesiaren egilearen iritziz, intentsitatzeko eta maiztasunezko azentuak ez dira Baztanen silaba berean gertaten. Maiztasuna intentsitatearen *gailurraren ondoren* igotzen omen da: «Hitz horietako batean, silaba batek azentua darama: ondoko silaban tonua goratu egiten dugu, eta horrela mantendu, berriz beheratu arte».

Lerro hoiek irakurtzean, Chamorro-z gertatzen dena datorkigu burura: «In normal continuous speech, primary stress is normally accompanied by a lower pitch level, and is followed immediately by a higher pitch level on the following syllable, which is sustained until the next primary stress or juncture» (Studies, 74).

Badirudi, dena dela, maiztasunak duela euskaraz garrantzirik handiena.

5.2. Hego-nafarrera garaia (XIX. mendea)

(Egues-ko hizkera hau, Iruñetik Ekialderantz 10 kilometrotara erabilia, Elkano-ko A. Joakin Lizarraga-ren idazkien arauera ikertu da, 1771-1821)

5.2.0. Eskuartearen daukagun lan hau egiteko, *Doctrina Christioarén Cathemima* deritzon liburua (312 orr.) izan da oinarri nagusia; Iruñean (1979) Juan Apezetxea-ren zuzendaritzapean argitaratua.

Halaz ere, liburu mardul horretatik ondoriozta daitezkeen hipotesiak baietsi edo zehaztekotan, Lizarragaren beraren izkribu hauek ere erabili dira: *Tres sermones* (Fontes LV, 19, 1975; 89-128); *En torno a los bailes* (Fontes 23, 1976; 205 - 237); eta *Tratado sobre el Matrimonio* (I, Fontes 29, 1978, 339/360; II, Fontes 31, 1979, 71-90). Baita Lurdes Etxeberrira-ren Lizentzi-Tesina hau ere: *El acento nominal en el Evangelio...* 1974 (Univ. de Deusto).

Hego nafarrera garaia Nafarroako Erreinuko euskalki nagusia mendeetan barrena izan ondoren (are Euskal Herri osoan ere, geografi hedadurari bagagozkio behintzat), gaur pratikan suntsitua den euskara mota dugu. Pertsona heldu batzuk, dena dela, badarabilte oraindik *Mezkiritz*, *Eugi*, *Urtasun*, *Auritze*, *Aurizperri* eta Nafarroako beste zenbait herriskatan ere.

Aurrerago aipatutako lekuetan bildutako grabaketek, bestalde, (hauek ere geure eskuetan, eta honetan erabiliak), azkeneko bi mendeotan azentu-eboluzioari buruz gogoeta osatzaile batzuek egiteko parada eskaini digute.

5.2.1. Gainerako euskalkietan bezala, bi zati nagusitan banatuko dugu geure ikerlan hau: bata, ardatzat *izena* duten azentu-unitateei buruz; bestea, berriz, *aditza* dutenei buruz.

5.2.1.1. Ohizko hiru numeroen azentu-oinarria determinatzen du *nominatibo mugabeak*.

M.L. Etxeberriak bere lanean proposatu zuen bezala, singularrak gainerakoak determinatzen dituela ere esan bide daiteke. Baina azentu oinarritzat «singularra» hautatuz, giltzarri *fonologikoa* ezabatu bezala egiten dela iruditzen zaigu (alegia, azentu-posizioaren kakoa lexemaren enborraren azken silabaren kodak erabakitzen duela). Eta hau *baita singularrik ez duten hitzetan ere*: adberbio, eman dezagun, edo honelako edo halako morfema.

Hitz soilaren azentua (eta gipuzkeraz hitz soila, Larramendik berak ongi azaldu zuenez, oso gutxitan gertatzen bada ere. Ekialdeko euskalkietan ezin daiteke gauza bera esan) *azken silabaren* kodak erabakitzen du: *koda hutsa*, *paraxitonia*; *koda ez-hutsa*, *oxitonia*. Koda

hutsa, noski, bokale silabikoei dagokielarik; eta kontsonanteei eta bokalerdiei, berriz, koda ez-hutsa.

5.2.1.2. Ikus dezagun hori ondoko unitateetan:

arrats; koda: ts ≠ Ø; hortaz, **arráts**.

etxe; koda: Ø; eta, hortaz, *étxe*. (Edo-ta *eche*, diakritikorik gabe, Lizarragaren ortografian, gaztelaniazko paroxitonoen arauera).

Bide beretik: **gogór** (Liz. **gogórr**); **axúri** (Liz. **achsúri** edo *achsuri*); **artzái**; **láñu**; **elkár** (Liz. **elcárr**), etab.

Lege orokorra betetzen ez duten hitz markatuak ere badaude: **ánitz** (ikus Ultzama-ko **áunditz**, eta **áundi**, 5.1. kap.); **-tásun** (eta ez ***tasún**, kodaren arauera espero zitekeenaren aurka); **-gárren** (eta ez ***garrén**). (Irakurleak dakienez, bai **tásun** bai **gárren** oso morfema bereziak dira euskalki askotan).

5.2.1.3. **-bat**-ekiko mugagabeak, unitate *bakar bat* erakusten du; eta, hortaz, eskuineko kodari dagokionez, **-bát** dugu unitatearen azentu bakartzat: **ehebát**, **artzabát**, **gauzabát**.

5.2.1.3.1. **-batzú** mugagabea ere, espero zitekeenaren aurka, oxitono agertzen da, baina lotuta: **ardibatzúk**. (Bidenabar esatekotan, euskalki honetan ongi berezten dira **batzúk** pasiboa eta **batzúek** ergatiboa, biak loturik datozelarik).

5.2.2. Singularra eta plurala, mugagabeen erabakitako azentuari egokitzen zaizkio: *étxe* / *étxea*, *étxeak*; *gogór* / *gogórra*, *gogórrak*; *artzái* / *artzáia*, *artzáiak*; *láñu* / *láñua*, *láñuak*.

Euskalki honetan, normalak dira goranzko diptongoak. Hori dela bide, *étxea*, *láñua*, silababikoak dira; eta gauza bera beroien pluralak.

5.2.2.1. Kontutan har ditzagun orain trisilabiko batzu: **itúrri** / **itúrria**, **itúrriak**; **itsáso** / **itsásoa**, **itsásoak**. Etab.

Azentuaren egoera hau da:

Oxitonoetan : -1; -2; -2.

Paroxitonoetan : -2; -2; -2.

Kalkulutan sartu beharrik gabe, berehala ikusten da hau: nafarrera garai mota honetan (baina gauza bera Ekialdeko euskalki guztien artean), estatistikoki, *paroxitonia dela nagusia*. Eta analogiaz, areago eraman da paroxitonia hori; azentu «romance» itxura hori eman arte. (Gaztelaniaz, dakigunez, paraxitonoak dira nagusi; eta horregatik uzten dira horietxek azentu diakritikorik gabe).

5.2.2.2. Deklinabidearen azentuketa *paradigmatikoa* da (edo izan da, bederan, azalduko dugunez).

Eman dezagun **zéru** (Liz. **ceru** edo **céru**)

Eta taula hau eraiki dezakegu:

nom.	zéru	zérúa	zérúak
erg.	zérúk	zérúak	zeruék
inst.	zérus	zérúas	zeruéas
dat.	zerurí	zeruarí	zeruéi
	ik. (zéruri)	zéruari	zeruéi)
gen.	zerurén	zeruarén	zeruén
	ik. (zéruren)	zérúaren	zeruén
com.	zeruréki	zeruaréki	zeruéki
	ik. (zérureki)	zérúareki	zeruéki
part.	zerurík	(ik. zérurik)	
loc.	zerutáko	zerúko	zeruetáko
	ik. (zérutako)	zéruko	zéruetako)
disc.	zerutáik	zerutík	zeruetáik
	ik. (zérutako)	zérutik	zérúetaik)
ines.	zerután	zérúan	zeruetán
	ik. (zérutan)	zérúan	zérúetan)
adl.	zerutará	zerurá	zeruetará

Bestela esanda:

5.2.2.2.1. Norabidezko **-rá** atzizkia azentuduna da (gogoan har Iparraldeko **-rát**, eta honen koda ez-hutsa; baita aginduetan goranzko entonazioak ematen dion oxitonia).

5.2.2.2.2. Bi genitiboek (**-rén** eta **-ko** atzizkiez osatzen direnek), benetako *unitate berriak* osatzen dituzte; eta beroiek deklinatzerakoan, horretara, oinarri horren arauerako azentua hartzen dute: **etxearén**, **etxearéna**, **etxearénak**; **etxéko**, **etxékoa**, **etxékoak**. Eta bide beretik deklinabide guztian: **etxékoa**, **etxékoak**, **etxekoarí**, **etxekoarén**, etab. (azken bi hauetan, noski, *bi* silabatako lerraketa, eskuinerantz, burutua delarik. Ikus ondoko pasartea, 5.2.2.3.).

Hori dela-ta, **-ko** eta **-rén**-ezko unitate berri horiek, alden du egiten dira jatorrizko moldetik: **aldáre**, baina **aldaréko**; **eskuí**, baina **eskúieko**; **bér**, baina **beréko**.

5.2.2.3. Euskalki honetan ere, oso azkarra da *txandakako* silabak azentuztatze joera: *n*, *n+2*, *n+4*, etab.

Hots, azalean, eskuin aldeko azken silabaren gailentasuna gertatzen da: alegia, oihartzunez sortutako *n+2* azentua, jatorrizko *n*-ri nagusitzen zaio; eta eskuineranzko lerraketa gertatzen da (noski: horretarako *n+2* posizioan silabarik den ber). Adibidez: **zéruri**, **zérurí**, **zerurí**; **zéruren**, **zérurén**, **zerurén**...

Gauza bera aditz-izenetan.

Berriro, beraz, fenomeno hau dugu, lerraketaren kakotzat.

$\acute{\sigma}\sigma\sigma \rightarrow \acute{\sigma}\sigma\acute{\sigma} \rightarrow \sigma\sigma\acute{\sigma}$

Deklinabidean agertzen den paradigmatikotasunik eza, beraz, itxurazkoa da, eta berria; eta paradigmatikotasun *osoa* postula daiteke euskalki honentzat ere.

$n+2$ silaban segmenturik .ez dagoenean, lerraketa ez da gertatu: **zérus**, **zéruan**, etab. (berriro ere: **zéruan** silababikoa da euskalki honetan). (Ikus honi buruz 5.4. kapitulua).

5.2.2.4. Horrelakoxe fenomeno bat gertatu da *singularrean* ere, taulan ikus daitekeenez: azentua *eskuin* aldera joan da *bi* silabatan: **zéruairen**, **zéruarén**, **zeruarén**; **zérutik**, **zérutík**, **zerutík**; etab.; jatorrizko paradigmatikotasuna desitxuratuz.

5.2.2.5. *Pluralean*, azkenik, eta zubereraz eta erronkarieraz seinalatu dugun joera berberarengatik, *ergatibotik aurrera é* kausitzen dugu, paradigmatikoki. Baina zutabe horrek, zubereraz bezala, *ez ditu lekutasunezko kasuak iristen*. (Esan beharrik ez dago, beste lekutan ere esana denez, hauxe dela Mendebaldeko euskalkietan pluralean, eta *kasu berberetan*, ezkeralderantz aurkitzen den lerraketaren kaxoa: aspaldiko geminazioa).

5.2.2.6. Gorago azaldu denez, benetako izen-unitate berriak sortzen dituzte bi genitiboek: **zerurén**, **zeruarén**, **zeruén**; **zerutáko**, **zerúko**, **zeruetáko**.

Hitza markatua denean (**múndu**, eman dazagun), unitate berri anormalak ere sor daitezke: **múnduko** (eta ez ***mundúko**).

5.2.3. Deklina dezagun orain oxitono bat: **egún**, adibidez. Eta osa ditzagun *eskuinerantzko* lerraketak: **egúnaren**, **egúnarén**, **egunarén**; **egúnareki**, **egúnaréki**, **egunaréki**, etab.

Eta taula hau dugu:

nom.	egún	egúna	egúnak
erg.	egúnek	egúnak	egunék
inst.	egúnes	egúnas	egunés
dat.	egúni	egunarí	egunéi
gen.	egúnen	egunarén	egunén
com.	egunéki	egunaréki	egunéki
part.	egúnik		
loc.	egunetáko	egunéko	egunetáko
disc.	egunetáik	egunetík	egunetáik
ines.	egunetán	egúnean	egunetán
adl.	egunetará	egunerá	egunetará

Ohar batzu berriz ere:

a) lekutasunetik at, azentuak berezten ditu mugagabea eta plurala: **egúnek** / **egunék**; **egúnen** / **egunén**; **egúnes** / **egunés**; zubereraz bezala.

Pluralean gertatu den bokale-bikoiztasunaren laburketa, mugagabeen ez baita gertatu.

b) partitiboa hemen paroxitonoa da.

c) lekutasunezko kasuetan ez dago *é* paradigmatikorik; hemen ere, zubereraz bezala (*eta uste izaten denaren aurka*).

d) Oihartzunezko azentua (Holmer-en «rítmico» delakoa) nagusitu egin zaio nafarreran jatorrizkoari.

- 5.2.3.1. Lizarraga-ren obran, dena dela, *azentu bikoitza* (jatorrizko eta oihartzunezkoa batera) daraman unitaterik ez da falta. Adibidez: **irúzquiarén**, D. 35, 92, 57, 49 (/kja/ diptongoa hor egonik, tartea 2 da); **zotionécogúra**, D. 46. 72; **diferénciagáíec**, D. 50, 138; **burátsoéí**, D. 59, 75; **amétsetán**, D. 259, 83; **lécuarén**, D. 269, 83 (/kwa/ silaba bat); **juzgátzerá**, D. 181, 2.

Lerraketaren bigarren urratsa, beraz, ongi dokumentatzen da; aditzean ere dokumentaturik agertzen den bezala.

- 5.2.3.2. Inesiboaren *-an* silaba, singularrean, askotan (+1) posizioan agertzen da jatorrizko azentu nagusiari buruz; eta, hortaz, gutxitan agertzen da markaturik. Eta, nolana ere, eta norbaitek idatzi zuenaren aurka, *gutxiagotan* da **-án**, **-an** baino (eta hau, bestalde, espero zitekeenaren arauera, gainera).

Hauta dezagun, adibidez, «Doctrina» ren parte hau: 69-79 orrialdeak. Hona hemen zerrenda:

-an// bandéran, 69,14; **értean**, 70,18; **bátean**, 70,21; **céruan**, 70,23; **inférnuan**, 70,23; **glórian**, 70,24; **eternoan**, 70,24; **cómpoan** (cámpoan?), 70,30; **pensamentuan**, 70,35; **illúmbean**, 70,50; **perdicioan**, 70,50 (hiru silaba, segurki, /jwa/ triptongoaz); **árcan**, 71,52; **infidelidádean**, 71,55; **eriótzcan**, 72,64; **guibélean**, 72,65; **éscuan**, 72,66; **ilbeárrean**, 72,67; **soñean**, 72,67; **glórian**, 72,76; **sánduan**, 73,84; **batáioan**, 73,86; **échean**, 74,96; **glórian**, 74,97; **erreinuán**, 74,99; **árcan**, 74,100; **universaleán**, 74,101; **munduan**, 74,109; **vicimóduan**, 74,112; **ártean**, 75,116; **Elizaa-tárian**, 75,118; **seculácoan**, 75,121; **bataiárrian**, 75,126; **bizcárrean**, 75,129; **bulárrean**, 75,129; **comparácioan**, 76,119; **arrátsean**, 77,157; **vicimóduan**, 77,164; **échean**, 77,168; **énean**, 77,169; **értean**, 77,171; **ágoan**, 78,174; **dembóran**, 78,175; **videan**, 78,176; **inférnuan**, 78,182; **passéan**, 78,183 (?); **inférnuan**, 78, 184; **compañian**, 78,186; **échean**, 78,190; **familian**, 78,192; **máian**, 78,192; **compañian**, 78,195; **glórian**, 79,196.

Eta oxitonoen zerrenda, aldiz, hau besterik ez da:

-án// eguneán, 75,118; **eguneán**, 77,154; **orduán**, 78,157; **orduán**, 78,182.

Hitz batez: 54 aldiz *-an*, eta 4 aldiz **-án**. % 93 alditan azentu diakritikoarik gabe. Arazoa garbi bide dago.

- 5.2.3.2.1. Hori dela-ta, **Iruñean** espero dugu; edo *Iruñean*, paroxitonia bera adierazteko. *Iruñean* dugu behin gutxienez orrialde horietan (258,95), hiru silabatan ahoskatzen zen forma.

Iruñeco lekutasunezkoak, 260,139, **Iruñeko** idarokitzen du. **étxea / etxéko** bezala.

Toponimo-inesiboak, dena dela, paroxitono agertzen dira Lizarragaren luman (ikus Fontes 23): **Ibiricun, Sagasétan, Zaragózan, Alzuzan, Eguesen, Azpan, Echalatzen, Eransusen, Elian, Egulbetin**. Are **Frán-cian**, D. 62,140; **Egypton**, 15,85; **Leiren**, 250,212; eta **Belénen**, 152,14.

- 5.2.3.3. *Datibo singularrari* dagokionez, **-ái** transkribaturik datorren aldakia aipatu behar da (**gizonái**, 51, 158; **arimái**, 52,187; etab.); nahiz **-arí** normala baino askoz bakanago.

Normala hauxe da: **gizón, gizónari, gizónarí, gizonarí**.

Adibide honetan uler daiteke gertakaria: **izárrac izárrai daráman avantalla**, 234,103. /r/-ren erorketaz (hau euskalki askotan gertatzen) dip-tongo bat sortu da: /ai/. Eta honetxek erakarri du azentua.

- 5.2.3.4. *-ain*-ez amaitutako *genitibo singularra*, era berean, **-arén** normala-ren trukean agertzen da batzutan (beste euskalkitan ere bai, egia esan), /r/-ren erorketaz: **lúrraren**, horretara, *lúrraen eta **lúrrain ematen du** (34,35); **lurrarén**, 33, 50, normalaren parean.

Bide beretik ulertu behar da **guerócoain** forma, 48,117; /kwain/ triptongoaz ahoskatua (ik. **géro, geróko**).

- 5.2.3.5. Beste hau ere oharrerazi behar da: inesiboarekin frogatu dugun bezalaxe, baina alderantziz nahi bada, **-ék, -én**, eta **-és** (erg. pl., gen. pl. eta inst. pl.) maizago agertzen dira **-ek, -en** eta **-es** baino. Adibidez: **achsuríes** maizago, **achsúries** baino.

Badirudi, bestalde, enborra oxitonoa denean, silaba bakar bat baizik ez dagoela atzizkiraino; eta orduan agertzen direla, hain zuzen, azentu diakritikorik gabeko formak (erabat aditz laguntzailearekin gertatzen den bezalaxe; ikus 5.26). Adibidez: **berroguéiec**, 215, 208; **munducóien**, 199; **etsáiec**, 238, 171; **etsáien**, 238, 171; **anáiec**, 84.

Gauza bera gertatzen da ardatza den unitatea bokalez bukatu, eta oso markatua denean: **jústoeec, becatáriei, becatúen, misérien, deábruec, turcoen, cargudúneec, Galaadárrec**. Edo erdaratikako mailebuak ditugu; edo-ta markaturik agertzen diren morfemak: **-dún, -tár**.

- 5.2.3.6. **-gá-** silabak, bai **-gátik** kausalean, bai **-gán, -gána, -gánik**, etab. pertsonaletan agiri, bere azentuari eusten dio, markatua balitz bezala: **festagátik, aitagánic**.

- 5.2.3.7. 1., 2. eta 3. mailako artikuluen paretsuko erabiltzen diren erakusleak, loturik eta kodari dagokion azentuaz agertzen dira: **-gáu, -gói, -gúra**. Adibidez: **credogáu, oguigói, ordugúra**. (Ikus N. 5.2.3.7.).

5.2.3.7.1. **-bát**-ekiko unitateak, bide orokorretik hartzen dute azentua: **-bát**, **-bátek**, **-báti**, **-bátes** (bakanka, **-batés**), **-báten** (edo **-báten**, gutxitan); **-báteki** (edo **-batéki**); **-bátean**; **-bátetik** (baita, lerraketaz, **-batetik**); **-baterá**; eta **-batéko**. (Ikus N. 5.2.371).

5.2.3.7.2. Guztiz bide beretik, **-gáu**, **-gói**, **-gúra** duten unitateak ere: (+1) norma-lean, **-gáu**, **-gói**, **-gúra**; **-gónek**, **-górrek**, **-gárrek**; **-góni**, **-górri**, **-gárr**; **-gónen**, **-górren**, **-gárren**; **-góntan**, **-górtan**, **-gártan**. Baina baita (+2) ere batzutan: **-gontáik**, **-gortáik**, **-gartáik**; **-gontáko**, **-gortáko**, **-gartáko**; **-gonéki**, **-gorréki**, **-garréki**. Eta adlatiboa, oxitonoa da: **-gontará**, **-gortará**, **-gartará**.

Lekutasunezko kasuetan agertzen den irregulartasuna, beharbada ez da arauetik urrun: **gónetako**, **gónetáko**, **gonetáko**, etab.; eta, sinkopa bidez, /e/-ren erorketa. (/e/ hori gabeko formak oso zabalduak dira: *huntan*, *hartan*, etab.).

-táik (=tárik) silabaren azentuketa, bestalde, oso ahul agertzen da oihartzunetik at: **sugartáic árguia**, **su ta arguigártaic béroa**, D. 122, 99. Bi silabatako txandaketa dela-ta, oso erraz ulertzen da kakoa: **sú+ gartá (r) ik / árgi+gárta (r) ik**; biotan tartea *bi* silabatakoa delarik.

Bide beretik: **oñetáic**; baina **itzeétaic**, D. 36; 107, 109. (Alegia: **oñ+etáik**, **itze+étaik**). Eskuin aldeko azentu honen kakoa oihartzunearan datza; eta ez da oso zaharra, beraz.

5.2.3.8. Zenbakari silababakarrak, lexemari loturik agertzen dira euskalki honetan: **bi entendamentu**, 135, 91; **bi borondate**, 135, 92; **laur egún**, tes. MLE; **sei egún**, d; **bortz guizón**, d..Alegia: proklitiko balira bezala.

Grafiak salatzen duenaren aurka, unitate bakarra dugu kasu horietan.

Ultzaman ere (ikus 1.3.4. kap.) *azentu-unitate bera* osatzen da zenbakariek. Baina Ultzaman, honetan ere «mendebaltar» agertzen delarik, azentua ezkerretan dator; eta Egues-en ez: hemen eskuineranzko lerraketa gertatua da.

Hona hemen beste argibide batzu: **bi gauza**, D., 219,50; **sei verdúgoec**, 162, 149; **bi éguia**, 185, 88.

5.2.3.8.1. Silababakarrak ez diren zenbakariekiko egoera, adierazgarria da: **zázpi úrte**, 235, 121; **irur úrte**, 235, 124. Ultzaman, berriro «mendebaltarra-go», ezker aldeko azentua nagusi. (Ikus 1.3.4. kap. eta 5.1.).

5.2.3.9. Harrigarria da, bestetik, *edutezko* adjektiboen artean, Lizarragak **zuén** delakoa baizik ez markatzea. (Baina Larramendi gogoan hartzea aski da kakoa ulertzeko).

5.2.3.9.1 Ohar txiki bat Lizarragaren grafiei buruz. Nahiz esku-izkribuetan Lizarragak /i/ azentuduna *bi seinale* diakritikoz markatu, azentudun /i/ batzu atonotzat har daitezke, eta oker ibili. Edurne Biritxinaga-k eza-gutarazi dituen datuekin alderatuz, ziur esan bide daiteke hori. Eta

hori paroxitonoen grafia at utzita ere: **irur, ire, milla, etab..**

5.2.4. Azter ditzagun orain unitate markatuak.

5.2.4.1. **-gárren** «atzizkia» markatu gisa (M+1) darabil Lizarragak: **bigárren, irurgárren, zortzigárren**. Baina deklinabidera pasatzean, azentu normala hartzen du: **bigarréna, irurgarrénac, zortzigarrénes**. Ez dakigu zergatik.

5.2.4.2. **-tásun** «atzizkia» egoera berean agertzen da: **irurtásun**, 32, 31; **ondásun**, 51, 169. Baina, zergatik ez dakigularik: **guizontasúna**, 35, 23; **guizontasúnas**, 44, 27.

5.2.4.3. Esan dugunez: **ánitz** dugu, kodaren aurka; baina ondoko **(h)áunditz** eta antzekoen harremanetan. Ikus **áunitz** ere.

5.2.4.4. Adberbiozko **-ká, -ró, -kiró**, beren egitura fonologikoaren aurka, oxitonoak dira: **banacá, berriró, itsuquiró, galantquiró**.

Geró ere oxitonoa da (agian ik. *geroago*).

5.2.4.5. **Oná, orrá, -rá** adlatiboa dutenez, markatuak dira. (Ikus **hunát, horrát** kideak; baita askotan datzekien goranzko entonazioa **atór oná!**) **alá** (= hala) eta **berealá** (= berehala) oxitonoak dira.

Zénbat, aitzitik, kodaren arauera espero zitekeenaz bestaldera, (M+1) da: **cémbat**, Liz..

5.2.4.6. Elkartetazko unitateetan, soma zitekeenez, *eskuin*-aldeko osagaien dator azentua: **campolán**, Fontes 29, 354; **itsas-baztér**, 118; **vidanabárr**, D. 106, 110; F. 23, 220.

Mendebaldean, esan beharrik ez, alderantziz gertatzen da. Ikus, adibidez, Oñati-ko hitz elkartuak (4.4. kap.).

5.2.4.7. Gainerantzean, eta esana dugunez, edozein elemenduren azentuketa, zein nahi den, *eskuineko* silabaren egiturak erabakitzen du: **ezperén, orái, aguián, bérce, baiétz, becála**.

Baina, beste euskalkitan bezala, **sécula** dugu.

5.2.5. Ardatzat aditza duten unitateen azentuketa.

5.2.5.1. Beste kapituluetan ere esan duguna errepikatuz, aditz-izena deitu ohi dena *izena* da azentuaren aldetik. Eta, hortaz, mugagabeak definitzen du, eta paradigmatico irauten (betiko lerraketa salbu).

5.2.5.1.1. Eman dezagun **barkátze** aditz-izena (**barcatze**). Eskuinean koda hutsa izanik, paroxitonia dugu. Eta, beraz: **barkátze, barkátzea, barkátzeak, barkátzeari, barkátzeareki, barkátzean**; baina **barkatzerá**, eta **barkatzéko** (**barkatzékoa**, etab.).

Bi silabatako lerraketa gerta daiteke, noski, eta hauek ere izan: **bar-katzearí, barkatzearéki, barkatzetík, eta barkatzekó** (alegia, barka de-
zaten).

Inesibo arkaikoari dagokionez, berriz, beti da paroxitonoa: **barkátzen**.

- 5.2.5.1.2. Izenezko unitateei buruz esan duguna orain berresanez, oso erraza da, Lizarragaren obran barrena, orpoz orpo, eta kidetza sinkronikoan, ja-torrizko azentua eta oihartzun bidezkoa elkarren ondoan aurkitzea: **procuráceco ta azicecó**, F.31, 82; **consagráceco, unicecó**, 31, 86; **segu-rátzeco, garaitzeco**, F.31, 28; **icusterá ta salutátzera**, D., 245, 118; **go-zátzeco, penatzeco**, D. 205; **contátzera, erraterá**, D.107, 75-77; are se-gidako bi herrenkadatan: **izáteco, izatecó**, D.141, 16-17.

Ilara diakronikoa zein den nabarmen dago: **ikústera, ikústerá, ikuste-rá; barkátzetik, barkátzetik, barkatzetik**. Oihartzun bidez sortutako azentua, *eskuinekoa beraz, ezkerretakoari nagusitu zaio*; Mendebal-dean gertatzen denaren aurka: jatorrizko azentua, nagusi egoten da. Ikus Zamarripa-ren Gramatika, bereziki: azentuak beti ezkerretan agertzen dira.

- 5.2.5.2. *Erroari* dagokionez, orain, aldakaitz eta soil, euskalkiaren fonologiari dagokion legez hartzen du azentua: **ikús, errán, gérta, Liz. beárr, vici** (= bízi).

- 5.2.5.3. *Partizipioa*, berriz, izen gisa, eta lege berberen ezarpenek: **ikúsi / ikú-sia, ikúsiak, ikúsiari** (edo **ikusiarí**), **ikúsiko** (hau ez da deklinatzen; **ikustéko**, bai; baina, xedea markatzekotan, **ikustekó**); **ikúsirik** (edo **ikusirik**). Geroaldietan, beraz, **ikúsiko** paradigmatikoa da normala; baina, (+2) legea aplikatuz, **ikusikó** ere ager daiteke (eta Lizarragaren-gan agertzen ere da). Adibidez: **eztéla barcatucó**, D.224, 149; **eztéla sartucó**, 178, 174; **eztá...icusicó**, 283, 130.

Progatucoute formak ere (Fontes 23, 86), hau postularazten du: **progá-tuko + (d)ute**; eta azentu ondoko posizio horretan (ikus Larrasketa, ba-tez ere) maiz gertatzen da frikaketa, are ezabaketa ere.

- 5.2.5.3.1. Sinkopek ere oinarrizko azentu bera idarokitzen dute: **ikúsko, etórko, icuscotúgu**, 191, 199; **icuscodúte**, 185, 81.

Hala ere, paroxitoniaren hedakuntza hazkorrak, azentuketa anormalak ere ematen ditu: **sinestatúco**, 210, 10.

- 5.2.5.3.2. Ohar berezirik ez oxitonoentzat: **errán**, adibidez: **errána, errának, errán-nen, erránes, erránik**, etab.. Adibidez: **eztú izánen**, 147, 50; **eztúte... izánen**, 206, 13; **egónen aiz i**, 141, 201.

-áin-ezko geroaldikeok ere, puntu berera bultzatzen dute: **-áren** jato-rrizkotik, /r/-ren ezabaketaz, **-áin** gertatu da. Adibidez: **izáinda**, D. 206, 15; F. 29, 352; **emáindu**, 150, 110-114. (**Emáindu** dela sinesteko, aski dugu Lizarragaren grafia hau gogoan hartzea: **de manera ezi**, 141, 130).

5.2.5.3.3. Berezkuntzarik ez da falta, halere, azaltzen zailak: **eztú utzízo**, 56, 15; **eztá ere utzízo**, 185, 76; **eztífu utzízo**, 46, 76; **eztíre salbatúco**, 354d; **etzaitut condenatúco**, 222, 100; **eztut sinestatúco**, 210, 107, jadanik aipatua.

Badirudi unitate berriztat hartu, eta koda hutsaren ondorioa ezarri zaiela.

5.2.6. Azter ditzagun *egiazko adizkiak*: laguntzaileak eta trinkoak.

5.2.6.1. Laguntzaile *silababakar ez markatuak* (diptongogabeak, eta hitanozkoetatik at) *enklitiko* agertzen dira: eta *ezkerraldetik datorkien oihartzun-azentua* hartzen dute; beste unitateetan bezalaxe, oihartzun bidez sortutako azentu berri hau, jatorrizko zaharrari nagusi dakioketarik. (Ikus 5.2.5.1.1.)

5.2.6.1.1. Ezkerreko osagaia edo elemendua **paroxitono** denean, laguntzaile silababakar horrek azentua *hartzen du* (baita ortografikoki ere Lizarragari dagokionez): **lenic dá**, D.31, 5 (alegia, lénik+dá, oihartzunez; jatorriz lénik+da); **bi gauza tút**, 158, 68 (= bigáuza+tut); **berbera cé** (= berbéra zé, oih.), 237, 157.

Zenbait aldiz, bai azentu nagusia, jatorrizkoa; bai azentu bigarrenkaria, oihartzunezkoa, elkarren ondoan ikus ditzakegu batera: **arráció cé**, 157, 48.

Ikus ditzagun adibide batzu: **astendá**, 69, 5 (= ásten+da); **sartucé**, 70, 30 (= sártu+ce); **sentidút**, 83, 50 (= sénti+dut); eta gauza bera izenadizkiekin: **erratenzue**, 89, 154 (= erráten+zue, /swe/); **ematendió**, 75, 123; **penarastentú**, 205, 7; **adiarastendú**, 103, 9 (= adiarásten+du, adiarástendú, adiarastendú; beti bezalako lerrakuntzaz).

5.2.6.2. Alderantziz: ezkerreko elemendua *oxitonoa* denean, Lizarragak ez du laguntzailea azentu diakritikoaz markatzen (zubereraz bezalaxe, bestalde: ikus 5.4). Adibidez: **egoncé**, 36, 114 (= egón+ze; eta tartea silaba *bat* izanik, oihartzunik ez dago); **beárda**, 50, 154; **eguince**, 97, 75 (= egín + ze). Hona sail bat: **eguínzue**, 206, 21; **izánda**, 97, 79; (zeintan) **iltzen**, 100, 145 (afrikazio hori oso adierazgarria da; **zen** horren klitikotasuna erakusten baitu); **oméncio**, 98, 93; **erránzue**, 108, 100; 209, 88.

Fontes 31-an aurkitzen dugun bikote honek ez du zalantza handirik uzten: **emánzue** / **utzizué**, 85; laguntzailearen azentua edo azenturik eza, ezkerreko azentu nagusiaren arauerako tartean baitatza.

Bide beretik, ezin argitsuago dira bi adibide bikoitz hauek: **joanze ta presentatuzé**, 23, 225 (= joán + ze, baina presentátu + zé); eta **betezue** / **emánzue**, F 29, 357 (= béte + zué; baina emán + zue). Distantzia *bi* denean, oihartzunaren bidez, eta lerrakuntzaz, *azentua laguntzailera doa*; distantzia *bat* denean, oihartzuna gertatzeko segmentu fonikorik ez dago, eta *azentua ez da mogitzen laguntzailera*.

5.2.6.2.1. Gauza berbera ikusten da *geroaldietan*, hauetan, dena dela, eskuineko oina hiru silabatakoa bide delarik: **ellegatucodá**, 58, 72 (= ellegátuko + da); **etorrícodá**, 145, 11 (oin trisilabikoa berriz ere eskuinean: etórriko + da); **erreinatucodú**, 147, 50; **esperatucodút**, 150, 104; **berechsicotú**, 184, 62; **aurquitucoáut**, 279; **ibiliconáiz**, 281.

Joera bera *-en-en* bukatukoetan, baina hemen oina normala da: *bi* silabatakoa. Adibidez: obequi **inendú**, F 29, 353 (= ínén + du); **izanendá**, 159; 223, 119; **emanendió**, 147, 49; **emanendá**, 188, 136; **inendú**, 230, 22; **emanendió**, 246, 142.

Baina, noski, **-áin** amaitutako oxitonoetan tartea *bat* izanik, azenturik ez laguntzailean: **emaindu**, 150, 110.

5.2.6.2.1.1. Zenbait aldiz, dena dela, hipotesi berriak erantsi behar bide dira: **etzé ilén**, 233; **eztuéla inén**, 224, 144. Edo-ta paroxitonoen ondoko forma azentugabea: **izanénda**, 147, 48.

Baina legea *segurutzat* eman daiteke.

5.2.6.2.2. *Hitanozko* laguntzaile silababakarrak, zubereraz eta erronkarieraz bezala, *markatuak* dira; eta ezkerrezko elemendua oxitonoa izanik ere, azentua daramate: **icusbeardiát** (nahiz **beárr** hori oxitona izan).

5.2.6.2.3. Laguntzaile *polisilabikoek*, berriz, klitiko gisa erantsirik ere, bi silaba edo gehiago dituztenez, eta euskalki honetan posizioa eskuin aldetik erabakitzen denez gero, kodaren arauera azentuztatzen dira, gainerako elemenduak bezala: **-dúzu**, **-zára**, **-dúzie** (2 silaba), **-guindúzu**.

5.2.6.2.4. Bide beretik *trinkoak* ere: **dágo**, **dáqui**, **daramázu**, etab..

5.2.6.2.5. Beste euskalkien kontra, eta hau garrantzitsua izan daiteke partikularen diakronia ikertzerakoan, *errelatiboak* ez du azentua lekuz aldatzen: **gára/gáren**; **dúcie** / **dúcién**, t.a.

5.2.6.2.6. **-la**, **-lako**, **-la(r)ik**, **-neko**, eta abar, enklitiko doaz.

-la dutenak paroxitono dira: **damatela**, **induéla**, **eguitendióla**, **quadratzendióla**, **aurquituduéla**, **diréla**, **baduela**; are bikote argitsu honetan ere: **dágo** / **dagóla**.

-lá(r)ik, berriz, edo *-láik*, azentua beti /lá/ horretan datorrelarik: **ilnaiduteláic**, **jaioceláic**, **dezaquezuláic**, **ceramateláic**, **nauteláic**. Eta **dágo** / **dágoláic**.

-da eta *-la*-ren egoera, beraz, desberdina da.

5.2.6.2.7. *Aurrizkiak*.

5.2.6.2.7.1. *Ba-* (baiezkoa) eta *ez-* (ezezkoa) proklitikoak dira; baina ez dute, halaré, azentua inoiz hartzen: **badút**, 67, 223; **badiót**, 69, 12; **badú**, 110, 145; **badá**, 111; **badá** eta **eztá**, 277; **badáquit**, 233. Eta bide beretik: **eztá**, 33, 35; **ezcára**; **eznué**, **etzé**, **etzué**, **eznágo**.

5.2.6.2.7.2. *bait-* aurrizkiak ere, unitate bakar bat osatzen du eskuineko aditzare-

kin; baina azentua *har dezake*. Proklitikoetan ere, beraz (enklitikoetan bezala), *bi* motatako partikulak ditugu: *baice* (= báitze), *baita*, *bainaz*, *baitu*. Baina **baitiát**, oxitono, hitanozko **diát**, silababakarra, markatua delako.

Unitate luzeagoetan, jakina, azentua eskuin alderago doa: **baitágo**, **baitúte**, **baitákít**.

5.2.6.2.7.3. *Baldintzazko ba-*, zerrenda honetan bildu diren adibideek zalantza bidea utz badezakete ere, *azentuduna* dela pentsa daiteke (beste euskalkietan bezala): **imbádu** (paroxitonoa ere bai, eskuineko kodaren arauera), **bálitz**, **egombáce**, **imbázue**, **bániz digno**, **beiratsenbáda**, D.157, 42; **icusibáneez**, **naibauzu**; baina **erranbalézo**, 75, 131; **nor bagára**, 209, 76 ere bai. Puntu hau, hortaz, zalantzan gelditen da. (Ikus N.5.2.6.2.7.)

5.2.6.2.7.3. **ezpa-** eta **ezpait-** askotan (ez beti) **ezpá-** eta **ezpáit-** gisa agertzen dira: **ezpáda** (**ezpadá** ere bai, bakanka); **ezpádu** (ohar bera); **ezpálitz**, **ezpáze jaió**, F.31, 88; eta **ezpaita**, **ezpaitu** (paroxitonoak, noski).

Unitate luzeetan, azentua eskuin alderago agertzen da: **ezpaizúque**, **ezpadáqui**, **ezpaitúte**.

5.2.6.2.7.4. *Ez eta partizipioak*

Pentsatu ohi denaren kontra, partizipioen ezkerretan datorrenean ere, ez partikulak ez du azentua biltzen: **echaquínes**, D 33, 34. (Baina **chsaqín**, jakina). Afrikazio hori *ez-en* proklitikotasunaren alde mintzo da.

Gauza bera izenen aurrean: **ez Aingéru**, 210; berriro ere klitiko gisa agertzen.

5.2.6.2.7.5. Azentu-unitatea, nolana ere, garbi agertzen da Lizarragaren grafian. Adibidez: **kristiatzengaituen**, 75, 118; **escatzendió**, 75, 119; **emanendizu**, 75, 120; **emantendió**, 75, 123; **arzázu**, 75, 124 (ikus *ar+ezazu*), **valiabequízu**, 75, 125; **mostratzendá**, 75, 126; **beardéla**, 127; **erranbalézo**, 131, etab..

Oso bitxia da bikote hau: **naibáute** **ezpáute**, 38, 136.

5.2.6.2.7.6. Baina: **euchi tiesso ta ez útzi**, 128 (kontutan *har ezútzi* hori); **ez errétzen**, 138; **ez úzten**, 157, 46; **niórc ez librátu**, 157, 53; **ez murmurátu**, **bai alegrátu**. Horietan guztioan, azentugabe agertzen da *ez*.

5.2.7. *Azenturik gabeko izenorde silababakarrak.*

Izenorde galdekariak, silababakarrak direnean, eta aditzaren ezkerretan joaten (+1 posizioan), ez dute inoiz azentu diakritikorik hartzen: **cer dá?**, 209, 81; **cerdá au?**, 25, 137; **cer aizára?**, **non da?**, **non dágo?**, **norc cóna?**, **cein dá?**, **nor cértara elducén?**, **norc paratutú?**, **norc eztú?**, **norc errán?**, **cein inze guizón?**, **cer naidu errán?**, 211, 125; **norc dáqui**, 210, 111. Baina *baita* entonazio lauetan ere: **audá**, 38, 142; **orr dágo**, F 29, 352; **au céla**, **ció arc**, **está au**, **zu zára Pedro**, 205, 13; **guk nóndic daquigu**, 210, 111.

Tarteen paretasunak, berriro ere, garrantzia du: **cergátic**, **cer tácha!**, 158, 59. Baina: **nóndic dú?**, **nóren óbras?**.

Adierazgarriak dira, era berean, hauek: **bat dá**, 124; eta **ain mérque**, 158, 67.

5.2.8. Azentu-entonazioaren elkar eragina.

Galderari dagokion entonazio goranzkoak, sasi oxitonoak sor ditzake: **Jangoicoac creatucítue** (seguru aski: kreátu + zítue), 124, 143; baina **norc creatucitué?**, 124, 144.

Ez da besterik gabe pentsatu behar horrela gertatu direnik: orrialde be-rean datoz bi kasuok.

Askotan ikus daitekeenez, eta interferentzi-giroak idaroki dezakeena-ren aurka:

1/ galdekaria, silababakarra denean, azenturik gabe joan ohi da galde-ra zuzenetan;

2/ goranzko entonazioak, oxitono bihurtzen ditu berez paroxitono joan ohi diren adizkiak: **certaco diré?**, 104, 24 (vs. **díre** normala); **christio zará?**, 69, 7 (vs. **zára**); **zembat persóna... diré?** (vs. **díre**); **norc eguintú?**, 126, 195 (tartea silaba bat izanik, **egíntu** espero zitekeen baiezka entonazioan); **cer imbeardú?**, 128 (vs. normala **beárdu**); **nolá?** (vs. **nóla**); **non zará?**; vs. **zára**.

Oharrak

N.5.2.3.7. Bizkaiera mota askotan aurki daitezkeen gertakariekin hau guztia ez lotzea zorakeria litzateke.

Adibidez, Eibar-ko hizkeran, Imanol Laspiur-ek urgazle gisa Eus-kaltzaindian sartzerakoan egin zuen hitzaldian azaldu zuenez (ik. Eus-kerá 1979, XXIV,1), oso fenomeno antzekoak daude: **onék gizon ónek**, 233 (hobeki: **onék gizonónek**); **orí mutil óri**, 233; **orrék gizon órrek**, 233; are hau ere: **onén etxi-ónen**, 233. Laspiur-en beraren grafiaz.

Alegia, eta ikus daitekeenez, *izenorde autonomoan*, (+2) legea betetzen da; *adjektibo* gisa, aldiz, azentua (+1) da.

Pluralean ere antzeko egoera dugu: **órrek mutíllok**, 233; **órrekin mutíllokin**, 233; **órendako néskondako**, 233; baina hau bederen garbi dago: «hay que admitir la identidad inicial de los demostrativos y artículos vascos» (Mitxelena, Fontes 33, 1974, 394).

Horixe da egoera. Lizarragaren hizkeran (eta gauza bera erronkarierari dagokionez) /g/ segmentuari buruz (/k/ erronkarieraz, noski) aurkitzen dena; *izenordea gabe*, *adjektiboa /g/-kin*.

Enklitiko bihurtzean materiale fonikoa suntsitzea normala da: **haur**, baina **-or**; **hori**, baina **-oi**, etab..

N.5.2.3.7.1. Hego nafarrera garaia aztertzerakoan, corpus zabala eta fidagarria dugu orain. Hots, Apezetxeak berak argiro eta zorrozki seinalatzen duenez: «el artículo indeterminado *bat* va enlazado con el nombre; no así el numeral *bat*» (Doctrina, 25).

Beste modu batez esateko, eta berriro ere, gauza bat da **-bat** klitikoa, azenturik gabe eta mugagabea; eta beste bat **bát** azentuduna, autonomoa eta zenbakaria; azentuaren aldetik, bere buruz beste azentu unitate bat.

Beste euskalkietan ere, lehenengoarekin gertatzen dira sandhi-fenomenoak; baina ez bigarrenarekin.

N.5.2.6.7.1. 1609an Iruñean sariztatu zen olerkian ere, grafia adierazgarri hau dugu: **yçámbánu**, Fontes 23, 1976, 160.

5.3. Erronkariera

5.3.0. Normalean, eta baita Mitxelenak ere bere euskalkien sailkapenean, azentuaren arauera (ik. An.Sem.J.de Urquijo, 1972); eta lehenagotik L. Bonaparte Printzeak funtsatutako irizpideari jarraituz ere (alegia: erronkariera, gaur suntsitua (nahiz Uztarrozen oraindik pertsona zahar bakarren bat atxematea posible izan, jatorki xamar mintzatzeko gauza), Erronkariko eskualde menditsuan erabili izan den hizkera batetik, eta Zuberoaren aldekoa bestetik, gauza bera, edo berttua bederen, dira azentuaren aldetik.

Suntsitua den euskalki bat denez, eta euskal multzoaren arauera oso desbideratua, erronkarieraren ikerketak balio eta interes zientifikoak ditu soilki; ezen, bere lekuguneaz batera berritzaile eta arkaikoa izanik, gainerako euskalkien alderdi bitxi batzu azal baititzake; aspaldiko euskal azentuaren arazoa ere hobeki paratuz agian, eta zubereraren arazo batzu argituz. Antzinakoa eta orain dela gutxikoa kontrastatuz, baita euskalki desberdinetan dagoen orokorra ere, azentuaren mailako ortoepiaren arazoa hobeki argi daiteke.

Nolanahi ere, eta gaian barrena abiatzekotan, garbi dirudi erronkariera, azentuaren alderditik, hurbilago dagoela Hegoafarrera garaitik, zubereratik baino. (N.5.31).

Halarik ere, labur xamar mintzatuko gara; bai erronkarierazko azentuari buruz dauden dokumendu fidagarrien urritasunarengatik (Mitxelena eta K. Izaguirre, funtsean, Bonapartez kanpo; nahiz kontutan hartuko Estornes Lasa eta Koldo Artola-ren ekarpenak); eta bai erabilia ez den euskalki baten interes pragmatiko mugatuarengatik.

5.3.1. *Izen-ardatza* duten unitatean, *mugagabe soilaren* nominatiboa da azentu-moldearen oinarria. Mitxelenak berak argi-eta-garbi idatzia duenez, mugagabearen izana beste euskalkietan baino biziago atxeki da han (Zuberoan bezala).

Hots, mugagabe soil hori, markatua ez izatekotan, paroxitono agertzen da. Adibidez: **úrte**, **zíkin**, **egúzki**, **utúrri**. Eskuineko koda zein nahi den, beraz.

5.3.2. *Singularrean eta pluralean* (honetan zubereratik urrunduz), azentua ez da aldatzen: **úrte** / **úrtea**, **úrteak**; **zíkin** / **zíkina**, **zíkinak**; **egúzki** / **egúzkiak**; **utúrri** / **utúrria**, **utúrriak**. Azentua azkarra da, oso (jadanik esana dugunez); eta, goranzko diptongoak gerta daitezkeenez, paroxitonia nagusi.

Ikus ditzagun aldakuntza fonologiko batzu.

/a/-z amaitzen diren lexemen kasuan, azentu-aldaketa bat gertatzen da, eta *eskuin* alderako lerraketa; bokale-laburketaz oxitonia gertatzen delarik (honetan zubereraz bezalaxe). Adibidez: **áinzpa** / **ainzpá**, **ainz-pák**; **atórra** / **atorrá**, **atorrák**; **áma** / **amá**, **amák**.

5.3.3. Lexemak, horretara, *markagabeak* izan daitezke (-M), eta mugagabeen *paroxitono*; eta *pro-paroxitonoak*, (M-3), bestetik. Hauek guztiak (bokale-laburketarik ez izatekotan), silaba berean atxekitzen dute azentua deklinabidean barrena. Eta hau, horretara, paradigmatikoa da; eta eskuin alderako lerrakuntza berritza har daiteke.

5.3.3.1. Ikus ditzagun orain erronkarietako oxitono markatuak.

a) badaude beheranzko *diptongoz* amaitzen diren unitateak (Izagirre-ren arauera hemen aurkeztuak): **errái**, ‘pulmón,?’; **eztéi**; **lleprói**, ‘liebre’; **odói**, ‘trueno’; **egitái**; **sabái**, ‘desván’; **izéi**, ‘abeto’; **sarói**, ‘majada’; **nasái**, ‘camisa (de mujer)’; **ukarái**, ‘puño’. Ik. N.5.3.3.

b) badaude, bigarrenetik, euskalkiaren suntsiera baino lehenagoko urteetan bederen, diptongo *beheranzko eta sudurkariz* amaitzen ziren unitateak (eta, beste euskalkiaren ere, nola edo hala, sudurkaritza horren aztarnak gelditu direlarik): **arrái**, ‘trucha’ (ik. N.5.3.3.1.1); **arraña**; **morrói**; **karrói** (ik. **karrontátu** Iparraldean); **ardáu** (adierazgarriri, Erronkariko puntu desberdinetan, **ardágo** eta **ardáun** gisa ere bildua); **aintzái**, ‘cabrero’; **arratói**, ‘ratón’; **añái**, ‘centeno’; **berrogéi**.

Amaierazko /n/ hori agertu ere egiten da zenbait aldiz: **beléin** (= be-laun); **berréin** (= berrehun); **ezpéin** (= ezpain).

c) eta badaude, era berean, kontsonantez amaitutako lexemak. Askotan /r/ da fonema hori: **aurér** (ik. aufer, auher); **gezúr**, **garagár**, **senár**, **ezkér**, **ollár**, **burár** (= bular); **ezúr**, **ēzúr**, **izúr** (= hezur); **zidár** (= zilar); **bullúr**, ‘aro donde se mete el timón’; **itaxúr** (hemen /r/ leuna da); **iñaztúr**, ‘relámpago’.

Ondoko hauek, horretara, oso bitxi gertatzen dira, koda horren aurka, (M+1) direlako: **áker** (eta **ákerra**, beraz); **élur**, **élurra**; **néxar** (= negar); **mákur**, **llábur**, **índar**, **éder**, **íxter**.

Bestelako oxitonorik ere badago: **bigótz**, **ogén** (= hoben), **orrátz**, **eskú**, ‘derecha’ (gogoan har *eskuin* eta *eskuma*).

Hona beste (M+1) batzu: ábrats, ápez, gízon, úrin, ‘grasa’.

d) *Oxitono* agertzen dira, era berean, azentudun atzizkiak dituzten unitateak (eta zubereraz presta daitekeen zerrenda bera lortzen dugu):

- **ár** : **erronkariár**, **usteinkiár** (hemen ere, bi azentu zaharren artean, eskuinekoa nagusitu da);
- **báit**: **zomáit**, **norbáit**, etab.. (beste euskalkietan ikusi duguna ikusirik, ohar bera egin daiteke).
- **dói** : **ezpeldói**, ‘monte de boj’.
- **géi** : **ikasgéi**.
- **kór** : **kilikór**, ‘cosquilloso’.
- **ñí** : **aitañí**.
- **ñó** : **alabañó**.

- **xár** : **saguxár** (= sagutxo).
- **zár** : **apozár** (= apo handia).

Hitz konposatuak ere, bigarren osagaia silababakarra denean, oxitono izaten dira: **amaxún, etxegáin, aitajéin, burarmín**. (Ikus 5.4.3.1.7.-an zubererari buruz eman dugun zerrenda).

- 5.3.3.1.1. Bideabar esateko, erronkarieraz **-rát** deklinabide-atzizkia azentuduna da: **etserát**, 'hacia la casa'.
- 5.3.3.2. Izen *silababakarrak*, eta ahaideak (era guztietako adjektivo, zenbakari, etab.) markatuak dira (M-1); eta deklinabide guztian barrena silaba berean atxekitzen dute azentua. Adibidez: **sú, zár, áintz, ón, gíltz, ún, órtz**.
- 5.3.3.3. *Zenbait trisilabo* (gure zerrendakoak [-low] den bokalez beti amaituak) *proparoxitono* markatuak dira, (M-3): **áinguru, áxari, xúxulu, ázkazi**. Ahoskera berria dirudielarik.
Bokale-laburketa gertatu den kasuetan, unitate (M-3)horiek bidezkoa-go eta sinesgarriago dirudite: **báskari**. Zer pentsa, ordea, mailebu berri honetaz: **bézino?**
- 5.3.3.3.1. Zenbait kasutan sinkopa dago: **bártze** (= báratze); **túpla** (= túpula, tipula); **íxkla** (= ízkila); **ténpra** (= ténpora, beste euskalkien arauera).
- 5.3.3.4. Hiru nominatiboen azentukera ulertzekotan, har bitez kontutan urrezko fonologi erregela hauek:

a) *RR-I*: **a + a → á**

Adibidez: **elíza / elizá, elizáren, elizári, elizán, elizára**, eta **elizárik** (= elizatik, disc.). Horiek guztiak, beraz, singularrak dira. (Partitiboa: **elízarik**, jakina).

Hau dela-ta, zalantzatan dugun /a/ enborrari ote datzekion ikusteko frogabidea erraza da: nominatibo hirukoitza saiatzea. Adibidez: **gíltz, gíltza, gíltzak** (eta ez *giltzá, giltzák). Hortaz, err. **gíltz** da.

b) Diptongo goranzkoak zilegi direnez, hau dugu:

RR-2:
$$\begin{bmatrix} V \\ -\text{low} \\ \alpha\text{back} \end{bmatrix} \rightarrow [-\text{syll}] / C - a(k)$$

Beraz: **ázkazi + a, áz. ka. zia; xúxulu + a, xú. xu. lia; arráno + a, arr. á. nua**. Eta oihartzunez: **xúxuliá, ázkaziá**, batzutan.

- 5.3.3.4.1. Erronkarieraz, hortaz, honen bidez ikus daitekeenaren arauera, *bokalez* amaitutako izen-unitate guztiek, silaba-kopuru *bera* atxekitzen dute singularrean eta pluralean; baina, alderantziz, *kontsonantez edo*

diptongoz amaitutako lexemek, silaba *bat gehiago* dute horietan. Adibidez: **ázquezi, ázkazia, ázkaziak** (3); **utúrri, utúrria, utúrriak** (3); **égiá, egiák** (2), silaba-kopuru bera, nahiz azentua mogitu; eta **ázpi, áz-pia, ázpiak** (2). Hau nafar joeratzat jo daiteke, irakurleak, aurreko bi kapituluak gogoraziz, ongi konpreni dezakeenez.

5.3.3.4.2. Bestela esanda, hauxe da erronkarieraz dagoen egoera:

Lexemaren koda *hutsa* denean:

mugagab. 2 sil.; sing. 2 sil.; pl. 2 sil.

mugagab. 3 sil.; sing. 3 sil.; pl. 3 sil.

mugagab. 4 sil.; sing. 4 sil.; pl. 4 sil.

baina koda *ez-hutsa* denean: 2, 3, 3; 3, 4, 4; 4, 5, 5...

Maiztasunaren aldetik, beraz, gailen gelditzen dira *hiru* silabatako nominatiboak; eta paradigmaticotasuna dela-ta, *proparoxitonia* agertzen da gailen.

Honek azaltzen du, beraz, erronkarieraz aurkitzen den *proparoxitonia* hazkorra. *Uztarrozeko* hizkerak, geografi arrazoiengatik, arkaikoa-gotzat jo daiteke *Izaba*-koa baino. Hots, hau dugu:

<i>Izába</i>		<i>Uztarróze</i>
álkate	alkáte
éltxano	eltxáno ('puchero')
ánaxe	anáxe (Ik. N.5.3.3.4.2.)
áragi	arági
bártze	barátze , 'huerto'.
ízaba	izába , 'Izaba'.

Denak idarokitzen du, beraz, zubereraz berriki gertatua den hedakuntza paroxitonoa bezala, erronkarieraz ere, eta ez aspaldiago itxuraz, plegu bereko hedakuntza *proparoxitonoa* gertatu dela; eta bai bata bai bestea, euskal multzoan ongi sustraiturik ez dauden azentubidetazt har daitezkeela.

Uztarroze, bestalde, bertago dago bestaldeko zuberotarren hizkeratik, *Izaba* baino.

5.3.4. Nominatiboaren azentu-oinarria ezagutuz gero, aski da hau kontutan hartzea: azentubidea paradigmaticoa da. Adibidez:

<i>Mugagab.</i>	<i>Sg.</i>	<i>Pl.</i>
étse	étsia	étsiak
étsek	étsiak	etsék
étseri	étsiari	etsér
étsez	étsiaz	etséz
étseren	étsiaren	etsén
étsereki	étsiareki	etséki
étsetàko	étsekò	etsétako
étsetàrik	étserik	etsétarik
étsetàn	étsian	etsétan
étsetàra	étsiarà	etsét(a)ra

Oharra: **étsen** forma (*étse*-ren inesibo arkaikoa) ez da hor agertzen; kasu horretan, norberaren etxea denean, *Etxe* deklinatzen baita, egia esan (*Izaba* bezala). Ohar honek zubererari buruz ere balio dezake.

Inesibo bera aurkitzen da **góiz** eta **árrats** hitzetan.

- 5.3.4.1. Plurala paradigmatikoa da ergatibotik aurrera, eta /é/ darama zuta-bean. Lekutasunezko kasuetan, dirudienez, ez zen hori gertatzen; baina *etxe* lexema /e/ -z bukatzen delako, lekutasunezko kasuetan *ere* paradigmatikoa dela dirudi. *Baina ez da.* (Bada, bai; baina arrazoi desberdinengatik).
- 5.3.4.2. Oihartzun bidez, azentu bezala, bestetango /e/ lotura agertzen da (+2) silaban.
- 5.3.4.3. Adlatiboan *ere*, zubereraz bezala, bestetango /e/ lotura agertzen da: **bízkar / bízkarretàra, bízkarreará, bizkarrétra.** (Ohar hauek guztiak, dagoen materialean baino osoago eta seguruago ezin izan. Noski).
- 5.3.4.4. *Leku*-izenen *paradigmatikotasuna* segurua bide da euskalki honetan *ere*: **Arágo, 'Aragón' / Arágok, Arágori, Arágoz, Arágoko, Arágorik, Aragón, Arágora; Zánkoza, 'Sangüesa' / Zánkozak, Zánkozari, Zánkozaz, Zánkozako, Zánkozarik, Zánkozan, Zánkozara.** (N.5.3.4.4.).
- 5.3.4.5. *bat-* ekiko mugagabeei dagokienez, berriz, *-bat* hori atzizki azentugabe gisa agertzen da (Mendebaldean bezala; eta ondoko Hego-nafarreratik urrun, beraz): **aurñóbat, aurzáibat, atórrabat, éskubat, txórtabat.** Hala *ere*, *soma* daitekeenez, **bát** zenbakaria («uno, contando», Larra-mendiren hitzak errepikatzeke) azentuduna da, eta autonomoa: **árgi bát** (bat, bakar bat; eta ez bi, beraz). Baina datu gutxiegi dago hau baiesteko.

5.3.5. Guganaino heldu diren datuak, era berean, ez dira aski aditz-sistema definitzeko (ik. N.5.35).

Hona hemen ohar orokor batzu:

5.3.5.1. *Laguntzaileetan* sekulako zalantza-giroa dago: **diar** aurkitzen dugu, azenturik gabe; baina **diár** ere bai (Hitano izanik, **diár** espero genuke, **diát**). Hor ditugu bai **ádi** eta bai **adí**, ezkerreko elemenduaren eraginez gertatzen direnik ezin segurtaturik. Hor ditugu **dágo** eta **dagó**, eta ingurune bertsutan.

5.3.5.2. Silaba *bakarreko* laguntzaileek, diptongatuak edo laburtuak ez diren ber, *klitiko* gisa agertzeko joera dute: **kúrak tun**, **bérbera dun**, **úrdu dun** (= iduri din).

Besteak, berriz, azentudun eta autonomo: **sínetsi diár**, **iróltzi diár**, 'lo he cernido'; **áutse diár** (= hautsi diat); nahiz honetara ere batzutan agertu: **ñardetsi diar**, 'he contestado'.

5.3.5.3. Laguntzaile iragangaitzaren forma sinkopatuak: **gra**, **zra**, **zrei**, **dra**, oinarrian oxitonoak eskatzen bide dituzte: **gará**, **zará**, **zarée**, **dirá**. Hirugarrenaren disimilazioa, bestetan ere azaldu denez, anormala da euskaraz: bizk. **zaríe**, erronk. **z(a)réi**.

5.3.5.4. *Ba-* (baiespena) eta *ez-* (ezespena), *proklitiko* agertzen dira; eta ez dute, eskuarki bederen, azentua hartzen: **badákir**, **eztákir**, **eztúr**; baina baldintzazko **bá-** azentudun agertzen bide da: **xági bánintz** (= jaiki banintz).

5.3.5.5. Badirudi hitanozko formak oxitonoak direla erronkarieraz (zubereraz eta beste euskalkiz bezala): **badáki**, 'lo sabe', eta hitanoz: **badakiék**, **badakién**; **badákir**, 'lo sé', eta hitanoz: **badakiár**, hiru silaba; **gúnian** (= genuen), hitanoz **guniá**; **gindáuden** (= geunden), hitanoz **gindauriá**.

5.3.5.6. Aditz-erroak (-2) agertzen bide dira, eta partizipioak (-3). Adibidez: **éros**, **érosi**; **ékus**, **ékusi**; **úka**, **úkatu**.

Azken oharra: eskuragarri ditugun dokumenduez baliatuz, ezin eraiki daiteke euskalki honen azentuaren teoriarik. Lerro hauek, hortaz, sarre-hitzak baizik ez dira.

Oharrak

N.5.3.1. Bonaparte Printzea erronkariera zubereraren azpi-euskalkitzat hartzera eramán zuten arrazoiak, aditz-morfologiazkoak batez ere, ongi ulertzen ditugu.

Baina erronkarieraren errotikako autonomia aldarrikatzeko momentua aspaldi heldu zen: hasperenketarik eza, deiktikoen hasera-herskari go-

rra, sinkopa, etab..Denek bultzatzen dute erronkaria Hegoaldeko euskara-motekin elkartzera. Eta azentuak ere bai.

N.5.3.3.2. Uztarrozen **egúzku** (K. Artola).

N.5.3.2.1. Sudurkuntza desagertua bide zen ia osoki azkeneko erronkariar euskaldunengan. Koldo Artolak ere, bide beretik, **áizpa** entzun omen du beti, bai Izaban bai Uztarrozen; eta sudurkuntzarik gabe, beraz.

N.5.3.3.1. Uztarrozen ‘muñeca’ (K. Artola).

N.5.3.3.1.1. Uzt. **arráña** (sg.) eta **arráñak** (pl.) (Artola).

N.5.3.3.1.2. Iz. **aurrér** (K. Artola). Berriz ere, **r/rr** zalantza agertzen da, beraz; Mendigatxa-ren dokumentuetan bezalaxe. Baita, jakina, zubereraz gaur gertatzen den bide berberetik.

N.5.3.3.4.2. Iz. **anáxe** (Artola).

N.5.3.4.4. Iz. **Zankóza** (Artola); eta paradigmaticoa.

N.5.3.5. Erronkarierari buruzko dokumentazioa prestatzen ari da orain Joseba Gabilondo, batetik. Eta Xabier Pardo ere, bestetik, Bonaparteren altxorraz arduratzen da aspaldisko honetan; Nafarroako euskalkien aldetik bereziki. Agian aurki oinarri hobeak eta osoagoak izango, hizkerara bitxi hau zehazkiago aztertzeko.

5.4. Zuberera

Aurriritzi bat dago gu manexon artean (zuberotarren esanetara, berak ez beste euskaldun guztiok baikara «manex»), oso hedatua eta sustraitua. Alegia, zuberotarren artean halako hizkera-batasuna badagoela, beste eskualdeetan baino handiagoa. Eta ustekeria hori erauzi behar da.

Nahiz zuberotar jendaketa urria izan, baita zabalera ere horrela mintzo diren hiztunen lurraldea ere, barruti batetik bestera desberdintasun sendigarriak daude; eta diakronian, denboran barrena ere, desberdintasun horiek ez dira txikiagoak. Orain dela lau mende baino gehiago J. Leizarragak azpimarratutako hiper-euskalkikuntzaren ikuspegi hura, Zuberoari buruz egiazkoa da.

Egiazki dagoen hizkera-nabartasun horretaz jabetu beharra dago, hortaz; baita, ezinbestean, iker daitezkeen hizkeren eta hemen aurkezten diren eredu artean dauden, edo dagozkeen, desberdintasun horiena.

Ohar hau, jakina, Euskal Herri osoaz egin daiteke.

5.4.1. Funtsezko oinarritzat bi ikerlan hauek hartu ditugu:

Grammaire Basque, Louis Gèze-1873.

Le Basque Souletin Nord-Oriental, J. Larrasquet- t. I, 1934.

Horiez gain, dena dela, eta errejistratutako bandez gain, *Larrasketa-k* (= Larrasquet, ofizialki) egindako oharrak izango ditugu kontuan (bere Tesian, bere Hiztegian, etab.); *Intxauspe*-ren lanak (Bonaparteren laguntzailea izan zen kalonjea), eta «*Le Verbe Basque*» liburua batez ere. Baita han eta emen, *H. Gavel*-ek, *R. Lafon*-ek, eta bestek, egin izan dituzten oharrak.

5.4.2. Oinarri horren gainean, badirudi hau dela hipotesirik ekonomikoena: *izena* ardaztat duten azentu-unitateen nominatiboan, azentua (-2) dela (alegia, *eskuin* aldetik hasi, eta bigarrenean). Elemendu markatuak, beraz, euskalki honetan, *oxitonoak* dira, (M-1) beraz. (Simetria, beraz, osoa da Mendabaldeko hizkerari buruz: han (+2), eta markatuak (M+1), prototonoak).

Elemendu markatu horien zerrenda ematen saiatuko gara. (Ikus N.5.4.2.).

Zuberera entzutean, baita gai hauetan ezjakina denari ere, oso nabarmena zaio azentuketa hori: «La syllabe longue est ordinairement la **pé-nultième**, mais il y a des nombreuses exceptions». (Gèze, 3).

Hipotesi honek ez ditu «azentu-sospresa» guztiak baztertzen, ezta itxurazko «normalgabekeriak» ere; eskuarki ondoko bi arrazoi hauei lotuak:

a) *analogiak* sortutako desbideraketak;

b) hizkeren arteko *liferentziak* (sinkronikoak zein diakronikoak).

Zalantzazko kasuetan, edo ilunetan, egiazki aurkitzen diren formak aurkeztuko ditugu, espero genituen formen ondoan; edota autore honen edo haren izkribuetan agertzen direnak ere.

5.4.3. (-2) *erregela* hori, *hiru numeroen* nominatiboari aplikatu behar zaio. Eta, beraz: **méndi, mendía, mendíak**; edo-ta: **álhor, alhórra, alhórrak**.

Markatuak, berriz, (-1, -2, -2) jasoko dute azentua: **odéi, odéia, odéiak**; **aphéz, aphéza, aphézak**.

Oxitonoak estatistikoki gutxiago izanik, eta mugagabeak beste biak baino maiztasun txikiaoga ere izanik, *paroxitoniaren gailentasun nabarmena* ulertzen da.

5.4.3.1. Zein dira (M-1) markatuak, zubereraz? Saia gaitezen erantzuten.

5.4.3.1.1. *Bokale sudurkariz* amaitzen diren lexemak: **arrathú**, 'rat'; **arrazú**, 'raison'; **bedezí**, 'médecin'; **billú**, 'tronc d'arbre équarri'; **butú**, 'bouton d'habit'; **buxí**, 'morceau'; **dimú**, 'timon de charrette'; **faizú**, 'manières'; **fanfarrú**; **ferrú**, 'trèfle incarnat'; **kabezú**, 'bride'; **kantú**, 'coin, angle'; **kharrú**, 'glace, gelée'; **kokí**, 'astucieux'; **kosí**, 'cousin'; **melú**, 'melon'; **pelegrí**; **phezú**, 'tranchée'; **phozú**, 'poison'; **uñhú**, 'ognon'; **xabú**, 'savon'; **zurrumpí**, 'rougeôlle'. (Ikus Larrasketa-ren Hiztegia. Mailebuak dira denak, eta jatorrizko /n/-a hortxe dago askotan).

Beste batzuk, halere, zaharrago dirudite euskal altxorrean: **bigá** (/ã/ sudurkariz, eta azentuz) (vs. **biga**, 'deux'); **hazkú** (ik. *azkonarra*); **lanhú** (gure *laino*); **orgá** (baina Organbideska, Iratin); **zí**, 'gland'.

5.4.3.1.2. *Mailebu berri* asko, dirudinez integratu gabeak: **ardít**, 'liard'; **arrés**, 'brebis'; **arríxk**; **arrúnt**, 'á nouveau' eta 'commun'; **aphéz**; **benusé**, 'menuisier'; **berdét**, 'vert-de-gris'; **berníz**; **biarnés**; **bidajánt**; **briulét**, 'violet'; **desunést**; **errembés**, 'maladroit'; **espús**; **erretó(r)**; **imúr** (= umore); **intrés**; **irús**, 'heureux'; **jurnál**, **kafé**; **khüñá**, 'berceau'; **krudél**, **leiál**, **lanjé(r)**; **ostalé(r)**; **pakét**; **paphé(r)**; **pa(r)asól**, **pegár**, **persíll**; **puxánt**, 'puissant'; **pürnák**, 'punaise'; **se(r) iús**, **tabál**, 'tambour'.

5.4.3.1.3. Hirugarren multzoan, *beheranzko diptongoz* amaitzen diren hitzak daude: **bedói**, 'serpe', **errói** (= bele handia); **igatéi** (= igitai); **izéi**, 'sapin'; **nasái**, 'large, ample'; **odéi**, 'nuage'; **pikarrái**, 'nu'.

Diptongo hori soila ez izatea gerta liteke: **nunbáit**, **nurbáit**, **nuzpáit**, **zumáit**; baita hauetan ere, funtsean: **arráñ**, **doháñ**, **maháñ**, **ürsáñ**, 'éternuement'; **züháñ** (= zuhaitz).

Badirudi, hitz batez, bi motatako markatuak ditugala, beste euskalkietan bezala: a) *mailebuak*; b) *diptongatuak*. Bokale sudurkarietan ere, bokale berezia dago; eta koda ez-hutsa, nolana ere. Euskara, hitz ba-

tez, eta berriro ere, oso sendikorra da *diptongoekiko* (*beheranzko* diptongoekiko, zehazkiago).

- 5.4.3.1.3.1. Hori dela-ta, ez da ulertzen, eta berrikuntza modernotzat jo beharra dago diptongoz bukatutako paroxitonen multzoa. Adibidez: **bélhañ** (= belaun); **ézpañ**, **hógei**, **óthoi** (azkeneko hau, batez ere, konpreni-ezina da, goranzko entonazioan erabiltzen baita; eta ondoan, Baxenabarren, **othói!** esaten baita).
- 5.4.3.1.4. Honen froga berri bat *ondoriozko diptongoz* amaitzen diren hitzak dira: **bedáu** (ik. bedaro, 'température altérante'); **etsái**; **haztéi** (hazteri, 'démangeaison'); **haxekái**, 'porteur de faix á dos'; **igéi** (= igeri); **intzáur** (ik. intzagar); **labuái** (= laborari); **Larrói** (= Larrori); **Muntói** (= Montori); **ordái** (= ordari, 'remplaçant'; **segái**, (= segari); **xixái** (= xixare); **zamái** (= zamari).
- 5.4.3.1.5. Beste oxitono batzu, monoptongaketaz gertatzen dira halako: **agín** (= agian); **aítzinín** (= aitzinean); **ixustín** (= ez-ustean); **ordín** (= orduan). Laburketa hauek oso maiz gertatzen dira Ziberuko Pettarran.
- 5.4.3.1.6. Hitz-elkarketan, Ekialdeko hizkera guztietan bezala, azentua *eskuineko* osagaien doa. Hau silababakarra denean (edo silababakarturik elkartzen denean), *konposatua oxitonoa* da: **aharzán**, 'pâtre de moutons'; **aizebélz**, 'vent d'Ouest'; **a(r)anóts**, 'écho prolongé d'un bruit sourd'; **basahúntz**, 'isard'; **besomútx**; **bürdünhú(r)**, 'eau ferrugineuse'; **herrazáll**, 'difficile à traire'; **ohezú(r)**; edo silababiko hauek: **artzán**, **beláztz**, **erháuts**, **hazáur**, **iháũ**, «herori»; **ithán**, 'tique'; **itzán**, **üháitz**, 'rivière'; **ziháũ** (= zeroni). Gauza bera gertatzen da funtsean bi hauetan: **asmülúz**, 'qui a l'esprit lent'; **mezasái** (= mezasari). Eta, zenbait aldiz, eskuineko elemendua oxitonoa eta ezkerrekoa silababakarra direnean, (M+1) gerta daiteke: **basollár**, **bastorráztz**, **erthohán**, ert-, 'à moitié gratuitement'.
- 5.4.3.1.6.1. Bi osagaiak silababakarrak direnean, azentu-bimorfismoa sor daiteke: **hánbat** = **hanbát** (Larrask., Dict., 121).
- 5.4.3.1.7. Badira, era berean, *azentudun atzizkiak*; eta hauen bidez ere, oxitonoak sortzen dira: **-(d)ói**, 'multitude'; **-géi**, 'intention'; **-gũ**, edo **gia**, 'endroit'; **-ká(r)i**, 'amateur de'; **-khói**, 'qui aime un aliment'; **-kór**, 'facile à'; **-ñí**, 'diminutif'; **-(t)ár**, 'originaire de'; **-tiár**, 'attaché à'; **-tzár**, 'grand, fruste'.
- 5.4.3.1.8. Badira ere, azkenekorik, jatorri iluneko oxitono batzu: **axól**, **barné**, **esné**, **igél**, **ixkér** (= ezker; vs. **íxter**, iztar); **orráztz**, **phitxér**.
- 5.4.3.2. Salbuespenak salbuespen, oxitonoak ia beti dira: *diptongatuak edo integratu gabeko mailebuak*. Gainerako euskalkietan bezala. Gainerakoetan, gaur bederen, hauxe da legea: (-2).
- 5.4.3.3. *Singularra*, beraz, (-2). Oxitono markatuak ere bai: **axól**, **axóla**.

Baina /a/-z bukatuek, *oxitonia* ematen dute: **alhába, alhabá.**

- 5.4.3.3.1. Halaz ere, zalantzak gerta daitezke zenbait kasutan: **féde, *fedía, ala féde, fédia; bóto, *botúa, ala ala bóto, bótua; sórho, sorhúa; ala sórho, *sórhua.** Berriro ere markatuak/ ez-markatuak ditugula dirudi. Hots, zubereraz, (M-2) markatu horiek ez dira hiztegian ezagutzen; berez, zubereraz, *edozein* hitz baita paroxitonoa ((M-1) ez den ber).

Honek azterketa berezia mereziko luke; eta guk hemen beste batetara-ko utziko dugu.

Badirudi **bóto, báke**, (M-2) markatuak direla; baina **sórho, étxe, zübü, éskü**, eta abar, eta *gehienak* dudarik gabe, markatu gabeak dira, eta, hitz-entzerraren arauera, azentua mogitu egiten da: **étxe, etxía, etxiák.** Eta hau idatz daiteke:

$$\text{RS-1)} \quad \begin{bmatrix} \text{V} \\ \text{-low} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{high}] / - \begin{bmatrix} \text{V} \\ \text{+low} \end{bmatrix}$$

Hots, hitza markatua denean, beste hau idatz daiteke:

$$\text{RS-2)} \quad \begin{bmatrix} \text{V} \\ \text{+high} \end{bmatrix} \rightarrow [- \text{syll}] / \begin{bmatrix} \text{V} \\ \text{+str} \end{bmatrix} - \begin{bmatrix} \text{V} \\ \text{-high} \end{bmatrix}$$

Eta, hortaz:

RS-1-aren arauera: **étxe, etxía;** baina:

RS-2-aren arauera: ***fédia** (= fé.di.a), **fédia** (= fé.dja)

- 5.4.3.3.2. Esan dugunez, **a + a = á** (RS-4)

Adibidez: **arrólla, arrollá.**

- 5.4.3.3.3. Zein dira (M-2) horiek? Hona hemen bakan batzu:

Silababikoak: **bóto, báke, lékhü** (nahiz Lafon-ek eta Larrasketa-k horrelakotzat ez jo); baina guk **lé.khjain** entzun dugu *So(r)hútan* (= lé.khuaren).

Trisilaboak: **an é(r)e, mintzáje, majastú(r)ü** (= maître).

- 5.4.3.3.3.1. Arrazoi *fonologikoengatik* (ezkerreko diptongoa) beste euskalkitan ere (M+1) agertzen diren hitz batzu: **áize, áizo** (= auzo, hauzo); **maíte, náusi.** Edo-ta, mailebu berri izanik, erdaratikako azentu gogorra bere leku zaharrean daukatelako: **débrü.**

- 5.4.3.3.3.2. Lehenengo osagaia *silababakarra*, eta bigarrena oxitono markaturik ez duten hitz elkartuek ere, (M-2) diren unirateak ematen bide dituzte: **arthálde, bithárte, bürhézür** (ikus 3.3. kapitulua hasperenketa hori ulertzeko), **dallárri**, 'pierre à aiguiller la faux'; **erkhále**, 'qui sent les douleurs de la parturition'; **etxálte, ostádar.**

Larrasketa-ren Gramatikaren bitartez jakin daitekeenez, multzo horri berari ere dagokio **eskáratz** hitza, 'pièce à l'entrée de la maison» (ik. Le Basque Souletin, 57-58); agian konposatua ere: ets(e) + garatz?.

Hirusilabiko hauen multzo azkarra ikusita, beste euskalkietan gertatzen den (+2) joeraren oihartzunaren aurrean ez ote gauden galdetzeko arrazoiak daude.

Lexikalizazioa oso aurrera joan ez den kasuetan, zalantzak izan daitezke: **lanlékhü** (azentu bat); **lán-lékhü** (bi azentu).

- 5.4.3.4. *Pluralean*, hitza markatua ez den ber, *paroxitonia*: **étxe, étxiak; álhor, alhórrak**. Nahiz **báke, bákiak**; baina, goranzko diptongoa dela-ta, (-2) ere bai.

Bi salbuespen:

- 5.4.3.4.1. Berezko /a/ dutenen kasoa: **alhába, alhabák; arrólla, arrollák**. Ergatibo singularra eta nominatibo plurala, homofonoak dira.

- 5.4.3.4.2. Zenbait zuberera-motatan (baina ez denetan, eta ez *Urdáts*-en bereziki), ondoriozko oxitonoak gerta daitezke: **besóak, besúak, besúk; etxéa, etxiak, etxík**.

Hitz batez:

RS-3) $\left[\begin{array}{c} \text{V} \\ \text{-high} \end{array} \right] \rightarrow [\emptyset] / \left[\begin{array}{c} \text{V} \\ \text{+high} \end{array} \right] - C$

- 5.4.3.5. *bat*-etiko mugagabeetan ere, (-2) erregela erabiliko da; hitza markatua ez den ber: etxe+bat = **etxébat**; gizun+bat = **gizúnbat**. Baina náusi+bat = **náusibat**. (Nahiz, analogiaz, paraxitonoa ere posible izan). ezkáratz+a = **ezkáratza**.

- 5.4.3.5.1. *Leku eta pertson izenak*.

Paroxitonia hazkorrak bere eragina du gaur honetan ere; baina, orain arte bederen, hauxe izan da joera: arrazoi fonologikoengatik (= diptongo behehazkorra eskuinean) ez izatekotan, azentua (-2). Adibidez: **Bar-kóxe, Alzürükü**; areago: **Máule**. Baina: **Alzái, Úrrüstói, Bidáu**. Eta bide beretik hitz-elkartuetan, bigarren osagaia, berez edo ondorioz, silababakarra denean: **Etxalúz, Etxahún**.

- 5.4.4. *Deklinabidea*. Euskal «deklinabidea» bi partetan zatitzen badugu: «kasuak» batetik, eta «lekutasunezkoak» bestetik, lehenengoetan azentuketa *paradigmatikoa* da. (Plurala ere bai; baina hau berez azertuko dugu). Adibidez:

Mugagabea: **sórho, sórhok, sórhorri, sórhoz, sórhoren, sórhoreki, sórhorik** (/r/ horiek erori egiten dira ahoskera eskuarrean).

Singularra: **sorhóa, sorhóak, sorhóari, sorhóaz, sorhóaren, sorhóareki**.

Ekialdeko euskalkia denez, antzinako *ageC multzoaren laburketak, /é/ eman du kasu hauetan:

Plurala: **sorhóak, sorhoéék, sorhoér, sorhoéz, sorhoén, sorhoéki.**

5.4.4.1. /r/ zubereraz ahoskatu ohi ez denez, ez dira forma horietzek entzuten direnak. Eta RS-1 eta RS-2 ere aplikatzen ote diren ikusi behar da. Adibidez:

	RS-1	RS-2	/r/ = Ø
sorho	sórho	sórho	sóho
sorhori	sórhori	sórhori	sóho.i
sorhoa	sorhúa	sorhúa	sohúa
sorhoak	sorhúak	sorhúk	sohúk, etab.

(Ikus N.5.4.4.2.).

Larrasketa-rengan garbi agertzen da paradigmaticotasuna; baina *L. Géze*-ren Gramatikan, eta *Mugagabea*n batez ere (gutxienik erabiltzen denez, analogiaren menpean erortzeko aproposena) paroxitonia hazkorrenen ondorioak agertu dira.

Hots, zalantzatan agertzen diren hitzak, *silababikoak* dira (beste euskalkietan bezala). *Silabakarrak* eta *trisilabikoak*, baita ahulena den mugagabea ere, markatu gisa bezin paradigmatico agertzen dira. Silabakarrak, (M+1) balira bezala; eta trisilabikoak (M+2) balira bezala. Eta hau oso sintomatikoa da; beste euskalkien oihartzuna baitakar.

Géze-ren Gramatikan, **gérren**, 12; **xóri**, 16; **ólo**, 17, eta **zélü**, 18, zalantzan agertzen dira; baina **lür** eta **hün**, 13 eta 34-35, (M+1) agertzen dira; eta **añhéra**, 14; eta **arétxe**, 15, (M+2) bezala (mugagabea dago-kionez).

Eskuineranzko lerraketa hori, bestalde, aurrerago joan da *Pettárran*, *Basabürían* baino; bere berritasuna saláruz (mendialdea isolatuago baitago, noski, ibaiondoko biarnes zelaiak baino). Adibidez: **herríalàt**, Basab.; vs. **herrilát**, Pett., Barkóxen (ik. *Larrasketa RIEV* 1932, 116). **Herríalàt** singularrean, oinarritzko **herría** dago; baina **herríalàt**-en ez.

5.4.4.1.1. Honi buruz, dena dela, ohargarria da silababakar berezi batzurekin gertatzen dena. **Bát**, adibidez, (M+1) markatu gisa erabiltzen da (nahiz azkeneko urteotan, analogiaren eraginez, paroxitonia orokorra nagusituz joan).

Diptongozko silababakarrak, markatuago dira, nolabait esateko, besteak baino: **háur**, **déi**, **láu(r)**. Baita mugagabeak ere: **nú(r)**, **zé(r)**, **zúñ**; eta erakusleak: **hún-**; **hórr-**; **há(r)-**.

5.4.4.2. *Lekutasunezko* kasuetan, orain arteko ustekeriak agertzen dira:

Mugagabea: **sórhótako, sórhótàrik, sórhotan, sórhotàra;** (eta, beraz, azalean, sóhotàko, sóhotàik, sóhotan, sóhotàa) (edo-ta, -rát).

Singularrean: **sorhóko, sorhórik, sorhóan, sorhóala,** osoki paradigmátikoa (azalen, **sohóko, sohó.ik, sohún, sohúla**). Ik. RS-1,2, eta /r/ren ezabaketa.

Pluralean: **sorhóetako, sorhóetàrik, sorhóetan, sorhóetàra.** (azalean, **sohútako, sohútàtik, sohútan, sohútàa**).

Laburketa-bidezko /é/ azentudunak *ez ditu lekutasunezko kasuak iristen*. Bestela esanda (eta bizkaieraz ere susmo hau bagenuen) *lekutasunezko kasuetan ez da inoiz egon -ageC multzorik*.

Uste izaten denaren *aurka*, beraz, inesiboan eman dezagun, hua dugu: **sórhotan** (ik. **sórho**); **sorhóan** (ik. **sorhóa**), eta **sorhóetan** (ik. **sorhóak**). Eta ez ***sorhoétan**, nahiz **sorhóek, sorhoén, sorhoér**, etab.

Eskuin alderako lerrakuntzaren frogak daude: **mintzáje zaharrín** (Larrask., RIEV 1931, 5). Honen atzean hau dago: **zaharréan;** vs. **zahár-ra, zahárrean**.

Gauza bera esan daiteke oriango **bihotzín**, eta gainerakoez: eskuine-ranzko lerraketa horiek, 'berriak' dira.

(-2) bigarrenkaria dela-ta, forma hauek ditugu kontsonantez amaitutako unitateetan:

Muggb.: **bihótzetako, bihótzetàrik, bihótzètan, bihótzetàra.**

Sing.: **bihótzeko, bihótzerik, bihótzean, bihótzeala.**

Plur.: **bihótzetako, bihótzetàrik, bihótzètan, bihótzetàra.**

Eskuin alderako lerrakuntza dela-ta, jatorrizko azentuari ondoriozkoa nagusitu, eta hauek ditugu: **bihótzetako, bihótzetàrik, bihótzètan**, etab.; eta hauetan ez da paradigmaticotasuna garbi somatzen.

Bihótzean, bihótzeala, berriz, eskuineko laburketa delata, maiz entzun daitezke honetara: **bihotzín, bihotzila**.

Baina hitza, diptongoa dela-ta markatua bada, azentu nagusia dipton-goan gelditzen da: **üháitzila**, nahiz **üháitzeala** hor egon. Gauza bera: **lánin** (= lánen); eta ez **lanín**.

5.4.4.2.1. **Bát** silababakarra markatua izan da gaur arte: **bát, bátek, báti, bátez, báten, báteki, bátetako, bátetàrik, bátetan, bátetàra** (Ik. Larrasketa, «Dict.»).

Baina horri piskanaka beste hau nagusitzen ari zaio: **bát, bátek, báti, bátez, báten**, berdin; baina **batéki, batetako, batetàrik, batétan, batetàra**. (J.L. Davant, Ürrüstói).

Ziur da orokorkuntza *berri* baten aurrean gaudela. *Intxauspe*-ren luman (XIX. mendean; ikus 'Euskera' 1957, 181), inesibo hauxe agertzen da: **bátetan**. Hots, handik 50 urtetara, *Larrasketaren* lanetan hauek ditugu: **kantú batétan**, RIEV 1931, 7. Eta *Gavel*-ek bururutako inkestan (Euskera 1957), hauek ditugu: **méndi batétan**, 301; **égün batétan**, 311.

- 5.4.4.2.2. Eboluzio berbera aurkitzen dugu silababakarretan: eskuineko azentu bigarrenkaria, ezkerretakoari piskanaka nagusitzen ari. Adibidez (RIEV 1932; 153): **hítzaen**, 'de la parole' (eta ez **hítza(r)en**; eta **hátsàen**, 'de l'haleine' (hau normala), baina paroxitoniaren lekuko (zergatik ez: **hátsaen?**).

Eboluzio berberaren lekuko da *Gavel*-en azentuketa (Euskera 1960, 298). *Intxausperen* grafiak ezkerretalderago agertzen dira.

- 5.4.4.2.3. *Géze*-k ere paradigmatico aurkeztu zuen *Máule*-ren azentuketa: **Máule**, **Máulek**, **Máuleri**, **Máuleko**, **Máulerik**, **Máulen**, **Máulera**, diptongo hori dela-ta hitza garbiki (M+1) markatua delako; baina *Baiuna* (Báiu-na, teorian). paroxitono agertzen da: **Baiúna**, **Baiúnak**, **Baiúnari**, **Baiúnan**; baina **Baiunáko**, **Baiunárik**, **Baiunára**. (*Larrasketak*, dena dela, *Géze*-ren aurka, **Baiúnako** forma eman du).

Larrañe-tik, era berean, **Larrañeko** espero daiteke; baina analogiazko **Larrañeko** ere entzun daiteke gaur, paradigmaticotasunaren kontra.

- 5.4.4.2.3.1. Paroxitoniaren orokorkuntza *moderno* hori dela-ta, nabarmen dago *Gavel*-en berri-emaileen arteko desberdintasuna. Batak **Errumáko** berriantxa ahoskatzen badu (Euskera 1957, 315), besteak **Errúmako** paradigmaticoa du ahoskatzen.

Larrasketak berak (ikus «Beñat», RIEV 1931), bere araukiko kontraesanean abiatzen da: **Barkoxéko**, berria, 5,7 // vs. espero geneza-keen **Barkóxeko**. Bide beretik: **batéki**. vs. **báteki**.

Sistemaren higadura ez da, dena dela, guztizkoa; Sohütako A. Hegiaphal-en hizkeran paradigmaticotasun hori bizi-bizirik baitago lekuizenetan: **Lígiko zúbía**, **Barkóxeko**, **Lígi(r)ik**, **Izábako**, eta abar.

- 5.4.4.2.4. Adjektibo *mugagabeek* eta *erakusleek* ere, maiztasun handikoak direnez, analogiaren kontrako ihardukiera dute, eta ia-ia erabat paradigmatico agertzen dira. Adibidez: **háu**, **húnek**, **húni**, **húnez**, **húneki**, **húnen**, **húntako**, **húntan**, **húntara** (nahiz, batzutan, **hunéki**, **húntáko** eta **húntára** paroxitonoak posible izan).

Pluralean hobeki atxekitzen bide zaio paradigmaticotasun horri; **hóik**, **hoiék**, **hoiér**, **hoiéz**, **hoién**, **hoiéki**; are ondoko hauek ere, teorian ez oso seguruak: **hoiétako**, **hoiétarik**, **hoiétan**, **hoiétara**.

- 5.4.4.2.5. Azter dezagun orain **zúbü** hitza (Larrask., 61-62). Mugagabea: **zúbü**, **zúbük**, **zúbüri**, **zúbuz**, **zúburen**, **zúbüreki**, **zúbürik** // **zúbütáko**, **zúbütá-**

rik, zúbütan, zúbütàra. Beti bezala, -2 silaban segmenturik dagoenean, eta ezkerretako tartea 2 denean batez ere, azentu bigarrenkaria ager daiteke.

Singularra: **zúbía, zúbíak, zúbíari, zúbíaz, zúbíaren, zúbíareki** // **zúbúko, zúbúrik, zúbían, zúbíala.** Paradigmatikoa, berriz ere; eta i/ũ alternantzia oso adierazgarria delarik.

Plurala: **zúbíak** // **zúbíék, zúbíér, zúbíéz, zúbíén, zúbíéki** // baina, kasu honi: **zúbíetàko, zúbíetàrik, zúbíetan, zúbíetàra.** Garbi gelditzen da, berriz ere, nominatiboa eta lekutasunezko kasuak batetik, eta ergatibotik komitatiborainoko kasuak bestetik, *bi sail desberdin direla.* Eta, hitz batez, /é/ markatuak *ez dituela lekutasunezko kasuak iristen.*

Honek, jakina, beste honetara garamatza: Mendebaldeko euskalkietan, eta *bizkaieraz oso bereziki*, pluralari datxekion ezkerrean zko lerraketak (geminatu zahar horretan sortua) ez lituzke ikutu behar nominatiboa eta lekutasunezkoak. Bestela esanda: **arának, áranak** (erg. pl.), **áranai, áranez, áranen**; baina, berriro ere, **aránetako, aránetatik, aránetan, aránetara.** Datibo pluralari dagokionez hau erraz xamar froga badaiteke ere, nekez froga bide liteke gainerakoetan gaurko hizkeraren bitartez; baina apostua hor dago.

5.4.4.2.6. (M-1) markatutako leku-izenetan, jakina, azentuak ez du silaba aldatzen: **Alzái / Alzáik, Alzáiri, Alzáiz, Alzáiren, Alzáireki, Alzáiko, Alzáirik, Alzáin, Alzáira.**

5.4.5. Aditza ardatzezko azentu-unitatea.

5.4.5.1. *Aditz-izenaren azentuketa* paradigmaticoa da; nominatiboan, beti bezala, oinarrizko azentua, markarik ez dagoen ber (diptongo beheranzko edo mailebutza berria), (-2) dela. Paroxitonia hazkorren eragina nabarmen dago, dena dela.

a) ezkerretako silaba *diptongatua* denean, unitatea (M+1) markatua da: **pháusatze / pháusatzeko, pháusatzeti, pháusatzen, pháusatzera.** Baina **ükhéite**; eta **emáite, epháite, egóite, erháite, ethéite, erráite** (erhan: hil, erg.). Diptongo horietan (+2) silaban dago (alegia, (-2) ere, atzetik kondatuz gero).

b) erroa *silababakarra* denean, unitatea (M+1) markatua da: **hélitze (hélitzeko, hélitzeti, hélitzen, hélitzera)**; eta, bide beretik: **jáite, jíte, gáltze, bíltze, háste, húntze.** (Ikus, batez ere, *Intxauspe*-ren «Le Verbe Basque» ikerlana).

c) bigarren silaban (+2) diptongo *beheranzkorik* ez dagoenean, aditz-izena ez dago inon markatua; eta paroxitonia aisa nagusi dakioko berezko azentu-molde zaharrari: **abiátze / abiatzéko, abiatzétik, abiatzen, abiatzéra** (ik. *Intxauspe*, berriro ere).

d) **izan** aditzetik datorren **izáte**, markatua da: **izáteko, izátetik, izáten, izátera**. (Agian, auzo-euskalkien **izáite** diptongatuarekin lotua).

5.4.5.2. *Partizipioak*, beren soilean, *paroxitono* dira eskuarki: **hási, eskéntü, enthelegátü**.

Baina, berriro ere, aditz-erroaren fonologiaren arauera deklinatzen dira:

a) *erroa silababakarra* denean, partizipioa (M+1) markatua da: **hártü / hártüren, hártüko, hártürik; járrü / járrüren, járrüko, járrürik; gáldü / gáldüren, gáldüko, gáldürik; gáiztü / gáiztüren, gáiztüko, gáiztürik**.

b) espero zitekeenaren aurka, eta gaurko zubereraz bederen, silaba diptongtuak ez bide dira gauza paroxitoniaren hedakuntza gelditzeko: **háita / haitátü, haitatüren, haitatüko, haitatürik**. Ez ote da gaur beste sail hau entzuten: **háitatü, háitatüko, háitatürik**. Ez dirudi.

c) inolaz markaturik ez dauden partizipioetan, beraz, paroxitonia aurkitzeko joera dago: **ébül / ebüli, ebilüren, ebilüko, ebilürik; áhätz / áhátze, áhätzéren, áhätzéko, áhätzérik**.

5.4.6. *Laguntzaile silababakarrak*, hitanozkoak ez direnean, klitiko agertzen dira: **niz, (h)iz, da, dük, dün, düt, dit, zü** (= düzü).

Unitate bakar horretan eskuineko *azken* silaba hartzen dutenez, eta euskalki honetan azentu nagusia (diptongorik ez badago) (-2) izanik, *azenturik gabe* gertatzen dira: **núnda?, hóndu?, beráda, othéda, arída, behárda, emándü, ustédü, nahídü, jakíndü, ükéndü, nahízü**.

Kasu horietan guztietan, silababakarra erantsirik, azentu-unitate *bakar* bat eratzen da; eta, horren barruan, osagai markaturik ez dagoenez gero, paroxitonia erasten zaio. Honek ezkerretako *osagaiaren* azentulekugunea aldarazten du: **béra, berá** bihurtzen da; **éman, emán; jákin, jakín**; etab.. Zubereraz, hortaz, gainerako euskalkietan bezala, elementu batek, *markatua ez den ber*, azentua non daraman galdetzeak *ez du funtsik*. Zubereraz, ikusten dugunez, *eman* hitzak **éman** har dezake, edo **emán**. *Segun-eta unitatearen barruan zer posiziotan dagoen*.

5.4.6.1. Lehenengo osagaia, honegatik edo hargatik, *markatua* denean; orduan termino markatu horrek inposatzen du moldea unitate osatuan ere. Adibidez: **sóρθüda** (ikus **sór** silababakarra); **máitedüt** (**máite**, M+1, dipt.); **gáldüdü** (**gál**, silababakarra); **hártüdü** (**hár**); **hásida** (ik. **hás**); **hás-tenda** (ik. **hás**).

Gauza bera unitate luzeagoetan: **emáitendü** (/mái/); **tipiñízü** (/ñí/, markatua). Baina **hunkitzéndü** (nahiz **hunkitzen**).

5.4.6.1.1. Hortixek heldu da, zubereraz bigarren pertsonen /h/-aren galtze sistematikoa; batez ere plegu honetako kasuetan: **izániz** (= izan+(h)iz); **hiz** hori garbiki hemen klitikoa eta azentu-ondokoa baita.

5.4.6.2. *Azentudun silababakarrek*, aldiz, bai diptongoz bai laburketaz, ez dira *klitiko gisa* erasten; beste azentu-unitate bat eratzen dutenez gero. Adibidez: **záit, zén, dén, déit, nín, zín, (h)áit, dík, dín, zía, náí** (= nau), **diát**.

Adibidez: **úste diát**, bi unitatetan (eta ez*ustédiat; nahiz **ustédü** posible izan).

Silababakarren arteko desberdintasun hori (azentudun markatuak, vs. azentugabe klitikoak), garbiki agertzen da ondoko adibideetan (*Larras-keta-gandik hartuak*, 162-164): **úkhéndut, úkhéndü, úkhéntzü**; baina **úkhen nín, úkhen zín, úkhen gúnín**.

5.4.6.3. Forma polisilabikoak, eskuarki, *paraxitonoak* dira; baina azentu-marka, horrela ez izatekotan, elementu hauetatik etor daiteke:

- a) beheranzko diptongoa;
- b) laburtutako bokalea;
- c) azentudun atzizkia.

Adibidez: **-(y)á** eta **-ñá**, bigarren pertsonetan, ergatiboa edo datiboa. **-ó** eta **-é**, 3.perts. dat., seg. eta pl.;

-é, 3. perts. aniztailea.

Azter dezagun orain aditz-joko sail hau:

nüzü	(-M) (-2).....	núzü
düzu	(-M) (-2).....	dűzü
hitzait	(+M)	, dipt	hitzáit
nitzaik	(+M)	, dipt	nitzáik
gitzok	(+M)	, 3. perts. dat	gitzók
zaitzo	(+M)	, dipt. eta 3. perts ...	záitzò
nitzain	(+M)	, dipt	nitzáin
dezan	(+M)	, erg. 2. perts	dezán
dezan	(-M) (-2).....	dézan
bahü	(-M) (-2).....	báhü
baheit	(+M)	, dipt	bahéit
baheio	(+M)	, dipt., ba.hei.o.....	bahéiò
emon	(+M)	, dat. 3. perts	emón
emen	(+M)	, dat. 3. perts. pl	emén
hakio	(+M)	, dat. 3. perts	hakió
hakie	(+M)	, dat. 3. perts. pl	hakié

nitzaio	(+M)	, 1/ dipt / tzaí /;	
		2/ dat. 3. perts	nitzáio
zitzaikü	(+M)	, dipt	zitzáikü
(h)izate	(+M)	, /zá/ mark. lab	hizáte
nükezü	(-M) (-2).....	nükézü
hintzeitan	(+M)	, dipt	hintzéitan
zintzeiztan	(+M)	, dipt	zintzéiztan
ginen	(+M)	, laburketa.....	ginén
hakit	(-M) (-2).....	hákit
henkhidan	(-M) (-2).....	henkhídan
zeitadan	(+M)	, dipt	zéitadan
nintzeia	(+M)	, dipt	nintzéià
		(2. perts., dat)	
nintzeña	(+M)	, berriz ere bi aldiz:	
		1/ dipt. /tzéi/	
		2/ dat. 2. perts	nintzé(i)ñà
gintzeizon	(+M)	; 1/ dipt.....	
		2/ dat. 3. perts	gintzéizón
dikeñat	(+M)	; dat. 2. perts	dikeñát
hakigü	(-M) (-2).....	hakígü
nintzeikeña	(+M)	; 1/ dipt.....	
		2/ dat. 2. perts	nintzéikeñà
zintzaikegüzie	(+M)	; dipt	zintzáikegüzie

Ikus daitekeenez, *azentua beti (-2) dela esatea, faltsua da*: oxitonoa ere izan daiteke; are proparoxitonoa ere: **zéitadan**.

5.4.6.4. Silabaketari buruzko ohar garrantzitsu bat.

Edozein unitateren silabakuntzarakoan gogoangarri. *VyV* multzo fonetikoaren azentuketa ulertzeko, *Vj.V* silabakatu *behar da*. *V.jV* silabaketak ez du azentua azaltzen. *Hortaz, baita zubereraz ere, goranzko diptongoek ez dute antzinatasun handirik.*

Esate baterako: **hitzaio**. **hi.tzai.o** silabatu behar da, eta ez **hi.tza.io** (hi.tza.yo, nahi bada).

Froga dezagun hau morfema batzutan.

deiozü.

***de. yo. zü** balitz, (M+1) markatua litzateke: dat.

3. perts., eta (-2). Beraz, ***deyözü** genuke.

Hots, *Larrasketak* **déiözü** dakar. Eta, beraz, silabakuntza hau da: **dei. o. zü**. Diptongoa aurrenik, eta dat. 3. perts. bigarrenik: **déiözü**.

nitzaiela.

***ni. tza. ye. la** balitz, marka bakarra dat. 3. pers. litzatake, eta *nitzaiéla genuke. Hots, *Géze-k* **nitzáíela** dakar; eta *Larrasketak*, **nitzáíela**. Beraz, **ni. tzai. e. la** da: 1/ diptongoa; 2/ 3. pers. dat.; eta **nitzáíela**, beraz.

5.4.6.5. Interesgarri da aditz-joko *normalen* (alegia, 2. perts. dat. gabeak), eta *hitanozkoen* artean (dat. 2. perts., **-(y)á** edo **-ñá**) dagoen azentu-desberdintasuna azpimarratzea eta azaltzea. Hots, bigarren sailekoak *oxitono markatuak* dira; baina lehenengokoak ez.

die	(-M) (-2)	díe (= dute)
die, hitan.	(+M)	laburk. diá-e	dié (= diate)
nindoan	(-M) (-2)	nindóan
nindoa(n)	(+M)	dat. 2. perts.	nindoá
zoan	(-M) (-2)	zóan (= zihoan)
zoa(n), hit.	(+M)	dat. 2. perts.	zoá
dakit	(-M)	(nik) dakit, (-2) ...	dákit
dakiat	(+M)	hitan., 2. perts. ...	dakiát
dakik	(-M)	(hik), (-2)	dákik
dakik	(+M)	hitan., dat. 2. perts.	dakík (hark zekik)
nütian	(-M) (-2)	nütían (= nituen)
nitia	(+M)	dat. 2. perts.	nitíá (= nizkian)
günian	(-M) (-2)	günían (= genuen)
günia(n)	(+M)	dat. 2. perts.	güníá (= genian)


Egoera beti horixe izanik, hitanozko aditz-jokoetan sekulako oxitono-piloa dago zubereraz.

5.4.6.6. Zubereraz, hortaz, hitanozko formak oso desberdinak dira: alde batetik *oxitoniak* berezten ditu eta bestetik /n/ rik ezak.

Hots, *bizkaieraz ere hori da egoera* (ikus Pujana, bereziki, Araba-ko euskarari buruz).

Eta aspaldian ere horrela zela badakigu.

5.4.6.7. Beste alde batetik, eta azentuari dagokionez, halako disimilazio atzera-karia bezala dugu zubereraz:



eta oxitono bigarrenkariak sortzen dira. Adibidez: *nintzoá baldin badugu, azentua *eskuin* aldera doa Zuberoan: **nintzoá**.

Bide beretik: **deiat**, eman dezagun, eta ikusi dugunez: 1/ diptongoa; 2/ 2. perts. **á** hori. Beraz: **deíat**.

Hots, gero eta maizago, aipatutako lege hori dela-ta, eskuin aldera ler-ratu, eta: **deíat**.

Hona hemen *Larrasketa*-gandik hartzen ditugun adibide hauek:

déiòla	deióla	deóla
déièla	deiéla	deéla
déiuàla	deiuála	deuála

5.4.6.8. *-te*-ren ondoren datorren *-ke* atzizkiak, extrametrikoki dirudi, eta ohi dakar azentu-aldaketarik: **dáte** / **dáteke**; **nizáte**, **nizáteke**; **giráte**, **giráteke**; **lizáte**, **lizáteke**.

Badirudi /á/ hori laburketa baten ondorio dela, eta markatua, beraz: **dátenian** (eta ez *datenían); **lizátekealako** (+2 eta -6...), eta ez, halere, *lizatekealákoz.

5.4.7. Jokatutako adizkiari ohizko aditz-atzizkietakoren bat darraikionean: *-(e)n*, *-(e)la*, *-(e)lako*, *-(e)larik*, *-(e)nean*, hona hemen azentubidea aldatzen duen lehenengo fenomenoak:

$$i \rightarrow j / \text{---} V C$$

Adibidez: *düzíe+n* = **düzjén** (= dü. zién); *díe + lako* = **djélako** (1/ dat. é; 2/ (-2)); *are*, eskuineranzko lerrakuntzaz: **djeláko**. (kontutan har: *-en* eta *-elako*).

Ikus ditzagun orain adibide batzu, gorago emandako lehentasun-ilara kontutan hartuz:

nizaneke (-M)	(-2)	nizanéko
deneko (+M) laburketaz ..		déneko
dianeko (+M) 2. perts		diánèko
deizüneko (+M) dipt		deízünèko
nizalarik (-M) ... (-2)		nizalárik
deiodalarik (+M) dipt		deíòdalarik
			(<i>Intxauspe</i> : deíodalarik)
dialako (+M) dat. 2. perts ..		diáláko

düdalakoz (-M) (-2) **düdalákoz**
 naianez (+M) dipt **náianez** (Intx.)

(Berriro ere: *na.ya.nez silabakatuz gero, *nayáne z genuke)

deitadanez (+M) dipt, **déitadáne z**
 (Intx. **déitadanez**)

düdano (-M) (-2) **düdáno**
 delakoan (+M) laburketa ... **délakòan**
 nizanean (-M) (-2) **nizanéan**
 (baita **nizanían**, eta **nizanín**)

düdanean (-M) (-2) **düdanéan**
 (baita **düdanían** edo **düdanín** ere)

denean (+M) laburk **dénean**
 (edo **dénian**, **dénin**)

zenean (+M) gauza bera **zénean**
 (edo **zénian**, **zénin**)

nitzaiola (+M) 1/ dipt.
 2/ dat. 3.
 perts **nitzáiòla**
 Gèze-k: **nitzáiòla**.

Silabaketa beste hau balitz: *ni.tza.yo.la, hau genuke: *nitzaióla.

nitzaikeziela (+M) dipt. **nitzáikezièla**

5.4.7.1. Ikusiaz joan garenez (*Gèze-Intxauspe*-ren azentuketatik, joan den mendean; *Larrasketa*-renera, mende honetan), aditz-formetan ere, berriantxa da paroxitoniaren hedapena; eta oro har, ez da inoiz azentu-unitatearen *fonologi eta silaba egituraren gainetik* nagusitzen. Dip-tongo goranzkoa, bestalde, ez dago sustraitua.

Hona hemen bikote sail hau, dena dela:

<i>Intxauspe</i> , 27	<i>Larrasketa</i> , 130
nitzáizie	nitzáizie
záizie	záizie
gitzáizie	gitzáizie
záitzie	záitzie
nitzáio	nitzáio
záio	záio
beitéitzegü	beitéitzègü
hintzáikegü	hintzáikègü

Aipagarri agertzen ez zen paroxitonia, mende honetan transkribatu egiten da.

Beste adibidetan ikusi dugun eskuinaldeko lerrakauntzaz gain.

- 5.4.8. **ba-** (baiespena) eta **ez-** (ezespena) aurrizkiak *klitiko* dira; eta, hortaz, normalean *azenturik ez dute* hartzen (silababakar ez-markatu baten ezkerretan ez gertatzekotan). Adibidez:

badakit (-M)	(-2)	badákit
eztakit (-M)	(-2)	eztákit
badakiat (+M) 2. perts	badakiát (3. sil.)
ehait (+M) dipt	eháit (= ez haut)
badit (+M) 2. perts	badík
enük (-M)	(-2)	énük (= ez nauk)
bada (-M)	(-2)	báda

Interferentziaz pentsa daitekeenaren aurka, berriz ere, zubereraz *ba-* eta *ez-* klitikoak dira; eta unitate silababiko berezi batzutan saibu, ez dute azenturik eramaten.

- 5.4.8.1. Gauza bera gertatzen zaie baldintzazko *ba-*ri, *ai(t)-* botiboari eta *be(it)-* ondoriokariari. *Ez dira markatuak*; ezta azkeneko bi hauetan diptongoa egon:

baginaki (-M)	(-2)	bagináki
balire (-M)	(-2)	balíre
(baldin) bada (-M)	(-2)	báda
aikünü (-M)	(-2)	aikünü
aiheza (-M)	(-2)	aihéza
beniz (-M)	(-2)	béniz
behiz (-M)	(-2)	béhiz

Azenturik gabeko /h/ horiek (**béhiz**, kasurako) azentu-mogimendu 'berri' baten aztarnak dira (Ikus 3.3. kap.).

- 5.4.8.1.1. Gauza berbera esan daiteke **ezpa-** eta **ezpe(it)-** aurrizkiez konposatuez, beroiek *markagabe* agertzen baitira:

ezpeitüt (-M)	(-2)	ezpéitüt
ezpadin (+M) dat. 2. perts	ezpadín
ezpazeneit (+M) dipt	ezpazeneít

Edo-ta, *Gèze*-ren sail oso hauetan ongi ikus daitekeenez: orainaldian: **béniz, béita, beikíra, beitzíra, beitziraié, beítíra.**

iraganald.: **beníntzan, beitzén, beikinén, beitzinén, beitzinién, beitzirén.**

- 5.4.8.2. *Entonazioak* (agintekerazkoak, batez ere) unitate baten jatorrizko azentua alda dezake. Esate baterako: **zoazté!** (*Gèze*, 5); ohizko paroxitoniaren aurka. Ik. N.5.4.8.2.

Intxauspe-ren adibide batek (Le Verbe B., 38) argitzen du esandakoa:

joánda (= joan da), *da* klitikoa da, eta azentua (-2).

joan dá?, galdera gisa, eta goranzko entonazioan.

- 5.4.9. Errelatiboa duten elementu *deklinagarriak*, jatorrian dauden aditz-elementu arauera, azentudunak dira, ala azentugabeak.

düdána, eman dezagun (-M, eta -2). Lekutasunezko kasuetaraino, azentuari eusten dio: **düdána, düdánaren, düdánari**, etab., paradigmatikotasunean. Baina, aurrerago, **düdanétik, düdanían, düdaníala**, etab. (Ik. *Intxauspe*, 427).

- 5.4.9.1. Diptongoz edo laburduraz *markaturik* gertatzen diren errelatiboek, berriaz, marka daraman silaban eusten diote paradigmatikotasunari: **zéio-na / zéionak, zéionari, zéionareki, zéionean**, etab.. Bide beretik **déna, zéna**, beraz, laburduraz markatuak.

- 5.4.9.2. *Soilik* erabiltzen diren elementuek (konjuntzio, adberbio, etab.), fonologiaz edo mailebutasunez markatuak ez diren ber, (-2) silaban hartzen dute azentua. Adibidez:

agin (+M) laburd **agin** (= agian)

arauz (+M) dipt **aráuz**

prefosta (-M) (-2) **prefósta**

edo (-M) (-2) **édo**

baldin (-M) (-2) **báldin**

gisala (-M) (-2) **gisála**

arrunt (+M) mailebu
berria **arrúnt**

bethi (-M) (-2) **béthi**

(azentu hau berriantxa da; ik. 3. 3.)

Oharrak

- N.5.4.2. Gaztelaniaren kutsuko azentu paroxitono nagusi horrek (gaztelaniaz ez da paroxitonoetan marka diakritikorik erabiltzen), harritu egiten gaitu euskal «mendebaltarrok». Ekialdeko azentu-mota honetaz mintzo, «extraño acento en la penúltima sílaba» aipatzen zuen *Azkuek*. Eta *Mitxelena*-k berak, Hizkuntzalaritzaren alorrean baliio-irizketak egiteko uzkur ibilita ere, Hego nafarrera garaiari buruz mintzo delarik, hau idatzi du: «Para nosotros resulta más bien *extraño*: por decirlo de una manera más gráfica que exacta, cuando oímos hablar así, nos parece que la letra vasca lleva música romance» (Fon. Hist. V., 568).
- Dena dela, eta Gipuzkoatik eta Bizkaitik irten gabe ere, antzeko fenomeno harrigarriak seinalatu ditugu; baita *Larramendi*-ren luman eta gramatikan ere (ik. 4.1. eta 4.8. bereziki).
- N.5.4.4.1. Melodi-azentu horretaz hau dio *Larrasketak*: «(elle) est fixe dans la même forme phonologique».
- N.5.4.4.2. «Les mots souletins de plus de deux syllabes ont généralement *au moins un accent secondaire*, si l'on excepte ceux qui sont accentués sur l'antépénultième». *Larrasketa* 121.
- N.5.4.4.2.5. Puntu honi buruz, *Larrasketa* eta *Lafon*-en artean, desberdintasunak daudela dirudi. Bigarrenaren iritzi (ik. «Observations sur la place de l'accent... souletins, 637; Bibl.), oro har pluraleko datiboa eta tresnazkoa ez dira /e/ bokalean azentudunak: «ne portent l'accent que dans les thèmes en *-e* eta *-a*». Baina Lafonek berak aipatzen duen «recul de l'accent» delakoa (alegia, eskuin alderako aldaraketa), gaurko zubereaz nabarmen.
- Berak emandako adibideak, dena dela, **háurrer**, **háurrez**, 637, ez du agian ezer handirik frogatzen; **háur** lexema, hain zuzen, diptongatua eta hasperendua, (M+I) markatua izan daitekeelako (eta areago Basabürrian).
- Beste kasu batzutan «igeri» omen dabil azentua, beraren ustez.
- Leizarraga*-ren lekukotasunak, nolana ere, **-éz** azentudunaz (XVI. mendea), *Larrasketaren* azentu-bidea hobestera bultzatzen gaitu, azentu-puntu askotan batera baitatuz haren hizkera eta gaurko zuberera.
- Ikus, bestalde, 5.46 puntua.
- N.5.4.8.2. Kapitulu honetantxe barrena izan da aipatua behin eta berriz (baita alderdi fonetikoak ikutu dituen aurrekoan ere), *Larrasketa*-ren iritzi zubererazko azentuaren izari nagusia *maiztasuna* dela. Eta, esamesen aurka, gaztelaniazkoa bezain azkarra ez dela.

Bigarren puntu honi buruz, *H. Gavel*-en iritzia gogoraztea interesgarri izan daiteke: «Quant au souletin, il possède un accent tonique assez nettement caractérisé, bien que *sensiblement moins intense* que celui de la plupart des langues romanes»; *Eléments de Phon. B.*, 110.

Lehendabizikoari dagokionez, zubereraz gertatzen den fenomeno aipatzen du (egia esan, euskalki guztietakoa): ezinezkoa da elkarren segidan bi silaba azkar ematea; eta beste hauek ere aipatzen ditu: erritmoaren eraginez silaba-azentuaren ahulketa gerta daitekeela, baita ezabatu ere entonazioaren ondorioz.

Haren esanak hona aldatuz: «1/ *L'accent musical* basque souletin est un accent fixe, en ce sens que, dans une même région, un même mot le porte toujours sus la même syllabe, lorsqu'on lui donne sa pleine et naturelle émission. 2/ Ce n'est pas un accent fixe en ce sens que *le rythme de la phrase le fait-* ou au moins *peut le faire-* disparaître, dans les mots qui n'ont dans la phrase qu'une importance secondaire», *Acion de l'accent*, 48-49.

Ohar hau oso gogoangarri iruditzen zaigu.

6. Ortoepia Baturantz azentuaren mailan

6. Ortoepia Baturantz

- 6.1. Ezer baino lehenago hau gogorazi behar: hizkuntza berez eta funtsean *ahozko* kodigo bat denez gero, *Euskara Batuaren* proiektuak ere ezinbestean eman behar dituela *ahoskuntza arauak*; edo-ta, *Fonologia Batua* proposatu behar duela. Alegia, Batuaz mintzatzeko *kodigo* bat.

Kate segmentalari berari datxezkion arauak eman behar ditu, beraz: fonemen edo segmentuen balio fonetiko ertainak; gehi sandhi-ondoriozko soinu-aldakuntzak.

Eta kate horri lotuta dagoen kate edo izari *supra-segmentalari* dagozkionaz: labur esanda, *entonazioa eta azentua*.

Hots, sandhien gertaera bera, azentu-unitatearen arazoari hertsiki lotuta agertzen da; «barne-sandhi» noiz eta non dugun erantzun ahal izateko, aurretik «barne» hori noraino den zedarriztatu behar baitugu; alegia, azentu-unitatearen mugak non dauden, bai ezker aldetik, bai eskuin aldetik. Sandhiak mamitzen dituzten fonologi erregelak, behin eta berriz errepikatu denez, azentu-unitateen barruan beti betetzen bada ere, «kanpo-sandhi»etan normalean ez baitira bete ohi.

Euskara Batuarentzako Ortoepiaren aintzin-projektu xume honen barruan, dena dela, segmentuei berei zein balio fonetiko ertain eman dakiekeen ez dugu hemen aztertuko. (Ikus, honi buruz, egilearen «Euskal Fonologia»n, Bergarako Euskaltzaindiaren bileretan proposatu zen balio-saila, III Eraskina, 1978).

Azkeneko aldiz errepikatzeko: sandhi-bidezko aldakuntza fonologikoak noiz mamituko diren, eta noiz ez, erabaki aurretik, garbi jarri behar da azentu-unitatea nondik norainokoa den. Alegia, *klitikoak* zein diren.

Kapitulu honetan, euskalki guztiak kontutan hartuz, bai azentu-unitatea, bai klitikoan zerrenda, zehazten saiatuko garenez, kapitulu hau Fonologiaren *osagarria* da; baita *baldintza-garria* ere; azentu-unitatearen mugak ongi kontutan ez hartzekotan, berez egokiak diren erregela fonologikoek desbideraketa larritara eramanez baitezakete.

- 6.2. Euskara Batuan, hortaz, *azentu-unitatea* definitu ondoren, erraza izango da horren barruan *azentuketa* bilatzea: azentu-unitate horretan (+M) elementu *markaturik ez badago*, eta *entonazio* bereziak azentu-mogimendurik ez badu sortzen, euskal azentu-legea ezarri, eta kitto.

Eta, hau bai: euskaraz dauden *maiztasunezko* desberdintzaunak, gaztelaniazkoak baino aisa *txikiago* definitzen ditugularik.

- 6.2.1. Liburuan barrena eman diren arrazoiengatik, Euskara Batuaentzako eredutzat *Mendebaldeko azentu-bidea* hautatu behar dela iruditzen zaigu.

Honetara, **azentu-unitateari ezarriko litzaiokeen azentu-erregela nagusia hau izango litzateke: [+2, -1]; biotan ezkerraldekoa nagusi delarik, eta tartean ager daitezkeen azentu bigarrenkariak (oihartzunezkoak), oinen arauera definituko direlarik.**

Berriro ere: *plurala markatua* izango da izen silababakarren eta silababikoen kasuetan. Aditzean ere bide bera hauta liteke; baina arrazoi praktikoengatik ez da egingo: aditzetan, beraz, unitatea markatua ez den ber, [+2, -1]; gehi tartekoak, oihartzun bikotxien arauera.

- 6.2.2. Euskal *diptongo beheranzkoa* (edo *bokale-laburketa*) batetik, eta *erdararikako azentudun* silaba bestetik, maila bereko marka agertzen direnez:

a) azentuaren aldetik, maila bereko fenomenoak sortzen dituzte euskal *diptongoek eta laburketek*, eta erdal jatorrizko *silaba markatuek*;

b) bai *izenaireen* deklinabidean barrena, bai *adizkien* sailean ere, *paradigmatikotasuna* izango da gidari. Bestela esanda, izenaren deklinabide-*atzizkiak*, bai aditz-*atzizkiak* ere, honegatik edo hargatik *markatuak ez diren ber, klitiko* dira.

Ohar bat, honetaz gero: markarik gabeko sekuentziek, bai (+2) Mendebaltarraren bidez, bai (-2) Ekialdetarraren bidez, posizio bera ematen du azentuarentzat. Adibidez:

iturri	Mendeb. (+2,-1) .	itúrri
		Ekiald. (-2)	itúrri
badator	Mendeb. (+2,-1) .	badátòr
		Ekiald. (-2)	badátòr . Baina:
iturrian	Mendeb. (+2,-1) .	itúrriàn
		Ekiald. (-2)	iturriàn
badakite	Mendeb. (+2,-1) .	badákité
			(bizkaiera batzutan ez)
		Ekiald. (-2)	badákité

Hitz batez: ondorio bera, edo bertsua bederen, lortzen da bi sistemetan *hiru* silabatako azentu-unitateetan; baina luzeagoetan (4,5,6...), ez.

Euskara Batuaentzat (+2,-1) proposatuz gero, hauek genituzke: **itúrri**, **badátòr**, **itúrriàn**, **badákité**.

6.2.3. *Pluralen* bi silabatan barreneko *jaitsera* onartuz gero, aski segmenturik dagoenetan, (+2,-3) izango genuke: **gízonak**, **itúrriak**; eta eskuin mutur-rean *hiru* silabatako oinak onartuko ditugunez, **emákumeàk**.

6.2.4. Ezkerraldean (+2) azentuketa *eredua* izanik, unitate markatuetan (+1) izango ditugu. Markatuak, hitz batez, Euskara Batuan *prototonoak* izango dira.

6.3. Azentu-unitatea zedarriztatzeko, *klitiko*en zerrenda eman behar dugu.

6.3.1. *Euskal proklitikoak*.

6.3.1.1. *Ba-* (*baiespena*) eta *ez-* (*ezespena*).

Bi atzizkiok, eskuin aldean duten adizkiarekin (trinko zein laguntzaille), unitate bakar bat osatzen dute; eta bai *ba-* hori, bai *ez-*, (-M) direnez (= *ez-*markatuak), Euskara Batuaren arauerako azentuketa hartuko du unitateak: [+2, -1].

Esan beharrik ez: *ez-*en eskuineko segmentuek, sandhiari dagozkion aldakuntzak jasango dituzte (Ikus «Euskal Fonologia», adibidez). Esate baterako:

ez + bada = **ezpáda**
ez + dakite = **eztákitè**
ez + garelako = **ezkárelakò**

6.3.1.1.1. **Ba al-** eta **ez al-** aurrizki anizkunez, bide beretik, **baál-** eta **ezál-**: **baáldakizú?**, **ezáldakizú?**.

6.3.1.2. **Bá-** eta **ezpá-**, *baldintzazkoak*.

Bi aurrizkiok eskuineko adizkiarekin *unitate bakar bat* osatzen dute. Baina **bá-** markatua denez (laburketa zahar baten ondorioz edo?), unitate konposatuan ere **bá-** horretan doa azentu nagusia.

Adibidez: (baldin) badator = **bádatòr**

ez badakite = **ezpádakitè**

6.3.1.3. *Bait-* eta *ezpait-*.

/ai/ diptongoa hor egonagatik ere, aurrizki horiek (-M) dira, *ez-*markatuak; baina, hori bai, azentu-unitate *bakar* bat eratzen dute eskuineko adizkiarekin.

bait- horri dagozkion aldakuntza fonologikoak gertatzen dira, dena dela: **baitákigù**, **ezpáitakizù**; barne-sandhiak direnez. (Aldakuntzentzat, ikus «Euskal Fonologia»).

6.3.1.4. Bide beretik **oté** eta **bidé**: **bidédirà**, **otédituztè**.

6.3.1.5. *Edozein silababakar*, bestalde, (+M) *markatua ez den ber*, adizki baten ezkerretan gertatuz gero, *klitiko* bihur daiteke (klitiko *bihurtu izan da* gaur arte); eta unitate batu horri dagokion eskema ezar dakioke: [+2,-1]. Adibidez:

- zer dakizu, **zerdákizú?** (Entonazioaz, -1)
- nor dator, **nordátór?**
- hor dago, **ordágò?**

Badirudi, halere, aurreko azentuketa hori hobetsiagatik, *bi azentu-unitaterekikoa* ere onartu behar dala: **zér dakizú?**, **nór datór?**, **ór dagó**. Interferentziaz, askok hobetzat hartua.

Bide beretik, beraz, zenbakari silababakarrekin ere ahoskera eredia hau litzateke: **bostórdù**, **seiúrtè**, unitate bakar batetan; gero eta maizago, interferentziaz, hedatzen ari den *bi unitateena*, onartuz: **bóst órdu** (*órdu* prototonoa da), eta **seí urté**.

6.3.2. Euskal enklitikoak.

6.3.2.1. *Izenaren*, eta izenaireen, *eskuin* aldean erasten diren deklinabide-atzizkiak, Euskara Batuan *enklitikoak* izango dira; eta unitate berrian, lege nagusiaren arauera hartuko dute (ala ez dute hartuko) beren azentua. Betikoa errepikatuz, jakina: unitatean elementu markaturik ez dagoen ber, eta entonazio bereziak ondorio berezirik ez badakar.

Adibidez: **etxé / etxéà, etxéàn, etxétik, etxérakoàn...**

(M) **báso / básoà, básoàn, básotik, básorakoàn...**

6.3.2.2. **bat**-ekiko mugagabeek, azentu normala hartuko dute; **-bat** enklitikoa denez. Beraz: **etxébàt / etxébatèk, etxébatì, etxébatèn, etxébatetàn,...**

6.3.2.2.1. **bát**- zenbakariak, aldiz, azentu-unitate berezia esatzen du; eta bikotea-ri *bi azentu-unitate* dagozkio: **etxé # bát / etxé # bátek, etxé # báti, etxé # bāten, etxé # bātetàn...**

6.3.2.2.2. Hau dela-ta, zenbakariek lotzen diren atzizki hauek: **-na, -naka, bát**-ekin unitate markatuak osatzen dituzte: **bánakà, bínakà** bezala; **bāna**, etab..

6.3.2.3. *Aditz-izenak*, horren aditz erroak 2, 3, 4, etab. silaba dituenean, [+2, -1] azentuketa hartuko du: **ikústè, erákustè**. Eta, deklinabide-atzizkiak *klitiko* direnez, azentu paradigmaticoa: **ikústeà, ikústekò, ikústeàn...; erákusteà, erákustekò, erákusteàn...**

6.3.2.3.1. Bide berberetik *aditz-partizipioa*: **ikúsi / ikúsikò, ikúsirik; erákutsì / erákutsikò, erákutsirik.**

6.3.2.3.2. Aditz-erroa, berriz, *silababakarra* denean, bai *aditz-izena*, bai *aditz-partizipioa*, (M+1) *markatuak* dira. Adibidez: **hár / hártzè, hártzekò,**

hártzetik, hártzeari, hártzèn; híl / hiltzè, hiltzekò, hiltzetik, hiltzeari, hiltzèn... Eta, era berean: **hártù, hártukò, hárturik; hílkò, hílik.**

6.3.2.4. Adberbioak, eta antzerako deklinabidea duten deklinagarriak oro, bereziki markatuak ez diren ber, lege orokorraren arauera hartzen dute azentua: **emén, atzó, bi(h)ár, heránegùn, ortík, aráinò.**

6.4. Ohar bat: bizkaiera eta gipuzkera arretaz aztertuz gero, xehetasun hau bil bide liteke: singularrezko *ergatiboak* eta pluralezko *nominatiboak*, silaba *bat edo bitako* unitateetan, gaur ere azentuketa berberekoak izatea (ergatibo pluralaren aurkaritzan). Eta gauza bera *lekutasunezko* kasuetaraino.

Nolabait esateko: **gizóna(r)í / gízonai** desberdintasuna oraindik aisa bil daitekeen bezala, hau genuke: **gizónak** (jan du), **gizónak** (joan dira) / **gízonak** (jan dute).

Puntu honetaz, beraz, bitasuna proposatu beharko bide da, arrazoi pratikoengatik.

6.4.1. *Hobetsiko* litzatekeen ereduari, pluraleko *parte bat* bakarrik izango litzateke (+1) markatua (eta beheranzkoa): ergatiboa, genitiboa, datiboa, tresnazkoa, norentzako... Eta lekutasunezkoak eta nominatiboa *markatu gabeak*. Berrero ere: silaba bat edo bi dituzten unitateetan.

Onartu egin behar litzateke, dena dela, analogiazko plural paradigmaticoa (nominatiboa eta lekutasunezkoak barne).

Beraz: **harán.**

Plurala:

Hobets.: **harának, háranek, háranen, háranai, háranek, háranekin, háranentzat;** baina **haránetan, haránetako, haránetatik, haránetara.**

Ontzat: denak, pluralean barrena, **háran-en** gainean eraikiak: **háranak, háranek, háranen,** etab...

6.4.2. Ikus ditzagun orain, sailka, izenak eta izenaireak.

6.4.2.1. *Silababakarrak.*

Diptongatuak, laburtuak edo mailebatuak ez diren ber (bestela esanda, *markatuak ez diren ber*), eskema nagusiari egokituko zaizkio. Singularean eta mugagabeen [+2,-1]; eta pluralean [+1], eta beherakada, posible delarik.

Adibidez: **hítz (-M).**

Mugagab.: **hítz / hitzék, hitzí, hitzén, hitzéz...**

Singul. : **hítzá / hitzák, hitzári, hitzárèn, hitzáz...**

Plur.: **hitzák (hítzak ere ontzat) / hitzek, hitzei, hitzen, hitzez.** Eta lekutasunezkoetan:

hobets.: **hitzétako, hitzétara, hitzétan, hitzétatik.**

ontz. : **hítzetako, hítzetara, hítzetan, hítzetatik.**

Oharra: arrazoi pratikoengatik, analogiko paradigmaticoa guztiz ontzat emateko gertu egon behar genuke.

6.4.2.1.1. Silababakar *markatueta*n, mogimendurik ez.

Adibidez:

déi (diptongatua, M+1).

Mugagab.: **déi / déik, déiri, déiren, déiz... déitan, déitatik...**

Sing.: **déia / déiak, déiari, déiaren, déiaz... déian, déitik...**

Plur.: **déiak / déiek, déiei, déien, déiez... déietan, déietatik...**

6.4.2.2. *Silababikoak*

Era berean, ezkerreko silaban *diptongorik edo laburketarik* ez duten hitzek, edo *mailebatuak* ez direnek, [+2,-1] eskema jarraituko dute singularrean eta mugagabeen; eta (+1) eta beherakada, pluralean. Adibidez:

(-M), **etxé**

Mugb.: **etxé / etxék, etxéri, etxéren, etxéz... etxétakò, etxétatik, etxétàn, etxétarà.**

Sing.: **etxéà / etxéàk, etxéari, etxéaren, etxéaz... etxékò, etxétik, etxéan, etxérà.**

Plur.: **etxéak (hobets) / étxeek, étxeei, étxeen, étxeez... etxéetako, etxéetatik, etxéetan, etxéetara.**

Analogikoak ere onartuz: nom. **étxeak**; lekut.: **étxeetako, étxeetatik, étxeetan, étxeetara.**

(+M), **báso** (= edalontzi).

Mugb.: **báso / bások, básori, básorèn... básotàn...**

Sing.: **básoà / básoàk, básoari, básoaren... básoàn, básotik...**

Plur.: **básoak / básoek, básoei, básoen... básoetan, básoetatik...**

6.4.2.3. *Hiru, lau, etab. silabatakoak.*

(M+1) prototono markatuak ez direnak, [+2, -1] eskema jarraituko dute singularrean eta mugagabeen; eta [+2], eta beherakada, pluralean. Adibidez:

(-M) **itúrri**

Mugb.: **itúrri/ itúrrik, itúrriri, itúrrirèn, itúrriz...**

itúrritakò, itúrritatik, itúrritàn, itúrritarà.

Sing. : **itúrrià/ itúrriàk, itúrriari, itúrriarèn, itúrriàz...**
itúrrikò, itúrritik, itúrriàn, itúrrià.

Plur. : **itúrriak / itúrriek, itúrriei, itúrrien, itúrriez...**
itúrrietako, itúrrietatik, itúrrietan,
itúrrietara.

(+M) **bázkari**

Mugb.: **bázkari / bázkarik, bázkariri, bázkarirèn, bázkariz...**
bázkaritakò, bázkaritatik, bázkaritàn,
bázkarítarà.

Sing.: **bázkarià / bázkariàk, bázkariari, bázkariarèn, bázkariàz,**
bázkarikò, bázkaritik, bázkariàn, bázkarirà.

Plur.: **bázkariak / bázkariek, bázkariei, bázkarien, bákarietz...**
bázkarietako, bázkarietatik, bázkarietan,
bázkarietara.

6.4.2.4. **gatik** morfema lotuta idatzi ohi da; baina autonomoa da edo izan da orain arte. Bi ahoskerak onar daitezke: **-gatik** (sing. eta mugagab.), eta **-gatik** tonu apalean, pluralean. Edo-ta, # **gátik**, unitate autonomo gisa.

6.4.2.5. *Zenbakariak.*

Izenaire izanik, edozein izenen antzera azentuztatuko dira. Beraz:

zazpí/ zazpík, zazpíri, zazpírèn, etab.; zazpítakò, zazpítatik,
zazpítàn, zazpítarà.

zázpiak (analog.)/ zázpiek, zázpiei, zázpien, zázpiez...

zázpietako, zázpietatik, zázpietan, zázpietara.

6.4.2.5.1. Zenbakarien beren azentuketa, beraz, hau da: **bát, bí, irú, láu, bóst, séi, zazpí, zortzí, bedératzi, hamár, hamáikà, hamábì, hamáirù, hamálàu...** **hogéi, berrógèi, hirúrogèi, láurogèi, e(h)ún** (edo **e.ún**, bisil), **milá.**

6.4.2.5.2. **gárren** morfema

Erakusi den bezala, berez lexema bat izanik, eta markatua, # **gárren** azentuketa hobetsi behar litzateke; baina + **garrén** (-M) ere onartuz. Beraz:

hirugarrena: 1/ **irú** # **gárrenà**, bi unitatetan;

2/ **irúgarrenà**, unitate bakar batez.

6.4.2.5.3. **-bat** mugagabeari, beraz, unitateari dagokiona erantsiko zaio. Beraz, inesiboan, **-batetàn** edo **-bateàn**. Eta, hortaz, **bateán** eta **béstean**.

Silababakar markagabeetan, desberdintasuna garbi dago:

bí/ bík, birí, birén, bíz... bitákò, bitátik, bitàn, bitará.

bíak / bíek, bíei, bíen, bíez... bíetako, bíetatik, bíetan, bíetara

baina:

séi / séik, séiri, séirèn, séiz... séitakò, séitatik, séitàn, séitarà.

séiak/ azentu mogimendurik gabe.

6.4.2.6. *Erakusleak eta pertson-izenordeak*

Singularrean: (+2,-1); pluralean (+1), eta beherakada.

Adibidez:

háu / honék, honí, honén, honékin... honétakò, honétatik, honétàn, honétarà.

háuek / háuek, háuei, háuen, háuekin... háuetako, háuetatik, háuetan, háuetara.

Adjektibo erakuslearen eta izenordeen artean seguru aski berandu arte egon den azentu-desberdintasuna, alde batera utziko litzateke Euskara Batuaren Ortoepia honetan.

Bide beretik:

horí (/h/ hori grafikoa izanik) / horrék, horrí, horrén...

hurá / hárk, harén, harí, etab. hartákò, hartátik, hartán...

6.4.2.7. *Edutezkoak.*

Ni, Hi, Gu eta *Zu*-tik datozenak, markagabe: [+2,-1]:

ní/ ník, nirí, niré, niréztàt, nirékin... nigán, nigánà...

Baina **zúek** pluraletik, (+1) eta behera:

zúek / zúek, zúei, zúen, zúentzat, zúekin, zúengan...

Euskara Batuan, beraz, gipuzkera zaharrean bezala:

niréak (egín+dú), vs. **níreak** (eróri+díra) (anal.).

Era berean: **zurékin** (jóan), vs. **zúekin**.

Eta: **beré** (etxéà), vs. **béren** (etxéà), pl..

6.5. *Aditz laguntzaileak* klitiko gisa hartuko du bere azentua; eta, beraz, tokatuko zaion posizioaren arauera hartuko duenez, azentu desberdinak izan ditzake. Adibidez: hil da = **íldà** (*hil*, silababakarra, markatua delako). etorri da = **etórridà**. Bi /dá/ hauek desberdinak izan daitezke

azentuaren aldetik; distantzia *bi* silabatakoa denean, are *hirutakoa* ere, oihartzunezko azentuak gehiago markatzen baitu, tarte hori, *hil+da* kasuan bezala, silaba bakar bat dagoenean baino. Ohar honek kasu guztietarako balio du. Bi silabatako unitateek, honegatik, ia-ia itxura *itso-noà* behar dute izan; gaztelaniazko *no sé* esaldian bezalatsu.

Bide beretik, beraz:

esan dute = **esándutè**

eraman didate = **eráman+dìdatè**, tarteak bikotxiak.

eman zioten = **emántziotèn**

ekar dezakete = **ekárdezàketè**

saldu diote = **sáldudiotè** (sál, M+1)

saldu nion = **sálduniòn**

Kontutan har ondoko bi *-didate* hauek:

esan didate = **esándidatè**

eraman didate = **erámandìdatè**.

- 6.5.1. *Ba-* eta *ez-* klitiko direnez: ez da = **eztá**; badu (bai) = **badú**; ez du = **eztú**; badira = **badirà**, etab..

Bide beretik *bait-*, azentu desberdinak hartuz:

etorri baita = **etórri+baità**; ez baita etorri = **ezpáità etórri**.

- 6.5.2. Bide beretik *aditz trinkoetan*:

badakit = **badákìt** (gast. lo sé bien); ez dakit = **eztákìt**;

bazekiten = **bazékìtèn**; ez zekiten = **etzékìtèn**; badaramatzat = **badáramatzát**.

Azentuketa desberdinak gerta daitezke morfema berean: badaki = **badákì**; ez daki = **eztákì**; nork daki = **nortákì**; baina Imancl-ek daki = **imánolèk dakì**.

- 6.5.2.1. Aldakuntza bertsuak atzikiak erantsi ala: **badákizù**, **badákizulà**, **badákizulakò**, **badákizulakoàn**...

6.6. Hitz markatuak

Prototoño markatuak, esan dugunez, hiru motatakoak dira: arrazoi fonologikoengatik lehenengo bietan, eta jatorriarengatik hirugarrenean: a) díptongo beheranzkoa; b) bokale laburketa; c) mailebutza berria.

Hona hemen, beraz, zerrenda hirukoitz bat; nolabait esateko osakizun geldituz.

- 6.6.1. *Izen eta izenaireak*

6.6.1.1. *Silababakarrak.*

- a) **gái, gáu, háitz, háuts, gáin, háur, góiz, láu, séi, gaur...**
- b) **dén** (= guztia, edo errelat.); **zén, txár.**
- c) **gás.**

6.6.1.2. *Silababikoak.*

- a) **áunitz, áurre, (átze, semant. anal.?) áuzo, éuri, fráide, gáuza, háize, jáio, káiku, láia, léiho, máila, máilu, máistra, máixu, náusi, néurri, óilar, óilo, sáindu, sáio.**
- b) **jábe, zénbat.**
- c) **ántzár, árte, ásmo, báke, báso, bérba, bóta, búlda, géla, górputz, gúra, hánka, hórma, jénde, jóku, kále, kámpo, káre, kímú, kínu, kírru, kóntu, kórta, kúku, kúma, lánga, lége, léku, lóra, mólle, múrru, órtu, págo, páрте, píke, písu, préstu, pútzú, sóka, tríku, txístu, zéru.**
- d) (kakoá ilun) **bákar, bárre, bátzú** (pl. ?), **bátzar, béste, bírki, bízi, díru, éلكar, gálde, gíltza, gíro; góna, hámu, jágon, jákin, jóan**, (hiru hauetan /i/ silabikoa izana), **kézka, kórde, kóska, léka, lótsa, málda, máلكo, móko, músker, néke, néska, órdu, órratz, pílo, púska, séme, táldé, tóki, úme.**

6.6.1.2.1. Bigarren silaban (+2) díptongo goranzkoa duten hitzek (edo-ta laburketa), pluralerakoan ez dute ezkerrean zoko mogimendurik jasaten: **ma-hai, zelai, hodei, miloi, etab.**

Beraz: **zeláiak, zeláiek, zeláiei, zeláien, etab.**

6.6.2. *Markatu eta markagabeen* arteko desberdintasuna, beraz, honela agertuko da. Hauta dezagun *silababiko* pare bat; eta marka dezagun plurala *analogiazko* paradigmaticoan (nolabait esateko, errazenean). Eta hau dugu:

a) (-M) **basó** (= zuhaitzeta).

basó	basóà	básoak
basók	basóàk	básoek
basóri	basóari	básoei
basórèn	basóarèn	básoen
basótakò	basókò	básoetako
basótatik	basótik	básoetatik
basótàn	basóàn	básoetan
basótarà	basórà	básoetara

Segidako bi bokaletan azentu nagusia eta bigarrenkaria doazenean (**basóà**, eman dezagun), azkeneko hau *ahuldu* egiten da; eta tartea *bi*, are *hiru*, silabatakoa denean, alderantziz, *azkarrago* gertatzen. Hor-

taz, **basóà** edo **basókò**, **basóa** eta **basóko** entzungo dira, lehen hurbilketan. **basótarà** edo **basóarèn**, aldiz, **basótarà** eta **basóarèn** balira bezala ahoskatuak.

b) (+M) **báso** (= edalontzi)

báso	básoà	básoak
bások	básoàk	básoek
básori	básoari	básoei
básorèn	básoarèn	básoen...
básotakò	básokò	básoetako
básotatik	básotìk	básoetatik
básotàn	básoán	básoetan
básotarà	básorà	básoetara

Pluralean, beraz, analogiazko errazketa onartzen bada, *desberdintasunik ez* markatuen eta markagabeen artean.

6.6.2.1. Ohar bera *silababakarrei* buruz: deklinabide erraztuan desberdintasunik ez pluralean.

Eta lehengo oharra ere: **hitzék**, **hitzák**, **hítzak**, eman dezagun, ergati-boan. Isotonia handia izanik, tonu-desberdintasun horiek txikiak izango dira. (Kontutan izan, adibidez, Mendebaldeko euskalkietan barrena dagoen aniztasuna: batean denek dirudite (M+1): **hítzek**, **hítzak**, **hítzak**; beste batzutan, mugagabea, teorien kontra, pluralarekin doa: **hítzak**, **hítzák**, **hítzak**; eta abar. Ohartu den bidean, beraz, funtsezko berdintasuna ez da guztiz ezabatuko; eta *maiztasunen desberdintasunak txikiak dira*).

6.6.3. *Trisilabikoak*

Markatuak ez diren ber, [+2,-1] mugagabeen eta singularrean, eta [+2] eta beherakada pluralean.

Adibidez: **itúrri**, **itúrrià**, **itúrriak**. Azentu bigarrenkariaren indarra, silabaren distantziaren arauera aldatuko da. Segidako silabetan *ahula*, tarte 2 edo 3 denean, *gotorrago*.

6.6.3.1. *Trisilabiko markatuak, (M+1)*.

Hauen azentuketa, hortaz, [+1,-1] eta [+1] behera. (Ikus 6.4.2.3.).

Hona hemen batzu:

- áingeru**, **áizkora**, **áitita**, **éuskara** (eta **érdara**, analogiaz), **gé(h)iago**, **káiola**, **óilasko**.
- átsalde**, **bázkari**, **ná(ha)spila**.
- árima**, **árbola**, **bézpera**, **dénbora**, **fábrika**, **féria**, **gánbara**, **gánora**, **hábia**, **liburu**, **mákina**, **médiku**, **ólio**, **párroko**, **prémia**, **sékula**, **zápatu**.

d) (beste arrazoiengatik) **ángio, árrantza, árreta, áspaldi, báserri, bélarri, béstela** (ik. béste), **bitarte, égia, éroan, gáldera, gúrari** (ik. gúra), **hódia, lámia, lótsari** (ik. lótsa).

6.7. Irakurtzea errazteko, eta hizkuntza idatziaren argitasunerako, prototono markatuok *azentu diakritikoz idaztea* proposatzen da: **déi, gáu, gás; séme, úme, tálde; éuskara, dénborá, sékula.**

«**basoa**», hortaz, (-M), **basòà** litzateke; baina «**básoa**», aldiz, **básoà**.

Era berean «**hitzak**», **hitzák** litzateke; baina «**déiak**», **déiak**.

Baldintzazko **bá-**, markatua denez, «**bá**» idatziko da. Eta, beraz, «**badator**» idazten dena, **badátòr** baiespena izango da; eta «**bádator**», berriaz, **bádátòr** (baldintzazkoa).

6.7.1. *Plurala markatua* denaz (azentua ezkeraldera silababakarretan eta silababikoetan: denetan analogikoan, nominatiboa eta lekutasunezkoak salbu azentuketa hertsian), marka diakritikoz idatzi beharrik ez dago.

Baina zalantzabide batzu daitezke: «hitzek», eman dezagun, **hitzék** izan daiteke, mugagabeaz; edo **hítzek**, ergatibo pluralean. Badirudi, halere, ekonomi arrazoiengatik, plurala azentu diakritikorik gabe uztea izan daitekeela egokiena.

6.7.2. (+1) silaban *diptongo beheranzkoa* duten hitz guztiak (M+1) direla onartuz gero (inkesta luze batek funtsatu behar luke hau), hauek ere markatzeko arrazoirik ez legoke.

Oraingoz, dena dela, *prototono markatuak oro* azentu diakritikoz idaztea proposatzen da.

7. Bibliografia

Euskal Azentuari buruz:

Sebero Altube

El acento vasco, Bermeo 1932. 329 orr.. Mendebaldeko azentu-motaren deskribapena, azentuari eta entonazioari buruzko datuak nahasian datozelarik.

Obsevaciones a la Morfología de Azkue, Bermeo, 1934. Liburu horren laburtzapen bikain bat eskaintzen du IV. kapituluan; 213. Eta 1932-ko testurako sarrera egokia izan daiteke.

Resurrección M. de Azkue

Del acento vasco en algunos de sus dialectos, «Euskera» aldizkarian bi partetan argitaratua: 1931, 3-50 eta 282-297.

Morfología Vasca, Bilbao 1923. Liburua orokorra da; baina azentuaren inguruko gorabeherei buruz, han-hemenka, erabat oinarrizkoa.

P. Jose Miguel Barandiarán

Hertsiki hitz egitekotan etnografi lanak izanik ere, interes handia dute honen ipuinek eta antzekoek, askotan transkribaketa erdi-fonetikotan emanak. Ikus beraren «Obras Completas» liburukiak, bigarrena bereziki; edo-ta, 'Auñamendi' sortako 12, 27 eta 49 liburukiak.

José Basterrechea

Estudios sobre la entonación vasca según el habla de Guernica, Fontes L.V.: 18, 1974: 353-393; eta 21, 1975: 289-338. Idazpuruak idarokitzen duenaz bestaldera, «tipo I» izeneko mendebaltar azentuari buruz, gaur arte egin den deskribapenik zehatzena.

Iñaki Gaminde

Butroiko euskara, Fontes L.V., 40, 1982; 403-460. Bertako hizkeraren deskribapen on bat, azentu diakritikoz markatutako esaldi-corpus luze batez hornitua.

Henri Gavel

Éléments de Phonétique Basque, Paris, 1921, eta RIEV. Azentuari buruzko oharrek interes handia dute.

Nils Holmer

El idioma vasco hablado, San Sebastián, Diput. Guip., 1964.

Bortzerrieta-ko nafarrera garaiazen deskribapena dakar, baita gipuzkerari buruzko datu batzu ere.

Apuntes vizcainos. Mendebaldeko bizkaierari buruzko lan bikaina, azentuari buruzko hamaika oharrez hornitua. *Ikus Anuario Sem. Fil. J. de Urquijo*; 1968, 87-141; 1969, 171-228; 1977, 3-47.

Kandido Izagirre

Altsasuko euskeraren gai batzuk, An. F. J. U., 1967; 45-97.

Notas lexicográficas, An. F. J. U., 1968; 49-72. Goierriko gipuzkeraz eta Antzuolako bizkaieraz.

El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate..., An. F. J. U., 1970; 1-248. Gipuzkoako bizkaieraz dagoen oinarririk sendoenetako bat, izènaren azentuketari buruz batez ere.

Erronkariko euskal ondakin batzuk, BRSVAP 1959; 279 - 314; eta 1961, 391-407.

Ultzamako euskeraren gai batzuk, BRSVAP 1966; 403-467.

William H. Jacobsen

Nominative-Ergative Syncretism in Basque, An. F. J. U., 1972; 67-109.

Historical implications of the western Basque Tonal Accent, 28 orr.. Pluralaren azentuen bilakaera ulertzeko funtsezko ikerlana.

René Lafon

Observations sur la place de l'accent...; *Mélanges Paul Laumonier*, 1935; 635-643. Ikerlan laburra, hau; baina funtsezkoa ere bai, zubererazko azentuari dagokionez. Baita diakroniazko gogoetengatik ere.

Le Système du verbe basque au XVI. siècle, Bi liburukitan, Delmas 1943. Gaia aditza izanik ere, oinarrizkoa da bestela ere; eta, jakina, Leizarraga-ren azentu diakritikoaz hornitua.

P. Manuel Larramendi

El imposible vencido, Salamanca, 1729 (Hordago-k 1979-an berrargitaratua). Larramendik azentu diakritikoa erabili zuen liburu hone-tan (eta beste guztietan ere bai). Baina ohar teoriko ugari ere bada-kar. Uste izan denaren aurka, Larramendi guztiz funtsezkoa eta ar-gitsua da azentuari buruz.

Diccionario Trilingüe. Bi liburuki. 1853-ko argitaraketa eskuraga-rriagoa da lehendabizikoa baino; baina, azentuari buruz bederen, huts asko dauka.

P. Jean Larrasquet (berak bere burua 'Larrasketa' deitua)

Action de l'accent sur l'évolution des consonnes... Paris 1927. Euskalki bati buruz laborategi bidez gaur arte ere egin den ikerlan akustikorik sakonena.

Imanol Laspiur

Azentu diakritikoa Eibarko euskaran, Euskera 24, 1979; 175-268. Eibarko bizkaieraren azentuari buruzko lan interesgarri bat. Bergarako euskarari buruz ere oharrak falta ez direnez gero, eskualde horretako alderdi bitxiak ulertzeko funtsezkoa.

P. Joaquín Lizarraga

Fontes-etan argitara diren lanetan (hemen zehazki eta bana-bana ez emanak) azentua dator; eta oinarri garrantzitsua dago horretan.

Doctrina Christioarén Catechima, Pamplona, 1979. Apezetxeak kontu handiz argitaratua (312 orr.). Lizarraga da, dudarik gabe, Hego nafarreraren azentuketa ulertzeko oinarririk onena.

Luis Michelena

Fonética Histórica Vasca, 1977, bigarren argitaraketa. Azken honetan erruz eraberritu dira azentua ikutzen duten 20. eta 21. kapituluak: 379-424 eta 565-590. Baina beste kapituluetan ere, zeharbidez, ikergai honi buruzko datuak eta iruzkinak ez dira urri.

Textos arcaicos vascos, Minotauro, Madrid 1964.

Euskaltzaindiko hitzaldia, («Orixe»ri erantzunez). Euskera 1958; 26-44. Bai Orixe-ren hitzaldiak, bai Mitxelenaren erantzunak, euskal azentua dute mintzagai; eta oso interesgarriak dira.

Acentuación alto-navarra, Fontes 23, 1976; 147-162. Batez ere dakarren datu-bildumarengatik.

A propos de l'accent basque, Bulletin de la Société de Linguistique de Paris; 1957-1958; 204-233. Oraindik ere euskal azentuari buruz idatzi den datu-bilduma eta ikuspeirik hoberena.

A note on old labourdin Accentuation, An. F. J. U., 1972 110-120. Artikulu horretan azaltzen dira «tipo I», «tipo II», etab. azentuen ezaugarri nagusiak; baita ematen ere, lehenengo aldiz, azentuaren arauerako euskalki-sailkapen bat.

T. Navarro Tomás

Pronunciación guipuzcoana, Homen. a Menéndez Pidal, Madrid 1925; t.III; 593-653. Guztiz oinarritzkoa.

Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica, Eusko Ikas-
kuntzaren III Biltz. N., 1923; 49-56.

Prai Bartolome de Santa Teresa

Icasiquizunac, Iruñean, 1816. Bi liburukitan. Bai pluralaren azentu-
ketaren diakronia ulertzeko, bai geminazioaren gorabeherak argitze-
ko, liburu paregabea da hau. Batez ere, dena dela, bizkaierari buruz.

P. Pedro Pujana

Oletako euskal aditza, Vitoria, 1976. Araba-ko aditza ikertzen da
ikerlan honetan. Eta azentuketa grafikoa dakarrenez, osoki da kon-
tutan hartzekoa bizkaierari buruz; eta hitanozko adizkien azentuke-
taz oso bereziki.

Karmele Rotaetxe

Estudio estructural del euskara de Ondarroa, Durango, 1978. Ekial-
deko itsasertzeko hizkeraren deskribapen zehatza egiten da, azentua
ahantzi gabe; eta entonazio/azentua berezketa garbi utzirik.

«Txillardegi»

ba- eta ez- fonetikaren aldetik, Iker 1, 1981; 355-363. Besteak beste,
ba- eta ez- aurrizkiei datxezkien azentu-alderdiak aztertzen dira.

Frai J. A. Ubillos

Christau doctriñ berri-ecarlea obrak, 1785 (orain dela gutxi, 1978,
Hordago-k berrargitaratua), azentu zorrotzak eta lodiak dakartza,
nahasian itxuraz. Ikus, honi buruz, *Juan Otaegui*-ren lana, *Fontes*
39, 1982; 299 eta 300 orrialdeak.

Oharra

Fontes L.V., Euskera, RSVAP, eta abarretan, argitara diren ikerlanak
ez dira hemen, ilaran, osoki aipatzen; nahiz beroietan aztertzaile
batzuk azentutik edo azentu-unitatetik urrun ez dauden alderdiak iku-
tuak izan.

Liburuan barrena, dena dela, ohar gisa, han eta hemen beste iturri
batzu aipatu dira.

Azentuari buruz, orokorki:

Ilse Lehiste-ren '*Suprasegmentals*' liburua da (M.I.T., 1970) datu eta bilduma on bat. Garai hartarako (eta xaharkitua, beraz), osotzat eman daiteke dakarren bibliografi-zerrenda.

Beste bilduma on bat, nahiz fetxarengatik ezinbestean hein batez bederen gaintutua, *Paul Garde*-ren '*L'Accent*' izan daiteke; Paris, P.U.F., 1968. Datu eta hipotesi pilo baten berri ematen zuen.

Bilduma gaurkotuagoa, berriz, beste hau dugu; agian gaur ingelesez dagoen osoena: *Studies in stress and accent*, 1977, Los Angeles-ko U.S.C. Unibertsitateak argitaratua (biltzaile eta zuzentzailea, bertako irakasle den *Larry Hyman*).

Aipa ditzagun ere bi hauek: *Larry Hyman* berberorren *On the nature of Linguistic Stress*, 37-82, datu eta teoriaz osatua; eta *Wayne A. Leary*-ren *Acoustic correlates of stress and juncture*, bertako 83-144 orrialdeetan barrena.

Larry Hyman horrek berak ere badu liburu bikain bat *Fonologia Sortzaileari buruz* (U.S.C., 1975; Holt), askotan azentu-arazoan aztertzaile.

Fonologia Metrikoa-ri buruzko sarrerarik onena U.C.L.A.-ko *Bruce Hayes* irakasle gaztearen *A metrical theory of stress rules* (Indiana-ko Unibertsitatea, 1981); gehi «Language» aldizkarian gai hauetaz argitaratu dituen artikulua.

Oinarrizkoa, era berean, *M. Liberman* eta *A. Prince*-ren *On stress and linguistic Rhythm* lana, 1977, *Linguistic Inquiry*, 8, 249-336. Gehi *M. Liberman*-en Doktoretza-tesia.

Azentuari buruzko *Teoria Ziklikoaz*, ikus *Chomsky-Halle*-ren *The sound pattern in English* liburu famatua, 1968. Baita *Kiparsky*-ren *Metrical structure assignment is cyclic* artikulua ere, *Ling. Inq.* 1977, 10, 421-441.

Oinarrizkoa ere bai beste hau: *Philip Lieberman*-en *Intonation, Perception and Language*; M.I.T., 1967; argitara-urtea urrun gelditu arren.

Antonio Quilis irakaslearen *Fonética acústica de la Lengua española*, Ed. Gredos 1981, liburuak, bilduma eder bat dakar azentu eta entonazioari buruz; baita bibliografi sail galanta ere.

Ava B. Berinsein-en tesiak: *Perception and Production of Stress*, 1979. Los Angeles-ko U.C.L.A., P. Ladefoged irakaslearen zuzendaritzapean mamitua, test fonologiko ezin mamitsuagoen berri ematen du; hautatutako hiztunen artean Guatemala-ko batzu daudelarik.

Fonologia Autosegmental delakoari buruz, ikus *George N. Clements* eta *John Goldsmith*-ere lanak. Zenbait autoreren bilduma on bat honetan aurki daiteke: *Harvard Studies in Phonology*, II, 1981.

Silabaren teoriaz, berriz: *Alan Bell* eta *Joan B. Hooper*-en *Syllables and Segments*, 1978.

Azterketa **fonetikoei** buruz, eta **tresna-bidezko** tekniken alorrean, bi liburu hauek gomenda daitezke: bata frantsesez idatzia, *Brusel*-en, 1971: *Odette Mettas*-en *Les techniques de la phonétique instrumentale et de l'intonation*; eta bestea, oraino osoagoa, ingelesez, *Colin Painter*-en *An introduction to instrumental phonetics*, Univ. Park Press, Baltimore 1979; foto eta diagramaz erruz hornitua.

Orokorrago izanik ere, aipamen berezi bana merezi dute bi liburu hauek: *Bertil Malmberg*-en *Manual of Phonetics*, 1968, North Holl. Pub. Co.; eta biltzailearen beste liburu hau: *Manuel de Phonétique Générale*, Paris, 1974.

Beste liburu funtsezko bat akustika oinarriez: *Fry*-ren *The Physics of Speech*, 1979, Cambr. Univ. Press.

Arazo **akustikoei** buruz, oso liburu ulerterreza da *W.W. Seto*-ren *Theory and Problems of Acoustics*, Schaum Ss. 1971. Mota askotako problemak aurki daitezke bertan, emaitzekin; eta batzu fonetika akustikoaz.

Ikus ere, bide beretik, *L.E. Kinsler*-ren *Fundamentals of Acoustics*, 1982 (*A. Frey* zuzentzaile, *John Wiley* argitaratzaile).

Revista de Filología Española-n *Navarro Tomás*-ek argitaratutako artikulua interesgarri daude beti (ikus hauek gutxienez: 1916, III, 387/408; 1917, IV, 371/388; 1918, V, 367/393; 1922, IX, 1/29). Datu akustiko interesgarriak dakartza, era berean, beraren «Palabras sin acento», 1925, XII, 335/375.

Artikulu berriagoen artean, oso zaila da hautaketa orekaturik egitea. Aipa ditzagun batzu:

– *D.B. Fry*-ren *Experiments in the Perception of Stress* klasikoa, 1958 (*Language and Speech*, 126-151).

– *P.M. Bertinetto*-ren *The perception of stress by Italian speakers*, 1980 (*Jnl. of Phon.* 8, 385/395).

– *Ilse Lehiste*-ren *Isochrony reconsidered*, 1977 (*Jnl. of Phon.*, 5, 253/263); liburuan aipatua.

– *Thomas Gay*-ren *Physiological and acoustic correlates of perceived stress*. (*Lang. and Speech*, 1978, 21/4, 348-353).

– *Nina Thorsen*-en *Interpreting F0-tracings*, 1979 (*Phonetica* 36, 57/78).

– *Ph. Lieberman*-en *On the acoustic basis of the perception of Intonation by linguists* (*Word*, 21, 1, 49/54).

Y. Lebrun-en *Sur la syllabe, sommet de sonorité* (*Phonetica* 14, 1966; 1/15).

Janet Pierrehumbert-en Synthesizing intonation (Jnal. of Acoustics, 1981-ko Urrian, 985/995). Lan hau oinarritzkoa da. Baita beronen Tesi txalotua den: *The Phonology and Phonetics of English Intonation*, M.I.T., Bell, 1982.

Euskal azentuaren ikuspuntutik, interes berezia dute «The phonetic society of Japan» delakoak (1961 eta ondokoak) argitara dituen ikerlan bimintzodunak (ingelesa + japoniera); japoniar-euskaldun eta lankide dudan Suzuko Tamura-ren laguntzari esker ezagutuak. Baita *Hiroya Fujisaki* eta lankideek burututako lanak.

Soinugintzaren teoriiaz, hauetxek dira beti ere bi autore nagusiak: *G. Fant* eta *J. Flanagan*. Hauen lanak, maila fisiko-matematiko gorenekoak, Akustikari buruzko liburu-zerrendetan agertu ohi dira.

Horiez gain, dena dela, aipa ditzagun beste hauek:

- *On Stress and Syllabification*, John McCarthy (Ling. Inq., 10,3, 1979; 443/465).
- *Sonority and Syllabicity: acoustic correlates of perception*, P.J. Price (Phonetica 37, 1980; 327/343).
- *Prosodeme, Syllable structure and Laryngeal Phonemes*. Hattori Shiro. (ICU 1961, 1, 186/218).
- *On the framework of Autosegmental Phonology*, Halle eta Vergnaud. Eta, beroien eskutik, eta silabaren egiturari dagokionez:
- *Metrical structures in Phonology*, 1978-ko Urrian.
- *Compensatory Lengthening*; L. de Chene eta S. Anderson. Euskal pluralaren gorabeherak direla-ta, ia-ia ezarpen zuzenekoa.
- *Accent and Time in descriptive Prosody*, M.J. Lightfoot. (Word 26, 1, 1970; 47/64).
- *An acoustic-phonetic study of internal open juncture*, Ilse Lehiste. (Jnl. Intern. de Phonétique, vol. V, 1960).

AURKIBIDEA

Aintzin-solas gisa.....	7
S. SARRERA.....	9
S.0. Zenbait hitz sarrera gisa.....	11
S.1. Euskal azentua zertan datzan.....	12
S.2. Euskalkien sailkapena azentuaren arauera.....	16
S.3. Zenbait datu akustiko.....	19
S.4. Bi azterketa luze euskal azentuaz.....	19
S.5. Azentudun silabaren lerraketa eskuinerantz, Ekialdeko euskalkietan.....	22
S.6. Hasperenketaren posizioa.....	24
S.7. Azentu-unitatearen muga.....	27
S.8. Pluralaren bokale bikoitzen bilakaera.....	31
S.9. Mendebaldeko euskal azentuaren ezaugarri gailen batzu.....	32
S.10. Fonologia Metrikoaren erabilgarritasuna.....	36
0. AZENTUAREN ARAZOA ZERTAN DEN.....	39
0.1. Azentuaren arazoa zertan den.....	41
0.2. Test bat (euskal azentuari buruzko pertzepzioaz).....	60
1. ALDERDI FONETIKOAK.....	75
1.0. Zenbait datu fonetikoren azterketa.....	77
1.1. Zubererazko azentua.....	77
1.2. Bizkaiera (Gernika).....	92
1.3. Gipuzkera (Goierry).....	96
1.4. Ipar goi-nafarrera (Ultzama).....	119
1.5. Hego-bizkaiera (Arratia).....	144
1.6. Areatza-ko corpusa.....	159
1.7. Areatza-ko diagrama akustikoak.....	164
1.8. Gaztelaniaren akustikaz zerbait.....	200
2. EUSKAL AZENTU-UNITATEA.....	211
2.1. Bokale-harmonia eta euskal azentu-unitatea.....	213
2.2. Beste zenbait fenomeno eta azentu-unitatea.....	228
3. AZENTUAREKIN LOTURA DUTEN FENOMENO BATZU.....	237
3.1. Euskal silabaren egitura.....	239
3.2. Bokale-geminazioa eta azentua.....	254
3.3. Hasperenketa eta azentua.....	262
3.4. Sinkopa euskal toponimoetan.....	270

4. MENDEBALDEKO AZENTU-SAILA.....	275
4.1. Hegoaldeko bizkaiera (Arratia).....	277
4.2. Mendebaldeko azentua (S. Altube; J. Basterretxea) (I).....	280
4.3. Mendebaldeko azentua (II).....	286
4.4. Gipuzkoa-ko bizkaiera (Oñati eta Antzuola).....	291
4.5. Itsasertzeko bizkaiera (Mendebaldea).....	301
4.6. Itsasertzeko bizkaiera (Ekialdea).....	312
4.7. Gaurko gipuzkera (idea batzu).....	319
4.8. XVIII. mendeko gipuzkeraren azentua (Larramendi-ren arauera)....	328
4.9. Bortzerrieta-ko nafarrera garaia.....	342
5. EKIALDEKO AZENTU-SAILA.....	351
5.1. Ultzama-ko nafarrera garaia.....	353
5.2. Hego-nafarrera garaia (XIX. mendea).....	366
5.3. Erronkaiera.....	380
5.4. Zuberera.....	387
6. ORTOEPIA BATURANTZ.....	407
Bibliografia.....	421
Aurkibidea.....	431